Lan-arriskuen prebentzioaren arauzko auditoretzarako eskuliburua

Lan-arriskuen prebentzioaren arauzko auditoretzarako eskuliburua

OSALAN
Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

Egileak

Abancéns Izcue, Alvaro (Osalan)
Beneitez Ballesta, Antonio (Fremap)
Erausquin Yabar, Joseba (Euskadiko Kooperatiben Konfederakundea)
López de Ipiña Peña, Jesús M.ª (LEIA Fundazioa)
Moreno Saracibar, Javier (Osalan)
Olaciregui Garbizu, Iñigo (Osalan)
Pardo Aldasoro, Rafael (Euga SP Auditoreak)
Tovar López, Alfonso (Ondoan A eta C)

Laguntzailea

Calvo del Rio, Rafael (Osalan)

Eskerrak

Arriaga Segura, Iñigo (Industria, Merkataritza eta Turismo Saila)
Pascual Uriguen, Elena (OSALAN)
AUDIPREVEN, Eskuliburu hau aztertzeagatik, berrikusteagatik eta hobetzeko proposamenak egiteagatik.

Argitaraldia:	2008ko apirila
Ale-kopurua:	100 ale
©	OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Autonomiaduna
Internet:	www.osalan.net
Argitaratzailea:	OSALAN. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Dinamita bidea, z/g, 48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)
Azala marraztea:	Ipar, S. Coop. Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao
Fotokonposaketa:	Ipar, S. Coop. Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao
Inprimaketa:	Gertu Inprimategia Oñati
ISBN:	978-84-95859-49-5
L.G.	SS-586-08
Oharra:	Badago gaztelaniazko liburu baliokidea, eta «Manual para la auditoría reglamentaria de prevención de riesgos laborales» izenburua du

AURKIBIDEA

Aurkezpena 7

Laburpena 9

1. atalburua. **Eskuliburuaren aurkezpena** 11

1.1. Hitzaurrea 13
1.2. Eskuliburuaren helburua eta norainokoa 14
1.3. LAPren arauzko auditoretzaren eredua diseinatzeko eta erabiltzeko printzipioak 14

2. atalburua. **Lan-arriskuen prebentzioaren arauzko auditoretzak** 19

2.1. Lan-arriskuen prebentzioaren arauzko auditoretzaren kontzeptua 21
2.2. Lan-arriskuen prebentzioaren arauzko auditoretzaren helburuak 22
2.3. Auditoretza-prozesuan esku hartzen duten alderdiak: zereginak eta erantzukizunak 23
2.4. Zergatik burutu behar da lan-arriskuen prebentzioaren arauzko auditoretza bat? 26
2.5. Lan-Agintaritzak baimendutako auditoreen prestakuntza 26

3. atalburua. **LAPren arauzko auditoretzaren prozesua** 31

3.1. Hasiera 33
3.2. Auditoretzaren prestakuntza 35
3.3. Gauzatzea 36
3.4. Txostena 37
3.5. Barruko eta kanpoko komunikazioak 39

Eranskinak 41

1. eranskina: Auditoretzaren hizkuntza. Definizioak 43
2. eranskina: LAP enpresa kudeatzeko sistema orokorrean nola integratu den baloratzea 53
3. eranskina: Bibliografia 65
4. eranskina: Galdetegiak 69
Oinarrizko galdetegia 75
Galdetegiaren blokeak 85
Galdetegi osagarriak 135
Galdetegi osagarriak 137
Jarduera berezien galdetegiak 283
Arrisku zehatzei buruzko galdetegiak 315
Galdetegi laburtuak 381
Oinarrizko galdetegia 383
Galdetegi osagarriak 403
Galdetegi osagarriak 405
Jarduera bereziei buruzko galdetegiak 423
Arrisku zehatzei buruzko galdetegiak 431

AURKEZPENA

Lan-Arriskuen Prebentzioari buruzko legeak (LPRL) azaltzen duenez, enpresaburuak lan-arriskuen prebentzioaz arduratu beharko du; horretarako, prebentzio-jarduera enpresan integratzeaz gain, langileen segurtasuna eta osasuna babesteko behar diren neurri guztiak ezarri beharko ditu. Integrazio hori enpresa kudeatzeko sistema orokorrean egin beharko da, bere jarduera guztietan, zein enpresako hierarkia-maila guztietan, lan-arriskuen prebentziorako plan bat ezarriz eta martxan jarriz.

Osalanek, 2005eko uztailean, prebentzioaren arloan ezarritako lege-berritasunen ondoren, enpresan Lan-Arriskuei Aurre Egiteko Plan bat ezartzeko Eskuliburua argitaratu zuen enpresei laguntza eman nahian, lege-betekizunekin bat etorriko zen Plan bat diseina eta ezar zezaten; horrela, gainera, eta neurri handi batean, nazioarteko ekimenek eskaintzen zituzten orientabideei jarraituko zitzaien (LANEren zuzentarauak, laneko segurtasuna eta osasuna kudeatzeko sistemei buruzkoak, eta OHSAS 18000 sailaren zehaztapenak aipa daitezke, hain zuzen).

Aurretik, 2001eko urrian, Osalanek argitara emana zuen Lan-Arriskuen Prebentzioko Auditorearen Eskuliburua eta, argitalpen hartatik urte batzuk pasatu direnez, egokitzat jo da eskuliburua eguneratzea eta LAPri buruzko legedian egindako aldaketei egokitzea.

Hona hemen aurkezten ari garen Eskuliburuaren helburuak: auditoreei tresna erabilgarria ematea lan-arriskuen prebentzioaren arauzko auditoretzak prestatzeko eta burutzeko, eta enpresei laguntza ematea LAPren kudeaketa hobetzeko.

Nire esker ona adierazi nahi diet Euga SP Auditoreak, Fremap, Leia Fundazioa, Euskadiko Kooperatiben Konfederakundea, Ondoan A&C eta Osalan erakundeetako teknikariei, Eskuliburu hau gauzatzeko egin duten lanarengatik.

IGNACIO MURGUÍA MAÑAS
OSALANEKO ZUZENDARI NAGUSIA

LABURPENA

LAPk ezartzen du enpresaburua lan-arriskuen prebentzioaz arduratuko dela, prebentzio-jarduerak enpresan integratzeko, eta langileen segurtasuna eta osasuna babesteko behar diren neurri guztiak ezartzeko. Integrazio hori enpresa kudeatzeko sistema orokorrean egin beharko da, bai bere jarduera guztietan, bai enpresako hierarkia-maila guztietan, lan-arriskuei aurre egiteko plan bat ezarriz eta aplikatuz.

LAPrako Plan bat osatzen duten jardueren artean, batzuk kudeatzeko tresnak dira eta bat datoz enpresa kudeatzeko edozein sistematan erabiltzen direnekin, Kalitatearen arloan, Ingurumenaren arloan, edo beste edozein arlotan. Beste batzuk, ordea, LAPren arau-arloko jarduera espezifikoak dira; hala nola, arriskuen ebaluaketa, lan-baldintzen aldizkako kontrola, istripu eta lanbide-gaixotasunen ikerketa, e.a. Bi jarduera-taldeak ezinbestekoak dira Prebentzio-Plana ongi garatzeko edo, gauza bera dena, LAP era sistematikoan eta eraginkorrean kudeatzeko.

LAPrako Planak, kudeatzeko sistema den aldetik, bere efikazia, eraginkortasuna eta xedea baloratzeko tresna izan behar du; halaber, egiaztatu behar du Plana egokia den prebentzio politikarekin bat etortzeko, eta enpresak LAPren arloan dituen helburuak betetzeko. Bi dira, orokorrean, horretarako proposatzen diren tresnak: Auditoretzak eta Zuzendaritzak egiten duen Berrikuspena, hain zuzen.

LAPren auditoretza, kudeatzeko sistema bat da; horren bidez, LAPrako Planaren efikazia, eraginkortasuna eta fidagarritasunaren ebaluaketa sistematiko, dokumentatu, aldizkako, objektibo eta independentea egiten da. Auditoretzak, kudeatzeko sistema bera eta LAPren kudeaketa eragiten ditu; hori dela eta, LAPren Politika eta Prozedurak, eta lantokiko baldintzak eta praktikak hartu behar ditu aintzat.

Auditoretzak baloratu behar du lan-arriskuen prebentzioa nola sartzen den enpresa kudeatzeko sistema orokorrean; halaber, enpresaren jardunaren aldi guztietan lan-arriskuei aurrea hartu, identifikatu, ebaluatu, zuzendu eta kontrolatzeko enpresak duen eraginkortasuna baloratu behar du.

LAPren auditorien inguruan aztertzen diren estatuko eta nazioarteko hiru eremuak honako hauek dira:

1. Prebentzio-Zerbitzuei buruzko Arautegiaren 30. artikuluak honela definitzen du auditoretza: lan-arriskuei aurrea hartzeko enpresaren sistema zehaztasunez islatu nahi duen kudeaketa-tresna, sistemaren eraginkortasuna baloratuz eta indarrean dagoen araudiaren urraketak ekar ditzaketen urritasunak detektatuz, hobetzeko eta aurreratzeko erabakiak hartu ahal izateko xedez.

2. OHSAS 18.001:1999 zehaztapen teknikoak, Laneko Segurtasun eta Osasuna Kudeatzeko Sistemek bete behar dituzten baldintzak ezartzen ditu. Zehaztapen tekniko honek azaltzen duenez, enpresak auditoretza eta prozedura programa bat ezarri eta mantendu behar du, lan-arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistemari aldizkako auditoretzak egin zatzaizkion.

OHSAS 18.001:1999 zehaztapenean oinarritutako Kudeaketa-Sistema lagungarria da arriskuak identifikatzeko eta lotutako arriskuen ezabaketa edo, hori ezean, beraien ebaluaketa, murrizketa eta kontrola metodoz eta sistematikoki kudeatzeko. OHSAS 18.001:1999 zehaztapenak legea betetzeko konpromezu adieraziaren beharra ezartzen du, eta hori OHSAS egiaztapen-auditoretzan baieztatuko da; baina legezko auditoretzan egiaztatzen da betetzen den ala ez eta, betetzerik ez badago, sistemak zertan egin duen huts egiaztatzen da.

3. LAPrako Planei buruzko LANEren Zuzentarauetan adierazten da aldizkako auditoretzak egiteari buruzko erabakiak hartu behar direla, egiaztatzeko ea LAPren plana eta bere elementuak abian jarri diren, eta langileen segurtasua eta osasuna zaintzeko eta gorabeherei aurrea hartzeko egokiak eta eraginkorrak diren.

Enpresako LAPren arauzko auditoretza egiteko irizpide moduan, OSALANek argitaratutako Eskuliburu honetan azaltzen direnak erabil daitezke.

Behin auditoretza egin ondoren, azken txostena idatziko da, auditoretzaren emaitzak biltzeko. Txostenaren edukia zehatza, argia, taxutua, egiaztagarria izango da eta ez du edukiko kontraesanik, komentario gehigarririk edo bazterreko aipurik. Txostenak, gainera, arauekin bat ez datozen aurkikuntza guztiak eta eusten dituzten nabaritasunen laburpena izan beharko ditu barne.

Enpresako zuzendaritzak, LAP kudeatzeko sistemaren politika, helburu eta beste elementu batzuen hobekuntzarako behar diren ekintzak burutu behar ditu, auditoretzen emaitzak, aldatzen diren zirkunstantziak eta etengabeko hobekuntzaren aldeko konpromezua kontutan izanda.

Jarraian aurkezten dugun Eskuliburuaren helburua, auditoreei tresna erabilgarri bat eskaintzea da, lan-arriskuei aurrea hartzeko arauzko auditoretzak prestatu eta egin ditzaten, eta enpresei laguntza ematea LAPren kudeaketa hobetzeko.

Eskuliburu honek erreferentzia berria izan nahi du LAPren arauzko auditoretza garatzeko. LAPLk eta berari lotutako araudiak eska ditzaketen baldintzak biltzeko eta sintetizatzeko ahalegina egin da eta, emaitza moduan, LAPren arauzko auditoretzak egiteko erabil daitekeen auditoretza-eredu bat lortu da.

Auditoretzaren irizpidea, enpresa ikuskatu bakoitzaren neurrira egiten da, bere jarduera-tipologiaren arabera, eta definitu egiten da; horretarako, Erreferentziazko Prebentzio-Sistema bat hartzen da oinarri gisa, sistema horrek enpresari ezar dakizkiokeen arauzko baldintza guztiak garatuko lituzkeelarik.

Zentzu horretan, auditoretza egiten denean, fase honek oinarrizko bi jarduera ditu:

1. Prebentzio-Sistema eusten duen dokumentazioak (Eskuliburuak, prozedurek eta jarraibideek, hain zuzen), enpresari ezar dakizkiokeen arauzko baldintzak, hau da, Erreferentziazko Prebentzio-Sistemaren baldintzak, hartzen dituztela barne.
2. Dokumentazioan deskribatutako prebentzio-jardueren ezarpen eta betetze maila egiaztatzea.

Dokumentutako prebentzio-sistemarik ez duten dimentsio txikiko erakundeen kasuan, oinarrizko lehen jarduera zentratuko da, soilik, dokumentu batzuen azterketan; hain zuzen ere, LAPri buruzko 31/1995 Legearen 23. artikuluak eta -LAPLren 1. artikuluari jarraiki- jarduerari ezar dakizkiokeen lege-eskakizunek exigitzen duten dokumentazioaren azterketan.

Bere edukiari dagokionez, Eskuliburu hau honela dago egituratuta:

Eskuliburu honen 1. atalburua aurkezpena da eta, gainera, zehaztasunez definitzen ditu garatutako auditoretza-eredua diseinatzeko eta erabiltzeko printzipioak.

2. atalburuak auditoretzekin zerikusia duten kontzeptuak laburbildu eta azaltzen ditu, LAPren auditoretzak eroale moduan erabilita.

3. atalburuak, bere aldetik, LAPren auditoretza batean jarraitu beharreko prozesu-tipoa garatzen du eta, horretarako, etapa ezberdinak eta bakoitzean burutu beharreko jarduerak definitzen ditu.

Azkenik, Eranskinen atalean —Eskuliburuaren atalik zabalenean, hain zuzen—, tresna multzo bat biltzen ditu. Horien artean, nabariak dira auditoretza-galdetegiak eta LAP enpresaren kudeaketa sistema orokorrean nola integratzen den baloratzeko metodo bat.

1. atalburua

Eskuliburuaren aurkezpena

1.1. Hitzaurrea

a) Lege-aurrekariak

89/391/CEE Zuzentarauak langileen laneko segurtasun eta osasunaren hobekuntza sustatzeko neurriak ezartzen ditu, eta erkidegoan prebentzio-politika abian jartzeko marko juridikoa hartzen du barne. 1995eko azaroaren 10eko EAOn argitaratu zen Lan-Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak, Espainiako Zuzenbidean irauli zuen aipatutako Zuzentaraua. Hain zuzen ere, lege horrek zehaztu nahi du, behar den berme eta erantzukizunen oinarrizko multzoa, langileen osasuna laneko baldintzetatik sortutako arriskuen aurrean babestearen maila egokia ezartzeko, eta hori, lan-arriskuei aurrea hartzeko politika koherente, koordinatu ea eraginkor baten markoan.

LAPi buruzko legeak ikuspegi berria eman zion lan-arriskuen prebentzioari, ez baita bakarrik enpresek bete beharreko betekizun-multzo bat, edo dagoeneko agerian dauden arriskuegoeren konponketa; aitzitik, enpresaren jarduera eta erabaki guztien parte da, enpresa-egitasmoaren hasieratik bertatik.

Prebentzioaren ikuspegi berria honela artikulatzen da, hain zuzen ere: lanari lotutako arriskuen hasierako ebaluaketatik aurrera egiten den prebentzioaren plangintzaren inguruan, eta, ondorioz, antzemandako arriskuen izaerari egokitutako neurriak ezartzearen inguruan.

LAPLk ezartzen du Gobernuak arautu beharko dituela, horretarako ematen den erregelamenduzko arauaren bitartez, langileen osasunerako arriskuen ebaluaketarako prozedurak; prebentzio-zerbitzuen antolaketa, funtzionamendu eta kontrolerako modalitateak; eta zerbitzu horiek bildu behar dituzten gaitasun eta trebeziak, eta prebentzio-jarduera garatzeko izendatzen diren langileek bildu behar dituztenak.

Lege-agindua betetzeko eman zen 39/1997 Errege Dekretua, Prebentzio Zerbitzuen Araudia (PZA) onartu zuena. Bertan aztertutako aspektuen artean, batzuk egiten dute posible lan-arriskuen prebentzioa, enpresaren jardueren multzoan eta hierarkia-maila guztietan integratzea. Eta hori, teknika, antolakuntza eta lan-baldintzak barne hartzen dituen plangintza baten bidez; eta, hori guztia, Legearen eraginkortasun, koordinazio eta partaidetza printzipioak buru direlarik.

Arriskuen ebaluaketa, behar den prebentzio ekintzaren plangintzara eraman dezakeen abiapuntu gisa, 39/1997 ED honetan arautzen diren antolakuntza-modalitateetako baten bidez burutuko da, enpresaren tamainaren arabera eta bertan garatzen diren jardueren arriskuen eta arriskugarritasunaren arabera.

Ebaluaketaren ondorioz enpresaburuak ezarri beharko lukeen prebentzio-jardueraren egokitasuna, bermatuta geratzen da 39/1997 EDn arautzen den mekanismo bikoitzaren bitartez: alde batetik, lan-agintaritzak egiaztatzea kanpoko prebentzio zerbitzuak, enpresaren baliabideak garatuko diren jarduerei egokitzen zaizkiela bermatzeko; eta, bestetik, prebentzio sistemaren auditoretza edo kanpo-ebaluaketa, jarduera hau enpresaburuak berak, bere baliabide propioez, bereganatzen dituenean.

Kanpoko prebentzio zerbitzuaren jarduerak, auditoretzarenak, edo prestakuntza-mailak eta funtzioak egiaztatzeko gaitasuna duen prestakuntza-erakunde baten jarduerak garatzeko baldintzak zehazten direnean, irizpide amankomunak ezartzeko xedez, 1997ko ekainaren 27ko Agindua eman zen, horren bidez, 39/1997 Errege Dekretua garatzen zelarik.

1997ko ekainaren 27ko Agindu horretan, eta zehaztasun osoz, ezartzen dira baldintzak, aipatutako jarduerak garatu nahi dituzten pertsonen edo erakundeen eskaerek bildu behar dituzten baldintzak hain zuzen; horrela, lan-agintaritzak behar adinako iritzi-elementuak izango ditu ebazpena ematerakoan. Azkenik, eta bere funtzionamenduan egon behar duen berme-eskakizun horri zuzenean lotuta, egiaztatzeko edo baimena emateko baldintzei eusten zaiela begiratu beharra ezartzen da, Prebentzio Zerbitzuen Arautegiari jarraiki.

b) Eguneko egoera eta abiapuntua

Lan-Arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak eta bere Arautegiak —39/1996 Errege Dekretuz onartu eta 604/2006 Errege Dekretuz aldatu zenak— honako hau bete arazten die enpresei Lan-Arriskuei aurrea hartzeko martxan jarri duen sistemaren egokitzapena berraztertzea, kanpoko auditoreen bidez: lehenengo prebentzio-plangintzatik urtebete bat pasatu ondoren, eta bere prebentzio-jarduera guztiak Kanpoko Prebentzio Zerbitzu batekin hitzartu ez badira, 604/2006 EDn ezarritako periodikotasunarekin errepikatu beharko den kanpoko auditoretza honi, «arauzko auditoretza» deitzen zaio, Eskuliburu honetan.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan (EAE), Kudeaketa sistemak ikuskatzeko prozedura ongi ezaguna da dagoeneko, asko baitira kalitate edo ingurumena kudeatzeko ziurtagiriak dituzten enpresak, ISO 9001:2000, ISO 14001:2004, e.a. bezalako nazioarteko arauetan oinarriturik. Hala ere, sistema horiei buruzko auditoretzek soilik borondatezko izaera dute, ezaugarri moduan eta, ondorioz, ez dira lege-betekizunak.

1999tik aurrera ere garatu zen, BSIren babespean, LAP kudeatzeko sistema bat, OHSAS 18001:1999 zehaztapen teknikoarekin, eta AENOR erakundeak 2000an argitaratu zuen gaztelaniaz. Zabaltasunez erabili da, sektore batzuetan, ezaugarri bikoitz batengatik: batetik, ISO 14001:2004 ingurumen kudeaketarako arauarekin duen antzarengatik; eta, bestetik, biak integragarriak direlako enpresa kudeatzeko sistema bakar batean.

Lan-Arriskuei aurrea hartzeko sistemaren ikuskaritza lege-betekizuna izanik, gehitu behar da OHSAS 18001:1999 zehaztapen teknikoak, oinarrizko printzipio gisa, indarrean dauden lege-eskakizunak betetzea planteatzen duela (gure kasuan LAPL eta ondoren garatzeko eman den legedia dira lege-eskakizun horiek) eta, aldi berean, enpresan garatutako prozesuen eta emaitzen etengabeko hobekuntza sartzen duela.

c) Agiriaren justifikazioa

Azken urteetan agertu diren lege-erreformak eta berritasunek, eta LAPren arloko araudiaren aplikazioan lortu den esperientziak, bereziki arauzko auditoretzen arloan, beharrezko bihurtu dute agiri hori berrikustea eta eguneratzea.

Beste alderdi bat, oinarrizkoa, izan behar dugu kontutan: enpresek planteatu duten beharra, arauzko auditoretzaren norainokoa argi eta garbi ezagutzekoa, hain zuzen.

1.2. Eskuliburuaren helburua eta norainokoa

Lan-arriskuen prebentziorako arauzko auditoretzak prestatzeko eta egiteko tresna baliagarria eman nahi die Eskuliburu honek auditoreei.

Eskuliburu honetan, arauzko auditoretzatzat hartzen da Lan-Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legeak ezarritakoa (30.6 art.), kontutan izanik Lege hori Prebentzio Zerbitzuen Araudia onartzen duen 39/1997 EDk garatu zuela, eta 604/2006 EDak aipatutako 39/1997 ED aldatzen zuela.

1.3. LAPren arauzko auditoretzaren eredua diseinatzeko eta erabiltzeko printzipioak

PZAren 30. artikuluak adierazten du arauzko auditoretza «*ezarrita dauden edo ezar daitekeen arau teknikoei*» jarraiki egin beharko dela.

Enpresen errealitatea eta lan-arriskuen prebentzioa kudeatzearen arloko berrikuntza kontutan izanik, eskuliburu honek auditoretza-eredu bat garatu du, non ikuskatu behar diren arauzko betekizunak ordenatzen baitira, 1.1 Taulan azaltzen den egiturari jarraiki.

Hau da, auditoretzarako irizpide moduan hartzen dira, LAPLren arabera diseinatutako Erreferentziazko Prebentzio-Sistema batek bete behar dituen eskakizunak, LAPren arloan enpresari ezar dakizkiokeen arauzko eskakizun guztiak barne dituelarik. Eredu hori berariazkoa da enpresa bakoitzerako, bere industria-jardueraren eta arrisku zehatzen arabera. Zentzu horretan, begi bistakoa da enpresaren jarduera zenbat eta konplexuagoa izan, eta zenbat eta handiagoa izan inplikatutako arriskuen tipologia eta garrantzia, handiagoak izango direla erreferentziazko sistemaren eskakizunak.

1.1 TAULA. Auditoretza-ereduaren arauzko eskakizunen egitura

1. **Enpresaren identifikazioa**, bere prebentzio-jarduerarena, lantokien kopurua eta ezaugarriak eta langileen kopurua eta ezaugarriak, LAPrako garrantzia baldin badute.
2. Enpresaren **antolamoldea eta egitura**, bere hierarkia-maila bakoitzak bereganatzen dituen zereginak eta erantzukizunak, eta beraien arteko komunikabideak identifikatuz (hau da, langileen kontsulta eta partaidetza, barne zein kanpo informazioa eta komunikazioa, dokumentazioa eta argibideak, e.a.).
3. **Ekoizpenaren antolamoldea**, enpresaren barruan eta LAPen inguruan dauden prozesu tekniko ezberdinen, praktiken eta antolakuntza-prozeduren identifikazioari dagokionez.
4. P**rebentzioaren antolamoldea** enpresan, hautatutako prebentzio-modalitatea eta bertan dauden ordezkaritza-organoak adierazita.
5. Enpresak **prebentzioaren arloan** lortu nahi dituen **politika, helburuak eta helmugak,** eta horretarako izango dituen giza teknika, material eta ekonomia baliabideak.
6. Saihestu ezin izan diren **arriskuen ebaluaketa,** abian jarri behar diren prebentzio-neurrien inguruko informazioa enpresaburuari emateko.
7. **Prebentzio-jardueraren plangintza**, lehentasun-ordena bati jarraiki, arriskuen larritasunaren eta arriskupean dauden langile-kopuruaren arabera, prebentzio-jardueraren printzipioei jarraiki.
8. **Larrialdietarako neurriak.**
9. **Arrisku larria eta hur-hurrekoa.**
10. **Arrisku zehatzekiko sentiberatasun handia duten langileak, amatasunaren babesa eta adin txikikoen lanak.**
11. **Langileen trebakuntza eta informazioa.**
12. **Kontrol-jarduerak**.

1.1 Taulan eskaintzen diren 12 eskakizunez gain, jarraian eta zehaztasun osorik gabe azaltzen diren beste batzuk (LAPLren 1. artikulua) sartzen dira Erreferentziazko Prebentzio Sisteman, kasuen arabera; eta eskakizun berri horiek LAPen arloan enpresari ezar dakizkiokeen beste lege-xedapenek sar ditzakete.

—Araudi gehigarria: lantokiak, seinaleztapena, lan-ekipoak, industria segurtasunerako instalakuntzak eta ekipoak, e.a.
—Jarduera partikularrei buruzko araudia: eraikuntza-lanak, arrantza-ontziak, meatzaritza-jarduerak, e.a.
—Arrisku bereziei buruzko araudia: zarata, eragile biologikoak, minbizi-sortzaileak, eragile kimikoak, e.a.
—Hitzarmen kolektiboak, e.a.

Bai araudi-eskakizun orokorrak (LAPL, PZA, e.a.), bai araudi gehigarritik eratorriak (lantokiak, seinaleztapenak, lan-ekipoak e.a.), jarduera partikularrei buruzko arauditik eratorriak (eraikuntza-

lanak, arrantza-ontziak, meatzaritza-jarduerak, e.a.) eta arrisku bereziei buruzko arauditik eratorriak (zarata, minbizi-sortzaileak, eragile biologikoak, e.a.), ahal den neurrian, 1.1 taulan azaldutako hamabi ataletan egituratzen dira.

Eskuliburu honetan garatutako auditoretza-eredua, 1.2 Taulari jarraiki egituratzen da eta enpresaren prebentzio-sistema ebaluatzen du, exigitu daitezkeen araudi-eskakizunen aurrean (1.1 Taularen atal bakoitzean azaltzen direlarik). Zentzu horretan, enpresak erabiltzen duen LAP kudeatzeko eredua kontutan izan gabe, LAPLren 30.6 artikuluan aurrikusitako araudizko auditoretzak sistema ebaluatuko du, exigitu daitezkeen araudi-eskakizunak oinarritzat hartuz. Ezarritako sistemak, gutxienez, eskakizun horiek betetzen direla bermatu beharko du.

Enpresa bakoitzean ezarri beharreko auditoretza-irizpidea definitzeko jarraitu behar den prozedura honako hau izango da (ikus 1.2 Taula):

1. Lehenik, auditoreak 1. atalaren oinarrizko itemak aukeratuko ditu beti.
2. Jarraian, enpresa-jardueraren eta inplikatutako arriskuen arabera, item gehigarriak, jarduera partikularrak eta enpresari ezar dakizkiokeen 2, 3 eta 4 ataletako arrisku espezifikoak aukeratuko ditu auditoreak.
3. Item-multzo honek auditoretzaren irizpidea eratuko du; hau da, enpresan ezarritako erreferentziazko prebentzio-sistemari exigitu dakizkiokeen eskakizunak eratuko ditu.

OHARRA: praktikan, hautaketa hau instalazioak bisitatzen direnean gauzatzen da. Bisitaldia zehaztasunez egiten da eta, bertan, auditoretzak enpresan egiten den prebentzioa ikuskatzen du, ondoren agiriekin alderatu ahal izateko.

Auditoretzaren prozesua errazteko xedez, Eskuliburuak auditoretzarako galdetegi-multzo bat dauka, ikuska daitezkeen arauzko eskakizun ezberdinen inguruan. Egitasmo honen zabalerarengatik, lantaldeak ebaluazio-galdesortarik ohikoenak garatu ditu, lehendik egindako galdetegirik ez egotekotan, ulertzen baita auditoreak bereak egin beharko dituela, edo aurkezten zaizkion kasu partikularrei egokitu ahal izango dizkiela proposatutako galdesortak

Argitalpen honetan sistematika zabal bat eta galdetegi zehaztuak garatu dira, **agiri-eskakizunen** auditoretzari dagokionez; hain zuzen ere, eskakizun horiek lotuta daude industria-segurtasunerako instalazioen eta ekipoen instalakuntzari, abian jartzeari, funtzionamenduari, mantenuari, ikuskaritzari eta desegiteari.

Auditoreak enpresaren prebentzio-sistema ebaluatuko du, auditoretzaren irizpideari kontrajarrita, oinarrizko bi jarduera eginez:

—**Prebentzio-sistemaren agirien berrikuspena**. Lehen jarduera honetan, auditoreak sistemak garatzen duen dokumentazioa berrikusten du (LAPLren 23. art., PZAren 7. art.), eta egiaztatzen du dokumentatutako jarduerak egokiak direla exigitu daitezkeen arauzko baldintzak betetzeko.
Auditoretzak sistemaren agiriak ebaluatzen ditu, non enpresak «EGITEN DUENA ESATEN BAITU», eta egiaztatzen du «EGITEN OMEN DITUEN» jardueren bidez, ezar daitezkeen arauzko baldintzak bermatzeko gauza den.

—**Prebentzio-jardueren ezarpena eta eraginkortasuna egiaztatzea.** Bigarren jarduera honetan, auditoreak egiaztatzen du ea enpresak «ESATEN DUENA EGITEN DUEN»; hau da, sistemaren dokumentazioan definitutako prebentzio-jardueren ezarpen-maila ebaluatzen du, arauzko baldintzen betetzeari dagokionean.

Lehen azaldu den moduan, auditoreak Eskuliburuan ematen diren auditoretza-galdetegiak erabil ditzake, edo bereak garatu ditzake, enpresa bakoitzaren prozedura espezifikoak ikuskatzeko.

Bi jarduerak egun berean egin daitezke, edo azpi-faseetan zatitu daitezke, auditoreak kasu bakoitzean jarraitzen duen prozeduraren arabera.

1.2 TAULA

ITEM		A/NA	AUDITOREA	NC
OINARRIZKOAK	1. Enpresaren identifikazioa 2. Antolamendua eta egitura 3. Ekoizpenaren antolamendua 4. Prebentzioaren antolamendua 5. Politika, helburuak eta helmugak LAPean. 6. Arriskuen ebaluaketa 7. Prebentzio-jardueraren plangintza 8. Larrialdietarako neurriak 9. Arrisku larria eta hur-hurrekoa 10. Arrisku zehatzekiko sentiberatasun handia duten langileak, amatasunaren babesa eta adin txikikoen lanak 11. Langileen trebakuntza eta informazioa 12. Kontrol-jarduerak			
OSAGARRIAK	A.1. Lanlekuak A.2. Seinaleak A.3. Lan-ekipoak A.4. Industria-segurtasunerako instalazioak eta ekipoak A.5. Norberaren babeserako ekipoak A.6. Zamak eskuz manipulatzea A.7. Bistaratzeko pantailak A.8. Instalazio elektrikoak A.9. Aldi baterako laneko enpresak A.10. Enpresa-jardueren koordinazioa			
JARDUERA BEREZIAK	B.1. Eraikuntza-lanak B.2. Arrantza-ontziak B.3. Meatzaritza-jarduerak			
ARRISKU ZEHATZAK	C.1. Agente biologikoak C.2. Agente kantzerigenoak C.3. Agente kimikoak C.4. Erradiazio ionizatzaileak C.5. Zarata C.6. Substantzia arriskutsuak C.7. Bibrazioak C.8. Amiantoa C.9. Atmosfera leherkorrak			

2. atalburua

Lan-arriskuen prebentzioaren arauzko auditoretzak

2.1. Lan-arriskuen prebentzioaren arauzko auditoretzaren kontzeptua

Prebentzio-Zerbitzuei buruzko Arautegiak (PZA) bere 30. artikuluan honela definitzen du **auditoretza**: kudeatzeko tresna bat, enpresaren lan-arriskuen prebentziorako sistema zehaztasunez islatzeko helburua duena, sistemaren eraginkortasuna baloratuz eta indarrean dagoen araudia hautsi dezaketen akatsak detektatuz, perfekzionatzeko eta hobetzeko erabakiak hartu ahal izateko.

Era berezian azpimarratzen dira auditoretzak halabeharrez bete behar dituen kontzeptu hauek:

—Betebeharrekoa bere abaliabide propioekin edo kanpoko eta bertako baliabideak konbinatuz, prebentzio-jarduerak garatzen dituzten enpresentzat.
—Sistematikoa: hau da, era ordenatuan eta segida metodologiko batekin ikuskatzen da.
—Dokumentatua: emaitzak txosten batean erregistratzen dira.
—Objektiboa: ebidentzia zehatzak ebaluatzen dira.
—Aldizkakoa: denborazko kadentzia bat dauka.
—Independentea eta kanpokoa: auditorea inpartziala da eta ez du inolako loturarik enpresarekin.

Argi adierazten da, **helburua, bi aspektu hauek ebaluatzea dela: enpresan nola integratzen den prebentzioa, eta enpresan lan-arriskuei aurrea hartzeko sistemaren eraginkortasuna**; eta ez ikuskatzea bakarrik araudiaren betetzea.

Laburbilduz, lan-arriskuen prebentzioaren arauzko auditoretza ulertu behar da, LAPLren 30.6 artikuluan azaltzen den moduan eta PZAren V Atalburuan garatzen den moduan:

—Ez da arau baten betetzeari buruzko arauzko ikuskaritza.
—Ez da esklusiboki enpresari ezar dakiokeen legediaren arauzko betetzeari buruzko auditoretza bat.
—Bada, ordea, auditoretza bat, ezar daitezkeen arauzko baldintzei jarraiki enpresan ezarritako prebentzio-sistemaren funtzionamendua eta eraginkortasuna egiaztatzeko; eta, hortaz, auditoretzaren jardueren artean, sistemak berak enpresari aplikatu dakiokeen legedia betetzen dela bermatzeko gaitasuna zehaztuko da. LAPren arauzko auditoretzak ezar daitekeen legediaren hausteak detektatuko dituenez, auditoreak, ez betetzeen kopuru eta larritasunen arabera, baloratuko du prebentzioa nola integratzen den enpresa kudeatzeko sistema orokorrean, bai jarduera guztien multzoan, bai enpresaren hierarkia-maila guztietan, lan-arriskuen prebentziorako planaren ezarpen eta aplikazioaren bitartez; eta baloratuko du ere prebentzio sistemaren eraginkortasuna, enpresaren jardueraren aldi guztietan lan-arriskuak prebenitu, identifikatu, ebaluatu, zuzendu eta kontrolatzeko.
—Bada ere, auditoretza bat baloratzeko LAPren integrazio-maila enpresa kudeatzeko sistema orokorrean (enpresaren zuzendaritzan, enpresaren ekipoen, produktuen eta antolakuntzaren aldaketetan, instalazio edo ekipoen mantenuan, eta arriskutsuak izan daitezkeen jardueren ikuskatzailetzan, beste aspektu batzuen artean).

Horrela ulertuta, lan-arriskuen prebentzioaren arauzko auditoretza, enpresaren hobekuntza eta lehiakortasunerako tresna bihurtzen da.

Edonola ere, lan-arriskuen prebentziorako sistemaren arauzko auditoretzak, konbinatu behar ditu betetze-mailaren ebaluaketak (hau da, ezarritako arauzko betekizunekin lan egitea) eta sistemaren eraginkortasunaren ebaluaketa (arauzko betekizunek aurrikusitako helbururako balio izatea, hain zuzen) eta, zentzu horretan, goian azaldu dugun moduan, argi eta garbi agertzen zaizkigu bi jarduera:

—Dokumentazioaren berrikuspena, sistema garatzen duen agiri-euskarria, erreferentziazko irizpidearen eskakizunekin bat datorrela egiaztatzeko; hain zuzen ere, dagokigun kasuan, arauzko betekizunekin (LAPLren 23. art. Eta PZAren 7. art.).

—Jardueren ezarpen-maila egiaztatzea, aplika daitezkeen arauzko eskakizunen betetzeari dagokionean.

Azkenik, beste aspektu garrantzitsu bat azpimarratu behar da: hain zuzen ere, auditoretza l**aginketa** bat dela; hau da, ikuskatu behar den objektuaren (prebentzio-sistemaren) lagin bat hautatzen da, eta sistema osoari buruzko ondorioak lortzen dira. Horrek esan nahi du auditoretza-irizpidearekiko desbideratzeak —auditoretza-prozesuan ikuskatzaileak identifikatu ezin izan dituenak— egon daitezkeela.

2.2. Lan-arriskuen prebentzioaren arauzko auditoretzaren helburuak

PZAk arauzko auditoretzarako definitzen dituen helburuak (30. art.), 2.1. taulan ematen dira.

PZAren 31 bis artikuluak adierazten duenez, prebentzio-jarduerak beraien baliabideen eta kanpoko baliabideen bidez garatzen dituzten enpresen prebentzio sistemak, honako helburu hau izango du: enpresaburuak enpresaren baliabideen bitartez garatzen dituen prebentzio-jarduerak, eta jarduera horiek enpresa kudeatzeko sistema orokorrean nola sartzen diren, kontutan izanik, batetik, sistema horrek antolakuntzaren modu mistoan izan dezakeen eragina, eta, bestetik, lan-arriskuen prebentziorako planaren markoan, enpresaren baliabideak eta enpresatik kanpokoak koordinatzeko modua.

2.1 TAULA. LAPren arauzko auditoretzaren helburuak

ARAUZKO BETEKIZUNA	DESKRIBAPENA
HELBURUAK *(PZA, 30. art.)*	Begiratzea nola egin den arriskuen hasierako eta aldizkako ebaluaketa, horren emaitzak aztertzea eta egiaztatzea, zalantzarik egotekotan. Begiratzea ea prebentzio-jardueren mota eta plangintza bat datorren araudi orokorrarekin, eta arrisku berezien inguruan ezar daitekeen araudiarekin, ebaluaketaren emaitzak kontutan izanda. Aztertzea ea bat datozen, batetik, behar diren prebentzio-jarduerak burutzeko prozedurak eta baliabideak eta, bestetik, enpresaburuak bere esku dituen baliabideak, bereak edo hitzartuak, kontutan izanik, gainera, antolatzeko edo —hala badagokie— koordinatzeko modua. Aurreko guztiaren arabera, baloratzea prebentzioa nola sartzen den enpresa kudeatzeko sistema orokorrean, jarduera guztien multzoan zein enpresaren hierarkia-maila guztietan. Eta baloratzea ea integrazio horretarako, lan-arriskuen prebentzio-Plana ezartzen eta aplikatzen den. Azkenik, baloratu behar da ere prebentzio-sistemaren eraginkortasuna, enpresaren jarduera-aldi guztietan lan-arriskuak prebenitu, identifikatu, ebaluatu, zuzendu eta zuzentzeko. Horretarako neurtu beharko da prebentzioa zein mailatan sartzen den enpresaren zuzendaritzan, enpresaren ekipamendu, produktu eta antolakuntzaren aldarazpenetan, instalazio edo ekipoen mantenuan eta arriskutsuak izan daitezkeen jarduerak gainbegiratzean.

Lan-arriskuen arauzko auditoretza baten helburu osagarrien artean, honako hauek aipa daitezke:

—Prebentzioaren arloan indarrean dauden legedia eta araudia betetzen direla egiaztatzea.
—Zuzendaritzari prebentzio-sistemaren funtzionamendu eta egokitzapenari buruzko informazioa ematea, eta konfidantza ematea, laneko segurtasun eta osasunaren arloan burutzen ari diren jardueretan.
—Ikuskatutako prebentzio-sistemaren hobekuntza-arloak identifikatzea.

2.3. Auditoretza-prozesuan esku hartzen duten alderdiak: zereginak eta erantzukizunak

Auditoretza batean parte hartzen duten oinarrizko alderdiak —ikuskaritza arauzkoa den ala ez kontutan izan gabe— honako hauek dira:

—Bezeroa: Ikuskaritza-entitateari auditoretza egiteko agindua ematen dion erakundea.
—Ikuskatua: Auditoretzaren helburu den erakundea, edo horren parte bat.
—Auditorea: Ikuskaritza egiten duen pertsona fisiko edo juridikoa. Halaber, Auditore taldea deritzo ikuskaritza egiteko izendatu den auditore-taldeari edo auditoreari.
—Ekipo-buruari Auditore burua deritzo; ikuskaritzaren erantzukizun globala bere gain hartzen du eta bezeroaren solaskide nagusia da. Azken batean, auditoretzaren azken erantzulea da.
Gainera, auditore taldearen barruan ere Begiralearen irudia sar daiteke; ikuskatuak izendatutako pertsona da, auditoretzan lekuko gisa bertaratu dadin, edo etorkizunean enpresako barne-auditorea izateko prestakuntza-prozesuaren barruan.

2.2 taulan alderdi ezberdinen zereginak eta erantzukizunak laburbiltzen dira.

2.3 taulan ikuskatuari ezar dakizkiokeen arauzko betekizunak azaltzen dira. 2.4 taulan, ordea, baimendutako auditoretza-erakundeek izan behar dituzten baliabideak, eta 2.5 taulan, azkenik, Lan-Agintaritzak LAPen arauzko auditoretzak egin ahal izateko baimenak emateko prozedura aurkezten da.

2.2 TAULA. Auditoretza batean esku hartzen duten alderdien zereginak eta erantzukizunak

BEZEROA	IKUSKATUA	AUDITORE TALDEA	
		AUDITORE BURUA	AUDITORE
• Ikuskaritza entitatea hautatzea. • Auditoretza burutzeko behar diren agintaritza eta baliabideak ematea. • Auditoretzaren norainokoa ezartzea, auditore buruari aholkua eskatu ondoren. • Auditore taldearen irizpideak eta osakera eta auditoretza plana onartzea. • Auditoretza-txostena jasotzea eta banaketa zehaztea. • Auditoretzaren emaitzen ondorioz abian jarri behar diren ekintzak zehaztea eta, hala badagokio, ikuskatua jakinaren gainean jartzea.	• Auditoretzaren helburu eta norainokoa ezagutzea, eragindako langileei, horri buruzko argibideak ematea, eta beraien lankidetza eskatzea. • Auditore taldearen esku jartzea auditoretza ongi garatzeko behar diren baliabideak (arriskuak, ezarri beharreko prebentzio-neurriak, koordinazio-arauak, e.a.). • Industria-establezimenduan auditore taldeko kideak lagunduko dituzten langileen agintariak izendatzea, eta ziurtatzea agintari horiek ezagutzen dituztela industria prozesua eta establezimenduari ezar dakizkiokeen segurtasun eta osasun baldintzak. • Auditore taldeko kideei lankidetza ematea eta auditoreek eskatutako instalakuntzak, langileak, informazio adierazgarria eta erregistroak ezagutzeko erraztasunak ematea. • Auditoretzaren ondorioz abian jarri behar diren ekintzak zehaztea. • Auditoretzaren txostenaren kopia jasotzea, bezeroak kontrakoa adierazten ez badu.	• Esleitutako auditoretza bakoitzaren eskakizunak ezartzea, behar diren auditoreen prestakuntza barne. • Auditore taldea osatzea, izango dituen gainerako kideen hautaketan parte hartuz. • Auditore taldearen jarduerak zuzentzea eta horretarako behar diren jarraibideak ematea. • Bezeroari kontsultatu ondoren, auditoretzaren norainokoa erabakitzea. • Auditoretza-plana prestatzea bezeroarekin, ikuskatuarekin eta auditore-taldeko kideekin bat, eta interesdun horiei jakin araztea. • Ikuskatuari buruzko argibideak lortzea, behar baldin badira: hain zuzen ere, jarduerak, produktuak, zerbitzuak, kokapena eta aurretik egindako auditoretzak. • Lan-agirien prestakuntza koordinatzea. • Auditore taldea ordezkatzea ikuskatuaren aurrean. • Auditoretza egitean sor litezkeen arazo guztiak konpontzea. • Ikuskatuari bat ez etortze kritikoen berri ematea, berehala. • Ikuskatuari, era argi eta eztabaida ezinean, auditoretzaren emaitzak jakin araztea, auditoretza-planean ezarritako epeetan. • Auditoretzarako definitu den norainoko osoa betetzen dela ziurtatzea. • Enpresa ikuskatuak edo bezeroak, LAPren inguruan ematen dizkion arauak betetzea eta bete araztea.	• Bere ekintza auditoretzaren norainokora soilik mugatzea, eta auditoretzarako ezarri diren eskakizunei jarraiki jokatzea. • Auditore buruaren zuzendaritzapean prestatzea behar diren lan-agiriak. • Auditore buruari lankidetza ematea, bere jarraibideen arabera, eta auditoretzan laguntzea. • Objektibotasunez eta era etikoan aritzea, definitutako prozedurei jarraiki. • Auditoretzaren norainokoaren barruan esleitutako lanak planifikatzea eta objektibotasunez eta eraginkortasunez burutzea. • Ikuskatutako LAPZOren eraginkortasunari buruzko aurkikuntzak zehazteko eta auditoretza-ondorioak lortzeko behar diren auditoretza-ebidentziak biltzea eta aztertzea. • Auditoretzari buruzko agiriak zaintzea, bere konfidentzialtasuna bermatuz. • Auditoretzaren norainokoa alda lezakeen edozein gertaerari edo egoerari begiratzea. • Auditoretzan aurkitutakoak dokumentatzea eta auditoretza-txostena idazteko laguntza ematea. • Enpresa ikuskatuak edo bezeroak azaltzen dituen LAPrako arauak betetzea.

2.3 TAULA. Arauzko eskakizunak

ITEM	IKUSKATUAK BETE BEHARREKO ARAUZKO ESKAKIZUNAK	LEGE-EBAZPENA
ENPRESABURUA-REN BETEBEHARRA	• Prebentzio-sistema kanpoko auditoretza baten kontrolpean jartzea, Prebentzio-Zerbitzua enpresatik kanpoko entitate espezializatu batekin hitzartu ez denean. • Prebentzio-sistema kanpoko auditoretza baten kontrolpean jartzea, enpresek prebentzio-ekintzak enpresako eta kanpoko baliabideen bidez burutzen dituztenean. • Lan-Agintaritzak baimendutako pertsona edo entitate espezializatuekin hitzartzea auditoretza.	LAPL 30.6 art. PZA 29.1 art. eta 29.2
SALBUESPENAK	• Gehienez 6 langile dituzten enpresak, beraien ekintzak ez badaude sartuta PZAren I. Eranskinean, eta enpresa horietan prebentzio zerbitzuak enpresaburuak ez baditu pertsonalki bere gain hartu, edo langile bat edo gehiago izendatu baditu ekintza horiek burutzeko; eta, azkenik, enpresa horietan, prebentzio-sistemaren eraginkortasuna begi bistakoa baldin bada (langile-kopuru mugatuarengatik eta prebentzio-jardueren konplexutasun txikiarengatik). • Baldintza: Auditoretza beharrezkoa ez izatera daramaten baldintza horiek batera agertzeari buruzko jakinarazpena betetzea, eta Lan-Agintaritzari bidaltzea; horretarako, PZAren II. Eranskinean ezarritako eredua erabili behar da, eta aurretik Lan-Agintaritzak ez du kontrakorik esan behar. EAEn erabili beharreko eredua OS-3da. • Edonola ere, Lan-Agintaritzak enpresa horiei auditoretza bat egitea eska dezake.	PZA 29.3,4 art.
ALDIZKAKOTASU-NA	• Lan-arriskuen Prebentziorako Araudian zehazten dena.	PZA A30.4 art.
LANGILEEN PARTAIDETZA	• Enpresaburuak langileei kontsultatu beharko die; halaber, auditoretzaren burutzean parte hartzen utzi beharko die. • Auditoreak langileen ordezkariei eskatu beharko die auditoretzaren edukia osatzen duten elementu ezberdinei buruzko informazioa. • Enpresa ikuskatuak langileen ordezkarien esku izan beharko du auditoretzaren emaitzei buruzko txosten bat.	PZA 30.5 art. Eta 31.1
DOKUMENTAZIOA	• Auditoretzaren emaitzak islatu beharko dira txosten batean; enpresa ikuskatuak, eskuduntza duen lan-agintaritzaren esku eta langileen ordezkarien esku izan beharko duen txosten batean, hain zuzen.	PZA 31 art.

2.4. Zergatik burutu behar da lan-arriskuen prebentzioaren arauzko auditoretza bat?

Lan-arriskuen prebentzioari buruzko auditoretzak egin daitezke, jarraian azaltzen den arrazoi batengatik edo batzuengatik:

—Hobetzeko tresna gisa eta ohiko eran, enpresan egiaztatzeko lan-arriskuen prebentzioari lotutako kontuak «egin behar omen diren moduan egiten direla».
—Lan-arriskuen prebentzioaren arloan ezarritako ekintza zuzentzaileen jarraipena egiteko xedez.
—Lan-arriskuei aurrea hartzeko sistema aldatzearen ondorioz, erakundearen jardueretan, produktuetan edo zerbitzuetan egondako aldaketa batengatik.
—Enpresan ezarritako lan-arriskuen prebentzioa kudeatzeko sisteman oinarritzen den kudeaketa-arauaren eskakizunak betetzeko.
—Lan-arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistema egiaztatzeko eta aldizka berrikusteko.
—Erosi nahi dugun enpresa batean edo gure lankide izatea nahi dugun enpresa batean lan-arriskuei aurrea hartzeko sistemaren egokitzapen-maila egiaztatzeko.
—**Lege-aginduz**, arauzko auditoretzen kasuan, LAPLri jarraiki:

- Prebentzio-zerbitzua enpresa espezializatu batekin hitzartu ez duten enpresetarako (LAPL 30.6 art. - PZA 29.1 art.), beren tamainarengatik edo konplexutasunarengatik salbuetsita ez badaude (PZA 29.3 art.),
- Lan Agintaritzak eskatzen duen bakoitzean (PZA 30.4 art.),

2.5. Lan-Agintaritzak baimendutako auditoreen prestakuntza

Lan-arriskuen prebentziorako sistemen auditoretzak egiten dituzten erakundeek, Lan-Agintaritzaren administrazio BAIMENA izan behar dute. Justizia, Lan eta gizarte Segurantza Sailak, EAEn eskuduntza duen organoa den aldetik, baimendutako auditoretza erakundeen erregistro eguneratua dauka.

Baimena lortzeko prozedura, Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioaren 1997-6-27ko aginduaren II. kapituluan dago jasota.

2.4 eta 2.5 tauletan auditoretza erakundeek eta egiaztatzeko prozedurak bete behar dituzten arauzko eskakizunak.

2.4 TAULA. Arauzko eskakizunak: Lan-Agintaritzak baimendutako Ikuskaritza Erakundeen baliabideak.

ITEM	AUDITOREAK BETE BEHARREKO ARAUZKO ESKAKIZUNAK (1)	LEGE-EBAZPENA
ERAKUNDE-MOTA	• Pertsona fisiko edo juridikoak.	PZA 32.1 art.
EZAGUTZAK ETA GAITASUNAK	• Auditoretzaren helburu diren jarduerak burutzeko ahalmena. Hasieran edo aldizka egindako arrisku-ebaluaketen egokitasuna zehaztea, emaitzak aztertzea eta egiaztatzea. Arrisku-ebaluaketaren ondorioz egin behar diren prebentzio-jarduera mota ezberdinak frogatzea, arrisku horiek ezabatzeko, kontrolatzeko eta murrizteko, eta prebentzio-jarduera horiek planifikatzea. Egin beharreko prebentzio-jarduera burutzeko eskatzen diren prozedurak, giza baliabideak eta baliabide materialak, enpresaburuak dituen baliabide propioei edo hitzartuei egokitzen zaizkien zehaztea.	PZA 32.1 art. 97-06-27ko agindua 4.1 art.
GUTXIENEKO GIZA BALIABIDEAK	• Pertsona fisikoa: Goi mailako aditua, lau espezialitateetako batean, prestakuntza edo esperientzia frogatua kudeaketan eta auditorietan, eta ikuskaritza-tekniketan. • Erakunde espezializatuak, baldintza horiek betetzen dituen aditu bat izango du, gutxienez.	PZA 32.1 art. 97-06-27ko agindua 4.2 art.
LOKALAK ETA INSTALAZIOAK	• Exigitzen diren gutxieneko lokalak, instalazioak, tresnak eta ekipoak, aurreko atalean aurrikusitako jarduerak garatzeko behar adinakoak eta egokiak izango dira. • Erakunde espezializatuak, arrisku-ebaluaketaren emaitzak egiaztatzeko behar diren baliabide materialak izan beharko ditu. • Gainera, goi mailako adituak izan beharko ditu edo, hala badagokio, hitzartuak —4. atalean aurrikusitakoari jarraiki—, beste espezialitate edo diziplinetan, egiaztapenak egin ahal izateko.	PZA 32.1 art. 97-06-27ko agindua 4.3, 4.4 art.
AZPIKONTRATAZIOAK	• Bakarrik egiaztapenen konplexutasunak hala behar duenean (neurketak, analisiak, probak, saiakuntzak edo osasunaren azterketak aipa daitezke, adibidez), hitzartu ahal izango da, egiteko behar diren ezagutzak, baliabideak eta instalazioak dituzten profesionalekin; horrelakoetan, ez da beharrezkoa izango pertsona edo erakunde espezializatuek egiaztapen hori egiteko langileak edo baliabide materialak izatea. • Ebaluaketaren emaitzen egiaztapena ezin izango da hitzartu, ikuskatu behar den enpresarekin merkataritza edo finantza harremanak, edo bestelakoak, mantentzen dituzten profesionalekin.	PZA 32.3 art. 97-06-27ko agindua 4.2, 4.4 art.

2.4 TAULA. Arauzko eskakizunak: Lan-Agintaritzak baimendutako Ikuskaritza Erakundeen baliabideak.

ITEM	AUDITOREAK BETE BEHARREKO ARAUZKO ESKAKIZUNAK (2)	LEGE-EBAZPENA
INDEPENDENTZIA	Enpresa bateko prebentzio-sistemaren ikuskaritza egiten duten pertsona fisiko edo juridikoek: • Ezin izango dute mantendu merkataritza edo finantza harremanik, edo bestelakorik, ikuskatu behar den enpresarekin, auditore moduan egiten dituzten lanetatik aparte, bere independentzian edo bere jardueren emaitzetan eraginik izan baldin badezakete. • Enpresa horretarako edo beste enpresa batetarako ezin izango dute egin, prebentzio-jarduerak koordinatzeko lanik; ezta jarduerarik ere, prebentzio-zerbitzu gisa aritzen den erakunde espezializatu moduan; ezin izango dute ere mantendu, azken horiekin, merkataritza edo finantza harremanik, edo bestelakorik, salbuespen hauetan izan ezik: a) Auditoretza egiten duen pertsona edo erakundea kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin edo gehiagorekin hitzartzen bada, bere enpresan bertan prebentzio-jarduerak egiteko. b) Kanpoko prebentzio-zerbitzuko jardueretan diharduen enpresaburu baten prebentzio-sistemaren auditoretza egiteko kontratua bada.	PZA 32.2 art.
BAIMENA	Prebentzio-sistemaren auditoretza-jarduera garatu nahi duten pertsona edo erakunde espezializatuek: • Bere egoitza nagusia kokatzen den tokiko lan-agintaritza eskudunaren baimena izan beharko dute. • Baimenaren oinarri izan ziren baldintzak mantendu beharko dituzte. • Baimenaren inguruko edozein aldaketa jakin arazi behar izango diote eman zuen Lan-Agintaritzari.	PZA 33.1, 23 art. 97-06-27ko agindua 6.1 art.
ERREGISTROA	• Zerbitzu hauen eskualdaketak jaso dituzten Autonomia Erkidegoetako organo eskudunetan edo, horrelakorik ezean, Estatuko Administrazio Orokorretako organo eskudunetan, erregistro bat sortuko da eta, bertan, prebentzio-sistemen auditoretzak edo ebaluaketak egiteko baimena hartu duten pertsona edo erakunde espezializatuak inskribatuko dira.	PZA 28.1 art.

2.5 TAULA. Arauzko baldintzak: Lan-Agintaritzak Ikuskaritza Erakundeei baimena emateko prozedura

ITEM	AUDITOREAK BAIMENTZEKO ARAUZKO ESKAKIZUNAK	LEGE-EBAZPENA
AURKEZTU BEHARREKO ESKAERA	• Bere egoitza nagusia kokatuta dagoen tokiko Lan-Agintaritza eskudunaren aurrean eskaera aurkeztea. Egoitza nagusi horretan egongo da prebentzio-jardueretan aritzen diren langile-kopururik handiena, administrazio-jardueretan aritzen direnak kontutan izan gabe. Eskaeran azaldu beharko dira, gainera, prebentzio-jardueran arituko diren langile-kopuruari buruzko aurrikuspena, beraien lanbide-prestakuntza eta arduraldia eta, azkenik, instalakuntzak, tresna-baliabideak eta dagokien kokapena. Hau da: a) Azaldu beharko du zein lurralde-eremutan garatu nahi duen bere jarduera, eta baimendutako eremua gainditzen baldin bada, eragindako AAEE eta probintzien eremua azalduko ditu. b) Pertsona-kopuruari buruzko aurrikuspenei dagokienez, era bereizian zehaztuko da, batetik, goi-mailako funtzioak, espezialitate ezberdinetan, garatzeko gai diren pertsona-kopurua; bestetik, oinarrizko mailako eta maila ertaineko eginkizunak garatzeko gai diren langileak eta, azkenik, —goian aipatutako langileekin bat etorri ala ez— auditoretzen kudeaketan eta burutzean eta ikuskaritza-tekniketan prestakuntza edo esperientzia duten langileak. Bakoitzaren lanbide-curriculum bat eta arduraldiko orduak erantsi beharko dira. c) Instalazio eta tresna-baliabideei dagokienez, lokal eta instalazioen deskribapena sartuko da, kokapena, tresna-baliabideak, aparatuak eta ekipamenduak zehazturik. d) Arriskuen ebaluaketaren egiaztapen konplexuak, osorik edo zati batean, profesionalekin hitzartu nahi baldin baditu, zehaztu beharko dira zein egiaztapen hitzartzen diren, profesionalen identifikazioari buruzko datuak, beraien gaitasuna, eta egiaztapenak egiteko baliabideak eta instalazioak. e) Konpromezua azaldu beharko du bere jarduera ez hitzartzeko zenbait enpresarekin, merkataritza edo finantza loturak, edo auditoretzari berari lotuta ez dauden bestelako harremanak baldin badituzte.	PZA 33.1 art. 97-06-27ko agindua, 5.1, 5.2 art.
PROZEDURA	• Lan-Agintaritzak, PZAko 26. eta 33. artikuluetan ezarritako prozedurari jarraiki, ebazpena emango du, aurkeztutako eskaerari baietza edo ezetza emateko. • Baimenari ezarri behar zaio PZAn erakunde espezializatuetarako ezartzen den prozedura; erakunde horiek kanpoko prebentzio-zerbitzuko erakunde espezializatuak dira, batetik, 26. artikuluan ezarritako egiaztapenari dagokionez eta, bestetik, emandako baimenenak emateko eta, hala badagokie, iraungitzeko baldintzak mantentzearen inguruan 27. artikuluan ezarritako prozedurari dagokionez. • Lan-Agintaritzak ebazpena emango du hiru hilabeteko epean, eskabidea eskuduntza duen administrazio-organoaren Erregistroan sartzen denetik. Ebazpenean, baietza edo ezetza eman beharko zaio eskaerari. • Epe hori ebazpen adierazia eman gabe pasatzen bada, eskaera ezetsi dela ulertuko da. • Lan-Agintaritzaren ebazpen hori aldi baterako izango da, eta bere eraginkortasuna behin behineko baimenaren menpe geratuko da, langile-kopuruaren aurrikuspenak, eta instalazio, tresna-baliabide eta kokapenaren aurrikuspenak betetzen direla aurretik egiaztatu beharko delarik.	PZA 26, 27 eta 33.2art. 97-06-27ko agindua, 5.3 art.

3. atalburua

LAPren arauzko auditoretzaren prozesua

Lan-arriskuen prebentzioa ikuskatzeko prozesua eratzen duten etapak, 3.1 irudian azaltzen den moduan eskematizatzen dira:

3.1 IRUDIA. Auditoretza-prozesuaren aldiak

Zkia.	ETAPA	JARDUERA
1	HASIERA	Nola jarri abian prozesua?
2	PRESTAKUNTZA	Zer-nolako baliabideak erabili behar dira?
3	GAUZATZEA BURUTZEA	Nola egin?
4	TXOSTENA	Nola azaldu emaitzak?
5	BUKAERA	Nola bukatu prozesua?
6	JAKINARAZPENA	Nori jakin arazten zaio auditoretza egin dela?

3.1. Hasiera

Auditoretza-prozesua martxan jartzen duen eragilea enpresa da beti, bera jartzen baita harremanetan ikuskaritza-erakundearekin. Hala ere, arauzko auditoretzaren kasuan, Lan-Agintaritzak aurrez eska liezaioke enpresari, auditoretza egin dezan. Auditoreak enpresa bisitatuko du enpresako jardueren mota eta konplexutasuna ezagutzeko eta auditoretza-programa bat ezartzeko.

—Auditoretzaren helburua eta norainokoa. Auditoretzaren helburua eta norainokoa enpresaren eta auditore buruaren artean zehazten dira, adostasunean. Helburua auditoretzaren zergatia da; norainokoak, ordea, auditoretzaren mugak eta hedadura definitzen ditu.
Item hauek ondoren aldatzeko, aurretik bi alderdien arteko akordioak egon behar du.

—Auditore taldea. Auditore buruak izendatuko ditu auditoretza burutzeko behar dituen auditoreak.

—Auditoretzarako irizpideak. Eskuliburu honetan ezarritako eredua erabiltzea proposatzen dugu.

—Iraupena eta kostua. Ikuskaritza erakundeak zehaztuko du auditoretza egiteko zenbat denbora behar den eta zein den kostua, eta idatziz jakin araziko dio enpresari.

—Maiztasuna. LAPri buruzko Arauetan zehazten dena. Baina enpresaren prebentzio-sistemaren lehen auditoretza egiteko epea, hamabi hilabetetakoa izango da, prebentzio-jardueraren lehenengo plangintza daukaten momentutik hasita.

—Dokumentazioaren aurretiko berraztertzea. Dokumentazioaren aurretiko berraztertzea abiapuntua da ezagutzeko ea prebentzio-sistema eusten duen dokumentazioa nahikoa den, eska daitezkeen arauzko eskakizunak betetzeko. Arauzko auditoretza batean enpresaren dokumentazioaren parte bat kontsulta daiteke, ikuskaritzaren aurretiko informazio moduan (LAPL 23. art., PZA 7. art., Industria Erregistroko Inskripzioa). Egokia ez bada, kopuruan edo kalitatean, auditoretzaren prozesua gelditu arazi behar da, eta enpresako Zuzendaritzari ezagutu arazi behar zaio, jarraibideak eman arte.
Auditoretza hasi aurretik auditore taldeak zenbat eta informazio gehiago berrikusi, eraginkorragoa izango da auditoretzaren garapena. Edonola ere, ezin liteke auditoretzarik hasi, jarraian azaltzen direnak ez badaude:

- Prebentzio-sistemaren inguruko behar adinako dokumentazioa; hau da, gutxienez:
  —Lan-Arriskuei aurrea hartzeko Plana (eskuliburua eta prozedurak, baldin badagokio).
  —Arriskuen ebaluaketa.
  —Prebentzio-jardueraren plangintza.
  —Hitzarmen kolektiboa.
- Ikuskatuaren aldetik, baliabideak eta lankidetza egokia.

Dokumentazioaren berrikuspena enpresaren beraren instalazioetan edo Ikuskaritza entitatearen lokaletan egin daiteke, aurretik enpresak azken horri dokumentazioa bidaltzen badio (originalen kopiak igortzen dira).

Aldi honek LAPren arauzko auditoretzaren inguruan planteatzen dituen arauzko eskakizunak, 3.1 taulan laburbiltzen dira.

3.1 TAULA. Arauzko eskakizunak: LAPren arauzko auditoretza, hasiera-aldia.

ESKAKIZUNA	DESKRIBAPENA
HELBURUA *(PZA, 30. art.)*	a) Begiratzea nola egin den arriskuen hasierako eta aldizkako ebaluaketa, bere emaitzak aztertzea eta, zalantzarik egotekotan, egiaztatzea. b) Prebentzio-jardueren mota eta plangintza, araudi orokorrean ezarritakoarekin eta arrisku berezien inguruan ezar daitekeen araudiarekin bat datozela begiratzea, ebaluaketaren emaitzak kontutan izanik. c) Aztertzea ea bat datozen behar diren prebentzio-ekintzak eskatzen diren prozedurak eta bitartekoak, eta enpresaburuak dituen baliabideak, bereak edo hitzartuak; kontutan izan behar da, gainera, nola dauden antolatuta edo koordinatuta, hala badagokie. d) Aurreko guztiaren arabera, enpresa kudeatzeko sistema orokorrean prebentzioaren integrazioa baloratzea; hau da, ikusi behar da nola dagoen sartuta bai jarduera guztietan, bai enpresako hierarkia maila guztietan, lan-arriskuei aurrea hartzeko planaren bidez. Halaber, baloratu behar da ea prebentzio-sistema eraginkorra den, enpresaren jarduera-aldi guztietan lan-arriskuak prebenitu, identifikatu, ebaluatu, zuzendu eta kontrolatzeko. Ondorio horietarako neurtuko da zein mailatan integratzen den prebentzioa enpresaren zuzendaritzan, enpresako ekipamendu, produktu eta antolakuntzaren aldaketetan, instalazio edo ekipoen mantenuan, eta arriskugarriak izan daitezkeen jarduerak gainbegiratzean.
NORAINOKOA *(LAPL 30.6 art., PZA 29.2 art.)*	• Enpresaren prebentzio-sistema.
AUDITORE TALDEA *(PZA, 29.1 art.)*	• Lan-Agintaritzak baimendutako pertsona edo erakunde espezializatuak.
AUDITORETZAREN IRIZPIDEA *(PZA, 30. art.)*	• Ezarri diren edo ezar litezkeen arau teknikoak.
MAIZTASUNA *(PZA, 30.4 art.)*	• LAPri buruzko arauetan zehazten dena. • Enpresako prebentzio-sistemaren lehenengo auditoretza, hamabi hilabetetan egingo da, epea prebentzio-jardueraren plangintza dagoen momentutik hasiko delarik.

3.2. Auditoretzaren prestakuntza

Ikuskaritza entitateak auditoretza plan bat egiten du, auditore taldeari informazioa ematen dio, auditoretzaren data proposatzen du eta programa hori enpresari jakin arazten dio, onar dezan.

—Auditoretza plana

Auditoretza plana auditoretzaren agiri zuzentzailea da eta, seguruenik, prozesuko parterik garrantzitsuena da. Plana moldatzeko kontutan izan behar da auditoretzaren hasierako aldian bildutako informazioa eta hortik datorkigu lehen etapa horretan erakunde ikuskatuari buruzko ahalik eta informaziorik gehien lortzearen garrantzia (esaterako, jarduerak ikuskatzeko orduan, enpresan txanda ezberdinak egotea eta antzeko gauza sinpleak ere, adierazgarriak dira).

Auditoretza plana prestatzerakoan honako hauek hartuko dira aintzat:

- Auditoretzaren helburua.
- Instalazio-mota eta tartean sartzen diren industria-prozesuen dimentsioa eta konplexutasuna.
- Tartean sartzen diren jarduerak, sailak eta produktuak.
- Dokumentazioa eta ezar daitekeen araudia.
- Auditore taldea.

Auditoretza planean honako puntu hauek sartu behar dira:

- Auditoretzaren helburuak eta norainokoa.
- Auditoretzaren erreferentzia-eremua.
- Ikuskatuaren funtzio- eta antolatze-unitateen identifikazioa.
- Funtzioen eta/edo pertsonen identifikazioa ikuskatuaren erakundean, ikuskatuaren LAPKSren barruan erantzukizun zuzenak eta adierazgarriak dituztenean.
- Ikuskatuaren LAPKSko elementuak identifikatzea, lehentasun osoa baldin badute.
- Ikuskatuaren LAPKSko elementuak ikuskatzen uzten duten prozedurak, ikuskatuaren erakunde-motari egokituta daudelarik.
- Erreferentziazko agiriak identifikatzea.
- Auditoretzaren jarduera ezberdinen iraupena, aurrikusten dena.
- Auditoretza egiteko egunak eta tokiak.
- Auditoretza taldeko kideen nortasuna.
- Ikuskatuaren zuzendaritzarekin egin behar diren bileren egutegia.
- Konfidentzialtasunaren inguruko eskakizunak.
- Auditoretzaren txostenaren formatua eta edukia, emateko aurrikusten den eguna eta banaketa-zerrenda.
- Agiriak mantentzeko eskakizunak.

Auditoretza plana enpresari jakin araziko zaio eta enpresak onartu beharko du. Auditoretza planaren edozein berrikuspen, auditoretza egin aurretik edo egiten den bitartean, zerikusirik duten eta zehazten diren alderdien artean adostuko da. Aurrikusitako auditoretza planaren aldarazpenak ez dira errefusatu behar; alderantziz, prozesuari datxekion partetzat hartu behar dira.

Erakunde auditoreak enpresari igorriko dio jakinarazpen-formatu bat, auditoretza plana barne izango duelarik (indarrean dagoen berrikuspena, eguna eta kodifikazioa).

—Auditore taldearen lanen banaketa

Auditore buruak, auditore taldeko kideekin kontsultatu ondoren, ekipoko kide bakoitzak egin beharko dituen lanak banatuko ditu eta bakoitzari esleituko dizkio ikuskatu behar den LAPKSren elementuak eta jarduera espezifikoak.

Auditoretzaren martxa ikusita, auditore buruak lanen hasierako banaketa alda dezake, auditoretzaren helburuak lortzen direla ziurtatzeko.

—Lan-agiriak

Auditore buruak, auditoretzan erabili behar diren lan-agirien prestakuntza koordinatuko du. Dokumentu horien artean honakoak aipa daitezke:

- Ikuskatu behar den elementu edo jardueraren araberako galdetegiak.
- Auditoretzaren ebidentziak eta aurkikuntzak dokumentatzeko inprimakiak.
- Bileren erregistroak.

Auditoreak agiri hauek gordeko ditu auditoretza amaitu arte eta, gainera, arreta berezia jarriko du ikuskaritzan erabiltzen dituen agiri konfidentzialen babesean.

Galdetegiak, lan-agiriak izanik, auditoretza jardueretarako gidoi moduan eta garrantzizko punturik ez ahazteko erreferentzia gisa erabil daitezke.

3.3. Gauzatzea

Auditoreak edo auditore taldeak bere ebaluaketa lekuan bertan egiten du. Horretarako, arauekin bat ez datozen aurkikuntzak —detektatu ezkero— eta aurkikuntzen ebidentzia-oinarria erregistratzen ditu. Auditoretza abian jartzeko hasierako bilera bat egiten da eta, bukatzeko, azken bilera bat antolatzen da.

—Hasierako bilera

Auditoretza guztiei hasiera emateko lehen bilera bat egoten da (15 minututik 30era bitartekoa), auditore taldea eta ikuskatua biltzeko; bertan, argitu beharreko gai guztiak aztertzen dira eta, hala badagokio, proposatutako auditoretza plana zehazten edo aldatzen da. Hona hemen bileraren helburuak:

- Zuzendaritzari eta ikuskatuari auditore taldeko kideak aurkeztea.
- Auditoretzaren helburuak, norainokoa eta plana berrikustea, kronograma zehaztea eta azken bileraren eguna eta ordua baieztatzea.
- Erabiliko diren auditoretza metodologiak eta prozedurak aurkeztea.
- Auditore taldearen eta ikuskatuaren arteko komunikabideak ezartzea.
- Auditore taldearen esku dauden baliabideak baieztatzea.
- Auditore taldeak, erakundearen instalazioetan dagoen bitartean, izan behar dituen segurtasun eta osasun eskakizunak jakinaraztea.

—Ebidentzien bilketa eta emaitzen erregistroa

Aldi honetan, elkarrizketa pertsonalen bitartez, dokumentuak aztertuz eta jarduerak begiratuz, prebentzio-sistema ezarritako auditoretzaren irizpideari egokitzen zaiola bermatzeko behar dituen nabaritasunak bilatzen ditu auditoreak. Horretarako, auditoreak, Eskuliburu honetan proposatzen diren txekeo-galdetegiak erabil ditzake, edo bereak presta ditzake.

Elkarrizketen bidez lortutako informazioa behaketekin, neurketekin eta erregistroekin egiaztatuko da. Egiazta ezin daitezkeen deklarazioak edo informazioak, horrela identifikatuko dira. Zentzu horretan azaldu behar da, daturik ez egotea ere, ebidentzia objektibotzat hartzen dela.

Prebentzio jarduera guztiak ikuskatu ondoren, auditore taldeak bildu dituen ebidentziak berraztertuko ditu, prebentzio sistema auditoretzren irizpideekin bat ez datozen puntu haiek detektatzeko. Taldeak bere aurkikuntzak egiaztatuko ditu, bat ez etortze fidagarriak, ebidentzia objektiboetan oinarrituak, edo susmo soilak diren ikusteko.

Auditoreak, auditoretzaren ebidentzietan oinarritutako era argi eta zehatzean dokumentatuko ditu, detektatzen dituenean, auditoretzaren irizpidearekin bat ez datozen aspektu guztiak, eta eragindako item espezifikoa aipatuko du.

Ikuskatzen den erakundeko zuzendaritzaren aldetik lortu behar da bat ez datozen aurkikuntza guztien ebidentzia oinarria, auditoretzaren emaitzak onar daitezen.

Ebidentzien bilketa eta bat ez etortzeen detekzioa, ausazko laginketaren bidez egiten da. Horrek hau adierazten du: ahalik eta erakusgarriena den prebentzio-sistemaren lagina lortu nahi bada ere, auditoretzaren prozesuan, identifikatu gabeko bat ez etortzeak geratu daitezkeela eta, ondorioz, ezin dela bermatu prebentzio-sistema osoaren adostasun osoa.

PZAren 30.3 artikuluak azaltzen du, auditoretza egiteko erabiltzen den prozedura edonolakoa izanda, erreferentziazko gutxieneko metodologiak edo prozedurak, landa-analisi bat izan behar duela barne, egiaztatzeko lan-arriskuen prebentzio planari buruzko dokumentazioa, arriskuen ebaluaketari buruzkoa, prebentzio-jardueraren plangintzari buruzkoa eta auditoretza burutzeko behar den enpresaren argibide eta jarduerei buruzko dokumentazioa, enpresaren prebentzio-errealitatearen isla zehatz eta doi direla. Analisi horren barruan, lanpostuak bisitatuko dira, behar denean laginketa teknikak erabiliz, egin ahal izango delarik.

—Azken bilera

Bilera honetan, eta auditoretzaren txostena prestatu aurreko urrats moduan, auditore taldea erakunde ikuskatuaren zuzendaritzarekin eta ikuskatutako funtzioen ardura dutenekin biltzen da (normalean, hasierako bileran egon ziren partehartzaile berberak izaten dira). Hona hemen bileraren helburuak:

- Ikuskatuari eskerrak ematea, hartutako arretarengatik eta erraztasunengatik.
- Auditoretzaren emaitzak ikuskatuari aurkeztea eta jakinaraztea. Ziurtatu behar da ere ikuskatuak argi ulertzen dituela zeintzuk diren detektatutako bat ez etortzeak, behar diren ekintza zuzentzaileek ondorioak izan ditzaten.
- Irtenbidea aurkitzea, auditore taldearen eta ikuskatuaren artean adostasunik eza egotekotan, auditore buruak auditoretzaren txostena eman aurretik.

3.4. Txostena

—Txostenaren helburuak eta prestakuntza

Txostena auditoretzaren azken produktua da; bertan, auditoretzaren emaitzak biltzen dira, aurretik definitutako formatuan, eta auditore buruak behar bezala identifikatu, datatu eta izenpetu behar du. PZAren 31. artikuluak (604/2006 Errege Dekretuan) auditoretzaren txostenaren edukia aztertzen du, eta 3.2 taulan txostenaren inguruko arauzko eskakizunak azaltzen ditugu.

Auditoretza Planean ezarritakoari jarraiki prestatzen da txostena, auditore buruaren zuzendaritzapean, berak baitu azken erantzukizuna, txostenaren doitasuna eta zehaztasuna bermatzeko. Zentzu horretan, agiri honen hizkuntza, beti, honelakoa izango da:

- *Laburra.*
- *Erraza*.
- *Argia*.
- *Zuzena*.

3.2 TAULA. Arauzko eskakizunak: Auditoretzaren txostena

ESKAKIZUNA	DESKRIBAPENA
TXOSTENA *(PZA, 31. art.)*	1. Auditoretzaren emaitzak txosten batean islatu beharko dira; eta enpresa ikuskatuak, eskuduntza duen lan-agintaritzaren eta langileen ordezkarien esku izan behar du txosten hori. 2. Auditoretzaren txostenak honako aspektu hauek islatu beharko ditu: a) Auditoretza egiten duen pertsona edo erakundearen identifikazioa, eta auditoretza taldearena. b) Enpresa ikuskatuaren identifikazioa. c) Auditoretzaren helburua eta norainokoa. d) Auditoretzaren txostena emateko data. e) Auditoretzaren oinarri izan den dokumentazioa, langileen ordezkariek igorritakoa barne, txostenean sartuko baita. f) Auditoretza egiteko erabili den metodologiaren deskribapen laburtua eta, hala badagokio, erabili diren arau teknikoen identifikazioa. g) Ikuskatu diren elementu ezberdinen deskribapena eta auditoretzaren emaitza, elementu horietako bakoitzari dagokionean. h) Ondorioa, prebentzio-sistemaren eraginkortasunari buruzkoak eta lan-arriskuen prebentziorako araudian ezarritako betekizunetan, enpresaburuaren betetze-mailari buruzkoak. i) Auditoretza egiten duen pertsonaren sinadura, edo auditoretza erakundeko arduradunarena. 3. Auditoretzaren txostenaren edukiak zehaztasunez islatu beharko du enpresan egiaztatu den errealitatea; debekatuta dago hori aldatzea edo faltsutzea. 4. Auditoretzaren emaitzek agerrarazi dituzten eta lan-arriskuen prebentzioaren buruzko araudia urratzen duten hutsuneak zuzentzeko neurriak ezarriko ditu enpresak.

—Txostenaren edukia

Auditoretzaren txostenaren edukia, definizioz, objektiboa, zehatza, argia, taxutua, egiaztagarria izango da, eta ez du izango kontraesanik, komentario gehigarririk edo orri-bazterreko oharrik. Dagokigun kasuan, are gehiago zaindu behar dira horrelakoak, dokumentua eskuduntza duen Lan-Agintaritzaren esku eta langileen ordezkarien esku egon behar duelako (PZA - 31. art.).

Txostenak biltzen ditu araudiarekin bat ez datozen aurkikuntza guztiak eta eusten dituzten ebidentzien laburpena. Erregelamenduz izan behar duen edukiaz gain (PZA, 31. 2 art. eta 3.2 taula), honako alderdi hauek sar ditzake:

- *Auditoretza egin zeneko datak; normalean, txostenaren egunetik gertu egoten da.*
- *Auditoretza-prozesuaren laburpena, egon daitezkeen jazoerak eta adostutako Planari dagokionez sortutako desbideraketak barne.*
- *Auditoretzan parte hartzen duten ikuskatuaren ordezkatzen duten pertsonen identifikazioa.*
- *Identifikatu diren bat ez etortzeen zerrenda.*
- *Oharrak.*
- *Auditoretzaren ondorioak.* Alderdi positiboak eta hobekuntza-aspektuak azpimarratzea. PZAren 30. artikuluan azaltzen diren puntuak baloratzea, hau da:

  —Arriskuen ebaluaketaren egokitzapena.
  —Nola egokitzen diren prebentzio-jardueren mota eta plangintza.
  —Nola egokitzen zaizkien prebentzio-jarduerak burutzeko behar diren bitartekoak, ikuskatuaren baliabideei.
  —LAP kudeatzeko sistema orokorrean nola integratzen den, eta enpresaren prebentzio sistemaren eraginkortasuna baloratzea, eta horri buruzko informazioa.

- *Txostenaren banaketa-zerrenda.*
- *Konfidentzialtasun-konpromezua.*

Txostenak ez du gomendiorik, araudiarekin bat ez etortzeak zuzentzeko moduaren inguruan. Auditoreak detektatu eta aztertzen ditu, eta enpresa ikuskatuak berak ezarri beharko ditu neurriak, auditoretzaren emaitzek agerrarazi dituzten hutsune horiek (LAPi buruzko araudia urratzen dutenak), zuzentzeko (PZA - 31.4 art.).

Araudiarekin bat ez etortzeak:

- Auditoretzaren irizpideari lotu behar zaizkio eta, ondorioz, ez dira iritziak izango.
- Argiak eta zehatzak izango dira, ebidentzia objektiboetan finkatuko dira beti eta ez dute orotariko idazkerarik edo zehaztugabeko idazkerarik.
- Identifikatutako arazoa argi definitu beharko dute, baina ez dute adieraziko nola konpondu behar den.
- Ez dira inoiz pertsonalizatuko.

Irizpideen ikuspuntutik bat ez etortze guztiek norainoko berbera izanda ere (legearen urraketa) eta, ondorioz, mailaketarik onartzen ez badute ere, informazio moduan eta enpresari egindako auditoretzaren ondoko ekintzetan lehentasunak ezartzeko, honako sailkapen hau egin daiteke:

- **Bat ez etortze handiagoa edo larria:** Auditoretzaren irizpidearen eskakizun bat, osorik edo era partzialean, baldin ez badago, borondatez eta arrazoirik gabe betetzen baldin ez bada, edo langileari kalte egin diezaiokeen egoera edo enpresaren erreklamazioa sor dezakeen egoera baldin bada.
- **Bat ez etortze txikiagoa edo arina**: Irizpidearen eskakizun baten zati bat ez betetzea, era espezifikoan; hau da, langileari kalterik egiten ez dion urratze zehatza.
- **Oharra**: Ikuskatutako jardueren alderdia, bat ez etortzeko arrisku potentziala suposatzen badu, edo LAPKSrako interesgarria izan daitekeen hobekuntza ekarri ahal badu.

—Txostenaren banaketa eta zaintza

Auditoretza planean enpresak ezarritakoari jarraiki banatzen da txostena. Auditore buruak txostena egin eta enpresari igortzen dio, auditoretza planean zehaztutako epeetan. Auditore burua da ikuskatuari agiriaren ale bat heldu arazteko arduraduna.

Txostena kanpoan hedatzeko, ikuskatuaren baimen adierazia lortzea beharrezkoa da. Auditoretzaren txostenak konfidentzialak dira eta babestu beharko dituzte, bai auditoreek, bai txostenaren jasotzaileek. Zentzu horretan, prebentzio-ordezkariek errespetatu beharko dute LAPLren 37. art., lanbideko bermeei eta isiltasunari dagokionean.

Dokumentuaren eskuragarritasunaz, ordea, PZAren 31.1 art. ezarri behar da; hau da, **lan-arriskuen prebentzioaren arauzko auditoretzaren** txostenak honako hauen esku egon behar du:

- Lan-Agintaritzaren esku.
- Langileen ordezkarien esku.

Horrek suposatzen du agiriaren zaintza bermatu beharra dagoela, gutxienez, planifikatuta dagoen hurrengo arauzko auditoretza egin arte (PZAren 30.4 art.), Lan-Agintaritzak lehenago eskatzen ez badu.

3.5. Barruko eta kanpoko komunikazioak

LAPren arauzko auditoretza egin dela alderdi ezberdinei jakinaraztearen inguruan, honako zehaztapen hauek aipa daitezke:

—Ez da beharrezkoa Lan-Agintaritzari jakinaraztea (bai EAEn, OSALAN OS-3 inprimakiaren bitartez) auditoretza egin dela eta txosten bat bere esku dagoela.
—Beharrezkoa da, ordea, jakinarazpen hau egitea langileen ordezkariei, enpresaren prebentzio jardueren inguruko informazioa, kontsulta eta partaidetza izateko dituzten eskubideak betetzeko.
—Auditoretza Lan-Agintaritzaren eskariz egin bada, enpresa ikuskatuak kontutan izan beharko ditu eskaera zehatzean Lan-Agintaritzak azaldu dituen beste eskakizunak; hala nola:

- Agintaritza horri jakinaraztea zein den enpresak auditoretza egiteko aukeratu duen auditorearen nortasuna edo Ikuskaritza entitatea; halaber, auditoretza egiteko formalizatu den kontratuaren kopia igortzea e.a.
- Jakinaraztea ere auditoretza egiteko zehaztu diren egunak, eskaeran ezarritako epeen betetzea, e.a.
- Auditoretzaren azken txostena Lan-Agintaritzari bidaltzea.
- Auditoretzak detektatu dituen akatsak zuzentzeko epeen betetzea.
- Beste eskakizun batzuk.

Eranskinak

1. eranskina	Auditoretzaren hizkuntza. Definizioak
2. eranskina	LAP enpresaren kudeaketa sistema orokorrean nola integratzen den baloratzea.
3. eranskina	Bibliografia.
4. eranskina	Galdetegiak

1. eranskina

Auditoretzaren hizkuntza: Definizioak

Hona hemen Eranskin hau egiteko erabili diren irizpideak:

—Eskaintzen den hitzaren definizioa, lege-testu batean emandakoa da.
—Hitza lege-testuan eta araudietan definitzen bada, bi definizioak ematen dira.

Istripua (OHSAS 18001:1999): Nahi ez den gertakizuna da, heriotza, osasunerako ondorio negatiboak, lesioa, kaltea edo bestelako galera sortzen dituena.

Lan-Istripua (1/1994 Legegintzako Errege-Dekretua. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra): Inoren konturako lana egiteagatik edo horren ondorioz langileak sofritzen duen gorputz-lesio oro.

Zuzenketa-ekintza (UNE-EN ISO 9000:2000): Detektatu den bat ez etortzeren baten edo nahi ez den beste egoeraren baten jatorria ezabatzeko egindako ekintza.

Prebentzio-ekintza (UNE-EN ISO 9000:2000): Gerta litekeen bat ez etortzeren baten edo nahi ez den beste egoeraren baten jatorria ezabatzeko asmoz egindako ekintza.

Egiaztapena (Industriaren 21/1992 Legea): Kalitatea, edo saiakuntza-laborategi bat, edo industria-kalibraziorako laborategi bat egiaztatzeko, ikuskatzeko edo auditatzeko erakunde batek duen ahalmen teknikoaren onespen formala.

Goi-zuzendaritza (UNE-EN ISO 9000:2000): Erakunde bat mailarik altuenean zuzentzen eta kontrolatzen duen pertsona edo pertsona-taldea.

Ikuskatua (UNE-EN ISO 9000:2000): Ikuskatzen den erakundea.

Auditorea (UNE-EN ISO 9000:2000): Auditoretza bat burutzeko gaitasuna duen pertsona.

Auditoretza (PZA): Prebentzio-sistemaren eraginkortasunari buruzko ebaluaketa sistematiko, dokumentatu eta objektiboa sartu behar duen kudeaketa tresna. V. kapituluaren artikuluek elementu batzuk gehitzen dizkiote definizio honi; hala nola: kanpokoa (29.1 art.), aldizkakoa (29.2 art.) eta independentea (32.2 art.). Aurrerantzean definizio honetarako LAPren Arauzko Auditoretza hitzak erabiliko ditugu.

Auditoretza (OHSAS 18001:1999): Azterketa sistematikoa zehazteko, hainbat jarduerak eta beraien emaitzak planifikatutakoarekin bat datozen, hori eraginkortasunez ezarri den, eta egokia den erakundearen politika eta helburuak lortzeko.

Kalitatearen auditoretza (Industriaren 21/1992 Legea): Kalitate-sistemaren edo bere parteetako baten eraginkortasunari buruzko azterketa sistematiko eta independentea.

Lan-arriskuen prebentzio-sistemaren auditoretza (604/2006 Errege-Dekretua. Prebentzio Zerbitzuen Araudiaren aldaketa): Enpresan lan-arriskuei aurrea hartzeko sistemaren irudi xehea islatu nahi duen kudeaketa-sistema da; horretarako, eraginkortasuna baloratu eta indarrean dagoen araudia urratzera eraman ditzaketen akatsak detektatzen ditu, perfekzionatzeko eta hobetzeko helburua duten erabakiak hartu ahal izateko.

Lan-arriskuei aurrea hartzeko kudeaketa-sistemaren auditoretza (OHSAS 18002:2000): Ebaluaketa sistematikoa da, zehazteko ea lan-arriskuei aurrea hartzeko kudeaketa-sistemaren jarduerek eta beraien emaitzek ezarritako ebazpenak betetzen dituzten, eta beraiek era eraginkorrean inplementatzen diren eta egokiak diren erakundearen helburuak eta politikak lortzeko.

Kalibraketa (Industriaren 21/1992 Legea): Eragiketa-multzo bat da, eragiketa horiek helburu amankomuna dutelarik; hain zuzen ere, espezifikatutako baldintzetan, dagoen erlazioa ezartzea, batetik, neurketa-tresna batek azaldutako baloreen, edo neurri material batek azaldutako baloreen eta, bestetik, *mensurando* bati dagozkion balore ezagunen artean.

Kalitatea (UNE-EN ISO 9000:2000): Ezaugarri atxikien multzo bat, zein mailatan datorren bat eskakizunekin

Kalitatea (Industriaren 21/1992 Legea): Produktu edo zerbitzu baten propietate edo ezaugarrien multzoa, propietate edo ezaugarri horiek, behar adierazi edo inplizitu batzuk betetzeko gaitasuna ematen diotelarik.

Gaitasuna (UNE-EN ISO 9000:2000): Erakunde, sistema edo prozesu baten gaitasuna, produktu bat egiteko, produktu horretarako eskakizunak betetzen dituelarik.

Lan-gunea (171/2004 Errege-Dekretua. Enpresa-jardueren koordinazioa): Langileek egon behar duten edo euren lana dela-eta joan daitezkeen edozein eremu da, eraikinekin edo eraikinik gabea.

Egiaztapena (Industriaren 21/1992 Legea): Enpresa, produktu, prozesu edo zerbitzu zehatza, arau edo zehaztapen teknikoetan definitutako eskakizunekin bat datorren ala ez ezartzen uzten duen jarduera.

PDCA zikloa (Planifikatzea, Egitea, Egiaztatzea, Ekitea) (UNE 66177:2005): Etengabeko hobekuntzaren zikloa edo Deming ziklo, hain zuzen. Ingelesez PDCA zikloa da (plan, do, check, act) eta gaztelaniaz PHVA zikloa (planificar, hacer, verificar, actuar).

Auditoretzaren bezeroa (UNE-EN ISO 9000:2000): Auditoretza bat eskatzen duen erakundea edo pertsona.

Segurtasun eta osasunaren batzordea (Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 Legea): Kide anitzeko partaidetza-organo paritarioa da, eta enpresak arriskuen prebentzioaren inguruan zer-nolako jarduerak egiten dituen aldizka eta erregulartasunez aztertzea du helburu.

Gaitasuna (UNE-EN ISO 9000:2000): Ezagutzak eta ahalmenak erabiltzeko trebezia frogatua.

Auditoretzaren ondorioak (UNE-EN ISO 9000:2000): Auditoretza baten emaitza, auditore taldeak emana, auditoretzaren aurkikuntzak aztertu ondoren.

Lan-Baldintza (Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 Legea): Langilearen segurtasuna eta osasuna arriskuan jartzean eragin adierazgarririk izan dezakeen lanaren edozein ezaugarri.

Bat etortzea (UNE-EN ISO 9000:2000): Eskakizun bat betetzea.

Zuzenketa (UNE-EN ISO 9000:2000): Detektatu den bat ez etortze bat ezabatzeko abian jartzen den ekintza.

Auditoretzaren irizpideak (UNE-EN ISO 9000:2000): Erreferentzia moduan erabilitako politiken, prozeduren edo eskakizunen multzoa.

Lanak eragindako kalteak (Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 Legea): Lanean ari izateagatik edo lanaren ondorioz izandako gaixotasun, patologia edo lesioak.

Prebentzio-ordezkariak (Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 Legea): Langileen ordezkariak dira, lan-arriskuen prebentzioan eginkizun espezifikoak dituztenak.

Jarduera (OHSAS 18001:1999): LSOren kudeaketa-sistemaren emaitza neurgarriak dira, erakunde batek laneko segurtasun eta osasunean dituen arriskuak kontrolatzeko ezartzen dituenak. LSOren politikan eta helburuetan dute oinarria (jardueraren neurketak, LSO kudeatzeko jardueren neurketa eta bere emaitzak hartzen ditu barne).

Dokumentua (UNE-EN ISO 9000:2000): Informazioa eta bere euskarria.

Efikazia (UNE-EN ISO 9000:2000): Hedadura, non planifikatutako jarduerak egiten diren eta planifikatutako emaitzak lortzen diren.

Eginkortasuna (UNE-EN ISO 9000:2000): Lortutako emaitzaren eta erabilitako baliabideen arteko erlazioa.

Lan-gunearen enpresaburu titularra (171/2004 Errege-Dekretua. Enpresa-jardueren koordinazioa): Lan-gunea eskuratzeko eta kudeatzeko gaitasuna duen pertsona.

Enpresaburu nagusia (171/2004 Errege-Dekretua. Enpresa-jardueren koordinazioa): Bere jarduerari propioari dagozkion eta bere lan-gunean garatzen diren obrak edo zerbitzuak beste batzuekin kontratatzen edo azpikontratatzen dituen enpresaburua da.

Lanbide-Gaixotasuna (1/1994 Legegintzako Errege-Dekretua. Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra) (1299/2006 Errege-Dekretua. Lanbide-gaixotasunen koadroa Gizarte Segurantzaren sisteman, eta jakinarazteko eta erregistratzeko irizpideak): Besteen kontura egindako lanaren ondorioz erantsitako gaixotasuna da, Lege hau ezartzeko eta garatzeko ebazpenen bidez onartzen den koadroan zehaztutakoari jarraiki; hain zuzen ere, koadro horretan lanbide-gaixotasun bakoitzerako azaltzen diren elementu edo substantzien eraginez sortutako gaixotasuna izango da.

Saiakuntza (Industriaren 21/1992 Legea): Produktu, prozesu edo zerbitzu baten propietate bat edo gehiago aztertzeko edo frogatzeko eragiketa, tresna egokiekin, eta prozedura espezifikatu baten arabera egina.

Saiakuntza/Proba (UNE-EN ISO 9000:2000): Ezaugarri bat edo gehiago zehaztea, prozedura bati jarraiki.

Auditore taldea (UNE-EN ISO 9000:2000): Auditoretza bat burutzen duten auditore bat edo gehiago.

Neurtzeko ekipamendua (UNE-EN ISO 9000:2000): Neurketa prozesu bat burutzeko behar diren neurketa-tresnak, softwarea, neurketa-patroia, erreferentziako materiala, ekipamendu lagungarria edo horien guztien arteko konbinaketa.

Norberaren Babeserako Ekipoa (NBE) (Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 Legea): Langileak eraman edo eutsi behar duen edozein ekipo, lanean bere segurtasuna edo osasuna arriskupean jar ditzaketen faktoreen aurka babesteko, edo helburu berbera daukan edozein osagarri edo lagungarri.

Lan-tresneria (Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 Legea): Lanean aritzeko erabiltzen den makina, aparatu, tresna edo instalazio oro.

Zehaztapena (UNE-EN ISO 9000:2000): Eskakizunak ezartzen dituen dokumentua.

Estrategiak (UNE 66177:2005): Helburuak lortzeko plan egituratuak.

Erakundearen egitura (UNE-EN ISO 9000:2000): Langileen arteko erantzukizunak, agintaritzak eta harremanen antolaketa.

Arriskuak ebaluatzea (OHSAS 18001:1999): Arriskua zenbaterainokoa den balioesteko, eta arrisku hori onargarria den ala ez erabakitzeko prozesu orokorra.

Lan-arriskuak ebaluatzea (Errege-Dekretua. Prebentzio Zerbitzuen Arautegia): Ekidin ezin izan diren arriskuak zenbaterainokoak diren balioestea helburu duen prozesua da. Behar besteko informazioa bilduko da bertan, enpresaburuak prebentzio-neurriak hartu behar ote diren erabakitzerakoan erabaki zuzena hartu ahal dezan eta, hala baldin bada, zer-nolako neurriak hartu behar diren ere bai.

Auditoretzaren ebidentzia (UNE-EN ISO 9000:2000): Auditoretzaren irizpideetarako egokiak diren erregistroak, gertaeren aitorpenak edo beste edozein informazio, egiaztagarriak baldin badira.

Ebidentzia objektiboa (UNE-EN ISO 9000:2000): Zerbaiten izaera edo egiazkotasuna indartzen duten datuak.

Aditu teknikaria (UNE-EN ISO 9000:2000): Ikuskatu behar den arloaren inguruko esperientzia edo ezagutza espezifikoak ematen dituen pertsona.

Kudeaketa (UNE-EN ISO 9000:2000): Erakunde bat zuzentzeko eta kontrolatzeko jarduera koordinatuak.

Kudeaketa integratua (UNE 66177:2005): Erakundeko kudeaketa orokorraren parte bat, kudeaketa-politika integratua erabaki eta ezartzen duena. Kalitate, ingurumen eta laneko segurtasun eta osasunaren kudeaketak integratzetik sortzen da.

Auditoretzaren aurkikuntzak (UNE-EN ISO 9000:2000): Auditoretzaren irizpideen aurrean bildutako auditoretzaren ebidentzia ebaluatu ondoren lortzen diren emaitzak.

Homologazioa (Industriaren 21/1992 Legea): Herri-Administrazio batek egiaztatzea produktu baten prototipoak arauzko eskakizun teknikoak betetzen dituela.

Arriskua identifikatzea (OHSAS 18001:1999): Arrisku bat dagoela onartzeko eta bere ezaugarriak definitzeko prozesua.

Jazoera (OHSAS 18001:1999): Istripua sortu zuen edo sor zezakeen gertakaria. *OHARRA*: Osasunerako ondorio negatiborik, lesiorik, kalterik edo bestelako galerarik sortu ez den jazoera bati, hizkera arruntean, «kuasi istripu» izena ematen zaio. «Jazoera» hitzak «kuasi istripuak» hartzen ditu.

Azpiegitura (UNE-EN ISO 9000:2000): Erakunde baten funtzionamendurako beharrezkoak diren instalazio, ekipamendu eta zerbitzuen sistema.

Ikuskaritza (Industriaren 21/1992 Legea): Ezar dakizkiokeen eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko, diseinuak, produktuak, instalazioak, ekoizpen-prozesuak eta zerbitzuak aztertzeko jarduera.

Ikuskaritza (UNE-EN ISO 9000:2000): Bat etortzearen ebaluaketa, behaketaren eta irizpenen bitartez; eta, egokia denean, neurketa, saiakuntza/proba edo patroiekiko konparaketa erabil daitezke.

Laneko eta Gizarte-Segurantzako Ikuskatzailetza (42/1997 Legea): Zerbitzu publikoa izanik, berari dagokio zaintzea gizarte-arloko arauak betetzen direla eta horien inguruko erantzukizunak exigitzea; halaber, bere lana da aholkularitza ematea eta, hala badagokio, arlo horietan arbitratzea, bitartekaritza-lana egitea eta adiskidetzea. Hori egingo du Espainiako Konstituzioak ezartzen duen Zuzenbide-Estatu sozial eta demokratikoaren printzipioei jarraiki, eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen 81. eta 129. Hitzarmenen arabera.

Industria-Instalazioa (Industriaren 21/1992 Legea): Lege horren 3.1 artikuluan definitzen diren jarduerei lotutako aparatu, ekipamendu, elementu eta osagarrien multzoa da.

Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionala (Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 Legea): Estatuko Administrazio Orokorraren organo zientifiko tekniko espezializatu bat da; bere eginkizuna, lanean segurtasun eta osasun baldintzak aztertzea eta hobetzea da.

Integrazioa (UNE 66177:2005): Elkarrengandik urrun dauden politika, kontzeptu, korronte ... bi edo gehiago batzeko ekintza eta batzearen ondorioa, sintetizatzen dituen bakar batean biltzen direlarik.

Elementu amankomunen integrazioa (UNE 66177:2005): Integratu behar diren sistemetan zerikusia duten erreferentziazko arauak kudeatzeko elementuen integrazioa, aplika daitekeen dokumentazioari eta sistemen inplementazioari dagokionean.

Lantokia (LANEren 155. Hitzarmena): Langileek egon behar duten edo euren lana dela-eta joan daitezkeen toki guztiak dira, enplegu-emailearen zuzeneko kontrolpean edo zeharkako kontrolpean daudela.

Prebentziorako Eskuliburua (UNE-EN ISO 9000:2000tik egokitua): Erakunde baten prebentzioa kudeatzeko sistema zehazten duen dokumentua.

Prozesu-mapa (UNE 66177:2005): Erakunde batean dauden prozesu ezberdinen segida eta elkarreraginaren irudikapen grafikoa.

Etengabeko hobekuntza (UNE-EN ISO 9000:2000): Eskakizunak betetzeko gaitasuna handitzeko jarduera errepikaria (hobekuntzarako helburuak ezartzeko eta aukerak identifika-

tzeko prozesua, etengabeko prozesua da, auditoretzaren aurkikuntzak, auditoretzaren ondorioak, datuen azterketa, zuzendaritzaren berrikuspena edo beste baliabide batzuk erabiliz; oro har, ekintza zuzentzaile eta prebentibora bideratzen du).

Etengabeko hobekuntza (OHSAS 18001:1999): LSO kudeatzeko sistema biziagotzeko prozesua, laneko segurtasun eta osasunari lotutako jarduera orokorrean hobekuntzak lortzeko, LSOren politikari jarraiki. *OHARRA*: Ez da beharrezkoa prozesu hau jarduera-arlo guztietan aldi berean burutzea.

Helmugak (UNE 66177:2005): Ekintzarako eskakizun zehatzen multzoa, ahal den guztietan kuantifikatuak, erakundeari edo bere parteei aplika dakizkienak.

Gizarte-Segurantzako lan-istripu eta lanbide-gaixotasunen Mutuak (1/1994 Legegintzako Errege-Dekretua. Gizarte-Segurantzaren Lege Orokorra): Lan eta Gizarte-Arazoetarako Ministerioak behar bezala baimendutako elkarteak dira, izen horrekin enpresaburuek eratu baldin badituzte, irabazteko asmorik gabe eta emandako arautegiei jarraiki; enpresaburu horiek, horretarako, erantzukizun mankomunatua bereganatu behar dute, Gizarte-Segurantzaren kudeaketan lankidetza ematea helburu nagusi izango dutelarik, legearen arabera ematen zaizkien beste prestazio, zerbitzu eta jarduerak egiteari utzi gabe.

Heldutasun-maila (UNE 66177:2005): Kudeaketa-sistemen aplikazioan dituen ezagutzaren eta esperientzien bitartez erakunde batek emaitzak lortzeko duen gaitasuna neurtzea.

Bat ez etortzea (OHSAS 18001:1999): Lan-jarraibideetatik, praktiketatik, prozeduretatik, arauditik, kudeaketa-sistemaren jardueratik e.a. desbideratzea, nola edo hala, ondorioz, zuzenean edo zeharkako eran, lesioak edo gaixotasunak, kalteak jabetzan, kalteak lantokian edo beraien konbinaketa bat sortaraz baldin balezake.

Bat ez etortzea (UNE-EN ISO 9000:2000): Eskakizun bat ez betetzea.

Araua (Industriaren 21/1992 Legea): Aplikazio errepikakorra edo etengabea duen zehaztapen teknikoa da; betetzea ez da derrigorrezkoa. Interesa duten alderdi guztiek parte hartu dute araua ezartzeko, eta bere arau-jarduerarengatik estatu edo nazioarte mailan aintzatetsita dagoen erakunde batek onartu du.

Normalizazioa (Industriaren 21/1992 Legea): Arlo zehatzen inguruan irizpideak batzeko eta jardueraren eremu zehatz batean hizkuntza amankomuna erabiltzeko jarduera da.

Helburuak (OHSAS 18001:1999): LSO gauzatzeko erakunde batek bere baitan eta bere baliabideez lortzeko ezartzen dituen helmugak. *OHARRA*: helburuak kuantifikatu beharko lirateke, hori posible denean.

Kontrol-erakundea (Industriaren 21/1992 Legea): Industria-segurtasunaren arloan, araudien eremuan, egiaztapen, saiakuntza, ikuskaritza edo auditoretza jarduerak burutzen dituzten erakundeak dira.

Erakundea (OHSAS 18001:1999): Konpainia, korporazioa, sozietatea, enpresa, instituzioa edo elkartea, edo aurrekoen parte bat, eratua zein eratu gabea, publikoa zein pribatua, bere eginkizun eta administrazio propioak dituena. *OHARRA*: unitate eragile bat baino gehiago dituzten erakundeen kasuan, unitate eragile horietako bat bakarrik har daiteke erakundetzat.

Erakundea (UNE-EN ISO 9000:2000): Erantzukizun, agintari eta harreman antolaketa duen pertsona eta instalazio multzoa.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (7/1993 Legea, 1994eko urtarrilaren 7ko EHAA): Administrazio-Erakunde autonomiaduna da; berariazko nortasun juridikoa du eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza Sailari atxikia dago, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-agintariek ezartzen dituzten laneko segurtasunaren, higienearen, ingurumenaren eta osasunaren eremuan dagozkion politikak

kudeatzeko helburuz, laneko giroari datxezkion arriskuen kausak jatorrian ezabatzeko edo murrizteko.

Alderdi interesduna (OHSAS 18001:1999): Erakunde bateko LSOren jardueran interesa duen edo jarduera horrek eragiten duen norbanakoa edo taldea.

Alderdi interesduna (UNE 66177:2005): Erakundearen jardueran edo arrakastan interesa duen pertsona edo taldea.

Arriskua (OHSAS 18001:1999): Kaltea sortzen duen iturria edo sor dezakeen egoera; hain zuzen ere, hau izango litzateke kaltea: lesioak edo pertsonen osasunerako ondorio negatiboak, jabetzari egindako kalteak, lantokiko giroari egindako kalteak, edo horien arteko konbinaketa bat.

Integrazio-Plana (UNE 66177:2005): Kudeaketa-sistemak integratzeko helburuz planifikatutako jarduera-programa. Plana garatzen da aurretik egindako azterketa baten emaitza gisa, eta lortu nahi diren helburuak, abian jarri beharreko ekintzak, epeak, erantzuleak eta baliabideak biltzen ditu.

Prebentzio-plana (egokitua, UNE-EN ISO 9000:2000): Dokumentu honek zehazten du zeintzuk diren ezarri beharreko prozedurak eta baliabide elkartuak, nork ezarri behar dituen, eta noiz aplikatu behar zaizkion egitasmo, prozesu, produktu edo kontratu espezifiko bati.

Lan-Arriskuen Prebentziorako Plana (604/2006 Errege-Dekretua. Prebentzio-Zerbitzuen Arautegiaren Aldaketa): Tresna bat da, zeinen bidez enpresaren prebentzio-jarduera bere kudeaketa-sistema orokorrean sartzen baita, eta lan-arriskuei aurrea hartzeko politika ezartzen baita.

Lan-Arriskuen Prebentziorako Politika (OHSAS 18002:2000): LAPrako politika batek zuzendaritzaren norabide globala ezartzeaz gain, erakunde baten ekintzarako printzipioak ematen ditu. LAPerako erakunde osoan eskatzen diren erantzukizun eta etekinen arloan lortu behar diren helburuak zehazten ditu. Erakunde batek LAP ongi kudeatzeko duen konpromezu formala, bereziki zuzendaritzako goi-kargudunena, frogatzen du.

Kudeatzeko politika integratua (UNE 66177:2005): Erakunde baten zuzentarau eta helburu orokorrak, goi-zuzendaritzak formalki adieraziak eta sistemen kudeaketa integratuarekin erlazionatuak.

Prebentzioa (Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 Legea): Lanak eragindako arriskuak saihesteko edo murrizteko xedez, enpresaren jarduera-aldi guztietan ezarritako edo aurrikusitako jardueren edo neurrien multzoa.

Prozedura (UNE-EN ISO 9000:2000): Jarduera edo prozesu bat burutzeko modu zehaztua. Prozedurak dokumentatuak zein dokumentatu gabeak izan daitezke. Prozedura bat dokumentatuta dagoenean, sarritan «prozedura idatzia» edo «prozedura dokumentatua» hitzak erabiltzen dira. Barne prozedura bat daukan dokumentuari «prozeduraren dokumentua» deritzo.

Prozesua (UNE-EN ISO 9000:2000): Elkarrekiko erlazioa duten edo elkar eragiten duten jarduera-multzoa, jarduera horiek sarrerako elementuak emaitza bihurtzen dituztelarik.

Arriskugarriak izan daitezkeen prozesuak, jarduerak, eragiketak, ekipamenduak edo produktuak (Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 Legea): Prebentzio-neurri espezifikorik ez dagoenean, garatzen edo erabiltzen dituzten langileen segurtasunerako edo osasunerako arriskuak sortzen dituztenak.

Neurtzeko prozesua (UNE-EN ISO 9000:2000): Magnitude baten balorea zehazten uzten duten eragiketa-multzoa.

Produktua (UNE-EN ISO 9000:2000): Elkarrekiko erlazioa duten edo elkar eragiten duten jarduera-multzoa, jarduera horiek sarrerak irteera bihurtzen dituztelarik.

Industria-produktua (Industriaren 21/1992 Legea): Edozein manufaktura edo produktu eraldatu edo erdi-eraldatua, higigarria bada, beste ondasun higigarri edo higiezin bati erantsita badago ere, eta osatzen duen edozein parte; esaterako, lehengaiak, substantziak, osagaiak eta produktu erdiburutuak.

Auditoretzaren programa (UNE-EN ISO 9000:2000): Denboraldi zehatz baterako planifikatuta dauden eta jomuga espezifiko bat daukaten auditoretza bat edo gehiagoren multzoa.

Egitasmoa (UNE-EN ISO 9000:2000): Jarduera koordinatu eta kontrolatuen multzoa osatzen duen prozesu bakarra da, hasteko eta bukatzeko datak jarrita dituelarik. Jarduerak helburu bat lortzeko burutzen dira, eskakizun zehatzei jarraiki, denbora, kostu eta baliabideen mugapenak barne.

Ekonomia-jardueraren adarrak (LANEren 155. Hitzarmena): Kontratupeko langileak dituzten adar guztiak, herri-administrazioa barne, biltzen dituzte.

Arautegiak (LANEren 155. Hitzarmena): Eskuduntza duen agintariaren edo agintari eskudunen erabakiz, lege-indarra duten ebazpen guztiak dira.

Erregistroa (UNE-EN ISO 9000:2000): Lortutako emaitzak aurkezten dituen edo egindako jardueren ebidentzia ematen duen dokumentua.

Arautegi teknikoa (Industriaren 21/1992 Legea): Ebazpen baten ondorioz, derrigorrez bete behar den industria-produktu, prozesu edo instalazioei buruzko zehaztapen teknikoa da, fabrikatzeko, merkaturatzeko edo erabiltzeko.

Eskakizuna (UNE-EN ISO 9000:2000): Ezarritako beharra edo igurikimena, oro har inplizitua eta bete beharrekoa.

Berrikuspena (UNE-EN ISO 9000:2000): Berrikuspenaren helburu den gaiaren egokitzapena, bat etortzea eta eraginkortasuna egiaztatzeko jarduera, ezarritako helburuak bete nahian.

Arriskua (OHSAS 18001:1999): Zehaztutako gertakari arriskugarri bat egoteko probabilitatearen eta gertaera horretatik sortutako ondorioaren/ondorioen konbinaketa.

Arriskua (UNE 66177:2005): Zehaztutako gertakari arriskugarri bat egoteko probabilitatearen eta gertaera horretatik sortutako ondorioen konbinaketa.

Lan-arriskua (Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 Legea): Langile batek lanak eragindako kalte zehatz bat izatearen aukera. Arrisku bat bere larritasunaren ikuspuntutik kalifikatzeko, batera baloratuko dira kaltea sortzeko dagoen probabilitatea eta bere larritasuna.

Lan-arrisku larria eta berehalakoa (Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 Legea): Berehalako etorkizunean gauzatu daitekeen arriskua —arrazionaltasunez hala frogatzen bada—, eta langileen osasunerako kalte larria ekar dezakeena. Langileen osasunari kalte larriak sortu diezaioketeen eragileen arriskua egon ezkero, arrisku larria eta berehalakoa dagoelako iritzia egongo da, arrazionaltasunez frogatzen bada berehalako etorkizunean agente horien arriskua gauzatzen denean, arriskatze horretatik osasunerako kalte larriak sortu baldin badaitezke, kalte horiek berehala azaltzen ez badira ere.

Arrisku jasangarria (OHSAS 18001:1999): Erakundeak onartu dezakeen maila bateraino murriztu den arriskua, erakundearen lege-betekizunak eta LSOri buruzko bere politika aintzat hartuta.

Osasuna (LANEren 155. hitzarmena): Osasun hitzak barne hartzen ditu, gaitz edo gaixotasunik ezaz gain, osasuna eragiten duten elementu fisiko eta mentalak, laneko segurtasun eta higienearekin zerikusi zuzena baldin badute.

Laneko segurtasun eta osasuna (OHSAS 18001:1999): Enplegatuen, aldi baterako langileen, kontratisten, bisitarien edo lantokian dagoen beste edozein pertsonaren ongizatea eragiten duten baldintzak eta faktoreak.

Segurtasuna (OHSAS 18001:1999): Onartu ezin den kalte-arriskurik ez egotea [ISO/IEC 2. Gida].

Prebentzio-Zerbitzua (Laneko Arriskuen Prebentzioko 31/1995 Legea): Prebentzio-jarduerak burutzeko behar diren giza baliabideek eta baliabide materialek osatutako multzoa da, langileen segurtasuna eta osasuna era egokian babesteko. Horretarako laguntza emango die enpresaburuari, langileei, bere ordezkariei eta ordezkaritza-organo espezializatuei.

Sistema (UNE-EN ISO 9000:2000): Elkarrekin erlazionaturik dauden edo elkar eragiten duten elementuen multzoa.

Kalitate-sistema (Industriaren 21/1992 Legea): Enpresa bat antolatzeko eta bere kalitatea kudeatzeko ezartzen dituen egiturak, erantzukizunek, jarduerek, baliabideek eta prozedurek osatzen duten multzoa.

Kudeatzeko sistema (UNE-EN ISO 9000:2000): Politika eta helburuak ezartzeko eta helburu horiek betetzeko sistema.

LSO kudeatzeko sistema (OHSAS 18001:1999): Erakundea osorik kudeatzeko sistemaren parte bat, erakundearen jarduerari lotutako LSOren arriskuen kudeaketa errazten duena. Honako hauek hartzen ditu barne: erakundearen LSOren politika garatzeko, ezartzeko, lortzeko, berrikusteko eta mantentzeko antolamoldea, jardueren plangintza, erantzukizunak, praktikak, prozedurak, prozedurak eta baliabideak.

Kudeatzeko sistema integratua (SIG) (UNE 66177:2005): Sistemen kudeaketa integratua burutzeko ezartzen diren erakundearen egiturak, erantzukizunek, prozedurek, prozesuek eta baliabideek osatutako multzoa.

Langileak (LANEren 155. Hitzarmena): Langile guztiak sartzen dira definizio honetan, herri-enplegatuak barne.

Txandakako lana (Langileen Estatutua): Talde-lana antolatzeko era guztiak, non langileek lanpostu berberak elkarren segidan betetzen baitituzte, erritmo etengabe edo eten bati jarraiki; honelakoetan, langileak bere zerbitzuak ordu ezberdinetan eman behar ditu, egun edo aste-aldi zehatz batean.

Gaueko lana (Langileen Estatutua): Gaueko hamarrak goizeko seiak bitartean egindako lana da.

Gaueko langilea (Langileen Estatutua): Gaueko langiletzat hartuko da, gaueko aldian, gutxienez, bere lanaldiko 3 ordu egiten ohi dituena; halaber, gaueko langiletzat hartuko da, aurrikusitakoaren arabera, aldi horretan, gutxienez urteko lanaldiaren herena egingo duena.

Trazabilitatea (UNE-EN ISO 9000:2000): Aztertzen ari denaren historia, erabilera edo kokapena zehazteko gaitasuna.

Egiaztatzea (UNE-EN ISO 9000:2000): Ebidentzia objektiboak ematearen bidez, aurrikusitako erabilpen edo aplikazio espezifiko baten eskakizunak bete direla baieztatzea.

Egiaztatzea (UNE-EN ISO 9000:2000): Ebidentzia objektiboak ematearen bidez, zehaztu diren eskakizunak bete direla baieztatzea.

OHARRA: Testuan karguen edo lanbideen izenetarako genero maskulinoa erabiltzen bada ere, horien bidez sexu bateko zein besteko pertsonak izendatzen dira.

2. eranskina

LAP enpresa kudeatzeko sistema orokorrean nola integratu den baloratzea

1. Helburua

Eranskin honen helburua, kudeaketaren eta emaitzaren adierazle-sorta bat definitzea da, enpresa kudeatzeko sisteman LAPen integrazio-maila ebaluatzeko, eta LAPren sistemaren eraginkortasuna baloratzeko.

2. Norainokoa

LAPen integrazioari eta lortutako emaitzei buruzko adierazleak erabili beharko dira auditoretzaren jarduera garatzen denean, bai LAPren arauzko auditoretzetan, bai enpresen barruan eta beraien ekimenez enpresetan oro har gara litezkeen ikuskapen guztietan, jarduera, lantokiak, plantillak e.a. bereizi gabe.

3. Erreferentziazko legedia

Azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

Azaroaren 12ko 54/2003 Legea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Arau-Markoaren Erreforma ezartzen duena.

Urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege-Dekretua, Prebentzio-Zerbitzuen Arautegia onartzen duena.

Maiatzaren 19ko 604/2006 Errege-Dekretua, 39/1997 Errege-Dekretua aldatzen duena.

4. Definizioak

Efikazia: Nahi den edo espero den ondorioa edo helburua lortzeko gaitasuna, zerbitzuan jarritako giza baliabideen edo baliabide materialen arabera. UNE-EN ISO 9000:2000 arauak honela definitzen du efikazia: Hedadura, non planifikatutako jarduerak egiten diren eta planifikatutako emaitzak lortzen diren.

Adierazleak: Kudeaketaren jarduera edo aldaera bati lotutako magnitudeak dira; ekintzen burutzapen-maila eta helburuak betetzean dagoen eraginkortasuna aldizka ebaluatzeko balio dute.

Kudeaketaren adierazlea: Lortutako emaitzen ikuspegia ematen duen edozein indize, ratio edo neurri.

LAPren integrazioa: LAP prozesu teknikoetan, lanaren antolakuntzan eta lana ematen den baldintzetan proiektatu behar da, eta eragina izan behar du hierarkia-maila guztietan, maila horiek prebentzioa bereganatu behar dutelako, burutzen edo agintzen duten edozein jardueratan aintzat hartu beharreko beste elementu bat delakoan.

5. Prebentzioa sartzea

Arau-markoaren erreformarako 54/2003 Legeak aldatu zuen LAPLk, bere 16. artikuluan ezartzen du «Lan-Arriskuen Prebentzioa, Enpresa kudeatzeko sistema orokorrean integratuko dela, bai bere jarduera guztien multzoan, bai hierarkia-maila guztietan».

Gainera, «enpresako hierarkia maila guztien integrazioak suposatzen du haiei guztiei eman behar zaiela, eta haiek guztiek bereganatu behar dutela, arriskuen prebentzioa burutzen edo agintzen duten edozein jardueratan, eta hartzen dituzten erabaki guztietan sartzeko betebeharra».

Halaber, PZA, bere I. Kapituluaren, 1. artikuluan, berriz azpimarratzen du prebentzioa integratzearen garrantzia eta honela dio: «Lan-arriskuen prebentzioa, enpresaren baitan garatu beharreko ekintza den aldetik, enpresa kudeatzeko sistema orokorrean sartu beharko da, eta bere jarduera guztiak zein bere hierarkia-maila guztiak hartuko ditu barne, LAPrako plan bat ezarriz eta aplikatuz, plan horren egitura eta edukia Arautegi honen 2. artikuluan zehazten direlarik».

PZAn azaltzen da ere «prebentzioa enpresaren jarduera guztietan integratze hori, prozesu teknikoetan, lanaren antolakuntzan eta lan egiteko baldintzetan proiektatu behar» dela.

Beste gai batzuetara pasatuz, «langileek eta beraien ordezkariek laguntza eman beharko dute LAP enpresan integra dadin, eta lankidetza eman beharko dute prebentzio-neurriak ezar eta bete daitezen».

Orobat, PZAren 30.1 artikuluak, kontzeptu, eduki, metodologia eta epea izenburupean, auditoretza honela definitzen du: «kudeatzeko tresna bat, enpresako LAPren sistema zehaztasunez islatu nahi duena; horretarako, bere eraginkortasuna baloratzen du eta indarrean dagoen araudia ez betetzera eraman dezaketen akatsak detektatzen ditu, sistema hori perfekzionatzeko eta hobetzeko erabakiak hartu ahal izateko xedez».

PZAren 30.2 artikuluak, bere aldetik, azaltzen du auditoretzak «prebentzioa enpresa kudeatzeko sistema orokorrean integratzea baloratuko du, bai bere jardueren osotasunean, bai enpresako hierarkia-maila guztietan, lan-arriskuei aurrea hartzeko Plana ezarriz eta aplikatuz, eta baloratuko du ere prebentzio-sistemaren eraginkortasuna, enpresaren jarduera-aldi guztietan lan-arriskuak prebenitu, identifikatu, ebaluatu, zuzendu eta kontrolatzeko».

Horretarako neurtuko da LAP zein mailatan integratuta dagoen enpresako zuzendaritzan, enpresaren produktu eta antolamoldearen aldaketetan, instalazio edo ekipamenduen mantenuan, arriskugarriak izan daitezkeen jardueren gainbegiratzean, e.a.

Beste gai bati dagokionez, PZAren 31 bis artikuluan azaltzen da «prebentzio-jarduerak enpresako eta kanpoko baliabideekin garatzen dituzten enpresetako prebentzio-sistemaren auditoretzaren helburua izango dela, enpresaburuak bere baliabide propioak erabiliz garatutako prebentzio-jarduerak eta enpresa kudeatzeko sistema orokorrean sartzea, antolamolde misto horrek sisteman duen eragina kontutan izanik».

Aurrekoarengatik guztiarengatik, begi bistako eta beharrezko dirudi baloratzeak prebentzioaren integrazio-maila zein mailatan sartzen den enpresa kudeatzeko sistema orokorrean, adierazleak erabiliz, aurretik adierazle horiek eskatu eta aztertu ondoren, laguntza eman dezaten eta auditoreari eman diezaioten gutxi gora beherako irizpidea, enpresa ikuskatuak lortu duen integrazio-mailaren inguruan.

6. Integrazio-mailaren adierazleen koadroa

Enpresa kudeatzeko sistema orokorrean lan-arriskuen prebentzioaren integrazio-maila ebaluatzeko, eransten den koadroa ematen da; bertan sartu dira, zehatzak izan gabe, auditoretzaren ariketa praktikoan auditorearentzako lagungarri izango diren kontu batzuk.

Hala ere, jarraian eskaintzen den koadroak bakarrik eta soilik balio du auditorearentzako oinarrizko gida izateko eta ez du nahi, ezta behar ere, auditorearen irizpide teknikoaren ordezkari izan.

Aipatu koadro horrek honako hau aurkezten du:

—KD: Integrazio-adierazlearen kodea.
—INTEGRAZIO-ADIERAZLEAK: Adierazleen zerrenda, zehatza izan gabe.
—EGOERARI BURUZKO AZTERKETA: Zutabe horretan auditoreak, bere irizpideari jarraiki, baiezko erantzuna (BAI) edo ezezkoa (EZ) ematen du, edo adierazlea inplantazio-prozesuan dagoela azaltzen du (EC).

—BALORAZIO-BAREMOA: Berriz ere auditorearen irizpideari jarraiki, hemen islatzen da ebaluatutako integrazio-maila ona (B), onargarria (A), urria (D) edo oso urria (MD) den.

—OHARRAK: Tarte honetan auditoreak interesgarritzat jotzen duen edozein aspektu edo zirkunstantzia islatzen da.

Badirudi nabaria eta beharrezkoa dela integrazio-mailei buruzko irizpide orientagarri batzuk definitzea; irizpide horiek 2. eranskin honen 8. atalean azaltzen den koadroan ematen dira.

6.1 ADIERAZLEEN KOADROA: INTEGRAZIO-MAILA.
(zerrendarako proposamena, ez zehatza).

KD	INTEGRAZIO-MAILAREN ADIERAZLEAK.	EGOERARI BURUZKO AZTERKETA			BALORAZIO-BAREMOA			
		BAI	EZ	EC	B	A	D	MD
01	Lan-Arriskuei Aurrea hartzeko Plana dago, hedatzen da eta ezaguna da.							
02	LAPko politika enpresaren beste politika batzuetan integratuta dago (lan-ekipamendu edo produktuen erosketa, lan edo zerbitzuen kontratazioa, langileen kontratazioa, e.a.).							
03	Badira prozedura amankomunak, enpresaren kudeaketa orokorrerako eta LAPren kudeaketarako balio dutenak.							
04	Langileek ezagutzen dituzte LAPren prozedurak.							
05	Enpresaren organigrama orokorrak barne hartzen ditu LAPren eginkizunak eta erantzukizunak.							
06	Langileek bere lana egiten dute, LAPn banatutako eginkizunak eta erantzukizunak aintzat hartuta.							
07	Enpresako LAPren antolakuntzan diharduten langileek, parte hartzen duten aldatzeko prozesuetan (lan-ekipamenduak, produktuak, instalazioak, prozesuak, lan edo zerbitzuen kontratazioa, langileen kontratazioa, e.a.).							
08	Lan-arriskuen ebaluaketan, kontutan hartu izan da produkzioko langileen eta antzekoen iritzia.							
09	Lan-arriskuen ebaluaketak eragindako langile guztiek lan-arriskuen ebaluaketa hori ezagutzen dute.							
10	Prebentzio-jardueraren plangintza sartuta dago enpresa kudeatzeko planaren barruan.							
11	Zuzendaritzaren bileretan edo antzekoetan, LAPren plangintzaren egoera aztertzen da.							
12	Prebentziozko mantenuaren sistemak LAPko ekintzak hartzen ditu barne.							
13	Aurrekontu orokorretan LAPrako partidak sartzen dira.							
14	Enpresaren trebakuntza-plan orokorrean, LAPrako prestakuntza-jarduera espezifikoak sartzen dira.							
15	Ekoizpen ataleko trebakuntza-jardueretan edo antzekoetan, programan LAPri lotutako gaiak sartzen dira.							
16	Ohiko informazio-bideak erabiltzen dira LAPri lotutako gaiei buruzko argibideak emateko.							
17	Ekoizpen atalaren ikuskapen orokorretan edo antzekoetan LAPri lotutako gaiak sartzen dira.							
18	Agintariek zuzenean hartzen dute parte LAPko ikuskapen orokorretan eta bere arloei dagozkien ikuskapen espezifikoetan.							
19	Istripurik, lan-jazoerarik edo lanbide-gaixotasunik egotekotan, gertakaria aztertzen da, amankomunean, agintarien partaidetzarekin.							
20	Zuzendaritza-taldea informatuta dago gertatu diren lan-istripu, jazoera eta lanbide-gaixotasunen inguruan, aritzen da eta beraien aldizkako jarraipena egiten du.							
21	LAPri buruzko auditoretzak, enpresak egin behar dituen auditoretzen urteko egitasmoan sartzen dira.							
22	Las auditorías de PRL se incluyen en el Plan anual de Auditorías de la empresa.							
OHARRAK.								

7. Emaitzen adierazleen koadroa: eraginkortasun-maila

Eraginkortasuntzat edo efikaziatzat hartzen da «nahi den edo espero den ondorioa lortzeko gaitasuna». LAPren arloan, lan-bizitzaren kalitatea hobetu nahi eta espero da, segurtasun eta osasunari dagokionean behintzat, helburu hori lortzeko erabilitako baliabideen arabera.

Zentzu horretan, arau-markoa erreformatzeko 54/2003 Legearen bidez onartu zen LAPLk, bere zioen azalpenean honako hau dio: «langileen osasuna maila egokian babestu behar da laneko baldintzek eragindako arriskuen aurrean, eta hori LAPrako politika koherente, koordinatu eta eraginkor baten markoan».

Halaber, Lege horren hitzaurrean azaltzen du: «arau-markoaren ezarpenean bildutako esperientziari esker baiezta daiteke bere aplikazioa oztopatzen duten arazo batzuk daudela, eta, batetik, lan-istripuetan eta, bestetik, nahi ez diren laneko ezbehar-tasaren indizeetan islatzen direla».

Beste gai batera pasatuz, eta PZAren 30. artikuluan ezartzen denez (kontzeptua, edukia, metodologia eta helburuak), «auditoretza kudeatzeko tresna bat da; enpresan lan-arriskuei aurrea hartzeko sistemaren irudi zehatza eman nahi du, eta, horretarako, bere eraginkortasuna baloratzen du eta indarrean dagoen araudia ez betetzera eraman dezaketen akatsak detektatzen ditu, sistema hori perfekzionatzeko eta hobetzeko erabakiak hartu ahal izateko».

PZAren 30.2 artikuluaren d atalean, bere aldetik, honako hau azpimarratzen da: «prebentzioa, enpresa kudeatzeko sistema orokorrean nola integratzen den baloratuko du auditoretzak, bai bere jardueren osotasunean, bai enpresako hierarkia-maila guztietan, lan-arriskuei aurrea hartzeko Plana ezarriz eta aplikatuz, eta baloratuko du ere prebentzio-sistemaren eraginkortasuna, enpresaren jarduera-aldi guztietan lan-arriskuak prebenitu, identifikatu, ebaluatu, zuzendu eta kontrolatzeko».

PZAren 30. artikuluaren 3d atalean ere, «enpresaren LAP sistemaren eraginkortasunari buruzko ondorio batzuk» sartzea exigitzen da.

Dena den, lege-betebeharretatik aparte, enpresek, etekinak lortu nahi dituzten unitate sozioekonomikoak diren aldetik, bere kudeaketaren errentagarritasun eta eraginkortasun-maila batzuk, erabilitako baliabide eta ahaleginei egokituak, izan behar dituzte; eta, horrelakoetan, LAPren kudeaketa beste jarduera bat gehiago da, eta enpresaren politika horrek era zuzenean eragiten du.

Ondorioz, badirudi beharrezkoa eta bidezkoa dela enpresa-adierazle batzuk izatea; adierazle horiek, auditoretzaren ekitaldian eskatzen direlarik, laguntza emango digute, enpresa ikuskatuaren prebentzio-kudeaketak lortzen dituen eraginkortasun-mailak ezagutzeko.

Adierazle-kopuru altu bat izateak, erraztasunak eman baino gehiago, oztopatu dezake irizpideen lorpena, irizpide horien bidez prebentzio-sistemaren eraginkortasuna ebaluatzeko eta, gainera, ziur aski, balio erantsi txikia emango dute. Horrexegatik, eskatu behar diren adierazleen zerrenda —ez zehatza— eskaintzen da jarraian; eta eskatu daitezke, auditoreak bere ekimenez enpresa ikuskatuari eska diezazkiokeen adierazleez aparte.

Prebentzio-jarduerari buruzko adierazleak dira, hain zuzen ere. Enpresak ekoizpen eta produkzio jardueretarako adierazle, indize edo ratio amankomunak izatea ezin hobea izango litzateke, eta auditoreak nolabaiteko interesa eta sentiberatasuna azaldu behar du aspektu horrekiko.

7.1. EMAITZEN ADIERAZLEEN KOADROA. ERAGINKORTASUN-MAILA.
(zerrendarako proposamena, ez zehatza).

Nabaria da auditoreak ez duela bakarrik eta soilik ebaluatu behar adierazle ezberdinen eboluzioaren faktorea; aitzitik, lortutako balorea ere izan behar du kontutan. Hau da, egon daitekeen eboluzioaren irizpidearekin batera, aintzat hartu behar da «onak» edo «txarrak» direla, aukeratutako erreferentziazko baloreen arabera (sektorea, jarduera, geografia-eremua, e.a.).

KD	KONTZEPTUA	AURREKO 3 URTEETAKO EMAITZA			URTE HONETAN					BALORAZIO-BAREMOA			
		1.	2.	3.	1.T	2.T	3.T	4.T	URTEA	B	A	D	MD
01	Baja eragiten duten lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen kopurua.												
02	Bajarik gabeko lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen kopurua.												
03	Maiztasun orokorraren indizea (baja eragiten duten eta bajarik gabeko istripuak).												
04	Maiztasun-indizea												
05	Lanera ez agertzeen % (lan-istripuengatik eta lanbide-gaixotasunengatik), totalaren gainean.												
06	Intzidentzia-indizea.												
07	Istripu-kopuruaren eta ekoizpen- edo zerbitzu-unitateen arteko erlazioa (*)												
08	Langile kopuruaren eta LAPren urteko aurrekontuaren arteko erlazioa. (**)												
09	Ekintza zuzentzaileen edo prebentzio-ekintzen %, planifikatutakoen gainean.												
10	LAPri buruzko kontsulten %, planteatutakoen gaineajn. (***)												
11	LAPri buruz egindako kontsulten %, guztirako langile-kopuruaren gainean. (***)												
12	LAPri buruz egindako kontsulten %, guztira erositako ekipamendu eta/edo produktuen kopuruaren gainean. (***)												
13	LAPri buruz egindako kontsulten %, guztira kontratatutako langileen kopuruaren gainean. (***)												
14	LAPri buruz egindako kontsulten %, guztira egindako lan eta/edo zerbitzuen kopuruaren gainean. (***)												
15	LAPri buruz egindako kontsulten %, arriskugarriak izan daitezkeen instalazio edo ekipoetan guztira egindako mantenu, berrikuspen edo froga-eragiketen kopuruaren gainean. (***)												
16	LAPko trebakuntza espezifikoa duten langileen %, plantilla osoaren gainean.												
17	LAPrako erabilitako orduen %, lanean erabilitako ordu guztien gainean. (****)												
OHARRAK													

(*) Horrelakoetan lortu nahi den adierazlearen bidez, istripuen %, ekoizpen-unitate edo zerbitzuarekin erlazionatu nahi da (tonak, piezak, ...ren metroak, lan edo aholkularitza-orduak, tramitatu diren espedienteak, kontratuen orduak, e.a.

(**) Kasu horietan lortu nahi den adierazlearen bidez, LAPrako aurrekontuaren urteko kopuruaren eta plantillako langile bakoitzaren artean dagoen erlazioa islatu nahi da, eta balore hori gertatu diren istripu-kopuruarekin, edo azaldutako koadroan islatzen den beste edozein adierazlerekin kontrastatu nahi da.

(***) Langileek enpresan LAPn diharduen erakundeari egindako kontsultak dira.

(****) Enpresan LAPen diharduen erakundeak erabilitako orduak dira.

8. Balorazio-irizpideen taula orientagarria

Argibide moduan, integrazio eta efikazia-mailei buruzko taula orientagarria eskaintzen dugu, on, onargarri, urri edo oso urritzat hartzen diren irizpideak argitzeko xedez.

	INTEGRAZIOA		EFIKAZIA
ONDO	SISTEMAK INTEGRATZEKO METODO BAT AURKEZTEN DU, NON **LAP**, TEORIAN ETA JARDUERAN, ENPRESA KUDEATZEKO SISTEMEN MULTZOAN INTEGRATZEN BAITA, ETA GAINERAKO SISTEMEKIN KONPARATUZ, TRATAMENDU BERDIN ETA OREKATUA HARTZEN BAITU.	ONDO	JARDUERA-BALDINTZA NORMALETAN, AZTERTU DIREN EFIKAZIA-ADIERAZLE GUZTIEK EBOLUZIO POSITIBOA IZAN DUTE. ADIERAZLE HORIEK ALDIZKA KONTROLATZEN DIRA, ZUZENDARITZA INFORMATUTA DAGO ETA, DESBIDERAKETARIK EGOTEKOTAN, BEHAR DIREN EKINTZA ZUZENTZAILEAK EZARTZEN DIRA.
ONARGARRIA	SISTEMAK INTEGRATZEKO METODO BAT AURKEZTEN DU, NON **LAP**, TEORIAN ETA JARDUERAN, ENPRESA KUDEATZEKO SISTEMEN MULTZOAN INTEGRATZEN BAITA, GAINERAKO SISTEMEKIN KONPARATUZ, TRATAMENDU EZBERDINA ETA EZ OREKATUA HARTZEN BAITU.	ONARGARRIA	JARDUERA-BALDINTZA NORMALETAN, AZTERTU DIREN EFIKAZIA-ADIERAZLE GUZTIEK EBOLUZIO POSITIBOA IZAN DUTE. ADIERAZLE HORIEK EZ DIRA ALDIZKA KONTROLATZEN, ZUZENDARITZA EZ DAGO INFORMATUTA ETA, DESBIDERAKETARIK EGOTEKOTAN, BEHAR DIREN EKINTZA ZUZENTZAILEAK EZARTZEN DIRA.
URRIA.	TEORIAN, **LAP** KUDEATZEKO SISTEMA INTEGRATUA AURKEZTEN DU, BAINA BERE JARDUERAREN GARAPENEAN, KUDEAKETA INTEGRATUAN HUTSUNE HANDIAK NABARITZEN DIRA.	URRIA.	JARDUERA-BALDINTZA NORMALETAN, AZTERTU DIREN EFIKAZIA-ADIERAZLE GUZTIEK EZ DUTE EBOLUZIO POSITIBORIK IZAN. ADIERAZLE HORIEK EZ DIRA ALDIZKA KONTROLATZEN, EDO ZUZENDARITZA EZ DAGO INFORMATUTA ETA, DESBIDERAKETARIK EGOTEKOTAN, EZ DA EZARTZEN BEHAR DEN EKINTZA ZUZENTZAILERIK.
OSO URRIA	TEORIAN ETA PRAKTIKAN, **LAP** KUDEATZEKO SISTEMA, ENPRESA KUDEATZEKO BESTE SISTEMEKIN INTEGRATUTA —ERA PARTZIALEAN— DAGO. BERTAN GARRANTZIZKO HUTSUNEAK ANTZEMATEN DIRA KUDEAKETA INTEGRATUARI DAGOKIONEZ.	OSO URRIA.	JARDUERA-BALDINTZA NORMALETAN, AZTERTU DIREN EFIKAZIA-ADIERAZLE GUZTIEK EDO GEHIENEK EBOLUZIO NEGATIBOA IZAN DUTE. EBOLUZIOA EZ DA ALDIZKA KONTROLATZEN, EDO ZUZENDARITZA EZ DAGO INFORMATUTA ETA, DESBIDERAKETARIK EGOTEKOTAN, EZ DA EZARTZEN BEHAR DEN EKINTZA ZUZENTZAILERIK.

Integrazio eta eraginkortasunari buruzko adierazle ezberdinak lortu, bete eta aztertu ondoren, laburpena eskaintzen duen koadroa eraman daitezke; horretatik azken irudi orokor bat lortuko dugu eta irizpidea finkatzen utziko gaitu.

ADIERAZLEEN LABURPEN GRAFIKOA.

Zkia.	Integrazioa			
	B	A	D	MD
01				
02				
03				
04				
05				
06				
07				
08				
09				
10				
11				
12				
13				
14				
15				
16				
17				
18				
19				
20				
21				
22				

Aurreko koadroetan balorazioak lortu ondoren, laburpen-koadroetara eramaten dira, azken irudia lortzeko xedez, auditoreak errealitateari lotutako irizpidea finkatu dezan.

Zkia.	Efikazia			
	B	A	D	MD
01				
02				
03				
04				
05				
06				
07				
08				
09				
10				
11				
12				
13				
14				
15				
16				
17				

Azken gogoetak: oharrak.

Integrazioari buruzko ondorioa:

Eraginkortasunari buruzko ondorioa:

9. Metodologiari eta adierazleei buruzko gogoetak

Interesgarritzat jotzen dugu metodologiari eta adierazleei buruzko gogoeta batzuk egitea, LAPren kudeaketa sistemen integrazioa eta eraginkortasuna, edo, bestelako hitzak erabiliz, gainbegiratzea eta emaitzen neurketa ebaluatzeko metodologia eta adierazle horiek erabili nahi baldin badira.

Zentzu horretan, honako hau azaldu nahi dugu:

—LAP kudeatzeko edozein sistemak prozedurak eskaini behar ditu laneko segurtasun eta osasunaren emaitzei buruzko datuak erregulartasunez gainbegiratzeko, neurtzeko eta biltzeko.
—Integrazio-adierazleen hautaketak eta, bereziki, eraginkortasun-adierazleenak, enpresaren tamainari, antolamoldeari eta jarduera-izaerari egokituta egon beharko lukete.
—Gehien bat adierazle subjektiboak direnez, aztertu beharko litzateke neurketak erabiltzeko aukera; neurketa horiek kualitatiboak zein kuantitatiboak izan daitezke, erakundearen beharrei eta egiturei egokituak, ebaluatzeko xedez.

Auditoretza egitean auditoreak ezagutzak, esperientzia, irizpideak, inpartzialtasun teknikoa behar ditu; baina, bereziki, ebidentziak eta adierazleak behar ditu, ikuskatutako kudeaketa-sistemaren inguruko irizpen kritikoa eta errealitateari lotua eman ahal izateko. Azaldutakoaren helburu bakarra honako hau da: eman behar den irizpen kritikoa, enpresaren errealitateari, ahalik eta gehien lotzen laguntzea, hain zuzen.

Halaber, auditoretza egiteko auditoreak erreferentziazko parametroak izan, ezagutu eta aplikatu behar ditu, auditoretza egin denean lortutakoekin konparatzeko elementu moduan erabil ditzan. Horrela, sistema ikuskatua ebaluatzeko irizpide hobea eta zuzenagoa erraztuko zaio.

3. eranskina

Bibliografia

1. LAPko sistemen auditoretza. Confemetal Fundazioa, 2000. urtea.
2. Enpresako LAPren sistemaren kanpoko auditoretza. AENOR, Espainiako Normalizazio-Erakundea. 2002. urtea.
3. LAP kudeatzeko sistemen auditoretza. Osasun eta Gizarte Ongizaterako Erakunde Europarra, 1999. urtea.
4. Laneko segurtasun eta osasuna kudeatzeko sistemei buruzko zuzentarauak. ILO-OSH-2001. Lanaren Nazioarteko Bulegoa. Geneva.
5. Arrakasta Osasun eta Segurtasunaren kudeaketan. LSHIN, 1994. urtea.
6. Papergintzaren sektorerako Prebentzio Planaren ereduzko gidaliburua. Espainiako Papergintzaren Institutua.
7. LAPren auditoretza ETEan. AMAT, Lan-Istripuetarako Mutualitateen Elkartea, 1999. urtea.
8. Kalitatea, ingurumena eta segurtasuna enpresaren kudeaketan integratzea. Labein Fundazioa, 1998. urtea.
9. LAPko Auditorearen Eskuliburua. Osalan, 2001. urtea.
10. LAPrako prozeduren eskuliburua; egiteko gida. LSHIN, 2003. urtea.
11. Lan-ekipamenduak indarrean dagoen legediari egokitzeko eskuliburua. Osalan.
12. LAP enpresa kudeatzeko sistema orokorrean integratzea errazteko orientabideak. LSHIN, 2004. urtea.
13. Lan-arriskuen prebentzioa kudeatzeko sistemak. OHSAS 18001 ezartzeko arau orokorrak. OHSAS 18002:2000.
14. Laneko segurtasun eta osasuna kudeatzeko sistemak. Zehaztapena. OHSAS 18001:1999.

4. eranskina

Galdetegiak

Auditoria **oinarrizko galdetegietan** (hamabi blokez osatua) oinarrituta egiten da, eta gehigarri gisa, beste hamar **galdetegi osagarri** (ia-ia orokorrean erabil daitezkeenak) egiten dira. Gainera, beste galdetegi batzuk ere prestatu dira, bai **jarduera berezietarako** zein **berariazko arriskuetarako**. Azken hauek, beharrezkoak diren kasu zehatzetan baino ez dira erabiliko.

Galdetegi-mota
Oinarrizkoa.
1. Enpresaren identifikazioa.
2. Antolamenduaren egitura.
3. Ekoizpenaren antolamendua.
4. Prebentzioaren antolamendua.
5. Politika, helburuak eta jomugak LAPean.
6. Arriskuen ebaluazioa.
7. Prebentzio-jardueraren plangintza.
8. Larrialdietako neurriak.
9. Arrisku larri eta hur-hurrekoa.
10. Arrisku jakin batzuk jasateko bereziki sentsibleak diren langileak, amatasuna babestea eta adin txikikoen lana.
11. Langileen prestakuntza eta informazioa.
12. Kontrol-jarduerak.
Osagarriak.
A.1. Lanlekuak.
A.2. Seinaleak.
A.3. Lan-ekipoak.
A.4. Industria-segurtasuneko instalazioak eta ekipoak.
A.5. Norberaren babeserako ekipoak.
A.6. Zamak eskuz manipulatzea.
A.7. Bistaratzeko pantailak.
A.8. Instalazio elektrikoak.
A.9. Aldi baterako laneko enpresak.
A.10. Enpresa-jardueren koordinazioa.

Jarduera Bereziak.
B.1. Eraikuntza-lanak.
B.2. Arrantza-ontziak.
B.3. Meatzaritza-jarduerak.
Arrisku Zehatzak.
C.1. Agente biologikoak.
C.2. Agente kantzerigenoak.
C.3. Agente kimikoak.
C.4. Erradiazio ionizatzaileak.
C.5. Zarata.
C.6. Substantzia arriskutsuak.
C.7. Bibrazioak.
C.8. Amiantoa.
C.9. Atmosfera leherkorrak.

Galdetegiak betetzeko jarraibideak

Auditoria bat behar bezala prestatu ahal izateko uste da, auditoreak, hasi baino lehen, enpresak emandako ondorengo dokumentazioa izan beharko lukeela:

Enpresaren jarduerari buruzkoak:

—Jarduera ekonomikoaren deskribapena (ekoizpen-prozesua, erabilitako lehengaiak, amaitutako produktuak, erabilitako produktu toxiko, arriskutsu, sukoi eta leherkorrak, etab.).
—Enpresaren organigrama.
—Lan-ordutegia eta lantoki bakoitzeko langile-kopurua.
—Lan-ekipoen inbentarioa (ekipoak, makinak, industria-instalazioak).
—Enpresa arautzen duen hitzarmen kolektiboa (gutxienez, LAPari dagozkionak).
—Kooperatiben kasuan, barne-erregimeneko estatutuak eta/edo arautegiak.

Enpresako prebentzio-jarduerari buruzkoak:

—Prebentzioaren antolaketa-eredua (kontratua, badagokio).
—Arriskuen ebaluazioa.
—Laneko arriskuen prebentzio-plana.
—Prebentzio-ekintzaren plangintza.
—Larrialdietako plana.
—Eskuliburua eta prozedurak.

Barne-jarduerei buruzkoak:

—LAPen inguruan egindako jarduerei buruzko memoriak.
—Aurrez LAPari buruzko egindako auditorien txostenak.
—Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren Bisita Liburua.

—Osalanen esku-hartzeak.

Gainera, galdetegi bakoitzean, galdetegiko itemak egiaztatzeko auditorian zehar enpresari eska dakiokeen beharrezko dokumentazio edo dokumentazio komenigarriaren zerrenda orientagarria adierazten da («*Eskatu beharreko dokumentazioa*» atalean).

Galdetegiak honako zutabe hauetan zatitu dira:

Zkia.: Item ezberdinen elkarren segidako zenbakiei dagokie.

EGINBEHARRA: Legez eska daitekeen baldintza. Auditoriak oinarritzat duen legezko artikulatuko alderdirik garrantzitsuenak zehaztu dira item gisa.

ERREF.: Behar izanez gero, artikuluaren xehetasuna daraman legezko erreferentzia, honela azkarrago aurkituko baita baldintza legezko artikulatuan.

INTERPRETAZIO IRIZPIDEA: Askotan beharrezkotzat jotzen da azalpen osagarriak gehitzea, baldintzen edukiak argitzeko. Azalpen horiek edukiak argitu eta zehazten dituzte. Kasu anitzetan, artikulatuak berak aurreikusten dituen irizpideen ingurukoak dira eta, beste batzuetan, Eskuliburua prestatu duen lantaldearen ekarpenak.

EBIDENTZIA OBJEKTIBOAK: Galdetegian definitutako baldintzak betetzen direla egiaztatzea ahalbidetzen duten probak. Honako hauek oinarritzat hartuta lortzen dira:

—Egindako jarduerei buruzko informazioa ematen duten *erregistroak edo dokumentuak.* Hauen egiazkotasuna, behaketa, neurketa, entsegu eta bestelakoez lortutako gertakarietan oinarrituta egiazta daiteke. Dokumentu hauek enpresan bertan edo enpresatik kanpo prestatutakoak izan daitezke.

—*Idatzizko eta/edo ahozko adierazpenak.* Elkarrizketetan eskuratutako ahozko informazioa, beste iturri batzuetatik eskuratutako antzeko informazioekin erkatu egin behar da, hala nola, behaketa fisiko, neurketa eta erregistroetatik bertatik.

—Auditore-taldeak tokian bertan egindako *azterketa, neurketa eta/edo behaketa fisikoak.* Arriskuen ebaluazioko alderdiren bat egiaztatu behar denean ez dira egiten. Kontuan izan behar da segurtasun- eta osasun-arloko jarduerei buruzko funtsezko neurketa ugari, nabarmen aldatzen direla denboraren eta espazioaren arabera. Horregatik, eta neurketa edo behaketa hauen adierazgarritasuna bermatzeko, laginketa-programen plangintza arreta handiz egin behar da.

B: Baldintza bakoitzaren balorazioa, gehienezko baliotzat, item-motaren arabera, 5, 3 edo 1 hartuta. Auditoreak erabakiko du bitarteko baliorik esleitu ala ez (0etik dagokion gehienezko baliora bitartean).

BETEARAZPENA: Hiru azpizutabe jartzen dira, eta horietan *B* (baldintza betetzen du), *E* (ez du baldintza betetzen) eta *EA* (ez da aplikatzen, baldintza aplikatzen ez bada).

Oinarrizko galdetegia

OINARRIZKO GALDETEGIA

GALDETEGI HONEN APLIKAZIOA

Helburua

31/1995 Legeak (54/2003 Legeak aldatutakoa) ezarritako LAPLa eta 39/1997 EDak (604/2006 EDak aldatutakoa) ezarritako PZA betetzen direla egiaztatzea. Galdetegi honek, halaber, LAParen inguruan indarrean dagoen legeria Estatuko Administrazio Orokorrera egokitzeko 1488/1998 ED betetzen dela ere egiaztatzen du.

Eremua

LAPLa zein berori garatzeko arauak, Langileen Estatutuei buruzko Legearen testu bateginean araututako lan-harremanen eremuan, zein Herri-administrazioen zerbitzura lan egiten duten langileen administrazio- edo estatutu-mailako harremanen eremuan aplikatu behar dira, kasu honetan, betiere, Lege honetan zein berori garatzen duten arauetan aurreikusitako eginbeharrak kontuan izanda. Hori guztia, gainera, fabrikatzaile, inportatzaile eta zuzkitzaileentzat ezartzen diren betekizun bereziak, eta langile autonomoentzat ondoriozta daitezkeen eskubide eta eginbeharrak bete behar direla. Era berean, aplika dakiekeen legeriaren arabera eratutako elkarte kooperatiboei ere aplikatu beharko zaie, baldin eta horietan, jarduera gisa bertan lan egitea duten bazkideak badaude, eta berariazko araudiaren ondoriozko berezitasunekin.

LAPLean langile eta enpresaburuez aritzen denean, hauek ere baldintza hauen menpe daudela ulertzen da, hurrenez hurren, batetik, administrazio- eta estatutu-mailako harreman deun langile zibilak eta bere zerbitzuen hartzaile den Herri-administrazioa, Lege honen hirugarren xedapen gehigarrian adierazitakoaren arabera, eta bestetik, aurreko paragrafoak barne hartzen dituen kooperatiben bazkideak eta bere zerbitzuen hartzaile diren elkarte kooperatiboak.

Zentro eta establezimendu militarretan, LAPLean ezarritakoa aplikagarria izango da, berariazko araudian aurreikusitako berezitasunekin.

Espetxeetan, araudi berezia egiaztatzen duten ezaugarriak dituzten jarduerak LAPLaren arabera egokituko dira, eta hori, langile publikoen lan-baldintzak ezartzeko negoziazio kolektibo eta parte-hartzeari buruzko uztailaren 19ko 7/1990 Legean adierazitakoaren arabera beteko da.

Salbuespenak

LAPLa ez da aplikatzen, ondorengo funtzio publikoei dagozkien berezitasunek aplikazioa galarazten duten jardueretan:

—Polizia, segurtasuna eta mugazaina.
—Babes zibil eta auzitegiko peritazioko zerbitzu operatiboak, arrisku larri, hondamendi eta zoritzar publikoaren kasuetan.

Nolanahi ere, jarduera horietan lan egiten duten langileen segurtasun- eta osasun-babesa arautzeko ematen den berariazko araudia LAPLean oinarrituta egongo da (Guardia Zibilean laneko arriskuak prebenitzeari buruzko 179/2005 Errege Dekretua eta, Polizia nazionaleko funtzionarioen jardueran laneko arriskuak prebenitzeari buruzko arauak ezartzen dituen 2/2006 Errege Dekretua).

Etxeko zerbitzuko izaera bereziko lan-harremanean ere ez da aplikatzen. Hala eta guztiz ere, etxeko titularrak bere langileen lana dagozkion segurtasun- eta osasun-baldintzetan egiten dela zaindu beharko du.

Definizioak

«*Prebentzioa*», lanak eragindako arriskuak ekidin edo murrizteko helburuarekin, enpresako jarduera-aldi guztietan egokitu edo aurreikusitako ekintza- edo neurri-multzoa da.

«*Lan-arriskua*» langileak lanak eragindako kalteren bat jasateko dagoen arriskua da. Arrisku bat larritasun-mailaren arabera sailkatzeko, kaltea gertatzeko dagoen aukera eta horren larritasun-maila baloratuko dira.

«*Lanak eragindako kalteak*» lanak eragindako gaixotasun, patologia edo lesioak dira.

«*Lan-arrisku larri eta hur-hurrekoa*», etorkizun hurbilean gertatu ahal dena eta langileen osasunean kalte handia eragin dezakeena da. Langileen osasunari kalte larriak eragin diezaiokeen agenteen eraginpean egotearen kasuan, arrisku larri eta hur-hurrekoa dagoela ulertuko da, osasunarentzat kalte larriak ondoriozta ditzaketen agente horien eraginpean egoteagatik etorkizun hurbilean gertatu ahal bada.

«*Arriskutsuak izan daitezkeen prozesuak, jarduerak, eragiketak, ekipoak eta produktuak*», prebentzio-neurri bereziak egon ezean, garatu edo erabiltzen dituzten langileen segurtasun eta osasunarentzat arriskua sortaraz dezaketenak dira.

«*Laneko ekipoa*», lanerako erabiltzen den edozein instalazio, aparailu, tresna edo makina da.

«*Lan-baldintza*», langilearen segurtasun eta osasunean arriskuak sortarazteko eragin nabarmena izan dezakeen lanaren ezaugarria da. Definizio honetan, berariaz, honako hauek barne hartzen dira:

1. Lantokiko lokal, instalazio, ekipo, produktu eta gainerako tresnen ezaugarri orokorrak.
2. Lan-giroan dauden agente fisiko, kimiko eta biologikoen izaera eta dagozkien intentsitateak, kontzentrazioak eta presentzia-mailak.
3. Gorago aipatutako agenteak erabiltzeko prozedurak, baldin eta aipatutako arriskuak sortaraztean eraginik badute.
4. Lanaren beste ezaugarri guztiak, dagozkion antolaketa eta ordenazioaren ingurukoak barne, baldin eta langileak izan dezakeen arriskuaren garrantzian eraginik badute.

«*Norbera babesteko ekipoa*», langileak, bere burua babesteko eraman behar duten edo langilea eustera zuzendutako ekipoa da, eta baita, horretarako bestelako edozein gehigarri edo osagaia.

Eskatu beharreko dokumentazioa

Auditoria egiten den bitartean, galdetegi hau betetzeko auditoreak aztertu behar dituen edo aztertzea komeni den agirien zerrenda hau ez da zehatza.

1. Enpresari aplika dakiokeen LAPari buruzko araudia.
2. Hitzarmen kolektiboa.
3. Arriskuen ebaluazioa (agiria; neurketa, analisi eta entseguen erregistroak; neurketak, analisiak eta entseguak egiteko erabilitako aparailuen kalibrazioei buruzko erregistroak; neurketak, analisiak eta entseguak egin dituzten pertsonen prestakuntzari buruzko erregistroa; etab.).
4. Laneko arriskuen prebentziorako plana (helburu eta xedeen plangintzari buruzko agiria; prebentzio-ekintzen kontrol eta jarraipenari buruzko agiria; etab.).
5. Aukeratutako Prebentzio Antolamendu mota adierazten duen agiria (EAEn, Osalanen OS2 eta OS3 inprimakiak). Ikusi honako hauek: Ebazpena, 2007ko ekainaren 11koa,

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Zerbitzu zuzendariarena; honen bitartez zenbait jakinarazpen egiteko —obren aurretiazko oharpena, lantokia irekitzea edo jarduera berriz hastea, prebentzio-antolamenduaren eta prebentzio-sistemaren auditoria-salbuespenaren modalitatea— beharrezko diren administrazio-jarduerak aplikazio telematikoen, informatikoen eta elektronikoen bitartez euskadi.net-en kudeatzea onartzen da (2007ko uztailaren 4ko EHAA); Agindua, 2007ko ekainaren 12koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena; honen bitartez, obren aurretiazko oharpenen, lantokia irekitzearen edo jarduera berriz hastearen, prebentzio-antolamenduaren eta prebentzio-sistemaren auditoria-salbuespenaren modalitateko jakinarazpenei buruzko laneko dokumentazioaren aurkezpena eta izapidetze telematikoa egiteko prozedura arautzen da (2007ko uztailaren 5eko EHAA); Ebazpena, 2007ko ekainaren 13koa, Lan eta Gizarte Segurantza zuzendariarena; honen bitartez, obren aurretiazko oharpenen, lantokia irekitzearen edo jarduera berriz hastearen, prebentzio-antolamenduaren eta prebentzio-sistemaren auditoria salbuespenaren modalitateko jakinarazpenei buruzko laneko dokumentazioaren aurkezpena eta izapidetze telematikoa egiteko prozeduraren baldintzak ezartzen dira (2007ko uztailaren 6ko EHAA).

6. Bertako Prebentzio Zerbitzua aukeratu duten enpresen Gizarte Segurantzarako kotizazio-eredua edo Sozietate Kooperatiboetan, sozietatearekiko konpromisoko Kontratua. Medikuntza-arlorako: esklusibitate-baldintzak eta bestelako eginkizunekin bateragarria ez dela adierazten duen kontratua.
7. Kanpoko Prebentzio Zerbitzuekin ezarritako Kontzertua eta/edo Enpresa arteko Prebentzio Zerbitzua eratzeko Akordioa eta/edo Bertako Prebentzio Zerbitzua eratzeko Akordioa. Laneko Medikuntza espezialitatea enpresan bertan izatekotan, osasun-establezimenduak instalatu eta martxan jartzea baimentzen duen agiria eskatzen da, eta baita, osasun-zentro eta -establezimenduen erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen administrazioaren agiria ere.
8. Kanpoko Prebentzio Zerbitzuaren fakturak.
9. Prebentzio Zerbitzuek egindako Jarduerei buruzko urteko programak edo memoriak.
10. Aukeratutako Prebentzio Antolamenduko kideen eta Prebentzioko Ordezkarien (hauentzat, EAEn, Osalanen diploma) prestakuntzari buruzko ziurtagiriak.
11. Prebentzioko Ordezkarien izendapenari dagokionez:

    —Sozietate Kooperatiboetan: Prebentzioko Ordezkariak hautatzeko mekanismoa onartzera zuzendutako erabakia jasotzen duen Batzar Nagusiaren akta.
    —EAEn: Prebentzioko Ordezkariek Laneko Lurralde Ordezkaritzetan izena emanda izango dute, enpresak egindako agiriaren bitartez. 30 langile arteko enpresetan, hau da, Prebentzioko Ordezkaria eta Langileen Ordezkaria pertsona bera denetan, automatikoa da erregistroa.

12. Prebentzioko Ordezkariei beren eginkizunak burutu ahal izateko (arriskuak ebaluatzeko ekintzetan teknikariekin batera aritzeko, osasunarentzako kalteei buruzko informazioak eta horiei buruzko azterlanak eta ikerlanak, etab.) helarazitako jakinarazpenak.
13. Segurtasun eta Osasun Batzordearen eraketa-akta, funtzionamendu-arauak eta aldizkako bileren aktak.
14. Segurtasunean eta osasunean nabarmen eragin dezakeen edozein ekintzari buruz enpresak hartutako erabakiak jakinarazteko, langileei edo beren ordezkariei igorritako jakinarazpenak jaso izanaren agiriak.
15. Prebentzioko Ordezkariak proposatutako prebentzio-neurriak ez hartzeko enpresaburuak hartutako erabakien zergatiak jasotzen dituzten agiria/k.
16. Istripu eta Gaixotasun Profesionalen Agiri ofizialak. Intzidentzia-indizeak, Maiztauna eta Larritasun-maila.
17. Laneko Istripu eta Gaixotasun Profesionalei buruzko txostenak.
18. Beste enpresa batzuekin egindako kontratuak (esaterako, besteak beste, azterketa ofizialak, mantentze-lanak eta industria-gasen hornidura bezalako zerbitzuak eskaintzen dituztenekin).

19. Egindako mantentzeen erregistroak (presiozko tresnak, jasogailuak, berokuntzako galdarak, suteak, etab.).
20. Larrialdietako Plana.
21. Larrialdietan lehen eta bigarren esku hartzeetan parte hartuko duten langileen izendapenari buruzko jakinarazpena, etab.
22. Larrialdietako Planean erantzukizunen bat duen langileen Prestakuntzari buruzko Erregistroak.
23. Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Prestakuntza Plana.
24. LAPari buruz jasotako Prestakuntzari buruzko Erregistroak eta Ziurtagiriak.
25. Larrialdietan nola jardun behar duten jakiteko, langileek jasotako informazio eta prestakuntzari buruzko erregistroak.
26. Larrialdietako Plana abiaraztearen inguruko erregistroak; simulazioei buruzko txostena edo erregistroa.
27. Kanpoko laguntza-zerbitzuek eta elkarri laguntzeko hitzarmenei lotutako enpresek Larrialdietako Plana ezagutzen dutela egiaztatzeko erregistroak.
28. Bisitariei larrialdietan hartu behar dituzten neurriak helarazteko jakinarazpenak.
29. Arrisku larri eta hur-hurrekoetan jarduteko prozedurak, jarraibideak eta erregistroak. Honelako jardueren aurrekariei buruzko txostenak.
30. Eraginpeko langileei aldizkako osasun-zaintza egiteko protokolo, prozedura eta jarraibide bereziak.
31. Gaixotasun arruntagatik egondako bajen zerrenda.
32. LAPari buruz aurrez egindako auditorien txostenak.
33. Laneko Ikuskaritzaren Bisita Liburua.
34. Osalanen txostenak.
35. Hiruhileko, seihileko eta urteko ezbehar-tasaren inguruan Gizarte Segurantzako Laneko Istripu eta Gaixotasun Profesionalen Mutualitateak egindako azterlana.

Oharra

Oinarrizko galdetegian interpretatzeko, **Ohar** batzuetan jasotako hainbat irizpide azaltzen dira. Hona hemen ohar horiek:

1. Oharra

Irizpide hauek orientagarriak dira; *bakar-bakarrik* erabili beharko litzateke, enpresako Laneko Arriskuen Prebentzioko Antolamendua Izendatutako Langileekin osatuta dagoenean.

I. ERANSKINEAN JASOTAKO JARDUERAK EZ DITUZTEN ENPRESAK

Langile kop.	Prebentzioko Ordezkari kop.	Izendatuko Langile kop.	LAPeko Prestakuntza
1etik 5era	1	1	Oinarrizkoa
6tik 49ra	1	1	Oinarrizkoa
50etik 100era	2	2	1ek bitartekoa eta 1ek oinarrizkoa
101etik 249ra	3	3	1ek bitartekoa eta 2k oinarrizkoa
250etik 500era	3	3	1ek goi-mailako eta 2k oinarrizkoa

I. ERANSKINEAN JASOTAKO JARDUERAK DITUZTEN ENPRESAK

Langile kop.	Prebentzioko Ordezkari kop.	Izendatuko Langile kop.	LAPeko Prestakuntza
1etik 25era	1	1	Oinarrizkoa (50 ordukoa)
25etik 49ra	1	1	Bitartekoa
50etik 100era	2	2	1ek bitartekoa eta 1ek oinarrizkoa (50 ordukoa)
101etik 249ra	3	3	1ek goi-mailako eta 2k oinarrizkoa (50 ordukoa)

2. Oharra

Prebentzio Zerbitzuak ez diren Erakunde espezializatuetako jarduerak eta ekipoak kontratatzekotan, prestakuntza eta prozedurak neurtzeko moduko konfiantza eskaintzen duten agiriak eskatu beharko zaizkie. Aukera hori onartuko da, baldin eta izendatutako langileren bat beharrezkotzat jotzen den prestakuntzan aditua izan, kontratazio hori kudeatu eta horren emaitzen erantzukizuna bereganatzen badu.

3. Oharra

Ondorengo eskalaren arabera kalkulatzen da Prebentzioko Ordezkarien kopurua:

50 eta 100 langile bitartean	Prebentzioko 2 Ordezkari
101 eta 500 langile bitartean	Prebentzioko 3 Ordezkari
501 eta 1.000 langile bitartean	Prebentzioko 4 Ordezkari
1.001 eta 2.000 langile bitartean	Prebentzioko 5 Ordezkari
2.001 eta 3.000 langile bitartean	Prebentzioko 6 Ordezkari
3.001 eta 4.000 langile bitartean	Prebentzioko 7 Ordezkari
4.001 langiletik gora	Prebentzioko 8 Ordezkari

4. Oharra

ESTATUKO ADMINISTRAZIOA OROKORREAN

Langile-mota	Lan-kontratupekoak	Funtzionarioak
Izendatzeko modua:	Enpresa Batzordeko kideen artean	Langileen Batzordeko kideen artean
Prebentzioko Ordezkari kopurua:	3. Oharreko Taularen arabera	3. Oharreko Taularen arabera

OINARRIZKO GALDETEGIA BETETZEKO BALIAGARRIAK IZAN DAITEZKEEN INFORMAZIO-ERANSKINAK

I. ERANSKINA

Prebentzio Zerbitzuen Arautegiko I. Eranskinean jasotako jardueren zerrenda

a) Gune kontrolatuetan erradiazio ionizatzaileen eraginpean egiten diren lanak, Erradiazio ionizatzaileen aurkako osasun-babesari buruzko urtarrilaren 24ko 53/1992 Errege Dekretuaren arabera.

b) Lehen eta bigarren mailako eragile toxiko eta oso toxikoen —bereziki kantzerigenoen, mutagenoen edo ugalketarako toxiko direnen— eraginpean egiten diren lanak, honako hauek betez: 363/1995 Errege Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, gai berrien jakinarazpenari eta gai arriskutsuen sailkapen, ontziratze eta etiketatzeari buruzko Arautegia onartzen duena eta; 1078/1993 Errege Dekretua, uztailaren 2koa, prestakin arriskutsuen sailkapen, ontziratze eta etiketatzeari buruzkoa; eta horiek garatzen dituzten eta aurrerapenerako egokitzen dituzten arauak.

c) Arrisku handiko gai kimikoekin egiten diren jarduerak, uztailaren 15eko 886/1988 Errege Dekretuak eta industria-jarduera jakin batzuetan istripu larriak prebenitzeari buruz egin zaizkion aldaketek arautzen dituztenak.

d) 3. eta 4. taldeetako eragile biologikoen eraginpean egiten diren lanak, honako hauek betez: 90/679/EEE Zuzentaraua, eta lanean eragile biologikoen arriskuen aurka langileak babesteri buruz egin zaizkion aldaketak.

e) Lehergaiak (piroteknia gaiak eta lehergaiak dituzten bestelako objektu edo tresnak barne) egin, manipulatu eta erabiltzeko jarduerak.

f) Aire zabaleko eta barruko meatzaritza-lanak, eta lur-azalean edo itsas plataformetan egiten diren zundaketak.

g) Ur azpiko jarduerak.

h) Altueratik erortzeko edo lurperatua izateko arriskua dakarten eraikuntzako, indusketako, lur-mugimenduko edo tunelak egiteko jarduerak.

i) Industria siderurgikoko eta ontzigintzako jarduerak.

j) Gas konprimitu, likidotu edo disolbatuen produkzioa edo erabilera garrantzitsua.

k) Silize-hautsaren kontzentrazio handiak sorrarazten dituzten lanak.

l) Goi-tentsioko elektrizitate-arriskua dakarten lanak.

II. ERANSKINA

Laneko arriskuei aurrea hartzeko sistemaren auditoria egin beharrik ez egoteko baldintzak ematen direla aditzera emateko jakinarazpena

. . . . . .jaunak/andreak

. . . . . gisa

. . . . . .enpresakoa

adierazten du Prebentzio-Zerbitzuen Araudiko 29.atalean ezarritako baldintzak betetzen dituela, eta, beraz, ondoren aipatzen diren datuak ematen ditu adierazpen honekin batera, datuok erregistratu eta Lan-Administrazioko Agintaritza eskudunak aintzat har ditzan:

Enpresaren datuak

Sortu berria

Lehendik dagoena

IFZ

Sozietatearen izena

IFK

Sozietatearen helbidea

Udalerria

Probintzia: Posta Kodea:

Telefonoa:

Jarduera ekonomikoa:

LI eta GPetarako erakunde kudeatzaile eta laguntzailea:

Lantoki-mota (lantegi, bulego, biltegi,…):

Langile-kopurua:

Arriskuen ebaluaketa zein egunetan egin den:

Eraikitako azalera (m^2)

Arriskuen prebentzioari buruzko datuak

Dauden arriskuak

Dagokion prebentzio-jarduera

(Lekua, data eta enpresaren sinadura eta zigilua)

III. ERANSKINA

Oinarrizko, erdiko eta goi-mailako eginkizunak betetzeko,

prestakuntza-proiektuak eta -programak ezartzeko irizpide orokorrak

Euskarri tekniko gisa erabiliko diren prebentzio-diziplinak, gutxienez ere, ondorengoen ingurukoak izango dira: Laneko Medikuntza, Laneko Segurtasuna, Industria Higienea eta Ergonomia eta Psikosoziologia aplikatua.

Laneko arriskuen prebentzioaren arloko araudi-esparruak honako hauek barne hartu beharko ditu: nazioarteko, erkidegoko eta Espainiako legeria orokorra, prebentzio-teknikak aplikatzearen ondoriozko berariazko araudia, eta hitzarmen kolektiboetan horien inguruan azaltzen diren zehaztapena eta garapena.

Prestakuntza-helburuak, maila bakoitzari dagozkion eginkizunak garatzeko beharrezkoak diren ezagutza teknikoez jabetzean oinarrituko dira.

Programak diziplina anitzeko eta diziplina arteko ezaugarriez hornituko dituzten prebentzio-diziplina ezberdinak barne hartu beharko ditu Prestakuntzak.

Prestakuntza Proiektuak sustatzaile bakoitzaren irizpide eta ezaugarrien arabera diseinatu dira, eta honako hauek ezarri beharko dituzte: helburu orokorrak eta bereziak, edukiak, ikasgaien artikulazioa, metodologia zehatza, ebaluazio-motak, aldi baterako gomendioak eta euskarri eta baliabide teknikoak.

Sustatzaile bakoitzak proposatutako Prestakuntza Programek, eta curriculum-proiektu eta -diseinuen arabera, honako hauek ezarri beharko dituzte: helburuak eta edukiak noiz bete eta emango diren zehaztea, horien garapen metodologikoa, jarduera didaktikoak eta programa bakoitzean jasotako helburuak ebaluatzeko irizpideak eta parametroak.

Galdetegiaren blokeak

1. Enpresaren identifikazioa

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Enpresa behar bezala identifikatuta dago.	PZA (2)		- Izen soziala, helbidea, telefonoa, faxa, etab. jasotzen dituen enpresaren fitxa deskriptiboa.	1			
2	Enpresak lantoki-kopurua eta horien ezaugarriak adierazi ditu.	PZA (2)		- Lantokien analisia. Oinplanoko banaketak.	3			
3	Enpresak dagokion jarduera eta ekoizpen-prozesuaren fluxuari buruzko diagrama adierazi ditu.	PZA (2)		- Ekoizpen-prozesua eta fluxuaren diagrama.	3			
4	Enpresak ekoizpeneko prozesu teknikoak identifikatu ditu.	PZA (2)	- Enpresak honako hauek adierazi ditu: erabilitako lehengaiak, amaitutako produktuak, erabilitako produktu toxiko, arriskutsu, sukoi eta leherkorrak. - Enpresak, industria-segurtasuneko arautegiaren menpe dauden lan-ekipo eta instalazioak adierazi ditu.	- Lehengaia, amaitutako produktu, erabilitako produktu toxiko, arriskutsu, sukoi eta leherkorren inbentarioa. - Industria-segurtasuneko arautegiaren menpe dauden lan-ekipo eta instalazioen inbentarioa.	3			
5	Enpresak langile-kopurua eta horien ezaugarriak adierazi ditu.	PZA (2)	- LAParen araberako langileen ezaugarriak.	- Langileen zerrenda.	3			
6	Enpresak bereziki sentikorrak diren langileak identifikatuta ditu.	LAPL (25)	- Arriskuen ebaluazioan kontuan hartzen da langileen ezaugarri pertsonalak edo egoera biologiko ezaguna.	- Bereziki sentikorrak diren langileen zerrenda.	5			

2. Antolaketa-egitura
(Kontsulta eta partehartzea. informazioa)

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Enpresak antolaketa-egitura bat definituta dauka, eta horretan, hierarkia-maila bakoitzak bereganatzen dituen eginkizunak eta erantzukizunak identifikatu, eta horien arteko komunikazio-bideak adierazita dauka.	PZA (2)		- LAPeko plana.	3			
2	Enpresaburuak behar besteko denborarekin kontsultatzen die langileei, enpresako lanaren plangintza eta antolamenduari eta teknologia berriak ezartzeari buruzko erabakiak hartzearen inguruan.	LAPL (33,39) PZA (3) ED 216/1999 (4)	Honako hauek barne hartzen ditu kontsultak: prebentzio-ekintzen plangintza eta ekipoen hautaketa, lehen ez zeuden arriskuak edo zeudenak areagotzen dituzten teknologiak ezartzea eskatzen duten ekipo, instalazio eta prozesuen hautaketa. Adibidez: - Aldi baterako edo ABLE baten bidez kontratatutako langileen atxikimenduari buruzko informazioa. Azken kasu honetan, bete beharreko lanpostua, horren arriskuak eta prebentzio-neurriak eta langileak jasotako informazioa eta prestakuntza zehaztu ditu. - Atxikitako langileek izan dituzten arriskuei buruz enpresak ABLEari emandako informazioaren kopia. - Enpresak erositako makina berri batek eransten dituen arriskuei buruzko informazioa.	- Dagozkion kontsultak egin direla bermatzeko, langileen Ordezkari, Prebentzioko Ordezkari edo langileen euren bidezko barne-komunikazioko mekanismoak. - Erreferentziazko baldintzaren inguruan, enpresak emandako edozein informazio jaso dutela langileen edo ordezkarien jaso izanaren ziurtagiria. - Besteak beste, teknologia berriak ezarri izanari eta lanaren antolamenduari buruzko informazioa jasotzen duten Segurtasun eta Osasun Batzordearen Aktak.	3			
3	Enpresaburuak behar besteko denborarekin kontsultatzen die langileei, osasuna babestu eta prebentzioaren gaineko jarduerak (langileen izendapena edo kanpoko prebentzio-zerbitzua kontratatzeko aukera) antolatu eta garatzeari buruzko erabakiak hartzearen inguruan.	LAPL (33,39) PZA (3) ED 216/1999 (4)	Adibidez: - Langileen ordezkariei, edo ordezkaririk egon ezean, langileei eurei, enpresak arriskuen prebentziorako erabilitako prozedurari buruz galdetzen die. - Prebentzioaren antolamenduari dagokionez: langileei dagokion kontsulta egin zaie. - Segurtasun eta Osasun Batzordeak, bertako zein kanpoko Prebentzio Zerbitzuen urteko Memoria eta Programazioa ezagutu eta horren berri eman du.	- Dagozkion kontsultak egin direla bermatzeko, langileen Ordezkari, Prebentzioko Ordezkari edo langileen euren bidezko barne-komunikazioko mekanismoak. - Erreferentziazko baldintzaren inguruan, enpresak emandako edozein informazio jaso dutela langileen edo ordezkarien jaso izanaren ziurtagiria. - Besteak beste, teknologia berriak ezarri izanari eta lanaren antolamenduari buruzko informazioa jasotzen duten Segurtasun eta Osasun Batzordearen Aktak.	3			
4	Enpresaburuak behar besteko denborarekin kontsultatzen die langileei, larrialdietako neurriez arduratuko diren langileen izendapenari buruzko erabakiak hartzearen inguruan.	LAPL (33,39) PZA (3) ED 2161999 (4)		- Dagozkion kontsultak egin direla bermatzeko, langileen Ordezkari, Prebentzioko Ordezkari edo langileen euren bidezko barne-komunikazioko mekanismoak. - Erreferentziazko baldintzaren inguruan, enpresak emandako edozein informazio jaso dutela langileen edo ordezkarien jaso izanaren ziurtagiria. - Besteak beste, teknologia berriak ezarri izanari eta lanaren antolamenduari buruzko informazioa jasotzen duten Segurtasun eta Osasun Batzordearen Aktak. - Larrialdiko egoeretan eta abarretan, lehen eta bigarren mailako esku-hartzeetarako Ekipoak osatzen dituen langileen izendapenari buruzko jakinarazpena.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
9	Enpresak, prebentzio-arloan lortu nahi dituen helburuak eta xedeak erdiesteko giza baliabide eta baliabide tekniko, material eta ekonomikoak ezarri ditu.	PZA (2)		- LAPeko Plana.	5			
10	Enpresak Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Araudi eguneratua bildu eta aztertuta ditu.	LAPL (1, 14)	- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Arauditzat, honako hauek hartzen dira: a) 31/1995 LAPL . b) Lege hori garatu edo osatzeko xedapenak. c) Lan-arloan prebentzio-neurriak hartzeari buruzko zein eremu horretan prebentzio neurriak txerta ditzaketen arauak barne hartzen dituzten lege-arau, hitzarmen kolektibo eta abar guztiak.	- Laneko Arriskuen Prebentzioaren inguruan enpresari aplika dakiokeen Araudiaren zerrenda, paperean, euskarri informatikoan, edo kanpoko enpresa espezializatuarekiko kontratua, etab.	1			
11	Enpresak jarduerari aplika dakizkiokeen lege-baldintzak atera eta erregistratzeko prozedura ezarri du, eta arauzko baldintzak, horiek aplikatzeaz arduratzen direnak ezagutzen dituzte.	LAPL (1, 14, 29)	- Araudi aplikagarria betetzen dela bermatzeko, behar-beharrezkoa da hori ezagutzea eta aplikatu beharrezko baldintzak ateratzea, Araudia edo jarduera aldatzekotan, horren betearazpena kudeatzerik egon dadin. - Enpresako hierarkia-maila guztiek aplikatu behar dituzten arauzko baldintza guztiak ezagutzen dituzte.	- Arauzko baldintzen erregistroa. - Prestakuntza eta informazioaren erregistroak. - Laginketen bidez, arduradunek bete edo betearazi behar dituzten arauzko baldintzak zeintzuk diren dakiten egiaztatzea. - Prozedura / jarraibide dokumentatuak.	3			
12	Enpresak arriskuak galarazten ditu, horiek sortzen dituzten eragileak deuseztatuz, galarazi ezin dituen arriskuak ebaluatu eta arriskuen jatorriaren aurka borrokatzen du.	LAPL (15)	Beti eta lehen aukera gisa, arriskua deuseztatzea da prebentzio-neurrien helburua. - Arrisku saihestezin guztiak, ebaluatuta daude. - Arriskuak saihesgarriak ala saihestezinak izan, sortzen dituzten eragileei aurka borrokatzen du.	- Prebentzioko politika. - Plangintza. - Arriskuen ebaluazioa. - Arriskuak jatorrian eragoztera zuzendutako prebentzio-neurriak.	3			
13	Lana pertsonarentzat moldatzen du enpresak, bereziki lanpostuak betetzeko orduan, bai eta laneko eta ekoizpeneko ekipamendu eta metodoei egokitzea ere, lan monotono eta errepikakorra arintzeko, eta horrek osasunean dituen ondorioak gutxitzeko.	LAPL (15)	- Zehaztapen ergonomikoak lanpostuen diseinuan, biztanleen datu antropometriko orokorrak kontuan hartuta. - Segurtasun eta osasun arloko zehaztapenak, ekipoak eta materialak bereganatzeko prozeduretan. - Zehaztapen ergonomikoak lan- eta ekoizpen-metodoen diseinuan. - Zehaztapen psikosoziologikoak, pertsonen osasunean eragin dezaketen monotonia eta errepikakortasuna arintzeko.	- Lan-ekipoak, lehengaiak, produktu osagarriak eta abar erosi edo bereganatzeko prozedurak. - Lan-metodoak.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebindetzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
14	Enpresak teknikaren bilakaera aintzat hartzen du eta arriskutsua denaren ordez, arrisku gutxikoa edo arriskurik gabekoa dena ezartzen du.	LAPL (15)	- Langileen osasun eta segurtasunean eragina izan dezaketen elementuei buruzko informazio eguneratua izatea da helburua, zentzuzko kostuan, eskuragarri dagoen teknologiarik hoberena kontuan izanda, prebentzio-neurriak ezartze aldera. - Adibidez: Pintura disolbatzaileak beharrean, ur-pinturak erabiltzea.	- Zaintza teknologikoko prozedura eta datu-base teknologikoa. - lehengai, lan-ekipo eta abarretan eman diren aldaketak alderatzea. - Arriskuen Ebaluazioan hautemandako elementurik arrisku-tsuenak ordezkatzeko azterlanak edo analisiak eta prebentzio-neurri koherenteak.	3			
15	Enpresak prebentzioa planifika-tzen du, horretarako, teknika, lanaren antolaketa, lan-baldin-tzak, gizarte-harremanak eta laneko inguruneare eragina biltzen dituen multzo koherentea osatuz.	LAPL (15)	- Legezko baldintza hau betetzen dela bermatzeko modua, laneko arriskuei aurre egiteko Kudeaketa Sistema bat diseinatu eta ezartzean datza.	- Plangintza-prozedura: LAPLaren 1.g ataleko 15. artikuluan jasotako baldin-tza aplikagarriak aintzat hartzen diren egiaztatzea.	3			
16	Babes kolektiboari, banakako babesaren aldean, garran-tzi handiagoa ematen dioten neurriak hartzen ditu enpresak.	LAPL (15)		Printzipio hau aurreikusitako eta hartutako prebentzio-neurrietan bete-tzen dela egiaztatzea.	3			
17	Enpresak langileei jarraibide egokiak ematen dizkie.	LAPL (15)	- Barne-komunikazio edo antzeko komunikazioko prozedura ezarrita dauka enpresak, eta horren bitartez, langile orori egokitutako preben-tzioko jarraibideak eskaintzen dizkiela bermatu ahal du.	- Langileek jarraibideak jaso dituztela egiaztatzen duen agiria. - Informazio-bilerei buruzko aktak. Hauetan, dagozkion jarraibideak helarazi direla jasota egon behar da.	3			
18	Prebentzioaren plangintzak, honako eduki hauek barne har-tzen ditu: a) Gertakariak ikertzea (istripuak, jazoerak, gaixotasun profesionalak) b) Instalazio, lan-eremu eta abarretan programatu eta sistematizatutako ikuskapenak. c) Higiene-arriskuen kontrola. d) Lan-baldintzen aldikako kontrolak eta ikuskapenak.	LAPL (16)	- Enpresaren Laneko Arriskuei Aurre egiteko Kudeaketa Sistemak barne hartzen ditu jarduera horiek, betiere, justifikatzen dituzten arriskuak baldin badaude. Bestalde, arriskuen kontrol aktibo eta erreaktiboko jarduerak dira. - Gainera, jarduera horiek prozeduren arabera antolatu badira eta dagozkion arriskuak badaude, bere prebentzio-jokabidea fidagarria eta iraunkorra dela egiazta dezake enpresak hirugarren batzuen aurrean.	- Sistemari buruzko Eskuliburua eta Prozedurei buruzko Eskuliburua. - Dagozkion erregistroak.	3			
19	Laneko arriskuen prebentzioa enpresako kudeaketa-sistema nagusira bildu da, hala enpresako jarduera guztiei dagokienez, nola enpresako hierarkia-maila guztiei dagokienez.	PZA (1) LAPL (16)	- Auditoreak, adibidez, honako hauek egiaztatuko ditu: agintariak ikuskapen sistematizatuak bezalako eginkizun prebentiboez arduratzen direla, jazoeren ikerketa, dagokion sailak prebentzio-arduradun teknikoei ekipo berriak erosi direla jakinarazten diela, ingeniaritza-sailak dagokion arduradunari lanpostuetan egindako aldaketak jakinarazten diola, agintariek dagozkien eginkizunak betetzen dituztela norbera babesteko ekipoen erabilera egokia bermatzeko, etab.	- Prebentzio-jardueren Planean arduradun bakoitza, dagokion eremuko erantzukizunaz arduratzen dela egiaztatzea.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebindetzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
20	Ezarritako aldizkako kontrolek prebentzioaren plangintzak gaizki funtzionatzen duela detektatzen dutenean, plangintza prebentzio neurriak aldatzeko bezain malgua da.	LAPL (16)	- Baldintza honek barne hartzen duen kudeaketa Sistemen baliokidea, zuzendaritzak sistema berrikustea litzateke, baldin eta horretan, horren eraginkortasuna ebaluatzen bada eta, desbideratzerik hautematekotan, prebentzioaren helburu eta xedeen plangintza aldatzen bada edo jarduera zuzentzaile eta prebentibo edo hobekuntza-jardueren bitartez zuzentzen dira.	- Plangintzan ezarritako aldaketarik dagoen.	3			
21	Enpresak, auditoriak agerian jarri dituen akatsak konpontzeko beharrezko neurriak hartzen ditu.	PZA (31)	- Auditoriaren txostenak ez du gomendioak nola ebazteko moduarekiko desadostasunik barne hartzen. Auditoreak detektatu eta aztertu baino ez ditu egiten, auditutako enpresak berak hartu behar baititu auditoriak agerian jartzen dituen akatsak eta LANParen inguruko arau-hausteak zuzentzeko behar beste neurri.	- Auditoria-txostena (neurri hauek, seguru asko, LAPeko Plana berrikustea eta prebentzio-plangintza aldatzea ekarriko dute. Auditoreak, neurri zuzentzaile horiek jasota daudela egiaztatu ahalko du).	5			

6. Arriskuen ebaluazioa.

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebindentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Bere jarduerak dituen arriskuei buruzko hasierako ebaluazio bat egin du enpresak, eta honako hauek zehaztu ditu: a) Elementu arriskutsuak. b) Eraginpean dauden langile guztiak identifikatu. c) Dagoen arriskua baloratuz. d) Arriskua galarazi edo kontrolatu eta murrizteari buruzko ondorioak aterata.	LAPL (16) PZA (4, 5)	- Arriskuen ebaluazioa egitean, honako hauek hartzen dira kontuan: a) Jardueraren izaera eta horren arrisku bereziak. b) Antolakuntzari buruz lortutako informazioa. c) Lanaren ezaugarriak eta konplexutasuna. d) Dauden edo aurreikusten diren lan-baldintzak. e) Lehengaiak eta lan-ekipoak. f) Langileen osasun-egoera. g) Lanpostuan bereziki sentikorra den langile bat aritzeko aukera, hala nola, langile haurdunak, erditu berri duten langilean edo edoskitzaroan dauden langileak, zein adin txikiko langileak. h) Gorago aipatutako alderdiei buruz langileengandik jasotako informazioa. - Baldintza hau betetzen dela ziurtatzeko, lanpostuetako arriskuak ebaluatu eta dokumentatzeko zein hori eguneratuta egongo dela bermatzeko prozedura bat ezarri eta eguneratu egiten da. - Prebentzio-neurriak hartzeko beharra barne hartzen du Ebaluazio Prozedura, horren kudeaketa helburu bereko beste prozedura baten bitartez araututa egon badaiteke ere.	- Arriskuen Ebaluazioari buruzko dokumentua data jasota eta sinatuta. - Arriskuak ebaluatzeko prozedura dokumentatuta.	3			
2	Langile eskudunek esku hartu dute ebaluazioan.	PZA (4)	- Gutxienez ere talde ebaluatzaileko kide batek, dagokion mailako LAP titulua dauka. - Enpresako LAParen antolakuntzak egin du arriskuen ebaluazioa. - Laneko Agintaritzak baimendutako EPZ batek egin behar du arriskuen ebaluazioa, edo bestela, enpresako bertako langileek. Azken kasu honetan, PZAko VI. kapituluan aurreikusitako gaitasuna eta prestakuntza izan beharko dute. PZAko oinarrizko hainbat suposamendutan ebaluatzailea oinarrizko prestakuntza izatea ahalbidetu arren, ebaluatzailearen prestakuntza-maila bitartekoa izatea da normalena, eta agente fisiko, kimiko edo biologikoak eta lan-ekipoak baldin badaude edo ebaluazio ergonomikoak egin behar badira, goi-mailako titulua beharko da.	- Arriskuen ebaluazioari buruzko dokumentuan, teknikari eskudunen identifikazioa eta akreditazioa jaso beharko dira.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebindentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
3	Erabilitako ebaluazio-prozedurak, emaitza fidagarri egiten du. Zalantza izanez gero, prebentzioaren ikuspegitik egokienak diren prebentzio-neurriak hartzen dira.	PZA (5)	- Berariazko araudia dagoenean, araudi horretan ezarritako baldintza zehatzen araberako izango da prozedura. - Aitzitik, araudiak erabili beharrezko metodoak edo ebaluazioan interpretatu behar diren metodoak zehazten ez baditu, egon badaude, ondorengo hauek erabiliko dira: a) UNE arauak b) Administrazio ezberdinen gidaliburuak. c) Nazioarteko arauak. d) Aurrekoak egon ezean, gai honetan izen handia duten beste erakunde batzuen gidaliburuak edo dokumentuetan deskribatutako beste metodo edo irizpide profesional batzuk.	- Arriskuak Ebaluatzeko prozedura: a) Horretan erabilitako erreferentziazko arauak ezarritako irizpideak betetzen dituztela egiaztatzea. b) Zalantzazko kasuetan, segurtasuna eta osasuna ondoen babesten dituen aukera erabaki dela egiaztatzea.	3			
4	Ebaluazioan beharrezko neurketak, analisiak eta entseguak egin dira, baina ez da jaso egiaztatutako profesionalen iritzia.	PZA (5 y 12)	- Industria-higieneko arriskuak identifikatu eta baloratzeak (agente fisiko eta kimikoak), identifikazio kualitatiboaz gain, zehaztapen kuantitatiboa ere (intentsitate edo kontzentrazioa) eskatzen du, balorazioak giroan detektatutako kopurua erreferentziazko muga-balio batekin alderatzea eskatzen duelako.	- Neurketa, analisi eta entseguen erregistroak. - Neurketak, analisiak eta entseguak egiteko erabili diren aparatuen kalibrazioaren erregistroa. - Neurketak, analisiak eta entseguak egiten dituzten pertsonen prestakuntzaren erregistroa. - Prestakuntzaren arabera hartutako erabakiak dokumentuen bidez argumentatuta daude. Kasu honetan, arriskua zuzenean hautematen duen profesionalaren prestakuntza eskatzea.	3			
5	Arriskuen ebaluazioak bereziki sentikorrak diren plantillako langileak daudela aintzat hartzen du.	LAPL (25)	- Langileen ugalketa-funtzioa kalte dezaketen arriskuak baldin badaude, eta bereziki, ugalketan eragin mutagenikoa edo toxikoa izan dezaketen agente fisiko, kimiko edo biologikoen eraginpean egoteagatik, arriskuen ebaluazioan jaso beharko dira. - Arrisku-maila baloratu ahal izateko, ebaluazioak langileak lanpostu horiek betetzeko eta arrisku horiei aurre egiteko egokiak diren baloratu beharko du. Ebaluazioan ez da langileen izenen zerrenda hutsa jaso behar, ez; honako hauek ere aztertu beharko ditu: informazio/prestakuntza arloko baldintzak, lanprozedura edo lan-ekipoa fabrikatu duenaren jarraibideak ezagutzen dituen, eta gainera, bereziki babestu behar diren kolektiboetako langileak diren ezarri (amatasuna, gazteak, bereziki sentikorrak, aldi baterakoak, ABLEkoak, etab.).	- Arriskuen ebaluazioa. - Bereziki sentikorrak diren langileen zerrenda.	5			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebindentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
6	Arriskuen inguruan egindako ebaluazioaren ondorioz, prebentzio-neurriak hartu behar badira, honakoa egin beharko da: a) Arriskua deuseztatu edo murriztea. b) Aldizkako kontrola egitea.	PZA (3, 5)	a) Jatorrian, antolaketan, babes kolektibo eta/edo norbanakoan, prestakuntza eta informazioan prebentzio-neurriak ezarriz. b) Lan-baldintzen, antolaketaren, lan-metodokoen edo osasun-egoeren inguruko aldizkako kontrolak eginez. - Arriskuen ebaluazioak, prebentzio-neurriak hartzeko beharra ezartzen duten enpresaburuaren kudeaketa-tresna gisa, lanpostua, jarduera edo prozedura eta arriskumaila identifikatu ostean, arriskua kontrolatu edo ezabatzeko prebentzio-neurri zehatza adierazi behar du. Prebentzio-neurri hauek izaera ezberdinetakoak (teknika, antolaketa, prestakuntza/Informazio edo lan-baldintzak aldizka kontrolatzearen arlokoak) izan daitezke. Baina beti konkretu eta zehatzak izan behar dute, arriskuen ebaluazioaren izaera eta horri kudeaketa-tresna gisa dagokion definizioa direla-eta. Ez da onartzen indarrean dagoen araudiaren betearazpenari buruzko murrizketa orokorrak.	- Arriskuak Ebaluatzeko dokumentuak hartuz beharreko prebentzio-neurriak jasotzen ditu.	1			
7	Lanpostuak berriro ere ebaluatzen dira, baldin eta ondorengoren batek eragiten baditu: a) Lan-ekipoak, substantziak edo prestakin kimikoak hautatzeak. b) Teknologia berriak ezartzeak. c) Lanpostuen egokitzapena aldatzeak. d) Lan-baldintzak aldatzeak. e) Lanpostuaren baldintzekiko bereziki sentikorra den langile bat aritzen hasteak.	LAPL (16) PZA (4)	- Lanpostuen baldintzetan eman daitekeen edozein aldaketarekin batera arriskuak agertu edo desagertu egin ahal dira, eta horrek, arrisku berria identifikatu eta ebaluatzeko beharra dakar berarekin.	- Arriskuak ebaluatzeko prozedura. - Berriro ebaluatzeko arrazoiak. - Ebaluazio hori berriro egitea sorrarazi duten aldaketen erregistroa. - Laginketen bidez, berriro ebaluatu behar izatea ondorioztatu duten eragileek, berriro ebaluatzeko prozedura abiarazi, abiarazi dutela. Adibidez: Ausaz, lan-ekipo bat bereganatzeak ebaluazioa berriro egitea ekarri duela egiaztatzea.	5			
8	Lanpostuetako arriskuen ebaluazioa, ondorengoetan berraztertzen da: a) Arriskuen ebaluaziori buruzko berariazko xedapenek ezartzen dutenean. b) Langileen osasunean kalteak sortu direla detektatu denean. c) Aldizkako kontroletan, osasunaren zaintzari buruzkoak barne, prebentzio-jarduerak desegokiak edo nahikoak ez direla detektatzen denean. d) Enpresaren eta langileen ordezkarien artean erabakitako aldizkakotasunarekin.	LAPL (16) PZA (6)	-Zarata, Beruna, etab., hau da, berariazko xedapenen batek adierazten duenean. -Berrikuspen honetan, ondorengoen emaitzak hartu behar dira kontuan: - Osasunean eman diren kalteen eragileei buruzko ikerketarenak. - Horretarako espresuki ezarritako neurrien bitartez, erreferentziazko arrisku hori murrizteko ekintzenak. - Horretarako espresuki ezarritako neurrien bitartez, erreferentziazko arrisku hori kontrolatzeko ekintzenak. - Osasun Informazio Sistemak edo eskuragarri dagoen beste iturriren batek emandako datuen arabera, egoera epideiologiaren analisiarenak.	- En el procedimiento de la evaluación de riesgos constan cuales son las causas de revisión. - Registro de las revisiones correspondientes, y causas de dicha revisión. - Verificar por muestreo que las causas de revisión que se hayan dado, efectivamente han activado el procedimiento de revisión. Por ejemplo: Verificar, al azar, que un Registro de Accidente ha desencadenado la revisión. - Ver convenio colectivo (puede ser que en el mismo se indique periodicidad de las revisiones de la evaluación de los riesgos).	5			

7. Prebentzio-ekintzaren plangintza

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Enpresak prebentzioa planifikatzen du, horretarako, teknika, lanaren antolaketa, lan-baldintzak, gizarte-harremanak eta laneko ingurunearen eragina biltzen dituen multzo koherentea osatuz. .	LAPL (15)	- Legezko baldintza hau betetzen dela bermatzeko modua, laneko arriskuen prebentzioko Kudeaketa Sistema bat diseinatu eta ezartzea da. - Plangintzaren eginbeharra betetzeak, EPZak prestatutako prebentzio-plangintzaren proposamena aurkezteaz gain, enpresak plangintza ezartzeaz arduratu behar du, eta horretarako, baliabideak, epeak, eta berori betetzen dela egiaztatzeko arduradunak, segimendua eta kontrola.	- Plangintza-prozedura: LAPLaren 1.g ataleko 15. artikuluan jasotako baldintza aplikagarriak aintzat hartzen diren egiaztatzea. Enpresak, arriskuen ebaluaziotik ondorioztatutako prebentzioko betekizunak pixkanaka-pixkanaka eta aldez aurretik ezarritako egutegiaren arabera, bete behar direla bereganatu duela egiaztatzean datza.	3			
2	Enpresak edo erakundeak prebentzio-ekintzaren plangintza egiten du, arriskuen ebaluazioak arrisku-egoerak azalerazi dituenean.	PZA (3)	- Plangintzaren helburua da arriskuak behar bezala kontrolatzeko beharrezkoak diren ekintzak ezartzea, eta gainera, honako hauek ezarriz: nola eta noiz egin behar den, nork egin behar duen, helburuak eta xedeak, lehentasunak eta epeak ezartzea, baliabideak eta tresnak eta aldizkako jarraipena.	- Helburu eta xedeen plangintza-prozesuari buruzko amaierako agiria. - Prebentzioaren plangintza edo prebentzioaren programa (lehenengoak hartzen duen denbora-tartea urtebetetik gorakoa bada).	3			
3	Prebentzio-ekintzaren plangintza denbora-tarte zehatz baterako egiten da, betiere, arriskuaren muntaren araberako lehentasunak, eta eragindako langile-kopurua kontuan hartuta.	PZA (8)	- Ondorengoak xede dituzten helburuak definitu dira: a) Lan-jarduerak sortarazi edo eragindako istripu-tasa eta/edo osasun-kalteak murriztea. b) Egindako ebaluazio ezberdinetan agerian jarritako arrisku-maila arintzea. - Plangintza urtebeteko edo epe luzeagoko epealdiari buruzkoa izan daiteke; kasu horretan, hala ere, urteko programa egin beharko da.	- Helburu eta xedeen plangintza-prozesuari buruzko amaierako agiria. - Prebentzioaren plangintza edo prebentzioaren programa (lehenengoak hartzen duen denbora-tartea urtebetetik gorakoa bada).	3			
4	Hala badagokio, berariazko arriskuen inguruko legezko xedapenak aintzat hartzen ditu plangintzak.	PZA (8)	- Zarata, amianto, binil kloruro monomero, bentzeno, berun, erradiazio ionizatzaile eta abarren kasuan bezala, aldizkako kontrolak ezarriz.	- Helburu eta xedeen plangintza-prozesuari buruzko amaierako agiria. - Prebentzioaren plangintza edo prebentzioaren programa (lehenengoak hartzen duen denbora-tartea urtebetetik gorakoa bada).	3			
5	Plangintzak, dena dela, beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak, zein baliabide ekonomikoak barne hartzen ditu.	PZA (9)	- Aurrekontuan jasotako gastuen kontrola eta segimendua egiten da.	- Prebentzioaren plangintza edo prebentzioaren programa . - Prebentziorako aurrekontua.	3			
6	Prebentzioaren plangintzak honako eduki hauek jasotzen ditu: a) Gertakariak ikertzea (istripuak, gorabeherak, gaixotasun profesionalak). b) Instalazio, lan-eremu eta abarren ikuskapen programatu eta sistematizatuak. c) Higiene-arriskuen kontrola. d) Lan-baldintzak aldizka kontrolatu eta ikuskatzea.	PZA (9)	- Enpresaren Laneko Arriskuei Aurre egiteko Kudeaketa Sistemak barne hartzen ditu jarduera horiek, betiere, justifikatzen dituzten arriskuak baldin badaude. Bestalde, arriskuen kontrol aktibo eta erreaktiboko jarduerak dira. - Gainera, jarduera horiek prozeduren arabera antolatu badira eta dagozkion arriskuak badaude, bere prebentzio-jokabidea fidagarria eta iraunkorra dela egiazta dezake enpresak hirugarren batzuen aurrean.	- Sistemaren Eskuliburua eta Prozeduren Eskuliburua. - Dagozkion Erregistroak.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
7	Prebentzio-ekintzaren plangintzak, gainera, honako hauek ere barne hartzen ditu: a) Larrialdietako neurriak. b) Osasunaren zaintza. c) Langileentzako prebentzio-arloko informazioa eta prestakuntza.	PZA (9)		- Plangintzan baldintza hauek zergatik barne hartu diren justifikatzen duen dokumentazioa.	3			
8	Prebentzio-ekintzen plangintza, enpresako jarduera guztietan eta hierarkia-maila orotan ezartzen da.	LAPL (16) PZA (1)	- Auditoreak, adibidez, honako hauek egiaztatuko ditu: agintariak ikuskapen sistematizatuak bezalako eginkizun prebentiboez arduratzen direla, jazoeren ikerketa, dagokion sailak prebentzio-arduradun teknikoei ekipo berriak erosi direla jakinarazten diela, ingeniaritza-sailak dagokion arduradunari lanpostuetan egindako aldaketak jakinarazten diola, agintariek dagozkien eginkizunak betetzen dituztela norbera babesteko ekipoen erabilera egokia bermatzeko, etab.	- Prebentzio-ekintzen Planean, bakoitza dagokion erantzukizun-eremuko jardueraz arduratzen dela egiaztatzea.	5			
9	Prebentzio-neurriak ezartzeko aurreikusitako epeak betetzen dira.	LAPL (16) PZA (9)	- Planaren eta kontrol eta horren segimendua egiteko mekanismoaren artean, prebentzio-neurrien trazabilitatea dago, betetzen diren egiaztatzeko. - Betetzen ez badira edo bete behar ez direla aurreikusiz gero, dagokion desbiderapena konponduko duten neurri zuzentzaileak adierazten dituzte.	- Prebentzio-ekintzen kontrol eta segimenduari buruzko dokumentua. - Desadostasuna edo desbideratzea adierazten duten erregistroak eta horiek ekintza zuzentzaileen bidez nola tratatuko diren adieraztea. - Bertako Prebentzio Zerbitzuaren urteko Memoria.	3			
10	Arriskuen ebaluazioak adierazten badu, lan-baldintzak eta langileen jarduera ikuskatzeko aldizkako kontrolak barne hartzen ditu plangintzak.	LAPL (16)	- Zera esan nahi du, arriskuen ebaluazioak horrela ezartzen badu, lan-baldintzen berriro ebaluatzeak (zati batez edo guztiak) horretan barne hartuta daudela, eta horiek ez ezik, baita plangintzan aurreikusitako ikuskapenak, behaketa-jarduerak, langileen prestakuntza, etab. ere.	- Plangintzaren Dokumentua.	3			
11	Ezarritako aldizkako kontrolek prebentzioaren plangintzak desegoki funtzionatzen duela detektatzen dutenena, honakoa prebentzio-ekintzak aldatzeko bezain malgua da.	LAPL (16)	- Baldintza honek barne hartzen duen kudeaketa Sistemen baliokidea, zuzendaritzak sistema berrikustea litzateke, baldin eta horretan, horren eraginkortasuna ebaluatzen bada eta, desbideratzerik hautematekotan, prebentzioaren helburu eta xedeen plangintza aldatzen bada edo jarduera zuzentzaile eta prebentibo edo hobekuntza-jardueren bitartez zuzentzen dira.	- Plangintzan aldaketarik egin den azaltzea.	3			
12	Enpresaburuak kontuan hartzen ditu, zereginak agintzeko unean, langileek segurtasun- eta osasun-arloan dituzten lanbide-gaitasunak.	LAPL (15)	- Langileek laneko segurtasun eta osasunaren inguruan duten prestakuntza profesionalari buruzko erregistro eguneratua dauka enpresaburuak.	- Langileek laneko segurtasun eta osasunaren inguruan duten prestakuntza profesionalari buruzko erregistro eguneratua .	3			

8. Larrialdietako neurriak

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Enpresaburuak litezkeen larrialdi-egoerak aztertu eta neurri egokiak hartu ditu, gutxienez ere, honako hauen inguruan: a) lehen laguntzak. b) suteen aurkako borroka. c) ebakuazioa.	LAPL (20)	- Litezkeen istripuak eta larrialdiko egoerak identifikatu eta horien aurrean jokatzeko eta pertsona, instalazio eta inguruneari eragin diezaieketen kalteak prebenitu eta murrizteko dokumentatutako prozedura bat dauka enpresak ezarrita eta eguneratuta. - Larrialdietako Plan batean jasota dago enpresak larrialdietan nola jokatu behar duten, eta honako hauek definitzen ditu: a) Litezkeen larrialdi-egoerak (istripua jaso dezaketen agertokiak). b) Larrialdia adierazi eta konpontzeko prozedurak. c) Larrialdiaren antolaketa. d) Barne eta kanpoko komunikazio-bideak. e) Giza baliabide eta baliabide tekniko eta materialen inbentarioa. f) Elkarri laguntzeko akordioak.	- Larrialdietako Plana. - EAEn, ETEetan Larrialdietako Plana prestatu eta ezartzeko Oinarrizko Eskuliburuan jasotako eskema betetzen den egiaztatzea.	3			
2	Enpresaburuak neurri horiek praktikan jarriko dituzten langileak izendatu ditu.	LAPL (20)	- Neurri horiek praktikan jartzeaz arduratutako langileak: a) Nahikoak dira, kopuruari dagokionez. b) Beharrezko prestakuntza dute. c) Material egokia dute.	- Larrialdietako Plana. - Larrialdietako Planean eginkizunen bat duten langileen prestakuntzari buruzko erregistroa. - Larrialdietako Planean eskuragarri dagoen materiala, dagozkion Arautegietan eskatzen direnekin bat datozen egiaztatzea.	3			
3	Enpresaburuak aldian-aldian egiaztatzen du neurri horien jardunbide egokia (simulazioak).	LAPL (20)	- Aldian-aldian berrikusten da Larrialdietako Plana.	- Larrialdietako Plana abiarazteari buruzko erregistroa. Simulazioen txostena edo erregistroa.	3			
4	Enpresaburuak enpresatik kanpoko zerbitzuekin izan beharreko harremanak antolatu ditu, bereziki lehen laguntza, medikuaren presazko laguntza, salbamendu eta suteen aurkako borrokei dagokienez, halakoen berehalakotasuna eta eragingarritasuna berma dadin.	LAPL (20)	- Kanpo laguntza-zerbitzuek eta elkarri laguntzeko akordioa sinatu duten enpresek Larrialdietako Plana ezagutzen dute.	- Kanpo-zerbitzuei egindako jakinarazpenen erregistroa.	3			
5	Enpresako langile guzti-guztiek (kontratetakoak barne) ezagutzen duten larrialdietako plana.	LAPL (20, 24)	- Bisitariek dagozkion larrialdi-neurriak ezagutzen dituzte. - Larrialdietako Planak honako hauek jaso behar ditu: lehen laguntzez arduratzen diren pertsonen zerrenda, larrialdi-egoeretan nola jokatu behar den eta langileen ebakuazioa eta larrialdietako neurriak behar bezala funtzionatzen dutela aldian-aldian nola egiaztatu behar den; gainera, tartean dauden guztiek ondorengoak ezagutzen dituztela ere egiaztatu beharko da, hots: beren zereginak, beharrezko materiala, kolektibo bakoitzari dagokion beharrezko prestakuntza, eta larrialdi-egoeretan lagun dezaketen kanpo-erakundeekiko harremanen antolaketa.	- Bisitariei, larrialdi-egoeretan hartu beharreko neurriak jakinaraztea.	3			

9. Arrisku larri eta hur-hurrekoa

Zk.	Baldintza		Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
							B	E	EA
1	Langileek arrisku larri eta hur-hurrekoa dutela detektatzen denerako, enpresaburuak ondorengoak bermatzen dituzten mekanismoak ezarrita ditu:	Ukitutako langile guztiak ahalik eta arinen izango dute arrisku larri eta hur-hurrekoaren eta hartu beharreko neurrien berri.	LAPL (21)	- Arrisku larri eta hur-hurrekoa: Berehalakoan gerta daitekeela eta langileen osasunari kalte larri eragin diezaiokeela zentzuz ikusten dena. - Adibidez: Osasunean kalteak eragin ditzaketen agenteen eraginpean egotea, galdaketa-hobian ura edo hezetasuna egotea, elkarren artean itsatsitako zuhaitzak egotea, aurreikusi ezin den itsas zakarrean egin daitezkeen lanak, aldamioko ainguraketek akatsak izatea, gas-ihesak, etab.	- Egon badira, arrisku larri eta hur-hurrekoen aurrekariei buruzko txostenak. - Arrisku larri eta hur-hurrekoetan, jarraitutako prozedura, jarraibideak eta jardueren erregistroak. - Lan Ikuskaritzaren bisita-liburuan arrisku larri eta hur-hurrekoak eragindako espedienterik ez dagoela egiaztatzea.	5			
		Hierarkian gorago dauden langilerik egon ezean, eraginpeko langileak edo langileek, bere segurtasun eta osasuna babestuko dituzten dagozkion neurriak hartu ahal izango ditu/dituzte.							
		Neurri egokiak hartu eta jarraibide egokiak eman dira, langileek euren jarduera geldiarazteko aukera izan eta, behar izanez gero, lan egiten duten lekua berehala utz dezaten.							

10. Arrisku jakin batzuk jasateko bereziki sentsibleak diren langileak, amatasuna babestea eta adin txikikoen lana

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
Arrisku jakin batzuk jasateko bereziki sentsibleak diren langileak.								
1	Lanaren ondoriozko arriskuen aurrean bereziki sentikorrak diren langileen babes berezia bermatzen du enpresaburuak.	LAPL (25)	- Langile sentikorrak dira, ezaugarri pertsonalak, egoera biologikoa edo ezgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezko egoera ezagunak direla-eta, gainerako langileak edo enpresarekin zerikusirik duten beste pertsona batzuk arrisku-egoera jar ditzaketen langileak. Beste modu batera esanda, langile sentikorra da ofizialki onartuta duen ezgaitasunen batek (gutxienez %30) jotako pertsona, edo bere ezaugarri pertsonal edo biologikoengatik, lanpostuaren baldintzak direla-eta, bere edo beste batzuen osasuna arriskuan jartzen duena: bereziki sentikorra da kromoa zuzenean edo zeharka manipulatzea eskatzen duten lanpostuen aurrean. Enpresak langile hauekiko duen erantzukizuna, sentikortasuna hori ezagutzen duen unean hasten da (ez eragilea, langilearen osasunaren babesa kudeatu ahal izateko nahikoa informazioa izanda baizik). - Langileen sentikortasun bereziaren eragile zehatza, kontuzko informazioa da, eta intimitate- eta konfidentzialtasun-baldintzen arabera tratatu behar da.	- Beren lanpostuetan eman daitezkeen arriskuekiko bereziki sentikorrak diren langileen zerrenda (arriskuen ebaluazioa). - Sentikortasun bereziagatik egindako lanpostu-aldaketei buruzko txostenak edo lanpostuz aldatzeko proposamenei buruzko txostenak.	5			
2	Plantillan, arriskuen aurrean bereziki sentikorrak diren langileak daudela kontuan hartzen du arriskuen ebaluazioak.	LAPL (21)	Langileen ugalketa-funtzioa kalte dezaketen arriskuak baldin badaude, eta bereziki, ugalketan eragin mutagenikoa edo toxikoa izan dezaketen agente fisiko, kimiko edo biologikoen eraginpean egoteagatik, arriskuen ebaluazioan jaso beharko dira	- Arriskuen ebaluazioa.	5			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
3	Bereziki sentikorrak diren langileei ez zaie hainbat lanpostu emango, hau da, bere sentikortasun hori ezagututa, bere edo besteen osasuna arriskuan jar dezaketen lanpostuak.	LAPL (21)	- Langile horiek identifikatzeak, sentikortasuna ezartzeko irizpideak, enpresan dauden arriskuekiko sentikortasunaren deskribapena eta horien kontrolik gabeko eraginak saihesteko hartutako prebentzio-neurriak adieraztea eskatzen du.	- Langile sentikorren zerrenda eguneratua, langile horiek bete daitezkeen lanpostuetan lan egin ahal duten ala ez jasota eta, hori betetzen dela egiaztatzea. - Langileen osasuna zaintzeaz arduratzen den Prebentzio Zerbitzuak, drogak, alkohola, sendagaiak, etab. hartu ohi dituzten eta horien eraginez beren gaitasun psikofisikoa aldi baterako eraldatuta izan dezaketen langileak identifikatuta ditu, eta arduradunei jarduteko dagozkion jarraibideak eman dizkie, langile horiei lanpostua esleitzeko, bere eta bere lankideen osasuna babesteko helburu bakarrarekin. - Informazio hau guztiz konfidentziala da eta Prebentzio Zerbitzuko mediku arduradunak baino ezin du erabili.	5			
4	Bereziki sentikorrak diren langileei ez zaie hainbat lanpostu emango, lanpostu horiek betetzeko, aldi batez eta nabarmen, baldintza psikofisikoak betetzen ez dituztenean.	LAPL (22, 25) Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra (189)	- Bereziki sentikorrak diren enpresako langileen osasuna eta horiek betetzen dituzten lanpostuetako baldintzak aldian-aldian zaintzeko prozedurak daude. - Lanpostuak esleitzeko mekanismo bat edo bere buruari edo, enpresako edozein pertsona (langileak eta bisitariak) arrisku-egoeran jar dezakeen langilearen egoera psikofisikoa eraldatuta dagoela identifikatzeko jarduerak daude. - Epilepsia, karranpak, bertigoak, gortasuna, ikusmen akastuna edo antzeko ondorioak izan ditzaketen gaixotasun edo ahuleziak bezalako gaitzak dituzten pertsonak ez dituzte bere gaitz edo gaixotasunak direla-eta, bere buruarentzat edo lankideentzat arrisku berezia suposa dezaketen makinetan lanean jarriko.		5			
Amatasuna babestea.								
5	Arriskuen ebaluazioak langileen haurdunaldia edo erditze berria eta edoskitzaroa kontuan hartuko ditu.	LAPL (26)	- Arriskuen ebaluazioak zehaztu behar ditu, arrisku jakin bat izan dezakeen edozein jardueratan, haurdun dauden langileei edo erditu berri diren langileei dagokienez, langileen edo fetuaren osasunean eragin negatiboa izan dezaketen laneko agente, prozedura edo baldintzen izaera, gradua eta iraupena.		5			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
6	Beharrezko neurriak hartzen ditu enpresaburuak, arriskuen ebaluazioaren arabera.	LAPL (26)	- Ebaluazioaren emaitzen arabera, segurtasun zein osasunerako arriskua badago, edo langileen haurdunaldian zein edoskitzealdian ondorioren bat izateko posibilitatea badago, arrisku hori saihesteko, enpresaburuak neurri egokiak hartzen ditu, ukitutako langilearen lan-baldintzak edo -denbora egokituz. Neurri horien artean ezarriko da, hala behar izanez gero, gauean edo txandaka lanik ez egitea.		5			
7	Enpresaburuak, langileen ordezkariei galdetu ostean, haurdunaldi edo erditze berriko egoera eta edoskitzarorako arriskurik ez duten lanpostuak ezartzen ditu.	LAPL (26)	- Lan-baldintzak edo -denbora ezin direnean egokitu edo, egokitu arren, lanpostuaren baldintzek haurdun dagoen langilearen edo fetuaren osasunean eragin negatiboa izan dezaketenean, eta hori berori ziurtatu dutenean Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko edo mutualitateetako mediku-zerbitzuek, langileari mediku-zerbitzuak ematen dizkion Osasuneko Zerbitzu Nazionalaren mediku-txostenarekin batera, langileak bere egoerarekin bat datorren beste lanpostu edo eginkizun bat bete beharko du.	- Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren edo mutualitateen ziurtagiriak, langilea fakultatiboki artatzen duen Osasuneko Zerbitzu Nazionalaren medikuaren txostenarekin batera.	5			
8	Enpresaburuak lanpostuz aldatzen ditu haurdun, erditu berri edo edoskitzaroan dauden langileak.	LAPL (26)	- Lanpostu- edo eginkizun-aldaketa gauzatuko da, mugigarritasun funtzionalean aplikatzen diren erregela eta irizpideekin bat etorriz; aldaketa horrek ondoreak izango ditu, langilearen osasun-egoerak aurreko lanpostuan lan egitea ahalbidetu arte. - Aurreko lerrokadan aipatu erregelak aplikatuta ere, lanpostu edo eginkizun bateragarririk izan ezean, langileari bere taldearekin edo kategoria baliokidearekin bat ez datorren lanpostua eman dakioke, baina langile horrek jatorrizko lanpostuari dagozkion lansari guztiak jasotzeko eskubideari eutsiko dio. - Lanpostu-aldaketa hori teknikoki zein objektiboki ezin bada egin, edo justifikatutako arrazoien ondorioz ezin bada gauzatu, ukitutako langileari lan-kontratua etetea adieraz daiteke; etete hori izango da langile horren segurtasuna eta osasuna babesteko behar den beste denborarako, eta langile horrek aurreko lanpostuan edo bere egoerarekin bat datorren beste lanpostu batean lan egiteko ezintasunak iraun bitartean.		5			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
9	Haurdun dauden langileek lanean absente izateko eskubidea izango dute, ordainsariak jasotzeko eskubidearekin batera, seme-alabak jaio aurreko azterketak eta erditzea prestatzeko teknikak egin ditzaten.	LAPL (26)	- Enpresaburuari aurrez abisatzea eta halakoak lanaldian gauzatu beharra justifikatzea.		5			
Adin txikikoen lana.								
10	Debekatuta dago hamasei urtetik beherakoak lanerako hartzea.	Langileen Estatutua (6)			5			
11	Hamazortzi urtetik beherakoek ezin izango dute gaueko lanik egin.	Langileen Estatutua (6)			5			
12	Hamazortzi urtetik beherakoek ez dute Gobernuak osasungaitz, nekagarri, kaltegarri edo arriskutsutzat aitortutako lanik ere, bala badira langilearen osasunerako, eta lanbide-heziketarako eta giza heziketarako.	Langileen Estatutua (6)	- Ikusi, emakume eta adin txikikoei debekatutako jarduerak ezartzen dituen 1957ko uztailaren 26ko Dekretua (LAPALean ezarritakoari jarraiki, xedapen hau indargabetutzat jotzen da, emakumeei debekatutako lanei dagokienez).		5			
13	Hamazortzi urtetik beherako langileek ezin izango dute egin zortzi ordu baino gehiago egunean, benetan egindako lanetan.	Langileen Estatutua (34)	- Kopuru horretan sartzen da prestakuntzako denbora ere, halakorik badago, eta enplegatzaile bat baino gehiagorentzat lan eginez gero, bakoitzarekin egindako orduak ere bai.		5			
14	Hamazortzi urtetik beherako langileen kasuan, gutxienez hogeita hamar minutuko iraupena eduki behar du atsedenaldiak, eta eguneko lanaldi etengabe lau ordu eta erditik gorakoa den kasu guztietan ezarri behar da horrela.	Langileen Estatutua (34)			5			

11. Langileen prestakuntza eta informazioa

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Langileek segurtasun eta osasunerako arriskuei buruzko informazioa jasotzeko, behar beste neurri egoki hartzen ditu enpresaburuak, eta baita ondorengoei eragiten dieten babes- eta prebentzio-neurriei buruzkoak ere: a) enpresari. b) bere lanpostu edo berariazko eginkizunari. c) larrialdiko neurriei.	LAPL (18) 306/1999 Dekretua (9)	a) Enpresa osoaren inguruan Ondorengoak onar litezke informazioa jakinarazteko bideen inguruko irizpide orokortzat: - Enpresa osoari buruzko informazio orokorra langileen ordezkarien bitartez jakinaraziko da, eta horrelakorik egon ezean, horiek xede duten langile guztiek ikusteko moduko informazio-panel, iragarki-ohol, informazio-bilera eta abarren bidez. - Lantoki, denentzako eremuetako, instalazioetako edo kontratatutako enpresen zentroetako jardueren arrisku orokorrak. b) Lanpostu edo berariazko eginkizunaren inguruan: Lanpostuaren arriskuei buruzko informazioa jaso duela langileak egindako agiriaren bitartez egiaztatzen da EAEn. c) Larrialdiko neurrien inguruan: Ebakuazioetan, suteetan, lehen laguntzetan eta bestelako gertakarietan nola jardun behar duten jakinarazten zaie langileei.	- Langileen ordezkariekin egindako bileren aktak, iragarki-oholean egiaztatzea, argitaratutako informazio-buletinak, etab. - EAEn: arrisku horien berri izan duela adierazteko langileak sinatutako agiria. - Langileei suteetan edo ebakuazio-kasuetan emandako esku-hartzearen fitxak, enpresan ebakuazioetarako dauden seinale egokiak, etab.	3			
2	Langileek segurtasun eta osasunerako arriskuei buruzko informazioa jasotzeko, behar beste neurri egoki hartzen ditu enpresaburuak, eta baita LAPLa garatzen duten Errege Dekretuen ondorioz, laneko arriskuen prebentzioari eragiten dieten babes- eta prebentzio-neurriei buruzkoak ere.	LAPL (18) 485/1997 ED 773/1997 ED (8)	- Ondokoen inguruko alderdiei buruzkoa da informazioa: Seinaleak, NBEak, Lan Ekipoak, etab.		3			
3	Enpresak jarraibide egokiak ematen dizkie langileei.	LAPL (15)	- Barne-komunikazio edo antzeko komunikazioko prozedura ezarrita dauka enpresak, eta horren bitartez, langile orori egokitutako prebentzioko jarraibideak eskaintzen dizkiela bermatu ahal du.	- Langileek jarraibideak jaso dituztela egiaztatzen duen agiria. - Informazio-bilerei buruzko aktak. Hauetan, dagozkion jarraibideak helarazi direla jasota egon behar da.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
4	Langile bakoitzak, prebentzioaren alorreko prestakuntza teoriko eta praktiko nahikoa eta egokia jasotzen duela bermatzen du enpresaburuak.	LAPL (19) 485/1997 ED 664/1997 ED	- Enpresaburuak Prestakuntza Plan baten bidez bermatuko du, langileek prestakuntza jasotzen dutela: a) Kontratatzerakoan. b) Lanpostuaren eginkizunetan aldaketak ematen direnean. c) Lan-ekipoetan teknologia berriak edo aldaketak ezartzen direnean. d) Arrisku berriak agertzen direnean. e) Larrialdi-egoeretan jarduteko. Gainera, prestakuntza: a) Lanposturako berezia da. b) Arriskuen bilakaeraren eta berriak agertzearen arabera egokituta dago. c) Beharrezkoa denean, aldizka errepikatzen da. d) Lan-denboratzat jotzen da. e) Enpresa arduratu da prestakuntzaren kostuaz. f) Seinaleak. g) NBEak. Hala badagokio, NBEak erabiltzen ikasteko edo aldi berean konplexutasun bereziko NBEak erabiltzeko antolatuz.	- Prestakuntza Plana. - Prestakuntzaren erregistroak. - Prestakuntza eman duen pertsona edo erakundearen ziurtagiri izenduna. - Laneko agintaritzak prestakuntza eman duen erakundeari emandako baimena (erdi- eta goi-mailarako). - Emandako prestakuntza lanposturako berezia dela egiaztatzeko, langileak jasotako prestakuntza-ekintza eta lanpostuari dagokiona edo lanpostu horren inguruan arriskuen ebaluazioaren emaitza alderatuko dira. - Dagokion ebaluazioan islatutako arrisku berriak azaltzearen eta emandako prestakuntza-ekintzen artean trazabilitatea egon behar du.	3			
5	Prebentzio Planaren antolaketa-egituran izendatutako arduradunek, legeriak exijitutako beharrezko prestakuntza eta akreditazioa dituzte.	PZA (6. kap.)	- Testuinguru honetan, prebentzio plana eta Prebentzioaren Kudeaketa Sistema baliokideak dira.	- Prebentzioaren Kudeaketa Sisteman edo Prebentzio Planean erantzukizuna duten pertsona guztien prestakuntza-erregistroak, laginketen bidez ausaz aztertuta.	3			
6	Prebentzioko Ordezkariek behar bezala prestatuta daude.	171/2004 ED (4)	- Lanbide arteko hitzarmenaren arabera prestatuak izan dira Prebentzioko Ordezkariak, hala alde teknikoari zein araudiaren ingurukoari dagokienez.	- EAEn, derrigorrezko prestakuntza (teknika edo araudiaren ingurukoa) dutela egiaztatzen duen OSALANen diploma izan behar dute.	3			
7	Lantoki berean enpresa-jarduera ezberdinak bateratzeak ekar ditzakeen arriskuen berri ematen die langileei enpresaburuak.	RD 171/2004 (4)			3			
8	Enpresako langile guzti-guztiek (kontratetakoak barne) ezagutzen duten larrialdietako plana.	LAPL (20, 24)	- Bisitariek dagozkion larrialdi-neurriak ezagutzen dituzte. - Larrialdietako Planak honako hauek jaso behar ditu: lehen laguntzez arduratzen diren pertsonen zerrenda, larrialdi-egoeretan nola jokatu behar den eta langileen ebakuazioa eta larrialdietako neurriak behar bezala funtzionatzen dutela aldian-aldian nola egiaztatu behar den; gainera, tartean dauden guztiek ondorengoak ezagutzen dituztela ere egiaztatu beharko da, hots: beren zereginak, beharrezko materiala, kolektibo bakoitzari dagokion beharrezko prestakuntza, eta larrialdi-egoeretan lagun dezaketen kanpo-erakundeekiko harremanen antolaketa.	- Bisitariei, larrialdi-egoeretan hartu beharreko neurriak jakinaraztea.	**3**			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
9	Langileek arrisku larri eta hur-hurrekoa dutela detektatzen denerako, langileek euren jarduera geldiarazteko aukera izan eta, behar izanez gero, lan egiten duten lekua berehala utz dezaten, neurri egokiak hartu eta jarraibide egokiak eman direla, bermatzen dituzten mekanismoak ezarrita ditu enpresaburuak.	LAPL (21)	- Arrisku larri eta hur-hurrekoa: Berehalakoan gerta daitekeela eta langileen osasunari kalte larri eragin diezaiokeela zentzuz ikusten dena. - Adibidez: Osasunean kalteak eragin ditzaketen agenteen eraginpean egotea, galdaketa-hobian ura edo hezetasuna egotea, elkarren artean itsatsitako zuhaitzak egotea, aurreikusi ezin den itsas zakarrean egin daitezkeen lanak, aldamioko ainguraketek akatsak izatea, gas-ihesak, fatxadetan sarerik gabe lan egitea, etab.	- Arrisku larri eta hur-hurrekoen (egon badira) aurrekariei buruzko txostenak. - Arrisku larri eta hur-hurrekoa ematekotan bete beharreko prozedura, jarraibideak eta jarduera-erregistroak. - Laneko Ikuskaritzaren bisita-liburuan, arrisku larri eta hur-hurrekoaren ondorioz sortutako espedienterik dagoen egiaztatzea.	5			

12. Kontrol-jarduerak

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
Enpresaburua								
1	Enpresaburuak prebentzio-jardueraren segimendua modu iraunkorrean gauzatzen du, saihestu ezin diren arriskuak identifikatu, ebaluatu eta kontrolatzeko jarduerak eta babes-mailak hobetzeko.	LAPL (14)	- Enpresaburuak LAParen kudeaketa-sistema egokia izaten jarraitzen duela ziurtatzeko berraztertu egiten du. Berraztertze hori dokumentatuta dago. - LAParen kudeaketa-sistemaren berraztertzeak, politikan, helburuetan eta LAParen kudeaketa-sistemako beste elementu batzuetan aldaketak egitea beharrezkoa izan daitekeela kontuan hartzen du, eta aldaketa horiek guztiak, LAParen kudeaketa-sistemaren auditoriaren emaitza, gorabehera aldakor eta etengabe hobetzeko konpromisoaren araberakoak dira.	- Beharrezkotzat jotako edozein ekintza zuzentzaile edo prebentzio-ekintza epearen barruan amaituta egon dadin ikuskatu egiten ari direla egiaztatzen duten froga nabarmenak ikustea.	3			
2	Enpresaburuak prebentzio-jardueraren segimendua modu iraunkorrean gauzatzen du, behar besteko aginduak emateko beharrezkoa denaren jabe izanez, prebentzio-neurriak lana egiteko inguruabarrek izan ditzaketen aldarazpenekin bat etor daitezen.	LAPL (14)			3			
3	Enpresaburuak enpresaren LAPeko Plana kudeatu eta aplikatzen du.	LAPL (16)			3			
4	Enpresaburuak aldizkako kontrolak egiten ditu, lan-baldintzen eta langileek zerbitzuak ematen dituzten jardueren inguruan, arriskutsuak izan daitezkeen egoerak detektatzeko.	LAPL (16)			3			
5	Enpresaburuak arrisku-egoerak deuseztatu edo murriztu eta kontrolatzeko prebentzio-jarduerak gauzatzen ditu.			- Beharrezkotzat jotako edozein ekintza zuzentzaile edo prebentzio-ekintza epearen barruan amaituta egon dadin ikuskatu egiten ari direla egiaztatzen duten froga nabarmenak ikustea.	3			
6	Enpresaburuak plangintzan barne hartutako prebentzio-jarduerak benetan betetzen direla egiaztatzen du.	LAPL (16)	- Horretarako, prebentzio-jardueren etengabeko segimendua egiten du. - Enpresaren zuzendaritzari ematen zaizkio ekintza zuzentzaileak edo prebentzio-ekintzak betetzearen emaitzak eta aurrerapena, zuzendaritzak egin beharrezko berraztertzerako hasiera bateko elementuak izan daitezen eta LAPean helburu berriak edo berraztertuak ezartzeko.	- Beharrezkotzat jotako edozein ekintza zuzentzaile edo prebentzio-ekintza epearen barruan amaituta egon dadin ikuskatu egiten ari direla egiaztatzen duten froga nabarmenak ikustea.	3			
7	Eskatutako babes-helburuak desegokiak direla hautematen duenean, prebentzio-jarduerak aldatzen ditu enpresaburuak.	LAPL (16)		- Eskatutako babes-helburuak desegokiak direla hauteman denean, egindako ekintza egiaztatzea.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
8	Langileen osasunean kalte egin duten eragileak detektatzeko ikertu egiten du enpresaburuak.	LAPL (16)		- Langileen osasunean kalteren bat gertatu denean, egindako ekintza egiaztatzea.	3			
9	Osasunaren zaintza dela-eta, ezarritako prebentzio-neurriak behar bestekoak ez direlako seinalerik azaldu gero, ikertu egiten du enpresaburuak.	LAPL (16)		- Osasun-zaintzaren ondorioz prebentzio-neurriak behar bestekoak ez direla adierazten duten seinaleak azaltzen direnean, egindako ekintza egiaztatzea.	3			
10	Enpresaburuak honako hauek egiaztatzen ditu: lan-ekipoak dagozkien eginkizunetarako egokiak direla, erabiltzeaz arduratutako pertsonek baino erabiltzen ez dituztela eta, konpontze, transformazio, mantentze eta artatze lanak horretarako gaitutako langileek bakarrik egiten dituztela.	LAPL (17)	- CE markaketa daramaten makina berriak, adostasun-adierazpena eta jarraibideen eskuliburua gaztelaniaz. - LAPLaren 41. artikulua	- Lan-ekipoak bereganatzearen, konpontze- eta mantentze-lanen, eta abarren inguruan egindako ekintza egiaztatzea.	3			
11	Fabrikatzaileek, inportatzaileek eta hornitzaileek enpresaburuari ematen diote, eta enpresaburuek horiengandik jasotzen du, behar besteko informazioa, makina, ekipamendu, produktu, lehengai eta lanabesen erabilera eta maneiua langileen segurtasuna eta osasunerako arriskurik gabeko izan dadin, bai eta enpresaburuak langileei begira bere informazio-betebeharrak betetzeko aukera izan dezan.	LAPL (41)			3			
12	Enpresaburuak bere langileei emandako NBEak egokiak direla eta dagozkien NBEak erabiltzen dituztela egiaztatzen du.	LAPL (17)			3			
13	Langileei jarraibide egokiak ematen zaizkiela egiaztatzen du enpresaburuak.	LAPL (18)			3			
14	Langileei informazio egokia ematen zaiela egiaztatzen du enpresaburuak.	LAPL (19)			3			
15	Langileei informazio egokia eta eraginkorra ematen zaiela egiaztatzen du enpresaburuak.	LAPL (18, 19)			3			
16	Ezarritako larrialdi-neurriak garatutako Planaren arabera aplikatzen direla egiaztatzen du enpresaburuak.	LAPL (20)			3			
17	Langileen osasun-zaintza behar bezala egiten dela egiaztatzen du enpresaburuak.	LAPL (22)			3			
18	Lana garatzearen ondorioz bere zerbitzupeko langileek osasunean izandako kalteak laneko agintaritzari jakinarazten zaizkiola egiaztatzen du enpresaburuak.	LAPL (23)			3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
19	Lanaren ondoriozko arriskuekiko bereziki sentikorrak diren langileen babesa berariaz bermatzen dela egiaztatzen du enpresaburuak.	LAPL (25)			3			
20	Amatasuna babesteko ekintza egokiak gauzatzen direla egiaztatzen du enpresaburuak.	LAPL (26)			3			
21	Adin txikikoak babesteko ekintza egokiak gauzatzen direla egiaztatzen du enpresaburuak.	LAPL (27)			3			
22	Aldi baterako, iraupen zehatzeko eta aldi baterako enpresekiko harremanen inguruan ekintza egokiak gauzatzen direla egiaztatzen du enpresaburuak.	LAPL (28)	- Segurtasun- eta osasun-arloko babes-maila berbera dute hauek eta bere jarduna garatzen duten enpresako gainerako langileek. - Langileen segurtasuna eta osasuna babesteari buruzko alderdi guztietan, lan-baldintza berberak dituzte. - Jarduerari ekin baino lehen zein arriskuren eraginpean egongo diren jakingo dute eta baita arrisku horiei buruzko informazioa izan ere, eta bereziki, lanbide-prestakuntza edo -gaitasun jakin batzuk izateko beharrari, medikuen kontrol bereziak egiteko beharrari edo bete beharreko lanpostuak dituen arrisku zehatzei, bai eta arrisku horiei aurre egiteko babes- eta prebentzio-neurriei buruzkoa ere. - Enpresaren LAPeko antolakuntzak, enpresako langile guztiekiko dituen eginkizunak egoki garatzeko moduko informazioa jaso du. - Bete beharrezko lanpostuei eta beharrezko kualifikazioei buruzko ezaugarrien inguruko informazioa eman zaio aldi baterako laneko enrpesari. - Aldi baterako laneko enpresak prestakuntza eta osasun-zaintzaren inguruan zituen eginkizunak bete ditu. - Aldi baterako laneko enpresak bideratutako langileen atxikipenaren berri eman zaie langileen ordezkariei.	- ABLEari, enpresaren LAPeko Antolakuntzari, langileen Ordezkariei eta abarrei igorritako informazioa. - ABLEak bideratutako prestakuntza eta informazioa. - Langileari, bete beharreko lanpostuko arriskuen araberako protokolo egokien bitartez osasun-zaintza egin zaiola egiaztatzeko dokumentua.	3			
23	Beharrezkoak direnean, prebentzio-baliabideak daudela egiaztatzen du enpresaburuak.	LAPL (32 bis)			3			
24	Laneko Agintaritzak, Laneko Ikuskaritzak eta Gizarte Segurantzak eta Osalanek egindako oharrak aintzat hartzen ditu enpresaburuak.		- Ekimenak, ikuskaritzak, errekerimenduak, istripuak eta abar direla-eta egindako bisiten ondoriozko sortu dira ohar hauek. - Ohar hauen ondoriozko jardueren plangintza egiten da.	- Laneko Agintaritzaren, Laneko Ikuskaritzaren eta Gizarte Segurantzaren eta Osalanen idazkiak ikustea.	5			
25	LAPeko Erakundeak egindako oharrak aintzat hartzen ditu enpresaburuak.			- LAPeko Antolakuntzaren txostenaren ondorioz egindako hobekuntzak egiaztatzea.	3			
26	LAParen Auditoria Enpresak egindako oharrak aintzat hartzen ditu enpresaburuak.			- Auditoriaren txostenaren ondorioz egindako hobekuntzak egiaztatzea.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
Lantegi berean enpresa desberdinetako langileak egotea, enpresaburu nagusi baten aginduetara.								
27	Enpresaburu nagusiak zaintzen du, berezko jardueraren obra edo zerbitzuak egiteko kontratatu eta azpikontratatzen dituen enpresek, obra edo zerbitzu horiek bere lantokian gauzatzen badira, LAPeko arautegia betetzen dutela.	LAPL (24) 171/2004 ED (10)			3			
28	Enpresaburu nagusiak, kontratatu eta azpikontratatzen dituen enpresei, kontratatutako obra eta zerbitzuen inguruan ondokoak egin dituztela idatziz egiaztatzeko: arriskuen ebaluazioa, beren prebentzio-jardueraren plangintza, eta gainera, lantokian lan egingo duten langileekiko informazio- eta prestakuntza-alorreko zereginak bete dituztela.	LAPL (24) 171/2004 ED (10)	- Jarduerari ekin baino lehen.	- Arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza egin dutela egiaztatzen duen dokumentua. - Informazioa eta prestakuntza bideratzeko zeregina bete dutela egiaztatzen duen dokumentua.	3			
29	Enpresaburu nagusiak egiaztatzen du, bere lantokian jarduten duten kontratatu eta azpikontratatutako enpresek, euren artean beharrezko koordinazio-baliabideak ezarri dituztela.	LAPL (24) 171/2004 ED (10)			3			
Enpresaren LAPeko Antolakuntza.								
30	Enpresaburuari, langileei eta hauen ordezkariei eta ordezkaritza-organo espezializatuei aholkuak eta laguntza ematen dizkiete.	LAPL (31)		- Enpresaburuari, langileei eta hauen ordezkariei eta ordezkaritza-organo espezializatuei zuzendutako txostenak.	3			
31	Enpresan prebentzioa ezartzea ahalbidetuko duen laneko arriskuen prebentziorako plana diseinatu, ezarri eta aplikatzen dute.	LAPL (31)		- LAPari buruzko bileren txostenak.	3			
32	Langileen osasun eta segurtasunari eragin diezaieketen arrisku-faktoreen ebaluazioa egiten dute.	LAPL (31)		- LAPeko ikuskaritzari, kontsultari, istripu eta gertakariei, istripu eta gertakarien segimenduari, eta abarrei buruzko txostenak.	3			
33	Prebentzio-ekintzaren plangintza egin eta prebentzio-neurriak hartu eta horien eraginkortasuna zaintzeko lehentasunak ezartzen dituzte.	LAPL (31)		- Prebentzio-ekintzaren plangintza eta zaintza.	3			
34	Langileei informazioa eta prestakuntza bideratzen dizkiete.	LAPL (31)		- Prestakuntza eta informazioari buruzko erregistroak.	3			
35	Lehen laguntzak eman eta larrialdietako planak egiten dituzte.	LAPL (31)		- Larrialdi, lehen laguntza eta abarren inguruko simulazioei buruzko txostenak.	3			
36	Lanaren ondoriozko arriskuak direla-eta, langileen osasuna zaintzen dute.	LAPL (31)		- Azterketa medikoen txostenak.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
37	Laneko Agintaritzak, Laneko Ikuskaritzak eta Gizarte Segurantzak eta Osalanek egindako oharrak aintzat hartzen ditu LAPeko Antolakuntzak.		- Ekimenak, ikuskaritzak, errekerimenduak, istripuak eta abar direla-eta egindako bisiten ondoriozko sortu dira ohar hauek.	- Laneko Agintaritzak, Laneko Ikuskaritzak eta Gizarte Segurantzak eta Osalanek egindako idazkiak ikustea.	5			
Segurtasun eta Osasun Batzordea								
38	Enpresan dauden arriskuak prebenitzeko planak eta programak egin, abian jarri eta ebaluatzean esku hartzen dute.	LAPL (39)	- Segurtasun- eta osasun-batzordean eztabaidatuko dira, abian jarri aurretik eta arriskuak prebenitzeko duten eraginari dagokionez, plangintzari, lanaren antolaketa eta teknologia berriak sartzeari, babes- eta prebentzio-jardueren (laneko arriskuen prebentziorako plana, arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-ekintzaren plangintza) antolaketa eta garapenari, eta prebentzio-arloko prestakuntzaren egitasmo eta antolaketari buruzko proiektuak.		3			
39	Arriskuak benetan prebenitzeko metodo eta prozedurei buruzko ekimenak sustatzen dituzte, enpresari baldintzak hobetzeko edo dauden akatsak zuzentzeko proposatuz.	LAPL (39)			3			
40	Zuzenean ezagutzen dituzte lantokian prebentzioak duen egoera eta bere eginkizunak gauzatzeko beharrezkoak diren lan-baldintzen inguruko agiri eta txostenak, eta baita prebentzio-zerbitzuaren jardueraren ondoriozko agiri eta txostenak ere.	LAPL (39)	- LAParen inguruko egoera ezagutzako, egokitzat jotzen dituzten bisitak egiten dituzte.		3			
41	Langileen osasunean eta osotasun fisikoan eragindako kalteen berri izan eta aztertzen dituzte.	LAPL (39)	- Kalte horiek ezagutu eta aztertzen dituzte, horien arrazoiak balioetsi eta kasuan kasuko prebentzio-neurriak hartzeko.		3			
42	Prebentzio-zerbitzuen urteroko memoria eta programazioa ezagutu, eta horiek informatzen ditu.	LAPL (39)			3			
43	Laneko Agintaritzak, Laneko Ikuskaritzak eta Gizarte Segurantzak eta Osalanek egindako oharrak aintzat hartzen ditu Segurtasun eta Osasun Batzordeak.		- Ekimenak, ikuskaritzak, errekerimenduak, istripuak eta abar direla-eta egindako bisiten ondoriozko sortu dira ohar hauek.	- Laneko Agintaritzak, Laneko Ikuskaritzak eta Gizarte Segurantzak eta Osalanek egindako idazkiak ikustea.	5			
Langileen Ordezkariak - Prebentzioko Ordezkariak.								
44	Enpresako zuzendaritzarekin elkarlanean aritzen dira, prebentzio-ekintza hobetzeko.	LAPL (36)			3			
45	LANPeko arautegia betetzeko, langileen lankidetza sustatu eta bultzatzen dute	LAPL (36)			3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
46	LAPeko gaiei buruzko kontsultak jasotzen dituzte enpresaburuarengandik.	LAPL (33, 36)	- Enpresaburuak kontsultatu egiten die erabakiak bete baino lehen, ondoreko hauek direnean erabaki beharrekoak: a) enpresan lana eta planifikatzea eta antolatzea, eta teknologia berriak sartzea, halakoek langileen segurtasunean eta osasunean izan ditzaketen ondorioen inguruan, ekipamenduak aukeratzeagatik, lan-baldintzak zehaztu zein egokitzeagatik eta inguruneak lanean duen eraginagatik. b) enpresan osasuna babesteko eta lanbide-arriskuak prebenitzeko jarduerak antolatu eta gauzatzea, jarduera horiek gauzatzeaz arduratuko diren langileak izendatzea eta enpresatik kanpoko zerbitzu batera jotzea barne. c) larrialdi-neurriez arduratuko diren langileak izendatzea. d) langileen segurtasun eta osasunerako arriskuei, aplika daitezkeen prebentzio- eta babes-neurri eta -ekintzei, laneko arriskuen prebentziorako planari, prebentzio-ekintzaren plangintzari eta abarrei buruzko informazioaren eta agirien gainean jaso prozedurak. e) prebentzio-arloko prestakuntzaren proiektua eta antolaketa. f) langileen segurtasunean eta osasunean ondorio garrantzitsuak izan ditzaketen beste edozein ekintza.		3			
47	LAPeko arautegia bete dadin, zaintza- eta kontrol-lanak egiten dituzte.	LAPL (36)			3			
48	Teknikariei laguntzen diete, laneko ingurunearen prebentzio-izaerako ebaluazioetan, bai eta, Laneko eta Gizarte Segurantzako ikuskatzaileei ere, horiek lantokietan egiten dituzten bisita eta egiaztapenetan, LAPeko arautegia betetzen dela egiaztatzeko.	LAPL (36)	- Teknikari eta ikuskatzaileei lagundu eta egokitzat jotzen dituzten oharrak egiten dizkiete.		3			
49	Lan-baldintzen inguruan, euren eginkizunak gauzatzeko adina informazio eta agiri dituzte eskura.	LAPL (36)	- Langileak lanpostua betetzeko duen gaitasunaren inguruan edo prebentzio-arloan dituzten eginkizunak behar bezala bete ahal izateko, babes- eta prebentzio-neurriak ezartzeko azterketa medikoen ondorioak		3			
50	Enpresaburuaren informazio jasotzen dute, langileen osasunean eragindako kalteen inguruan.	LAPL (36)	- Lanalditik kanpo bada ere, gertaeren tokian ager daitezke, gertaeron inguruabarren berri izateko.		3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
51	Enpresan babes- eta prebentzio-jarduerez arduratzen diren pertsona eta organoek eta langileen segurtasun eta osasunerako eskumenak dituzten erakundeek enpresaburuari zein informazio eman dioten ezagutu eta enpresaburuarengandik informazio hori jasotzen dute.	LAPL (36)			3			
52	Lanlekuetara bisitak egiten dituzte, lan-baldintzen egoeraren gainean, ikuskaritza- eta kontrol-lanak gauzatzeko.	LAPL (36)	- Lanlekuetako edozein gunetara sartu eta lanaldian langileekin komunika daitezke, ekoizpen-prozesuaren ohiko garapenari aldaketarik eragin gabe.		3			
53	Enpresaburuarengandik, prebentzio-izaerako neurriak, eta langileen segurtasun eta osasunaren babes-mailak hobetzeko neurriak hartzea lortzen dute.	LAPL (36)	- Proposamenak egin diezazkiokete enpresaburuari, eta Segurtasun eta Osasun Batzordeari, batzorde horretan proposamenok eztabaida daitezen.		3			
54	Langileen ordezkaritza-organoari jarduerak (arrisku larri eta hurhurrekoa) geldiarazteko erabakia hartzea proposatzen diote.	LAPL (21, 36)	- Langileak arrisku larri eta hurhurreko egoeran daudenean eta, enpresaburuak ez dituenean neurri egokiak hartzen edo ez duenena uzten halakorik hartzen, langileen segurtasun eta osasuna bermatzeko, langile horien lege-ordezkariek erabaki dezakete, kideen gehiengoarekin, arrisku horrek ukitutako langileen jarduera geldiaraztea.	- Enpresari eta laneko agintaritzari egindako jakinarazpena.	5			
55	Enpresa-jarduera ezberdinak ematen direnean, LAParen eta lan-baldintzen egoeraren gainean, ikuskaritza- eta kontrol-lanak egiten dituzte Prebentzioko Ordezkariek.	LAPL (36) RD 171/2004 (15)	- Enpresa-jarduera ezberdinak ematen direnean, lan-baldintzen egoeraren gainean, ikuskaritza- eta kontrol-lanak egiteko lanlekuetara bisitak egin ditzakete Prebentzioko Ordezkariek; horretarako, lanlekuetako edozein gunetara sartu eta lanaldian, bertan lanean ari diren enpresetako prebentzioko ordezkariekin edo langileen lege-ordezkariekin edo, hala badagokio, langileekin eurekin komunika daitezke, ekoizpen-prozesuaren ohiko garapenari aldaketarik eragin gabe;	- Prebentzioko Ordezkariek egindako jakinarazpenak.	3			
56	Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzara jotzen dute, uste badute hartutako neurriak eta enpresaburuak erabilitako bideak ez direla nahiko, segurtasuna eta osasuna bermatzeko.	LAPL (40)			3			
57	Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak, LAPeko araudia betetzen dela egiaztatzeko egiten dituen bisitetan, egokitzat jotzen dituzten oharrak egiten dituzte.	LAPL (40)			3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
58	Laneko Agintaritzak, Laneko Ikuskaritzak eta Gizarte Segurantzak eta Osalanek egindako oharrak aintzat hartzen dituzte langileen ordezkariek eta Prebentzioko Ordezkariek.		- Ekimenak, ikuskaritzak, errekerimenduak, istripuak eta abar direla-eta egindako bisiten ondoriozko sortu dira ohar hauek.	- Laneko Agintaritzak, Laneko Ikuskaritzak eta Gizarte Segurantzak eta Osalanek egindako idazkiak ikustea.	5			
Langileak.								
59	Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzara jotzen dute, uste badute hartutako neurriak eta enpresaburuak erabilitako bideak ez direla nahiko, segurtasuna eta osasuna bermatzeko..	LAPL (40)			3			
60	Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzak, LAPeko araudia betetzen dela egiaztatzeko egiten dituen bisitetan, egokitzat jotzen dituzten oharrak egiten dituzte.	LAPL (40)			3			
61	Laneko Agintaritzak, Laneko Ikuskaritzak eta Gizarte Segurantzak eta Osalanek egindako oharrak aintzat hartzen dituzte langileek.		- Ekimenak, ikuskaritzak, errekerimenduak, istripuak eta abar direla-eta egindako bisiten ondoriozko sortu dira ohar hauek.	- Laneko Agintaritzak, Laneko Ikuskaritzak eta Gizarte Segurantzak eta Osalanek egindako idazkiak ikustea.	5			
Osasunaren zaintza.								
62	Langileei aurretiazko azterketa medikoak egiten zaizkie.	Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra (196)	- Gaixotasun profesionalen arriskua duten lanpostuak bete behar dituzten enpresek, lanpostu horiek beteko dituzten langileei onartu aurretik eta aldian-aldian azterketa medikoa egitera behartuta daude, eta azterketa mediko horiek Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak horren inguruan ematen dituen arauetan ezarritako gaixotasun-mota bakoitzaren araberakoak izango dira. - Enpresak ordainduko ditu azterketak eta langilearentzat derrigorrezkoak dira. - Enpresek ezin dituzte onartu, langileen azterketa medikoek lanpostuko jarduerak betetzeko gai ez direla ezartzen badute. Debeku berbera ezartzen da lanpostuan jarraitzearen inguruan, baldin eta azterketa medikoan bertan jarraitzeko gaitasuna adierazten ez bada.		3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
63	Langileei, hasierako eta/edo aldizkako osasun-azterketak egiten zaizkie.	PZA (37) Gizarte Seguran-tzaren Lege Orokorra (196)	- Osasun-zaintzaren arloan, honako hauek barne hartzen ditu osasun-jarduerak: a) Langileen osasun-ebaluazio bat hasiera batean, lanpostuan jarduten hasi ondoren edo osasunarentzat arrisku berriak dituzten jarduera bereziak esleitu ondoren. b) Osasun-arazoak medio, lanera joan gabe luzaroan egon diren langileen osasun-ebaluazio bat, gaixotasunaren jatorria lanbidean dagoen jakiteko eta langileak babesteko ekintza egokia gomendatzeko. c) Aldian-aldian osasun-zaintza bat. - Gaixotasun profesionalen arriskua duten lanpostuak bete behar dituzten enpresek, lanpostu horiek beteko dituzten langileei onartu aurretik eta aldian-aldian azterketa medikoa egitera behartuta daude, eta azterketa mediko horiek Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioak horren inguruan ematen dituen arauetan ezarritako gaixotasun-mota bakoitzaren araberakoak izango dira. - Enpresak ordainduko ditu azterketak eta langilearentzat derrigorrezkoak dira. - Enpresek ezin dituzte onartu, langileen azterketa medikoek lanpostuko jarduerak betetzeko gai ez direla ezartzen badute. Debeku berbera ezartzen da lanpostuan jarraitzearen inguruan, baldin eta azterketa medikoan bertan jarraitzeko gaitasuna adierazten ez bada.		3			
64	Lanari datxezkion arriskuen araberako osasun-egoeraren zaintza bermatzen die enpresaburuak bere zerbitzupeko langileei.	Gizarte Seguran-tzaren Lege Orokorra (196) LAPL (22)	- Arriskuen eraginpean dauden langileen osasun-zaintza egiteko egokia da prebentzio-antolaketa. - Osasunaren aldizkako zaintza, enpresako arriskuen Ebaluazioan aztertutako arriskuen araberakoa da.	- Bertako edo Enpresa arteko Preben-tzio Zerbitzua eratzeko akta edo Osasun Zaintzaren jarduera espresuki jasotzen duen Kanpoko Prebentzio Zerbitzuarekiko kontratua. - Izendatutako langilearen kasuan: izendapenaren eta onarpenaren dokumentua eta berariazko titulazioa edo, hala badagokio, enpresa horretarako izendapen ofiziala, enpresaren barruko langilea izan behar delarik. - Osasunaren zaintzaz arduratzen den prebentzio-antolakuntzak honako hauek ditu: a) Arrisku ezberdinen eraginpean dauden pertsonen izenen zerrenda. b) Langile bakoitza arriskuaren menpe dagoen denbora. c) Osasun-zaintzat zenbatero egiten den. d) Eraginpean dauden langileen osasunaren aldizkako zaintza egiteko berariazko prozedurak edo jarraibideak.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
65	Osasun-zaintza gauza daiteke, langileak adostasuna ematen duenean bakarrik, ezinbestekoa den kasuetan izan ezik. Edozein kasutan ere, langileari ahalik eta kalterik txikiena egiten dioten azterketak eta frogak aukeratu beharko dira, bai eta arriskuarekin proportzionalak direnak ere.	LAPL (22)	- Badago langileak horiekiko adostasuna edo uko egitea adierazteko ezarritako mekanismoa. - Osasun-zaintza derrigorrezkoa noiz den: a) Osasun-azterketa ezinbestekoa da lan-baldintzek langileen osasunean duten eraginak ebaluatzeko. b) Osasun-azterketa ezinbestekoa da, langilearen osasun-egoera berarentzat edo enpresarekin lotutako beste pertsonen batzuentzat arrisku bat daitekeen jakiteko. c) Arrisku bereziak eta bereziki arriskutsuak diren jarduerak babestearekin lotuta dagoen lege-xedapen batean ezarrita dago azterketaren gauzatzea. - Langileren bati osasun-azterketa egiteko derrigortu behar izatekotan: a) Langileen ordezkariei langilearen borondatearen kontra osasun-zaintza egin behar zaiola jakinarazteko mekanismo bat dago, eta baita, ekintza hori egin aurretik, langileen ordezkarien iritzia jasotzekoa ere. b) Borondatezko printzipio horretaz salbuesteari buruz erabakitzeko irizpide tekniko egokiak daude. - Osasun-zaintzan, langileari ahalik eta kalterik txikiena egiten dioten azterketak eta frogak egiteko, arriskuarekin proportzionalak izan daitezen eta arriskuaren araberako irizpide tekniko egokiak daude.	- Langileak onartu edo ukatu duela jasotzen duen erregistroa. - Jakinarazteko prozedura. - Langileen ordezkariei egindako jakinarazpenaren erregistroa eta horiek jakinarazpena jaso izanaren erregistroa (langileen ordezkarien txostena ez da loteslea; langileen ordezkaririk egon ezean, enpresaburuak Prebentzio Zerbitzuak bermatutako bere erabakia idatzi justifikatu eta behar bezala artxibatuko du, LAPLaren 29.3. artikuluaren arabera har dezakeen neurrien kaltetan gabe.) - Osasun-zaintza egin aurretik, langileen ordezkariei igorritako txostenaren data. - Langilearen borondatearen kontra bada ere, honi osasun-zaintza egiteko beharrari buruz Prebentzio Zerbitzuak idatzitako txostena. Txosten honek azalduko du, zaintza egiteko proposamena LAPLaren 22.1. artikuluan jasotako hiru suposamenduan oinarrituta dagoen. - Langileari ahalik eta kalterik txikiena egiten dioten azterketak eta frogak egin zaizkiola, eta horiek, arriskuarekin proportzionalak izan direla egiaztatzen duen Prebentzio Zerbitzuaren txostena.	3			
66	Langileen osasuna zaintzeko eta kontrolatzeko neurriak betetzen dira, langilearen intimitate eta duintasunerako eskubidea eta langile horren osasun-egoeraren inguruko informazio ororen isil-gordea errespetatuz beti.	LAPL (22) 306/1999 Dekretua (EAE)	- Langilearen intimitate eta duintasunerako eskubidea eta langile horren osasun-egoeraren inguruko informazio ororen isil-gordea babesteko mekanismoak.	- Tokian tokiko egiaztapena (datuen isil-gordea bermatzen duten artxiboak eta horietan sartzeko baimena duten pertsonen izendapena). - Datu delikatuetan sar daitezkeen pertsona guztien isil-gordeko konpromiso dokumentatua.	3			
67	Aurreko atalean aipatutako zaintzaren emaitzak komunikatzen zaizkie ukitutako langileei.	LAPL (22)	- Langileak egin dizkioten azterketa eta/edo proben emaitzen berri izateko eskubidea dauka.	- Osasun-zaintzaren emaitzak langileari jakinarazi zaizkiola egiaztatzen duen erregistroa, langileak sinatuta. Ausazko laginketa bidez egiazta daiteke.	3			
68	Langileen osasunaren zaintzaren inguruko datuak ez dira erabiltzen bereizketa egiteko, ezta langileari kalte egiteko ere.	LAPL (22)		- Osasun arazoengatik, kexa, erreklamazio edo bazterkeria-salaketen erregistrorik dagoen ala ez egiaztatzea.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
69	Soil-soilik pertsonal medikoak eta langileen osasunaren zaintza arduratzen den osasun-agintaritzak du izaera pertsonaleko mediku-informazioaren berri; informazio horren berri ezin izango zaie eman enpresaburuari edo beste pertsona batzuei, langilearen esanbidezko adostasunik gabe.	LAPL (22)	- Langilearen osasunari buruzko tratamendua baliabide automatikoen bidez egiten bada, urriaren 29ko 5/1992 Lege Organikoak ezartzen dituen baldintzen arabera egin beharko da.	- Osasun-zaintzaz arduratzen diren osasun-langileen isil-gordeko konpromiso dokumentatua. Langilearen datuak osasun-arlokoak ez diren beste pertsona batzuei jakinarazteko langileak emandako adostasunaren erregistroa.	3			
70	Enpresaburuak eta prebentzio-arloan erantzukizunak dituzten pertsona edo organoek informazioa jasotzen dute, prebentzio-arloan dituzten eginkizunak modu egokian gauza ditzaten. Jaso behar duten informazioa izango da langileak lanpostuan aritzeko duen gaitasunaren inguruan egindako azterketei buruzko eta babeszein prebentzio-neurriak ezarri edo hobetzeko beharrizanari buruzkoa.	LAPL (22)	- Prebentzio-arloan erantzukizunak dituzten organoek informazioa jasotzen dute, prebentzio-arloko eginkizunak egoki garatzerik izan dezaten.	- Langileen gaitasunaren inguruan egindako azterketa medikoek emandako ondorioei buruzko txostena.	3			
71	Laneko arriskuek hala eskatzen dutenean, langileen osasun-egoera aldian-aldian zaintzeko eskubideak irauten du, lanharremanak amaituta ere.	LAPL (22) PZA (37)	- Eraginpean egon eta luzera azaltzen den giza osasunaren gaineko eragina duten arriskuen menpe dauden langileen osasun-zaintza bermatzea da helburua. - Euskadiko Osasun Zerbitzua arduratuko da langilearen osasun-zaintzak, enpresarekiko lan-harreman amaitu ostean. - Erregelamenduz arabera ezartzen dira, lan- harreman amaitu ondorengo osasun-zaintza egiteko irizpideak.	- Hitzartutako jarduera egotekotan: Prebentzio Zerbitzuarekiko kontratuaren baldintzak eta, aldatzekotan, datuak beste Zerbitzu batzuei helarazteko baldintzak. - Artxiboak eta horien transferentzia kudeatzeko baldintzak, langileak enpresa aldatzekotan.	3			
72	Egiaztatutako eskumen teknikoa, prestakuntza eta gaitasuna dituen osasun-langileek betetzen dituzte, langileen osasuna zaintzeko eta kontrolatzeko neurriak.	LAPL (22) PZA (37) 306/1999 Dekretua (EAE)	- Langileen osasuna zaindu eta kontrolatzeko eginkizunak garatzen dituzten Prebentzio Zerbitzuek honako espezialitate hauek izan dituzte: Laneko Medikuntza edo Enpresa Medikuntzako Diplomatua eta enpresa-erizaintzako erizain diplomatuak, edo horrelakorik ezean, enpresa horrentzako OSME izendapena dauka.	- Osasun-zaintza egiteaz arduratzen diren langileen akreditazioa. - Kanpoko Prebentzio Zerbitzuaren kasuan, Laneko Agintaritzak emandako akreditazioaren erregistroa. - EPZk enpresei emandako osasun eta/edo teknika arloko esku-hartzeen erregistroa, honako hauek adieraziz: esku hartu duten teknikariak, enpresan eta jardueran eman duten denbora eta prestakuntza. - EPZk bere ziurtapenean aurkezten duen langileen zerrenda eta Laneko Agintaritzari igorritako aldaketen kopiak.	3			
73	Gaueko lanari lotutako osasun-arazoren bat aurkitzen bazaie gaueko langileei, enpresan dagoen eguneko beste lanposturen batera aldatzeko eskubidea izango dute langileok, lanpostu horretarako egokiak badira lanbidez.	Langileen Estatutua (36)			5			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
74	Lan-arriskuaren arabera egiten dira azterketa medikoak, eta horretarako, protokolo bereziak erabiltzen dira.	PZA (37) 306/1999 Dekretua (EAE)	- Langileari eragin diezaioketen arriskuen araberako protokolo bereziak eta bestelako baliabideak erabiltzen dira osasun-zaintzan.	- Erabiltzen diren protokoloak eta behar den guztiak dauden eta eraginpeko arriskuekin bat datozen egiaztatzea.	3			
75	Historia kliniko-laboralak zehaztasun guztiak jasotzen ditu.	PZA (37) 306/1999 Dekretua (EAE)	- Historia kliniko-laboralak, gutxienez ere, honako eduki hauek jasoko ditu: a) Anamnesia. b) Azterketa klinikoa. c) Kontrol biologiakoa eta, lanari dagozkion arriskuen araberako azterketa osagarriak. d) Lanpostuaren deskripzio zehatza, hautemandako arriskuak, arriskuon eraginpean emandako denbora, hartutako banakako prebentzio-neurriak. e) Langileak lanpostuari buruzko arriskuen berri izan duenaren ziurtagiria (EAEn). f) Aurreko lanpostuak, horietako arriskuak eta horien eraginpean egondako denbora. - Osasun-arazoak medio, lanera joan gabe luzaroan egon diren langileen osasun-azterketa. - Langileen artean ematen diren gaixotasunen eta, osasun-arazoak medio, lanera joan gabe egon diren langileen arrazoien berri dute osasun-langileek.	- Historia klinikoen langinketa. - Historia kliniko-laboral per-tsonalizatua. - Langileen artean ematen diren gaixotasunen zerrenda. - Lanpostuari dagozkion arriskuen berri izan duela adierazteko langileak sinatutako agiria(EAE).	3			
76	Lanlekuan lehen laguntzak eta larrialdiko arreta ematen dira.	PZA (37)	- Lanlekuan prebentzio-zerbitzuko osasun-langilerik badago, hauek izango dira istripuen edo lanlekuan emandako eraldaketen biktimei lehen laguntzak eta larrialdiko arreta emango dietena.		1			

Galdetegi osagarriak

GALDETEGI OSAGARRIEN AURKIBIDEA

A. OSAGARRIAK.

A.1. Lanlekuak
A.2. Seinaleak
A.3. Lan-ekipoak
A.4. Industria-segurtasuneko instalazioak eta ekipoak
A.5. Norberaren babeserako ekipoa (NBEak
A.6. Zamak eskuz manipulatzea
A.7. Bistaratzeko pantailak
A.8. Instalazio elektrikoak
A.9. Adi baterako laneko enpresak (ABLEak
A.10. Enpresa-jardueren koordinazioa.

B. JARDUERA BEREZIAK.

B.1. Eraikuntza-lanak
B.2. Arrantza-ontziak
B.3. Meatzaritza-jarduerak

C. BERARIAZKOAK.

C.1. Agente biologikoak
C.2. Agente kantzerigenoak
C.3. Agente kimikoaks
C.4. Erradiazio ionizatzaileak
C.5. Zarata
C.6. Substantzia arriskutsuak
C.7. Bibrazioak.
C.8. Amiantoa.
C.9. Atmosfera leherkorrak.

Galdetegi osagarriak

A.1. GALDETEGI OSAGARRIA LANLEKUAK

GALDETEGI HONEN APLIKAZIOA

Helburua

Lanlekuko baldintzak 486/1997 EDak ezartzen dituen xedapenetara egokitzen diren egiaztatzea.

Eremua

97-07-24tik aurrera erabiltzen diren (edo eraldatu diren) lanleku guztietako eremu guztietara (eraikiak zein eraiki gabeak) aplikatzen zaie.

Salbuespenak

Aplikatzetik salbuetsita geratzen dira:

a) Enpresa edo lanlekutik kanpo erabilitako garraiobideak, eta garraiobideen barruan kokatutako lanlekuak (berariazko legeria izan artean, Laneko Segurtasun eta Higieneari buruzko Ordenantza aplikatzen da).
b) Eraikuntza-lan iragankor edo ibiltariak (1627/1997 EDan oinarritutako jarduera berezietarako B.1 galdetegia aplikatzen da).
c) Erauzketa-industriak (1389/1997 EDan oinarritutako jarduera berezietarako B.3 galdetegia aplikatzen da).
d) Arrantza-ontziak (1216/1997 EDan oinarritutako jarduera berezietarako B.2 galdetegia aplikatzen da).
e) Nekazaritza- edo basogintza-sektoreko enpresa edo lanleku bateko soro landu, baso eta bestelako lursailak, baldin eta eraikitako eremutik kanpo badaude (berariazko legeria izan artean, Laneko Segurtasun eta Higieneari buruzko Ordenantza aplikatzen da).

Epealdi iragankorra

97-10-24tik aurrera, Errege Dekretu honen bertsio erraztu bat aplikatzen zaizkie berori indarrean sartu aurretik (97-07-24) zeuden eta erabiltzen ziren lanlekuei.

Galdetegi honetan **(*)** batez markatu dira, auditoreari ohartarazteko, aurreko paragrafoan azaldutako arrazoiagatik, noiz ez diren kasu orokorreko baldintzak guztiz aplikatzen eta noiz erabiltzen diren beste batzuk. Aldatutako baldintza bakoitzerako, «Interpretatzeko irizpideak» zutabean horren aplikazio egokia adierazi behar da.

Aplikagarriak **ez** diren baldintzak, **(**)** batez markatu dira; hala ere, segurtasun-maila baliokidea bete beharko da.

Definizioak

«*Lanlekua*», lanlekuaren eraikitako edo eraiki gabeko eremua da, eta honetan egon behar dute edo honetara sartu behar dira langileak lanaldian. Definizio honen barruan ondorengoak hartzen direla jotzen da: higiene-zerbitzuak, atsedenlekuak, lehen laguntzetarako lokalak, jantokiak, eta baita, lanlekuei atxikitako zerbitzu edo babeserako instalazioak.

Eskatu beharreko dokumentazioa

Galdetegi hau osatzeko auditoria egitean, ikuskatzaileak irakurri behar dituen edo irakurtzea komeni zaion zenbait liburu jaso ditugu zerrenda honetan:

a) Eraikinaren eraikuntza-proiektua (dagokion Elkargo Ofizialak sinatu eta ikus-onetsita).
b) Arrisku bereziak dauden lekuetan (materialak, pertsonak, etab. erortzeko arriskuak) lanerako baimenen erregistroak.
c) Garbiketa-enpresekiko kontratuak. Leihoak, fatxadak, erretenak, etab. garbitzeko lan-prozedurak.
d) Garbiketan erabiltzen diren produktuen fitxak.

A.1. LANLEKUAK

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Lanlekuaren diseinuak eta eraikuntza-ezaugarriek segurtasuna eskaintzen dute eraisketa eta materialen erorketen aurrean.	486/1997 ED (3, 4, I.eranskina)	- Egitura eta zerbitzuko elementuek (eskailerak, plataformak, etab.), erabiltzeko moduko sendotasuna, erresistentzia eta egonkortasuna dituzte. - Debekatuta dago elementu hauek gehiegi kargatzea. - Materialak erortzeko arriskua duten eremuetara sartzeko baimena behar da; eremu horietan sartu, egon eta horietatik irtetean egon daitezkeen arriskuak ebaluatuta daude. - Lana nork eta nola egiten duen zehazteko lan-prozedura bat dago. - Baimena ematen da bakarrik, lan hori segurtasunez egiteko beharrezko ekipoak ematen direnean. Baimenik ez dutenak leku hauetara sar ez daitezen neurriak hartzen dira. Eremu horiek seinaleztatuta daude.	- Eskumeneko teknikari batek sinatutako proiektua ikus-onetsita. - Solairu, plataforma, sabai, estalki, etab. bakoitzean, horrek eusten duen edo bertatik eseki daitekeen gehienezko karga. - Seinaleak daude eta 485/1997 EDaren araberakoak dira. - Emandako baimen, lan-metodo, eta abarrei buruzko erregistroak daude. - Hala badagokio, berariazko arrisku hauek ebaluazioan jasota daude.	5			
2 (**)	Lanlekuaren diseinuak eta eraikuntza-ezaugarriek segurtasuna eskaintzen dute talka eta kolpeen aurrean.	486/1997 ED (3, 4, I.eranskina)	- Behar adina leku dago elementu materialen artean. - Askatasunez mugitzeko behar beste leku ez badago, inguruan leku gehiago dago. - **(**)** Ibilgailu eta oinezkoentzako iraganbideak, aldi berean iragaiteko bezain zabalak dira. Beharrezkoa izan daiteke oinezkoentzat seinaleztatutako ate bat ibilgailuentzako ate handi baten ondoan. - **(**)** Trenkada garden edo zeharrargiak material seguruez eginak eta seinaleztatuta daude. - **(**)** Ate lerragarriek eta ate handiek erortzea galarazten duten segurtasun-mekanismoak dituzte. Ate handiek larrialdi-egoeretan gelditzeko mekanismoa dute.	- Lanlekua ikuskatzea. - Gutxieneko neurriak betetzen dira: a) 3 metroko altuera (2,5 bulegoetan, etab.). b) 2 m^2-ko azalera librea langile bakoitzeko. c) Bete gabeko 10 m^3, langile bakoitzeko. - Trenkada garden edo zehargarriak seinaleztatuta daude. - Materiala egiaztatzea. - Segurtasun-mekanismorik dagoen egiaztatzea.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
3 (*) (**)	Lanlekuaren diseinuak eta eraikuntza-ezaugarriek segurtasuna erorketa eta irristaden aurrean.	486/1997 ED (3, 4, I.eranskina)	- Sabai, estalki eta erortzeko arriskua duten beste eremu batzuetara joateko baimena behar da. Eremu horietan sartu eta egon eta horietatik irtetean egon daitezkeen arriskuak ebaluatuta daude. - Lana nork eta nola egiten duen zehazteko lan-prozedura bat dago. - Baimena ematen da bakarrik, lan hori segurtasunez egiteko beharrezko ekipoak ematen direnean. Baimenik ez dutenak leku hauetara sar ez daitezen neurriak hartzen dira. Eremu horiek seinaleztatuta daude. - Zoruak finkoak, egonkorrak eta eranskorrak dira, eta ez dute ez irregulartasunik, ez aldapa arriskutsurik, ezta 8 mm-tik beherako zirrikiturik ere. **(*)** 10 mm, leku zaharretan. - Zorua, normalean, bustita egoten bada, drainadura bateranzko aldapa badu eta oinetako egokiak erabiltzen badira. Fluidoak deskargatu eta ontzi aldatzeko lekuetan, edo tatanak erortzen direnetan, eta abarretan, drainaduradun tangak daude. - Ondorengoetan, baranda egokiak edo bestelako babes-sistemak daude: a) Zoruko zuloetan. b) Hormetako zulo, plataforma, nasa eta abarretan. c) Pertsonentzat 2 metrotik gorako altueratik erortzeko arriskua dauden lekuetan. d) Eskailera eta arrapaladetako alboetan 50 cm-tik gorako altuerara irekitako zuloetan. - Eskailerek, neurriak direla-eta, 489/1997 EDko (I. eranskina: 7., 8. eta 9.a) baldintzak betetzen dituzte. **(*** eta ****)** Eskailerek eta arrapaladek, neurriak direla-eta, 489/1997 EDko (I. eranskina: 7., 8. eta 9.a) baldintzak betetzen dituzte.	- Emandako baimen, lan-metodo, eta abarrei buruzko erregistroak daude. - Hala badagokio, berariazko arrisku hauek ebaluazioan jasota daude. - Seinaleak daude eta 485/1997 EDaren araberakoak dira. - Lokalen bat ikuskatzea, laginketa bidez, 486/1997 EDaren I. eranskineko baldintzak betetzen diren egiaztatzeko.	5			
4	Lanlekuaren diseinuak eta eraikuntza-ezaugarriek larrialdi-egoerak (bereziki, suteak) kontrolatzeko jarduerak errazten dituzte.	486/1997 ED (3, 4, I.eranskina)	- Ondokoetan xedatutakoa betetzen da: a) Suteei buruzko Udal Ordenantza, baldin badago. b) NBE-CPI/1996 araua edo OGSH ordenantzaren VII. kap. (kasuan kasuko) c) 486/1997 EDaren I. eranskineko 11. atala. d) 1492/1993 ED (Suteen aurkako Instalazioei buruzko Arautegia). - Automatikoak ez diren suteen aurkako dispositiboetara erraz hel daiteke eta erraz erabiltzeko modukoak dira, eta 485/1997 EDari jarraiki seinaleztatuta daude.	- Arriskuen ebaluazioa eta larrialdiko neurriak egiaztatzea.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
5	Lanlekuaren diseinuak eta eraikuntza-ezaugarriek, larrialdi-egoeran langileak ebakuatzea errazten dute.	486/1997 ED (3, 4, I.eranskina)	- Ondokoetan xedatutakoa betetzen da ebakuatzeko ibilbide eta irteeretan: a) Suteei buruzko Udal Ordenantza, baldin badago. b) NBE-CPI/1996 araua edo OGSH ordenantzaren VII. kap. (kasuan kasuko) c) 486/1997 EDaren I. eranskineko 10. atala. - Ebakuatzeko ibilbideetako ateak eta larrialdietako ateak barrutik eta kanporantz ireki daitezke. Ez dago larrialdietako ate lerragarri edo birakaririk. - Argia behar duten ebakuatzeko ibilbide eta irteeretako argia behar besteko argitasuna ematen dute. - Ebaluatzeko ate, ibilbide eta irteerek, 485/1997 EDan xedatutakoaren arabera seinaleztatuta daude, eta tartean ez dago trabarik.	- Lokalen bat ikuskatzea, laginketa bidez, 486/1997 EDaren I. eranskineko baldintzak betetzen diren egiaztatzeko.	3			
6 (**)	Lanlekuak higiene-baldintza egokietan mantentzen dira.	486/1997 ED (5)	- Lanlekuak aldizka garbitzen dira eta, gainera, berehalakoan, isurketarik edo zikinkeriarik egotekotan. - Kontuan izan dira garbiketa-jarduerak sor ditzakeen arriskuak . - Garbitasuna egiten duten langileek, produktuen erabilerari eta NBEei buruzko informazioa eta prestakuntza jaso dute. -**(**)** Segurtasunez erabili eta garbitu daitezke leihoak, goitikako baoak, aireztatzeko dispositiboak, etab.	- Lokalen bat ikuskatzea, laginketa bidez, 486/1997 EDaren I. eranskineko baldintzak betetzen diren egiaztatzeko. - Arriskuen ebaluazioa. - Kanpo-enpresarekiko kontratua. - Prestakuntza eta informazioaren inguruko erregistroak, garbitzeko produktuen fitxak, etab. - Leihoak, fatxadak, erretenak, etab. garbitzeko lan-prozedurak.	3			
7	Aldian-aldian mantentze-lanak egiten dira lanleku eta instalazioetan.	486/1997 ED (5, 6)	- Auditoreak lanlekuei arreta berezia eskaini behar die, instalazioen auditoria A.4. galdetegiaren bitartez egingo baita. - Zerbitzu eta babeseko instalazioek, berariazko arautegia betetzen dute. - Aldizkako mantentzearen helburua da, proiektuaren zehaztapenak iraunaraztea. - Babestu eta aireztatzeko instalazioetan, funtzionamenduaren kontrola barne hartzen du manten-tze-lanak.	- Derrigorrezko mantentzea arautegi bereziaren arabera egiten dela egiaztatzeko erregistroak eta enpresaren beraren erregistroak.	1			
8	Lanlekuetako baldintza termohigrometrikoek segurtasun, osasun eta, ahal den heinean, erosotasun baldintzetan lan egitea ahalbidetzen dute.	486/1997 ED (7, III. eranskina)	- Muturreko tenperaturak eta hezetasunak, bat-bateko tenperatura-aldaketak, aire-korronte desatseginak, kiratsak eta gehiegizko irradiazioak galarazten dira. - Erreferentziazko balioak: 486/1997 EDaren III. eranskinean. - Aire zabalean edo estali gabeko lekuetan, badago eguraldi txarrez babesterik.	- Arriskuen ebaluazioa. - Lanlekua ikuskatzea.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
9	Elementu oldarkorretatik babesteko babes berezia dago.	486/1997 ED (I.eranskina)	- Elementu oldarkorrak egoteko arriskua duten beste eremu batzuetara joateko baimena behar da. Eremu horietan sartu eta egon eta horietatik irtetean egon daitezkeen arriskuak ebaluatuta daude. - Lana nork eta nola egiten duen zehazteko lan-prozedura bat dago. - Baimena ematen da bakarrik, lan hori segurtasunez egiteko beharrezko ekipoak ematen direnean. Baimenik ez dutenak leku hauetara sar ez daitezen neurriak hartzen dira. - Eremu horiek seinaleztatuta daude. - Elementuen arabera, bakoitzari buruzko arautegi berezia dago.	- Seinaleak daude eta 485/1997 EDaren edo, hala badagokio, berariazko arautegiaren araberakoak dira. - Emandako baimen, lan-metodo, eta abarrei buruzko erregistroak daude. - Hala badagokio, berariazko arrisku hauek ebaluazioan jasota daude. - Berariazko arautegiaren araberako derrigorrezko erregistroak daude.	5			
10	Lanlekuetako argiztapenak, segurtasun eta osasunerako arriskurik gabe lanlekuetatik ibili eta bertan lan egitea ahalbidetzen du.	48/1997 ED (8, IV. eranskina)	- Argiztapenak kontuan ditu, garatutako jarduerei dagozkien ikuspen-baldintzen eta -eskakizunen araberako segurtasun eta osasunerako arriskuak. - Itsualdiak, argi-keinuak, efektu estroboskopikoak, etab. saihesten dira. - Larrialdietako argiztapena dago, argiztapen normalak huts egitean arriskua dagoen kasuetarako.	- Arriskuen ebaluazioa. - Lanlekua ikuskatzea. - Neurketak egin izatekotan, horiek 186/1997 EDaren IV. eranskinean ezarritakoa betetzen duten egiaztatzea.	3			
11	Lanlekuetan higiene-zerbitzuak eta, hala badagokio, aldaketak daude.	486/1997 ED (9, V. eranskina)	- Edateko ura dago (zalantza izanez gero, seinaleztatuta). - Ispilu eta konketez hornitutako garbigelak daude. Beharrezkoa izanez gero, dutxak ere egongo dira. - Komunak daude. - Lanerako jantzi bereziak erabiltzen badira, eserleku eta armairuez hornitutako aldagelak daude.	- Lanlekua ikuskatzea.	1			
12 (*)	Lanlekuetan atsedenlekuak daude.	486/1997 ED (9, V. eranskina)	- Lana bulegoetan garatzen ez bada, lan-etenaldiak segurtasunez egiteko atsedenlekuak daude. **(*)** Leku zaharretan, ez da beharrezkoa horretarako apropos egokitutako lokala izatea. - Behar bezala eta etzanda atseden har dezakete haurdun eta edoskitzaroan dauden emakumeek.	- Hala badagokio, atsedenlekurik dagoen egiaztatzea.	1			
13 (**)	Lanlekuetan osasun-materiala eta, hala badagokio, osasun-lokalak daude.	486/1997 ED (10, VI. eranskina)	- Botikin eramangarria dago. - Osasun-zentro batera azkar heltzerik ez badago, arriskuen eta erabiliko duen langileen gaitasun profesionalen arabera egokitutako lehen laguntzetarako materiala dago. - 50 langiletik gorako lanlekuetan (edo 25etik gorakoetan, Laneko Agintaritzak horrela eskatuz gero) osasun-lokala dago. **(**)** Leku zaharrek, alderdi honi dagokionez, Laneko Segurtasun eta Higieneko Ordenantza bete behar dute.	- Botikinik eta, hala badagokio, lehen laguntzetarako materiala dagoen egiaztatzea.	1			
14	Langile ezgaituak baldin badaude, lanlekuak beroriek erabiltzeko moduan egokituta daude.	486/1997 ED (I. Eranskina -13)	- Lanpostua, horren ingurunea, haraino heltzeko bideak, garbigelak, etab. erabiltzeko egokituta daude. - Irisgarritasunari eta arkitektura-oztopoak kentzeari buruzko araudi berezia egon daiteke.	- Lanlekua ikuskatzea.	1			

A.2 GALDETEGI OSAGARRIA SEINALEAK

GALDETEGI HONEN APLIKAZIOA

Helburua

Laneko segurtasun eta osasunerako seinaleek 485/1997 EDak ezarritako gutxienezko xedapenak betetzen dituzten egiaztatzea.

Eremua

Lanleku guztietako eremu guztietan aplikatu behar da.

Salbuespenak

Produktu eta ekipoen merkaturatzeari eta substantzia eta prestakin arriskutsuei buruzko araudian aurreikusitako seinaleak ez dira zertan aplikatu behar, araudi horrek bestelakorik adierazten ez badu behintzat.

Errepide, tren, ibai, itsaso eta aireko trafikoa erregulatzeko seinaleetan ere ez da aplikatu behar, trafiko-mota horiek lanlekuetan egiten ez badira behintzat, eta 485/1997 EDaren VII. eranskinean (seinale ezberdinei buruzko gutxienezko xedapenak) ezarritakoaren kaltetan gabe, ezta ontzi, ibilgailu eta aireontzi militarrek erabilitakoetan ere.

Definizioa

«Laneko segurtasun eta osasunaren aldeko seinaleak»: objektu, jarduera edo egoera jakin baten araberako seinaleak dira, eta panel, kolore, argi- edo hots-seinale, ahozko komunikazio edo keinu bidezko seinale baten bitartez, kasuan kasuko, laneko segurtasun eta osasunaren inguruko jarraibide edo betebeharren bat adierazten dute.

«*Debekatzeko seinalea*»: arriskua sor dezakeen portaeraren bat debekatzen duen seinalea da.

«*Ohartarazteko seinalea*»: arrisku edo perilen batez ohartarazten duen seinalea da.

«*Derrigortzeko seinalea*»: jokabide jakin bat izatera derrigortzen duen seinalea da.

«*Salbamendu edo sorospeneko seinalea*»: larrialdietako irteera, lehen laguntza edo sorospeneko dispositiboei buruzko jarraibideak ematen dituen seinalea da.

«*Adierazten duen seinalea*»: debekatu, ohartarazi, derrigortu eta salbamendu edo sorospeneko seinaleek eman ohi duten informazioa ez dena adierazten duen seinalea da.

«*Panel-formako seinalea*»: duen edo daraman forma geometrikoa, kolorea, sinboloa edo piktograma bateratuz, informazio jakin bat ematen duen seinalea da. Hau ikustea ziurtatuta dago, nahiko argitsua izaten delako.

«*Seinale gehigarria*»: panel-formako beste seinale bate erabiltzen da seinale hau eta informazio osagarriak ematen ditu.

«*Segurtasunezko kolorea*»: laneko segurtasun eta osasunaren inguruan zerbait zehatza adierazten duen kolorea da.

«*Sínbolo edo piktograma*»: egoera bat deskribatu edo jokabide bat izatera derrigortzen duen irudia da. Panel-formako seinale baten edo azalera argitsu baten gainean erabiltzen da.

«A*rgi-seinalea*»: atzealde edo barrualdetik argiztatutako dispositibo batez igorritako seinalea. Azalera argitsua dela ematen dut.

«*Hots-seinalea*»: dispositibo egoki batek igorri edo hedatutako hots- seinale kodetua da, eta honetan, ez da giza ahots edo ahots sintetikorik entzuten.

«*Ahozko komunikazioa*»: aurrez ezarritako ahozko mezua da, eta giza ahotsa edo ahots sintetikoa erabiltzen da.

«*Keinu bidezko seinalea*»: Beso edo eskuen mugimendu edo jarrera da, eta langileentzat arriskutsuak izan daitezkeen maniobrak egiten ari diren pertsonei gidatzeko balio du.

Eskatu beharreko dokumentazioa

Galdetegi hau osatzeko auditoria egitean, ikuskatzaileak irakurri behar dituen edo irakurtzea komeni zaion zenbait liburu jaso ditugu zerrenda honetan.

a) Energia-iturri baten menpe funtzionatzen duten seinaleen azterketa, mantentze, konpontze, eta abarren erregistroa.

A.2. SEINALEAK

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Enpresaburuak, lanlekuetan segurtasun eta osasunerako seinale egokiak egon daitezen neurri egokiak hartu ditu:	485/1997 ED (3)	- Seinaleak ez dira ez babes kolektiboko teknika eta antolaketa arloko neurrien ezta langileen prestakuntza eta informazioaren ordezkotzat jotzen. - Beste araudi batzuen kaltetan gabe, aurrez egindako arriskuen azterketaren ondorio dira seinaleak. - Seinale normalizatuak erabiltzen dituzte.	- Arriskuen ebaluazioaren ondoren, seinaleztapen-neurri (osagarriak) egiaztatzea. - Laginketa bidez lanlekuetan egiaztatzea.	3			
2	a) Arrisku, debeku edo betebeharrei buruz langileen arreta deitzeko		- 485/1997 EDko III. eranskinean jasotako panel-formako seinaleez baino ezin da seinaleztatu. - III. Eranskinean jasotako panel-formako seinaleen bidez, VII. Eranskineko segurtasun-koloreen bidez, edo bien bitartez seinaleztatzen dira erorketak, talkak eta kolpeak (485/1997 ED). - Barrualdeko zirkulazio-bideak lerro jarraituen bidez mugatuta daude, eta kanpoaldekoak, berriz, lerro jarraitu, zoladura ezberdin eta abarren bitartez. - Produktu kimiko arriskutsuen hodiak, ontziak eta horiek biltegiratzeko eremuak: arauzko etiketen bidez eta/edo 485/1997 EDko III. Eranskineko panel-formako seinaleen bitartez seinaleztatuta, betiere. - Produktu kimiko arriskutsuen barrualdeko garraioa seinaleztatzeko, substantzia eta prestakin arriskutsuen garraiorako erabiltzen direnen seinale baliokideak erabiltzen dira.	- Arriskuen ebaluazioaren ondoren, seinaleztapen-neurri (osagarriak) egiaztatzea. - Laginketa bidez lanlekuetan egiaztatzea.	3			
3	b) Langileei larrialdi-egoeraren bat dagoela ohartarazteko	485/1997 ED (4)	- Argi, hots, ahozko seinaleen bidez, gehi argi gehi hots seinale edo argi gehi ahozko seinaleen bitartez. Ikusi 485/1997 EDko IV., V. eta VII. eranskinak. - Energia-iturri baten menpe funtzionatzen duten seinaleak aztertu eta mantendu egiten dira.	- Arriskuen ebaluazioaren ondoren, seinaleztapen-neurri (osagarriak) egiaztatzea. - Laginketa bidez lanlekuetan egiaztatzea. - Berrikuspen, mantentze, konpontze, eta abarren erregistroak egiaztatzea.	3			
4	c) Langileei, babes, ebakuazio, larrialdi edo lehen laguntzetarako baliabide edo instalazio zehatzak aurkitzen eta identifikatzen laguntzeko	485/1997 ED (4	- Suteen aurkako ekipoen kokapena eta horietaraino iristeko ibilbidea, gorriz edo 485/1997 EDko III. Eranskinean jasotako panel-formako seinale batez seinaleztatzen dira. - Suteen aurkako ekipoak gorriak dira, edo bestela, horien zatirik handiena gorria da. - 485/1997 EDko III. Eranskinean jasotako panel-formako seinaleen bidez seinaleztatzen dira ebakuatzeko ibilbideak eta salbamendu eta sorospeneko baliabideak eta ekipoak.	- Arriskuen ebaluazioaren ondoren, seinaleztapen-neurri (osagarriak) egiaztatzea. - Laginketa bidez lanlekuetan egiaztatzea.	3			
5	d) Maniobra arriskutsu zehatzak egiten dituzten langileei lagundu edo gidatzeko.	485/1997 ED (4	- Ondokoak erabiltzen dira horiek seinaleztatzeko: keinu bidezko edo ahozko seinaleen bidez, edo bestela, biak erabilita. - 485/1997 EDko VI. Eranskinean kode orientagarri bat dago.	- Arriskuen ebaluazioaren ondoren, seinaleztapen-neurri (osagarriak) egiaztatzea. - Laginketa bidez lanlekuetan egiaztatzea.	3			

A.3 GALDETEGI OSAGARRIA
LAN-EKIPOAK

GALDETEGI HONEN APLIKAZIOA

Helburua

Lan-ekipoek 1215/1997 EDak ezarritako gutxienezko xedapenak betetzen dituzten egiaztatzea.

Eremua

Lanlekuan langileek erabiltzen dituzten lan-ekipo guztiei aplikatu behar zaie.

Definizioak:

«*Lan-ekipoa*»: lanean erabilitako edozein makina, aparatu, tresna edo instalazioa da.

«*Lan-ekipo bat erabiltzea*»: lan-ekipo baten inguruko edozein jarduera da, hala nola: piztu edo itzaltzea, erabilera, garraioa, konpontzea, eraldaketa, mantentzea eta zaintzea, tartean, bereziki, garbiketa hartzen dela.

«*Eremu arriskutsua*»:lan-ekipo baten barruan edo inguruan kokatutako eremua da, eta honetan, eraginpeko langile bat egotea, bere osasun eta segurtasunerako arrisku bat izan daiteke.

«*Eraginpeko langilea*»: eremu arriskutsu baten erabat edo partzialki dagoen langilea da.

«*Ekipoaren eragilea*»: lan-ekipoa erabiltzeaz arduratutako langilea da.

Eskatu beharreko dokumentazioa

Galdetegi hau osatzeko auditoria egitean, ikuskatzaileak irakurri behar dituen edo irakurtzea komeni zaion zenbait liburu jaso ditugu zerrenda honetan:

a) Lan-ekipo berriez jabetzeko prozedurak (adostasun-adierazpenak eta jarraibideen eskuliburuak).
b) Lan-ekipoak alokatzeko prozedurak (ekipo berriak badira, hots, 1995eko urtarrilaren 1aren ondoren fabrikatutakoak, adostasun-adierazpenak eta jarraibideen eskuliburuak eskatu behar dira; bestela, 1215/1997 EDra egokitzea eskatu behar da).
c) Hala badagokio, lan-ekipoak 1215/1997 EDra egokituta daudela egiaztatzeko txostenak.
d) Lan-ekipoen inbentarioa.
e) Ondo ezagutzea eta prestakuntza berezia izatea eskatzen duten lan-ekipoen zerrenda (zubi-garabiak, orga jasotzaileak, dorre-garabia, 1435/1992 EDko IV. eranskinean jasotako makinak, etab.).
f) Arrisku berezia suposa dezaketen mantentze, konpontze edo eraldaketa eragiketak eskatzen dituzten lan-ekipoen zerrenda.
g) Lan-ekipoen azterketa ofizialak (ibilgailuen IAT, etab.)
h) Egindako mantentze-eragiketak.
i) Segurtasuna Instalazio-baldintzen araberakoa (dorre-garabiak, kamioi-garabiak, plataforma jasotzaileak, etab.), edo egoera arriskutsuak sor ditzaketen matxurak izan di-

tzaketenaren araberakoa (antenak, aldamioak, tximistorratzak, etab.) duten lan-ekipoei egindako egiaztapenak, eta egiaztapen horiek egin dituzten langileen titulazioak.

j) Lan-ekipoei buruzko prestakuntza-programak (erabilera, mantentzea, prestakuntza berezia).

k) Lan-ekipoen erabilerari buruz langileei emandako informazio-agiriak.

l) Langileei, lan-ekipo berriak aukeratzeari, daudenak egokitzeari eta horiek erabiltzeko baldintza eta moduei buruz egindako kontsultak.

OHARRA: «Lan-ekipoak indarrean dagoen legeriaren arabera egokitzeko eskuliburua» argitaratu zuen OSALANek 1998. urtean, eta horretan, 1215/1997 ED eta 1435/1992 EDan zehaztutako lan-ekipo guztiak barne hartzen dira. Halaber, honako gai hauek lantzen dituzten beste gidaliburu batzuk ere argitaratu dira: «metalak hotzean lantzeko makina-erreminten egokitzapena», «forja-ekipoen egokitzapena», «zura lantzeko makinak», «lan-ekipo mugikorren egokitzapena» eta «eraikuntza-ekipoen segurtasuna». Horien helburua da, dagoen araudian oinarrituta, lan-ekipoen arriskuen kontrola errazteko, enpresei irizpideak, prozedurak eta tresnak bideratzea.

A.3. LAN EKIPOAK

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Ekipo eta produktuen aukeraketan LAPa ezarri du enpresak.	LAPL (16)		- Ekipoak edo produktuak aukeratzeko prozedura.	5			
2	Arriskutsuak izan daitezkeen instalazio eta ekipoen mantentze- eta egiaztatze lanetan LAPa ezarri du enpresak.	LAPL (16, 41)	- Arriskutsuak izan daitezkeen ekipo eta produktuei dagokienez, ekipo- edo produktu-mota jakin bat erosteaz orokorrean arduratzen den enpresaren zatiaren eginkizunek, erositako ekipo edo produktu hori dagokion araudi aplikagarria betetzen duela eta dagokion segurtasunari buruzko informazioa daramala ziurtatzeko kudeatu edo egin behar dituzten jarduerak barne hartzen dituzte.	- Arriskutsuak izan daitezkeen instalazioak edo ekipoak mantendu eta egiaztatzeko prozedura.	5			
3	Langileei eta beren ordezkariei, 1215/1997 EDak jorratzen dituen gaiei buruz kontsultatzen zaie.	1215/1997 ED (6)	- Enpresaburuak kontsultatu egiten die langileei edo horien ordezkariei ekipo berriak aukeratzerakoan edo, hala badagokio, daudenak egokitzerakoan zein erabiltzeko moduaren gainean, eta aukeraketa horretan esku hartzen ere uzten die, baldin eta erabaki horiek langileen segurtasun eta osasunerako arriskuetan nabarmen eragiten badute.	- Egindako kontsultak ikustea.	3			
4	Enpresaburuak behar beste neurri hartzen ditu, langileei ematen zaizkien lan-ekipoak egin beharreko lanerako egokiak eta horietara behar bezala egokituta izan eta egon daitezen, horrela, lan-ekipo horiek erabiltzen dituzten langileen segurtasun eta osasuna bermatzen dira.	1215/1997 ED (3) 1435/1992 ED	- Enpresaburuak, ondokoak betetzen dituzten ekipoak erabiltzen ditu soil-soilik: a) aplikatzea dagokion edozein lege edo arauzko xedapen. b) 1215/1997 EDko I. eta II. eranskinetan aurreikusitako baldintza orokorrak. - Lan-ekipoak aukeratzeko honako hauek ditu enpresaburuak: a) garatu beharreko lanaren berariazko baldintzak eta ezaugarriak. b) lanlekuan, eta bereziki, lanpostuetan langileen segurtasun eta osasunerako dauden arriskuak, eta baita ekipo horiek bertan egoteagatik edo erabiltzeagatik sortu edo areagotu ahal diren arriskuak ere. c) langile ezgaituek erabiltzeko beharrezkoak diren egokitzapenak. - Segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak aplikatzeko (1215/1997 EDko I. eranskina), enpresaburuak kontuan ditu printzipio ergonomikoak, eta bereziki, lanpostuaren diseinuari eta langileek lan-ekipoa erabiltzen duten bitartean duten jarrerari dagokienez.	- Lanpostuaren arriskuaren ebaluazioa. - Lan-ekipoak aukeratzeko antolaketa-prozedurak; makina berriak erosteko baldintza-pleguan, aplikatu beharreko lege-baldintzak jaso behar dira (CE markaketa, adostasun-adierazpena eta jarraibideen liburua gaztelaniaz), eta baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko da. - Langileek erabiltzen dituzten lan-ekipoak, I- eranskinean ezarritako baldintzak betetzen dituzte (adibidez, lan-ekipoek indarrean dagoen legeria betetzeko nola egokitu behar diren jasotzen duen eta OSALANek argitaratu duen eskuliburuan, lan-ekipoen egokitzapenari buruz jasotako txostena).	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
5	Lan-ekipoak erabiltzeko langileek ezagutza bereziak izan behar baditu, enpresaburuak beharrezko neurriak hartzen ditu, lan-ekipo hori bakarrik horretarako izendatutako langileek erabil dezaten.	1215/1997 ED (3)	Langileen segurtasun eta osasunerako berariazko arriskuren bat galarazi edo kontrolatzeko, lan-ekipo bat baldintza edo modu jakin batzuetan erabili behar denean, hau da, langileek nola erabiltzen den zehazki jakin behar dutenean, enpresaburuak behar beste neurri hartzen ditu lan-ekipo horiek horretarako izendatutako langileek baino erabili ez ditzaten.	- Arriskuen ebaluazioa. - Erabiliko duten langileek ezagutza berezia izatea eskatzen duten lan-ekipoen zerrenda eta beharrezko prestakuntza.	5			
6	Enpresaburuak beharrezko neurriak hartzen ditu, lan-ekipoak, erabiltzen diren bitartean, dagozkien lege-xedapenak betetzeko moduko erabilera-baldintzetan egon daitezen.		- Enpresaburuak behar beste neurri hartzen ditu, mantentze egoki baten bidez, lan-ekipoak, erabiltzen diren bitartean, dagozkien lege-xedapenak betetzeko moduko baldintzetan manten daitezen. - Mantentze hori fabrikatzailearen jarraibideak kontuan hartuta egiten da edo, bestela, ondorengoak aintzat hartuta: dagozkien erabilera-baldintzak eta beste edozein ezaugarri arrunt edo horren narriaduran edo desdoitzean eragin dezakeen beste gertakari bereziren bat. - Lan-ekipoak mantendu, konpondu edo eraldatzeko eragiketak langileentzat arrisku berezi bat izan ahal direnean, horretarako bereziki prestatutako langileek baino ez dituzte eragiketa horiek egingo.	- Lan-ekipoen inbentarioa. - Lan-ekipoen jarraibideei buruzko eskuliburuak. - Lan-ekipoetan egindako mantentze-eragiketak. - Lan-ekipo ezberdinen azterketa ofizialak. - Lan-ekipoak mantendu, konpondu edo eraldatzeko eragiketak langileentzat arrisku berezi bat izan ahal direnean, lan-ekipo horien zerrenda.	3			
7	Enpresaburuak beharrezko neurriak hartzen ditu, lan-ekipoen segurtasuna instalazio-baldintzen araberakoa denean, lan-ekipo horiek instalatu baino lehen, ondoren, eta lehen aldiz martxan jartzerakoan baldintza horiek egiaztatzeko, eta baita, leku edo kokapen berri batean muntatzen diren bakoitzean.	1215/1997 ED (4)	- Enpresaburuak beharrezko neurriak hartzen ditu, lan-ekipoen segurtasuna instalazio-baldintzen araberakoa denean (adibidez, dorre-garabiak, kamioi-garabiak, lurrun-galdarak, etab.), lan-ekipo horiek instalatu baino lehen, ondoren, eta lehen aldiz martxan jartzerakoan baldintza horiek egiaztatzeko, eta baita, leku edo kokapen berri batean muntatzen diren bakoitzean. - Langile eskudunek egiten dituzte egiaztapenak. - Egiaztapenen emaitzak dokumentatuta, eta laneko agintaritzaren eskura daude, eta ekipoen erabilbizitza amaitu arte gordetzen dira.	- Lan-ekipoen segurtasun instalazio-baldintzen araberakoa denean, lan-ekipoei egin behar zaizkien egiaztapenak. - Fabrikatzaileak edo instalatzaileak bideratutako jarraibideen eskuliburuak. - Egindako egiaztapenen emaitzak. - Egiaztapenak egiteaz arduratzen diren langileek horiek egiteko eskumena dutela egiaztatzen duten titulazioak edo ziurtagiriak.	5			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
8	Enpresaburuak beharrezko neurriak hartzen ditu, egoera arriskutsuak sor ditzaketen matxurak izateko arriskua duten lan-ekipoak aldian-aldian egiaztatu eta probatu egin daitezen, segurtasun eta osasunari buruzko xedapenak betetzeko eta beste matxura batzuk konpontzeko helburuarekin.	1215/1997 ED (4)	- Enpresaburuak beharrezko neurriak hartzen ditu, egoera arriskutsuak sor ditzaketen matxurak izateko arriskua duten lan-ekipoak aldian-aldian egiaztatu eta probatu egin daitezen, segurtasun eta osasunari buruzko xedapenak betetzeko eta beste matxura batzuk konpontzeko helburuarekin. - Era berean, segurtasunean ondorio kaltegarriak izan ditzaketen jazoera bereziak (adibidez, eraldaketak, istripuak, fenomeno naturalak edo luzaroan erabili ez izana) gertatzen diren bakoitzean ere egiaztapen osagarriak egiten dira.	- Egoera arriskutsuak sor ditzaketen matxurak izateko arriskuen eraginpean dauden lan-ekipoei egin behar zaizkien egiaztapenak.	3			
9	Enpresatik kanpo erabiltzen diren lan-ekipoekin batera, azken egiaztapenaren proba materiala eramaten da.	1215/1997 ED (4)	- Lan-ekipoak egiaztatzeko betebehar eta baldintzek, aplikatzea dagokion berariazko araudian xedatutakoa betetzen dute.	- Azken egiaztapenari buruzko agiria.	1			
10	Enpresaburuak bermatzen du, langileek eta horien ordezkariek, lan-ekipoen erabiltzeak sorraraz ditzakeen arriskuei, zein hartu beharreko prebentzio- eta babes-neurriei buruzko prestakuntza egokia jasotzen dutela.	1215/1997 ED (5)	- Enpresaburuak bermatzen du lan-ekipoak zuzenean erabiltzen dituzten langileek prestakuntza jasotzen dutela, eta baita, langileen ordezkariek, gainbegiraleek eta agintariek ere.	- Lan-ekipoak erabiltzeko prestakuntza-programak ikustea.	**3**			
11	Langileei arrisku berezia eragin diezaioketen lan-ekipoen mantentze-, konpontze- eta eraldaketa-lanak egiten dituzten langileek, berariazko prestakuntza egokia jasotzen dute.	1215/1997 ED (3 eta16 5)	- Arrisku bereziak dituzten eragiketa horiek gauzatzen dituzten langileek, beharrezko prestakuntza eta trebakuntza dituzte. - Arreta berezia jartzen da, mantentze-lanak segurtasun-baldintza egokietan egiteko informazioan, jarraibideetan eta trebakuntza egokian.	- Berariazko prestakuntza-programak ikustea.	**5**			
12	Bereziki ezagutu beharreko baldintza edo modu zehatz batzuen arabera erabili behar diren lan-ekipoak erabiltzen dituzten langileek, berariazko prestakuntza egokia jasotzen dute.	1215/1997 ED (3 eta 5)	- Dorre-garabiaren eragilearen, garraiobide baten gidariaren edo, dagozkion prebentzio-neurriak hartuta ere litekeen arriskua duen bestelako lana egin behar duen langilearen kasua da, eta horretarako, langileak ezagutza bereziak izan behar ditu. Kasu batzuetan, lanari aplika dakiokeen araudi bereziak ezartzen du langileak bete beharreko baldintzak (jasogailuak eta mantentze-aparatuak, presiozko aparatuak, gas-aparatuak, etab.).	- Berariazko prestakuntza-programak ikustea.	**5**			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
13	Idatzizko informazioa ematea hobesten da.	1215/1997 ED (5)	- Informazioa idatziz helaraztea komeni da, eta gutxienez ere, ondokoak kontuan hartzen dituzten jarraibideak barne hartzen ditu: a) Lan-ekipoak erabiltzeko baldintzak eta modu egokia, fabrikatzailearen jarraibideak , edo aurreikus daitezkeen erabilera-modu ez-ohiko eta arrisku-tsuak kontuan izanda. b) Lan-ekipoak erabiltzeak bereganatutako esperientziaren ondorioz jasotako ondorioak, jaso badira. c) Prebentziorako beste edozein informazio. - Helburu dituen langileek ulertzeko modukoa da informazioa, eta informazio-foileto gisa gorde edo aurkeztuko da, bolumenagatik edo konplexua izateagatik zein ekipoa gutxitan erabiltzeagatik beharrezkoa baldin bada.	- Dagokion informazio-dokumentazioa.	**3**			
14	Langileen eskura daude fabrikatzaileak emandako informazio-agiriak.	1215/1997 ED (5)		- Fabrikatzaileak emandako informazioa (jarraibideen eskuliburua) ikustea.	**1**			
15	Langileei ohartarazten zaie kontuz ibili behar dutela ingurune hurbilean dituzten lan-ekipoek sortaraz ditzaketen arriskuekin, eta baita horietan egindako aldaketekin ere, zuzenean erabiltzen ez baditu ere.	1215/1997 ED (5)		- Lanpostuaren arriskuen ebaluazioa.	**1**			
16	Enpresa nagusiak kontratu edo azpikontratatutako enpresei makinak, lan-ekipoak, produktuak, lehengaiak eta/edo tresnak lagatzen badizkie, enpresa nagusiak hornitzaile gisa dituen zereginak betetzen ditu.	LAPL (24, 41)	- LAPLaren 41.1. artikuluan jasota daude hornitzaile gisa enpresa nagusiak dituen eginkizunak: a) arrisku-iturri ez diren makina, ekipo, produktu eta tresnak bideratzea. b) substantzia kimikoak behar bezala etiketatu eta ontziratuta egotea. c) babes-ekipo eraginkorrak.	- Lan-ekipoak, NBEak eta substantzia kimikoak (segurtasun-fitxa) erabiltzeko eskuliburua edo jarraibideak entregatu dela egiaztatu behar da. - Laginketa bidez, entregatutako ekipoek aplikagarriak diren arauzko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea. - Makina berriak (salgai, 1995-01-01 ondoren jarritakoak): CE markaketa, adostasun-adierazpena eta jarraibideen liburua gaztelaniaz. Gainerako lan-ekipoak: 1215/1997ED betetzen duela egiaztatzea.	3			

A.4 GALDETEGI OSAGARRIA INDUSTRIA-SEGURTASUNEKO INSTALAZIOAK ETA EKIPOAK

GALDETEGI HONEN APLIKAZIOA

Helburua

Enpresak industria-segurtasuneko instalazio eta ekipoei buruzko Arautegi aplikagarri ezberdinak betetzen dituela egiaztatzea, hala nola:

a) Produktu kimikoak biltegiratzeko arautegia.
b) Presiozko aparatuen arautegia.
c) Jasogailu eta mantentze-aparatuen arautegia.
d) Zentral elektriko, azpi-estazio eta transformazio-zentroetako baldintza tekniko eta segurtasun-bermeei buruzko arautegia.
e) Behe-tentsioko arautegi elektroteknikoa.
f) Industria-establezimenduetako suteen aurkako segurtasunari buruzko arautegia.

Eremua

Arautegi bakoitzak adierazten duena.

Definizioak

Ikusi I. eranskina.

Eskatu beharreko dokumentazioa

Galdetegi hau osatzeko auditoria egitean, ikuskatzaileak irakurri behar dituen edo irakurtzea komeni zaion zenbait liburu jaso ditugu zerrenda honetan:

a) EAEko industria-establezimenduen Erregistroko inskripzioa.
b) Martxan jartzea: zerbitzuan jartzeko aktak, instalazio-buletinak, CE markaketa, adostasun-adierazpenak, segurtasun-jarraibideak, jarraibideen eskuliburuak, fabrikazioaren eskuliburuak, diseinuari buruzko eskuliburuak, eragile-txartelak, ezaugarrien orriak, egokitzapen-adierazpenak.
c) Mantentzea: Erregistroak, liburuak, mantentzeko kontratuak, mantentzeaz arduratzen diren enpresak.
d) Ikuskapena: Industriako Lurralde Bulegoaren edo BKE baten ikuskapen ofizialen aktak/ziurtagiriak, ikuskapen-buletinak.
e) Jarduera bertan behera uztea: Proben erregistroak, zerbitzutik kanpo uzteko aktak, inertizazio-ziurtagiria.

Oharra

I. Eranskinean, araudietan jasotako industria-segurtasuneko instalazio eta aparatuen hainbat betekizun barne hartzen dira, eta II. Eranskinean, berriz, zerbitzuan jartzeko eskabide-orrien ereduak.

Arautegi zehatz bateko dokumentuetako (I. Eranskina) taulak ulertu ahal izateko, ondorengo formatu hau erabili da:

1) Gauzatu beharreko ekintzaren zenbakia.
2) Gauzatu beharreko ekintza.
3) Gauzatu beharreko ekintzaren goiko aldean, ekintza gauzatzen duen erakunde edo pertsona fisikoa.
4) Gauzatu beharreko ekintzaren beheko aldean, ekintza zenbatero gauzatu behar den, urtetan zenbatuta; denbora-unitatea urteak ez badira, erabilitako denbora-unitatea adierazten da.
5) Parentesi artean, halaber, azalpen bat ere ager daiteke, ekintza non aplikatzen den argitzeko.

Adibidez: presiozko instalazio eta aparatuen arautegi barruko galdara baten ikuskapenari dagokion laukian, arauak ezartzen du Aldizkako lehen Ikuskapen Ofiziala Baimendutako Kontrol Erakunde batek egin behar duela, eta ikuskapen hori, 5 urtetan behin errepikatu behar dela; taulan honela azaltzen da: 1. AIO^{BKE}_{5}

I. ERANSKINA
INDUSTRIA SEGURTASUNEKO INSTALAZIO ETA APARATUEN ARAUTEGIAREN ARABERAKO BETEKIZUNAK

INDUSTRIA SEGURTASUNEKO INSTALAZIO/EKIPOEI BURUZKO DOKUMENTUETAN ERABILITAKO TERMINOEN DEFINIZIOAK

«Proben Akta/Ziurtagiria (2006ko uztailaren 28ko 211. BOE, Gas-erregaien erabilerari zein banaketari eta ICG (1-11) jarraibide tekniko osagarriei buruzko Arautegi teknikoa)»: Instalazioaren obrak eta muntaketa amaitu ondoren, eta zerbitzuan jarri baino lehen, instalazioa egin duen enpresak (proiekturik egon bada, obraren Zuzendaritzapean), UNE 60250 arauan aurreikusitako probak egingo ditu, eta ziurtagirian, proba horien emaitzak idatzi beharko ditu.

«Azterketaren Akta/Ziurtagiria (2006ko uztailaren 28ko 211. BOE, Gas-erregaien erabilerari zein banaketari eta ICG (1-11) jarraibide tekniko osagarriei buruzko Arautegi teknikoa)»: Azterketa aldekoa denean, erabiltzaile edo titularrari emango dion azterketaren ziurtagiria egingo du enpresa instalatzaileak. Aldekoa ez bada, titularrari entregatu behar zaion anomalien txostena egingo da, eta titularrarena izango da dagozkion zuzenketak egiteko arduraduna. Titularra, betiere, egindako azken azterketari buruzko ziurtagiriaren jabe izan beharko da, eta Autonomia Erkidegoan eskumena duen erakundearen eta une horretan eragindako instalazioa PGLz hornitzen duen hornitzailearen eskura egongo da.

«Norbanakoaren prestakuntzako txartela (2006ko apirilaren 12ko 72. EHAA, Industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen duen Dekretua)»: administrazio-agiria da, titularrak jarduera profesionalerako ezagutza teoriko-praktikoak badituela eta bere espezialitateari aplika dakiokeen araudi teknikoa ezagutzen duela egiaztatzen duena, administrazioaren aurrean eta hirugarrenen aurrean instalatzaile edo profesional baimendu gisa jarduteko.

«Obra Zuzendaritzaren Ziurtagiria (2001eko maiatzaren 10eko 112. BOE, Produktu kimikoak biltegiratzeari eta MIE APQ-1, MIE APQ-3, MIE APQ-4, MIE APQ-5, MIE APQ-6 ETA MIE APQ-7 jarraibide tekniko osagarriei buruzko Arautegi Teknikoa)»: Obra-zuzendaritzarako teknikari tituludunak sinatutako ziurtagiria; honetan, bere erantzukizunpean, instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera egin eta probatu direla jaso beharko du, eta baita Arautegi honetan eta, hala badagokio, jarraibide tekniko osagarrietan jasotako arauak betetzen direla ere.

«Enpresa baimenduaren egiaztagiria (2006ko apirilaren 12ko 72. EHAA, Industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen duen Dekretua)»: Administrazio-agiria da, araudi teknikoetan ezarritako industria-segurtasunarekin zerikusia duten egitekoak burutzeko, entitateak giza gaitasuna eta gaitasun teknikoa badituela egiaztatzen duena; agiri hori entitatearen izenean ematen da.

«Inertizazio Ziurtagiria (2006ko uztailaren 28ko 211. BOE, Gas-erregaien erabilerari zein banaketari eta ICG (1-11) jarraibide tekniko osagarriei buruzko Arautegi teknikoa)»: Instalazio bat zerbitzutik kanpo uzten bada, instalazioaren titularrak arduratuko da enpresa bati instalazioa nitrogeno bidez edo beste gas geldo batez inertizatzeko, edo bestela, instalazioa urez gasgabetzeko eskatzeaz. Halaber, Autonomia Erkidegoko erakunde eskudunari ere entregatu beharko dio horren kopia titularrak.

«Ikuskapenaren Ziurtagiria/Akta (1988ko maiatzaren 4ko 107. BOE, Presiora egindako biltegi kriogenikoetan gas likidotua biltegiratzeko instalazioei buruzko (planta sateliteak) presiozko aparatuen MIE-AP 15 jarraibide teknikoa onartzen duen Agindua)»: Aldizkako proben emaitzarekin, aldizkako ikuskapena egin dela eta emaitza egokia izan dela egiaztatzeko ziurtagiria egingo du Herri Administrazioaren Lurralde Erakunde eskudunak, eta ziurtagiri hori PGLz hornitzen duen konpainiaren eskura jarriko du titularrak, berak gordeko baitu.

«Kontrol Erakundearen Ziurtagiria (1997ko ekainaren 2ko Ebazpena; 234852/1997 Legea; Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saila)»: Lurralde Erakunde eskudunak, instalazio-motaren,

antzinatasunaren, horren kokapenaren edo instalazioaren segurtasun-maila adierazten duen beste edozein daturen arabera, kasu bakoitzerako ezarritako arauen arabera Kontrol Erakunde batek egingo duen ziurtagiria.

«Mantentzeko Kontratua (2006ko uztailaren 28ko 211. BOE, Gas-erregaien erabilerari zein banaketari eta ICG (1-11) jarraibide tekniko osagarriei buruzko Arautegi teknikoa)»: Baimendutako enpresa instalatzaile batekin sinatutako mantentzeko kontratua. Enpresa horrek, larrialdietan artatzeko etengabeko zerbitzua eskaini beharko du, eta horren bitartez, instalazioak funtzionamendu-egoera egokian mantentzeaz, azterketak arau honetan jasotako jarraibideen arabera egiteaz eta, bereziki, korrosioaren aurkako babesaren, babes katodikoaren eta urteko edo, korronte induzituaren kasuan, hiruhileko babesaren potentziala kontrolatzeaz arduratuko da.

«Segurtasun-osagaien EC adostasun-adierazpena (1997ko irailaren 30eko 234. BOE; igogailuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 95/16/CE Zuzentaraua, Jasogailu eta Mantentze-aparatuei eta dagokien MIE-AEM 1 jarraibide tekniko osagarriari buruzko arautegia)»: Honako elementu hauek barne hartu beharko ditu CE adostasun-adierazpenak: segurtasun-osagaien fabrikatzailearen izena, abizenak eta helbidea, edo hala badagokio, Erkidegoan ezarritako horren ordezkariaren izena, abizenak eta helbidea; segurtasun-osagaiaren deskribapena; dagokion mota edo seriea eta, balego, serie-zenbakia; segurtasun-osagaiak betetzen duen segurtasun-eginkizuna, honako hau deskribapenean argi azaldu ezean; segurtasun-osagaiak betetzen dituen xedapen bereizle guztiak, edo hala badagokio, erabilitako arau egokituen erreferentzia; hala badagokio, motaren CE azterketa egin duen erakundearen izena, helbidea eta identifikazio-zenbakia, 9. artikuluko 1. atalaren a) paragrafoko a.1. eta a.2. puntuen arabera; hala badagokio, jakinarazitako erakundeak egindako motaren CE ziurtapenaren erreferentzia; hala badagokio, 9. artikuluko 1. atalaren a) paragrafoko a.3. puntuaren arabera, fabrikatzaileak aplikatutako izena, helbidea eta kalitatea ziurtatzeko zenbakia; segurtasun-osagaiak identifikatzeko fabrikatzaileak bere izenean jarduteko izendatutako edo Erkidegoan bere izenean ezarritako sinatzaile baimendua.

«Zerbitzua Martxan Jartzeko Agiria (2001eko urtarrilaren 24ko 17. EHAA, Instalazio industrialak martxan jartzeko prozedura sinplifikatzeko Agindua)»: Zerbitzua martxan jartzeko agiritzat jotzen da arautegietan ezarritako segurtasuneko betekizunak eta baldintzak agiri bidez bete direla egiaztatzeko Industria Administrazioak ematen duen agiria. Baina agiri horrez ez du esan nahi instalazioaren egokitasun teknikoa onartu denik. Dagozkien arautegi teknikoak ezartzen badu dokumentazio jakin bat aurkeztu behar dela, eta ez proiektu teknikoa, espediente horietan ez da beharrezkoa izango zerbitzua martxan jartzeko agiria egitea. Kasu hauetan, dagokion dokumentazio teknikoaren (Instalatzailearen ziurtagiria, Instalazio Buletina, etab.) bitartez ziurtatutako da arautegia betetzen dela, eta ziurtapen horrek zerbitzua martxan jartzeko agiriak bezainbat ondorio izango ditu.

«Enpresa baimendua (2006ko apirilaren 12ko 72. EHAA, Industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen duen Dekretua)»: Pertsona fisiko edo juridikoa da, industria-segurtasunaren alorrean jarduerak burutzeko gaitzen duen baimen administratibo egokia duena, hain zuzen ere, instalazioak egin, konpondu, mantendu, berrikusi edo kontrolatzeko jarduerak.

«Enpresa Mantentzailea (1985eko abenduaren 11ko 296. BOE, Jasogailu eta Mantentze-aparatuei buruzko Arautegia)»: Arautegi honen ondorioetarako, Enpresa Mantentzailetzat joko dira, dagokien probintzian mantentze- eta konpontze-jarduerak garatuz, Herri Administrazioaren Lurralde Organo eskudunen Enpresa Mantentzaileen Erregistroan izena emana dutenak.

«Langileen Prestakuntza (2001eko maiatzaren 10eko 112. BOE, Produktu kimikoak biltegiratzeari eta MIE APQ-1, MIE APQ-3, MIE APQ-4, MIE APQ-5, MIE APQ-6 ETA MIE APQ-7 jarraibide tekniko osagarriei buruzko Arautegi Teknikoa)»: Biltegiratze-jardueretako langileek, beren prestakuntza-planean, biltegiaren titularraren berariazko jarraibideak jasoko dituzte. Biltegiko langileek produktuen eta larrialdi-egoeretan jarduteko prozeduren arriskuei buruzko informazioa jasoko dute, eta ondo ikusteko moduko idazkunetan egongo da ikusgai.

«Ikuskapena (1992ko uztailaren 23ko 176. BOE, Industria Legea)»: Aplika dakizkiekeen baldintzak bete direla egiaztatzeko, diseinuak, instalazioak, ekoizpen-prozesuak eta zerbitzuak aztertzen dituen jarduera.

«Aldizkako Ikuskapena (1985eko abenduaren 11ko 296. BOE, Jasogailu eta Mantentze-aparatuei buruzko Arautegia)»: Herri Administrazioaren Lurralde Organo eskudunak egingo ditu aldizkako ikuskapenak edo bestela, honek horrela ezarriz gero, Arautegi hau aplikatzeko gaitutako Erakunde laguntzaile batek. Dena dela, Erakunde laguntzaileek egindako ikuskapen-aktak Organo eskudunak gainbegiratu eta horietan esku hartuko du.

«Aldizkako Ikuskapena (2001eko maiatzaren 10eko 112. BOE, Produktu kimikoak biltegiratzeari eta MIE APQ-1, MIE APQ-3, MIE APQ-4, MIE APQ-5, MIE APQ-6 ETA MIE APQ-7 jarraibide tekniko osagarriei buruzko Arautegi Teknikoa)»: Kontroleko erakundeak, aparatuak edo ekipoak zerbitzuan jarri ostean egindako ikuskapen edo froga oro.

«Arauzko Ikuskapenak (2001eko urtarrilaren 24ko 17. EHAA, Instalazio industrialak martxan jartzeko prozedura sinplifikatzeko Agindua)»: Arauren batek aurreikusten badu administrazioak derrigorrean eta ezinbestean esku hartu behar duela.

«Ikuskatzailea (1998ko urriaren 22ko 254. BOE, Energia Elektrikoa Sortzen duten Zentral Termikoetako Presiozko Aparatuei buruzko Arautegiko MIE-AP-16 Jarraibide Tekniko Osagarria onartzen duen Agindua)»:

—*Ikuskatzaile partikularra*,- Zentral Termikoetako Presiozko Aparatuen ikuskapenean esperientzia duten teknikari eskudunak.
—*Administrazioko ikuskatzaileak*,- Kasuan-kasuan egin beharreko ikuskapenak egiten dituzten teknikariak. Hauek dagokion probintziako Herri Administrazioko Lurralde Organo eskudunari atxikita egoten dira.

«Berezko Ikuskatzailea (2001eko maiatzaren 10eko 112. BOE, Produktu kimikoak biltegiratzeari eta MIE APQ-1, MIE APQ-3, MIE APQ-4, MIE APQ-5, MIE APQ-6 ETA MIE APQ-7 jarraibide tekniko osagarriei buruzko Arautegi Teknikoa)»: Erabiltzaileak izendatutako teknikari eskudunak. Hauek kloroa biltegiratu eta manipulatzeko instalazioetan esperientzia izan behar dute.

«Instalatzailea (1979ko maiatzaren 29ko 128. BOE, Presiozko aparatuei buruzko Arautegiko MIE-AP 1 Jarraibide Tekniko Osagarria. Galdarak, aurrezkailuak, uraren aurre-berogailuak, gainberogailuak eta lurrun-birberogailuak)»: Industria eta Energia Ministerioaren dagokion Lurralde Ordezkaritzak behar bezala baimendutako teknikari edo Enpresa instalatzaileak instalatuko ditu arautegi honek aipatzen dituen aparatuak, eta Erakunde honen aurrean erantzukizuna izango dute, akatsen bat ematen bada, edo Arautegi honetan honen inguruan xedatzen dena betetzen ez bada.

«Behe Tentsioko Instalatzaile Baimendua (2002ko irailaren 18ko 224. BOE, Behe-tentsiorako arautegi elektroteknikoa, ITC-BT-03)»: Behe Tentsioko Instalatzaile Baimendua, Behe Tentsioari eta dagozkion Jarraibide Tekniko Osagarriei buruzko Arautegi Elektronikoak barne hartzen dituen instalazio elektrikoak egin, mantendu eta konpontzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa da; horretarako, arautegi honetan horretarako araututako baimena izan beharko du.

«Instalatu, mantendu eta konpontzeko Hotz Teknikari Baimenduak (1980ko urriaren 18ko 251. BOE, MI IF-013)»: Instalatu, mantendu eta konpontzeko Hotz Teknikari Baimenduak, hala pertsonak nola Erakundeak, Industria eta Energia Ministerioaren dagokion Lurralde Ordezkaritzak kudeatuko duen erregistro-liburuan inskribatuta egongo dira. Lurralde Ordezkaritza horrek, honako Arautegi honek ezartzen dituen instalazioak zuzendu eta gauzatzeko eta, hala badagokio, mantendu eta konpontzeko lanak egiteko baimentzen duen titulua emango die.

«Igogailuaren Liburua (2002ko irailaren 24ko 2002181zk.ko EHAA, Igogailuaren Liburuaren Eredua)»: Agindu horren 5. artikuluak honakoa ezartzen du Igogailuaren liburuari buruz:

«Instalazioek igogailuaren liburu bana izan beharko dute. Liburua makina-gelan egon beharko da. Instalazioek makina-gelarik ez badute, orduan maniobra-koadroan egon beharko da. Bestalde, industria-segurtasunaren arloan eskumena duen zuzendaritzak ebazpen baten bidez onartuko du liburu horren eredua.

Instalazioren batek lehendik badu igogailuaren liburua, ez du liburua aldatu beharrik izango, ez eta liburuaren formatua aldatu beharrik ere. Mantentzeaz arduratzen den enpresak egingo ditu liburuaren gaineko izapideak, eta liburua industria-segurtasunaren arloan eskumena duen organoaren eskura izango dira beti. Bestalde, liburuak honako atalak jaso beharko ditu gutxienez:

1. Instalazioaren ezaugarriak.
2. Mantentze-lanetako ikuskapenen ezaugarriak.
3. Aldiroko ikuskapen ofizialen zerrenda.
4. Instalazioan egindako konponketa garrantzitsuak.
5. Instalazioaren jabearen betebeharrak.
6. Mantentze-lanetako enpresaren betebeharrak.
7. Hileroko mantentze-lanetako ikuskapenak.

Aldiroko ikuskapenak eta igogailuen mantentze- eta zaintza-lanak egiteko prozedura zehazten duen Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2002ko ekainaren 7ko Aginduak ere ildo berari jarraituz, igogailuak zaintzen dituzten enpresen betebeharren artean (11. artikulua) honakoa aipatzen du: igogailuaren liburua egunean edukitzea. Era berean, akatsen artean jasotzen du libururik ez egotea edo liburua behar bezala beteta ez egotea.

«Jarraibideen Liburua (eskuliburua) (1988ko urriaren 22ko 254. BOE, Energia Elektrikoa Sortzen duten Zentral Termikoetako Presiozko Aparatuei buruzko Arautegiko MIE-AP-16 Jarraibide Tekniko Osagarria onartzen duen Agindua)»: Fabrikatzaileak erabiltzaileari, bideratutako ekipoak hobeto ezagutzeko, helarazten dio Jarraibide eta Arau multzoa da.

«Mantentze Liburua (1981ko abuztuaren 13ko 193. BOE, Berokuntza, girotze eta etxeko ur beroko Instalazioen Arautegia, egun, eraikinetako instalazio termikoen arautegia)»: Dokumentu honen titularra eta instalazioarena pertsona bera izango da, eta berori arduratu beharko da edukitzeaz. Gainera, ikuskaritza, kontrol-bisita edo beste edozein errekerimenduak medio, eskumena duten agintaritzek eskatzen diotenean, erakutsi egin beharko die. Instalazioaren titularra, halaber, mantentzeko arauzko eragiketak egiteaz ere arduratuko da, eta baita, dagozkion balioak Arautegi honek exijitutako mugen barruan mantentzeaz.

«Erregistro Liburua (1979ko maiatzaren 28ko 128. BOE, Presiozko Aparatuen Arautegia)»: Instalatzaileek, bere egoitzako Industria eta Energia Ministerioaren Lurralde Ordezkaritzek ikus-onetsitako eta sinatutako Erregistro Liburua izan beharko dute, eta horretan, honako hauek jaso beharko dira: egindako instalazioak, aparatuak, ezaugarriak, kokapena, bezeroa eta amaiera-eguna. Erabiltzaileek, Industria eta Energia Ministerioaren dagokien Probintzia Ordezkaritzak ikus-onetsitako eta sinatutako Erregistro Liburua izan beharko dute, eta horretan, instalatuta dituen Arautegi honen eraginpeko aparatu guztiak azalduko dira, eta gainera, honako hauek gehituko dira: Ezaugarriak, jatorria, hornitzailea, instalatzailea, instalaziorako baimena zein egunetan lortu zen eta lehen probaren eta aldizkako proben egunak. Orobat, ofizialak izan ez diren ikuskapenak eta egindako konpontze-lanak, eta horiei buruzko xehetasunak, horien egin zituen Erakundea eta amaiera-eguna ere azaldu beharko dira.

«CE Markaketa (1997ko irailaren 30eko 234. BOE, Jasogailu eta Mantentze-aparatuei eta dagokien MIE-AEM 1 Jarraibide Tekniko Osagarriari buruzko Arautegia)»: Dagokion CE markaketa, CE inizialez osatuta egongo da.

«Kontrol Erakundeak (1992ko uztailaren 23ko 176. BOE, Industria Legea)»: Arautegia betez, industria-segurtasunaren arloan ziurtatze-jarduerak, entseguak, ikuskapenak eta auditoriak egiten dituzten erakundeak dira. Kontrol Erakundeak entitate publiko zein pribatuak izango dira, nortasun juridikoa izango dute, eta bere eginkizuna betetzeko beharrezkoak diren baliabide

material eta gisa baliabideen, teknika- eta finantza-mailako kaudimena eta inpartzialtasuna izan beharko dute. Gainera, estatu-maila agintzen diren xedapen teknikoak bete beharko dituzte, Europar Batasunean ere onartuak izan daitezen.

«Profesional Baimendua (2006ko apirilaren 12ko 72. EHAA, Industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen duen Dekretua)»: Pertsona fisikoa da, norbanakoaren prestakuntzako txartelaren bidez egiaztatuta egonik, dekretu honetan eta araudi teknikoan ezartzen zaizkion lanak eta egitekoak burutzeko baimena duen pertsona fisiko oro.

«Instalazioaren Proiektua (1981ko abuztuaren 13ko 193. BOE, Berokuntza, girotze eta etxeko ur beroko Instalazioen Arautegia, egun, eraikinetako instalazio termikoen arautegia)»: Berariazko proiektu baten edo bat baino gehiagoren arabera egin beharko dira Arautegi honen menpeko instalazio guztiak. Eskumena duen teknikari batek egin beharko du berariazko proiektua, eta eraikuntza-proiektuaren egilea eta berau pertsona bera ez direnean, elkarlanean aritu beharko dira, eraikinaren exekuzio-proiektuan adierazitako instalazioaren alderdi orokorrak betez.

Proiektu hori, dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsita, Industria eta Energia Ministerioko Probintzia Ordezkaritzan aurkeztu beharko da, obra hasi baino lehen erregistratua izan dadin.

Nolanahi ere, instalazio termikoei buruzko proiektu bakar bat idaztea gomendatzen da, erregaiena ere barne hartuta. Proiektu hau instalaziorako eska daitekeen edozein administrazio-baldintzarako balioko du.

«Aldizkako Ikuskapena (2001eko maiatzaren 10eko 112. BOE, Produktu kimikoak biltegiratzeari eta MIE APQ-1, MIE APQ-3, MIE APQ-4, MIE APQ-5, MIE APQ-6 ETA MIE APQ-7 jarraibide tekniko osagarriei buruzko Arautegi Teknikoa)»: Aparatuak edo ekipoak haxean jarri ondorengo azterketa edo proba, bertako ikuskatzaileak edo kontrol-organismoak egingo du, eta emaitzari buruzko dagokion ziurtagiria igorriko da.

«Eskumena duen Teknikari tituluduna (2006ko apirilaren 12ko 72. EHAA, Industria-segurtasunaren alorrean norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen duen Dekretua)»: Pertsona fisikoa da, lehen edo bigarren zikloko unibertsitateko tituluduna, bere lanbide edo titulazioko araudiarekin bat, industria gaietan berariazko eskumenak ditu; gainera, araudi teknikoek bere esku-hartzea jasotzen dute, instalazioei edo tresna industrialei dagozkien baimen emate, martxan jartze edo kontrolatzeko prozeduretan.

INSTALAZIO BATEN BIZI ZIKLOA / INDUSTRIA SEGURTASUNEKO EKIPOA



IA	Ikuskapenaren Akta	**LP**	Langileen Prestakuntza
PA	Proben Akta	**EO**	Ezaugarrien Orria
MJA	Martxan Jartzeko Akta/Baimena	**HI**	Hotz-teknikari Instalatzailea
AAk	Azterketaren Akta	**BI**	Bertako Ikuskatzailea
ZK	Zaintzeko Kontratua	**AIO**	Aldizkako Ikuskapen Ofiziala
OZZ	Obra Zuzendaritzaren Ziurtagiria	**IL**	Igogailuaren Liburua
IZ	Ikuskapenaren Ziurtagiria	**ML**	Mantentze Liburua
InZ	Inertizazio Ziurtagiria	**EL**	Erregistro Liburua
InsZ	Instalazioaren Ziurtagiria	**CEM**	CE Markaketa
CM	Mantentzeko Kontratua	**JE**	Jarraibideen Eskuliburua
ET	Eragile Txartela	**BKE**	Baimendutako Kontrol Erakundea
AA	Adostasun Adierazpena	**P**	Proiektua
DT	Dokumentazio Teknikoa	**AAz**	Aldizkako Azterketa
ME	Mantentze-lanetako Enpresa		

Produktu kimikoak biltegiratzeko arautegia eta bere jarraibide tekniko osagarriak (379/2001 Errege Dekretua). Honako Arautegi honen helburua da produktu kimiko arriskutsuak biltegiratu, kargatu, deskargatu eta ontziz aldatzeko instalazioen segurtasun-baldintzak ezartzea, produktu kimiko arriskutsutzat honako arau hauek barne hartzen dituztenak jotzen direla, hots: apirilaren 24ko 100/1998 Errege Dekretuak aldatu zuen martxoaren 10eko 363/1995 Errege Dekretuak onartu zuen substantzia berrien jakinarazpenari eta substantzia arriskutsuak sailkatu, ontziratu eta etiketatzeari buruzko Arautegian arriskutsutzat jotako substantzia eta prestakinak; eta uztailaren 3ko 1425/1998 Errege Dekretuak aldatu zuen uztailaren 2ko 1078/1993 Errege Dekretuak onartu zuen prestakin arriskutsuak hala egoera solidoan zein gas-egoeran, nola era guztietako establezimendu eta biltegietako (barrutiak, dendak eta zerbitzuak barne hartuta) zerbitzu osagarriak ere, sailkatu, ontziratu eta etiketatzeari buruzko Arautegia.

Honako hau da bere aplikazio-eremua:

1. Arautegi honek eta bere jarraibide tekniko osagarriak (JTOak), goiko paragrafoan aipatutako eta prozesu-unitateetan barne hartzen ez diren eraikuntza berriko instalazioei, zein daudenen handitze edo aldaketei aplikatuko zaizkie. Aitzitik, ez zaizkie aplikatuko berariazko industria-segurtasuneko arautegi bereziak dituzten produktu eta jarduerei, horien arabera arautuko baitira.
   Arautegi honen aplikazio-eremutik at gelditzen dira, JTO ezberdinetan adierazitakoez gain, ondoren adierazten den ahalmen txikiagoko produktu kimikoen biltegiratzeak:

   a. Solido toxikoak: T^+mota, 50 kg; T mota, 250 kg; X_n mota, 1.000 kg.
   b. Erregarriak: 500 kg.
   c. Solido korrosiboak: a mota, 200 kg; b mota, 400 kg; c mota, 1.000 kg.
   d. Erresumingarriak: 1.000 kg.
   e. Sentsibilizanteak: 1.000 kg.
   f. Kartzinogenikoak: 1.000 kg.
   g. Mutagenikoak: 1.000 kg.
   h. Ugalketarako toxikoak: 1.000 kg.
   i. Ingurumenerako arriskutsuak: 1.000 kg.

2. Arautegi honen aplikazioa ulertzen da, hala dagokionean, ondokoak baztertzen ez direnean: Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeko eta berau garatzen duen araudiko arauak, sustantzia arriskutsuak tarteko diren istripu larriek berekin dakartzaten arriskuak kontrolatzeko neurriei buruzko uztailaren 16ko 1254/1999 Errege Dekretukoak, merkantzia arriskutsuen garraio arautzen duten xedapenak.

MIE-APQ-1 Jarraibide Tekniko Osagarria (379/2001 Errege Dekretua), likido sukoi eta errekorrak biltegiratzeari buruzkoa.

Jarraibide teknikoa hau, ondorengo sailkapenean barne hartutako likido sukoi eta errekorrak biltegiratu, kargatu, deskargatu eta ontziz aldatzeko instalazioetan aplikatuko da:

1. A mota.- 15 ºCtan lurrun-presio absolutua bar 1etik gorakoa duten produktu likuatuak.
   Biltegian duten tenperaturaren arabera, honela sailkatzen dira:

   a. A1 azpimota.- 0 ºC azpitik likuatuta biltegiratzen diren A motako produktuak.
   b. A2 azpimota.- Beste baldintza batzuetan biltegiratzen diren A motako produktuak.

2. B mota.- Sugar-puntua 55 °Ctik behera duten eta A mota barruan ez dauden produktuak.
   Dagokien sugar-puntuaren arabera, honela sailka daitezke:

   a. B1 azpimota.- Sugar-puntua 38 °Ctik behera duten B motako produktuak.

b. B2 azpimota.- Sugar-puntua 38 ºCtan edo hortik gora eta 55 ºC behera duten B motako produktuak.

3. C mota.- Sugar-puntua 55 ºC eta 100 ºC bitartean duten produktuak.
4. D mota.- Sugar-puntua 100 ºCtik gora duten produktuak.

B motako produktuetarako UNE 21.024 arauak ezartzen dituen prozedura aplikatuko dira goian aipatutako sugar-puntua ezartzeko; C motakoetarako, UNE 51.022 arauak ezartzen dituenak eta, D motakoetarako, UNE 51.023 arauarenak.

C edo D motako produktuak bere sugar-puntua baino tenpera altuagoan biltegiratuta badaude, B2 azpimotakoetarako xedatutako biltegiratze-baldintzak bete beharko dituzte.

JTO hau ez da ondoetan aplikatzen:

1. B motako produktuen 50 litrotik, C motakoen 250 litrotik edo D motakoen 1.000 litrotik beherako edukierako biltegiratzeetan.
2. Prozesu-unitateen barruan sartutako biltegiratzeetan, horien edukiera prozesuak aurrera egiteko beharrezkoa denaren arabera mugatuta dagoenean.
   Likido sukoi eta errekorren zisterna-edukinontzi, zisterna-kamioi edo zisterna-bagoiak kargatu/deskargatzeko erabiltzen diren instalazioek, JTO hau bete beharko dute, nahiz eta karga/deskargako prozesu-instalazioetatik/instalazioetara izan.
3. Petrolio Instalazioen Arautegiak araututako biltegiratzeetan.
4. PGL (petrolioko gas likuatuak) edo GNLen (gas natural likuatuak) biltegiratzeetan, baldin eta gasolindegi, hornidura-parke, banaketa-instalazio edo errekuntza-instalazio baten osagarri badira.
5. Baldintza kriogenikoetako (oso-oso hoztuak) likidoen biltegiratzeetan.
6. Karbono-sulfuroaren biltegiratzeetan.
7. Perioxido organikoen biltegiratzeetan.
8. Sugar-puntua 150 ºCtik gora duten produktuen biltegiratzeetan.
9. Industria-segurtasuneko arautegi bereziak dituzten produktuen biltegiratzeetan.

Halaber, jarraibide honen eremuan barne hartzen dira, biltegiratzeko baino erabiltzen diren zerbitzuak, edo likidoak biltegiratzeko horien zatia (adibidez: sarbideak, biltegiratze-eremuko drainadura, suteen aurka babesteko dagokion sistema eta kutsatutako uren araztegiak).

MIE-APQ-2 Jarraibide Tekniko Osagarria (379/2001 Errege Dekretua), etileno oxidoa biltegiratzeari buruzkoa.

JTO hau MIE-APQ-1 izenekoarekin batera aplikatu behar da, eta honako JTC honen aurkakoa ez den guztia aplikatuko da. Etileno oxidoa botila eta botilatzarretan biltegiratzeak, gainera, APQ-5 JTOn xedatutakoa bete beharko du.

Honako jarraibide honen helburua da, segurtasuneko ondorioetarako, etileno oxidoa biltegiratu eta ontziz aldatzeko instalazioek bete behar dituzten jarraibide teknikoak ezartzea. JTO hau ez da aplikatuko fabrikazio-prozesuan barne hartutako biltegiratzeetan.

MIE-APQ-3 Jarraibide Tekniko Osagarria (379/2001 Errege Dekretua), kloroa biltegiratzeari buruzkoa.

Honako jarraibide tekniko osagarri honen helburua da, segurtasuneko ondorioetarako, kloroa likidoa biltegiratu, kargatu, deskargatu eta ontziz aldatzeko instalazioek bete behar dituzten jarraibide teknikoak ezartzea.

Honako hauetan aplikatuko da JTO hau:

a. Kloro likidoa biltegiratzeko instalazioetan.
b. Kloro likidoa kargatu eta deskargatzeko instalazioetan, eta tartean, kloro likidoko zisterna-edukinontzi, zisterna-kamioi edo zisterna-bagoiak kargatu/deskargatzeko erabiltzen diren instalazioak, nahiz eta karga/deskargako prozesu-instalazioetatik/instalazioetara izan.

c. Ontzi mugikorretako biltegiratzeetan, kloroa ontziratu edo kontsumitzeko instalazioetan kokatutakoak barne.

Ez da aplikatuko:

a. Prozesu-unitateen barruan kokatutako biltegiratzeetan.
b. Kloro likidoa behe-presioz biltegiratzen denean.

MIE-APQ-4 Jarraibide Tekniko Osagarria (379/2001 Errege Dekretua), amoniako anhidridoa biltegiratzeari buruzkoa.

Honako jarraibide tekniko osagarri hau amoniako anhidridoaren biltegiratzeetan aplikatzen da, ondokoetan izan ezik:

1. Fabrikazio-prozesuen barrukoetan.
2. Garraio-zisternetan, eta, oro har, ontzi mugikorren biltegiratzeetan.
3. Garraiatzeko hodi handietan (amonoduktuak).

MIE-APQ-5 Jarraibide Tekniko Osagarria (379/2001 Errege Dekretua), konprimitu, likuatu eta presiopean disolbatutako gasen botilak eta botilatzarrak biltegiratu eta erabiltzeari buruzkoa.

JTO hau, botila eta/edo botilatzar soltetan, zein bloke edo baterietan (araudi berezia dutenak salbu) saldu, banatu eta ondoren erabiliko diren konprimitu, likuatu eta presiopean disolbatutako gasak, eta horien nahasteak, biltegiratze eta erabiltzean aplikatuko da.

Honako arau hau ez da aplikatuko fabrikatu, prestatu, gas bihurtu eta/edo ontziratzeko biltegietan, ezta industria-segurtasuneko araudi bereziak dituztenetan ere.

Era berean, ez da aplikatuko erabiltzen ari diren ontzietan. Zerbitzuak etengabe jarraitzeko ezinbestekoa den erreserbako ontzietan, bakar-bakarrik, 7. artikulua «Erabilera» aplikatuko da.

Biltegiak, mota bakoitzaren produktu-kopuruaren arabera, ondoko taulan jasotako kategoriei jarraiki sailkatuko

Biltegiaren kategoria	Gasak	Kg	Nm^3
1	Sukoiak	—	50 arte
	Oxidatzaileak	—	200 arte
	Geldoak	—	200 arte
	Amoniakoa	150 arte	—
2	Sukoiak	—	50 eta 175 bitartean
	Oxidatzaileak	—	200 eta 700 bitartean
	Geldoak	—	200 eta 1.000 bitartean
	Amoniakoa	150 eta 400 bitartean	—
	Beste toxiko batzuk	65 arte	—
	Korrosiboak	65 arte	—
3	Sukoiak	—	175 eta 600 bitartean
	Oxidatzaileak	—	700 eta 2.400 bitartean
	Geldoak	—	1.000 eta 2.400 bitartean
	Amoniakoa	400 eta 1.000 bitartean	—
	Beste toxiko batzuk	65 eta 130 bitartean	—
	Korrosiboak	65 eta 130 bitartean	—
4	Sukoiak	—	600 eta 2.000 bitartean
	Oxidatzaileak	—	2.400 eta 8.000 bitartean
	Geldoak	—	2.400 eta 8.000 bitartean
	Amoniakoa	1.000 eta 2.500 bitartean	—
	Beste toxiko batzuk	130 eta 650 bitartean	—
	Korrosiboak	130 eta 650 bitartean	—
5	Sukoiak	—	2.000tik gora
	Oxidatzaileak	—	8.000tik gora
	Geldoak	—	8.000tik gora
	Amoniakoa	2500etik gora	—
	Beste toxiko batzuk	650etik gora	—
	Korrosiboak	650etik gora	—

Gas bat, Presiozko Aparatuen Arautegiko MIE-AP-7 JTOaren arabera, arrisku bat baino gehiago duen gas gisa sailka badaiteke (toxikoa, korrosiboa, sukoia, etab.), irizpiderik murriztaileena aplikatuko da.

Toxikoak eta korrosiboak izanik, sukoiak diren gasak, toxiko eta toxikotzat joko dira biltegiratzerakoan, baina sukoien ondoan biltegiratuko dira, behar bezala identifikatu eta bereizitako sortaka.

Lokal bereko bi eremu banakako biltegitzat joko dira, baldin eta beraien artean dagozkien segurtasun-tarteak badaude.

Gas-nahasteak sailkatzerakoan (toxiko, korrosibo, sukoi, etab.), ADRan adierazitakoa izango da kontuan.

MIE-APQ-6 Jarraibide Tekniko Osagarria (379/2001 Errege Dekretua), likido korrosiboak biltegiratzeari buruzkoa.

Jarraibide honen helburua da, egoera likidoan dauden produktu kimiko korrosiboak biltegiratzeak eta horri lotutako jarduerek bete behar dituzten jarraibide teknikoak eta biltegiratzeko presioa eta tenperatura ezartzea, betiere, arautegi honen menpeko jardueretarako.

Jarraibide tekniko osagarri (JTO) hau, ondoren sailkapenean barne hartutako likido korrosiboak biltegiratu, manipulatu, kargatu eta deskargatzeko instalazioetan:

1. a) motako korrosiboak: substantzia oso korrosiboak. Animalia baten ukitu gabeko larruazalean gehienez ere hiru minutuz aplikatzean, aplikazio-eremuko larruazalean nekrosi hautemangarria eragiten duten substantziak barne hartzen dira talde honetan.
2. b) motako korrosiboak: substantzia korrosiboak. Animalia baten ukitu gabeko larruazalean gutxienez ere hiru minutuz eta gehienez ere hirurogei minutuz aplikatzean, aplikazio-eremuko larruazalean nekrosi hautemangarria eragiten duten substantziak barne hartzen dira talde honetan.
3. c) motako korrosiboak: korrosibotasun-maila txikiagoko substantziak. Animalia baten ukitu gabeko larruazalean gutxienez ere ordu betez eta gehienez ere lau orduz aplikatzean, aplikazio-eremuko larruazalean nekrosi hautemangarria eragiten duten substantziak barne hartzen dira talde honetan. C) taldekoen barruan sartzen dira, halaber, epiteliorako arriskutsuak izan gabe, altzairu, karbono edo aluminiorako korrosiboak direnak ere, material horien azaleran aplikatzean, 55 ºCko tenperaturan, 6,25 mm/urteko abiaduran korrosioa sortzen dutenean. Altzairuarekin egindako probetarako, P. (ISO 2604(IV)-1975) motakoa edo antzekoa izan beharko du gehien erabiliko den metala, eta aluminioarekin egiten direnerako, 7075-T6 edo AZ5GU-T6 motekin estalitakoa.

Honako JTO ez da aplikatzen:

1. a) motako produktuen 200 litrotik, b) motakoen 400 litrotik eta c) motakoen 1.000 litrotik gorako kopurua gainditzen ez duten biltegiratzeetan.
2. Prozesu-unitateen barruan sartutako biltegiratzeetan, horien edukiera prozesuak aurrera egiteko beharrezkoa denaren arabera.
   Likido korrosiboen zisterna-edukinontzi, zisterna-kamioi edo zisterna-bagoiak kargatu/deskargatzeko erabiltzen diren instalazioek, JTO hau bete beharko dute, nahiz eta karga/deskargako prozesu-instalazioetatik/instalazioetara izan.
3. Ontziz aldatzeko zain dauden biltegiratze iragankorretan, aurreikusitako biltegiratze-tartea hirurogeita hamabi ordutik beherakoa denean.
4. Industria-segurtasuneko arautegi bereziak dituzten produktuen biltegiratzeetan.
5. Hondakin toxiko eta arriskutsuen biltegiratzeetan.

Halaber, jarraibide honen eremuan barne hartzen dira, biltegiratzeko baino erabiltzen diren zerbitzuak, edo likidoak biltegiratzeko horien zatia (adibidez: sarbideak, biltegiratze-eremuko drainadura, suteen aurka babesteko dagokion sistema eta kutsatutako uren araztegiak, biltegiratze-zerbitzuari baino ez dagozkionean).

MIE-APQ-7 Jarraibide Tekniko Osagarria (379/2001 Errege Dekretua), likido toxikoak biltegiratzeari buruzkoa.

Honako jarraibide tekniko osagarri hau aplikatu da ondoren ezartzen diren mota barruan hartutako likido toxikoak biltegiratu, manipulatu, kargatu eta deskargatzeko instalazioetan:

Substantzia eta prestakin arriskutsuak sailkatu, ontziratu eta etiketatzeari buruz indarrena dagoen legeriaren arabera, hiru likido toxiko mota ezartzen dira:

— T+ mota: oso toxikoak.
— T mota: toxikoak.
— Xn mota: kaltegarriak.

Substantzia eta prestakin oso toxikoak, toxikoak edo kaltegarriak katalogatzeko, animaliengan substantziak duen toxikotasun akutua ezarriko da, eta horretako, dosi hilgarri (DH_{50}) edo kontzentrazio hilgarri (DH_{50}) gisa adieraziko dira, substantzia arriskutsuak sailkatu, ontziratu eta etiketatzeari buruz indarrean dagoen legerian ezarritako balioetan oinarrituta.

JTO honen aplikazio-eremutik kanpo daude:

a. Gas toxiko likuatuen biltegiratzeak.
b. Toxikoak izateaz gain, leherkorrak edo erradiaktiboak edo peroxido organikoak diren produktuen biltegiratzeak.
c. Fabrikazio-prozesuen barruko biltegiratzeetan, fabrikazio-prozesutzat hauek harrtuta:

    1. Prozesu-unitateak.
    2. Prozesu-unitateen bateria-muga barruan kokatutako lehengai eta gehigarri edo amaitutako produktuen ontziak, prozesuaren jarraitutasuna bermatzeko beharrezko-beharrezkotzat jotzen den kopurua gainditzen ez dutenean.

d. Ontziz aldatzeko zain dauden biltegiratze iragankorrak.
e. Industria-segurtasuneko arautegi bereziak dituzten produktuen biltegiratzeak.
f. Guztira, biltegiratua, 600 litrotik gorakoa ez denan, eta horietatik 50 l, gehienez ere, T+ motakoa izan ahalko da, eta gehienez ere 150 l, T motakoa. Biltegiratutako eta mota bakoitzetik baimendutako kopuruen arteko zatiduren batuketak ezingo du, inola ere, 1 gainditu. Salbuetsita dauden biltegiratze hauetako ontzien gehienezko edukiera unitarioa, ezingo da 2 litrotik gorakoa izan, T+ motarako, eta 5 litrotik gorakoa, T motarako.
g. Hondakin toxiko eta arriskutsuen biltegiratzeak.

Salbuetsitako instalazioetan likido toxikoen fabrikatzaileak ezarritako segurtasun-neurriak beteko dira, eta horretarako, instalazioen erabiltzaileari emango dio dagokion dokumentazioa.

JTO hau aplikatuko da, orobat, likido toxikoen edukiontziak, ibilgailuak edo zisterna-bagoiak kargatu eta deskargatzeko estazioetan, nahiz eta karga/deskargako prozesu-instalazioetatik/instalazioetara izan.

MIE-APQ-8 Jarraibide Tekniko Osagarria (2016/2004 Errege Dekretua), hidrogeno-kopuru handia duten amonio nitratoz egindako ongarriak biltegiratzeari buruz.

JTO hau hidrogeno-kopuru handia duten amonio nitratoz egindako ongarriak biltegiratu, manipulatu, kargatu eta deskargatzeko instalazioetan aplikatuko da, ondokoetan izan ezik.

a. Prozesuaren jarraitutasunerako beharrezkoa den kopurura mugatuta dagoen prozesu-unitateetan integratutako biltegiratzeetan.
b. Ontziratu gabeko 50 t edo ontziratutako 200 t baino gehiago gordetzen ez duten biltegiratzeetan. Biltegiratze hauetan, bakar-bakarrik, JTO honetako 8., 9., 10. eta 11. artikuluak aplikatuko dira.
c. Biltegiratze iragankorretan, igarotzako biltegiratzeetan edo igarotzeko zain daudenetan.
d. Tokian bertan erabiltzeko biltegiratzeetan, baldin eta ongarria ontziratuta badago eta 5 t baino gehiago biltegiratu ez badira.

ARAUZKO EREMUA	AZPIMOTA	ERABILERA	MANTENTZEA		IKUSKAPENA	BERTAN BEHERA UZTEA
Produktu Kimikoak Biltegiratzea (379/2001 ED)	APQ-1	LP	AA_1 AE		IZ^{BKE}_{5}	
	APQ-2	LP			IZ^{BKE}_{5}	
	APQ-3	LP	AA_2		IZ^{BKE}_{5}	
	APQ-4	LP	AA_5 (kanpokoa)		IZ^{BKE}_{5}	
			AA_{10} (barrukoa); gainera, presiozko ontziak A_5			
			AA_{10} (proba)			
	APQ-5				IZ^{BKE}_{5}	
	APQ-6	AA_1	RP_1	AA_5 (barrukoa)	IZ^{BKE}_{5}	
				AA_5 (kanpokoa)		
	APQ-7	LP	AE		$IZ^{\text{bertako ikus. edo BKE}}_{5}$ (barrukoak)	
					$IZ^{\text{bertako ikus. edo BKE}}_{10}$ (kanpokoak)	
	APQ-8	LP	AA_1		IZ^{BKE}_{5}	

Abrebiaturak:

IZ: Ikuskapen Ziurtagiria

LP: Langileen Prestakuntza

AA: Bertako ikuskatzaileak edo kontrol-erakundeak egindako aldizkako azterketa

AE: Azterketen Erregistroa

PRESIOZKO APARATUAK

Presiozko Aparatuen Arautegia (769/1999 Errege Dekretuak aldatu zuen 1244/1979 Errege Dekretua).

Arautegi honek ezartzen dituen arau, ikuskapen tekniko eta entsegu hauen menpe egongo dira presiopeko fluidoak ekoiztu, bigundu, garraiatu eta erabiltzera zuzendutako aparatuak, dagozkion Jarraibide Tekniko Osagarrien (JTO) ondorio diren terminoetan. Ez dira Arautegi honen aplikazio-eremuan barne hartzen gai arriskutsuak garraiatzeko biltegi eta zisternak, 1957ko irailaren 30eko Errepide bidezko Merkantzia Arriskutsuen Nazioarteko Garraioari (ADR) buruzko europar Erabakiaren edo otsailaren 6ko 1754/1976 Dekretuak onartutako Errepide bidezko Merkantzia Arriskutsuen Estatuko Garraioari buruzko Arautegiaren (TPC) menpe egongo baitira, nazioarteko garraioak badira lehenengo kasuan eta gure herrialdean jatorri eta helmuga dituztenak bigarrenean, eta baita zisternen eraikuntza eta entseguaren gaineko arauen eta gainerako xedapen gehigarrien menpe ere.

MIE-AP-1 Jarraibide Tekniko Osagarria (1981eko martxoaren 17ko Agindua, 1985eko martxoaren 28ko Aginduak aldatu zuena), galdarak, aurrezkailuak, uraren aurre-berogailuak, gainberogailuak eta lurrun-birberogailuak.

JTO honek ezartzen dituen arau, ikuskapen tekniko eta entsegu guztiak, bertan adierazten den bezala aplikatzen dira, kokapen finko batean zerbitzua ematen duten hirugarren artikuluan zenbatzen diren aparatuetan, eta ondorengo mugen barruan:

a. 0,049 N/mm^2-tik (0,5 bar) gorako presio efektiboa duten lurrun eta gainberotutako urezko galdara guztiak, salbu eta presio efektiboaren, N/mm^2-tan zenbatuta, eta urak erdi-mailan dagoenean duen bolumenaren, m^3-tan zenbatuta, arteko produktua 0,005tik beherakoa denean.
b. Industria-erabilerako ur beroko galdarak, baldin eta euren potentzia termikoa 200.000 Kcal/h-tik gorakoa bada, eta industria-erabilerako, etxerako edo berokuntza ez industrialerako galdarak, baldin eta V * P > 10 denean, V galdaran dagoen urak hartzen duen bolumena (m^3) eta P diseinuko presioa (bar) izanik.
c. Fase likidoko fluido termikoko galdarak, baldin eta 25.000 Kcal/h-tik gorako potentzia termikoa, 0,98 N/mm^2-tik (10 bar) beherako presioa badituzte, behartutako zirkulazioko galdaretarako, eta 0,49 N/mm^2-tik (5 bar) beherakoa, gainerakoetarako. Honako JTOk adierazitako presio-maila handiagoko fluido termikoko galdarak barne hartzen ez baditu ere, baldintza honek ez ditu galdara hauek salbuetsiko mota-erregistroa aurkeztetik, ezta dagozkien segurtasun-neurriak justifikatzetik, eta Industria Segurtasunean eskumena duen Industria eta Energia Ministerioko Zuzendaritza Zentroak onartu beharko ditu, Presiozko Aparatuen Arautegia aplikatzeko gaitutako Erakunde laguntzaileak eta Industria eta Energia Ministerioko Zuzendaritza Zentroak txostena egin ondoren.
d. Aurrezkailuak eta hornidurako uraren aurre-berogailuak.
e. Gainberogailuak eta lurrun-birberogailuak.

Jarraibide Tekniko honetako arauak aplikatzetik salbuesten dira erregai nuklearra erabiltzen duten lurrun-galdarak, eta baita petrolio-findegietan eta planta petrokimikoetan lurruna ekoizteko dauden sistemak.

MIE-AP-2 Jarraibide Tekniko Osagarria (1980ko urriaren 6ko Agindua), galdaretako fluidoetarako hodiei buruzkoa.

Arautegi honek ezartzen dituen arau, ikuskapen tekniko eta entsegu hauen eta bertan adierazten den moduaren menpe egongo dira aurreko artikuluan zerrendatutako fluidoak eroateko hodiak, konektatutako aparatuetako zatia izan gabe, ondorengo mugen barruan baldin badaude:

1. 200.000 kcal/htik gorako potentzia eta/edo 0,5 kg.-cm^2 gorako presio efektiboa dituzten gainberotutako ur eta lurruneko instalazioetako hodiak.

2. 500.000 Kcal/h-tik gorako potentzia duten ur beroko instalazioetako hodiak.
3. 25.000 Kcal/h-tik gorako potentzia duten ur beroko instalazioetako hodiak.

Halaber, JTO honen menpe gelditzen dira, erregai likidoen hodiak, eta baita JTO honetan barne hartutako instalazioetako errekuntza-ekipoetara konektatutako erregai gaseosoen hartuneak ere.

JTO honen aplikaziotik at gelditzen dira, fluidoak eroateko ondokoetako hodiak: erregai nuklearra erabiltzen duten galdarak, etxerako eta/edo berokuntza ez industrialeko ur beroko instalazioak eta petrolio-findegietan eta planta petrokimikoetako instalazioak.

MIE-AP-3 Jarraibide Tekniko Osagarria (2549/1994 Errege Dekretua), aerosolen generadoreei buruzkoa.

Honako JTO hau aerosolen generadoreei aplikatuko zaie, Jarraibide tekniko honetako 2. atalean definitzen den bezala; honetatik at gelditzen dira, guztizko edukiera 50 mililitrotik beherako ontzia dituztenak, eta JTO honen eranskineko C).1, D).1.1.º, D).2.1.º, E).1 eta E).2 ataletan adierazten den guztizko edukiera gainditzen duen ontzia dutenak.

MIE-AP-4 Jarraibide Tekniko Osagarria (1981ko apirilaren 21eko Agindua), PGL-ko kartutxoei buruzkoa.

MIE-AP-5 Jarraibide Tekniko Osagarria (1983ko maiatzaren 25eko eta urriaren 26ko, 1985eko maiatzaren 31ko, 1989ko azaroaren 15eko eta 1998ko martxoaren 10eko Aginduek aldatutako 1982ko maiatzaren 31ko Agindua) su-itzalgailuei buruzkoa.

Jarraibide tekniko osagarri honen arauak, ondorengo karga duten su-itzalgailu mugikor eta finkoetan aplikatuko dira:

—Hauts edo haloizko kargadunak, 100 kilogramotik gorakoak ez bada.
—Ur edo aparrezko kargadunak, 100 litrotik gorakoak ez bada.
—Anhidrido karbonikozko kargadunak, 10 kilogramotik gorakoak ez bada.

MIE-AP-6 Jarraibide Tekniko Osagarria (1983ko uztailaren 11ko Aginduak aldatu zuen 1982ko abuztuaren 30eko Agindua), petrolio-findegiei eta planta petrokimikoei buruzkoa.

JTO honen aplikazio-eremuan barne hartutako aparatuak. Talde honetan, ondorengo azpizatiketa ezartzen da:

1. Aparatu arruntak.
   Aparatu normaltzat jotzen dira prozesu ezberdinetan, diseinuko tenperatura 0 ºCtik gorakoa ez duten eta zerbitzuko gehienezko presioa 1 kg/cm² manometrikotik gorakoa ez dutenak.
   Orientabide gisa, honako hauek barne hartzen ditu:

   a. Berotzeko edo erreakzioko labeetako hodi bihurriak.
   b. Lurruna ekoizteko galdarak.
   c. Erreaktoreak.
   d. Bero-trukagailuak eta aire-hozkailuak.
   e. Habeak.
   f. Metagailuak, bereizgailuak, esferak eta, oro har, beste ontzi batzuk.
   g. Lurruna ekoizteko sistemetako aparatuak, hala nola, beroa berreskuratzeko galdarak, berrirakingailuak, labeetako konbekzio-eremuko hodi bihurriak, aurrezkailuak, aurreberogailuak, birberogailuak.
   h. Hodiak.

2. Aparatu bereziak.
   Aparatu berezitzat jotzen dira, aurreko paragrafoko baldintzak betetzeaz gain, ondorengoren bat ere betetzen dutenak:

a. Katalizatzailez betetako edo barne-estaldura hauskor edo higroskopikoko aparatuak, hala nola, erregogorra, beiraztatua, ebonitatua, esmaltatua, etab.
b. Diseinuko tenperatura 0 ºCkoa edo hortik beherakoa duten aparatuak.
c. Aldi baterako instalazioetako aparatuak, hala nola, planta pilotuak, ikerketa- eta kontrol-laborategiak, etab.

Era berean, aparatu berezitzat jotzen dira hutsezko aparatuak.

ITC honen aplikazio-eremutik kanpoko aparatuak.

Bereziki presiozko ondorengo aparatuak daude JTO honen aplikazio-eremutik kanpo:

a. Su-itzalgailuak.
b. Konprimitu, likuatu eta presioz disolbatutako gas botilak eta botilatzarrak.
c. Oliobideak, gasbideak eta hiri-banaketako sareak.
d. Garraiorako zisternak.
e. Elementu dinamikoen karkasak eta bilgarriak.
f. Zerbitzuko gehienezko presioa kilogramo/zentrimetro koadro manometriko 1etik beherakoa duten aparatuak. Baita, zerbitzuko gehienezko presioa 2 kilogramo/zentrimetro koadro manometriko edo efektiboko eta 10 litrotik beherako bolumena duten aparatuak ere.
g. Fluidoak eroateko hodiak, bere barne-diametroa (zentimetroetan neurtuta) bider bere zerbitzuko gehienezko presioa (Zgp) (Kilogramo/zentimetro koadrotan neurtuta) 100etik beherakoa denean.
h. Oro har, fluidoak eroateko hodiak, horien zerbitzuko gehienezko presioa (Zgp) 4 kilogramo/zentimetro koadrokoa edo hortik beherakoa denean.
i. Ur-sistemak, horien zerbitzuko gehienezko tenperatura (Zpt) 85 ºCtik beherakoa denean.
j. Tanga, atmosferara edo zigilatzeko gas bidez konektatutako ontziak, horien presioa 0,5 kilogramo/zentimetro koadro manometrikotik beherakoa denean.

Presiozko aparatuak ondorengo lau taldeen arabera sailkatzen dira, hau da, erabiltzen duten fluidoen ezaugarrien araberako taldeetan:

Taldea	Fluidoaren ezaugarriak
A	Lurrun, likido edo gas egoeran 200 ºCko tenperaturan edo hortik gorakoan su hartzen duten fluidoak eta horien nahasteak; toxikotasun-maila handiko gasak eta likidoak eta hidrogenoa edozein tenperaturatan.
B	Lurrun, likido edo gas egoeran 200 ºCtik beherako tenperaturan su hartzen duten fluidoak eta horien nahasteak; gas eta likido toxiko, azido edo kaustikoak, edozein tenperaturatan.
C	Ur-lurruna, baldin eta horien korronteak lurrun horretaz osatuta daudenean; gas geldoak, kaltegabeak eta airea.
D	85 ºCko tenperaturako edo hortik gorako ura.

Aparatuen kategoria: Arrisku-potentzialaren taldeak eta fluidoen ezaugarrienak konbinatuz, aparatuak ondorengo laukian adierazten diren bost kategoriatan sailkatzen dira:

Fluidoaren ezaugarriak / Arrisku-potentziala	A		B		C		D	
1	1 A	I. Kategoria	1 B	I. Kategoria	1 C	I. Kategoria	1 D	II. Kategoria
2	2 A	I. Kategoria	2 B	II. Kategoria	2 C	II. Kategoria	2 D	III. Kategoria
3	3 A	II. Kategoria	3 B	III. Kategoria	3 C	III. Kategoria	3 D	IV. Kategoria
4	4 A	III. Kategoria	4 B	IV. Kategoria	4 C	IV. Kategoria	4 D	V. Kategoria
5	5 A	IV. Kategoria	5 B	V. Kategoria	5 C	V. Kategoria	5 D	V. Kategoria

MIE-AP-7 Jarraibide Tekniko Osagarria (1983ko uztailaren 11ko, 1985eko martxoaren 28ko eta ekainaren 13ko, 1987ko uztailaren 3ko eta 2000ko ekainaren 3ko Aginduek aldatutako 1982ko irailaren 1eko Agindua) presiora konprimitu, likuatu eta disolbatutako gasen botilei eta botilatzarrei buruzko.

Arautegi honek ezartzen dituen arau, ikuskapen tekniko eta entsegu hauen eta bertan adierazten den moduaren menpe egongo dira, presiora konprimitu, likuatu eta disolbatutako gasen botilak eta botilatzarrak. Jarraibide honen barruan hartzen dira, bereziki, altzairu soldatu eta soldadurarik gabeko botilak eta botilatzarrak, disolbatutako azetilenozko botilak, aluminio-aleaziozko botilak, botila-blokeak eta botiloi kriogenikoak, eta horiek ixteko eta segurtasuneko elementuak eta elementu osagarriak.

JTO honen aplikazio-eremutik at gelditzen dira zerbitzuko gehienezko presioa 0,5 baretik beherakoa duten ontziak. Kanpo gelditzen dira, orobat, aerosolak, PGL-ko kartutxoak eta su-itzalgailuak, zein berariazko arauen menpe dauden bestelako ontziak ere.

MIE-AP-8 Jarraibide Tekniko Osagarria (1982ko apirilaren 27ko Agindua), lixiba beltzak berreskuratzeko galdarei buruzkoa.

Sulfato bidez paper-orea egiten duten lantegietan sortzen diren lixiba beltzak berreskuratzeko unitateen segurtasunerako eska daitezkeen baldintzak barne hartzen ditu JTO honek.

MIE-AP-9 Jarraibide Tekniko Osagarria (1983ko uztailaren 11ko Agindua), ontzi frigorifikoei buruzkoa.

JTO honen aplikazio-eremutik kanpo gelditzen dira, barne-bolumen gordina 15 zentimetro kubikotik beherakoa eta laneko presioa bar efektibo batetik gorakoa duten sistema frigorifikoetako osagaiak.

JTO honen aplikazio-eremutik at gelditzen dira, konpresore frigorifiko bolumetrikoak edo bolumetrikoak ez direnak, hozgarriak zirkularazteko ponpak eta, 160 milimetrotik beherako barne-diametroa duten hodiez osatutako elementu guztiak, edozein dela hauen guztizko barne-bolumena eta laneko presioa.

MIE-AP-10 Jarraibide Tekniko Osagarria (1987ko ekainaren 5eko Aginduak aldatutako 1983ko azaroaren 7ko Agindua), depositu kriogenikoei buruzkoa.

Honako jarraibide honek gas kriogenikoak (oso-oso hoztuak) biltegiratu eta erabiltzeko deposituak barne hartzen ditu, baldin eta hauen edukiera geometrikoko gehienezko bolumena 450 litrotik gorakoa eta 2.000.000 litrotik beherakoa eta laneko gehienezko presioa 100 kPa (1 Bar) efektibotik gorakoa denena, eta ondorengoak biltegiratzeko direnak: Argoia; nitrogenoa, anhidrido karbonikoa; helioa; nitrogeno protoxidoa, N_2O; kriptona; neona; Oxigenoa, xenona, etanoa; etilenoa, hidrogenoa, eta airea.

Horien barruan hartzen dira depositu horietako elementu osagarriak, hots, hodiak, balbulak eta kontrol-elementuak, hozkuntza-unitateak, gasifikazio-unitateak, gas likuatua gas bihurtzeko erabiltzen direnak. Elementu hauek guztiak, barrualdekoak zein kanpoaldekoak eta presiopeko ekipoak izan daitezke.

Hauen barruan ez dira barne hartzen produktu hauen garraio-elementuak (zisternak), ezta garraiatu eta hornitzeko botilatzar kriogenikoak ere (hauek MIE-AP-7 jarraibideak barne hartzen ditu). Jarraibide honek, aipatutako depositu horien eta horietako ekipo osagarrien diseinua, eraikuntza, instalazio-probak eta erabilera barne hartzen ditu.

Fabrikazio-prozesuetan barne hartutako biltegiratzeak, 5. atalean «Instalazioa» aurreikusitakoa betetzetik salbuetsita daude.

MIE-AP-11 Jarraibide Tekniko Osagarria (1985eko maiatzaren 31ko Agindua), ura berotzeko eta ura metatzeko seriean fabrikatutako aparatuak.

JTO honen barruan hartzen dira seriean ekoiztutako elementuak, baldin eta horien edukiera 2.000 litrotik gorakoa denean eta horien P (diseinuko presioa baretan) eta V (bolumena metro kubikoetan) biderkatzean emaitza 10 eta hortik beherakoa denean, eta ondorengo aparatuetako elementuak direnean: ur-berogailuak eta -metagailuak, ur beroa biltegiratzeko metagailuak eta ur beroko zirkuituetako espantsio-ontzia.

JTO honetatik at gelditzen dira berokuntzako galdarak eta berokuntza eta etxeko ur beroko galdara mistoak.

Presiozko Aparatuen Arautegiko 5. artikuluan ezarritakoaren babespean, Arautegi horretatik at jotzen dira, ura berotu edo ur beroa metatzeko 10 litro arteko ontziak, baldin eta diseinuko presioa 2 barekoa edo hortik beherakoa denean, edo V eta P biderkatzean emaitza 0,02 edo hortik beherakoa denean.

MIE-AP-12 Jarraibide Tekniko Osagarria (1985eko maiatzaren 31ko Agindua), ur beroko galdarei buruzkoa.

JTO honen barruan ur beroko galdarak barne hartzen dira, baldin eta etxeko ur bero ekoizteko sistema bat badute edo ez badute, berokuntzako elementutik kanpokoa jotzen badira, zerbitzua kokapen finko batetik ematen dutenean eta ondoren mugen barruan daudenean:

a. Etxeko erabilerakoak eta/edo berokuntza ez industrialerakoak, baldin eta horien V eta P biderkatzean, emaitza 10 edo hortik beherakoa denean. V hori galdarako uraren bolumena adierazten du (metro kubikoetan) eta P, diseinuko presioa (baretan).
   V eta P biderkatzean emaitza 10etik gorakoa duten galdaretan, Presiozko Aparatuen Arautegiko MIE-AP-1 Jarraibide Tekniko Osagarrian ezarritakoa aplikatuko da.
b. 200.000 kcal/h-ko (232,5 kW) edo hortik beherako potentzia termiko nominala duten industria-erabilerako galdarak.

Potentzia hori gainditzen dutenak edo horien V eta P biderkatzean (lehen azaldu legez) 10tik gorako emaitza ematen dutenak ere lehen aipatutako MIE-AP-1 Jarraibide Tekniko Osagarriaren arabera arautuko dira.

Presiozko Aparatuen Arautegiko 5. artikuluan ezarritakoaren babespean, Arautegi horretatik at jotzen dira, erregai gaseosoak erabiltzen dituzten ura bat-batean berotzeko berogailuetatik

ondorioztatutako hormako berokuntzako galdarak, baldin eta horien potentzia erabilgarri nominala 50 kW-koa edo hortik beherakoa denean eta duen bero-trukagailuaren uraren baliokide termikoa bero gastu nominaleko kW bakoitzeko, 0,082 kg-koa edo hortik beherakoa denean.

Galdarek, aurreko paragrafoak aipatzen dituen hormakoak barne, etxeko ur berorako depositua badute, honi, ura berotu edo ur beroa metatzeko seriean ekoiztutako aparatuei buruzko MIE-AP-11 JTOan zehaztutakoa aplikatuko zaio.

Era berean eta aipatutako 5. artikuluaren babespean, Presiozko Aparatuen Arautegien barruan ez dira hartzen, presio efektiboa 0,5 baretik gorakoa izatea galarazten duten gailu egoki eta eraginkorrak dituzten galdarak, ezta 10 litrotik beherako edukiera dutenak, baldin eta diseinuko presioa 2 barekoa edo horitik beherakoa bada edo V eta P biderkatzean emaitza 0,02 edo hortik beherakoa denean (V metro kubikoetan, eta P baretan).

MIE-AP-13 Jarraibide Tekniko Osagarria (1988ko urriaren 11ko Agindua), fabrikazio berriko plakez egindako bero-trukagailuei buruzkoa.

Plaken berotasuna elkarri trukatzeko aparatuak (PBT) barne hartzen ditu Jarraibide honek, eta JTO honen arauetatik at gelditzen dira, arrisku-potentziala, 3. puntuan adierazten den bezala definituta, 100 edo hortik beherakoa dutenean. Izan ere, horiek ere, Presiozko Aparatuen Arautegiko 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, horretatik kanpokotzat joko dira.

JTO honetatik kanpo gelditzen dira, kiribilen berotasuna elkarri trukatzeko aparatuak.

Zerbitzua emateko duten kokalekua dela-eta, arauzko beste jarraibide batzuk daudenean, PBTek, gainera, osagarri gisa, horietan ezarritakoa bete beharko dute.

MIE-AP-14 Jarraibide Tekniko Osagarria (1985eko maiatzaren 31ko Agindua), kafea bizkor prestatzeko aparatuei buruzkoa.

Kokaleku publikoetan zerbitzua ematen duten eta kafea bizkor prestatzeko erabiltzen diren aparatuak barne hartzen ditu jarraibide honek, baldin eta horien egiazko edukiera errealaren bolumena 4 litrokoa edo hortik gorakoa baldin bada eta horien berokuntza-sistemaren potentzia 1,5 Kw-tik gorakoa baldin bada, betiere, diseinuko presioa (baretan) eta edukiera (litroetan) biderkatzean emaitza 300etik gorakoa ez bada eta galdararen zerbitzuko gehienezko presioa 2 baretik (gutxi gorabehera, 2 kilogramo/zentimetro koadro).

Horien barruan galdara, elementu osagarriak eta segurtasun-elementuak eta berotzeko sistemak.

Jarraibide honek, kafea bizkor prestatzeko aipatutako aparatuak eta horien ekipo osagarriak diseinatu, eraiki, probatu, instalatu eta erabiltzeari buruzko arauak jasotzen ditu.

Presiozko Aparatuen Arautegiko 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, ez dira barne hartzen 4 litrotik beherako bolumena eta 1,5 Kw-ko edo hortik beherako berokuntza-potentzia dituzten aparatuak.

MIE-AP-15 Jarraibide Tekniko Osagarria (1988ko apirilaren 22ko Agindua), presiora egindako depositu kriogeniikoetan gas likidotua biltegiratzeko instalazioei buruzkoa.

Presiora egindako depositu kriogeniikoetan gas likidotua biltegiratzeko instalazioak barne hartzen ditu JTO honek, baldin eta horien edukiera geometriko unitarioa 300 metro kubikoetatik beherakoa eta laneko gehienezko presioa100 kPa-tik (bar efektibo 1) gorakoa bada, eta baita horien lurruneztagailu edo birberogailuen irteeran gas-lerroan kokatutako blokeo-balbulak mugatutako elementu osagarritzat hartzen direnak ere. Era berean, deposituak kargatzeko lurruntze-elementuak eta likidoa gas bihurtzeko lurruneztagiluak, eta horien elementu osagarriak, hots, hodiak, balbulak eta kontrol-elementuak ere barne hartzen dira.

Ez dira barne hartzen zisternak bezalako garraio-elementuak. Arautegi honek aipatutako deposituak eta horien elementu osgarriak diseinatu, eraiki, probatu, instalatu eta erabiltzeari buruzko arauak jasotzen ditu.

MIE-AP-16 Jarraibide Tekniko Osagarria (1988ko urriaren 11ko Agindua), energia elektrikoa sortzen duten Zentral Termikoei buruzkoa.

JTO hau, Zentral Termiko batean dauden presiozko aparatuei aplikatzen zaie.

Oro har, jarduera nagusitzat energia elektrikoa sortzea ez duten industria-konplexuetako Zentral Termikoak barne hartzen dira.

1. JTO honen aplikazio-eremuan barne hartutako aparatuak
   Talde honen barruan ondorengo azpi-zatiketa ezartzen da. Azpi-zatiketa honek JTO honek garatzen duen araudiaren menpe dauden aparatuak jasotzen ditu, eta beste edozein aplikaziotik salbuetsita geratzen dira:

   a. Aparatu arruntak.- Aparatu normaltzat jotzen dira, 0 ºCko diseinuko tenperatura eta zerbitzuko gehienezko presioa 1 kg/cm^2-tik (manometrikoa) gorakoa duten prozesu ezberdinetarako aparatuak.
      Orientabide gisa, hona hemen horietako batzuk:

      a. Galdarak (nagusia eta osagarria).
      b. Bero-trukagailuak.
      c. Metagailuak, bereizgailuak eta, oro har, beste ontzi batzuk.
      d. Hodiak, balbulak eta osagaiak.

   b. Aparatu bereziak.- Aparatu berezitzat jotzen dira, ondorengo baldintzaren bat betetzen duten aparatuak:

      a. Erretxina edo gai iragazleez betetako edo barne-estaldura hauskor edo higroskopikoko aparatuak, hala nola neoprenoa, ebonitatua, beiraztatuta, etab.
      b. Aldi baterako instalazioetako aparatuak, hala nola, planta pilotuak, ikerketa- eta kontrol-laborategiak, etab.

2. JTO honen aplikazio-eremu barrutik at dauden aparatuak.-
   Bereziki presiozko ondorengo aparatuak daude JTO honen aplikazio-eremutik kanpo:

   a. Su-itzalgailuak.
   b. Konprimitu, likuatu eta presioz disolbatutako gas botilak eta botilatzarrak.
   c. Zerbitzuko gehienezko presioa kilogramo/zentrimetro koadro manometriko 1etik beherakoa duten aparatuak. Baita, zerbitzuko gehienezko presioa 2 kilogramo/zentrimetro koadro manometriko edo efektiboko eta 10 litrotik beherako bolumena duten aparatuak ere, edo P x V biderkatzean emaitza 0,02 edo hortik beherakoa ematen dutenak (V m^3-etan eta P kg/cm^2-etan).
   d. Fluidoak eroateko hodiak, bere barne-diametroa (zentimetroetan neurtuta) bider bere zerbitzuko gehienezko presioa (Zgp) (Kilogramo/zentimetro koadrotan neurtuta) 100etik beherakoa denean.
   e. Fluidoak eroateko hodiak, horien zerbitzuko gehienezko presioa (Zgp) 4 kilogramo/zentimetro koadrokoa edo hortik beherakoa denean.
   f. Ur-sistemak, horien zerbitzuko gehienezko tenperatura (Zpt) 85 ºCtik beherakoa eta horien presioa 10 kg/cm^2-tik beherakoa denean.
   g. Elementu dinamikoen karkasak eta bilgarriak.

JTO honen babespeko presiozko sistema eta aparatu guztiak, ondoren definitzen diren arriskupotentziala eta fluidoen ezaugarriak bezalako kontzeptuak bateratuz sailkatzen dira. Sailkapenak, JTO honen eranskinean jasotako kategorien laukian adierazten diren bost kategoria barne hartzen ditu .

1. Arrisku-potentziala.- Presiozko aparatuak ondoren bost taldeen arabera sailkatuko dira, hau da, dagokien arrisku-potentzialaren arabera, delako hori Diseinuko presioaren (P_d) (kg/cm^2) eta bolumenaren (V) (m^3-etan) arteko biderketaren bidez definituta.

Taldea	Arrisku-potentziala (P_d * V)
1	1.000 edo hortik gorakoa.
2	300 edo hortik gorakoa eta 1.000tik beherakoa.
3	25 edo hortik gorakoa eta 300etik beherakoa.
4	10 edo hortik gorakoa eta 25etik beherakoa.
5	10etik beherakoa.

2. Hodiak ondorengo bost taldeen arabera sailkatuko dira, hots, bere arrisku-potentzialaren arabera. Arrisku-potentziala definitzeko zerbitzuko gehienezko presioa (Z_{gp}), kg/cm^2-etan, eta hodiaren barne-diametroa (d(b)), cm-etan, biderkatuz kalkulatuko da.

Grupo	Potencial de riesgo (P_d* V)
1	P_{ms} * d(i) ≥ 3.000
2	2.000 ≤ P_{ms} * d(i) < 3.000
3	1.000 ≤ P_{ms} * d(i) < 2.000
4	500 ≤ P_{ms} * d(i) < 1.000
5	P_{ms} * d(i) < 500

Zentral Termiko baten kokatutako galdara guztiak, nagusiak zein osagarriak, arrisku-potentzialaren I. taldean sailkatuko dira beti.

3. Fluidoen ezaugarriak.- Presiozko aparatuak ondorengo hiru taldeetan sailkatzen dira, erabiltzen dituzten fluidoen ezaugarrien arabera:

Taldea	Fluidoen ezaugarriak
A	Erregaiak. Gas likido toxiko, azido eta kaustikoak. Hidrogenoa.
B	Ur-lurruna. Gas geldo edo kaltegabeak. Airea
C	85 ºCko edo hortik gorako tenperaturako eta 10 kg/ cm^2-ko ura.

PRESIOZKO APARATUEN KATEGORIEI BURUZKO LAUKIA

Arrisku-potentzialа	Fluidoaren ezaugarriak		
	A	B	C
1	1 A I Kategoría	1 B I Kategoría	1 C II Kategoría
2	2 A II Kategoría	2 B II Kategoría	2 C III Kategoría
3	3 A III Kategoría	3 B III Kategoría	3 C IV Kategoría
4	4 A IV Kategoría	4 B IV Kategoría	4 C V Kategoría
5	5 A V Kategoría	5 B V Kategoría	5 C V Kategoría

MIE-AP-17 Jarraibide Tekniko Osagarria (1988ko ekainaren 28ko Agindua), aire konprimitua tratatu eta biltegiratzeko instalazioei buruzkoa.

Honako JTO hau aire konprimitua tratatu eta biltegiratzeko instalazioetan barne hartutako aparatuei aplikatzen zaie.

JTO honetatik kanpo gelditzen dira ondorengo aparatuak:

a. Higidura birakari edo atzera-aurrerako higidurako makinak, horietan aparatuaren baldintza funtzionalak diseinuari buruzko gogoeta garrantzitsuenen eta/edo eskakizunen arabera denean.
b. Ibilgailu automobiletan energia-metagailu gisa erabilitako deposituak.
c. Metagailu hidroneumatikoak.
d. Beste Jarraibide Tekniko Osagarri batzuen aplikazio-eremuan barne hartutako aparatuak.

Presiozko Aparatuen Arautegiko 5. artikuluan ezarritakoaren babespean, Arautegi honetatik kanpokotzat jotzen dira, eta beraz, JTO honetatik salbuetsita, bereizgailuak, birikak, trukagailuak eta konpresio-sistemako antzeko beste batzuk bezalako depositu eta ontzi osagarriak, baldin eta ondorengo baldintzaren bat betetzen badute:

Presio efektiboa 0,5 bareko edo hortik beherakoa baldin bada.

Presio efektiboaren (baretan adierazita) eta bolumenaren (m^3-etan adierazita) arteko biderketaren emaitza 0,02 edo hortik beherakoa baldin bada.

MIE-AP-18 Jarraibide Tekniko Osagarria (389/2005 Errege Dekretua) urpeko jarduera eta azalerako lanetarako arnasketa-ekipo autonomoetako botilak kargatu eta ikuskatzeko instalazioei buruzkoa.

Jarraibide tekniko osagarri (JTO) honen helburua da, presiozko aparatuei buruzko indarrean dagoen Arautegia aplikatzeko beharrezkoak diren alderdi teknikoak eta prozedurak ezartzea, eta hori guztia, kargako instalazioetako segurtasun-baldintzei, zein urpeko jarduera eta azalerako lanetarako arnasketa-ekipo autonomoetako botilak erabiltzeko beharrezkoak diren baldintza eta kontrolei dagokienez.

JTO honen aplikazio-eremutik at gelditzen dira, gasak ekoiztu, banatu eta erabiltzeko industria eta jarduera espezializatuetan kokatutako gas arnasgarri eta medikuntzako gas nahasteak eta aire konprimitua ekoizteko zentroak. Hauek, indarrean dagoen arautegian aurreikusitako baldintza berezien arabera arautu beharko dira. Era berean, ez dituzte JTO honen baldintzak bete behar, botilen barruko nahasteen oxigeno portzentajea %40tik gorakoa denean.

ARAUZKO EREMUA	AZPIMOTA	ERABILERA	MANTENTZEA	IKUSKAPENA	BERTAN BEHERA UZTEA
Presiozko aparatuak. 1244/1979 ED	AP-1	CEM AA SJ (1)		1.ª IPO $^{OCA}_{5}$ 2.ª IPO $^{OCA}_{10}$ Sucesivas $^{OCA}_{3}$	
	AP-2			5 urtetan behin (enpresa instalatzailea, BKE, enpresen mantentze-lanetarako zerbitzua) 5 urtetan behin osorik ((enpresa instala-tzailea, BKE, enpresen mantentze-lanetarako zerbitzua)	
	AP-3			Salbuetsita	
	AP-4			Salbuetsita	
	AP-5			AIO$^{BKE}_{5}$	
	AP-6		EL	<u>V. kat.</u> AI$^{bertako}_{ikuskatzailea\ 7}$ (bertakoa, ez da kanpokoa izan behar) <u>IV. kat.</u> AI$^{bertako}_{ikuskatzailea\ 6}$ (bertakoa) AI$^{bertako}_{ikuskatzailea\ 12}$ (kanpokoa) <u>III. kat.</u> AI$^{bertako}_{ikuskatzailea\ 5}$ (bertakoa) AI$^{EC}_{10}$ (kanpokoa) <u>II. kat</u> AI$^{bertako}_{ikuskatzailea\ 4}$ (kanpokoa) AI$^{EC}_{8}$ (bertakoa) <u>I. kat</u> AI$^{bertako}_{ikuskatzailea\ 3}$ (kanpokoa) AI$^{ME}_{6}$ (bertakoa)	
	AP-7		Probak$_3$ (2)		
	AP-8	JE IET	JE IET		
	AP-9	CEM AA SJ (1)		1. AI $^{hotz\text{-}teknikari\ instalatzailea,\ mantentze\text{-}lanetarako\ zerbitzua\ edo\ BKE}_{10}$ Elkarren segidakoak AI $^{hotz\text{-}teknikari\ instalatzailea,\ mantentze\text{-}lanetarako\ zerbitzua\ edo\ BKE}_{5}$	
	AP-10			AIO $^{BKE}_{5}$(estankotasuna eta segurtasun-sistema) AIO $^{BKE}_{15}$ (presio pneumatikoa)	
	AP-11			Salbuetsita	
	AP-12			Salbuetsita	
	AP 13. I., II. eta III. Kat.			AIO $^{BKE}_{10}$	
	AP-13. IV.; V., VI. eta VII. Kat.			Salbuetsita	
	AP-14			IPO $^{OCA}_{5}$	
	AP-15			AIO $^{BKE}_{5}$(estankotasuna eta segurtasun-sistema) AIO $^{BKE}_{15}$ (presio pneumatikoa)	
	AP-16	FE DE	LR	V. kat. Ikuskapena ez da beharrezkoa IV. kat. AI $^{Bertako}_{ikuskatzailea\ 12}$ III. kat. AI$^{ME}_{10}$ II. kat. AI$^{ME}_{8}$ I. kata AI$^{ME}_{6}$	
	AP-17			AIO $^{BKE}_{10}$	
	AP-18			Botilak, 3 urtetan behin. Kargako instalazioak, 5 urtetan behin.	

Erregistro Liburua (EL): Industria eta Energia Ministerioaren Probintzia Ordezkaritzak ikus-onetsi eta zigilatutako liburua da. Honetan, instalatuta dauden eta Presiozko Aparatuen Arautegiaren eraginpean dauden aparatu guztiak agertuko dira, eta horien inguruko honako hauek adierazi: ezaugarriak, jatorria, hornitzailea, instalatzailea, zein egunetan baimendu zen instalazioa eta 1. eta aldizkako proben egunak. Halaber, ikuskapen ez ofizialak eta egindako konpontze-lanak ere adieraziko dira, horien inguruko xehetasun guztiak, egin zuen erakundea eta horren amaiera eguna gehituz. Erregistro Liburuan ez dira jasoko PGL-ko edo beste gas batzuen botilak eta botilatzarrak, eta denda arruntetan saltzen diren sifoiak, su-itzalgailuak eta antzekoak.

Abrebiaturak:

IET: Industria Eragileko Txartela
AA: Adostasun Adierazpena
SJ: Segurtasunezko Jarraibideak
AI: Aldizkako Ikuskapena
AIO: Aldizkako Ikuskapen Ofiziala
EL: Erregistro Liburua
CEM: CE Markaketa
DE: Diseinuaren Eskuliburua
FE: Fabrikazioko Eskuliburua
JE: Jarraibideen Eskuliburua

Oharrak:

(1) SALBUESPEN GISA, hain arriskutsuak EZ diren ekipoak:
Fabrikatzailearen identifikazioa
Erabiltzeko jarraibideak
(ezin izango dute CE markaketa eraman, presioaren ondoriozko arriskurik ez dutelako)
(2) Ehun porotsuko oredun azetilenoko botilak
(3) Ikusi ADRaren 2250 marjinala (97-06-10eko BOE) eta 2217 marjinala (2)

Jasogailu eta Mantentze-gailuen Arautegia (1314/1997 Errege Dekretuak, 1998ko irailaren 10eko Ebazpenak eta 57/2005 Errege Dekretuak aldatutako 2291/1985 Errege Dekretua).

Arautegi honen helburua da, espainiar Estatuaren lurraldean instalatzen diren eta bere JTOren batean barne hartutako jasogailu eta mantentze-gailuek, segurtasun-ondorioetarako, bete behar dituzten baldintza teknikoak definitzea, pertsonak eta gauzak, aparatu horien funtzionamendu eta erabileraren ondorioz sor daitezkeen istripu-arriskuetatik babesteko.

Arautegi honen ondorioetarako, jasogailu eta mantentze-gailutzat jotzen dira, helburu horietarako balio duten aparatuak, eragiteko edozein dela duten modua, hala nola: igogailuak, karga-jasogailuak, eskailera mekanikoak, nasa mugikorrak, eraikuntzarako material-jasogailuak, garabiak, jasotze eta garraio jarraituko aparatuak, transjasogailuak, plataforma jasotzaileak, mantentzeko orgak eta antzeko aparatuak.

Ondorengo hauek, Arautegi honen aplikazio-eremutik kanpo daude:

a. Meategietan erabilitako jasogailuak eta mantentze-gailuak.
b. Helburu militar eta esperimentaletarako jasogailuak eta mantentze-gailuak.
c. Itsasontzietan eta esplorazio eta zulaketa plataforma flotatzaileetan jarri beharreko jasogailuak eta mantentze-gailuak.
d. Material erradiaktiboen manipulazioan erabilitako jasogailuak eta mantentze-gailuak.
e. Antzerkiko edo antzeko ikuskizunetarako eszenatokietan modu iraunkorrean instalatuta ez dauden jasogailuak. .

MIE-AEM-1 Jarraibide Tekniko Osagarria (1988ko urriaren 11ko eta 1991ko irailaren 12 Aginduek, eta 1992ko apirilaren 27ko, 1996ko uztailaren 24ko eta 1997ko apirilaren 3ko Ebazpenek aldatutako 1987ko irailaren 23ko Agindua).

MIE-AEM 1 Jarraibide Tekniko Osagarria, elektrizitatez, oleoelektrizitatez edo era hidraulikoan mugiarazitako igogailuei aplikatuko zaie, baldin eta modu iraunkorrean instalatuta badaude, maila ezberdinak komunikatzen badituzte, pertsonak edo pertsonak eta objektuak garraiatzeko badira, kable edo katez esekita edo pistoi batez edo bat baino gehiagoz eutsita badago, eta behintzat partzialki, gida bertikal batean zehar edo bertikalaren gainean 15º-tik beherako inklinazioarekin mugitzen badira.

MIE-AEM-2 Jarraibide Tekniko Osagarria (1990eko apirilaren 16ko Aginduak eta 836/2003 Errege Dekretuak aldatutako 1988ko ekainaren 28ko Agindua).

Jarraibide Tekniko Osagarri (JTO) honen helburua da, Jasogailu eta Mantentze-gailuei buruzko Arautegiko arauak ezartzea, obretarako dorre-garabi desmuntagarriak eraiki, muntatu eta erabiltzen eska daitezkeen osasun-baldintzei dagokienez.

UNE 58-101-81 arauaren 4. zatiak (Jasogailu astunak. Obretarako dorre-garabi desmuntagarrien erresistentzia- eta segurtasun-baldintzak. Garabiaren bizitza) dorre-garabi desmuntagarriak hiru taldetan sailkatzen ditu, garabi-besoan dagoenean eutsi dezakeen gehienezko karga eta gehienezko irismena biderkatzetik ematen diren uneen arabera:

I. taldea = 250 KN.m-tik gorakoak
II. taldea = 250 KN.m eta 700 KN.m bitartekoak
III taldea = 700 KN.m-tik gorakoak

MIE-AEM-3 Jarraibide Tekniko Osagarria (837/2003 Errege Dekretua).

Jarraibide Tekniko Osagarri (JTO) hau aplikatuko zaie mantentzeko orga automotoreei, baldin eta hauen edukiera nominala 10.000 kilogramotik gorakoa ez bada, eta traktoreei, gakoko esfortzua 20.000 N-tik beherakoa baldin bada.

JTO honi jarraiki, mantentzeko orga automotoretzat joko da, edozein izaerako kargak garraiatu, tiratu, bultzatu, jaso edo metatu eta biltegiratzeko edozein ibilgailu motordun, errei gaineko gurpildunak izan ezik, baldin eta orgatik gertu zutik dagoen gidari batek edo txasisari edo jasogailuari finkatu eta orga gidatzeko egokitutako postuan gidari batek eramaten badu.

JTO honek ez ditu honako hauek barne hartzen:

a. Eraikuntza-obretan eta herri-lanetan erabilitako eta dumper edo motordun brozel izeneko kubeta daramaten makinak.
b. 86/663/EEE Zuzentarauaren I. eranskineko 1.2. puntuan aurreikusitakoak ez diren traktoreak, kamioi atoidunak edo atoirik gabeak, nekazaritza eta basogintzarako traktoreak, obra-eremuetako makinak eta meategi barruan erabilitako bagoiak.
c. Esnegintzako kamionetan eta antzeko beste hornidura-ibilgailu guztiak.
d. Errei barruan baino ibili ezin diren eta «garraiatzaile biltegiratzailea» izendatutako makina jasotzaile metatzaileak.
e. Jaso daitekeen gidaritza-postua duten orgak, baldin eta beren edukiera nominala 5.000 kilogramotik gorakoa baldin bada.
f. 5.000 kilogramotik gorako karga jasota daramatela zirkulatzeko egindako orgak.
g. Portiko-orgak.
h. Urrutitik gida daitezkeen eta langilerik garraiatzen ez duten traktore eta orgak.
i. Jasota mantentzeko erabilitako ekipoak.
j. Kanpoko energia elektrikoez mugiarazitako orgak.
k. Garabi mugikorrak.
l. Plataforma jasotzaile mugikorrak.
m. Baso teleskopikoko orgak.

MIE-AEM-4 Jarraibide Tekniko Osagarria (837/2003 Errege Dekretua)

2.A.1. ataleko definizioaren araberakoak diren garabi mugikor autopropultsatu guztietan aplikatzen da JTO hau (Garabi mugikor autopropultsatua: etenka funtzionatzen duen jasogailu honek, kako batetik edo atzemateko beste edozein osagaietatik esekitako kargak jaso eta eremuan banatzea du xede, eta propultsatu edo gidatzeko berezko baliabideak dituzte, edo bestela, baliabide horiekin, bide publiko edo lur-eremuetan zehar lekualdatzea ahalbidetzen duen multzo batekoak badira) .

Goiko baldintzak baldintza, diseinuari buruzko segurtasun-arauen inguruko JTO honen xedapenak ez zaizkie aplikatuko, Makinei buruzko 1435/1992 Errege Dekretuko xedapenen arabera merkaturatutako garabi mugikor autopropultsatuei.

JTO hau ez zaie aplikatuko pneumatiko edo errei gainean lekualdatzen diren portiko-garabiei, ezta berez kargatzen diren garabiei ere.

ARAUZKO EREMUA	AZPIMOTA		ERABILERA	MANTENTZEA	IKUSKAPENA	BERTAN BEHERA UZTEA
Jasogailuak eta Mantentze-gailuak (2291/1985 ED)	AEM-1	Industria-eraikinetako eta leku publikoetako igogailuak.	IL	ZK hilero	IA^{BKE}_{2}	
		20 etxebizitza baino gehiago edo 4 solairu baino gehiago dituzten eraikinetan instalatutako igogailuak.			IA^{BKE}_{4}	
		Gorago aipatutakoen barne hartzen ez den bestelako eraikinetako igogailuak.			IA^{BKE}_{6}	
		Eraldaketa garrantzitsu edo istripu baten ondoren.			Berehalakoa OCA	
	AEM-2	Obrarako dorre-garabi desmuntagarriak.	JE GTK	EL MK $R_{4\ hilabete}$	1.a: IA^{BKE}_{4} Ondorengoak: IA^{BKE}_{3}	
		Ondoko denbora-tarteetan baino luzaroagoan erabili diren dorre-garabiak: - 9 urte, I. taldekoetarako. - 10 urte, II. taldekoetarako - 14 urte, III. taldekoetarako			IA^{BKE}_{1} IA^{BKE}_{1} IA^{BKE}_{1}	
	AEM-3	Mantentzeko orga automotoreak.	JE			
	AEM-4	6 urteko antzinatasunetik gorako garabiak.	DC JE (1)	ZE HL $R_{6\ hilabete}$	AIO^{BKE}_{3}	
		6 urtetik gorako eta 10 urtetatik beherako antzinatasuna duten garabiak.			AIO^{BKE}_{2}	
		10 urteko antzinatasunetik gorako garabiak.			AIO^{BKE}_{1}	

Abrebiaturak:
bb N
IA: Ikuskapen Akta
ZK: Zaintzeko Kontratua
GTK: Garabilari Txartelaren Kopia
MK: Mantentzeko Kontratua
EZ: Enpresa Zaintzailea
AIO: Aldizkako Ikuskapen Ofiziala
IL: Igogailuaren Liburua
HL: Historiaren Liburua
EL: Erregistro Liburua
JE: Jarraibideen Eskuliburua

Oharrak:

(1) Gidatzeko baimena eta IAT txartela, zirkulatu behar izatekotan A edo B mailako eragile-txartela
A maila: 130 tona arteko (barne) karga nominala jaso dezaketen garabi mugikor autopropultsatuak muntatu eta erabiltzeko gaitzen diote horren jabe denari.
B maila: 130 tonatik gorako karga nominala jaso dezaketen garabi mugikor autopropultsatuak muntatu eta erabiltzeko gaitzen diote horren jabe denari.

Zentral elektriko, azpi-estazio eta transformazio-zentroetako baldintza teknikoei eta bermeei buruzko Arautegia (3275/1982 Errege Dekretua).

Honako Arautegi honen helburua da, 1.000 voltetik gorako instalazio elektrikoek bete behar dituzten baldintza eta berme teknikoak ezartzea, honako hauetarako:

1. Instalazio horiek erasan ditzaketen pertsonak eta ondasunen osotasuna eta funtzionalitatea babesteko.
2. Energia elektrikoko horniduren beharrezko erregulartasuna lortzeko.
3. Material elektrikoaren fabrikazioan dauden askotariko motak murrizteko beharrezkoa den normalkuntza ezartzeko.
4. Inbertsioak ahalik eta ondoen erabiltzeko, instalazioen proiektutik bertatik, zentzuz aurreikus daitezkeen karga-gorakadak egokitzeko aukera errazte aldera.

Arautegi honetako arau eta preskripzio teknikoak eta Jarraibide Tekniko Osagarriak, korronte alternoko instalazioei aplikatuko zaizkie, baldin eta edozein bi eroaleen arteko tentsio nominal eraginkorra kV batetik gorakoa eta zerbitzu-frekuentzia 100 Hz-tik beherakoa denean.

Arautegi honen ondorioetarako, goiko paragrafoan zehaztutako tentsio- eta frekuentzia-mugen arteko elementu, osagai, azpiegitura, aparatu, makina eta laneko zirkuituen multzo edo sistemez osatutako instalazio elektriko guztiak, baldin eta, energia elektrikoa ekoiztu edo transformatzeko edo energia elektrikoaren bitartez beste edozein energia-transformazio egiteko erabiltzen badira.

Arautegi hau ez da goi-tentsioko lineetan aplikatuko, ezta dagokion aplikazio-eremua berariazko arautegi baten arabera arautzen diren beste edonolako instalazioak ere, Arautegi honetako arauen eta honi dagokion gainerako araudi bereziaren menpe dauden zentral nuklearretako instalazio elektrikoak izan ezik.

Ondorengo kategorietan sailkatuko dira Arautegi honetan barne hartutako instalazio elektrikoak:

Lehenengo kategoria. 66 kV-tik gorako tentsio nominala dutenak.
Bigarren kategoria. 66 kV-ko edo hortik beherako eta 30 kV-tik gorako tentsio nominala dutenak.
Hirugarren kategoria. 30 kV-ko edo hortik beherako eta kV 1etik gorako tentsio nominala dutenak.

Instalazioan tentsio ezberdinak erabiltzen dituzten zirkuitu edo elementuak badaude, administrazioaren ondorioetarako, tentsio nominal altuenari dagokion taldean sailkatuko da sistema-multzoa.

Instalazio berri baten proiektuan 380 KV-tik gorako tentsio nominala beharrezkotzat jotzen denean, Industria eta Energia Ministerioak ezarriko du baimendu beharreko tentsioa.

Zentral elektriko, azpi-estazio eta transformazio-zentroetako baldintza teknikoei eta bermeei buruzko Arautegiko Jarraibide Tekniko Osagarriak (1984ko urriaren 16ko, 1987ko azaroaren 27ko, 1988ko ekainaren 23ko, 1991ko apirilaren 16ko eta 2000ko martxoaren 10eko Aginduek aldatu duten 1984 uztailaren 6ko Agindua).

Honako hauek dira onartutako MIE-RAT Jarraibide Tekniko Osagarriak:

MIE-RAT-01 «Terminologia».
MIE-RAT-02 «Ezinbestean bete beharreko arauak eta interpretazio-orriak».
MIE-RAT-03 «Goi-tentsioko instalazioetarako material eta aparatuen homologazioa».
MIE-RAT-04 «Tentsio nominalak».
MIE-RAT-05 «Zirkuitu elektrikoak».

MIE-RAT-06 «Zirkuituetako maniobra-aparatuak».
MIE-RAT-07 «Potentzia-transformadoreak eta -autotransformadoreak».
MIE-RAT-08 «Neurtu eta babesteko transformadoreak»
MIE-RAT-09 «Babesak».
MIE-RAT-10 «Kontrol-panelak eta -mahaiak».
MIE-RAT-11 «Metagailuen instalazioak».
MIE-RAT-12 «Isolamendua».
MIE-RAT-13 «Lur-konexioko instalazioak».
MIE-RAT-14 «Barrualdeko instalazio elektrikoak».
MIE-RAT-15: «Kanpoko instalazio elektrikoak».
MIE-RAT-16 «75,5 kv arteko metalezko inguratzaile azpiko instalazioak: aurrefabrikatutako multzoak».
MIE-RAT-17 «36 kv arteko metalezko inguratzaile azpiko instalazioak: aurrefabrikatutako multzoak».
MIE-RAT-18 «Sufre hexafloruroz (SF_6) isolatutako, 75,5 kv arteko edo hortik gorako metalezko inguratzaile azpiko instalazioak .
MIE-RAT-19 «Zerbitzu publikoko sareetara konektatutako instalazio pribatuak».
MIE-RAT-20 «Aurreproiektuak eta proiektuak».

ARAUZKO EREMUA	AZPIMOTA	ERABILERA	MANTENTZEA	IKUSKAPENA	BERTAN BEHERA UZTEA
Zentral elektrikoak, azpi-estazioak eta transformazio-zentroak (3275/1982 ED)	Lurreko instalazioak	- Eragiteko jarraibideak. - Kontrol eta mantentzeko jarraibideen liburua. - Instalazioak abiarazteko baimeneskabidea.	AA_3		
	Arautegi honetan barne hartutako instalazio elektrikoak.		MK	I^{BKE}_3	

BEHE TENTSIOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK.

Behe Tentsiorako Arautegi Elektroteknikoa (842/2002 Errege Dekretua).

Honako Arautegi honen helburua da, behe-tentsioaren mugetan iturri bati konektatutako instalazio elektrikoek bete behar dituzten baldintza eta berme teknikoak ezartzea, honako hauetarako:

—Pertsona segurtasuna eta ondasunak babesteko.
—Instalazio horiek normaltasunez funtzionatzen dutela ziurtatzeko, eta beste instalazio eta zerbitzuetako asalduei aurrea hartzeko.
—Instalazioen fidagarritasun teknikoaren eta eraginkortasun ekonomikoaren alde egiteko.

Honako Arautegi hau energia elektrikoa banatzen duten eta elektrizitatea sortu eta bereganatzen duten instalazioei aplikatuko zaie, tentsio nominalen ondorengo mugen arabera:

—Korronte alternoa: 1.000 voltekoa edo hortik beherakoa.
—Korronte zuzena: 1.500 voltekoa edo hortik beherakoa.

Ondorengo hauetan aplikatuko da Arautegi hau:

—Instalazio berrietan, horien aldaketetan eta horien handitzean.
—Indarrean sartu baino lehen zeuden instalazioetan, eta horietan garrantzizko aldaketak, konpontze-lanak edo handitzeak egiten direnean.
—Indarrean sartu baino lehen zeuden instalazioetan, ikuskapen-erregimenari dagokionez; hala ere, ikuskapen horietan aplikatu beharreko irizpide teknikoak, horiek onartzeko erabili zen arautegiak barne hartutakoak izango dira.

Garrantzizko aldaketa edo konpontze-lantzat hartuko dira, instalatutako potentziaren ehuneko 50ari baino gehiagori eragiten diotenak. Era berean, garrantzizko aldaketatzat joko da, zirkuitu eta panel berrien bitartez ekoizpen-prozesuen linea osoei eragiten dietenak, horietako potentzia murriztu arren.

Halaber, indarrean sartu baino lehen instalazioei ere aplikatuko zaie, horien egoerak, kokapenak edo ezaugarriek pertsonengan edo ondasunetan arrisku larria eragin dezaketenean, edo Autonomia Erkidegoko organo eskudunaren iritziz, beste instalazio batzuek normaltasunez funtzionatu ahal izateko asaldu garrantzitsuak ematen direnean.

Arautegi honetatik at gelditzen dira: meategietan baino erabiltzen ez diren instalazio eta ekipoak, trakzioko materiala, automobilak, itsasontziak, aireontziak, komunikazio-sistemak, erabilera militarreko instalazioak eta arautegi bereziaren menpe dauden gainerako instalazio eta ekipoak.

Arautegi honetako arauak eta bere jarraibide tekniko osagarrien (aurrerantzean JTOak) arteko batzuk orokorrak dira, eta beste batzuk, berariazkoak. Berariazkoak, kasuan-kasuan, orokorrak ordezkatu, aldatu eta osatu egingo dituzte.

«Oso tentsio baxua» (50 V arte korronte alternoan eta 75 V arte korronte zuzenean) erabiltzen dituzten instalazio eta ekipoetan ez dira arau orokorrak erabiliko, hots, berariazko arauak baino ez, eta hauek, JTOen araberakoak izango dira, adibidez: sare informatikoak eta antzekoak, baldin eta horien energia-iturria autonomoa bada, beste horniduretarako sareetatik elikatzen ez badira, edo instalazio horiek aipatutako behe-tentsioetarako ezarritako balioetatik gorako behe-tentsioko sareetatik erabat autonomoak badira, .

Arautegi honetako arauak aplikatzerakoan, behe-tentsioko instalazio elektrikoak esleitzen zaizkien tentsio nominalen arabera sailkatuko dira, hau da:

	Korronte alternoa (Balio eraginkorra)	Korronte zuzena (Batezbesteko balio aritmetikoa)
Oso tentsio baxua....	Un ≤ 50V	Un ≤ 75V
Ohiko tentsioa.....	50 < Un ≤ 500V	75 < Un ≤ 750V
Tentsio berezia....	500 < Un ≤ 1000V	750 < Un ≤ 1500V

Ondorengoak izango dira korronte alternoko banaketetan erabili ohi diren tentsio nominalak:

—Faseen arteko 230 V, hiru eroaleetako sare trifasiokoetarako.
—Faseen arteko 230 V eta neutroa, eta faseen arteko 400 V, lau eroaleetako sare trifasikoetarako.

Instalazioetan, beste tentsio bateko instalaziora konektatu edo deribatu behar izateagatik, Arautegi honetan normalizatutako tentsioren bat erabiltzerik ez dagoenean, bere inskripzioa baldintzapean jarriko da, hau da, instalazio berria etorkizunean aurreikus daitekeen tentsio normalizatuarekin erabili ahal izango dela.

50 Hz-koa izango da sarean erabilitako frekuentzia.

Administrazio Publikoko organo eskudunak emandako baimenarekin beste tentsio eta frekuentzia batzuk erabili ahal izango dira, betiere, horren aurrean behar hori justifikatzen bada, beste instalazio batzuen funtzionamenduan asaldu garrantzitsuak ematen ez badira eta pertsona eta ondasunen segurtasun-maila gutxiesten ez bada.

Honako hauek dira onartutako MIE-BT Jarraibide Tekniko Osagarriak:

ITC-BT-01. Terminologia.
ITC-BT-02. Behe-tentsioko Arautegi elektroteknikoko erreferentziazko arauak.
ITC-BT-03. Baimendutako instalatzaile eta enpresa instalatzaileak.
ITC-BT-04. Dokumentazioa eta instalazioak martxan jartzea.
ITC-BT-05. Egiaztapenak eta ikuskapenak.
ITC-BT-06. Behe-tentsioa banatzeko aireko sareak.
ITC-BT-07. Behe-tentsioa banatzeko lurpeko sareak.
ITC-BT-08. Neutroa eta masak konektatzeko sistemak energi elektrikoaren banaketa-sistemetan.
ITC-BT-09. Kanpoaldeko argiteria.
ITC-BT-10. Behe-tentsioaren horniduretarako kargen aurreikuspena.
ITC-BT-11 Energia elektrikoa banatzeko sareak. Harguneak.
ITC-BT-12 Loturako instalazioak. Eskemak.
ITC-BT-13 Loturako instalazioak. Babes-kutxa orokorrak.
ITC-BT-14 Loturako instalazioak. Elikadura-linea orokorra.
ITC-BT-15 Loturako instalazioak. Banakako deribazioak.
ITC-BT-16 Loturako instalazioak. Kontagailuak: kokapena eta instalazio-sistemak.
ITC-BT-17 Loturako instalazioak. Aginte eta babeseko gailu orokorrak eta banakako gailuak.
ITC-BT-18 Lurrerako instalazioak.
ITC-BT-19 Barne-instalazioak edo hartzaileak. Arau orokorrak.
ITC-BT-20 Barne-instalazioak edo hartzaileak. Instalazio-sistemak.
ITC-BT-21 Barne-instalazioak edo hartzaileak. Hodi eta kanal babesleak.
ITC-BT-22 Barne-instalazioak edo hartzaileak.
ITC-BT-23 Barne-instalazioak edo hartzaileak. Gaintentsioen aurkako babesa.
ITC-BT-24 Barne-instalazioak edo hartzaileak. Zuzeneko eta zeharkako kontaktuen aurkako babesa.

ITC-BT-25 Etxebizitza barruko instalazioak. Zirkuitu-kopurua eta ezaugarriak.
ITC-BT-26 Etxebizitza barruko instalazioak. Instalatzeko arauak.
ITC-BT-27 Etxebizitza barruko instalazioak. Bainuontzia edo dutxa duten lokalak.
ITC-BT-28 Lokal publikoetako instalazioak.
ITC-BT-29 Sute edo leherketa arriskua duten lokaletako instalazio elektrikoetarako arau bereziak.
ITC-BT-30 Ezaugarri berezietako lokalen instalazioak.
ITC-BT-31 Helburu berezietako instalazioak. Igerilekuak eta iturriak.
ITC-BT-32 Helburu berezietako instalazioak. Jaso eta garraiatzeko makinak.
ITC-BT-33 Helburu berezietako instalazioak. Obretako aldi baterako eta behin-behineko instalazioak.
ITC-BT-34 Helburu berezietako instalazioak. Azokak eta standak.
ITC-BT-35 Nekazaritza- eta baratze-establezimenduak.
ITC-BT-36 Oso tentsio baxuko instalazioak.
ITC-BT-37 Tentsio berezietako instalazioak.
ITC-BT-38 Tentsio berezietako instalazioak. Ebakuntza- eta operazio-geletako instalazio elektrikoetarako arau bereziak.
ITC-BT-39 Tentsio berezietako instalazioak. Abereentzako itxitura elektrikoak.
ITC-BT-40 Behe-tentsioko instalazio sortzaileak.
ITC-BT-41 Karabana eta karabana-parkeetako instalazio elektrikoak.
ITC-BT-42 Laketontzietarako kai eta ontzietako instalazio elektrikoak.
ITC-BT-43 Hartzaileen instalazioak. Arau orokorrak.
ITC-BT-44 Hartzaileen instalazioak. Argiteriarako hartzaileak.
ITC-BT-45 Hartzaileen instalazioak. Berokuntza-aparatuak.
ITC-BT-46 Hartzaileen instalazioak. Etxebizitzetako kable eta folio bero-emaileak.
ITC-BT-47 Hartzaileen instalazioak. Motoreak.
ITC-BT-48 Hartzaileen instalazioak. Transformadoreak eta autotransformadoreak. Erreaktantziak eta artezgailuak. Kondentsadoreak.
ITC-BT-49 Altzarietako instalazio elektrikoak.
ITC-BT-50 Saunetarako erradiadoreak dituzten lokaletako instalazio elektrikoak.
ITC-BT-51 Etxebizitza eta eraikinetako automatizazio-sistema, energiaren kudeaketa tekniko eta segurtasunerako instalazioak.

Ondoko hauek dira proiektua beharrezkoa duten instalazioak:

1.- Egiteko, ondorengo instalazio berriek eskatzen dute proiektua:

Taldea	Instalazio-mota	Mugak
a	Oro har, industriei dagozkienak.	P > 20 kW
b	Ondokoei dagozkienak: • Lokal heze zein hautsez betetako edo korrosio-arriskua duten lokalei; • Ura atera edo jasotzeko ponpei, industrialak izan ala ez.	P > 10 kW
c	Ondokoei dagozkienak: • Lokal bustiei; • sorgailu eta bihurgailuei; • berotzeko isolatutako eroaleei, etxebizitzetakoak izan ezik.	P > 10 kW
d	• eraikuntza-lanetako makinak elikatzeko aldi baterako instalazioak; • lokal edo eremu irekietako aldi baterako instalazioak;	P > 50 kW
e	Erabilera publikoko izaera ez duten etxebizitzak, lokalak eta bulegoak hartzen dituzten eraikinak, eraikuntza bertikala edo horizontala dela.	P > 100 kW, babes-kutxa orokor bakoitzeko
f	Familia bakarreko etxebizitzei dagozkienak.	P > 50 kW
g	Aireztapen artifiziala eskatzen duten garajeetakoak.	Edozein dela okupazioa
h	Aireztapen naturala duten garajeetakoak.	Aparkatzeko 5 leku baino gehiago dituztenak
i	Erabilera publikoko lokaletakoak;	Mugarik gabe
j	Ondokoei dagozkienak: • Behe-tentsioko lineei, baldin eta goi-tentsiokoekin euskarriak partekatzen badituzte; • Jaso eta garraiatzeko makinei; • Tentsio bereziak erabiltzen dituztenei; • Argizko errotuluetakoei, ITC-BT-44 JTOan ezarritakoaren arabera, behe-tentsioko instalaziotzat jotzen direnak izan ezik; • Itxitura elektrikoak; • Aireko edo lurpeko banaketa-sareei;	Potentzia-mugarik gabe
k	• Kanpoaldeko argiteria-instalazioak.	P > 5 kW
l	Sute edo leherketa arriskua duten lokaletakoak, garajeetakoak izan ezik.	Mugarik gabe
m	Ebakuntza- edo operazio-geletakoak.	Mugarik gabe
n	Igerileku eta iturrietakoak.	P > 5 kW
o	Aurreko taldeen barruan ez dauden guztiak, baldin eta Zientzia eta Teknologia Ministerioak dagokion Xedapenaren bidez ezartzen baditu.	Dagokionaren arabera

(P = Instalazioan aurreikusitako potentzia, ITC-BT-10 JTOan ezarritakoa kontuan hartuta)

2.- Halaber, ondorengo instalazioak handitu eta aldatzekotan ere, proiektua egin beharko da;

a. b, c, g, i, j, l, m motako instalazioen handitzeak eta 3.1.ean adierazitako instalazioen aldaketa garrantzitsuak.
b. 3.1.ean adierazitako motaren batekoa izan gabe, horretarako ezarritako potentzia-mugetara heltzen ez diren, baina handitzerakoan gainditzen duten instalazioen handitzeak.
c. Izatez proiektua eskatzen zuten instalazioen handitzeak, handitze baten edo bat baino gehiagotan aurreko proiektuan aurreikusitako potentziaren %50a gainditzen bada.

3.- Instalazioren bat 1en zehaztutako talde batean baino gehiagotan barne hartzen bada, talde horietarako ezarritako irizpiderik zorrotzena aplikatuko da.

ARAUZKO EREMUA	INSTALAZIO MOTA	POTENTZIA	ERABILERA	MANTENTZEA	IKUSKAPENA	BERTAN BEHERA UZTEA
Behe-tentsiorako instalazio elektrikoak (842/2002 ED)	Proiektua beharrezkoa duten industria-instalazioak.	> 100 Kw	- Proiektua (beharrezkoa ez badute, diseinuari buruzko memoria teknikoa izan beharko dute). - Instalazioaren egiaztagiria.		HK^{BKE}_{5}	
	Erabilera publikoko lokalak.				HK^{BKE}_{5}	
	Sute edo leherketa arriskua duten I. motako lokalak, 25 aparkalekutik beherako garajeak izan ezik.				HK^{BKE}_{5}	
	Lokal bustiak	> 25 Kw			HK^{BKE}_{5}	
	Igerilekuak	> 10 Kw			HK^{BKE}_{5}	
	Ebakuntza- eta operazio-gelak.			- Asteko kontrola (1) - Hileko kontrola (2) - Urteko azterketa (3) - Mantentzeko liburua (4)	HK^{BKE}_{5}	
	Kanpoaldeko argiteria-instalazioak.	> 5 Kw			HK^{BKE}_{5}	
	Etxebizitza-eraikinak.	> 100 Kw			HK^{BKE}_{10}	
	Lurrerako instalazioak			- Lur-konexioaren erresistentzia urtero neurtzea, eta lur-eremu desegokietan, 5 urtetan behin desestaltzen da.		

(1): isolamendua zaintzeko gailu eta babes-gailuei dagokienak.
(2): zirkuitu ezberdinen isolamenduaren jarraitutasun eta erresistentziarako neurriak;
(3): instalazio osokoa, baimendutako enpresa instalatzaileak egina.
(4): Mantentze Liburua: kontrol guztiak ebakuntza- edo operazio-gela bakoitzaren «Mantentze Liburuan» jasoko dira, eta bertan, kontrolen emaitzak eta zein egunetan egin ziren jaso beharko da; gainera, kontrola egin duen teknikariak sinatuta egon beharko du. Horretan, halaber, antzemandako asalduak xehetasunez idatziko dira, akatsak zuzentzeko oinarritzat erabil daitezkeen aurrekariak izateko.

SUTEEN AURKAKO SEGURTASUNA.

Industria-establezimenduetako suteen aurkako segurtasunari buruzko Arautegia (2267/2004 Errege Dekretua, akatsen zuzenketa 2005eko martxoaren 5eko 55. BOEn).

Industria-erabilerako establezimenduek, sutea izatekotan segurtasuna izateko, suteak galarazteko eta erantzun egokia emateko, eta sutea izatekotan, horien hedapena mugatzeko eta itzaltzea lortzeko bete behar dituzten betekizunak eta baldintzak ezartzea eta definitzea da arautegi honen helburua, horrela, suteek pertsonengan edo ondasunean eragin ditzakeen kalteak eta galerak galarazi edo murrizterik egon dadin.

Suteei aurrera hartzeko jarduerek, sute-arriskua eta suteak eragin ditzakeen ondorioak murriztea izango dute xede.

Sutea kontrolatu edo horren kontra borrokatu, itzali, eta sor ditzakeen kalteak edo galerak ahalik eta txikienak izatea da sutearen aurrean erantzuteko jardueren helburua.

Industria-jarduerak, arloko jarduerak edo jarduera bereziak arautzen dituzten indarreko xedapenetan suteen aurka babesteko ezarritako neurrien osagarri gisa, eta arau horietan aurreikusten ez diren alderdietarako aplikatuko da arautegi hau. Xedapen horiek erabat aplikatuko dira dagokien eremuan.

Zentzu honetan, apirilaren 6ko 379/2001 Errege Dekretuak produktu kimikoak biltegiratzeko onartu zuen Arautegiko MIE-APQ-1 Jarraibide tekniko osagarriko xedapenak, eta urriaren 20ko 2085/1994 Errege Dekretuak petrolio-instalazioetarako onartutako Arautegiko jarraibide teknikoetan aurreikusitakoak, goitik behera aplikatu behar dira, suteen aurkako segurtasun baldintzak bete ahal izateko.

Industriari buruzko uztailaren 16ko 21/1992 Legearen 12.5. artikuluan adierazitakoaren arabera, arautegi honetan jasotako betekizunak gutxienez eska daitezkeen baldintzatzat joko dira.

Gutxienezko baldintza hauek bete direla ulertzen da:

a. Arautegi honetan adierazitako arauak betetzen direnean.
b. Kasu berezietan, hartutako segurtasun-konponbide teknikoak justifikatzeko oso ezagunak diren diseinuko arauak edo gidaliburuak aplikatzen direnean. Segurtasun-konponbide tekniko horiek, gutxienez ere, aurrekoaren pareko segurtasun-maila eskaini behar dute. Segurtasun baliokideko tekniken aplikazio hau, proiektugileak behar bezala justifikatu eta autonomia-erkidegoko organo eskudunak ontzat eman beharko du.
c. Industria-establezimendu bat, arautegi hau indarrean sartu aurretik onartutako hiriplangintzako industrialdeetako pabiloietan edo, dituen ezaugarriengatik, arauzko xedapenen bat betetzea edo aurreko b) paragrafora egokitzea onartzen ez duen eraikinen batean ezartzen denean, establezimenduaren titularrak autonomia-erkidegoko organo eskudunean salbuesteko eskabidea eskatu eta hartutako neurri alternatiboak zehaztuko dituen proiektu edo memoria tekniko bidez justifikatu beharko du. Industria-establezimenduak kokaleku duen autonomia-erkidegoko organo eskudunak, proiektuan edo memoria teknikoan azaldutako argudioak aztertu ondoren, eskabidea atzera bota, neurri alternatiboak aldatzeko eskatu edo salbuesteko baimena (betiere zehatza izango dena) eman ahal izango du.

Oro har, hau da Estatu osoan zehar, erantzuteko planteatzen diren soluzio tekniko ezberdinen onarpena, industria ministroaren aginduari jarraiki, bigarren azken xedapenaren arabera egingo da.

Aplikazio-eremua:

1. Industria-establezimenduak dira arautegi honen aplikazio-eremua. Industria-establezimendutzat joko dira:

a. Industriari buruzko uztailaren 16ko 21/1992 Legearen 3. artikuluko 1. puntuko definizioaren araberako industriak.
b. Industria-biltegiak.
c. Ibilgailuak konpontzeko tailerrak eta pertsonak edo salgaiak garraiatzeko ibilgailuen aparkalekuak.
d. Aurreko paragrafoetan barne hartutako jardueren zerbitzu osagarri edo gehigarriak.

2. Gainera, edozein establezimendu-motatako biltegietan ere aplikatuko da, baldin eta horietako guztizko su-karga, I. eranskinaren arabera kalkulatuta, hiru milioi Megajoulekoa (MJ) edo hortik gorakoa baldin bada.
Era berean, arautegi hau indarrean sartu baino lehen zeuden industrietan ere aplikatuko da, baldin eta horien arrisku intrintseko mailak, egoerak edo ezaugarriek pertsona, ondasun edo ingurunean arrisku larria eragin badezakete, eta eskumena duen autonomia-administrazioak horrela ezartzen duenean.
3. Arautegi honen aplikazio-eremutik kanpo gelditzen dira: establezimendu edo instalazio nuklearretan, erradiaktiboetan edo meategietan garatzen diren jarduera, nekazaritza- eta abeltzaintzako jarduerak eta erabilera militarrerako instalazioak.
Industria-jarduerak eta artisau-tailerrak eta antzekoak ere arautegi honen aplikazio-eremutik at gelditzen dira, baldin eta horietan su-kargaren dentsitatea, I. eranskinaren arabera kalkulatuta, 10 Mcal/m^2-tik (42 MJ/m^2) gorakoa ez denean, betiere, horren azalera erabilgarria 60 m^2-koa edo hortik beherakoa denean, eta III. eranskineko 8. eta 16. ataletan jasotakoa salbuetsi gabe.

Arauen bateragarritasuna:

1. Eraikin berean, industria-jarduera eta beste titular batzuen beste erabilera batzuk garatzen direnean, eta horiei eraikuntzaren oinarrizko Araua (suteen aurka babesteko baldintzak, NBE/CPI96 edo araudi baliokidea) aplikatzen bazaie, erabilera ez industrialeko eremuek, araudi horrek eskatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte.
2. Eraikin berean, industria-jarduera eta titular beraren beste erabilera batzuk garatzen direnean, eta horiei eraikuntzaren oinarrizko Araua (suteen aurka babesteko baldintzak, NBE/CPI96 edo araudi baliokidea) aplikatzen bazaie, erabilera ez industrialeko eremuek, araudi horrek eskatzen dituen baldintzak bete beharko dituzte, ondorengo mugak gainditzen dituztean:

   a. Merkataritza-eremua: eraikitako eremua 250 m^2-tik gorakoa denean.
   b. Administrazioko eremua: eraikitako eremua 250 m^2-tik gorakoa denean.
   c. Bilera-, hitzaldi- eta proiekzio-aretoak: 100 pertsona baino gehiagorentzako eserlekuak daudenean.
   d. Artxiboak: eraikitako eremua 250 m^2-tik gorakoa edo bolumena 750 m^3-tik gorakoa denean.
   e. Taberna, kafetegia, langileen jantokia eta sukaldea: eraikitako eremua 150 m^2-tik gorakoa denean, eta aldi berean 100 pertsona baino gehiagori jaten emateko lekua dutenean.
   f. Liburutegia: eraikitako eremua 250 m^2-tik gorakoa denean.
   g. Langileen ostatu-eremuak: 15 ohe baino gehiago har ditzakeenean.

   Duten azalera dela-eta, adierazitako araudietako baldintzak bete behar dituzten eremuek, aparteko sute-sektorea jarri beharko dute.

Industria-establezimenduen karakterizazioa, suteen aurkako segurtasunari dagokionez:

1. Establezimendua.

2. artikuluan ezarritakoari jarraiki, establezimendutzat jotzen da, berariazko titulartasunpean erabiltzen den eta administrazioaren kontrolpean egiten den eraikuntza- edo erreforma-proiektua zein aurreikusitako jardueraren abiaraztea beharrezkoak dituen eraikin-multzoa, eraikina, eraikinaren eremua, instalazioa edo industria-erabilerako eremu irekia edo biltegia.

Honako ezaugarri hauen araberakoak dira industria-establezimenduak:

a. Bere ingurunearen araberako egituraketa eta kokapena.
b. Dagokion arrisku intrintseko maila.

2. Industria-establezimenduen ezaugarriak, bere ingurunearen araberako egituraketa eta kokapena dela-eta.

Industria-establezimenduek egituraketa edo kokapen ugari izan baditzakete ere, honako hauen arabera sailkatzen dira soilik:

2.1 Eraikin batean kokatutako industria-establezimenduak:

A MOTA: industria-establezimenduak eraikin baten zati bat hartzen du, eta eraikin honetan, aldi berean, hala industria-erabilerako nola beste erabilera batzuetako beste establezimendu batzuk daude.

B MOTA: industria-establezimenduak, hala industria-erabilerako nola beste erabilera batzuetako beste eraikin bati edo batzuei atxikitako, edo beste eraikin batzuetatik, beste establezimendu batetik, hiru metrora edo gutxiagora dagoen eraikin oso bat hartzen du.

Industria-establezimenduak ondoko bati atxikitako pabiloi bat hartzen badu eta egitura partekatzen badute, betiere, aparteko estalkia izanik, B motakoei dagozkien baldintzak betetzea onartuko da, baldin eta egituraren litekeen kolapsoak ondoko pabiloiei ez diela eragingo teknikoki justifikatzen bada.

C MOTA: industria-establezimenduak eraikin osoa edo, hala badagokio, eraikin bat baino gehiago hartzen ditu, eta honen edo hauen eta hurbileneko eraikinaren edo beste establezimendu batzuen artean hiru metrotik gorako tartea dago. Tarte horretan ezingo da salgai errekorrik edo sua zabal ditzaketen bitarteko elementurik egon.

2.2 Bere jarduera eraikin bat osatzen ez duten eremu irekietan garatzen duten industria-establezimenduak:

D MOTA: industria-establezimenduak eremu ireki bat hartzen du, eta erabat estalita badago ere, fatxadaren batean ez dago inolako itxiturarik.

E MOTA: industria-establezimenduak eremu ireki bat hartzen du, eta zati batez estalita egon ahal da (gehienez ere bere azaleraren %50), eta estalitako zatiaren fatxadaren batean ez dago inolako itxiturarik.

2.3 Industria-establezimendu baten edo honen zati baten karakterizazioa 2.1. eta 2.2. ataletan definitutako motaren batekin zehatz-mehatz bat ez datorrenean, zeinekin parekatu edo alderatu ahal den egiaztatu, eta antzekotasun handienak dituenaren motakoa dela ulertuko da.

Industria-establezimendu berean egituraketa ezberdinak egon daitezkeenez, bakoitzari arautegi honetako baldintzak aplikatu beharko zaizkio.

3. Industria-establezimenduen karakterizazioa, bere arrisku intrintseko maila dela-eta.

Industria-establezimenduak dagokien arrisku intrintseko mailaren arabera sailkatzen dira, irizpide erraztuak kontuan izanda eta ondoren adierazten diren prozeduren arabera.

3.1 Industria-establezimenduak, oro har, A, B, C, D eta E motako egituraketaren bat edo batzuen arabera osatuta egongo dira. Egituraketa hauetako bakoitzak, industria-establezimenduaren eremu bat edo batzuk (sute-sektoreak edo -eremuak) osatuko ditu.

1. A, B eta C motetarako, «sute-sektoretzat» jotzen da, kasuan-kasuan ezartzen den denboran zehar suarekiko erresistentzia duten elementuez itxitako eraikineko eremua.
2. D eta E motetarako ulertzen da, hartzen duten azalera «sute-eremu» irekia dela, eta dagokion perimetroak baino definitzen ez duela.

A MOTA: beste establezimendu batzuekin dagokion egitura partekatzen du

Bertikalean



Horizontalean

B MOTA



C MOTA



D eta E motak

D mota

E mota



Industria-jardueraren kokapena

3.2. Honela ebaluatuko da sute-sektore edo -eremu bakoitzari dagokion arrisku intrintseko maila:

1. Ondorengoa kalkulatuz; honek, sute-sektore edo -eremu horretako haztatu eta zuzendutako su-kargaren dentsitatea ezartzen du:

$$Q_s = \frac{\Sigma_1^i G_i q_i C_i}{A} R_a \text{ (MJ/m}^2\text{) edo (Mcal/m}^2\text{)}$$

Honako hauek esan nahi dutela:

Q_s = Sute-sektore edo -eremu horretako haztatu eta zuzendutako su-kargaren dentsitatea, MJ/m^2 edo Mcal/m^2-tan.
G_i = Sute-sektorean dagoen erregai bakoitzaren (i) (eraikuntza-material errekorrak barne) masa, Kg-tan.
q_i = Sute-sektorean dagoen erregai bakoitzaren (i) (eraikuntza-material errekorrak barne) bero-ahalmena, MJ/kg edo Mcal/kg-tan.
C_i = Sute-sektorean dagoen erregai bakoitzaren (i) arrisku-maila (errekortasunagatik) haztatzen duen koefiziente adimentsionala.
R_a = sute, ekoizpen, muntaketa, transformazio, konponketa, biltegiratze eta abarren sektorean garatzen den industria-jarduerari datxekion arrisku-maila (abiarazteagatik) zuzentzen duen koefiziente adimentsionala.

Sektore berean jarduera bat baino gehiago ematen denean, jarduera abiarazteagatik datxekion arrisku-faktoretzat hartuko da, abiarazteagatiko arrisku handiena, baldin eta jarduera horrek, gutxienez ere, sute-sektorearen edo -eremuaren %10 hartzen badu. .

A = Sute-sektorearen eraikitako azalera edo sute-sektoreak hartzen duen azalera, m^2-tan.

Erregai bakoitzaren errekortasunagatiko arrisku-koefizientearen balioak (C), produktu eta salgaien CEA Katalogoko 1.1. taulatik edo prestigio handiko antzeko tauletatik ondoriozta daitezke, azken hauen kasuan, egiaztatzerik baldin badago bakarrik.

Abiarazteagatiko arrisku-koefizientearen balioak (Ra), 1.2. taulatik ondoriozta daitezke.

Erregai bakoitzaren bero-ahalmenaren balioak (q_i), 1.4. taulatik ondoriozta daitezke.

2. Aurreko formularen alternatiba gisa, ondorengoak aplikatuz ebalua daiteke sute-sektoreko haztatu eta zuzendutako su-kargaren dentsitatea (Qs).

a. Biltegiratzea ez diren ekoizpen, eraldaketa, konponketa edo bestelako jardueretarako:

$$Q_s = \frac{\Sigma_1^i q_{si} S_i C_i}{A} R_a \text{ (MJ/m}^2\text{) edo (Mcal/m}^2\text{)}$$

Q_S, C_i , R_a eta A delakoei, 3.2.1. atalean duten esanahi berbera dagokie. qsi = sute-sektorean (i) garatzen diren prozesu ezberdinen artean prozesu bakoitza hartzen duen eremuaren su-kargaren dentsitatea, MJ/m^2 edo Mcal/m^2-tan.
Si = prozesu ezberdin bakoitza hartzen duen eremuaren azalera eta su-kargaren dentsitatea (qsi), m^2-tan.

Su-kargaren batezbesteko dentsitatearen balioak (qsi), 1.2. taulatik ondoriozta daitezke.

OHARRA: kalkulatzerakoan, ez dira zenbatuko muntaketa, eraldaketa edo konponketako ekoizpen-prozesurako metatutako edo bildutako material edo produktuak, edo prozesu horien ondorio direnak, baldin eta horiek egunero kontsumitzen badira eta «eguneko biltegia» deritzona osatzen badute. Material edo produktu hauek muntaketa, eraldaketa edo konponketako ekoizpen-prozesukotzat (hauetarako beharrezkoak edo ondorio direnak) hartuko dira, eta berorri aplikatu behar zaizkio.

b. Biltegiratze-jardueretarako:

$$Q_s = \frac{\Sigma_1^i q_{vi} C_i h_i s_i}{A} R_a \text{ (MJ/m}^2\text{) edo (Mcal/m}^2\text{)}$$

Honako hauek esan nahi dutela:

Q_S, C_i, R_a eta A delakoei, 3.2.1. atalean duten esanahi berbera dagokie.
q_{vi} = sute-sektorean dagoen biltegiratze-mota (i) desberdineko eremu bakoitzaren m^3-ko dagoen su-karga, MJ/m^3 edo Mcal/m^3-tan.
h_i = erregai bakoitzaren biltegiratze-altuera (i), metrotan.
s_i = sute-sektorean dagoen biltegiratze-mota (i) desberdineko eremu bakoitzak oinplanoan hartzen duen azalera, m^2-tan.

Erregai bakoitzak metro kubiko bakoitzeko eransten dituzten su-kargaren balioak (q_{vi}), 1.2. taulatik ondoriozta daitezke.

3.3 Eraikin bateko edo industria-establezimendu bateko sute-sektore eta/edo -eremu-multzo bateko arrisku intrintseko maila, arautegi hau aplikatzerakoan, ondorengo formula kalkulatuz ebaluatuko da. Formula honek, industria-eraikin horretako haztatu eta zuzendutako su-kargaren dentsitatea (Q_e) ezartzen du.

$$Q_e = \frac{\Sigma_1^i Q_{si} A_i}{\Sigma_1^i A_i} \text{ (MJ/m}^2\text{) edo (Mcal/m}^2\text{)}$$

Honako hauek esan nahi dutela:

Q_e = industria-eraikineko haztatu eta zuzendutako su-kargaren dentsitatea, MJ/m^2 edo Mcal/m^2-tan. Q_{si} = industria-eraikina osatzen duten sute-sektore edo -eremu (i) bakoitzeko haztatu eta zuzendutako su-kargaren dentsitatea, MJ/m^2 edo Mcal/m^2-tan.
A_i = industria-eraikina osatzen duten sute-sektore edo -eremu bakoitzean eraikitako azalera, m^2-tan.

3.4 Arautegi honen ondorioetarako, industria-establezimendu bateko arrisku intrintseko maila, jarduera barruti berean kokatutako eraikin batean baino gehiagotan garatzen duenean, ondorengo formula kalkulatuz ebaluatuko da. Formula honek industria-establezimendu horretako haztatu eta zuzendutako su-kargaren dentsitatea (Q_E) ezartzen du.

$$Q_E = \frac{\Sigma_1^i Q_{ei} A_{ei}}{\Sigma_1^i A_{ei}} \text{ (MJ/m}^2\text{) edo (Mcal/m}^2\text{)}$$

Honako hauek esan nahi dutela:

Q_E = Industria-establezimenduko haztatu eta zuzendutako su-kargaren dentsitatea, MJ/m^2 edo Mcal/m^2-tan.
Q_{ei} = Industria-establezimendua osatzen duten industria eraikin bakoitzeko (i) haztatu eta zuzendutako su-kargaren dentsitatea, MJ/m^2 edo Mcal/m^2-tan.
A_{ei} = Industria-establezimendua osatzen duten industria eraikin bakoitzean (i) eraikitako azalera, m^2-tan.

3.5 Industria-eraikin (Q_e) edo industria-establezimendu (Q_E) bateko sute-sektore edo -eremu (Q_S) bateko haztatu eta zuzendutako su-kargaren dentsitatea, hurrenez hurren, 3.2., 3.3. eta 3.4. ataletan azaldutako edozein prozeduraren arabera ebaluatu ostean, industria-eraikineko edo industria-establezimenduko sute-sektore edo -eremuko arrisku intrintseko maila, 1.3. taulatik ateratzen da.

3.6 Arrisku intrintsekoa ebaluatzeko, orobat, prestigio handiko ebaluazio-metodoak ere erabil daitezke; horrelakorik hautatzekotan, proiektuan erabilitako metodoa justifikatu beharko da.

1.3 TAULA

Arrisku intritseko maila		Haztatu eta zuzendutako su-kargaren dentsitatea	
		Mcal/m²	**MJ/m²**
Txikia	1	$Q_s \leq 100$	$Q_s \leq 425$
	2	$100 < Q_s \leq 200$	$425 < Q_s \leq 850$
Bitartekoa	3	$200 < Q_s \leq 300$	$850 < Q_s \leq 1.275$
	4	$300 < Q_s \leq 400$	$1.275 < Q_s \leq 1.700$
	5	$400 < Q_s \leq 800$	$1.700 < Q_s \leq 3.400$
Handia	6	$800 < Q_s \leq 1.600$	$3.400 < Q_s \leq 6.800$
	7	$1.600 < Q_s \leq 3.200$	$6.800 < Q_s \leq 13.600$
	8	$3.200 < Q_s$	$13.600 < Q_s$

Instalazioak suteen aurka babesteko Arautegia (1942/1993 Errege Dekretua eta Prozedura eta Garapen Arauei buruzko 1998ko apirilaren 16ko Agindua).

Suteen aurka babesteko erabilitako aparatuek, ekipoek eta sistemek, zein beren instalazioak edo mantentzeak bete behar dituzten baldintzak ezarri eta definitzea da Arautegi honen helburua.

Behar bezala baimendutako instalatzaile batek instalatu beharko ditu Arautegi honek barne hartzen dituen aparatu, ekipo, sistema eta horien osagaiak, su-itzalgailu eramangarriak izan ezik, eta dagokion Autonomia Erkidegoak, berriz, baimendutako instalatzaileak jasoko dituen Erregistro liburu bat kudeatu beharko du.

Behar bezala baimendutako mantentzaileek mantendu eta konponduko dituzte suteen aurka babesteko erabiltzen diren aparatu, ekipo, sistema eta horien osagaiak, eta dagokion Autonomia Erkidegoak, berriz, baimendutako mantentzaileak jasoko dituen Erregistro liburu bat kudeatu beharko du.

SUTEEN AURKAKO INSTALAZIOEN GUTXIENEKO MANTENTZEA

1. Suteen aurka babesteko baliabide materialak, I. eta II. tauletan azaltzen diren gutxieneko mantentze-programaren menpe egongo dira.
2. I. taulan jasotako mantentze-lanak, baimendutako instalatzaile edo mantentzaile baten langileek egingo dituzte, edo bestela, instalazioaren erabiltzaile edo titularraren langileek.
3. II. taulan jasotako mantentze-lanak, fabrikatzailearen edo dagozkion aparatu, ekipo edo sistema-mota bakoitzerako baimendutako instalatzaile edo mantentzailearen langileek egingo dituzte, edo bestela, erabiltzailearen langileek, baldin eta Autonomia Erkidegoko industria-arloan eskumena duten zerbitzuen aburuz, baliabide tekniko egokiak izateagatik, mantentzailetzat jotzen bada.
4. Kasu guztietan, hala mantentzaileak nola instalazioaren erabiltzaileak edo titularrak, prebentzioko mantentze-programa betetzen dela egiaztatzeko dokumentuak izango dituzte, eta horietan, gutxienez ere, honako hauek adierazi beharko dituzte: egindako eragiketak, egiaztapen eta proben emaitzak eta matxuratutako zein elementu ordeztu diren. Egunean eraman beharko dira oharpenak eta dagokion Autonomia Erkidegoko ikuskaritza-zerbitzuen eskura egongo dira.

Suteen aurka babesteko baliabide materialak mantentzeko programa

I. TAULA. Baimendutako enpresa mantentzaile batek, edo bestela, instalazioaren erabiltzaile edo titularraren langileek egin beharreko eragiketak

Ekipo edo sistema	HIRU HILEZ BEHIN	SEI HILEZ BEHIN
Suteak detektatu eta ohartarazteko sistema automatikoak.	Instalazioen funtzionamendua egiaztatzea (hornidura-iturri bakoitzarekin). Pilotu, fusible, etab. akastunak ordezkatzea. Metagailuak mantentzea (borneak garbitzea, ur destilatua berrezartzea, etab.).	
Suteen eskuzko alarma-sistema.	Instalazioen funtzionamendua egiaztatzea (hornidura-iturri bakoitzarekin). Metagailuak mantentzea (borneak garbitzea, ur destilatua berrezartzea, etab.).	
Su-itzalgailuak.	Irisgarritasuna, seinaleak, itxurazko kontserbazio-egoera egiaztatzea. Aseguru, prezintu, inskripzio eta abarren begizko ikuskapena. Pisua eta, hala badagokio, presioa egiaztatzea. Zati mekanikoen (pita, balbula, mahuka, etab.) kanpoaldeko itxurazko egoeraren begizko ikuskapena.	
Suteetako ur-hartune ekipatuak (BIE).	Ekipoetara trabarik gabe heltzen dela eta seinaleak ondo daudela egiaztatzea. Ikuskatuz osagai guztiak egiaztatzea. Horretarako, mahuka erabat zabaldu eta pitari eragingo zaio, baldin eta posizio bat baino gehiagao badu. Manometroa irakurriz, zerbitzuaren presioa egiaztatzea. Multzo osoa garbitzea eta armairuko ateen itxigailuak eta bandak koipeztatzea.	Balbulei eragin eta horiek koipeztatzea. Iztupa-prentsa egiaztatu eta doitzea. Karga ezberdinak dituzten motorren abiadura egiaztatzea. Elikadura elektrikoa, lineak eta babesak egiaztatzea.
Suteetako ur-hartune ekipatuak (BIE).	Ekipoetara trabarik gabe heltzen dela eta seinaleak ondo daudela egiaztatzea. Ikuskatuz osagai guztiak egiaztatzea. Horretarako, mahuka erabat zabaldu eta pitari eragingo zaio, baldin eta posizio bat baino gehiagao badu. Manometroa irakurriz, zerbitzuaren presioa egiaztatzea. Multzo osoa garbitzea eta armairuko ateen itxigailuak eta bandak koipeztatzea.	
Sute-ahoak.	Ingurunean trabarik dagoen eta lurperatutako sute-ahoen seinaleak egiaztatzea. Begizko ikuskapena, multzoaren estankotasuna egiaztatuz. Irteeretako estalkiak kendu, hariak koipeztatu eta errakorren junturen egoera egiaztatzea.	Eragiteko azkoina koipeztatzea edo horren olio-ganbera betetzea. Sute-ahoa ireki eta ixtea, balbula nagusiak eta drainadura-sistemak behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatuz.

Ekipo edo sistema	HIRU HILEZ BEHIN	SEI HILEZ BEHIN
Tutu lehorrak.		Kaletiko sarreratik eta pisuetako hartuneetara trabarik gabe iristen dela egiaztatzea. Seinaleak egiaztatzea. Estalkiek eta horien itxigailuek ondo funtzionatzen dutela egiaztatzea (beharrezkoa izanez gero, koipeztatzea). Konexio siamdarren giltzak itxita dauden egiaztatzea. Sekzionamenduko giltzak irekita dauden egiaztatzea. Errakorren estalki guztiak ondo jarrita eta doituta dauden egiaztatzea.
Itzaltzeko sistema finkoak: • Ur-ihinztagailuak. • Ur ihinztatua. • Hautsa. • Aparra. • Agente itzaltzaile gaseosoak.	Agente itzaltzailearen edo ihinztagailuen pitak egoera onean dauden eta behar bezala funtzionatzeko trabarik ez duten egiaztatzea. Sistemaren, eta bereziki, balbularen osagaiak, edo hauts zein agente itzaltzaile gaseosoen sistemaren instalazioaren eskuzko aginteak egoera onean dauden egiaztatzea. Daudenetan, hauts, anhidrido karboniko edo hidrokarburo halogenatuen sistemen instalazioko eta gas harrotzailearen botiletako karga egiaztatzea Kontrol-adierazleak dituzten sistemen seinaleztapen-zirkuituak, pilotuak, etab. egiaztatzea. Osagai guztien garbiketa orokorra.	

II TAULA. Fabrikatzailearen edo ekipo edo sistemaren enpresa instalatzailearen langile espezializatuek edo baimendutako mantentze-enpresako langileek egin beharreko eragiketak

Ekipo edo sistema	URTEAN BEHIN	BOST URTEZ BEHIN
Suteak detektatu eta ohartarazteko sistema automatikoak.	Instalazio osoa egiaztatzea. Ekipo nagusia eta osagaiak garbitzea. Hariztatu edo soldatutako junturak egiaztatzea. Erreleak garbitu eta doitzea. Tentsioak eta intentsitateak erregulatzea. Alarma transmititzeko ekipoak egiaztatzea. Instalazioaren azken proba, hornidura elektrikoaren iturri bakoitzarekin.	
Suteen eskuzko alarma-sistema.	Instalazio osoa egiaztatzea. Osagaiak garbitzea. Hariztatu edo soldatutako junturak egiaztatzea. Instalazioaren azken proba, hornidura elektrikoaren iturri bakoitzarekin.	
Su-itzalgailuak	Pisua eta, hala badagokio, pisua egiaztatzea. Bultzatzeko gas-botilatxoa daramaten hautsezko su-itzalgailuen kasuan, agente itzaltzailea egoera onean dagoela eta botilatxoaren pisua eta kanpoko itxura egiaztatuko dira. Mahuka, ahoko, balbula eta zati mekanikoen egoeraren begizko ikuskapena. Oharra: Urteko azterketa honetan, ez da beharrezkoa izango etengabeko presiozko hautsa daramaten su-itzalgailu eramangarriak irekitzea, aipatutako egiaztapenetan justifikatzen duen anomaliarik antzeman ez badira, behintzat. Su-itzalgailua irekitzekotan, enpresa mantentzaileak horren kanpoaldean, aparatuaren barne-azterketa egin dela egiaztatuko duen sistema adierazleren bat jarriko da. Su-itzalgailua ireki eta horren barne-azterketa egin dela adierazteko sistema gisa, eraztun-formako etiketa ezabaezin bat jar daiteke botila-lepoan itzalgailuaren itxigailua baino lehen, berori apurtu edo hondatu gabe botila irekitzerik egon ez dadin.	Itzalgailua zigilatu zen egunetik aurrera (eta hirutan), su-itzalgailuei buruzko presiozko aparatuen Arautegiko ITC-MIE-AP5 jarraibidearen arabera berriro zigilatzea. Onartezinak: Ez dira onartuko, enpresa mantentzailearen aburuz, itzalgailuaren behar bezalako funtzionamendua eta segurtasuna zalantzatan jartzen dituzten itzalgailuak, edo bestela, horietarako fabrikazio-baldintzak bermatzen dituzten jatorrizko piezarik ez badaude.

Ekipo edo sistema	URTEAN BEHIN	BOST URTEZ BEHIN
Suteen aurkako uraren hornidura-sistemak	Fabrikatzailearen jarraibideak betez, motor eta ponpen mantentze-lan sorta. Ur-hornidurako zikinkeriak geldiarazteko iragazki eta elementuak garbitzea. Fabrikatzailearen jarraibideak betez, bateria eta elektrolitoaren kargaren egoera probatzea. Proba, jaso zenaren baldintzetan, hornidura-kurbak eginez ur- eta energia-iturri bakoitzarekin.	
Suteetako ur-hartune ekipatuak (BIE).	Mahuka desmuntatu eta leku egoki batean probatzea. Pitak posizio ezberdinetan eta ixteko sistemak behar bezala funtzionatzen duten egiaztatzea. Errakorren junturak, mahuka eta junturen egoera egiaztatzea. Manometroak, mahukaren konexio-errakorrari lotutako erreferentziazko beste batekin (patroia) erkatuz, ondo adierazten duen egiaztatzea.	15 kg/cm2-ko presiopean probatuko da mahuka.
Itzaltzeko sistema finkoak: • Ur-ihinztagailuak. • Ur ihinztatua. • Hautsa. • Aparra. • Agente itzaltzaile gaseosoak.	Fabrikatzaile edo instalatzailearen jarraibideak betez, sistema osoa egiaztatzea, honako hauek barne hartuz: Sistemaren osagaiak egiaztatzea, eta bereziki, jaurtiketa eta alarmako gailuak. Agente itzaltzailearen karga eta horren (pisu eta presioaren neurri alternatiboa) adierazgailua egiaztatzea. Agente itzaltzailearen egoera egiaztatzea. Instalazioa jaso zenean zituen baldintzetan dagoen probatzea.	

NBE-CPI/96 Eraikuntzaren Oinarrizko Araua, Eraikinetako Suteen aurka Babesteko Baldintzak (2177/1996 Errege Dekretua). Eraikuntzaren Kode Teknikoa onartu zuen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak indargabetu zuen.

Oinarrizko arau honek, eraikinek ondokoetarako bete behar dituzten baldintzak ezartzen ditu: sute batek sortutako arriskuen aurrean bertan daudenak babesteko, suteak sorburu izan duen eraikin edo establezimendutik gertu dauden eraikin edo establezimenduetako kalteak prebenitzeko eta suhiltzaileen eta erreskateko ekipoen esku hartzea, haien segurtasuna kontuan hartuta, errazteko.

Aplikazio-eremua.

1. Oinarrizko arau hau eraikuntza berriko, eraikin eta establezimenduen erreformarako, edo horien erabilera-aldaketarako proiektu eta obrei aplikatu behar zaie. Industria-erabilerakoak ez ditu barne hartzen.
   Askatasunaz gabetutako edo muga fisiko edo psikikoak dituzten pertsonak hartzeko eremuetan, ez dira arau honetako baldintzak aplikatuko, baldin eta egoera horiekin bateraezinak baldin badira, eta horien ordez, 3.3. atalaren araberako baldintza alternatiboak aplikatuko dira.
2. Oinarrizko arau hau aplikatzerakoan, baldintza orokorrak zein eraikin edo establezimenduaren erabilerari dagozkion baldintza bereziak beteko dira.
3. Erabilera-aldaketa batek eraikin edo establezimendu bateko zati bati baino eragiten ez dionean, oinarrizko araua hau bere proiektu eta bere obrari aplikatuko zaizkie, eta baita ebakuatzeko baliabideei ere. Arau honen arabera, azken hauek zati horretarako balio beharko dute, baliabide horiek bertan dauden ala ez kontuan hartu gabe.
4. Erabilera mantentzen duten erreforma-obretan, oinarrizko arau hau eraikuntza-elementuei eta erreformaren ondorioz aldatutako suaren kontrako babes-instalazioei aplikatuko zaie, betiere, oinarrizko arau honetan ezarritako segurtasun-baldintzekiko egokitze-maila handiagoa baldin bada.
   Erreformak ebakuazio-elementuen kokapena eta banaketa eraldatzen baditu, horietan aplikatu beharko da oinarrizko araua. Erreformak suteen auraka babesteko instalazioen euskarri diren eraikuntza-elementuei edo horien osagaiak banatuta dauden eremuei eragiten badie, instalazio horiek oinarrizko arau honetan ezarritakora egokitu beharko dira.
   Nolanahi ere, erreforma-obrek ezingo dute aurrez zeuden baldintzak murriztu, baldin eta hauek, eraikuntza berriko obra baterako oinarrizko arauan ezarritakoak bezain zorrotzak ez badira.

Eraikuntzaren Kode Teknikoa (314/2006 Errege Dekretua)

Helburua:

1. Eraikuntzaren Kode Teknikoa (aurrerantzean, CTE), Eraikuntzaren Antolamenduari (aurrerantzean, LOE) buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen bigarren xedapen gehigarria garatuz, eraikinek eta bertako instalazioek, oinarrizko segurtasun- eta bizigarritasun-baldintzak betetzeko, bete behar dituzten kalitatezko oinarrizko eskakizunak arautzen dituen araudi-esparrua da.
2. CTEk oinarrizko eskakizun horiek ezartzen ditu oinarrizko baldintza bakoitzaren inguruan, hots: «egituraren segurtasuna», «sute aurreko segurtasuna», «erabiltzeko segurtasuna», «higienea, osasuna eta ingurumenaren babesa», «zarataren aurkako babesa» eta «energia aurreztea eta isolamendu termikoa». Hauek guztiak, LOEren 3. artikuluak ezartzen ditu, eta hori betetzen dela nahikoa berme teknikoez egiaztatzeko prozedurak ematen ditu.
3. «Funtzionalitate» eta eraikuntza-elementuen funtzio-alderdiei buruzko oinarrizko baldintzak, berariazko araudiaren arabera arautuko dira.
4. Oinarrizko baldintzak, eraikinen eta bertako instalazioen proiektuan, eraikuntzan eta mantentzen eta zaintzan bete behar dira.

Aplikazio-eremua:

1. CTEa, LOEn ezarritako terminoen arabera eta horietan ezartzen diren mugekin aplikatuko zaizkie, eraikuntza publiko eta pribatuei, baldin eta horien proiektuak legez eska daitekeen dagokion lizentzia edo baimena izatea exijitzen badute.
2. CTEa eraikuntza berriko eraikuntza-obrei aplikatuko zaizkie, ez ordea, teknikoki errazak eta eraikuntzak garrantzi txikikoa duten eraikuntzei, baldin eta hauek behin-behineko zein behin betiko egoitzarako izaera edo izaera publikoa ez badute, solairu bakar bat batean garatzen badira eta pertsonen segurtasunari eragiten ez badiote.
3. Era berean, aurrez dauden eraikinak handitu, aldatu, erreformatu edo zaharberritzeko egiten diren obrei ere aplikatuko zaizkie CTEa, baldin eta obra horiek esku-hartzearen izaerarekin eta, hala badagokio, eragindako eraikinek izan dezaketen babes-mailarekin bat badatoz. Proiektuan egiaztatu beharko da aplikatzea bateraezina denean eta, hala badagokio, teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren neurri alternatiboen bitartez konpentsatu.
4. Horretarako, zaharberritze-obratzat joko dira, ondorengo ondorioren bat lortzera zuzendutako jarduketak egitea xede dutenak:

   a. Egituraren egokitzapena; egituraren egokitzapentzat eraikinari eraikuntza-segurtasuneko baldintzak eransten dizkioten obrak ulertuta, eraikinaren egonkortasun eta erresistentzia mekanikoa bermatuta gera dadin.
   b. Egokitzapen funtzionala; egokitzapen funtzionaltzat ulertzen da, CTE honek barne hartzen dituen oinarrizko baldintzei dagokienez, eraikinari baldintza hobeak eransten dizkioten obrak egitea. Dena dela, eraikinen egokitzapen funtzionaleko obratzat jotzen dira, indarrean dagoen araudiari jarraiki, oztopoak kendu eta irisgarritasuna sustatzea helburu duten jarduketak.
   c. Etxebizitzarako erabilitako azalera edo etxebizitza-kopurua aldatzea xede duen etxebizitza-eraikin baten birmoldaketa, edo etxebizitzarik gabeko eraikin baten birmoldaketa, baldin eta obren helburua etxebizitzak sortzea bada.

5. Obra bat zaharberrikuntza integrala egiteko dela ulertuko da, atal honetan deskribatutako helburu guztiak egitera zuzendutako jarduketak barne hartzen dituenean.
   Proiektatutako obrak adierazitako zein aukeratan edo zeintzuetan inskribatu daitezkeen eta hauek aurrez zegoen egiturari eragiten dioten jarduketarik barne hartzen dituzten adierazi beharko du proiektugileak memorian; horrelakorik ezean, obrek LOEren 17.1.a) artikuluan aipatutako kalte-arriskua ez dutela ulertuko da.
6. Dena delakoan, CTEak barne hartzen dituen oinarrizko eskakizunak betetzen direla egiaztatu beharko da, dauden eraikinen berezko erabilera aldatu nahi denean, horrek ezinbestez obrak egitea ez eskatu arren.
7. LOEren 2. artikuluan xedatutakoa bete beharko du eraikin eta bere eremuen sailkapenak; hala ere, kasu jakin batzuetan, CTE honen Oinarrizko Dokumentuetan, helburu duten jardueraren berariazko ezaugarrien arabera sailkatu hala izango dira eraikinak eta bertako aretoak, oinarrizko betekizunak jarduera horiei lotutako litezkeen arriskuetara egokitzeko. Eraikin edo eremuaren berezko jarduera aurreikusitako sailkapenen artean ez dagoenean, antzekotasunez, ezarritakoren bat aukeratuko da, edo bestela, berezko jarduera horri lotutako arriskuaren berariazko azterketa egingo da, arriskua ebaluatzeko ondorengo faktore eta irizpideetan oinarrituta:

   a. Erabiltzaileek egingo dutela aurreikusten diren jarduerak.
   b. Erabiltzaileen ezaugarriak.
   c. Horiek bete, bisitatu, erabili edo lan egiteko erabili ohi duten pertsona-kopurua.
   d. Adinagatik (haur eta adinekoak) edo ezgaitasun fisiko, zentzumenezko edo psikiko edo erabakiak hartzeko, eraikinetik irteteko edo aurakako egoerak jasateko gaitasunari eragin diezaiokeen beste ezgaitasunen bat izateagatiko urrakortasuna edo babes bereziaren beharra.
   e. Eraikin eta bertako ebakuazio-bideen ezagutze-maila.
   f. Erabili ohi den denbora eta maiztasuna.

g. Aurreikusitako edukien ezaugarriak.
h. Aparteko egoeretan egon daitekeen arriskua; eta
i. Eraikinaren babes-maila.

Lehen xedapen iragankorra. Eraikuntzaren Kode Teknikoa aplikatzeko beharrik ez duten eraikuntzak.

Eraikuntzaren Kode Teknikoa ez zaie aplikatuko eraikuntza berriko obrei eta dauden eraikinen obrei, baldin eta azken hauek, honako Errege Dekretu hau indarrean sartzean, eraikuntza-lizentzia eskatuta badute.

Bigarren xedapen iragankorra. Eraikuntzaren Kode Teknikoaren aurreko araudia aplikatzeko erregimena.

Aplikazio iragankorreko ondoren erregimena ezartzen da aipatzen diren xedapenetarako, errege dekretu honen xedapen indargabetzaileak espresuki indargabetzearen kaltetan gabe:

1. Errege Dekretu hau indarrean sartu eta hurrengo sei hilabeteetan, ondorengo xedapen hauek aplikatzen jarraitu ahal izango da:

   a. 2429/1979 Errege Dekretua, uztailaren 6koa, «Eraikinen baldintza termikoak» NBE CT-79 Eraikuntzaren Oinarrizko Araua onartzen duena.
   b. 2177/1996 Errege Dekretua, urriaren 4koa, «Eraikinetan suteen aurka babesteko baldintzak» CPI-96 Eraikuntzaren Oinarrizko Araua onartzen duena.

2. Errege Dekretu hau indarrean sartu eta hurrengo hamabi hilabeteetan, ondorengo xedapen hauek aplikatzen jarraitu ahal izango da:

   a. 1370/1988 Errege Dekretua, azaroaren 11koa, «Eraikuntzako Ekintzak» MV-1962 Araua zati batez aldatu eta «Eraikuntzako Ekintzak» NBE AE-88 izendapena ematen diona.
   b. 1723/1990 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, «Eraikuntzako Ekintzak» MV-1962 Araua zati batez aldatu eta «Eraikuntzako Ekintzak» NBE AE-88 izendapena ematen dion azaroaren 11ko 1370/1988 Errege Dekretuarekin batera aplikatzen den «Adreiluzko fabrikako horma gogorrak» NBE FL-90 Oinarrizko Araua onartzen duena.
   c. 1829/1995 Errege Dekretua, azaroaren 10ekoa, Errege Dekretua, abenduaren 20koa, «Eraikuntzako Ekintzak» MV-1962 Araua zati batez aldatu eta «Eraikuntzako Ekintzak» NBE AE-88 izendapena ematen dion azaroaren 11ko 1370/1988 Errege Dekretuarekin batera aplikatzen den «Eraikuntzako altzairuzko egiturak» NBE EA-95 Eraikuntzaren oinarrizko araua onartzen duena.
   d. Industria Ministroaren Agindua, 1975eko abenduaren 9koa, «Ur-hornidurako barruko instalazioetarako oinarrizko arauak» onartzeko dena.

3. Aipatutako epealdi iragankor bakoitzean zehar, horiei buruzko arauzko xedapenak aplikatzea edo onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoan kasu bakoitzaren inguruan jasotako aurreikuspen berriak aplikatu ahal izango dira aukeran.

Hirugarren xedapen iragankorra. Eraikuntzaren Kode Teknikoa aplikatzeko erregimena.

Eraikuntzaren Kode Teknikoan jasota daudela aipatutako oinarrizko eskakizunak aplikatzeko ondorengo erregimen iragankorra ezartzen da, Errege Dekretu hau indarrean sartzeari buruzko hirugarren azken xedapenean aurreikusitakoaren kaltetan gabe.

1. Errege Dekretu hau indarrean sartu eta hurrengo sei hilabeteetan, ondorengo Oinarrizko Dokumentuetan garatutako oinarrizko eskakizunak aplikatu ahal izango dira:

   a. «DB SI Sute aurreko segurtasuna».
   b. «DB SU Erabiltzeko segurtasuna».
   c. «DB HE Energia aurreztea». Bigarren xedapen iragankorreko 1.a) atalean aipatutako xedapena aplikatzea aukeratu denean, derrigorrez aplikatu beharko da Eskaria mugatzeko HE 1 oinarrizko eskakizuna.

2. Errege Dekretu hau indarrean sartu eta hurrengo hamabi hilabeteetan, ondorengo Oinarrizko Dokumentuetan garatutako oinarrizko eskakizunak aplikatu ahal izango dira:

   a. «DB SE Egituraren segurtasuna».
   b. «DB SE-AE Eraikuntzako ekintzak».
   c. «DB SE-C Zimenduak»; honako hau «DB SE Egituraren segurtasuna» eta «DB SE-AE Eraikuntzako ekintzak» dokumentuekin batera aplikatzen da.
   d. «DB SE-A Altzairua» honako hau «DB SE Egituraren segurtasuna» eta «DB SE-AE Eraikuntzako ekintzak» dokumentuekin batera aplikatzen da.
   e. «DB SE-F Fabrika» honako hau «DB SE Egituraren segurtasuna» eta «DB SE-AE Eraikuntzako ekintzak» dokumentuekin batera aplikatzen da.
   f. «DB SE-M Egurra» honako hau «DB SE Egituraren segurtasuna» eta «DB SE-AE Eraikuntzako ekintzak» dokumentuekin batera aplikatzen da.
   g. «DB HS Osasungarritasuna». Bigarren xedapen iragankorreko 2.d) atalean aipatutako xedapena aplikatzea aukeratu denean, derrigorrez aplikatu beharko da ur-horniduraren inguruko HE 4 oinarrizko eskakizuna.

3. Aipatutako epealdi iragankorrak amaitutakoan, Eraikuntzaren Kode Teknikoan jasotako eta bakoitzari dagozkion arauzko xedapenak aplikatu beharko dira, ezinbestean.

Laugarren xedapen iragankorra. Obrak hastea.

Aurreko xedapen iragankorren babespean eraikuntza-lizentzia jasotzen duten proiektuetako obra guztiak, gehienez ere hiru hilabeteko epean hasi beharko dira, lizentzia ematen den egunetik kontatzen hasita. Horrela ezean, proiektuek eskakizun berrietara egokitu beharko dira.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.

1. Errege Dekretu hau indarren sartzen denetik, ondorengo arauak indargabetuta geldituko dira:

   a. 1650/1977 Errege Dekretua, ekainaren 10eko, Eraikuntzaren Araudiari buruzkoa.
   b. 2429/1979 Errege Dekretua, 2429/1979 Errege Dekretua, uztailaren 6koa, «Eraikinen baldintza termikoak» NBE CT-79 Eraikuntzaren Oinarrizko Araua onartzen duena.
   c. 1370/1988 Errege Dekretua, azaroaren 11koa, «Eraikuntzako Ekintzak» MV-1962 Araua zati batez aldatu eta «Eraikuntzako Ekintzak» NBE AE-88 izendapena ematen diona.
   d. 1572/1990 Errege Dekretua, azaroaren 30ekoa, «Material bituminosozko estalkiak» NBE QB-90 Eraikuntzaren Oinarrizko Araua eta NBE QB-90 Oinarrizko Arauaren «Erreferentziazko UNE arauak» eranskina eguneratze duen 1966ko uztailaren 5eko Sustapen Ministerioaren Agindua onartzeko dena.
   e. 1723/1990 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, «Adreiluzko fabrikako horma gogorrak» NBE FL-90 Eraikuntzaren Oinarrizko Araua onartzen duena.
   f. 1829/1995 Errege Dekretua, azaroaren 10ekoa, «Eraikuntzako altzairuzko egiturak» NBE EA-95 Eraikuntzaren oinarrizko araua onartzen duena.
   g. 2177/1996 Errege Dekretua, urriaren 4koa, «Eraikinetan suteen aurka babesteko baldintzak» CPI-96 Eraikuntzaren Oinarrizko Araua onartzen duena.
   h. Industria Ministroaren Agindua, 1975eko abenduaren 9koa, «Ur-hornidurako barruko instalazioetarako oinarrizko arauak» onartzeko dena.
   i. Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Poliziaren Araudi Orokorra onetsi zuen abuztuaren 27ko 2816/1982 Errege Dekretuaren 2.etik 9. artikulura (biak barne) eta 20.etik 23. artikulura (biak barne), 20. artikuluko 2. atala eta 22. artikuluko 3. atala izan ezik.

2. Halaber, indargabetuta gelditzen dira maila bereko edo txikiagoko xedapenak, Errege Dekretu honetan ezarritakoaren aurkakorik diotenean.

3	Enpresaburuak lanpostu bakoitzerako NBEak ezartzen ditu, beharrezko NBEak aukeratzen ditu, eta aukeratzeko erabilitako baldintzak aldatzen diren bakoitzean egindako aukera aztertzen du.	773/1997 ED (3,4)	- Arriskuen ebaluazioak ezartzen ditu: zein lanpostutan erabili behar den norberaren babeserako ekipoak, zein arriskuren aurrean babestu behar den, babestu beharreko gorputz-atalak eta erabili beharreko norberaren babeserako ekipoa edo ekipoak. - NBEak erabili behar direla ezarri aurretik, prebentzioaren lehenengo printzipioari jarraiki, analisi bat egin beharko da, arriskuak jatorrian ezabatu edo murrizteko litezkeen aukerak bilatzeko. Analisi hau egiteko laguntza, EDaren III. eranskinera jo daiteke, bertan, NBEak erabiltzea beharrezkotzat izan dezaketen jarduera edo jarduera-sektoreen zerrenda jaso baita. - Bere erabilera ondorioztatzen duten arriskuen aurrean babes eraginkorra eskaintzen dutela kontuan hartuta aukeratzen ditu NBEak, beraiek bakarrik ezer suposatu gabe edo beharrezkoak ez diren arrisku edo eragozpenak sortu gabe (lanlekuko baldintzen araberakoak dira; kontuan dituzte baldintza anatomiko eta fisiologiak eta langilearen osasun-egoera; beharrezko doikuntzak egin ondoren, eramailearen arabera egokitzen dira). - NBEak aukeratzen ditu kontuan izanda arrisku bat baino gehiago izatekotan, aldi berean NBE bat baino gehiago eraman behar direla, hauek elkarren artean bateragarriak direla eta dagokion arriskuaren edo arriskuen aurrean bere eraginkortasuna gordetzen dutela. - NBEek merkaturatzeari buruzko dagokion legeria betetzen dute. - NBEak aukeratzerakoan, beste modu batera behar beste galarazi edo murriztu ez diren arriskuak aztertu eta ebaluatzen dira; NBEek dagokien eginkizuna betetzeko izan behar dituzten ezaugarriak definitzen dira, kontuan izanda arriskuen nolakotasuna eta garrantzia, eta NBEek eurek edo horien erabilerak suposa ditzaketen arrisku-faktore gehigarriak; merkatuan dauden NBEen ezaugarriak gorago definitutakoekin alderatzen dira. - Enpresa edo lanlekuan eskuragarri dute aukeratutako NBEei buruzko informazioa. - NBE bakoitzari buruzko informazioa ematen du. - NBEak aukeratzerakoan, erabili behar dituen langilearen ezaugarriak izaten dira kontuan.	- Arriskuen ebaluazioa. - NBEak erabili beharrean aukerarik dagoen aztertzeko analisia. - NBE ezberdinei buruzko informazioa. - Merkatuan dauden NBEen artean egindako azterlana, horien ezaugarriak alderatuz, eta lanposturako horiek aukeratzeko arrazoiak azalduz. - Lanpostu bakoitzerako beharrezkoak diren NBEen zerrenda. - NBEek izan behar dituzten ezaugarrien zerrenda. - Lanpostu bakoitzerako aukeratutako NBEen zerrenda. - Langile bakoitzari emandako NBEen zerrenda. - NBEen jarraibideen eskuliburuak.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
4	Enpresaburuak dohainik ematen dizkie langileei erabili behar dituzten NBEak eta beharrezkoa denean beste bat ematen die.	LAPL (17) 773/1997 ED (3, 4 ,5, 6)	- Enpresaburuak langileei ematen dizkie beren jarduerei egokitutako NBEak, egindako lanek hala eskatzen dutenean. NBEak erabiltzen dira arriskuak ezin direnean galarazi edo babes kolektiboko baliabide teknikoen bidez edo lanaren inguruko neurri, metodo eta antolaketa-prozeduren bidez ezin direnean murriztu. - Enpresaburuek jaramon egiten diote langileek NBEen erabiltzean hautemandako akats, anomalia edo kalteei buruz emandako edozein informaziori.	- Langileak NBEa jaso duela egiaztatzeko agiria edo idazkia sinatuta. - NBEak aukeratzeko antolaketa-prozedurak (erosteko baldintzen pleguan, legeak ezartzen dituen baldintza aplikagarriak jaso behar dira), baldintzak betetzen direla egiaztatuz.	1			
5	Enpresaburuak NBEak behar bezala erabiltzen direla zaindu eta NBEak baldintzen arabera mantentzen direla egiaztatzen du.	773/1997 ED (3, 7)	- Fabrikatzailearen jarraibideen arabera erabili, biltegiratu, garbitu, desinfektatu (beharrezkoa denean) eta konpontzen dira NBEak. - NBEak aurreikusitako jardueretarako erabiltzen dira, eta erabilera pertsonalekoak dira. Pertsona batek baino gehiagok erabiltzen baditu, neurriak hartzen dira erabiltzaile ezberdinengan ez dadin osasun- edo higiene-arazorik sortu. - NBE bat nola erabili behar den, eta bereziki, zenbat denbora eraman behar den, honako hauen arabera ezarriko da: arriskuaren larritasun-maila, arriskupean ematen den denbora edo maiztasuna, lanpostuaren baldintzak, ekipoaren beraren ezaugarriak, eta ekipoak erabiltzeak ekar ditzakeen eta galarazi ezin diren arrisku osagarriak. - Segurtasun-ikuskapenetan NBEak behar bezala erabiltzen direla egiaztatzen da, eta baita horiek antolatuta, ordenan eta garbi dauden ere. - Enpresaburuak NBEen erabilera eraginkorra dela zaintzen du, lanen nolakotasuna dela-eta, beharrezkoak direnean.	- NBEen jarraibideen eskuliburuak. - Arriskuen ebaluazioa. - Segurtasun Ikuskapena.	3			
6	Enpresaburuak, NBEak erabiltzen hasi baino lehen, hauek zein arriskuetatik babesten dituzten jakinarazten die langileei, eta baita zein jarduera edo egoeratan erabili behar dituzten.	773/1997 ED (8)	- Langileek erraz ulertzen dituzte informazioak.	- Arriskuen ebaluazioa.	3			
7	Enpresaburuak, NBEak behar bezala erabili eta mantentzeko jarraibideak ematen dizkie langileei, eta beraien esku, aukeratutako NBEei buruz fabrikatzaileak egindako jarraibideen eskuliburua eta informazio-dokumentuak jartzen ditu.	773/1997 ED (8)	- Jarraibideak idatziz ematea lehenesten dute. - Langileek erraz ulertzen dituzte informazioak.	- Jarraibideen eskuliburua.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
8	Enpresaburuak langileen prestakuntza bermatzen du eta, hala badagokio, NBEak erabiltzen ikasteko trebakuntza-saioak antolatzen ditu, bereziki, aldi berean bi NBE eraman behar direnean eta horien erabilera hain zaila izanik beharrezkoa baldin bada.	773/1997 ED (8.3)		- Prestakuntza-plana.	3			
9	Enpresa nagusiak kontratatutako edo azpikontratutako enpresei NBEak ematen badizkie, enpresa nagusiak hornitzaile dituen eginkizunak betetzen ditu.	LAPL (24, 41)	- LAPLaren 41.1. artikuluan jasota daude hornitzaileak bete behar dituen eginkizunak.	- Lan-ekipo, NBE eta substantzia kimikoen (segurtasun-fitxak) erabilerari buruzko eskuliburua edo jarraibideak eman zaizkiela egiaztatu behar da. - Laginketen bidez, emandako ekipoek arauek ezartzen dituzten baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea.	3			

A.6. GALDETEGI OSAGARRIA ZAMAK ESKUZ MANIPULATZEA

GALDETEGI HONEN APLIKAZIOA

Helburua

Zamak eskuz manipulatzearen inguruan arriskuak (bereziki bizkar eta gerrirako) dituzten lanen baldintzak 487/1997 EDra egokitzen diren egiaztatzea.

Eremua

Langileentzat arriskuak (bereziki bizkar eta gerrirako) dituzten lan guztiei aplikatzen zaie.

Definizioa

«*Zamak eskuz manipulatzea*», karga bat langile batek edo batek baino gehiagok garraiatzen edo eusten dutenean egiten den eragiketa da, eta baita, jaso, kokatu, bultzatu, tiratu edo lekualdatzean ere, baldin eta lan horrek dituen ezaugarriengatik edo baldintza ergnomikoengatik, langileentzat arriskutsuak (bereziki bizkar eta gerrirako) baldin badira.

Eskatu beharreko dokumentazioa

Galdetegi hau osatzeko auditoria egitean, ikuskatzaileak irakurri behar dituen edo irakurtzea komeni zaion zenbait liburu jaso ditugu zerrenda honetan:

a) Zamak manipulatzeari buruzko prestakuntza- eta trebakuntza-programak.
b) Zamak egoki nola manipulatu eta horrela egin ezean dituzten arriskuei buruz langileei emandako informazioa.
c) Langileei egindako azterketa medikoak.

A.6. ZAMAK ESKUZ MANIPULATZEA

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Enpresaburuak kargak eskuz ez manipulatzeko behar beste neurri tekniko eta antolaketa-neurriak hartzen ditu eta zamak eskuz manipulatzeko beharra zein duenean ekidin, antolaketa-neurri egokiak hartzen ditu, baliabide egokiak erabiltzen ditu edo langileei manipulazio horrek duen arriskua murrizteko baliabideak bideratzen dizkie.	487/1997 ED (3)	- Kargak mekanikoki manipulatzeko ekipoak erabiltzen ditu, bai automatikoak zein langileak kontrolatu beharrekoak. - Kargak eskuz manipulatzea ekiditerik ez dagoenean, arriskuak ebaluatzen dira, ondoko faktore hauek aintzat hartuta: zamaren ezaugarriak, egin beharreko esfortzu fisikoa, lan-ingurunearen ezaugarriak, jardueraren eskakizunak eta banakako arrisku-faktoreak (Ikusi 487/1997 EDaren eranskina). - Kargak eskuz manipulatzea ekiditerik ez badago eta ebaluazioaren emaitza onartezinezko arriskua dagoela bada, enpresaburuak antolaketa-neurri egokiak hartuko ditu edo arriskua maila onargarrira murrizteko modu egokiak erabiliko ditu. Horretarako, ondorengo neurriren bat aukeratu edo bat baino gehiago elkartu ahal izango ditu: laguntza mekanikoak erabiltzea, karga murriztu edo berriro diseinatzea, lanaren antolaketaren gainean jardutea, eta/edo lan-ingurunea hobetzea, tarteko pertsonen banakako ahalmenak kontuan izanda.	- Honakoak bezalako neurri teknikoak bereganatu izana: prozesuen automatizazioa edo ekipo mekanikoen erabilera. - Arriskuen ebaluazioan adierazitakoa (LSHINen Gidan adierazitako metodoaren arabera egindako ebaluazioa izan daiteke) ikustea.	3			
2	Langileek, zamak esku manipulatzearen ondorioz dauden arriskuei, eta horiek prebenitzeko eta horietaz babesteko aplikatu beharreko neurriei buruzko informazio eta prestakuntza jasotzen dituzten bermatzen du enpresaburuak.	487/1997 ED (4)	- Zamak behar bezala manipulatzeari eta horrela egin ezean dituzten arriskuei buruzko informazioa eta prestakuntza eskaintzen ditu, ondokoak bezalako arrisku-faktoreak kontuan izanda: zamaren ezaugarriak, egin beharreko esfortzu fisikoa, lan-ingurunearen ezaugarriak, jardueraren eskakizunak eta banakako arrisku-faktoreak. - Honakoei buruzko jarraibide orokorrak eta xehetasunak barne hartzen ditu emandako informazioak: zamaren pisua eta, bilgarri barruko zama zentratu gabe dagoenean, horren grabitate-zentroa edo alderik pisutsuena. - Honakoak bezalako gaiak barne hartu ahal dituzte trebakuntza-programek: laguntza mekanikoen erabilera egokia, manipulazioan dauden faktoreei eta horien ondoriozko arriskuak prebenitzeko moduari buruzko informazioa eta prestakuntza, NBEen erabilera egokia, zamak ziurtasunez manipulatzeko prestakuntza eta trebakuntza, eta pisu eta grabitate-zentroari buruzko informazioa.	- Langileei zein horien ordezkariei emandako prestakuntza zein helarazitako informazioa begiratzea. - Trebakuntza-programak begiratzea.	3			
3	Enpresaburuak langileei bere osasuna behar bezala zaintzeko eskubidea bermatzen die, horien ohiko jarduera zamak eskuz manipulatzea denean eta ondorengo elementu edo faktoreren bat tartean dagoela: zamaren ezaugarriak, egin beharreko esfortzu fisikoa, lan-ingurunearen ezaugarriak, jardueraren eskakizunak eta banakako arrisku-faktoreak.	487/1997 ED (6)	- Eskumena duten osasun-langileek egiten burutzen dute osasun-zaintza, osasun-zaintzako berariazko protokoloen arabera.	- Langileei egindako azterketa medikoak bergiratzea.	3			

A.7. GALDETEGI OSAGARRIA BISTARATZEKO PANTAILAK

GALDETEGI HONEN APLIKAZIOA

Helburua

Bistaratzeko pantailak daramatzaten ekipoak 488/1997 EDan ezarritako gutxieneko xedapenetara egokitzen diren egiaztatzea.

Eremua

Bistaratzeko pantailak daramatzaten ekipoez baliatzen diren langileen erabilerari aplikatu behar zaie.

Salbuespenak

a) Ibilgailuak eta makinak gidatzeko postuak.
b) Garraiobide batean ezarritako sistema informatikoak.
c) Bereziki publikoak erabiltzeko sistema informatikoak.
d) Eramangarriak izenez ezagutzen diren sistemak, baldin eta lanpostu batean modu jarraituan erabiltzen ez badira.
e) Kalkulagailuak, kutxa erregistratzaileak eta datuak edo neurriak bistaratzeko beharrezkoak diren bistaratzeko dispositibo txiki bat duten ekipo guztiak.
f) Diseinu klasikoko idazmakinak, leihatilako makinak izenez ezagutzen direnak.

Definizioa

«*Bistaratzeko pantailak*», pantaila alfanumeriko edo grafikoa da, edozein dela erabilitako bistaratze-metodoa.

«*Lanpostua*», bistaratzeko pantaila bat daraman ekipoa da eta, kasuan-kasuan, honako hauek ere izan ahal dituena: teklatua edo datuak eskuratzeko dispositiboa, pertsona eta makina interkonektatzeko programa bat, osagai ofimatikoak, aulki bat eta mahai bat edo lanerako gainazala, zein hurbileko lan-ingurunea.

«*Langilea*», bere lanean edo lanaren zati garrantzitsu batean bistaratzeko pantaila bat daraman ekipoa erabili ohi duen langilea da.

Eskatu beharreko dokumentazioa

Galdetegi hau osatzeko auditoria egitean, ikuskatzaileak irakurri behar dituen edo irakurtzea komeni zaion zenbait liburu jaso ditugu zerrenda honetan:

a) 488/1997 EDaren eraginpeko lanpostuen zerrenda.
b) Bistaratzeko pantailei buruzko prestakuntza- eta trebakuntza-programak.
c) Langileei bistaratzeko pantailekiko lanari buruz emandako informazioa.
d) Langileei egindako azterketa mediko bereziak.

A.7. BISTARATZEKO PANTAILAK

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Enpresak LAPa ezarri du ekipoak edo produktuak aukeratzean.	LAPL (16)			5			
2	488/1997 EDaren inguruko alderdiei buruz kontsultatu die langileei eta horien ordezkariei enpresaburuak, eta esku hartzen lagatze die.	488/1997 ED (6)		- Informazio-agiriak, eta inkesten eta abarren bidez egindako kontsultak.	3			
3	Bistaratzeko pantailak erabiltzeak langileen segurtasun eta osasunerako arriskurik izan ez dezan edo, hori ezinezkoa balitz, arrisku horiek ahalik eta txikienak izateko neurriak hartzen ditu enpresaburuak.	488/ 1997 ED (1, 3)	- 488/1997 EDaren Eranskineko xedapenak betetzen dituzte lanpostuek (bistaratzeko pantaila daraman ekipoa, teklatua, pertsona eta makina interkonektatzeko programa, osagai ofimatikoak, aulkia eta mahia, eta hurbileko ingurunea). - Ebaluazioak ikusmenerako eta arazo fisikoak buru-karga izateko arriskuak kontuan hartzen ditu. - Arriskuaren ebaluazioak lanpostuaren ezaugarriak eta jardueraren eskakizunak hartzen ditu kontuan, eta bereziki: a) batez beste zenbat denbora ematen den erabiltzen. b) arreta jarraituko gehienezko denbora. c) eskatutako arreta-maila.	- ED honek barne hartzen ez dituen enpresako lanpostuen (erkatuta) zerrenda. - Arriskuen ebaluazioa. - Ebaluazioan bertan, bistaratzeko pantailen erabiltzailearentzako ezarritako irizpidea egiaztatzea.	3			
4	Ebaluazioak bistaratzeko pantailak erabiltzea langileentzat arriskutsua dela edo izan daitekeela ondorioztatzen badu, arrisku hori ezabatu edo ahalik eta gehien murrizteko neurri tekniko eta antolaketa-neurriak hartzen dira.	488/1997 ED (3)	- Kasu hauetan, pantailaren aurrean etengabe ematen den gehienezko denbora-tarteak murriztu behar dira, jarduera ezberdinak tartekatuz, edo azken hau ezinezkoa denean, etenaldiak ezarriz.	- Prebentzioaren plangintza. - Hitzarmen kolektiboa begiratzea (horretan, aldizkakotasuna, iraupena eta tartekako jardueren eta etenaldien antolaketak jasota egon daitezke).	3			
5	Langileek eta horien ordezkariek bistaratzeko pantailak erabiltzeak izan ditzakeen arriskuei, zein hartu beharreko prebentzio- eta babes-neurriei buruzko informazioa eta prestakuntza bermatzen die enpresaburuak langileei.	488/1997 ED (5)		- Bistaratzeko pantailekin egiten diren lanei buruzko prestakuntza-jardueren erregistroa. - Langile erabiltzaileei helarazitako dokumentuak eta hauen jaso izanaren agiriak.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
6	Osasun-zaintza izateko eskubidea bermatzen die enpresaburuak langileei.	488/1997 ED (4)	- Osasun-zaintzan honako hauek izan dira kontuan: a) ikusmena. b) arazo fisikoak. c) buru-karga. d) litekeen ondorio gehigarri edo konbinatua. e) batera eman daitekeen patologia. - Zaintza hau egin da: a) lanean hasi baino lehen. b) lanean hasi ondoren eta sendagileak ezarritako aldizkakotasunarekin. c) lanaren ondoriozko arazoak agertzean.	- Berariazko osasun-zaintzako protokoloa. - Bistaratzeko pantailak erabiltzen dituzten langileen historia klinikoak protokoloaren arabera alderatzea.	3			
7	Osasun-zaintzaren emaitzek beharrezkotzat jotzen dutenean, langileek honakoetarako eskubidea dute: a) ikusmenaren azterketa. b) gailu zuzentzaile bereziak ematen zaizkie, dohainik.	488/1997 ED (4)	- Beti sendagilearen irizpidearen arabera eta osasun-zaintzaren emaitzek beharrekotzat jotzen badute. - Babesteko dispositibo berezitzat ulertzen da, osasun-azterketetan sendagile arduradunak agindutako babes-dispositiboak, bistaratzeko pantaila daraman ekipoa dagoen lanposturako eskatutako tarte bereziekin lan egin ahal izateko.	- Bistaratzeko pantailak erabiltzen dituzten langileen historia klinikoa. - Beharrezkoa izanez gero, zenbatekoa egiaztatzea.	3			

A.8. GALDETEGI OSAGARRIA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

GALDETEGI HONEN APLIKAZIOA

Helburua

Arrisku elektrikoa dela-eta, 614/2001 EDak langileen segurtasun eta osasuna babesteko ezarritako gutxieneko xedapenak egiaztatzea.

Eremua

Lantokietako instalazio elektrikoei eta horietan, eta horietatik gertu, lan egiteko teknika eta prozedurei aplikatzen zaie.

Definizioak

«*Arrisku elektrikoa*», energia elektrikoak sortzen duen arriskua da. Berariaz, honako arrisku hauek barne hartzen dira:

— Tentsiopeko elementu (zuzeneko kontaktu elektrikoa) edo istripuz tentsiopean jarritako masekiko (zeharkako kontaktu elektrikoa) kontaktuaren ondoriozko talka elektrikoa.
— Talka elektrikoak edo arku elektrikoak eragindako erredurak.
— Talka elektriko edo arku elektrikoen ondoriozko erorketak edo kolpeak.
—Elektrizitateak sorrarazitako suteak edo leherketak.

«*Lanpostua*», lanaren arabera, langileari dagokion lekua.

«*Instalazio elektrikoa*», lantoki batean energia elektrikoa sortu, bihurtu, eraldatu, garraiatu, banatu eta erabiltzeko erabiltzen diren material eta ekipoen multzoa da; tartean, bateriak, kondentsadoreak eta energia elektrikoa metatzeko bestelako ekipoak barne hartzen dira.

«*Lan-prozedura*», lan jakin bat garatzeko eragiketen segida da, berori burutzeko beharrezkoak diren baliabide materialak (lanekoak eta babesekoak) eta giza baliabideak (langileen gaikuntza eta prestakuntza) barne hartuta.

«*Goi-tentsioa, Behe-tentsioa eta Segurtasuneko tentsioak*», arautegi elektroteknikoek definitutakoak dira.

«*Tentsiorik gabeko lanak*», instalazioa tentsiorik gabe mantentzeko beharrezko neurriak hartu ondoren, instalazio elektrikoetan egiten diren lanak dira.

«*Arrisku-eremua edo tentsiopeko lanen eremua*», tentsiopeko elementuen inguruko eremua da. Langile bat horretan dagoenean, arku elektriko bat, edo tentsiopeko elementu batekiko zuzeneko kontaktu bat gertatzeko arrisku larri eta hur-hurrekoan dago, langileak, dagoen lekutik aldatu gabe, egin ditzakeen keinu edo mugimendu arruntak kontuan hartuta.

Arrisku horren aurkako babesa bermatzen duen hesi fisikoa jartzen ez den tokian, 1. taulan adierazitako tartea egon beharko da tentsiopeko elementu horretatik eremu horretako kanpo-mugaraino.

«*Tentsiopeko lana*», lan honetan, langileak tentsiopeko elementuekin kontaktuan jartzen da, edo arrisku-eremuan sartzen da, hala gorputzaren atal batekin, nola erabiltzen ari den tresna, ekipo, gailu edo materialen bidez. Ez dira tentsiopeko lantzat hartzen, ondoren definitutako maniobrak eta neurketak, entseguak eta egiaztapenak.

«Maniobra», instalazio elektriko baten egoera elektrikoa aldatzeko eragiketa da, baina honetan, ez da elementu bat bera ere muntatu edo desmuntatzen.

«Neurketak, entseguak eta egiaztapenak», instalazio elektriko baten funtzionamendu egokirako zehaztapen eta baldintza teknikoak eta segurtasunekoak betetzen direla egiaztatzeko jarduerak dira, horren egoera elektrikoa, mekanikoa edo termikoa, babesen eraginkortasuna, segurtasuneko zirkuituak edo maniobra eta abar egiaztatzera zuzendutakoak barne hartuta.

«Hurbileko eremua», arrisku-eremuaren inguruan mugatutako espazioa da, eta langilea honetatik azken horretara sar daiteke. Arrisku elektrikoaren aurkako babesa bermatzen duen hesi fisikorik ez dagoenean, 1. taulan adierazitako tartea egon beharko da tentsiopeko elementutik eremu horretako kanpo-mugaraino.

«Hurbileko lana», lan honetan langilea sartzen da, edo sar daiteke, hurbileko eremuan, arrisku-eremuan sartu gabe, hala gorputzaren atal batekin, nola erabiltzen ari den tresna, ekipo, gailu edo materialen bidez.

«Baimendutako langilea», arrisku elektriko duten lan jakin batzuk egiteko enpresaburuak baimendutako langilea da; 614/2001 EDan ezarritako prozedurak betez lan horiek egiteko duen gaitasunean oinarritzen da enpresaburua langilea baimentzeko.

«Gaitutako langilea», lanbide- edo unibertsitate-prestakuntza ziurtatua edo bi urteko edo bi baino gehiagoko esperientzia izategatik, instalazio elektrikoei buruzko ezagutza espezializatuak dituen langile baimendua da.

«Laneko burua», lanak eraginkortasunez egiten direla egiaztatzeko enpresaburuak izendatutako pertsona da.

Eskatu beharreko dokumentazioa

Galdetegi hau osatzeko auditoria egitean, ikuskatzaileak irakurri behar dituen edo irakurtzea komeni zaion zenbait liburu jaso ditugu zerrenda honetan:

a) Arriskuen ebaluazioa.
b) Lan-ekipoei buruzko dokumentazioa eta jarraibideen eskuliburuak.
c) Mantentzearen erregistroa eta aldizkako ikuskapenak.
d) Erabiltzeko prozedurak eta jarraibideak.
e) Instalazio elektrikoen instalazio, martxan jartze, mantentze eta ikuskapenei buruzko arauzko dokumentazioa.
f) Arrisku elektrikoa duten lanak egiteko enpresaburuak baimendutako langileak eta langile kualifikatuak.
g) Baimendutako langileen eta gaitutako langileen trebakuntza (prestakuntzaren erregistroa).

A.8. INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Enpresaburuak lanlekuetan energia elektrikoa egoteak edo erabiltzeak izan ditzaketen arriskuak ebaluatzen ditu.	614/2001 ED (2)		- Arriskuen ebaluazioa.	3			
2	Instalazio elektriko mota eta horien osagaiak hauetara egokitzen dira: a) Tokiko bertako baldintzetara (1) b) Horretan garatutako jarduerara c) Erabili behar diren ekipo elektrikoetara (2)	614/2001 ED (3)	(1) Adibidez: Lokal hezeak eta bustiak, leher daitekeen atmosfera duten lokalak, giro korrosiboak, gai sukoien biltegiratzea, etab. (2) Adibidez: Makinak edo eskuzko tresna eramangarriak bezalako indar-hartzaileak; luminariak edo lanpara eramangarriak bezalako argi-hartzaileak.	- Instalazioen azterketa.	3			
3	Lanlekuetan erabiltzen diren ekipo elektrikoak, horien babes-sistema eta -moduaren arabera, dagoen instalazio elektriko motara eta tokiko bertako baldintza berezietara egokituta daude.	614/2001 ED (3)	Fabrikatzailearen jarraibideen eskuliburuak, honako hauek adierazten dira: a) Instalazio elektrikoa konketatu/deskonektatzeko jarraibideak. b) Erabilera-eremua, hau da, zein jardueratan eta lekutan erabili ahal den eta, hala badagokio, aurrez ezarritako bereziak ez diren baldintzetan erabiltzeko litezkeen bateraezintasunak eta/edo erabili beharreko neurri gehigarriak.	- Instalazioen azterketa. - Lan-ekipoei buruzko dokumentazioa eta jarraibideen eskuliburua.	3			
4	Lanlekuetako instalazio elektrikoak behar bezala erabili eta mantentzen dira.	614/2001 ED (3)	- Aldizka kontrolatzen dira babes-sistemen funtzionamendua (baldin badaude), betiere, fabrikatzaileen eta instalatzaileen jarraibideen arabera, eta ustiatzailearen esperientzia bera. - Aplika daitekeen arautegian adierazitako mantentze eta ikuskapen baldintzak betetzen dituzte instalazio elektrikoek (Adibidez: GTko transformazio-zentroetan, urtero, mantentzeko kontratua baimendutako enpresarekin eta, hiru urtez behin, ikuskapena baimendutako kontrol-erakundearekin (BKE); erabilera publikoko BTko lokaletan, baimendutako enpresak urtero egin beharreko azterketa, etab.).	- Erabiltzeko prozedurak eta jarraibideak. - Mantentzeen erregistroa eta aldizkako ikuskapena.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
5	Lanlekuetako instalazio elektrikoak, arautegi elektronikoaren, laneko segurtasun eta osasuneko araudiaren eta aplika dakizkiekeen bestelako araudi berezien araberakoak dira.	614/2001 ED (3)	a) Arautegi elektroteknikoa: Goi Tentsioko Aireko Lineen Arautegia; Zentral Elektriko, Azpiestazio eta Transformazio Zentroen Arautegia; Behe Tentsiorako Arautegia, etab. b) Laneko segurtasun eta osasunari buruzko Arautegia: Lanlekuak, lan-ekipoak, seinaleak, etab. c) Berariazko beste araudi batzuk: Energia elektrikoa banatzen duten konpainien araudia (adibidez: IBERDROLA), etab.	- Instalazio elektrikoen ikuskapen, martxan jartze, mantentze eta aldizkako ikuskapenen arauzko dokumentazioa.	3			
6	Instalazio elektrikoetan edo handik gertu lan egiteko erabilitako teknikak eta prozedurak, honako hauek kontuan hartuta ezarri dira: a) Arriskuen ebaluazioa b) Instalazio-mota bakoitzerako, segurtasun- eta osasun-arloan ezarritako baldintzak (1).	614/2001 ED (4)	- (1) 614/2001 EDaren arabera, honako hauen ingurukoak dira protokoloak: a) Tentsiorik gabeko lanak (II. eranskina) b) Tentsiopeko lanak (III. eranskina) c) Maniobrak, neurketak, entseguak eta egiaztapenak (IV. eranskina) d) Hurbileko lanak (V. eranskina) e) Sute- edo leherketa-arriskua duten lekuetako lanak. Elektrizitate estatikoa (VI. eranskina)	- Arriskuen ebaluazioa. - Lan-prozedurak.	3			
7	Instalazio elektriko batean edo hurbileko eremuan egiten diren lan guztiak, arrisku elektrikoa baldin badute, tentsiorik gabe egiten dira, arautegian berariaz adierazitako kasuetan izan ezik (1).	614/2001 ED (4)	- (1) Honako hauek dira tentsiopean egin daitezkeen eragikeak: a) Oinarrizko eragiketak (Adibidez: BTko instalazioak konektatu eta deskonektatzea berehala erabiltzeko eta, oro har, jendearentzako arriskurik gabe. Dena dela, fabrikatzaileak aurreikusitako prozedura arruntaren arabera egin beharko dira eragiketa hauek, manipulatutako materiala egoera onean dagoela egiaztatu ondoren. b) Segurtasuneko tentsiopeko instalazioetako lanak, baldin eta horiek identifikatzean nahasteko aukerarik ez badago eta zirkuitulaburra gertatzekotan eman daitezkeen intentsitateek erretzen ez badute. Horrela ezean, ezarritako lan-prozedurak instalazioaren behar bezalako identifikazioa bermatu eta zirkuitulaburrak saihestu beharko ditu, langilea horien aurrean babesterik ez dagoenean. c) Duten izaeragatik horrela eskatzen duten maniobrak, neurketak, entseguak eta egiaztapenak (Adibidez: etengailu edo ebakigailuak ireki eta ixtea, isolamendu elektrikoko entseguak egitea edo faseak bat datozen egiaztatzea). d) Ustiapen- eta jarraitutasun-baldintzek horrela izatea eskatzen duten lekuetan edo horietatik gertu egiten diren lanak. - Tentsioa eten eta berrezartzeko prozedurak egiaztatzeko, ikusi II. eranskineko A eta B atalak.	- Lan-prozedurak egiaztatzea.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
8	Tentsiorik gabeko instalazioetako lanek ezarritako eskakizunak beteko dituzte.	614/2001 ED II.eranskina	- Ikusi II. eranskina: a) A atala. Xedapen orokorrak: Tentsioa eten eta berrezartzeko prozedura. b) B atala.- Ondorengo eragiketak egiteko xedapen bereziak: fusibleak aldatzea, aireko lineetako eta goi-tentsioren eroaleetako lanak, energia-pilaketa arriskutsua bidera dezaketen kondentsadoreak dituzten instalazioetako lanak eta transformadore eta GTko makinetako lanak.	- Eragiketa-prozedurak II. eranskinean jasotako eskakizunetara egokitzea (Lan-metodoa, segurtasun-neurriak, babesteko materiala eta baliabideak, lana eteteko baldintzak). - Baimendutako eta kualifikatutako langileentzako enpresaburuaren baimena arrisku elektrikoa duten lanak egin ditzaten. - Baimendu eta kualifikatutako langileen trebakuntza (Prestakuntza-erregistroa)	3			
9	Tentsiopeko instalazioetako lanek ezarritako eskakizunak beteko dituzte.	614/2001 ED III.eranskina	- Ikusi III. eranskina: a) A atala. Xedapen orokorrak b) B atala.- GTko lanetarako xedapen bereziak c) C atala.- Fusibleak aldatzeko xedapen bereziak.	- Idatzizko eragiketa-prozedurak III. eranskinean jasotako eskakizunetara egokitzea (Lan-metodoa, segurtasun-neurriak, babesteko materiala eta baliabideak/jarraibideak, lana eteteko baldintzak). Eguraldi txarraren araberako baldintzak kontuan hartu diren egiaztatzea (ekaitzak, haize zakarra, tximistak, etab.). - Baimendutako eta kualifikatutako langileentzako enpresaburuaren idatzizko baimena arrisku elektrikoa duten lanak egin ditzaten. Aldizka berritzen dela egiaztatzea. - GTko lanetan, enpresaburuak Laneko Burua nor izendatu duen idatziz jasota: a) Kalifikatutako langileen trebakuntza (Prestakuntza-erregistroa). b) Tentsiopeko lanak egiteko ekipo eta materialen mantentzeen erregistroak. c) Lan-ekipoen CE markaketa eta/edo berariazko araudiaren araberako markaketa.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
10	Maniobrak, neurketak, entseguak eta egiaztapen elektrikoak ezarritako xedapenei jarraiki egingo dira.	614/2001 ED IV.eranskina	Ikusi IV. eranskina: a) A atala. Xedapen orokorrak b) B atala: Tokiko maniobren etengailu eta ebakigailuei buruzko eta neurketa, entsegu eta egiaztapenen xedapen bereziak.	- Eragiketa-prozedurak IV. eranskinean jasotako eskakizunetara egokitzea (Lan-metodoa, segurtasun-neurriak, babesteko materiala eta baliabideak/jarraibideak, lana eteteko baldintzak). - Baimendutako langileentzako enpresaburuaren baimena arrisku elektrikoa duten lanak egin ditzaten(Prestakuntza-erregistroa). - Tentsiopeko lanak egiteko ekipo eta materialen mantentzeen erregistroak - Lan-ekipoen CE markaketa eta/edo berariazko araudiaren araberako markaketa.	3			
11	Tentsiopeko elementuetatik gertu egiten diren lanak, ezarritako eskakizunak betez egiten dira, edo bestela, tentsiopeko lantzat hartzen dira eta honelako lanei dagozkien xedapenak aplikatzen dira.	614/2001 ED II.eranskina V. eranskina	- Ikusi V. eranskina: a) A atala. Lana prestatu eta egiteari buruzko xedapen orokorrak. b) B atala.- Honako hauetarako xedapen bereziak: zerbitzuko eta material elektrikoaren inguratzaileen barrutietara sartzeko, aireko eta lurpeko lineetatik edo bestelako instalazio elektrikoetatik gertu ekipoak eta materialak mugitzeko edo lekuz aldatzeko obretarako eta bestelako jardueretarako.	- Eragiketa-prozedurak V. eranskinean jasotako eskakizunetara egokitzea (Lan-metodoa, segurtasun-neurriak, babesteko materiala eta baliabideak/jarraibideak, lana eteteko baldintzak). - Baimendutako eta kualifikatutako langileentzako enpresaburuaren baimena arrisku elektrikoa duten lanak egin ditzaten. - Baimendutako eta kualifikatutako langileen trebakuntza (Prestakuntza-erregistroa). - Enpresaburuaren baimena, baimendutako langileek zerbitzuko barrutietan sartu eta inguratzaileak ireki ditzaten.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
12	Sute- edo leherketa-arriskua edo energia estatikoa metatzeko arriskua duten lekuetako lanak, ezarritako eskakizunak betez egiten dira.	614/2001 ED VI.eranskina	- Ikusi VI. eranskina: a) A atala.- Sute- edo leherketa-arriskua duten lekuetako lanak. b) B atala.- Elektrizitate estatikoa.	- Eragiketa-prozedurak VI. eranskinean jasotako eskakizunetara egokitzea (Lan-metodoa, segurtasun-neurriak, babesteko materiala eta baliabideak/jarraibideak, lana eteteko baldintzak). - Baimendutako eta kualifikatutako langileentzako enpresaburuaren baimena arrisku elektrikoa duten lanak egin ditzaten. - Baimendutako eta kualifikatutako langileen trebakuntza (Prestakuntza-erregistroa).	3			
13	Langileek eta horien ordezkariek, arrisku elektrikoari buruzko, eta hori prebenitzeko eta horretaz babesteko prestakuntza eta informazio egokia jasotzen dutela bermatzen du enpresaburuak.	614/2001 ED (5)		-Prestakuntza-erregistroa; egiaztatu bereziki: a) Baimendutako langileek eragiketa-prozedurak burutzeko duten prestakuntza, eta kualifikatutako langileek, gainera, elektrizitateari buruzko berariazko ezagutzak eta/edo esperientzia duten. Kasu bietan, instalazio elektrikoak identifikatzeko, litezkeen arriskuak detektatu eta behar bezala jokatzeko gaitasuna frogatzea. b) Langile kualifikatuen (gutxienez 2) trebakuntza, komunikazio zailak dituzten lekuetako tentsiopeko lanetarako lehen laguntzen arloan.	3			
14	Enpresaburuak arrisku elektrikoren inguruko gaiei buruz galdetzen die langileei eta horien ordezkariei, eta bere iritzia eskatzen die.	614/2001 ED (6)		- Komunikazio-erregistroa, Segurtasun eta Osasun Batzordeen aktak, Iragarki Oholak, etab.	3			

A.9. GALDETEGI OSAGARRIA ALDI BATERAKO LANEKO ENPRESAK

GALDETEGI HONEN APLIKAZIOA

Helburua

Aldi baterako laneko enpresen inguruan, laneko segurtasun eta osasunari buruzko 216/1999 Errege Dekretuak ezarritako gutxienezko xedapenak egiaztatzea.

Eremua

Enpresa erabiltzaileen esku jartzeko, ekainaren 1eko 14/1994 Legeak araututako aldi baterako laneko enpresek kontratatutako langileak, langile hauei, edozein dela kontratazio-mota, enpresako gainerako langileek duten babes-maila berbera dagokiela bermatzeko, eta arrisku berezia izateagatik, langileak lagatzeko kontratuak zein jardueretan diren ezinezkoak ezartzeko.

A.9. ALDI BATERAKO LANEKO ENPRESAK

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Enpresaburuak, ABLEetako langileek bete beharreko lanpostuari dagozkion ezaugarrien araberako nahikoa prestakuntza jaso dutela kontrolatzen du.		- Hala badagokio, enpresaburuak kontratu bidez ziurtatu behar du, lanean hasi baino lehen, ABLEak bere langileei prestakuntza egokia eskaini diela.	- ABLEarekiko kontratua (badagokio). - Langileek jasotako prestakuntza.	3			
2	Aldi baterako lan-kontratupeko langileek, zein ABLE batek kontratatutakoek jasotzen dute: a)Gainerako langileek duten babes-maila berbera. b) Eragin diezaieketen arriskuei zein babes- eta prebentzio-neurriei buruzko informazioa. c) Lanpostuaren ezaugarriaren araberako nahikoa prestakuntza. d) Aldizkako osasunaren zaintza.	LAPL (28) 216/1999 ED (5)	- Langileei, jardunean hasi baino lehen ematen zaie informazioa. - Enpresa erabiltzaileak arriskuei buruzko informazioa bideratzen du. - Langileen prestakuntza eta osasun-zaintzaren arloko betekizunak ABLEaren ardurapekoak dira.	- Arriskuen komunikazioari buruzko enpresa nagusiaren dokumentazioa. - Bere langileak jarduerak betetzeko moduko prestakuntza koherentea dutela egiaztatzeko ABLEaren ziurtagiria. - Bere langileen osasun-zaintza egiten duela egiaztatzeko ABLEaren ziurtagiria.	3			
3	Enpresa erabiltzaileak honako hauei buruzko informazioa ematen dio ABLEari: a) Lanpostuaren berariazko ezaugarri eta burutu beharreko jarduerei buruzkoa. b) Arrisku profesionalei buruzkoa. c) Gaitasun, ahalmen eta trebakuntza profesionalei buruzkoa.	216/1999 ED (2)	- Informazio hori langilea lagatzeko kontratua sinatu baino lehen helarazten da eta, ezinbestean, arriskuen ebaluazio eguneratuaren emaitzak barne hartzen ditu, honako hauek zehaztuz: a) Lanpostuaren arrisku orokorrak eta bereziak. b) Prebentzio-neurriak, NBEak erantsiz. c) Langileak LAPari buruz izan behar duen prestakuntza. d) Osasuna zaintzeko neurriak, langilearentzat derrigorrezkoak ala borondatezkoak diren eta horien aldizkakotasuna zehaztuz.	- Langilea lagatzeko kontratua eta/edo enpresa erabiltzaileak ABLEari helarazitako informazioa.	3			
4	Enpresa erabiltzaileak ABLEari buruzko behar beste informazio biltzen du, lagatako langileak lanposturako eskatutako xedapenak betetzen dituela ziurtatzeko.	216/1999 ED (4)	- Eskatutako baldintzak: a) egokitasuna, bere osasun-egoera aztertuz. b) jarduerak burutzeko trebakuntza eta gaitasuna eta LAParen inguruko beharrezko prestakuntza. c) lanpostuari eta jarduerei, trebakuntza eta gaitasunei eta arriskuen ebaluazioaren emaitzei dagozkien ezaugarrien inguruko informazioa.	- ABLEak emandako dokumentazioa.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
5	Enpresa erabiltzaileak ez dio langileari lanean hasten lagatzen, ABLEak langileak arlo honetako, hau da, galdetegi honetako aurreko atalean exijitutako baldintzen inguruko eginkizunak betetzen dituela egiaztatu arte.	216/1999 ED (4)	- Errepikatzea bada ere, ezinbestez bete beharreko eskakizuntzat ezartzen du 216/1999 EDak.	- Honakoaren inguruko eginkizunak bete dituela egiaztatzeko ABLEak egindako ziurtagiriaren jasotze-data eta langilea lehen lanegunaren data erkatzea.	3			
6	Enpresa erabiltzaileak, halaber, arrisku orokor eta bereziei eta prebentzio- eta babes-neurri zein larrialdietako neurriei buruzko informazioa helarazten dio ABLEak lagatako langileari.	216/1999 ED (4)	- Seguru asko, langileari helarazten zaion informazioa errepikatu egingo da. 216/1999 EDak errepikatzera behartzen du.	- ABLEak bideratutako langileari enpresa erabiltzaileak emandako informazioa, dagokion langileareak sinatuta. Ausazko laginketa.	3			
7	Enpresa erabiltzaileak aldizka jakinarazten dizkio ABLEari, beren langileei eragin diezaieketen arriskuen ebaluazio ororen emaitzak.	216/1999 ED (5)	- Informazioak honako hauek barne hartzen ditu: a) Izaera. b) Arriskuaren larritasun-maila eta horren eraginpean egoten den denbora-tartea. c) Bere osasunarentzat arriskutsuak izan daitezkeen edo enpresa erabiltzaile berean edo beste batean lanean hasteko garrantzitsuak izan daitezkeen prozedurak edo lan-baldintzak.	- ABLEari igorritako txostena, hori jaso izanaren egiaztagiriaz.	3			
8	Enpresaren Prebentzio Zerbitzuek eta ABLEaren Prebentzio Zerbitzuek, beren jarduerak koordinatzen dituzte, lagatako langileen segurtasun eta osasuna babestuta dagoela bermatzeko.	216/1999 ED (6)		- Enpresa erabiltzailearen Prebentzio Zerbitzuen plangintzak, ABLEak bideratutako langileen prebentzio- eta babes-jarduerak barne hartzen ditu.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
9	ABLEen bidez kontratatutako langileek ez dituzte arrisku-maila berezia duten jarduerak garatzen.	216/1999 ED (8)	- 216/1999 EDko 8 artikuluan definituta dago arrisku-maila bereziaren irizpidea: a) Eraikuntza-obretako lanak (1627/1997 EDko II. eranskina). b) Aire zabaleko eta barruko mea-tzaritza-lanak (1389/1997 ED). c) Lurraren gainazalean zundaketak egiten dituzten erauzketa-industrietako lanak. d) Itsas plataformetako lanak. e) Iehergailuen (artikulu piroteknikoak barne) fabrikazio, manipulazio eta erabilerarekin zuzenean lotutako lanak. f) Kontrolatutako eremuetan erradiazio ionizatzaileen eraginpean egotea eskatzen duten lanak. g) Lehen eta bigarren mailako agente kantzerigeno, mutageniko edo ugalketarako toxikoak direnen eraginpean egotea eskatzen duten lanak.	- Enpresaren jarduera, arriskuen ebaluazioa eta ABLEetako langileen kontratazioa egiaztatzea.	**5**			
10	ABLEen enpresa erabil-tzaileak, lagatako langilearen osasunerako kalte guztien berri ematen dio ABLEAari.	216/1999 ED (7)	- Enpresa erabiltzaileak bete ezean, enpresa hori da ABLEak ez jakinarazteagatik egon daitezkeen ondorioen arduraduna.	- Idatzizko dokumentua.	3			
11	Enpresa erabiltzaileak ABLEari jakinarazten dizkio: a) Arriskuei buruzko informazioa, preben-tzio-neurriak, beharrezko prestakuntza eta osasuna zaintzeko neurriak. b) Arriskuen ebaluazio berria edo dagoenaren eguneratzea eta ondoriozko neurriak. c) ABLEak lagatako langileak jasandako osasun-kalteak.	216/1999 ED (7)		- Baldintza horiek egiaztatzea.	3			
12	Enpresa erabiltzaileak ABLEko langileari helarazten dizkio: - Arriskuak eta preben-tzio- eta babes-neurriak, larrialdietarako neurriak barne hartuta.	216/1999 ED (7)		- Baldintza hori egiaztatzea.	3			
13	Enpresa erabiltzaileak Preben-tzio Ordezkariei jakinarazten die: - ABLE bateko langile bat, eta guztiak, sartzen direnean.	216/1999 ED (7)		- Baldintza hori egiaztatzea.	**3**			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
14	Enpresa erabiltzaileak Prebentzio Zerbitzuari eta/edo izendatutako langileei jakinarazten die: - ABLE bateko langile bat, eta guztiak, sartzen direnean.	216/1999 ED (7)		- Baldintza hori egiaztatzea.	3			
15	ABLEak Enpresa erabiltzaileari helarazten dio: - ABLEko langileak dagozkion gaitasuna eta prestakuntza duela eta Enpresa Erabiltzaileak emandako arrisku eta neurriei buruzko informazioa jaso duela.	216/1999 ED (7)		- Baldintza hori egiaztatzea.	3			
16	Langilea lagatzeko kontratua egiteko, ABLEak, kontratuan bertan, arriskuen prebentzioaren inguruan jasotako baldintzak betetzen duen langilea kontratatzen du eta lanposturako egokia dela ziurtatzen du.	216/1999 ED (3)	Langilearekiko honako betebehar hauek ditu ABLEak: a) Enpresa erabiltzailearengandik jasotako informazioa helaraztea, kontratuari erantsiz. b) Eskatzen den prestakuntza eguneratuaren jabe dela ziurtatzea edo bestela, kontratu barruan eta lanean hasi baino lehen, prestakuntza hori eskaintzea. c) Prebentzio-arloko trebakuntza berezia behar izatekotan, Enpresa Erabiltzaileak berak eskaini ahal du, baina ABLEaren kargura. d) Osasunaren Zaintzarako eskubidea eskaintzea, 216/1999 EDko 3. artikulua aintzat hartuta.	- Enpresa erabiltzailearen informazioa barne hartzen dituzten lagatako langileen kontratuak egiaztatzea. - ABLEak emandako prestakuntza egiaztatzea. - Ausazko laginketa.	3			
17	Prebentzio-jarduerak garatzeko ABLEaren baliabideen antolaketa, Prebentzio Zerbitzuen Arautegia onartu zuen 39/1197 EDan zehaztutako modalitateen arabera egin da.	216/1999 ED (6)	- Enpresa erabiltzaileen zerbitzura jartzeko aldi baterako kontratatutako langileak, azken hamabi hilabeteetan altan egon diren langileen artean zenbatzen dira, hileroko prozeduran.	- Azken 12 hilabeteetako TC1 edo TC2 ereduak. - LAPeko Antolakuntzaren eraketa-dokumentua.	1			
18	ABLEaren eta enpresa erabiltzailearen antolakuntzek, beren jarduerak koordinatzen dituzte, lagatako langileen osasuna eta segurtasuna behar bezala babesten dela bermatzeko.	216/1999 ED (6)		- Erakunde biek elkarri igorritako dokumentazioak.	3			

A.10. GALDETEGI OSAGARRIA ENPRESA-JARDUEREN KOORDINAZIOA

GALDETEGI HONEN APLIKAZIOA

Helburua

Enpresa-jardueren koordinazioa dela-eta, langileen segurtasun eta osasuna babesteko 171/2004 Errege Dekretuan ezarritako gutxienezko xedapenak betetzen diren egiaztatzea.

Eremua

Enpresaburu ezberdinak barne hartzen dituzten enpresei aplikatzen zaie. Laneko segurtasun eta osasunaren alorreko gutxieneko xedapenak gauzatu behar dituzte, enpresa-jarduerak bateratzeak ondoriozta ditzakeen laneko arriskuei aurrea hartzeko eta, beraz, bateratze honek tartean dauden enpresetako langileen segurtasun eta osasunari eragin ez diezaien.

Definizioak

«Lanlekua», lanlekuaren eraikitako edo eraiki gabeko eremua da, eta honetan egon behar dute edo honetara sartu behar dira langileak lanaldian.

«Lanlekuaren enpresaburu titularra», lanlekua erabili eta kudeatzeko ahalmena duen pertsona da.

«Enpresaburu nagusia», bere jarduerari dagozkion eta bere lanlekuan garatzen diren obrak eta zerbitzuak burutzeko beste batzuk kontratu edo azpikontratatzen dituen enpresaburua da.

ERANSKINA

Erregelamenduz, arriskutsutzat edo bereziki arriskutsutzat jotako jarduerak edo prozesuak (39/1997 Errege Dekretua).

Ondorengo jarduera edo prozesu arriskutsuak edo bereziki arriskutsuak egiten direnean, prebentzio-baliabideak egon behar dira:

1. Garatutako jardueragatik, aplikatutako prozedurengatik, edo lanpostuaren inguruneagatik, altueratik erortzeko arrisku berezia duten lanak.
2. Azpian harrapatzeko edo hondoratzeko arriskua duten lanak.
3. Jarduerak burutzeko makinak behar direnean, baldin eta horiek, derrigortasuna ezarri aurretik merkaturatzeagatik CE adostasun-adierazpenik ez badute, ziurtatze-prozeduraz ohartarazitako erakunde baten esku-hartzea eskatzen duten makinak merkaturatzeari buruzko araudia behar dutenak bezalakoak badira, eta arauzko neurri aplikagarriak hartu arren, langilearen babesa nahikoa bermatuta ez dagoenean.
4. Itxitako eremuetako lanak. Ondorio hauetarako, itxitako eremutzat jotzen da sarrera eta irteera mugatuak eta aireztapen natural desegokia dituzten barrutiak, baldin eta horretan kutsatzaile toxiko edo erregarriak meta badaitezke edo atmosferan oxigeno gutxi egon badaiteke, eta langileek bertan etengabe jarduteko moduko eremutzat jotzen ez bada.
5. Murgiltzeagatik itotzeko arriskua dutena lanak, urpeko ekipoarekin murgiltzeko lanei buruzko 39/1997 Errege Dekretuko (304/2006 ED) 22. bis artikuluko 8.a) atalean ezarritakoa izan ezik.

Langileen segurtasun eta osasunerako arrisku bereziak dituzten lanen zerrenda orokorra (1627/1997 Errege Dekretua).

1. Garatutako jarduera, aplikatutako prozedura edo lanpostuaren inguruaren ezaugarri bereziak direla-eta, azpian harrapatzeko, hondoratzeko edo altueratik erotzeko arrisku bereziki larriak dituzten lanak.
2. Agente kimiko edo biologikoen eraginpean egoteak arrisku berezi larria duten, edo langileen osasunaren berariazko zaintza derrigorrezkotzat duten lanak.
3. Erradiazio ionizatzaileen eraginpeko lanak; hauetarako, kontrol edo zaintzapeko eremuak mugatzera behartzen du berariazko araudiak.
4. Goi-tentsioko linea elektrikoetatik gertu garatzen diren lanak.
5. Murgiltzeagatik itotzeko arriskua duten lanak.
6. Lurrazpiko lur-higadurak eskatzen duten tunel, putzu eta bestelakoak induskatzeko obrak.
7. Urpeko ekipoarekin murgilduz egindako lanak.
8. Aire konprimituko kutxetan egiten diren lanak.
9. Lehergaiak erabiltzea eskatzen duten lanak.
10. Aurrefabrikatutako elementu astunak muntatu eta desmuntatzea eskatzen duten lanak.

A.10. ENPRESA-JARDUEREN KOORDINAZIOA

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Lanlekuaren titular den enpresaburuak beharrezko neurriak hartzen ditu, bere lantokian jarduerak gauzatzen dituzten gainerako enpresaburuek eta langile autonomoek arriskuen prebentzioari buruzko informazio eta jarraibide egokiak jaso ditzaten.	LAPL (24)	- Honako hauen ingurukoak dira informazioa eta jarraibideak: a) Lanlekuan dauden arriskuak. b) Babes- eta prebentzio-neurriak. c) Larrialdiko neurriak.	- Aipatutako puntuei buruzko informazio-dokumentua. - Enpresa kontratugilearen informazioa eta emandako informazioa alderatzea.	3			
2	Lanleku berean jarduerak garatzen dituzten enpresa eta langile autonomo guztiak, lankidetzan aritzen dira arriskuen prebentzioari buruzko araudia aplikatzeari dagokionez.	LAPL (24, 39)	- Laneko arriskuen inguruko prebentzio, babes eta informazioari buruzko koordinazio-baliabideak daude. - Adibidez: Segurtasun eta osasun Batzordeen, Prebentzioko Ordezkarien, enpresaburu ezberdinen arteko bilerak, enpresen arteko komunikazioak, etab.	- Bileren aktak, idatzizko komunikazioak.	3			
3	Lanlekuan garatzen diren jarduerak eta enpresa kontratugilearena berberak badira, azken honek zaindu beharko du kontratari eta azpikontratari horiek lan-rriskuak prebenitzeko arautegia betetzen dutela.	LAPL (24)	- Zaintzako mekanismoak daude, hala nola: ikuskapenak, egitekoak behatzea, etab.	- Ikuskapenen erregistroak edo egitekoei buruzko oharrak.	3			
4	Langile nagusiak kontratatu eta azpikontratatutako enpresei lanerako makinak, ekipamenduak, produktuak, lehengaiak edo lanabesak ematen badizkie, enpresa nagusiak hornitzaile gisa dituen eginkizunak betetzen ditu.	LAPL (24, 41)	- LAPLaren 41.1. artikuluan jasota daude hornitzailearen eginkizunak: a) Langileentzat arriskutsuak ez diren makinak, ekipoak, produktuak eta lanabesak ematea. b) Behar bezala etiketatu eta ontziratutako substantzia kimikoak. c) Babes-ekipo eraginkorrak.	- Lan-ekipoak, NBEak eta substantziak kimikoak erabiltzeko eskuliburua edo jarraibideak (segurtasun-fitxak) egiaztatzea. - Entregatutako ekipoek arauzko baldintza aplikagarriak betetzen dituztela laginketa bidez egiaztatzea. - Makina berriak (salgai 95-1-1aren ondoren jarritakoak): CE markaketa, adostasun-adierazpena eta jarraibideen liburua, gaztelaniaz. Gainerako lan-ekipoek 1215/1997 EDaren arabera egokituta egon beharko dute.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
3	Sustatzaileak, obraren proiektua idazten den faserako, segurtasun- eta osasun-arloko azterlan edo oinarrizko azterlan bat prestatu du.	1627/1997 ED (4)	- Sustatzaileak azterlana edo oinarrizko azterlana egin beharko du, ezinbestez, honako kasu hauetan: a) Proiektuan barne hartutako kontratu bakoitza exekutatzeko aurrekontua 75.000.000 pezetakoa edo hortik gorakoa denean. b) Obrak 30 lan egun baino gehiago iraungo duela , eta uneren batean, aldi berean 20 langile baino gehiago arituko direla aurreikusten denean. c) Eskulanerako aurreikusitako bolumena, 500etik gorakoa denean, bolumentzat honakoa ulertuta: obran langileek emango duten lan-egun guztien batuketa. d) Tunel, galeria, lurpeko eroanbideak eta uharkak egiteko obrak. - Proiektua, aurreko ataleko baldintzaren batean barne hartuta ez dagoenean bakarrik, egin behar da segurtasun- eta osasun-arloko oinarrizko azterlana proiektua idazten ari den bitartean.	- Proiektua idazten den bitarteko segurtasun- eta osasun-arloko azterlana edo oinarrizko azterlana (alderatu azterlaneko datak eta obra burutzen denekoak).	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
4	Sustatzaileak izendatutako teknikari eskudun batek egin du segurtasun- eta osasun-arloko azterlana edo oinarrizko azterlana.	1627/1997 ED (5)	- Eskumena duen teknikariak 1. eta 2. galderetan adierazten diren prestakuntza dauka. - Obraren proiektua egiten den bitartean Koordinatzailea badago, horri dagokio azterlan horiek egitea eta eginaraztea, eta betiere, bere erantzukizunpean.	- Teknikari eskudunaren izendapena. - Horren gaitasuna egiaztatzea.	3			
5	Segurtasun- eta osasun-arloko azterlanak honako dokumentu hauek barne hartzen ditu: a) Memoria deskribatzailea. b) Baldintza berezien plegua. c) Planoak. d) Laneko segurtasun eta osasuneko unitate edo elementu guztien neurketak. e) Azterlana aplikatu eta gauzatzeko aurrekontua.	RD 1627/1997 (5)	a) Honako hauek barne hartzen ditu memoria deskribatzaileak: - Prozedurak. - Ekipo teknikoak eta baliabide osagarriak. - Horretarako egokiak diren neurrien bitartez saihets daitezkeen laneko arriskuen identifikazioa. - Horretarako egokiak diren neurrien bitartez saihestu ezin diren laneko arriskuen identifikazioa. - Langile-kopuruaren arabera, obran beharrezkoak diren osasun-zerbitzu eta zerbitzu arrunten deskribapena. - Obra kokaleku duenaren ingurunearen baldintzak. - Erabiliko diren material eta elementuen tipologia eta ezaugarriak. - Eraikuntza-prozesua eta lanak egiteko agindua. b) Honako hauek hartzen dira kontuan, baldintza berezien pleguan: - Obraren zehaztapen teknikoei aplika dakizkiekeen arauzko eta legezko arauak. - Makina, lanabes, sistema eta prebentzioko ekipoen erabilera eta zaintzaren ezaugarrien arabera bete behar diren arauak. c) Planoetan, zehaztapen tekniko eta guzti definitutako prebentzio-neurriak hobeto definitu eta ulertzeko behar besteko grafikoak eta eskemak garatzen dira. d) Definitu edo proiektatu diren laneko osasun- eta segurtasun-arloko unitate eta elementu guztien neurketak.	- Segurtasun- eta osasun-arloko azterlana. - Gutxienezko dokumentuak eta dokumentu ezberdinek interpretatzeko irizpideetan adierazitakoa barne hartzen dituztela egiaztatzea. - Aurrekonturako, hasierako azterlana eta kontratistak proposatutako alderatzea, eta dauden aldaketak teknikoki arrazoituta daudela eta hasiera bateko aurrekontuaren guztizko zenbatekoa ez dela murriztu egiaztatzea.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
			Kontratistak aurrekontuan jasotako neurketak, kalitateak edo balorazioak aldatu edo ordezkatu baditu, hori arrazoitzen duen justifikazio teknikoa egon behar du. Kontratistak segurtasun- eta osasun-arloko azterlanean ezarritakoaren beste alternatiba batzuk proposatzen dituenean, jatorriz zuen segurtasun- eta osasun-maila berbera mantentzera behartuta dago, eta horretarako, teknikoki arrazoitu beharko ditu aldaketak edo, hala badagokio, proposatzen dituen alternatibak. Ezin izango du aurrekontuaren guztizko zenbatekoa murriztu. e) Segurtasun- eta osasun-azterlana aplikatu eta exekutatzeko aurreikusitako gastuak zenbatzen ditu aurrekontuak, eta obraren aurrekontu orokorrari irentsita egongo da, horren beste kapitulu bat bezala. Horretan ez dira barne hartuko segurtasun- eta osasun-arloko Azterlanaren aurrekontua eta lanak profesionaltasunez egiteko, indarrean dauden arauzko arauen eta espezializatutako erakundeek eman eta onartutako irizpide teknikoen arabera eskatutako kostuak. Aurreikusitako gastuen multzoa zenbatzen da, hala guztizkoa nola elementuen balorazio unitarioa kontuan hartuta, kalkulatzeko erabilitako prezio-taularen erreferentzia eginez. Zailtasunez aurreikus daitezkeen elementu edo eragiketetarako, gora jotako kontu-sailak baino ezingo dira azaldu.				
6	Obrari aplikatu behar zaizkion segurtasun- eta osasun-arloko arauak zehazten ditu oinarrizko azterlanak eta honako hauek barne hartzen ditu: - Ekidin daitezkeen arriskuen eta horretarako beharrezkoak diren neurri teknikoen identifikazioa. - Ekidin ezin diren arriskuen zerrenda, eta baita dagozkion prebentzio- eta babes-neurriak ere, horien eraginkortasuna baloratuz.	1627/1997 ED (6)			3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
7	Obraren exekuzio-proiektuan edo, hala badagokio, obraren proiektuan barne hartuta dago segurtasun- eta osasun-arloko azterlana.	1627/1997 ED (5)	- Proiektuaren edukiarekin bat dator azterlana eta obra egiteak dakartzan arriskuen araberako prebentzio-neurriak jasotzen ditu.		1			
8	Azterlanak eta/edo oinarrizko azterlanak aintzat hartzen du obran burutuko den jarduera-mota.	1627/1997 ED (5)	- Azterlanak eta/edo oinarrizko azterlanak garatzen diren jarduera guztietako arriskuak aztertzen ditu, eta II. eranskinean jasotako lanak hartzen dituzten eremuak kokatuta eta identifikatuta daude, eta baita dagozkien neurri bereziak ere.	- 1627/1997 EDko II. eranskinean barne hartutako lanak hartzen dituzten eremuen zerrenda.	3			
9	Segurtasun- eta osasun-arloko azterlanak barne hartzen ditu, bere egunean, segurtasun- eta osasun-baldintza egokietan, egin daitezkeen lanei buruzko aurreikuspenak eta informazio erabilgarriak.	1627/1997 ED (5)		- Segurtasun- eta osasun-arloko azterlana.	1			
10	Obran esku hartzen duen kontratista bakoitzak, segurtasun eta osasun-arloko Plan bat egiten du, eta horretan, segurtasun- eta osasun-arloko azterlanean eta/edo oinarrizko azterlanean barne hartutako aurreikuspenak aztertu, garatu eta jasotzen ditu.	1627/1997 ED (7)	- Planak lanpostuetako arriskuen identifikazioa barne hartzen du eta, hala badagokio, baita arriskuen balioespena eta dagokion ebaluazioa ere. - Planak, kontratista bakoitzari esleitutako jarduera (edo gremio) bakoitzerako, sustatzaileak egindako Azterlanean ezarritako segurtasun- eta osasun-arloko neurriak zehazten ditu.	- Kontratista ezberdinek egindako segurtasun- eta osasun-arloko Planak dauden egiaztatzea.	3			
11	Segurtasun- eta osasun-arloko Planak prebentzio-baliabideak egoteko modua ezartzen du.	604/2006 ED			3			
12	Planak, lanen exekuzio-prozesuak, horren bilakaerak eta litezkeen intzidentziek horrela gomendatzen badute, bere baitan aldaketak egitea aurreikusten du.	1627/1997 ED (7)	- Planak kontratistek ezarritako aldaketak eta alternatibak jasotzen ditu, baldin eta hasierako Azterlanean jasotako aurrekontua eta segurtasun- eta osasun-maila murrizten ez badira.		1			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
13	Obrak dirauen bitartean segurtasun- eta osasun-arloko Koordinatzailea izango denak, obra hasi baino lehen, Plana edo Planak eta/edo gerora egin daitezkeen aldaketak onartu ditu.	1627/1997 ED (7)	- Administrazio Publikoen kasuan, obra esleitu duen Administrazioari dagokio Plana onartzea. - Obra egiten den bitartean Koordinatzailea beharrezkoa ez bada, Zuzendaritza Fakultateari dagokio onartzea. - Obraren exekuzioan esku hartzen dutenek, zein horretan esku hartzen duten enpresetako laneko arriskuen prebentzioan erantzukizuna duten pertsonek edo erakundeek, eta langileen ordezkariek, obraren exekuzio-prozesuaren segurtasun- eta osasun-maila hobetu eta osatzeko jakinarazpen-mekanismoa egokiak dituzte.	- Onarpena eta noiz onartu zen egiaztatzea. - Plana berraztertzeko eta, hala badagokio, aldatzeko mekanismoa dagoen egiaztatzea. - Aldaketak egotekotan, horiek eskumena duen pertsonak edo erakundeak onartu dituela egiaztatzea.	3			
14	Plana langileen ordezkarien eta obraren Zuzendaritza Fakultatiboaren esku dago uneoro.	1627/1997 ED (7)	- Obraren exekuzioan esku hartzen dutenek, zein horretan esku hartzen duten enpresetako laneko arriskuen prebentzioan erantzukizuna duten pertsonek edo erakundeek, eta langileen ordezkariek, segurtasun- eta osasun-arloko Plana eskura dute uneoro.	- Segurtasun- eta osasun-arloko Plana uneoro eskuragarri dagoela egiaztatzea.	3			
15	Proiektugileak kontuan hartu ditu, LANLean obraren Proiektua sortu, aztertu eta egiteko aldirako ezarritako prebentzio-ekintzaren printzipioak.	1627/1997 ED (8)	-Honako hauek dira LAPLaren prebentzio-ekintzaren printzipioak: arriskuak ekiditea, ekidin ezin diren arriskuak ebaluatzea, lana pertsonaren arabera egokitzea, bilakaera teknikoa kontuan hartzea, arriskutsua denaren ordez arrisku txikia edo arriskurik ez dutena erabiltzea, prebentzioaren plangintza egitea, banakako babesa beharrean babes kolektiboa lehenesten duten neurriak hartzea, eta langileei dagozkion jarraibideak ematea. Gainera, enpresaburuak kontuan hartzen ditu langileek segurtasun- eta osasun-arloan dituzten gaitasun profesionalak, egitekoak agintzerakoan;	- Obraren proiektuan prebentzio-ekintzaren printzipioak barne hartuta daudela egiaztatzea.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
			arrisku larri edo arrisku bereziko eremuetara bakarrik nahikoa informazio eta informazio egokia jaso duten langileak sartzen direla bermatzeko beharrezko neurriak hartzen ditu; prebentzio-neurrien eraginkortasunak, langileak izan ditzakeen oharkabetasunak eta egin ditzakeen zuhurgabetasunak kontuan hartzen ditu (horiek erabakitzeko, prebentzio-neurri zehatzek izan ditzaketen arrisku osagarriak hartzen dira kontuan, eta horiek bakarrik hartu ahal dira, arrisku horien munta kontrolatu nahi direnena baino nabarmen txikiagoa bada eta alternatiba seguruagorik ez dagoenean); aseguru-eragiketak hitzartu ahal dira, lanaren ondoriozko arriskuen aurreikuspena estalita dagoela bermatzeko, eta honela egingo dira: enpresak beren langileei, langile autonomoek bere buruari eta elkarte kooperatiboek bere bazkideei, baldin eta jarduera norbere lan pertsonala ematea bada. - Prebentzio-ekintzaren printzipioak kontuan hartu ditu, bereziki: a) Eraikuntza, teknika eta antolaketaren arloko erabakiak hartzerakoan. b) Lan edo lan-fase ezberdinen iraupena balioestean. c) Gerora egin daitezkeen lanak aurreikusterakoan.				
16	Obraren proiektua egiten den bitartean segurtasun- eta osasun-arloko Koordinatzailea denak, Proiektuan ezarritakoaren aplikazioa koordinatzen du.	1627/1997 ED (8)	- Lanen planifikazioaren erabaki tekniko eta antolakuntzazkoak hartzean, eta lanak edo lan horien faseak egiteko beharko den denbora aurreikustean, prebentzio eta segurtasuneko printzipio orokorren aplikazioa koordinatzen du.		1			
17	Obrak dirauen bitartean segurtasun- eta osasun-arloko Koordinatzailea denak, bere eginkizunak betetzen ditu obra egiten den bitartean.	1627/1997 ED (9)	- Obrako jarduera ezberdinak koordinatzen ditu, kontratistek, azpikontratistek eta langile autonomoek obrak dirauen bitartean prebentzio-ekintza aplikatzen dutela bermatzeko. - Kontratisten segurtasun- eta osasun-arloko Plana edo Planak eta, horietan ezarritako aldaketak onartzen ditu. - Enpresa-jarduera ezberdinen koordinazioa antolatzen du. - Baimenik ez duten pertsonak obran ez sartzeko beharrezko neurriak hartzen ditu. - Lan-metodoak behar bezala kontrolatzeko ekintzak eta eginkizunak koordinatzen ditu.	- Koordinatzailearen obra bisitatu edo ikuskatzeko plana egiaztatzea. - Baimenik ez duten pertsonak obran ez sartzea saihesten duten neurriak egiaztatzea. - Enpresa-jarduera ezberdinen arteko koordinazio-plana egiaztatzea.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
18	Kontratistek eta azpikontratistek prebentzio-ekintzaren printzipio orokorrak aplikatzen dituzte obra egiten den bitartean.	1627/1997 ED (10)	Prebentzio-ekintzaren printzipioak obraren exekuzioan aplikatzen dira, eta bereziki, ondorengo egiteko eta jardueretan: a) Obra garbi eta txukun mantentzean. b) Lanpostu eta lan-eremuen kokapena aukeratzean, horietara iristeko baldintzak eta lekualdatu edo zirkulatzeko bide edo eremuen ezarpena kontuan hartuta. c) Material ezberdinak manipulatzean eta baliabide osagarriak erabiltzean. d) Obra burutzeko beharrezkoak diren instalazioak eta gailuak mantendu, abiarazi aurretik kontrolatu eta instalazioak aldizka kontrolatzean, langileen segurtasun eta osasunari eragin diezaieketen akatsak zuzentzeko helburuarekin. e) Material ezberdinak, eta bereziki gai edo substantzia arriskutsuak direnean, biltegiratu eta gordetzeko eremua mugatu eta egokitzean. f) Erabilitako material arriskutsuak bertatik eramaten. g) Hondakinak eta zaborrak biltegiratu eta eraman edo ebakuatzean. h) Obraren bilakaeraren arabera, lan edo lan-fase ezberdinean eman beharko den denbora-tarte efektiboa egokitzean. i) Kontratistak, azpikontratistak eta langile autonomoak lankidetzan aritzean. j) Obran edo obratik gertu egiten den beste edozein lan edo jarduerarekiko elkarreraginak eta bateraezintasunak.	- Obra bisitatzea.	3			
19	Kontratistek eta azpikontratistek, segurtasun- eta osasun-arloko Planean ezarritakoa bete eta betearazten dute.	1627/1997 ED (11)		- Kontratistek eta azpikontratistek segurtasun- eta osasun-arloko Plana ezagutu eta betetzen dutela egiaztatzea.	3			
20	Kontratistek eta azpikontratistek, enpresa-jardueren koordinazioaren inguruan dituzten eginkizunak betetzen dituzte.	1627/1997 ED (11)			3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
21	Kontratistek eta azpikontratistek, obra egiten den bitartean, 1627/1997 EDKO IV. eranskinean ezarritako gutxienezko xedapenak betetzen dituzte.	1627/1997 ED (11)			3			
22	Kontratistek eta azpikontratistek langile autonomiei, obrako segurtasun- eta osasun-alorrean hartu behar diren neurri guztiei buruzko informazioa eman eta jarraibideak helarazten dizkiete.	1627/1997 ED (11)			3			
23	Kontratistek eta azpikontratistek, obrak dirauen bitartean segurtasun- eta osasun-arloko Koordinatzailea denak edo, hala badagokio, Zuzendaritza Fakultatiboak emandako azalpenak kontuan hartu eta jarraibideak betetzen dituzte.	1627/1997 ED (11)			3			
24	Kontratistak eta azpikontratistak langileen ordezkariei, segurtasun- eta osasun-arloko Planaren eta horren aldaketen kopia bat ematen diete.	1627/1997 ED (16)	Kontratistak eta azpikontratistak segurtasun- eta osasun-arloko Planaren kopia bat ematen dute, lanlekuan ezagut eta jarrai dezaten.	- Langileen Ordezkariak segurtasun- eta osasun-arloko Planaren eta horren aldaketen kopia duela egiaztatzea.	3			
25	Langile autonomoek prebentzio-jardueraren printzipio orokorrak aplikatzen dituzte, obra egiten den bitartean.	1627/1997 ED (12)	Prebentzio-ekintzaren printzipioak obraren exekuzioan aplikatzen dira, eta bereziki, ondorengo egiteko eta jardueretan: a) Obra garbi eta txukun mantentzean. b) Lanpostu eta lan-eremuen kokapena aukeratzean, horietara iristeko baldintzak eta lekualdatu edo zirkulatzeko bide edo eremuen ezarpena kontuan hartuta. c) Material ezberdinak manipulatzean eta baliabide osagarriak erabiltzean. .	- Obra bisitatzea.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
			d) Obra burutzeko beharrezkoak diren instalazioak eta gailuak mantendu, abiarazi aurretik kontrolatu eta instalazioak aldizka kontrolatzean, langileen segurtasun eta osasunari eragin diezaieketen akatsak zuzentzeko helburuarekin. e) Material ezberdinak, eta bereziki gai edo substantzia arriskutsuak direnean, biltegiratu eta gordetzeko eremua mugatu eta egokitzean. f) Erabilitako material arriskutsuak bertatik eramaten. g) Hondakinak eta zaborrak biltegiratu eta eraman edo ebakuatzean. h) Obraren bilakaeraren arabera, lan edo lan-fase ezberdinean eman beharko den denbora-tarte efektiboa egokitzean. i) Kontratistak, azpikontratistak eta langile autonomoak lankidetzan aritzean. j) Obran edo obratik gertu egiten den beste edozein lan edo jarduerarekiko elkarreraginak eta bateraezintasunak.					
26	Langile autonomoek segurtasun- eta osasun-arloko Planean ezarritakoa bete eta betearazten dute.	1627/1997 ED (12)		- Kontratistek eta azpikontratistek segurtasun- eta osasun-arloko plana ezagutu eta betetzen dutela egiaztatzea.	3			
27	Langile autonomoek enpresa-jardueren koordinazioaren inguruan dituzten eginkizunak betetzen dituzte.	1627/1997 ED (12)			3			
28	Langile autonomoek, obra egiten den bitartean, 1627/1997 EDKO IV. eranskinean ezarritako gutxienezko xedapenak betetzen dituzte.	1627/1997 ED (12)			3			
29	Langile autonomoek, obrak dirauen bitartean segurtasun- eta osasun-arloko Koordinatzailea denak edo, hala badagokio, Zuzendaritza Fakultatiboak emandako azalpenak kontuan hartu eta jarraibideak betetzen dituzte.	1627/1997 ED (12)			3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
30	Langile autonomiek prebentzio-ekintzaren printzipioak aplikatzen dituzte, eta bereziki, obra egiten den bitartean aplika daitezkeen printzipio orokorretan adierazitako egitekoak edo jarduerak garatzean.	1627/1997 ED (12)	Prebentzio-ekintzaren printzipioak obraren exekuzioan aplikatzen dira, eta bereziki, ondorengo egiteko eta jardueretan: a) Obra garbi eta txukun mantentzean. b) Lanpostu eta lan-eremuen kokapena aukeratzean, horietara iristeko baldintzak eta lekualdatu edo zirkulatzeko bide edo eremuen ezarpena kontuan hartuta. c) Material ezberdinak manipulatzean eta baliabide osagarriak erabiltzean. d) Obra burutzeko beharrezkoak diren instalazioak eta gailuak mantendu, abiarazi aurretik kontrolatu eta instalazioak aldizka kontrolatzean, langileen segurtasun eta osasunari eragin diezaieketen akatsak zuzentzeko helburuarekin. e) Material ezberdinak, eta bereziki gai edo substantzia arriskutsuak direnean, biltegiratu eta gordetzeko eremua mugatu eta egokitzean. f) Erabilitako material arriskutsuak bertatik eramaten. g) Hondakinak eta zaborrak biltegiratu eta eraman edo ebakuatzean. h) Obraren bilakaeraren arabera, lan edo lan-fase ezberdinean eman beharko den denbora-tarte efektiboa egokitzean. i) Kontratistak, azpikontratistak eta langile autonomoak lankidetzan aritzean. j) Obran edo obratik gertu egiten den beste edozein lan edo jarduerarekiko elkarreraginak eta bateraezintasunak.		3			
31	Langile autonomoek lan-ekipo egokiak erabiltzen dituzte.	1627/1997 ED (12)	- Ikusi 1215/1997 EDaren eta A.3. galdetegi osagarriaren aplikazioa.	- Lan-ekipoak 1215/1997 EDra zein 1435/1992 EDra egokituta dauden egiaztatzea.	3			
32	Langile autonomoek NBE egokiak erabiltzen dituzte.	1627/1997 ED (12)	- Ikusi 773/1997 EDaren eta A.5. galdetegi osagarriaren aplikazioa.	- NBEak 773/1997 EDra egokituta dauden egiaztatzea.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
33	Lanlekuan, segurtasun- eta osasun-arloko Planean ezarritako jarraipena eta kontrola egiteko Intzidentzia Liburua dago.	1627/1997 ED (13)	- Liburuak bikoiztutako bina orri izango ditu orrialde bakoitzeko. Liburua, segurtasun- eta osasun-Plana onartu duen teknikariari dagokion Elkargo profesionalak emandakoa izango da. - Administrazio Publikoen kasuan, proiektuak ikuskatzeko Bulegoak edo erakunde baliodunak emango du Liburua. - Liburua, uneoro, obran egongo da, eta obrak dirauen bitartean segurtasun- eta osasun-arloko Koordinatzailea denak izango edu edo, horrelakorik ezean, Zuzendaritza fakultatiboak.	- Intzidentzia Liburua dagoen egiaztatzea.	1			
34	Behar bezala erabiltzen da Intzidentzia Liburua.	1627/1997 ED (13.3 eta 13.4)	- Honako hauek idatzi ahal izango dituzte oharrak bertan: Zuzendaritza fakultatiboak, kontratistek, azpikontratistek, langile autonomoek, langileen ordezkariek eta Administrazio Publikoetako erakundeetako teknikariek. - Intzidentzia Liburuan oharpenen bat idazterakoan, obrak dirauen bitartean segurtasun- eta osasun-arloko Koordinatzailea denak edo, horrelakorik ezean, Zuzendaritza fakultatiboak, obrak kokaleku duen Probintziako Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzari igorriko dio honen kopia bat, 24 orduko epearen barruan. - Eragindako kontratistek eta honen langileen ordezkariek honen berri jasoko dute.	- Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzari dagokion unean eta moduan jakinarazi zaiola egiaztatzen dituzten dokumentuak eskatzea. - Eragindako kontratistak edo kontratistek zein langileen ordezkariek horren berri izan dutela egiaztatzea.	3			
35	Obra egiten den bitartean segurtasun- eta osasun-arloko Koordinatzailea denak edo, horrelakorik ezean, Zuzendaritza Fakultatiboak, segurtasun eta osasunerako arrisku larri eta hur-hurrekoa emateko baldintzak hautematen dituztenean, obraren zatiak edo obra osoa geldiarazteko agintzen dute.	1627/1997 ED (14)	- Eragindako kontratistari hautemandako ez-betetzeez ohartaraztea. - Intzidentzia Liburuan erregistratzea. - Arrisku larri eta hur-hurrekoa hautematekotan: a) Obrak dirauen bitartean sergurtasn- eta osasun-arloko Koordinatzaileak denak edo, horrelakorik ezean, Zuzendaritza fakultatiboak, beharrezkoa izanez gero, lan horiek edo obra osoa geldiarazi ditu. b) Dagokion Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzari, eragindako kontratista eta azpikontratistei eta langileen ordezkariei honen berri eman die.	- Intzidentzia Liburua egiaztatzea. - Arrisku larri eta hur-hurrekoaren inguruko oharrik egotekotan edo hori dela-eta, lanak geldiarazi egin behar izan badira, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzari dagokion unean eta moduan jakinarazi zaiola egiaztatzen dituzten dokumentuak eskatzea. - Eragindako kontratistak edo kontratistek zein langileen ordezkariek horren berri izan dutela egiaztatzea.	5			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
36	Langileek, beren segurtasuna eta osasuna bermatzeko hartu diren neurri guztien berri dute.	1627/1997 ED (15)	- Kontratistek eta azpkontratistek hartu beharrezko segurtasun- eta osasun-neurriak jakinarazten dizkiete euren langileei. Informazio hori, eraginpeko langile guztiek ulertzeko modukoa da.	- Laginketa bidez, langileek behar bezalako informazioa jaso dute eta informazio nola jaso duten egiaztatzea.	3			
37	Langileei edo horien ordezkariei kontsultatu egiten zaie eta esku hartzeko bide egokiak dituzte.	1627/1997 ED (16)	- Langileei edo beren ordezkariek, LAPLaren 18. artikuluko 2. atalak ezartzen duenaren arabera, kontsultatuak izateko eskubidea dute.	- Kontsultatu eta esku hartzeko ezarritako mekanismoak egiaztatzea.	3			
38	Dagokion Elkargo profesionalak ikus-onetsi du obraren Exekuzio Proiektua eta segurtasun- eta osasun-arloko azterlana edo, hala badagokio, oinarrizko azterlana barne hartzen du.	1627/1997 ED (17)	- Udal-lizentzia eta Administrazio Publikoek eskatzen dituzten gainerako baimenak eta izapideak, obren Exekuxio Proiektuan jasotako segurtasun- eta osasun-azterlanarekin eman dira. - Administrazio Publikoen kasuan, Proiektuak Ikuskatzeko Bulegoak edo erakunde baliokideak obraren exekuzio-proiektuan segurtasun- eta osasun-arloko azterlana barne hartu dela egiaztatzeko espresuki emandako adierazpena egongo da.	- Ikus-onetsia eta dagozkion izapide ezberdinak egiaztatzea. - Proiektuak Gainbegiratzeko Bulegoaren edo erakunde baliokidearen adierazpena begiratzea.	1			
39	Sustatzaileak, lanak hasi baino lehen, eskumena duen lan-agintaritzari dagokion jakinarazpena egin dio.	1627/1997 ED (18)	- 1627/1997 EDko III. eranskinean aurreikusitakoaren arabera idatziko da oharpena.	- Aurretiazko oharpena egin dela ziurtatzeko dokumentuak egiaztatzea. - Aurretiazko oharpena obran ikusgai dagoela egiaztatzea. - Datak aztertzea, aurretiazko oharpena lanak hasi baino lehen egin dela egiaztatzeko.	1			
40	Eskumena duen lan-agintaritzari lanlekua irekitzeko egindako jakinarazpenak, segurtasun- eta osasun-arloko dagokion Plana barne hartzen du.	1627/1997 ED (19)	- Plan hori, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzaren eta segurtasun- eta osasun-arloan eskumena duten Administrazio Publikoetako espezializatutako erakundeetako teknikarien eskura egongo da, uneoro.	- Irekitzeko jakinarazpena ziurtatzen duten dokumentuak egiaztatzea.	3			
41	Enpresa nagusiak, eraikuntza-lan osoan ezarri du LAPa.	LAPL (16)			5			
42	Enpresaburu nagusiak, LAParen inguruko eraikuntza-lanei buruzko alderdiei buruz kontsultatu eta horietan esku hartzeko ahalmena eman die langileei eta horien ordezkariei.	LAPL	- Inkesta eta abarren bidez egindako kontsultei eta emandako informazioari buruzko dokumentazioa.	- Inkesta eta abarren bidez egindako kontsultei eta emandako informazioari buruzko dokumentazioa.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
43	Prebentzio-baliabideak egoteaz arduratzeko izendatutako pertsonek, prebentzio-jarduerak berehala eta egoki betetzeko beharrezko jarraibideak ematen dituzte, eta enpresaburuari jakinarazten dizkiote.	604/2006 ED		- Enpresaburuak lanean prebentzio-baliabideak egoteko izendatutako pertsonek egindako jakinarazpenak.	3			
44	Enpresaburuak hautemandako akatsak zuzentzeko beharrezko neurriak hartzen ditu. Akats horiek, eraikuntza-lanean prebentzio-baliabideak egoteaz arduratzeko izendatutako pertsonek jakinarazten dizkiote.	604/2006 ED			3			
45	Obran prebentzio-baliabideak egoteaz arduratzeko izendatutako pertsonek, zaintzaren ondorioz prebentzio-neurriak ez direla betetzen, behar bezala ez direla betetzen edo egokiak ez direla hautematen dutenean, enpresaburuari jakinarazten diote.	604/2006 ED		- Egindako jakinarazpenak.	5			
46	Enpresaburuak, obran prebentzio-baliabideak egoteaz arduratzeko izendatutako pertsonek, zaintzaren ondorioz prebentzio-neurriak ez direla betetzen, behar bezala ez direla betetzen edo egokiak ez direla hauteman dutela jakinarazten diotenean, akats horiek zuzendu eta segurtasun- eta osasun-arloko Plan aldatzen du berehalakoan.	604/2006 ED		- Segurtasun eta Osasun Planaren aldaketak.	5			

B.2. JARDUERA BEREZIEN GALDETEGIA ARRANTZA-ONTZIAK

DOKUMENTU HONEN APLIKAZIOA

Helburua

Arrantza-ontzi berriak eta lehendik daudenak 1216/1997 EDak ezarritako segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenetara egokitzen diren egiaztatzea.

Eremua

Lehendik dauden eta berriak diren arrantza-ontzi guztiei aplikatzen zaie.

Aldi baterako epealdiak: Dauden arrantza-ontziek, 1997/1216 EDko II. eranskinean azaltzen diren laneko segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenak bete beharko dituzte, gehienez ere, 2002ko azaroaren 23rako.

Definizioak

«*Arrantza-ontzia*», Espainiako bandera daraman edo espainiar jurisdikzioaren menpe erregistratutako, eta arraina edo itsasoko bestelako baliabide biziak harrapatu eta egokitzeko merkataritza-helburuko arrantza-ontzia da.

«*Arrantz-ontzi berria*», perpendikularren artean 15 metro edo gehiagoko eslora duen arrantza-ontzia da, eta gainera, 1995eko azaroaren 23tik, edo hortik aurrera, ondorengo baldintzaren bat eman bada:

1) Eraikuntza- edo eraldaketa-kontratu garrantzitsua egin badute.
2) 1995eko azaroaren 23a baino lehen, eraikuntza- edo eraldaketa-kontratu garrantzitsua egin badute, arrantza-ontzia, gutxienez ere, handik hiru urtera entregatu bada.
3) Eraikuntza-kontraturik ezean:

   1.a. Arrantza-ontziaren gila instalatu bada.
   2.a. Edo, arrantz-ontzi zehatz bat egiteko moduko eraikuntza hasi bada.
   3.a. Edo, muntaketa-eragiketa bati ekin bazaio, eta honek, gutxienez ere, egitura osatzen dutela aurreikusten den guztizkoaren 50 tona edo, bigarren balio hau lehenengoa baino txikiago denean, guztikoaren 100eko 1a erabiltzea eskatzen badu.

«*Dagoen arrantza-ontzia*», perpendikularren artean 15 metro edo gehiagoko eslora duen arrantza-ontzi berri guztiak.

«*Ontzia*», lehendik dagoen edo berriki egindako arrantza-ontzia da.

«*Langilea*», arrantza-ontzi batean lanbide-jarduera bat burutzen duten pertsonak dira, prestakuntza-aldian daudenak edo ikastunak barne, eta kaian atrakatutako arrantza-ontzi baten gainean edo kaian bertan jarduera-profesionala burutzen dutenak izan ezik.

«*Ontzi-jabea*», bere edo besteren baten arrantza-ontziak erabilita, horiek ustiatzen lan egiten duen pertsona fisiko edo juridikoa da, nahi eta bere jarduera nagusia ez izan, eta nazioarteko erabileren artean onartutako edozein modalitatetan (arrantza-ontziak erabiltzeko lagatzea barne) aritzen bada. Kasu honetan, lagatako ontzia erabiltzen duen pertsona fisiko edo juridikoa da ontzi-jabea.

«*Kapitaina*», horretarako behar bezala gaitutako langilea da. Honek, arrantz-ontzian agintzen du eta ontziaren itsaso funtzionamendu operatiboaren arduraduna da.

Eskatu beharreko dokumentazioa

Galdetegi hau osatzeko auditoria egitean, ikuskatzaileak irakurri behar dituen edo irakurtzea komeni zaion zenbait liburu jaso ditugu zerrenda honetan:

a) Nabigatzeko baimenak.
b) 1216/1997 EDra egokitzeko egindako check-list delakoak (OSALANeko lantaldeak garatutakoa izan daiteke kontuan: OSALANek argitaratutako, Arrantza-ontzien gaineko lanaren segurtasun- eta osasun-baldintzei buruzko eskuliburua).
c) Itsasoan gertatutako eta ontziko langileengan eraginaren bat izan duten edo izen dezaketen gertakariei buruz egindako txostenak.
d) Itsas Kapitaintzak eta Ontzien Ikuskaritzak egindako ikuskapenei buruzko txostenak.
e) Arrantza-ontzietan, LAParen inguruan hartu beharreko neurri egokiei buruz, langileek eta horien ordezkariek jasotako prestakuntza eta informazioa.

B.2. ARRANTZA-ONTZIAK

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Ontzi-jabeak LAPa ezarri du arrantza-ontzian.	LAPL (16) PZA (1)	- Arrantza-ontzia eraikitzen, LAParen ingurukoa kontuan izan da. - Arrantza-jardueretan, LAParen ingurukoa kontuan izaten da (ontziratzeko eskailera, arrantza-tresnen biltegiratzea, komunak, kamainak, elikagaien biltegiratzea, etab.).		5			
2	Arrantza-ontziaren egileak LAPLean prebentzio-ekintzaren inguruan ezarritako printzipioak kontuan izan ditu, arrantza-ontziaren proiektua sortu, aztertu eta lantzeko faseetan.	LAPL (16) PZA (1)			5			
3	Ontzi-jabeak, arrantza-jardueren inguruko LAPean ezarritako alderdiei buruz kontsultatu eta horretan esku hartzea ahalbidetu die langileei eta euren ordezkariei.	LAPL (16) PZA (1)		- Inkesta, elkarrizketa eta abarren bidez, informazio eta kontsultako dokumentazio egokia.	3			
4	Langileek, arrantz-ontzi gaineko lanak egiten dituzten bitartean, prebentzio-ekintzaren printzipio orokorrak aplikatzen dituzte.	LAPL (16) PZA (1)			3			
5	Ontzi-jabeak Kapitainari, 1216/1997 EDko eginkizunak betetzeko beharrezkoak dituen baliabideak ematen dizkio.	1216/1997 ED (3)			3			
6	Ontzi-jabeak, langileen segurtasun eta osasuna arriskuan jarri gabe erabiltzen ditu ontziak.	1216/1997 ED (3)	- Eguraldi txarra aurreikusten denean, ez dira arrantzan egitera ateratzen.	- Elkarrizketen bidez, eguraldi txarra dagoenean arrantzan egitera ateratzen den egiaztatzea (Kontuan izan OSALANeko lantaldeak adierazitakoa).	5			
7	Ontzi-jabeak itsasoan gertatzen diren eta ontzian lan egiten duten langileen osasunean eraginen bat izan dezaketen gertakariei buruzko txostena egiten du.	1216/1997 ED (3)	- Gertatutako jazoerei buruzko xehekako txostenak egiten dira, eta horiek lan-agintaritzari helarazi eta nabigazio-egunkarian edo dokumentu berezian jasotzen dira.	- Egindako txostenak begiratzea (OSALANeko lantaldeak egindako txostena izan daiteke kontuan). - Lan Agintaritzan, txostenaren sarrera-erregistroa ikustea.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
8	Arrantza-ontziak, segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenak betetzen ditu.	1216/1997 ED (4)	- Arrantza-ontzia berria bada (1216/1997 EDko 2.2. artikuluan adierazitakoaren arabera), ED horretako I. eranskinean adierazitakoa betetzen da. - Arrantza-ontzia lehendik dagoena bada (1216/1997 EDko 2.2. artikuluan adierazitakoaren arabera), ED horretako II. eranskinean adierazitakoa betetzen da.	- OSALANeko lantaldeak egindako Check-list delakoa izan daiteke kontuan.	3			
9	Segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenak betetzen dituzte egindako konpontze, eraberritze eta aldaketa lanek.	1216/1997 ED (4)	- 1216/1997 EDko I. eranskinean adierazitakoa betetzen dute.	- OSALANeko lantaldeak egindako Check-list delakoa izan daiteke kontuan.	3			
10	Ontzi-jabeak beharrezkoak diren ekipoak ditu eta egoera hobezinetan mantentzen ditu.	1216/1997 ED (5)	- Ontzi-jabeak, arrantza-ontzien, bertako instalazioen eta gailuen (nabigagarritasuna eta egonkortasuna, instalazio elektriko eta mekanikoa, irrati-komunikazioko instalazioa, larrialdietako bideak eta irteerak, suteak detektatu eta horien aurka borrokatzea, etab.) mantentzea egiteaz eta langileen segurtasun eta osasunari eragin diezaieketen eta hauteman diren akatsak lehenbailehen zuzentzeaz arduratzen da. - Ontzi-jabeak, arrantza-ontzia eta bertako instalazioak eta tresnak aldizka garbitzen direla bermatzeko neurriak hartzen ditu, higiene- eta segurtasun-baldintza egokietan manten daitezen. - Ontzi-jabeak, salbamendu eta bizirik irauteko baliabide egokiak ditu arrantza-ontzian; horiek, gainera, funtzionamendu-egoera egokian daude, eta behar bestekoak dira (kontuan hartu 1216/1997 EDko III. eranskinean adierazitakoa). - Ontzi-jabeak NBE egokiak ematen dizkie langileei (kontuan hartu 1216/1997 EDko IV. eranskinean adierazitakoa).	- Itsas Kapitaintzak eta Ontzien Ikuskaritzak egindako ikuskapenak begiratzea. - OSALANeko lantaldeak egindako Check-list delakoa izan daiteke kontuan.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
11	Ontzi-jabeak, langileek eta horien ordezkariek arrantza-ontzi barruko segurtasun- eta osasun-arloko, zein 1216/1997 EDari jarraiki aplikatzen diren prebentzio- eta babes-neurriei buruzko prestakuntza eta informazio egokiak jasotzen dituztela bermatzen du.	1216/1997 ED (6 eta 7)	- Arrantza-lanetan aritzen diren langileentzat, honako hauetan datza prestakuntza: arrantzako aparailuen eta trakzioko ekipoen erabileran, eta seinaleztatzeko metodo ezberdinetan, eta bereziki, keinu bidezko komunikazioan. - Informazioa ulergarria da. - Prestakuntza jarraibide zehatza eta ulergarrien bidez eskaintzen da eta eguneratuta mantentzen da. - Prestakuntza berezia jasotzen dute arrantza-ontzian agindu ahal duten pertsonek (arrantza-ontziko gaixotasun profesionalei eta laneko arriskuei aurrea hartzea eta istripua gertatzekotan hartu behar diren neurriak, suteen aurka borrokatzea eta salbamendu eta bizirik irauteko baliabideak erabiltzea, ontziaren egonkortasuna eta egonkortasun hori zamaketa- edo arrantza-jardueren inguruan aurreikus daitekeen edozein egoeratan mantentzea, eta nabigatu eta irratiz komunikatzeko prozedurak).	- Suteen aurkako borrokaren edo salbamendu edo bizirik irauteko baliabideen erabileraren ingurukoa bada - Jasotako prestakuntzaren egiaztagiriak begiratzea. - OSALANeko lantaldeak prestakuntza eta informazioari buruz landutakoa kontuan hartzea.	3			
12	Arrisku larri eta hurhurrekoaren kasuan, dagozkion ekintzak burutzen dira.		- Eguraldi txarra aurreikusten denena ez dira arrantzara ateratzen. - Eguraldi txarra dagoenean, ez dira arrantza-jarduerak burutzen.		5			
13	Aplika dakiekeen araudian aurreikusitako aldizkako kontrolak egiten dizkiote arrantza-ontziari.	1216/1997 ED (3)		- Sustapen Ministerioaren menpeko Ontzien Ikuskariak nabigatzeko emandako baimena begiratzea.	3			

B.3. JARDUERA BEREZIEN GALDETEGIA MEATZARITZA-JARDUERAK

DOKUMENTU HONEN APLIKAZIOA

Helburua

Meatzaritza-jarduerak, 1389/1997 EDan ezarritako segurtasun- eta osasun-arloko gutxieneko xedapenak egokitzen diren egiaztatzea.

Eremua

Aire zabaleko edo lurpeko erauzketa-industriei aplikatzen zaie.

Salbuespenak

Substantzia mineralak eraldatzeko jarduerak at gelditzen dira, eta baita, otsailaren 2ko 150/1996 Errege Dekretuak aldatutako Meatzaritzako Segurtasunaren Oinarrizko Araudiari buruzko Erregelamendu Orokorreko 109 artikuluan araututako zundaketa bidezko erauzketa-industriak ere.

Definizioak

«*Aire zabaleko edo lurpeko erauzketa-industriak*», honako hauek dira:

1. aire zabalean edo lurpetik, baita dragatuz ere, substantzia mineralak erauzteko jarduera bera burutzen dutenak.
2. erauzteko egindako prospekzio-jarduerak burutzen dituztenak.
3. erauzitako materiak saltzeko prestakuntza-jarduerak (substantzia horien eraldaketa-jardueretakoak salbu) burutzen dituztenak.
4. tunel edo galeriak zulatu eta erauzteko jarduerak burutzen dituztenak, edozein dela tunel edo galeria horien helburua, eta eraikuntza-lanetako segurtasun- eta osasun-arloko gutxienezko baldintzen inguruko araudia xedatutako baztertu gabe.

«*Lanlekuak*», aire zabaleko edo lurpeko erauzketa-industriarekin zuzenean edo zeharka lotutako jarduera eta instalazioen inguruko lanpostuak ezartzeko erabakitako leku-multzoa, hondakin-biltegiak, zabortegiak eta biltegiratzeko beste eremu batzuk eta, hala badagokio, lanaren ondorioz langileek ostatu hartzeko izan ditzaketen ostatu-lekuak barne hartuta.

Eskatu beharreko dokumentazioa

Galdetegi hau osatzeko auditoria egitean, ikuskatzaileak irakurri behar dituen edo irakurtzea komeni zaion zenbait liburu jaso ditugu zerrenda honetan:

a) Segurtasun eta osasunari buruzko dokumentua.
b) Zaindarien izendapena.
c) Bakarrik diharduten langileentzako neurriak.
d) Presentzia kontrolatzeko antolaketa-sistema.
e) Egindako neurketak.

f) Jardueren planoak.
g) Aireztapenaren planoak.
h) Ikuskapen, mantentze eta egiaztatze plana, ikuskapen-fitxak eta guztiz.
i) Enpresen arteko koordinazio-neurriak.
j) Leherketa, sute, gas toxiko eta abarren aurkako plana.
k) LAPari buruzko prestakuntza eta informazioa.

B.3. MEATZARITZA JARDUERAK

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Enpresaburuak «Segurtasun eta osasunari buruzko Dokumentua» (SOD) egiten dela ziurtatzen du.	1389/1997 ED (3)	- Segurtasun eta osasunari buruzko dokumentuak (SOD), LAPLaren III. eta V. kapituluetako baldintzak jasotzen ditu. - Dokumentua, lana hasi baino lehen prest dago.	- SOD. - SODa zein egunetan egin den.	5			
2	«SOD» eguneratuta mantentzen da.	1389/1997 ED (3)	- Lanlekuan aldaketa, handitze edo eraldaketa garrantzitsuak ematekotan, SODa berrikusi egiten da. Beharrezko bada, istripu hilgarri eta larri edo arrisku larriko egoeren ondoren eguneratzen da. Gutxienez ere, urtean behin eguneratzen da SODA.	- Berrikuspenak edo horiek egiteko prozedurak. - Meatzaritzako Agintaritzari (MA) aurkeztea.	5			
3	Langileek dituzten arriskuak identifikatu eta ebaluatu direla egiaztatzen du SODak.	1389/1997 ED (3, A, B, C)	- Arriskuak identifikatu eta ebaluatzea; langile minusbaliatuentzako baldintzak; haurdun edo edoskitze-aldian dauden amentzako baldintzak; zirkulazio-bideetako arriskuak, bideen trazadura, zirkulazio-arauak; zirkulazio-arriskuak, eguraldi txarra, objektuak erortzea, irristatze/erortzeak, lur-jausi edo -irristadurak; zirkulazio eta garraioko arriskua, lurren egonkortasuna, grisuaren kontrola, gas- edo ur-isurketak.	- SOD. - Lurren (barrualdekoak) egonkortasunari buruzko dokumentatutako ikuskapenak.	3			
4	SODak neurri egokiak hartzen direla egiaztatzen du.	1389/1997 ED (B, C)	- Enpresaburuak, hartutako neurrien aldizkako kontrolak antolatu eta agintaritza eta langileen ordezkariei helarazten dizkie.	- Urtero eguneratu eta MAri aurkeztea (Egitekoen Planarekin batera).	3			
5	Lanlekuen aukeraketa, erabilera eta mantentzea seguruak direla egiaztatzen du SODak.	1389/1997 ED (A, B, C)	- Arriskuen aurrean, lekuen diseinu egokia; lanpostu ergonomikoak; pertsona eskudunak egindako zaintza, eta bereziki, bakarrik lan egiten duten langileen kasuan, eta barruan lanean ari diren langileen berri izatea; eragiketa-modu seguruak aplikatzen dira; tenperatura-, argi- eta zarata-baldintza egokiak; barrualdeko lurren egonkortasunari buruzko ikuskapena; barrualdeko lanen planoak eskuragarri daude lanlekuan; lan-mahaiak eta zirkulatzeko pistak, segurtasun-baldintzen arabera eraiki eta mantentzen dira.	- Zaindarien izendapena. - Bakarrik jarduten diren langileentzako neurriak. - Presentzia kontrolatzeko antolaketa-sistema. - Dauden neurketak. Ikuskapena. - Ikuskapenen eguna eta emaitza jasotzen dituen dokumentua. - Egitekoen planoa dago.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
6	Lan-ekipoen aukeraketa, erabilera eta mantentzea seguruak direla egiaztatzen du SODak.	1389/1997 ED (A, C)	- langileen segurtasun eta osasunerako xedapenak kontuan hartuta aukeratu, instalatu, martxan jarri, funtzionarazi eta mantentzen dira ekipo mekaniko eta elektrikoak; langile gaituek sistematikoki ikuskatzeko plana egotea; segurtasun-materiala funtzionamendu-egoera egokian mantentzea; aireztapenaren plano eguneratua eta lanlekuan eskuragarri egotea; aireztapenaren matxuren kontrola, aireztapena bat-batean gelditu dela ohartarazteko alarma automatikoa (lurpean); aireztapen-parametroen neurketen erregistroak; garraiobideen mantentze-lana.	- Ikuskatu eta mantentzeko plana eta ikuskapen-fitxak egiaztatzea. - Aireztapenaren planoa. - Gailu automatikorik dagoen egiaztatzea. - Neurketen erregistroak.	3			
7	Enpresen arteko koordinazio-neurriak zehaztuta daude.	1389/1997 ED		- Enpresen arteko koordinazio-neurriak.	3			
8	Langileak hartzen dituzten lekuetako funtzionamendua ikuskatzen duen arduradun bat dago.	1389/1997 ED (3, A)	- Enpresaburuak izendatutako arduraduna. Enpresaburuak normalean eta etengabe lan egiten badu eta beharrezko prestakuntza eta trebakuntza baditu, berori izan daiteke arduraduna.	- Arduraduna.	3			
9	Arrisku berezia duten lanak, eskumena duten langileei baino ez zaizkie agintzen eta emandako jarraibideen arabera gauzatzen dira.	1389/1997 ED (3, A, B, C)		- SOD. - Arrisku bereziko lanetarako pertsonak egokiak diren egiaztatzea. - Jarraibideak dauden egiaztatzea. - Emandako baimenak. - Zonakako seinaleak.	5			
10	Ulertzeko modukoak dira eraginpeko langileentzako segurtasun-jarraibideak.	1389/1997 ED (3, A, C)		- Idatzizko jarraibideak.	3			
11	Lehen laguntzetarako materiala eta instalazioak daude.	1389/1997 ED (3, A)		- Lehen laguntzetarako materiala eta instalazioak.	1			
12	Aldizka, segurtasun eta ebakuazioko praktikak egiten dira.	1389/1997 ED (3, A)		- Praktiken erregistroak.	3			
13	Sute eta leherketen aurka babesteko neurri egokiak hartzen ditu enpresaburuak.	1389/1997 ED (4, A, C)		- Leherketen aurkako plana. - Suteen aukako plana.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
14	Osasunerako kaltegarriak diren atmosferak sortzea galarazteko neurri egokiak hartzen ditu enpresaburuak.	1389/1997 ED (4; A)		- Gas toxikoen aurkako plana. - Ekipoak dauden egiaztatzea.	3			
15	Sorospen, ebakuazio eta salbamenduko eragiketak berehalakoan abiarazteko alarma-sistemak eta bestelako komunikazio-bideak daude.	1389/1997 ED (6).		- Alarma- eta komunikazio-sistemak.	3			
16	Ebakuazio eta salbamenduko baliabideak daude, eta mantendu egiten dira.	1389/1997 ED (5, A, C)	- Ebakuazio eta salbamenduko baliabideak, hala nola: larrialdiko bideak eta irteerak, larrialdiko ateak, erreskate-ekipoak, neurriei buruzko informazioa langileentzat. Lurpeko lanetan, arnasketa babesteko autosalbamenduko aparatu bat izan beharko dute langileek eskura. Erregulartasunez kontrolatutako aparatua. Erabiltzen ikasi duten langileak. Salbamenduko-antolaketa bat dago, eta entrenatutako brigadista eta material egokiaz osatuta dago.	- Lekuen ikuskapena. - Autosalbamenduko aparatuak. Berrikuspenen kontrolak. - Langileen prestakuntzaren erregistroak. -Brigadisten zerrenda. Horien prestakuntza.	3			
17	Aldagelak, dutxak, komunak eta atsedenlekuak daude.	1389/1997 ED (A)	A-14 eta A-16-8.eko baldintzak; lanlekuei buruzko 486/1997 EDan jasotakoak dira.		1			
18	Aurreko puntuei buruzko langile eta horien ordezkarientzako informazio ulergarria.	1389/1997 ED (7).		- Emandako informazioa.	3			
19	Lan Agintaritzari eta Meatzetako Agintaritzari gerta daitezkeen istripu hilgarri, larri edo arrisku larriko egoeren berri lehen 24 ordutan ematea.	1389/1997 ED (3)		- Emandako informazioa.	3			
20	Behar beste langile-kopuruk jaso du lehen laguntzei buruzko prestakuntza.	1389/1997 ED (A)		- Emandako prestakuntza.	1			
21	MAri urtero aurkezten zaizkio segurtasun-neurrien kontrolak eta SODa. SODa Lan Agintaritzaren, Osasun Agintaritzaren eta langileen ordezkarien eskura dago.	1389/1997 ED (3, B, C)		- Urtero aurkezten den egiaztatzea.	3			
22	LAPLean ezarritakoaren araberako kontsulta eta partehartzea.	1389/1997 ED (9).			3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
23	Enpresaburuak arriskuen araberako osasun-zaintza egokia bermatzen du.	1389/1997 ED (8).	- LAPLak eta PZAk ezartzen dutenaren arabera. - 2. artikuluko jarduerak (1389/1997 EDaren araberako meatzaritza-jardueren zerrenda) egiteko agindua jaso baino lehen eta aldizka (legeriaren, hitzarmen kolektiboen eta enpresa-akordioen arabera).	- Osasun-kontrolak.	3			

Arrisku zehatzei buruzko galdetegiak

C.1 ARRISKU ZEHATZARI BURUZKO GALDETEGIA AGENTE BIOLOGIKOAK

GALDETEGI HONEN ERABILERA

Xedea

644/1997 Errege Dekretuan eta 1998ko martxoaren 25eko Aginduan finkatutako lan-baldintzak betetzen direla egiaztatzea, langileak lanean agente biologikoen eraginpean egoteak dakartzan arriskuetatik babesteari dagokionez.

Esparrua

Langileak beren lan-jardueraren ondorioz agente biologikoen eraginpean daudenean edo egon daitezkeenean bete behar dira xedapen horiek.

Agente biologikoen sailkapena

644/1997 Errege Dekretuari jarraiki, agente biologikoak lau multzotan sailkatzen dira, infekzio-arriskuaren arabera:

a) **1. multzoko** agente biologikoak: gizakiengan gaixotasunen bat sortzeko probabilitate txikia dutenak.
b) **2. multzoko** agente biologikoak: gizakiengan gaixotasunen bat eragin dezaketenak, langileentzat arriskutsuak izanik, talde osora zabaltzeko probabilitate txikia egonik eta, normalean, profilaxi edo tratamendu eraginkorra dutenak.
c) **3. multzoko** agente biologikoak: gizakiengan gaixotasun larriren bat eragin dezaketenak, langileentzat oso arriskutsuak izanik, talde osora zabaltzeko probabilitatea egonik eta, normalean, profilaxi edo tratamendu eraginkorra dutenak.
d) **4. multzoko** agente biologikoak: gizakiengan gaixotasun larriren bat eragin dezaketenak, langileentzat oso arriskutsuak izanik, talde osora zabaltzeko probabilitate handia egonik eta, normalean, profilaxi edo tratamendu eraginkorrik ez dutenak.

Definizioak

«*Agente biologikoak*»: era guztietako infekzioak, alergiak eta toxikotasuna eragin dezaketen mikroorganismoak (genetikoki eraldatuak, zelula-hazkuntza eta giza endoparasitoak barne).

«*Mikroorganismoak*»: birsortzeko edo material genetikoa transferitzeko gai diren izaki mikrobiologiko guztiak (zelularrak izan ala ez).

«*Zelula-hazkuntza*»: organismo multizelularretatik ateratako zelulen «in vitro» haztearen emaitza.

Eskatu beharreko dokumentazioa

Galdetegi hau osatzeko ikuskaritza egitean, ikuskatzaileak irakurri behar dituen edo irakurtzea komeni zaion zenbait liburu jaso ditugu zerrenda honetan.

a) Agente biologikoen identifikazioa eta sailkapena.
b) Arrisku biologikoen ebaluazioa.
c) Langileei egindako berariazko osasun-azterketak.
d) 2., 3. edo 4. multzoko agente biologikoak lehenbiziko aldiz erabiltzean, lan-arloko agintaritzari bidalitako jakinarazpenak.
e) Agente biologikoei eta laneko arriskuen prebentzioko (LAP) neurriei buruz emandako prestakuntza eta informazioa.
f) Deskontaminatzeko eta desinfektatzeko prozedurak.
g) Hondakin kutsatzaileak arriskurik gabe manipulatzeko eta ezabatzeko prozedurak.

C.1. AGENTE BIOLOGIKOAK

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Agente biologikoak erabiliz gero langileei kontsultatu eta parte hartzen utzi behar die enpresaburuak.	644/1997 ED (13)	- LAPi buruzko 31/1995 Legeko 18. artikuluko 2. atalarekin bat etortzea.	-Puntu hori egiaztatzea.	3			
2	Enpresak bere agente biologikoak identifikatu eta lau infekzio-mailetan sailkatu behar ditu.	664/1997 ED (3)	- Agenteren bat EDko zerrendan agertzen ez bada, lau multzoetako batean sailkatu beharko da;, zalantzarik izanez gero, multzo arriskutsuenean sartu behar da.	-Agente biologikoen sailkapena.	3			
3	Saihesterik egon ez den agente biologikoak ebaluatu behar ditu enpresak.	644/1997 ED (4, 6, 14)	- Ebaluazioan atal hauek zehaztu behar dira: langileak zenbat denbora egon diren agentearen eraginpean, eragin hori zenbatekoa izan den eta eragina nolakoa izan den.	-Arriskuen ebaluazioa.	3			
4	Arriskuen ebaluazioa egiteko eskuragarri dagoen informazio guztia hartu behar da kontuan.	644/1997 (4) ED	- Ebaluazioan atal hauek zehaztu behar dira: dauden agente biologikoak nolakoak diren, zein multzotakoak diren, zein ondorio eragiten duten eta langileen sentsibilitatea.	-Arriskuen ebaluazioa.	3			
5	Arriskuen ebaluazioa aldiro-aldiro errepikatu behar da.	644/1997 (4) ED	- Kasu hauetan nahitaez: langileak agente biologikoen eraginpean egoteko baldintzak aldatzen diren bakoitzean edo lanean halako agenteen eraginpean egotearen ondorioz nolabaiteko ondoriorik antzematen denean.	-Arriskuen ebaluazioak berrikustea.	3			
-Arriskuen ebaluazioa egin eta gero, langileak beren osasun eta segurtasunari arrisku ezagunik eragiten ez dien 1. multzoko agente baten eragipean egon direla ikusten bada, bete beharreko baldintzak hauek izango dira: arriskuen ebaluazioa egitea eta laneko segurtasun- eta osasun-baldintza egokiak izateko printzipioak (644/1997 EDko 4.4. art.) betetzea. **GAINERAKO GALDERAK UTZI.**								
6	Enpresak, ahal duen neurrian behintzat, ez du agente biologikorik erabili behar.	664/1997 ED (5)	-Erabiltzeko moduaren arabera, langileen segurtasun eta osasunerako arriskutsuak ez diren edo, izatekotan, arrisku txikiagoa dakarten beste agente batzuekin ordezkatzea.	-Arriskuen ebaluazioa.	3			
7	Langileen osasun eta segurtasunerako arriskurik egonez gero, arrisku hori saihestu edo albait gehien murriztu behar da.	664/1997 (6, 14) ED	-Arriskuak murrizteko neurri hauek hartu daitezke, besteak beste: Lan-prozedura egokiak, neurri tekniko egokiak, taldeko eta banakako babesak, agente biologikoen eraginpean egotea eragin dezaketen arriskuei aurre egiteko planak prestatzea.	-Arriskuen ebaluazioa (arriskua saihesteko edo murrizteko hartutako neurriak).	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
8	Beharrezko banakako higiene-eta babes-neurriak hartu behar ditu enpresaburuak, bere kontura.	664/1997 (7) ED	- Helburu hauek dituzte neurri horiek: arauak agindutakoa betetzea, arrisku-zonetan jatea edo erretzea debekatzea, babes-jantziak ematea eta jantziok leku txukun batean erraz ikusteko moduan gordetzea, garbiketa-zonak egokitzea, etab.	-Hartutako higiene-neurriak.	3			
9	Armairu desberdinak jarri behar dira laneko eta kaleko arropa gordetzeko.	664/1997 (7) ED			3			
10	Eraginpean egon ondoren egin beharreko osasun-azterketen inguruko aholku eta informazioa eman behar zaie langileei.	664/1997 (8) ED	- Prebentzio Zerbitzuen Araudiko 37.3-e artikuluak lanaldia amaitu ondoren osasuna zaintzeari buruz agindutakoa bete behar da: «lanari lotutako arriskuen ezaugarrien ondorioz beharrezkoa bada, langileek beren osasuna aldiro-aldiro aztertzeko eskubidea dute, lan-harremana bukatu ondoren ere. Estatuaren Osasun Sistemara jo behar dute horretarako».	-Puntu hori egiaztatzea.	3			
11	Agente biologikoen eraginpean egoteari buruzko prestakuntza eta informazioa eman behar du enpresaburuak.	644/1997 (12) ED	-Prestakuntza eta informazio hori gai hauei buruzkoa izango da: osasunerako arriskuak, eraginpean egondako denborarekin duten erlazioa, NBEak (norbera babesteko ekipamenduak) erabiltzea, ebaluazioak, etab. -Behar denean errepikatu behar da.	- Emandako informazio eta prestakuntza aztertzea.	3			
12	Enpresaburuak agente biologikoak manipulatzeko moduari buruzko jarraibideak eta oharrak eman behar ditu.	644/1997 (12) ED	- Finkatutako protokoloa.	- Emandako jarraibideak aztertzea. - Istripu edo gorabehera larriren bat gertatuz gero edo 4. multzoko agente biologikoren bat manipulatuz gero bete beharreko prozedura aztertzea.	3			
13	Gorabeheraren bat gertatuz gero, berehala jakinarazi behar zaio enpresak izendatutako arduradunari.	644/1997 (12) ED	- Finkatutako protokoloa.	- Egindako jakinarazpenak aztertzea.	3			
14	Agente biologiko batek eragindako gorabehera edo istripuren bat gertatuz gero berehala jakinarazi behar zaie langileei, hartu beharrezko neurriak zehaztuz.	644/1997 (12) ED	- Finkatutako protokoloa.		3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
15	Ikerketa, garapen, irakaskuntza edo diagnostikoetarako 2., 3. edo 4. multzoko agenteak manipulatzen dituzten laborategiek euspen-neurri egokiak izan behar dituzte.	664/1997 (15) ED	- Hauek sartzen dira hemen: 2., 3. edo 4. multzoetako arrisku biologikoak jasan lezaketen edo agente horien eramaile izateko susmagarriak diren laborategiko animalietarako lokalak eta diagnostiko eta ikerketarako laborategiak. - Euspen-neurriak 664/1997 Errege Dekretuko IV. Eranskineko taulan zehaztutakoen artean aukeratu behar dira, daukagun agente biologikoaren arabera bete beharreko euspen-mailari jarraiki.	- Aukeratutako euspen-neurriak aztertzea.	5			
16	Elementu biologikorik ez manipulatu arren, halakoak hazten, kontzentratzen… dituzten eta halakorik ote dauzkaten garbi ez duten laborategiak.	664/1997 (15) ED	- 2. euspen-maila hartzen dute gutxienez eta 3. eta 4. maila, maila horiek beharrezkoak direla dakiten edo uste duten guztietan, non eta osasun-agintaritzak finkatutako jarraibideen arabera, euspen-maila txikiagoa ez den behar. - Agente biologikoen ebaluazio biribilik egiterik egon ez den arren, arrisku larria egon litekeela pentsatzekoa den laborategietan, gutxienez 3. euspen-maila duten lokaletan egin daitezke halakoak.	-Arriskuen ebaluazioa. - Lanak non egiten diren begiratzea.	5			
17	2., 3. edo 4. multzoetako agente biologikoak erabiltzen dituzten industria-prozeduretan neurri egokiak hartu behar dira, infekzio-arriskua murrizteko.	664/1997 (15) ED	- Finkatutako protokoloa.	- Aukeratutako euspen-neurriak hartzen direla egiaztatzea. - Laneko eta osasun-arloko agintariek finkatutako neurriak betetzen direla egiaztatzea.	5			
18	Agente biologikoen eraginpean egoteak eragindako arriskuak jasandako langileen osasuna ondo zaintzen dela bermatu behar du enpresaburuak.	664/1997 (8) ED	- Eskumeneko osasun-langileek zaintzen dute langileen osasuna, osasun-alorreko jarraibide eta protokoloak betez eta irizpide profesionalari jarraiki, langileen jardunaren fase guztietan. - Finkatutako maiztasunarekin egin behar da.	- Langileei egindako berariazko osasun-azterketak aztertzea.	3			
19	Osasun-zainketaren emaitzak berrikusteko eskatzea daukate langileek.	664/1997 (8) ED	- Finkatutako osasun-protokoloekin bat etorriaz.	- Osasun-azterketaren emaitzei buruzko txostena edo langileak emaitzak jaso izanaren ziurtagiria.	3			
20	Txerto eraginkorra duten agente biologikoen eraginpean egoteko arriskurik egonez gero, txerto horiek langileen esku jarri behar dira.	664/1997 (8) ED VI. ERANSKINA	- Dauden txertoen berri eman behar da, txertoa jartzeak eta ez jartzeak dituen alde on eta txarrak zehaztuz, langileei ezer kobratu gabe.	-Puntu hori egiaztatzea.	3			
21	Medikuak osasun-zainketa egiten zaien langile bakoitzaren historiala izango du.	664/1997 (8) ED	- Konfidentzialtasun-sekretuak babestuta.	- Langile bakoitzaren osasun-historiala (jasandako eragin zehatzarekin bat datorrela egiaztatzea).	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
22	Enpresaburuak beharrezko dokumentazioa prest dauka uneoro, laneko edo osasun-arloko agintariei emateko.	644/1997 (9, 11) ED	- Dokumentazioan xehetasun hauek jaso behar dira: arriskuen ebaluazioaren emaitzak; 3. eta 4. multzoko agenteen eraginpean egondako langileen zerrenda, haiek egindako lan-mota eta jasandako agente biologikoa zehaztuz; egondako eragin, istripu eta gorabeheren erregistroa. - Datu Pertsonalen Tratamendu Automatizatua arautzen duen 5/1992 Lege Organikoarekin (urriaren 29koa) bat etorri behar du.	Dokumentazioaren edukia begiratzea.	3			
23	Dokumentazioa gordetzeko neurri egokiak hartu behar ditu enpresaburuak.	644/1997 (9, 11) ED	- Agenteen eraginpean egondako langileen zerrenda eta langile bakoitzaren osasun-historialak eragina jasan eta 10 urtean gorde behar dira gutxienez, edo 40 urtean, arauan zehaztutako kasuen arabera. Era berean, enpresa itxiz gero, 3. eta 4. multzoko agente biologikoen eraginpean egondako langileen zerrenda eta haien osasun-historialak lan-arloko agintaritzari bidaliko beharko zaizkio.	- Dokumentazioa non gordetzen den begiratzea.	1			
24	Arriskuen ebaluazioa egitean arriskurik hautemanez gero, enpresaburuak arauzko dokumentazioa prestatu beharko du dokumentazio hori eskatzen dion laneko edo osasun-arloko agintaritzaren esku uzteko.	644/1997 (11) ED	- Agente biologikoen eraginpean egon diren edo egon uste diren langileen jarduerak, izen-abizenak eta kopurua. - Enpresan prebentzio-arloko ardurak dituzten pertsonen izen-abizenak eta prestakuntza. - Hartutako prebentzio- eta babes-neurriak, laneko prozedura eta metodo guztiak zehaztuz. - Euspen fisikoak huts eginez gero, langileak 3. edo 4. multzoetako agente biologikoen eragin batetik babesteko larrialdi-plana.	- Arauzko dokumentazioa aztertzea.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
25	2., 3. edo 4. multzoko agente biologikoak lehenbiziko aldiz erabiliz gero, enpresak garaiz jakinarazi behar dio hori lan-arloko agintaritzari.	644/1997 (10) ED	- 2. eta 3. multzoko agente biologikoen kasuan, lanak hasi baino 35 egun lehenago jakinarazi behar zaio lan-arloko agintaritzari. - 4. multzoko agente biologikoekin zerikusia duten diagnostikoak egiten dituzten laborategien kasuan, asmo horren hasierako jakinarazpena eskatu behar da bakarrik. - Jakinarazpen horretan hau zehaztu behar da: enpresaren identifikazioa, prebentzio-arloko arduradunak, arriskuen ebaluazioa, hartutako neurriak eta enpresan dauden agente biologikoak. Lan-prozesu edo -prozeduretan aurreko jakinarazpenak indargabetzen duen aldaketarik gertatuz gero, jakinarazpen berria egin beharko da.	- Lan-arloko agintaritzak egindako jakinarazpena aztertzea.	1			
26	3. eta 4. multzoetako agente biologikoen eraginpean egondako langileen zerrenda eta haien osasun-azterketak lan-arloko agintaritzari bidali behar zaizkio, enpresa itxiz gero.	644/1997 (11) ED	Enpresa itxiz gero 3. eta 4. multzoetako agente biologikoen eraginpean egondako langileen zerrenda eta haien osasun-azterketak lan-arloko agintaritzari bidali behar izanez gero, enpresak prozedura zehatza eduki behar du hori egiteko.	- Prozedura hori duen egiaztatzea.	1			
27	Langileek 3. eta 4. multzoko agente biologikoen eraginpean egoteagatik beraiei dagokien informazioa eskuratzea daukate.	644/1997 (12) ED	- Datu hauek bildu behar dira: egindako lan mota eta lan horretan zein agenteren eraginpean egon diren, eragin, istripu eta gorabehera guztien erregistroa.	- Informazio hori aztertzea eta langileek informazio hori eskuratzen daukaten begiratzea.	3			
28	Arrisku-ebaluazioaren eta hartutako babes-neurrien inguruko informazio kolektibo anonimoa eskuratzea daukate langileen ordezkariek.	644/1997 (12) ED	- Datu hauek bildu behar dira: egindako lan mota eta lan horretan zein agenteren eraginpean egon diren, eragin, istripu eta gorabehera guztien erregistroa.	- Informazio hori aztertzea. -Arriskuen ebaluazioa. - Prebentzio- eta babes-neurriak. - Aurreko informazioa eskuratzea daukatela egiaztatzea.	3			

C.2 ARRISKU ZEHATZARI BURUZKO GALDETEGIA AGENTE KANTZERIGENOAK

GALDETEGI HONEN ERABILERA

Xedea

665/1997, 1124/2000 eta 349/2003 errege-dekretuetan finkatutako lan-baldintzak betetzen direla egiaztatzea, langileak lanean agente kantzerigenoen eraginpean egoteak dakartzan arriskuetatik babesteari dagokionez.

Esparrua

Langileak beren lan-jardueraren ondorioz agente kantzerigeno edo mutagenoen eraginpean daudenean edo egon daitezkeenean bete behar dira xedapen horiek. Horrekin batera, erradiazio ionizatzaileen aurka babesteko indarrean dauden arauetan zehaztutako gainerako neurriak ere bete beharko dira.

Langileak amiantoaren eraginpean egoteak eragindako arriskuetatik babesteko araudi berezi bat dago, baina Errege Dekretu honetako neurriak araudi horretakoak baino eraginkorragoak badira langileen osasun eta segurtasuna babesteko, Dekretuko neurriak bete beharko dira.

Definizioak

«*Agente kantzerigenoak*»:

a) Substantzia berriak jakinarazteari eta substantzia arriskutsuak sailkatu, ontziratu eta etiketatzeari buruzko araudiari jarraiki, 1. edo 2. mailako agente kantzerigeno bezala edo 1. edo 2. mailako agente mutageno bezala sailkatzeko irizpideak betetzen dituzten substantziak.
b) Aurreko atalean aipatutako substantziaren bat duten prestakinak, prestakin arriskutsuak sailkatu, ontziratu eta etiketatzeari buruzko araudiari jarraiki kantzerigeno edo mutageno bezala sailkatua izateko irizpideak betez gero.
c) 665/1997 EDko I. eranskinean aipatutakoen arteko substantzia, prestakin edo prozedurak eta aurreko eranskinean aipatutako prozeduren bidez egindako substantzia edo prestakinak.

Hona hemen I. eranskin horretan aipatutako substantzia, prestakin eta prozedurak:

— Auramina fabrikatzea.
— Kedarrean, alkaternan edo harrikatz-brean agertzen diren hidrokarburo aromatiko poliziklikoen eraginpean egotea dakarten lanak.
— Nikel-matak kiskaltzean eta elektrikoki fintzean sortutako hauts, ke edo lainoen eraginpean egotea dakarten lanak.
— Alkohol isopropilikoa fabrikatzean azido indartsua darabilten prozedurak.
— Egur gogorretako hautsaren eraginpean egotea dakarten lanak.

«*Muga-balioa*», besterik adierazi ezean, langileak arnasten duen eremuaren barruan agente kantzerigeno batek duen kontzentrazioaren aldi bateko batez besteko haztatuaren muga, erreferentziazko aldi zehatz batean, ondoren zehazten den moduan:

Agentearen izena	Einecs (1)	CAS (2)	Muga-balioak		Oharrak	Behin-behineko neurriak
			mg/m³ (3)	ppm (4)		
Bentzenoa	200-753-7	71-43-2	3,25 (5)	1 (5)	Larruazala (6)	Muga-balioa: 3 ppm (= 9,75 mg/m³), 2003ko ekainaren 27ra arte aplikatu daiteke.
Binil kloruro monomeroa	200-831	75-01-4	7,77 (5)	3 (5)		
Egur gogorren hautsa			5,00 (5) (7)			

(1) Einecs: European Inventory of Existing Chemical Substances (Europako Substantzia Kimiko Merkaturatuen Katalogoa).
(2) CAS: Chemical Abstract Service Number.
(3) (mg/m3): miligramoak, 20ºC-tan eta 101,3 KPa-tan (760 mm merkurio) dagoen aire metro kubikoko.
(4) ppm: milioiko parteak, aire-bolumenean (ml/m³).
(5) 8 orduko erreferentzia-aldi baterako neurtua edo kalkulatua.
(6) Larruazala eraginpean egotearen ondorioz, gorputzaren karga osoa asko handitu liteke.
(7) Arnastu daitekeen frakzioa, egur gogorren hautsak beste hautsa batzuekin nahastuz gero, muga-balioa nahasketan dauden hauts guztiei aplikatuko zaie.

Eskatu beharreko dokumentazioa

Galdetegi hau osatzeko ikuskaritza egitean, ikuskatzaileak irakurri behar dituen edo irakurtzea komeni zaion zenbait liburu jaso ditugu zerrenda honetan.

a) Agente kantzerigenoen identifikazioa eta sailkapena.
b) Arrisku kantzerigenoen ebaluazioa.
c) Langileei egindako berariazko osasun-azterketak.
d) Agente kantzerigenoei eta laneko arriskuen prebentzioari (LAP) buruz emandako prestakuntza eta informazioa.

C.2. AGENTE KANTZERIGENOAK

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Enpresaburuak langileei kontsultatu behar die eta parte hartzen utzi behar die, agente kantzerigenoak erabiltzen diren lanlekuetako osasun eta segurtasun gaien inguruan.	LAPL (18)	- LAPi buruzko 31/1995 Legeko 18. artikuluko 2. atalarekin bat etortzea.	-Puntu hori egiaztatzea.	3			
2	Enpresak bere agente kantzerigeno eta mutagenoak identifikatu eta sailkatu behar ditu.	665/1997 ED (3)		- Agente kantzerigeno eta mutagenoen sailkapena.	3			
3	Saihesterik egon ez den arrisku kantzerigeno eta mutagenoak ebaluatu behar ditu enpresak.	665/1997 (3) ED	Arriskuen ebaluazioa egiteko, gorputzean sartzeko bide guztiak eta eragin-mota guztiak hartu behar dira kontuan, larruazalaren bidez xurgatzen direnak edo larruazalean eragina dutenak ere barne; bai eta halako arriskuak jasateko aukera handiak dituzten langileen osasun eta segurtasunaren gaineko efektuak ere.	-Arriskuen ebaluazioa.	3			
4	Arriskuen ebaluazioa aldiro-aldiro errepikatu behar da.	665/1997 (3) ED	- Arriskuen ebaluazioa kasu hauetan errepikatu behar da: langileak agente kantzerigeno edo mutagenoen eraginpean egoteko baldintzak aldatzen diren bakoitzean edo lanean halako agenteen eraginpean egotearen ondorioz gertatu uste den osasun-aldaketaren bat antzematen denean langileren batengan.	-Arriskuen ebaluazioak berrikustea.	3			
5	Enpresak azken berrikuntzak hartu behar ditu kontuan, agente kantzerigeno eta mutagenorik ez erabiltzeko.	665/1997 (4) ED	- Eskuragarri dagoen informazio tekniko eta zientifikoa kontuan hartuta, jarduerak horretarako aukera ematen duenean, agente kantzerigeno edo mutagenoak ez erabiltzen saiatuko da enpresaburua, normal erabilita langileen osasun eta segurtasunerako arrisku-tsuak ez diren edo, izatekotan, arrisku txikiagoa duten substantzia, prestakin edo prozedurekin ordezkatuta.	-Arriskuen ebaluazioa.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
6	Ebaluazioa egin eta gero langileak agente kantzerigeno edo mutagenoen eraginpean egoteko arriskuan daudela ikusten bada: a) Eragin hori saihestu eta ordezkatzea programatuko da. b) Aurrekoa teknikoki egiterik ez badago, agentearen ekoizpen eta erabilera sistema itxi batean egiten dela ziurtatu beharko da. c) Aurrekoa ere teknikoki egiterik ez badago, eraginaren maila ahal bezainbeste murriztuko da. d) Eraginak ezin du 665/1997 EDko II. eranskinean finkatutako muga-balioa gainditu.	665/1997 (5) ED	- Agente kantzerigeno edo mutagenoren bat erabiltzen den guztietan, beharrezko neurri guztiak hartu beharko ditu enpresaburuak. Adibidez: agentearen kantitatea murriztea lanlekuan, lan-prozesu eta neurri tekniko egokiak diseinatzea, ahalik eta langile gutxien jartzea eraginpean, etab.		3			
7	Agente kantzerigeno edo mutagenoekin lan egitearen ondorioz, langileen osasuna eta segurtasun arriskutan jartzen duten jarduera guztietan higiene pertsonaleko eta banakako babes-neurriak hartu beharko ditu enpresaburuak.	665/1997 (6) ED	- Hauek dira hartu beharreko neurriak: arriskua duten lan-eremuetan jatea, edatea edo erretzea debekatzea langileei; babes-jantzi egokiak ematea langileei; laneko edo babesteko jantziak eta kaleko jantziak bereizita gordetzeko lekuak jartzea, etab.	-Hartutako higiene-neurriak.	3			
8	Langileei ohiz kanpoko eraginen bat sortzen dien istripurik edo ezustekorik gertatuz gero, enpresaburuak lehenbailehen jakinarazi beharko die hori langileei eta beharrezko neurriak hartu beharko ditu.	665/1997 ED (7)	- Hauek dira hartu beharreko neurriak: kaltetutako eremuan konponketak edo beharrezko lanak egiteko ezinbestekoak diren langileei bakarrik uztea sartzen; eragina iraunkorra ez dela eta langile bakoitzak jasaten duena behar-beharrezkoa baino ez dela ziurtatzea, babes-jantzi eta -ekipo egokiak jartzea kaltetutako langileen esku, ondo babestuta ez dauden langileei kaltetutako eremuan lan egiten ez uztea.		5			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
9	Eragina (ezustekoa eta ez-erregularra) murrizteko prebentzio-neurri guztiak agortutakoan, langileei eta haien ordezkariei kontsultatu eta gero, langileen eragin iraunkorra saihesteko beharrezko neurriak hartu beharko ditu enpresaburuak. Horrekin, batera, neurri osagarriak hartuko ditu, baimenik ez dutenei jarduera arriskutsuak egiten diren eremuetan sartzen utzi gabe.	665/1997 ED (7)	- Langileen eragin iraunkorra saihestea, eragin horren iraupena behar-beharrezko denera mugatuz. - Neurri osagarriak hartu behar dira kaltetutako langileak babesteko, eraginak irauten duen bitartean erabili beharreko babesjantzi eta -ekipo egokiak jarriaz haien esku. - Baimenik ez dutenei ez zaie utziko jarduera arriskutsuak egiten diren eremuan sartzen. Horretarako, leku horiek mugatu eta seinaleztatuko dira, edo beste bitarteko batzuk erabiliko dira.		5			
10	Agente kantzerigeno edo mugatenoen eraginpean egoteak eragindako arriskuak jasandako langileen osasuna ondo zaintzen dela bermatu behar du enpresaburuak.	665/1997 (8) ED	- Eskumeneko osasun-langileek egin behar dute zainketa hori, osasun-arloko agintariek finkatutako jarraibide eta protokoloak betez. - Zainketa hori kasu hauetan eskainiko zaie langileei: eragina hasi aurretik, aldiro-aldiro eta, agente kantzerigeno edo mutagenoen eraginpean egonagatik sortu litekeen gorabeherarik antzematen denean antzeko eragina jasan duen enpresako langileren batengan. - Osasun-zainketaren emaitzak berrikusteko eskatzea daukate langileek. - Kaltetutako langile bakoitzaren osasun-historiala osatu beharko da. - Dagokion agentearen eraginpean egoteari utzi ondoren egin beharreko osasun-azterketen inguruan informazioa eman behar zaie langileei.	- Vigilancia médica efectuada.	3			
11	Enpresaburuak prest eduki behar du beharrezko dokumentazioa uneoro, laneko edo osasun-arloko agintarien esku uzteko.	665/1997 (9) ED	- Gai hauei buruzko dokumentazioa: laneko arriskuen ebaluazioko emaitzak, ebaluazioa egiteko irizpide eta prozedurak, eta neurketak, analisiak eta saiakuntzak egiteko erabilitako metodoak. - Arriskuen ebaluazioen emaitzetan langileen segurtasun edo osasunerako arriskuren bat dagoela ikusi den jarduerak egiten dituzten langileen zerrenda eguneratua, enpresan jasandako eraginak zehaztuz. - Langileen osasun-historialak.		3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
12	Enpresaburuak beharrezko informazioa eman behar die eskumeneko agintariei.	665/1997 (10) ED	- Xehetasun hauen berri eman behar da: arrisku-ebaluazioak, erabilitako industria-prozedura edo jarduerak, agente kantzerigeno edo mutagenoak dituzten substantzia edo prestakinetatik zenbat erabili edo fabrikatu den, zenbat langile egon diren eraginpean, hartutako prebentzio-neurriak eta erabilitako babes-ekipoak, agente kantzerigeno edo mutagenoak ordezkatzeko prozesuaren emaitzak.		3			
13	Enpresak lanean agente kantzerigeno edo mutageno baten eraginpean egotearen ondorioz sortutako minbizi-kasu guztien berri eman behar die lan-arloko agintariei.	665/1997 (10) ED			5			
14	Agente kantzerigeno eta mutagenoen eraginpean egotean hartu beharreko neurrien inguruko prestakuntza eta informazioa eman behar die enpresaburuak langileei eta haien ordezkariei.	665/1997 (11) ED	- Langileek eta haien ordezkariek informazio egokia eta behar adinakoa jasotzen dutela bermatu behar du enpresaburuak, dauden datu guztiak, jarraibideak bereziki, haien esku utziaz.	- Emandako informazio eta prestakuntza.	3			

C.3 ARRISKU ZEHATZARI BURUZKO GALDETEGIA AGENTE KIMIKOAK

GALDETEGI HONEN ERABILERA

Xedea

Lanean arrisku kimikoa kudeatzean 374/2001 EDak finkatutako gutxieneko xedapenak betetzen direla egiaztatzea, langileak lanlekuan agente kimikoak egoteak edo agente kimikoekin lan egiteak eragindako arriskuetatik babesteari dagokionez.

Esparrua

Lanlekuan agente kimiko arriskutsuak daudenean edo egon litezkeenean bete behar da ED hori, ondorengo neurriak betetzearekin batera:

a) Langileen babes erradiologikoari buruzko arauditik agente kimikoei dagozkien arauak.
b) 665/1997 EDan (langileak lanean agente kantzerigenoen eraginpeak egoteak sortutako arriskuetatik babesteari buruzkoa, maiatzaren 12koa) jasotako neuri zorrotzenak edo berariazkoak.
c) Salgai arriskutsuen garraioari buruzko neurri zorrotzenak edo berariazkoak, ondoko arauei jarraiki:

1) 2115/1998 ED, urriaren 16koa, salgai arriskutsuak errepidez garraiatzeari buruz.
2) Salgai arriskutsuak trenez garraiatzeari buruzko Espainiako Araudi Nazionala.
3) 1253/1997 EDko (uztailaren 24koa) 2. artikuluan zehaztutako IMDG, IBC eta IGC kodeak. Salgai arriskutsu edo kutsatzaileak Espainiako itsas portuetatik edo portuetara garraiatzen dituzten ontziei eskatu beharreko gutxieneko baldintzak arautzen ditu ED horrek.
4) Salgai arriskutsuen EB barruko nabigazio-bideetatik garraiatzeari buruzko Europa mailako hitzarmena.
5) Salgai arriskutsuak airez arriskurik gabe garraiatzeko Espainiako araudi nazionala eta jarraibide teknikoak.

Definizioak

«*Agente kimikoak*»: elementu edo konposatu kimiko guztiak, bakarrik nahiz nahastuta, naturan agertzen diren moduan edo lan-jarduera batean ekoitzi, erabili edo isuri direnean (hondakin bezala isurtzen direnak ere), nahita edo nahigabe landuak izan direnak eta merkaturatu direnak zein ez direnak.

«*Agente kimiko baten eraginpean egotea*»: lanlekuan agente kimiko bat egonik, langileak haren eragina duenean, bai arnasten duelako bai azalarekin ukitzen duelako.

«Arrisku larria»: agente kimiko batek kalte egiteko duen berezko ahalmena.

«Arriskua»: langile batek agente kimikoen leherketak eragindako kalteren bat jasateko aukera.« Arriskuen larritasuna sailkatzeko, kaltea gertatzeko probabilitatea eta kaltea zenbatekoa den baloratu behar dira batera.

«Agente kimiko arriskutsuak»: beren propietate fisiko-kimiko, kimiko edo toxikologikoen ondorioz, edo lanlekuan erabiltzen diren edo dauden moduaren ondorioz, langileen osasun eta

segurtasunerako arriskurik eragin dezaketen agente kimikoak dira. Ondorengo agenteak sartzen dira definizio horretan:

1. Prestakin arriskutsuak sailkatu, ontziratu eta etiketatzeari buruzko araudian substantzia edo prestakin arriskutsu bezala sailkatzeko finkatutako irizpideak betetzen dituzten agente kimikoak, agente hori araudi horietan sailkatuta egon ala ez, ingurumenerako arriskutsuak bezala sailkatuak izateko baldintzak bakarrik betetzen dituzten agenteen kasuan izan ezik.
2. Errege Dekretu honetako 3. artikuluko 4. atalean ingurumenerako muga-balio bat finkatua duten agente kimikoak.

«Agente kimikoekin egindako jarduerak»: agente kimikoak erabiltzen diren edo erabiltzeko asmoa duten lan guztiak, agente horien ekoizpen, manipulazio, biltegiratze eta tratamendua barne, edo lan horren ondorioz gertatzen diren halako jarduerak.

«Bitarteko produktuak»: erreakzio kimikoak gertatzean sortutako substantziak, erreakzioa edo prozesua amaitu aurretik eraldatu edo desagertzen direnak.

«*Azpiprodukt*uak»: erreakzio kimikoetan sortu eta erreakzioa edo prozesua amaitzean hor jarraitzen duten substantziak dira.

«Ingurumeneko muga-balioak»: langileek arnasa hartzen duten eremuan agente kimikoek izan dezaketen kontzentrazioen erreferentziazko muga-balioak dira. Bi motatako ingurumeneko muga-balioak daude:

1. Eguneroko eraginari dakiona: batez besteko kontzentrazioaren muga-balioa, lanaldi errealaren iraupenarekin haztatuta neurtua edo kalkulatua, 8 orduko lanaldi estandarra hartuta.
2. Iraupen laburreko eraginei dagokiena: batez besteko kontzentrazioaren muga-balioa, lanaldian zeharreko hamabost minutuko edozein tartetarako neurtua edo kalkulatua, erreferentzia-aldi luzeagoa eskatzen zaien agente kimikoen kasuan izan ezik.

«Muga-balio biologikoa»: Ingurune biologiko egokian, agente kimikoak edo haren metabolitoetako batek edo langilea dagokion agentearen eraginpean egoteak eragindako ondorioekin zuzenean nahiz zeharka erlazioa duen beste edozein adierazle biologikok gehienez ere izan dezakeen kontzentrazioa.

«Osasun-zainketa»: langile bakoitzari egiten zaion azterketa, lanean agente kimiko zehatzekin izandako eragina dela eta duen osasun-egoera zein den ikusteko.

Eskatu beharreko dokumentazioa

Galdetegi hau osatzeko ikuskaritza egitean, ikuskatzaileak irakurri behar dituen edo irakurtzea komeni zaion zenbait liburu jaso ditugu zerrenda honetan.

a) 374/2001 ED bete behar duten lanpostuen zerrenda.
b) Agente kimikoen identifikazioa eta sailkapena.
c) Agente kimiko bakoitzak duen arriskuen ebaluazioa.
d) Langileei egindako berariazko osasun-azterketak.
e) Agente kimiko arriskutsuekin lan egiten duten langileen osasun eta segurtasunerako arriskuak ezabatzeko edo albait gehien murrizteko hartu beharreko neurrien inguruko irizpideak.
f) Agente kimikoi eta laneko arriskuen prebentzioari (LAP) buruz emandako prestakuntza eta informazioa.

C.3. AGENTE KIMIKOAK

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzi objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Enpresaburuak ziurtatu behar du langileek edo haien ordezkariek ED honetan zehaztutako gaien inguruan parte hartzen dutela eta kontsultatzen zaiela.	374/2001 ED (10)	- LAPi buruzko Legeko 18. artikuluko 2. atalarekin bat etortzea.		3			
2	Saihesterik egon ez den arriskuak ebaluatu behar ditu enpresak.	374/2001 ED (3)	-Ebaluazio horretan atal hauek zehaztuko dira: langileak zenbat denbora egon diren agentearen eraginpean, eragin hori zenbatekoa izan den eta eragina nolakoa izan den.		3			
3	Arriskuen ebaluazioa egiteko (arriskuak arinak izan ala ez) eskuragarri dagoen informazio guztia erabili behar da, eta aldiro-aldiro errepikatu behar da.	374/2001 ED (3)	- Eskuragarri dagoen informazio tekniko eta zientifikoari jarraiki, eta jarduerak horretarako aukera ematen duenean, langileen osasun eta segurtasunerako, lanaren antolaketarako, hondakinak manipulatzeko prozeduretarako, etab. arriskutsua ez den beste substantzia, prestakin edo prozedura batekin ordezkatu beharra dago. Langileak agentearen eraginpean egoteko baldintzak aldatzen direnean nahitaez egin beharko da hori. - Ebaluazioan mantentze-lanak, konponketak, biltegiratzea, garraioa, etab. aztertu behar dira, lan horiek egiten dituzten langileak agenteren baten eraginpean egoteko arriskua badute.		3			
4	Ebaluazioa egindakoan arriskuren bat antzematen bada, ahalik eta maila txikienera murriztu beharko da arrisku hori, 374/2001 EDan finkatutako irizpideak betez.	374/2001 ED (5)	-Arriskuak murrizteko neurri hauek hartu daitezke, besteak beste: lan-prozedura egokiak, neurri tekniko egokiak, taldeko eta banakako babesak, agente kimikoen eraginpean egotea eragin dezaketen arriskuei aurre egiteko planak prestatzea. - Agente kimikoak biltegiratu, manipulatu eta garraiatzeko bitartekoak finkatu behar dira, bai eta hondakinak ezabatzeko ere, guztia ere alor horretan indarrean dauden arauei jarraiki.		3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzi objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
5	Ebaluazioa egindakoan arriskuren bat antzematen bada, ahalik eta maila txikienera murriztu beharko da arrisku hori, agente kantzerigenoen muga-balioa gainditu gabe.	374/2001 ED (3)	- Eskuragarri dagoen informazio tekniko eta zientifikoari jarraiki, eta jarduerak horretarako aukera ematen duenean, agenteak airean duen kontzentrazioa neurtu behar da, industria-higieneari buruzko arauei eta finkatutako giroko muga-balioei jarraiki. - Laginak hartzeko prozedura eta estrategiak bete beharreko arau zehatzei jarraiki finkatuko dira, edo, halakorik ez badago, UNE arauak, INSHTren gidak, nazioarteko arauak etab. hartuko dira erreferentziatzat. - Zenbait agenteren eraginpean egotea dakarten jardueren kasuan, agente horien konbinazioak dakarren arriskua hartuko da kontuan ebaluazioa egiteko.		3			
6	Agente kantzerigeno batek eragindako gorabehera edo istripuren bat gertatuz gero, berehala jakinarazi behar zaie langileei eta haien ordezkariei, hartu beharrezko neurriak zehaztuz.	374/2001 ED (7)	- Protokolo bat finkatu da Errege Dekretu honetan araututakoa betez.		3			
7	Substantzia hauek debekatuta daude: 2-naftilamina eta bere gatzak. 4-aminodifeniloa eta bere gatzak. Benzidina eta bere gatzak. 4-nitrodifeniloa. ED honetan zehaztutako salbuespenetan izan ezik.	374/2001 ED (8)	- Salbuespena: beste agente kimiko edo hondakin batean agertzen ez denean, eta pisuaren %0,1 gainditzen ez duenean. Ikerketa eta esperimentu zientifikoetan, azpiprodukturu edo hondakin-produktu bezala ezabatzen denean, bitarteko produktuak erabiltzean. - Aipatutako salbuespenetan, enpresaburuak protokolo bat finkatu behar du ondoko hauetarako: lan-prozedura egokiak, neurri tekniko egokiak, taldeko eta banakako babesak, agente kimikoen eraginpean egotea eragin dezaketen arriskuei aurre egiteko planak prestatzea. - Agente kimikoak biltegiratu, manipulatu eta garraiatzeko bitartekoak finkatu behar dira, bai eta hondakinak ezabatzeko ere, guztia ere alor horretan indarrean dauden arauei jarraiki. - Lan-arloko agintaritzak debekua luzatzea dauka enpresaburuak hartutako babes-neurriak langileen osasun eta segurtasuna babesteko adinakoak ez direla pentsatuz gero.		5			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzi objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
8	Lanlekuan agente kimiko arriskutsuak egoteak dakartzan arriskuen inguruan prestakuntza eta informazio egokia eman behar die enpresaburuak langileei eta haien ordezkariei, babes- eta prebentzio-neurri egokiak zehaztuz.	374/2001 ED (9)	-Prestakuntza eta informazio hori gai hauei buruzkoa izango da: osasunerako arriskuak, eraginpean egondako denborarekin duten erlazioa, NBEa (norbera babesteko ekipamendua) erabiltzea, ebaluazioak, etab. - Aldiro-aldiro errepikatu behar da behar izanez gero.		3			
9	Agente kimikoen eraginpean egoteak eragindako arriskuak jasandako langileen osasuna ondo zaintzen dela bermatu behar du enpresaburuak.	374/2001 ED (6)	- Eskumeneko osasun-langileek zaindu behar dute langileen osasuna, osasun-alorreko jarraibide eta protokoloak betez eta irizpide profesionalari jarraiki, langileen jardunaren fase guztietan. - Osasun-azterketek eskatzen duten maiztasunarekin egin beharko da.		3			
10	Langileei jakinarazi egin behar zaie agente kimiko batekin lan egiten hasi aurretik ezinbesteko baldintza dutela osasuna zaintzea.	374/2001 ED (6)			3			
11	Langileei beraiei zuzenean dagokien osasun-zaintzari eta arriskuen ebaluazioari buruzko dokumentazioa eskuratzeko eskubidea daukate, eskatuz gero.	374/2001 ED (6)			3			
12	Egoera bereziak daudenean, horren berri eman behar zaie langileei.	374/2001 ED (6)	- Hauek dira egoera bereziak: gaixotasun bat antzematen denean, agente kimiko arriskutsu baten eraginpean egotearen ondorioz, eta muga biologikoak gainditzen direnean.		3			
13	Egoera berezietan arazoa konpontzeko neurri egokiak hartu behar dira.	374/2001 ED (6)	- Egoera berezietan arriskuen ebaluazioa eta arriskuak ezabatzeko aurreikusitako neurriak berrikusi behar dira, medikuen gomendioak aintzat hartu behar dira, kaltetutako langileen osasuna zaintzapean eduki behar da eta antzeko eraginpean egon diren gainerako langileei osasun-azterketa egin behar zaie.		3			

C.4 ARRISKU ZEHATZARI BURUZKO GALDETEGIA ERRADIAZIO IONIZATZAILEAK

GALDETEGI HONEN ERABILERA

Xedea

Energia Nuklearrari buruzko 25/1964 Legeak (apirilaren 29koa) agindutakoari jarraiki, Erradiazio Ionizatzaileen aurkako Osasun Babesari buruzko Araudian (783/2001 ED) langileak eta jende arrunta erradiazio ionizatzaileek eragindako arriskuetatik babesteko finkatutako arauetan zehaztutako lan-baldintzak betetzen direla egiaztatzea.

Esparrua

1. Iturri artifizial batetatik edo, bestela, erradionukleido naturalak beren propietate erradioaktibo, fisionagarri edo emankorrengatik prozesatzen direnean edo prozesatuak izan direnean, erradiazio-iturri natural batetatik datozen erradiazio ionizatzaileek eragindako arriskua duten jarduera guztietan bete behar dira xedapen horiek. Hauek dira aipatutako jarduera horiek:

a) Mineral erradioaktiboak ustiatzea eta substantzia erradioaktiboak ekoiztea, tratatzea, manipulatzea, erabiltzea, edukitzea, biltegiratzea, garraiatzea, inportatzea, esportatzea, EB barruan batetik bestera eramatea edo botatzea.
b) Erradiazio ionizatzaileak botatzen dituzten eta 5 kV-tik gorako potentzial-diferentziarekin jarduten duten osagaiak dituzten ekipo elektrikoekin lan egitea.
c) Iturri erradioaktiboak merkaturatzea eta iturri erradiaktiboak dituzten edo erradiazio ionizatzaileak sortzen dituzten ekipoei laguntza teknikoa ematea.
d) Eskumeneko agintarien iritzi zehaztu behar den beste edozein jarduera, Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak horren inguruan txosten bat eman eta gero.

Era berean, 413/1997 EDan (martxoaren 21ekoa eremu kontrolatuan lan egitean erradiazio ionizatzaileen eraginpean egoteko arriskua duten kanpoko langileen jarduna babesteari buruzkoa) aipatzen diren kanpoko enpresen jardueren kasuan ere bete beharko dira xedapen horiek.

2. Larrialdi erradiologikoa egonez gero edo eragina luzaroan jasanez gero ere bete beharko da, IV. Idazpuruan (Esku-hartzeak) zehaztutako baldintzetan.

3. Horrez gain, 1. atalean zehaztu ez den arren, erradiazio-iturri naturalak egonik, langileei edo jende arruntari iturri horien eraginpean egotea eragiten dien jarduera guztietan ere bete beharko da, VII. Idazpuruan agindutako baldintzetan, eragin hori babes erradiologikoaren ikuspegitik baztertzekoa ez bada.

Salbuespenak

Etxebizitzetan edo erradiazio-maila naturaletan radonaren eraginpean egonez gero ez da bete behar, kasu hauek salbuetsita daude, beraz: gure gorputzak dituen erradionukleidoak, lur-mailako izpi kosmikoak, lurrazal ez-hondatuan dauden erradionukleidoen ondorioz lur-mailaren gainetiko eragina.

Definizioak

«(A) jarduera»: erradionukleido baten kantitate baten A jarduera, energia-egoera jakin batean, une jakin batean, dN-ren eta dt-ren arteko zatidura da, dN hori, dt denbora-tartean, energia-egoera horretatik gertatzen diren bat-bateko eraldaketa nuklearren kopuruaren itxarondako balioa izanik.

$$A = dN / dt$$

Bekerelioa (Bq) da jardueraren unitatea. Bekerelioa segundoko eraldaketa baten berdina da:

$$1Bq = 1\ s^{-1}$$

«*Urte ofiziala*»: urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartera doan hamabi hilabeteko tartea, bi egun horiek barne hartuta.

«*Eskumeneko agintaritza*»: bere esku dituen eskumenei jarraiki, baimenak emateaz, xedapenak edo erabakiak hartzeaz eta halakoak betearazteaz arduratzen den erakunde ofiziala.

«Baimena»: Araudi honen ezarpen-eremuaren barruan jardueraren edo jardunen bat egiteko, eskumeneko agintaritzak dokumentu baten bidez ematen duen baimena, berau eskatu ondoren nahiz Espainiako legeriak agintzen duenari jarraiki.

«Kalibrazioa»: berariazko baldintzetan, neurtzeko gailu edo sistema batek adierazitako balioen edo neurketa material batean ateratako balioen, eta neurtutakoaren balio ezagunaren artean dagoen erlazioa egiaztatzeko behar bezala kualifikatutako laborategiek egindako eragiketa guztiak.

«*Kutsadura erradioaktiboa*»: nahi ez diren substantzia erradioaktiboak daudenean materia, azalera, ingurune edo pertsona batean. Gure gorputzaren kasuan, kutsadura hori kanpokoa edo larruazalekoa izan daiteke, kanpoko azaleran dagoenean, eta barnekoa, edozein bidetatik (arnasa hartzean, irentsita, azalean barrena, etab.) gorputzean sartu bada.

«Lurrazal ez-hondatua»: harrobirik edo lurpeko nahiz aire zabaleko meategirik ustiatzen ez den lurrazaleko leku guztiak (inoiz ustiatu ez den uranio-meategi baten azalera lurrazal ez-hondatutzat hartzen da). Nekazaritzan nahiz eraikuntzan egindako laborantza-lanak, indusketak eta lur-berdinketak ez dira lurrazala «hondatzen» duten jardueratzat hartzen, halako lanak lur kutsatuak leheneratzeko lanen barruan egiten badira.

«*Adierazpena*»: Araudi honen ezarpen-eremuaren barruan jardueraren edo jardunen bat egiteko asmoa adierazteko eskumeneko agintaritzari aurkeztu beharreko dokumentua.

«*Osasuna kaltetzea*»: erradiazio ionizatzaileen eraginpean egondako biztanleriako multzo baten bizi-kalitatea edo bizialdia murrizteko egon litekeen arriskua. Efektu somatikoen, minbiziaren eta eraldaketa genetiko larrien ondorioz egondako galerak hor sartzen dira.

«*Xurgatutako dosia (D)*»: masa-unitateko xurgatutako energia.

$$D = d\varepsilon / dm$$

Formula horretan, erradiazio ionizatzaileak bolumen elementu batean materiari emandako batez besteko energia da $d\varepsilon$, eta dm, berriz, bolumen-elementu horretan dagoen materiaren masa.

Araudi honetan, ehun edo organo batean batez beste kalkulatutako dosia da xurgatutako dosia.

Gray (Gy) da xurgatutako dosiaren unitatea.

«*Dosi efektiboa (E)*»: barruko nahiz kanpoko irradiazioaren ondorioz, gorputzeko ehun eta organo guztiek jasotako dosi baliokide haztatuen batura da. II. eranskinean zehaztuta daude. Formula hau erabiltzen da kalkulatzeko:

$$E = \sum_T W_T H_T = \sum_T W_T \sum_R W_R D_{T,R}$$

Formula horretan, R erradiaziotik datorren T ehun edo organoan batez beste xurgatutako dosia da $D_{T,R}$; w_R, berriz, erradiazioaren haztapen-faktorea da eta w_T T ehun edo organoaren ehun-haztapenaren faktorea.

w_T eta w_R-rako balio egokiak II. eranskinean zehazten dira.

Sievert (Sv) da dosi efektiboaren unitatea.

«*Dosi baliokidea (HT)*»: T ehun edo organoak xurgatutako dosia, R erradiazio mota eta kalitatearen arabera haztatua.

Formula honekin kalkulatzen da:

$$H_{T,R} = w_R \, D_{T,R}$$

Formula horretan, R erradiaziotik datorren T ehun edo organoan batez beste xurgatutako dosia da $D_{T,R}$; w_R, berriz, erradiazioaren haztapen-faktorea da.

Erradiazio-eremuak w_R-ren balio desberdineko motak eta energiak dituenean, H_T dosi baliokide osoa, formula honekin kalkulatzen da:

$$H_T = \sum_R W_R D_{T,R}$$

w_R-rako balio egokiak II. eranskinean zehazten dira.

Sievert da dosi baliokidearen unitatea.

«*Dosi efektibo konprometitua [E(τ)]»:* inkorporazio baten ondorioz, $H_T(\tau)$ ehun edo organotan konprometitutako dosi baliokideen batura, dosi horietako bakoitza w_T ehun-haztapenaren faktorearekin biderkatuta. Formula honekin kalkulatzen da:

$$E(\tau) = \sum_T W_T H_T(\tau)$$

E(τ) zehaztean, τ urtetan adierazten da. τ-ren baliorik zehazten ez bada, 50 urteko aldi bat izaten da helduentzat, eta 70 urterainokoa haurrentzat.

Sievert-a da dosi efektibo konprometituaren unitatea.

«Dosi konprometitu baliokidea *[$H_T(\tau)$]*»: pertsona batek inkorporazio baten ondorioz T ehun edo organo batean jasango duen dosi baliokidearen tasaren integrala denboran. Formula honen bidez kalkulatzen da:

$$H_T(\tau) = \int_{t_0}^{t_{0+\tau}} H_T(t) \, dt$$

t_o, denborako inkorporazio izanik, H_T (t) T organo edo ehunari t denboran dagokion dosi baliokidearen tasa da, eta τ integrazioa gertatzen den denbora-tartea.

H_T( ) zehaztean, urtetan adierazten da. -ren baliorik zehazten ez bada, 50 urteko aldi bat izaten da helduentzat, eta 70 urterainokoa haurrentzat.

Sievert-a da dosi baliokide konprometituaren unitatea.

«*Efluente erradioaktiboak*»: likido edo gas forman dauden hondar-produktu erradioaktiboak.

«*Ezabatzea*»: hondakinak leku zehatz batean jartzea, berriz ere erabiltzeko asmorik gabe. Hondakinak zuzenean ingurumenean uztea eta, ondoren, zabaltzea ere *ezabatzea* da, baina horretarako baimena eskatu behar da aldez aurretik.

«*Larrialdi erradiologikoa*»: langileak, jende arrunta nahiz biztanleria osoa nahiz zati bat babesteko berehalako neurriak hartzea eskatzen duen egoera.

«*Kanpoko enpresa*»: instalazio nuklear edo erradioaktibo bateko kontrolpeko zona batean jarduerak egin behar dituen pertsona fisiko edo juridikoa, instalazioaren titularraz beste bat denean.

«*Eragina edo eraginpean egotea*»: pertsonei erradiazio ionizatzaileei jasanarazteko ekintza eta efektua.

«*Ezbeharrezko eragina»:* pertsonek istripu baten ondorioz jasandakoa, finkatutako dosien mugarik gainditu ez arren. Larrialdiko eraginak ez dira hor sartzen.

«*Larrialdiko eragina*»: arriskuan dauden pertsonei laguntzeko, jende asko eraginpean gelditzea eragozteko edo instalazio nahiz ondasun baliotsuak babesteko berehalako neurriak hartu behar izanik jasandako eragina da. Halakoetan eraginpean dauden langileentzako finkatutako banakako dosien mugak gainditu litezke.

«*Kanpo-eragina*»: gorputza kanpoko iturrien eraginpean dagoenean.

«*Barne-eragina*»: gorputza bere barruko iturrien eraginpean dagoenean.

«*Laneko eragina*»: langileak lanean jasandako eragina da. Hortik kanpo gelditzen dira Erregelamendu honek araututako esparrutik kanpo dauden eraginak eta indarreko legeen baimenik behar ez duten iturri kanpoko iturri eta jardunak.

«*Eragin partziala*»: gorputzaren zati batean edo organo edo ehun batean baino gehiagotan jasandako eragina, edo gorputz osoa eraginpean egonik, eragina homogeneoa ez denean.

«*Luzaroan jasandako eragina*»: larrialdi erradiologiko baten hondar-efektuen ondorioz edo iraganeko lan edo jardun bat egitearen ondorioz jasaten dena.

«*Eragin potentziala*»: gertatuko dela ziur ez dakigun eragina eta aldez aurretik iragarri daitekeen probabilitatea besterik ez dena.

«*Fondo erradioaktibo naturala*»: lurreko nahiz espazioko iturri naturaletatik datozen irradiazio ionizatzaileen multzoa (halakoen eragina giza ekintzaren bidez nabarmen areagotzen ez bada).

«*Iturria*»: erradiazio ionizatzaileak edo substantzia erradiaktiboak isuri dezakeen aparatu, substantzia erradiaktibo edo instalazioa.

«Iturri artifizialak»: erradiazio-iturri naturalaz bestelakoak diren irradiazio-iturriak.

«*Irradiazio-iturri naturalak*»: jatorri naturaleko, lurreko nahiz espazioko irradiazio ionizatzaileen iturriak.

«*Gray-a (Gy)*»: xurgatutako dosiaren unitatearen izen berezia. Kilogramoko joule baten berdina da gray-a:

$$1Gy = 1\ J\ kg^{-1}$$

«*Biztanleriaren erreferentzia-taldea*»: iturri baten eragin homogeneo samarra izanik, iturri horren eraginik handiena duten biztanleen adierazgarri dira multzo honetako pertsonak.

«*Inkorporazioa*»: kanpo-ingurunetik datozen eta gorputzean sartzen diren erradionukleidoen jarduera.

«*Esku-hartzea*»: jardun baten barruan ez dauden edo kontrolpean ez dauden iturrietatik datorren erradiazioaren eragina murrizteko edo saihesteko giza jarduera da. Horretarako, neurriak hartzen dira iturrietan, transferentzia-bideetan nahiz pertsonengan.

«*Babes Erradiologikoko Zerbitzu edo Unitate Teknikoko burua*»: Babes Erradiologikoko Zerbitzu edo Unitate Teknikoaren ardura edo erantzukizuna duen pertsona. Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak emandako diploma bat behar da ardura horretan jarduteko.

«*Dosiaren mugak*»: langileak, trebatzen dauden pertsonak, ikasleak eta jende arruntak Erregelamendu honetan araututako erradiazio ionizatzaileen eraginpean jasotako dituzten dosien gehienezko balioak. II. idazpuruan zehazten dira gehienezko balio horiek.

«*Jende arrunta*»: biztanleriako kide guztiak, hauek kenduta: eraginpean egondako langileak, trebatzen dauden pertsonak eta ikasleak lan-orduetan, eta 4. artikuluko 4. ataleko a), b) eta c) paragrafoetan aipatutako pertsonak.

«*Esku-hartzearen maila*»: esku-hartzeko neurriak hartzea beharrezko egiten duen dosi baliokide saihesgarriaren balioa, dosi efektibo saihesgarriaren balioa edo hortik eratorritako balioa. Dosi saihesgarri edo eratorria esku-hartzeko neurria aplikatu behar den eragin-bideari dagokio bakarrik.

«*Trebatzen ari den pertsona edo ikaslea*»: Erregelamendu honi dagokionez, langilea izan gabe, erradiazio ionizatzaileen eraginpean egotea eragin lezaketen jarduerekin zuzenean nahiz zeharka zerikusia duen lanbidean jarduteko, enpresaren barruan nahiz enpresatik kanpo, trebakuntza edo hezkuntza jasotzen ari diren pertsonak dira.

«*Biztanleria, oro har*»: biztanleria osoa, eraginpean egondako langileak, ikasleak eta trebatzen ari diren pertsonak eta jende arrunta barne hartuta.

«*Jarduna*»: iturri artifizial batetik edo, beren propietate erradiaktibo, fisionagarri edo emankorrengatik, erradionukleido naturalak prozesatzen dizkieten irradiazio-iturri natural batetik datorren erradiazioaren eragina handitu dezaketen giza jarduerak dira, larrialdiko eraginak kanpo utzita.

«*Sustatzailea*»: herrialdean jardun berri bat lehenbiziko aldiz egin nahi duen pertsona fisiko nahiz juridikoa.

«Erradiazio ionizatzailea»: energia-transferentzia, zuzenean nahiz zeharka ioiak sortzeko gai diren partikula edo uhin elektromagnetiko moduan agertzen denean energia hori. Uhinen longitudea 100 manometro edo gutxiago izan behar du edo maiztasuna 3 x 10^{15} hertz edo handiagoa.

«Hondakin erradioaktiboa»: Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak aldeko txostena eman ondoren, Ekonomia Ministerioak finkatutakoak baino jarduera-maila edo kontzentrazio handiagoak duten erradionukleidoak dituzten edo halakoekin kutsatuta dauden eta inolako erabilerarik emango ez zaien material edo hondakinak.

«Dosia murriztea»: iturri kutsatu batetik sortzea espero izatekoak diren banakako dosien balioak murriztea, babes erradiologikoa prestatzeko fasean erabiltzeko, optimizazioa behar den edozein egoeratan.

«Dosimetria Pertsonaleko Zerbitzua»: banakako zainketa-aparatuak irakurtzeaz edo interpretatzeaz, edo giza gorputzean nahiz lagin biologikoetan agertzen den erradioaktibitatea neurtzeaz, edo arduratzen den erakundea. Segurtasun Nuklearreko Kontseiluaren baimena behar du erakunde horrek zeregin horiek egiteko.

«Babes Erradiologikoko Zerbitzu edo Unitate Teknikoa»: Erregelamendu honetan araututako zereginak egiteko Segurtasun Nuklearreko Kontseiluaren berariazko baimena duen erakundea. Babes Erradiologikoko Zerbitzua titular baten mende egon daiteke edo zenbait titular elkartu eta

haien guztien mende. Babes Erradiologikoko Unitate Teknikoa, aldiz, titularrak kontratatutako kanpoko erakunde bat da.

«Sievert (Sv)»: dosi efektibo eta baliokideari ematen zaion izen berezia. Kilogramoko joule baten berdina da Sievert-a:

$$1\ Sv = 1\ J\ kg^{-1}$$

«Ikuskatzailea»: Instalazio nuklear edo erradioaktibo baten funtzionamendua eta instalazioa kontrolatzeko eta babesteko gailuak manipulatzeko jarduerak zuzentzeko eskumena ematen duen Segurtasun Nuklearreko Kontseiluaren berariazko baimena duen pertsona. Guztia ere, Instalazio Nuklear eta Erradioaktiboei buruzko Erregelamendua onartu zuen 1836/1999 Errege Dekretuak (abenduaren 3koa) agindutakoari jarraiki egin behar da.

«Substantzia erradioaktiboa»: erradionukleido bat edo gehiago izanik, babes erradiologikoaren ikuspegitik baztertzekoa ez den jarduera edo kontzentrazioa duen substantzia.

«Babes Erradiologikoko teknikaria»: Babes Erradiologikoko Zerbitzu edo Unitate Tekniko batek emandako kualifikazioa izanik, Babes Erradiologikoko Zerbitzu edo Unitate Teknikoko buruaren zuzendaritzapean, Zerbitzu edo Unitate horri dagozkion jarduerak egiten dituen pertsona.

«*Titularra*»: Estatuko legeei jarraiki, Erregelamendu honetako 2. artikuluan zehaztutako laneko jardun edo jardueretako batzuen gaineko erantzukizuna eta eskuduntza duen pertsona fisiko nahiz juridikoa.

«*Eraginpean dauden langileak*»: beren lanaren ondorioz erradiazioen eraginpean dauden pertsonak. Eragin hori Erregelamendu honetan aipatzen diren jarduerak egitean jasaten da eta jende arruntarentzat finkatutako dosi batzuk gainditu litzake.

«*Kanpoko langilea*k»: eraginpean dauden langileen multzoan sailkatuta egonik, instalazio nuklear edo erradiaktibo bateko kontrolpeko zonan jardueraren bat egiten duen eta aldi baterako nahiz iraunkorki kanpoko enpresa batetik kontratatutako edozein langile. Hor sartzen dira laneko praktikak egiten ari diren ikasleak, trebatzen ari diren pertsonak eta ikasleak, edo bere kasako langile moduan bere zerbitzuak eskaintzen dituen edozein pertsona.

«*Kontrolpeko zona*»: erradiazio ionizatzaileetatik babesteko, araudi berezia duen zona. «*Zainpeko zona*»: erradiazio ionizatzaileetatik babesteko, zaintza berezia duen zona.

Eskatu beharreko dokumentazioa

Galdetegi hau osatzeko ikuskaritza egitean, ikuskatzaileak irakurri behar dituen edo irakurtzea komeni zaion zenbait liburu jaso ditugu zerrenda honetan.

a) Instalazio erradioaktiboaren justifikazioa.
b) Arriskuen ebaluazioa.
c) Lanlekuen sailkapena zonaka, eta egindako berrikusketak.
d) Eragina jasan duten langileen sailkapena.
e) Eraginpean egondako langileen kategoriak eta laneko zonak zaindu eta kontrolatzeko arauak eta neurriak betetzea, banakako zainketa ere aintzat hartuz.
f) Lan-giroaren zainketa erradiologikoa, kontrolpean eta zaintzapean dauden zonetan.
g) Eragina jasan duten langile bakoitzaren disimetria.
h) Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak Dosimetria Pertsonaleko Zerbitzuari emandako baimena.
i) Eraginpean egondako langileei egindako berariazko osasun-azterketak, aurretikoak nahiz aldirokoak.
j) Langileei emandako prestakuntza eta informazioa.

C.4. ERRADIAZIO IONIZATZAILEAK

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objeiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Instalazio erradioaktiboa justifikatuta dago eskumeneko agintarien aurrean.	783/2001 ED (4)	- Araudian jasotako jardun mota edo era berriaren sustatzaileak eskumeneko agintarien aurrean justifikatu du jardun hori.	- Instalazio erradioaktiboaren justifikazioa.	3			
2	Babes Erradiologikoko Zerbitzuak eta Babes Erradiologikoko Unitate Teknikoak beharrezko baimenak dauzkate eta behar bezala eratuta eta antolatuta daude.	783/2001 ED (24 eta 25)	Babes Erradiologikoko Zerbitzu eta Unitate Teknikoek Segurtasun Nuklearreko Kontseiluaren berariazko baimena behar dute eta kide hauek dituzte: Babes Erradiologikoko Zerbitzu edo Unitate Teknikoko burua eta babes erradiologikoan adituak diren teknikariak. Babes Erradiologikoko Zerbitzuak gainerako unitate funtzionaletatik bereizita antolatzen dira eta jarduten dute, eta zerbitzuburuak independentzia funtzionala du eta zuzena titularrarekin edo instalazio edo lantokiaren erantzukizun nagusia duen pertsonarekin. Laneko legeetan finkatutako prebentzio-zerbitzuekin koordinatu beharra dauka, halere. - Babes Erradiologikoko Zerbitzu eta Unitate Teknikoek instalazio batean baino gehiagotan egin dezakete lan, baina Segurtasun Nuklearreko Kontseiluaren baimena behar dute horretarako. - Babes Erradiologikoko Zerbitzu edo Unitate Teknikoko buruak Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak jardun hori baimenduz emandako diploma eduki behar du. - Babes Erradiologikoko Zerbitzu edo Unitate Teknikoko buruak Erregelamendu hau betetzen dela ziurtatu behar du, eta betetzen ez bada, jardunaren titularrari jakinarazi beharko dio idatziz, erregistroa Ikuskapenaren esku utziaz. Bestalde, babes erradiologikorako gutxieneko baldintzak betetzen ez direla iruditzen bazaio, lanak geldiarazteko edo eremu bat husteko eskatu behar dio jardunaren titularrari, idatziz.	- Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak Babes Erradiologikoko Zerbitzu edo Unitate Teknikoari emandako baimena. - Babes Erradiologikoko Zerbitzuaren antolakuntza eta jarduketak. - Segurtasun Kontseiluak de Babes Erradiologikoko Zerbitzu edo Unitate Teknikoko burua baimenduz emandako diploma. - Babes Erradiologikoko Zerbitzu edo Unitate Teknikoko buruak egindako idatziak.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objeiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
3	Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak babes berezia eman du, ez ohiko egoeretarako eta kasu zehatzetarako.	783/2001 ED (4 eta 12)	- Baimen hori emateko baldintza hauek bete behar dira: eragina denboran mugatua egotea, laneko zona jakin batzuetan jasatea eta Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak kasu zehatz horretarako zehaztutako eragin-dosien gehienezko mugen azpitik egotea. - Baldintza hauek hartu behar dira kontuan: a) Baimen berezia duten eraginen barruan A kategoriako langileak onartzen dira bakarrik (beren lana egiteko baldintzak direla eta, kristalinoaren, larruazalaren eta gorputz-adarren kasuan, 3/10- tik gorako dosi baliokidea edo urte ofizialeko 6 mSv-tik gorako dosi efektiboa jasotzen duten pertsonak, 3. galderan zehazten den moduan). b) Ondorengoek ezin dute baimen berezia behar duten eraginik jasan: 1. Haurdun dauden emakumeak eta edoskitze-aldian egonik gorputza kutsatzea daukatenak. 2. Trebatzen ari diren pertsonak eta ikasleak. c) Jardunaren titularrak eragin horiek jasaten hasi aurretik justifikatu behar ditu, dena ondo azalduz eragina jasango duten langileei eta haien ordezkariei, Babes Erradiologikoko Zerbitzuari edo Babes Erradiologikoko Unitate Teknikoari edo babes erradiologikoaren ardura duen pertsona edo ikuskatzaileari. d) Baimen berezia behar duen eragin bat jasaten hasi aurretik, lan horrek dituen arriskuei buruzko informazio guztia eman behar zaie langileei, lan hori egitean hartu beharreko neurriak zehaztuz. Halako lanetan parte hartzea borondatezkoa da.	- Segurtasun Nuklearreko Kontseiluaren babes berezia behar duten kasu zehatzen zerrenda. - Baimen berezia behar duten eraginak jasateko onartutako langileen zerrenda.	5			
4	Instalazio erradioaktiboak baimena behar du pertsonei nahita substantzia erradioaktiboak administratzeko, bai eta gizakiei nahiz mediku edo albaitarien diagnostiko, tratamendu edo ikerketetarako animaliei emandako erradiaziotik babesteari dagokionez ere.	783/2001 ED (5.2)		- Dagokion baimena.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objeiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
5	Ekonomia Ministerioak efluenteak eta hondakin solidoak husteko emandako baimena.	783/2001 ED (51)		- Dagokion baimena.	3			
6	Eraginpean dauden langileak jardunean babestu behar dira.	783/2001 ED (15)	- Eraginpean dauden langileak jardunean babesteko, printzipio hauek hartu behar dira kontuan: a) Aurretiko lan-baldintzen ebaluazioa, arrisku erradiologikoaren ezaugarriak eta handitasuna zehazteko eta optimizazio-printzipioa betetzeko. b) Lanlekuak zonetan sailkatzea, ondokoaren arabera: aurreikusitako urteko dosien ebaluazioa, kutsadura zabaltzeko arriskua, eragin potentzialen probabilitatea eta handitasuna. c) Eraginpean dauden langileak zenbait kategoriatan sailkatzea, haien lan-baldintzen arabera. d) Eraginpean egondako langileen kategoriak eta laneko zonak zaindu eta kontrolatzeko arauak eta neurriak betetzea, banakako zainketa ere aintzat hartuz. e) Osasun-zainketa.	-Arriskuen ebaluazioa. - Lanlekuen sailkapena zonaka. Eraginpean dauden langileen sailkapena. - Zona bakoitza zaindu eta kontrolatzeko arauak eta neurriak, eta eragina jasan duten langileen mailak, banakako zainketa ere aipatuz, hala badagokio. - Eraginpean dauden langileei egindako berariazko osasun-azterketak.	3			
7	Jardunaren titularrak lanlekuak zonaka sailkatu behar ditu.	783/2001 ED (17)	- Lanlekuak eraginpean egoteko arriskuaren arabera sailkatu behar dira, eragin potentzialen probabilitatea eta handitasuna aintzat hartuta. Zona hauek bereizi behar dira: a) Kontrolpeko zona. - Egonaldi mugatuko zonak. - Egonaldi arautuko zonak. - Sarbide debekatuko zonak. b) Zainpeko zona. - Lanlekuen zonakako sailkapena eguneratuta eduki behar da beti, lanean dauden baldintza errealen arabera. Horretarako, jardunaren titularrak zonakako sailkapena berrikusi egin behar du aldiro-aldiro, lan-baldintzetan egondako aldaketetan oinarrituz.	- Lanlekuen sailkapena zonaka. - Zonakako sailkapenen berrikusketak.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objeiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
8	Langileei, trebatzen ari diren pertsonei eta, ikasketak egiten dituzten bitartean, iturriak erabili behar dituzten ikasleei prestakuntza eta informazioa eman behar zaie.	783/2001 ED (21.1)	- Prestakuntza eta informazio hori gai hauei buruzkoa izango da: osasunerako arriskuak, eraginpean egondako denborarekin duten erlazioa, NBEa (norbera babesteko ekipamendua) erabiltzea, ebaluazioak, etab. - Prestakuntza eta informazioa aldiro-aldiro errepikatu behar da, behar izanez gero.	- Emandako prestakuntza eta informazioa.	3			
9	Kontrolpeko eta zainpeko zonetan lan egiteko baimena duten pertsonei jarraibide egokiak eman behar zaizkie zona horien barruan dauden arriskuen inguruan.	783/2001 ED (18.1.b)		- Zainpeko eta kontrolpeko langileei emandako jarraibideak. - Kontrolpeko langileei idatziz emandako lan-prozedurak.	3			
10	Ezbeharrezko eta larrialdiko eraginen dosiak kalkulatu behar dira.	783/2001 ED (32)	- Ezbeharrezko eraginik gertatuz gero, egondako dosiak eta gorputzean nola banatuta dauden ebaluatu behar da. - Larrialdiko eraginik gertatuz gero, langile bakoitzaren jarraipena egin edo banakako dosiak ebaluatu behar dira, egoera zehatzaren arabera.	- Ezbeharrezko eta larrialdiko eraginen dosien kalkulua.	5			
11	Baimen berezia duen eragin bat, ezbeharrezko eragin bat edo larrialdiko eragin bat jasatean dosien muga gaindituz gero, azterketa bat egin behar da gorputz osoan edo kaltetutako organo edo eremuetan jasotako dosia ebaluatzeko.	783/2001 ED (33)	- Dosiak kalkulatzea eta protokoloa prestatzea.	- Egindako azterketa. - Prebentzio Zerbitzuari, Segurtasun Nuklearreko Kontseiluari eta kaltetutako langileari bidalitako jakinarazpenak.	5			
12	18 urtetik beherakoei ezin zaie eraginpean egotea ekar lezakeen zereginik agindu.	783/2001 ED (19)	- Protokoloa prestatzea, 783/2001 EDak agintzen duenarekin bat etorriz.		5			
13	Haurdun edo edoskitzen ari diren langileei babes berezia eman behar zaie.	783/2001 ED (4 eta 10)	- Protokoloa prestatzea, 783/2001 EDak agintzen duenarekin bat etorriz.		5			
14	Laneko giroaren zainketa erradiologikoa egin behar da, kontrolpean eta zaintzapean dauden zonetan.	783/2001 ED (18 eta 26)	- Protokoloarekin bat etortzea.		3			
15	Dokumentazio egokia gorde behar da, laneko edo osasun-arloko agintarien esku uzteko prest uneoro.	783/2001 ED (26)	- Protokoloarekin bat etortzea.		1			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objeiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
16	Eraginpean egondako langileek jasotako dosien banakako zainketa egokia egin behar da.	783/2001 ED (27, 28 eta 29)	- Banakako dosimetrien protokoloa.	- Banakako dosimetriak. - Dosimetria Pertsonaleko Zerbitzuaren baimena.	3			
17	Banakako neurketarik egitea ezinezkoa bada edo ez bada komeni, dosien kalkulu bereziak egin beharko dira.	783/2001 ED (30)		- Langileen historial dosimetrikoa.	1			
18	Eragina jarduera edo instalazio batean baino gehiagotan jasaten duten langileek, xehetasun hori jakinarazi beharko dute.	783/2001 ED (37)	- Babes Erradiologikoko Zerbitzuko eta Babes Erradiologikoko Unitate Teknikoko buruari jakinarazi behar diote edo, bestela, babes erradiologikoaren gaineko ardura duen pertsonari edo ikuskatzaileari jakinarazi behar diote hori, lan egiten duten lantegi guztietan, lantegi horietan bakoitzaren historial dosimetriko osoa eta eguneratua izan dezaten. Horretarako, jarduera bakoitzean besteetan ematen dizkioten emaitza dosimetrikoak jakinarazi behar ditu langileak. - Lanez aldatuz gero, lan berriko titularrari bere historial dosimetrikoaren kopia ziurtatua eman behar dio langileak.	- Lanez aldatuz gero, lan berriko titularrak langilearengandik jasotako historial dosimetrikoaren kopia ziurtatua. - Langileen emaitza dosimetrikoei buruz jasotako jakinarazpenak, langile bakoitzak lan egiten duen lantegi bakoitzari buruz aurkeztuak. -Historial dosimetrikoa.	1			
19	Erradiazio ionizatzaileen aurkako osasun-babesari buruzko dokumentazioa eskumeneko erakundeetan aurkeztu behar da.	783/2001 ED (38)	- Segurtasun Nuklearreko Kontseiluan aurkeztu behar da, batetik, eta, bestetik, horretarako eskumenak dituzten administrazio publikoetan eta eskatzen duten epaitegi eta auzitegietan.		1			
20	Zainpeko eta kontrolpeko zonak ondo zedarrituta egon behar dute, bertan eraginpean egoteko arriskua dagoela argi ikusteko moduan.	783/2001 ED (18)	- Seinaleztapena 783/2001 EDko IV. eranskinean zehaztutakoarekin bat etorriz egin behar da.		3			
21	Kutsatzeko arriskua dagoen kontrolpeko zonetan dagoen arriskuaren araberako NBEak erabili behar dira.	783/2001 ED (18)		- NBEen zerrenda. -Arriskuen ebaluazioa.	3			
22	Kutsatzeko arriskua dagoen kontrolpeko zonen irteeretan, detektagailuak jarri behar dira pertsonak edo ekipoak kutsatu ote diren ikusteko.	783/2001 ED (18)		Kutsatzeko arriskua dagoen kontrolpeko zonen irteeretan, pertsonak edo ekipoak kutsatu ote diren ikusteko jarritako detektagailuak.	3			
23	Eraginpean egondako langileak ondo sailkatu behar dira.	783/2001 ED (20)		Eraginpean egondako langileen sailkapena.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objeiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
24	Kontuan hartu beharreko jardun guztietan jasotako dosien baturak ezin ditu dosietarako finkatutako mugak gainditu.	783/2001 ED (4 eta 9)	- 783/2001 EDari jarraiki finkatutako protokoloa.	- Langileek jasotako dosiak.	3			
25	Jardunaren titularrak dosiak mugatu behar ditu eta Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak dosi horiek ebaluatu eta onartu behar ditu. Eragin handia ekarriko duten egoerak aldez aurretik justifikatu behar dira.	783/2001 ED (6 eta 12)		- Ikusi dosien murrizketak, Segurtasun Nuklearreko Kontseiluaren ebaluazio eta onarpenekin. - Egindako justifikazioak.	3			
26	Erradiazio ionizatzaileen eraginpean egoteak eragindako arriskuak jasandako langileen osasuna ondo zaintzen dela bermatu behar du enpresaburuak.	783/2001 ED (39, 40, 41, 42, 45 eta 46)	- Eskumeneko osasun-langileek zaindu behar dute langileen osasuna, osasun-alorreko jarraibide eta protokoloak betez eta irizpide profesionalari jarraiki, langileen jardunaren fase guztietan. - Komeni den maiztasunarekin egin behar dira osasun-azterketak.	- Langileei egindako berariazko osasun-azterketak.	3			
27	Medikuak osasun-zaintza egiten zaien langile bakoitzaren historiala izango du.	783/2001 ED (44)	- Osasun-protokoloekin bat etortzea. - Konfidentzialtasun-sekretuak babestuta.		3			
28	Hondakin erradioaktiboak ondo biltegiratu behar dira.	783/2001 ED (56)	- Protokoloekin bat etortzea.		3			

C.5 ARRISKU ZEHATZARI BURUZKO GALDETEGIA ZARATA

GALDETEGI HONEN ERABILERA

Xedea

685/2006 Errege Dekretuetan finkatutako lan-baldintzak betetzen direla egiaztatzea, lanean zarataren eraginpean egoteak langileen osasun eta segurtasunerako sortu ditzakeen arriskuetatik babesteari dagokionez, langileen entzumena kaltetu lezaketen arriskuak zainduz bereziki.

Esparrua

Errege Dekretu honetako xedapenak langileak beren lanaren ondorioz zaratak eragindako arriskuen eraginpean egotea dakarten edo ekar lezaketen jardueretan bete beharko dira.

Salbuespenak

a) musika eta aisialdiko sektoreetan ez da aplikatuko 2008ko otsailaren 15era arte (1316/1989 Errege Dekretuak sektore horiei buruz dioena indarrean sartu arte, alegia).
b) Errege Dekretu honetako 8. artikulua (eragina mugatzea) ez zaie itsas nabigazioko ontzietan doazen langileei aplikatuko, 2011ko otsailaren 15era arte.

Definizioak

«L_p,, presio akustikoren maila»: ondorengo formularen bidez kalkulatutako maila, dezibeliotan:

$$L_p = 10 \lg \left(\frac{P}{P_0} \right)^2$$

P_0 erreferentziazko presioa da (2·10-5 pascal) da hor eta P, langileek (lanlekuan batetik bestera ibili ala ez) benetan jasaten duten presio akustikoren balioa, pascaletan.

«Lp_A, A presio akustikoren maila haztatua»: presio akustikoren maila, dezibeliotan, A haztapen frekuentzialaren iragazkia jarrita neurtua, eta ondorengo formularen bidez kalkulatua:

$$L_{pA} = 10 \lg \left(\frac{P_A}{P_0} \right)^2$$

P_A A presio akustiko haztatuaren benetako balioa da hor, pascaletan.

«$L_{Aeq\ T}$, A presio akustikoren maila jarraitu baliokide haztatua»: A dezibelioetan emandako maila, formula honen bidez kalkulatua:

$$L_{Aeq,T} = 10 \lg \left[\frac{1}{T} \int_{t_1}^{t_2} \left(\frac{P_A(t)}{P_0} \right)^2 \cdot dt \right]$$

$T = t_2 - t_1$, hots, langilea zarataren eraginpean egondako denbora da hor.

«LAeq T, egunero jasandako eragin akustiko baliokidea»: A dezibelioetan emandako maila, formula honen bidez kalkulatua:

$$L_{Aeq,d} = L_{Aeq,T} + 10 \lg \frac{T}{8}$$

T soinuaren eraginpean egondako denbora da hor, eguneko orduetan adierazia. Lanean dauden zarata guztiak hartu behar dira kontuan, bulkaden zaratak ere barne.

Langileak «m» zarata mota desberdinen eraginpean baldin badago eta, arriskua ebaluatzeko, zarata horietako bakoitza bere aldetik aztertu bada, eguneko eragin-maila baliokidea kalkulatzeko formula hau erabiliko dugu:

$$L_{Aeq,d} = 10 \lg \sum_{i=1}^{i=m} 10^{0,1 \cdot \left(L_{Aeq,d}\right)_i} = 10 \lg \frac{1}{8} \sum_{i=1}^{i=m} T_i \cdot 10^{0,1 \cdot L_{Aeq,Ti}}$$

$L_{Aeq,Ti}$ «i» zarata motari dagokion A presio akustikoren maila jarraitu baliokide haztatua da hor, eta langileak egunean ordu T_i ematen ditu zarata horren eraginpean. $(L_{Aeq,d})_i$, berriz, zarata mota hori bakarrik egonez gero egongo litzatekeen eguneko maila baliokidea da.

«$L_{Aeq,s}$, asteko jasandako eragin akustiko baliokidea»: A dezibelioetan emandako maila, formula honen bidez kalkulatua:

$$L_{Aeq,s} = 10 \lg \frac{1}{5} \sum_{i=1}^{i=m} T_i \cdot 10^{0,1 \cdot L_{Aeq,di}}$$

«m» horrek langilea astean zehar zarataren eraginpean zenbat egun egoten den adierazten du, eta $L_{Aeq,di}$, berriz, «i» egunari dagokion eguneko eragin-maila baliokidea.

«L_{punta}, puntako maila»: ondorengo formularen bidez kalkulatutako maila, dezibeliotan:

$$L_{pico} = 10 \lg \left(\frac{P_{pico}}{P_0} \right)^2$$

P_{punta} langileak jasandako bat-bateko presio akustikoren balio gorena (pascaletan) da hor, C haztapen frekuentzialeko iragazkia jarrita neurtua, eta P_0, berriz, erreferentziazko presioa (2·10-5 pascal).

«Zarata egonkorra»: A presio akustikoren maila haztatua konstante egoten dena gehienetan. Noiz betetzen da baldintza hori? UNE-EN 60651:1996 arauari jarraiki «SLOW» ezaugarriak erabiliz neurtuta, L_pA-ren balio handien eta txikien arteko aldea 5 dB baino txikiagoa denean

Eskatu beharreko dokumentazioa

Galdetegi hau osatzeko ikuskaritza egitean, ikuskatzaileak irakurri behar dituen edo irakurtzea komeni zaion zenbait liburu jaso ditugu zerrenda honetan.

a) Zarata ateratzen duten eragiketa eta instalazioen zerrenda.
b) Enpresako aparatuen kalibrazioen erregistroak eta neurgailuen ezaugarriak.
c) Zarata murrizteko plana.
d) Zaratari buruzko prestakuntza-programak.
e) Langileei zaratari buruz emandako informazioa.
f) Langileei egindako berariazko osasun-azterketak.
g) Zarataren eraginpean egondako langileei egindako ebaluazioak: hasierakoa, osagarriak eta aldirokoak.

C.5. ZARATA

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betarazpena		
						B	E	EA
1	Zarataren eraginpean egoteak dakartzan arriskuak iturrian bertan ezabatzen edo murrizten ditu enpresaburuak.	286/2006 ED (4)	- Zarata ateratzen duten eragiketa eta instalazioei buruzko azterketa, zarata-maila, eraginaren iraupena eta soinu-mailaren maiztasuna zehaztuz. - Zarata ezabatzeko edo murrizteko plana, teknikaren aurrerapenak eta zarata kontrolatzeko dauden neurriak aintzat hartuz.	- Zarataren azterketa. - Zarata ezabatzeko edo murrizteko plana.	3			
2	Ezabatu edo murriztu ezin izan diren zaratak ebaluatu behar ditu enpresaburuak.	286/2006 ED (6)	- Lanleku bakoitzean dagoen zarataren hasierako ebaluazioak eguneratu egin beharko dira lanpostu bat sortzen den bakoitzean edo lehendik dauden lanpostuak zarata-maila nabarmen aldaraziz aldatzen direnean.	- Zarataren ebaluazioak: hasierakoa, osagarriak eta aldirokoak.	3			
3	Ebaluazioa egiteko emaitza fidagarriak ziurtatzen dituzten metodologia eta tresnak erabili behar dira.	286/2006 ED (4)	- Neurtzeko tresnak neurketak egin aurretik eta ondoren kalibratu edo egiaztatu behar dira. - Sonometro eta dosimetroek 1316/1989 EDko III. Eranskinean zehaztutako arauak bete behar dituzte.	- Ebaluazioaren txostenean bertan egiaztatzea (neurgailuen ezaugarriak). - Kalibrazioen erregistroa.	3			
4	Eguneko maila baliokideak finkatutako mailak gainditzen dituen lanpostuetan, neurriak hartu beharko dira.	286/2006 ED (5 eta 7)	- Protokolo bat finkatu da, ondorengo neurriak betetzeko: • babes-gailuak banatzea soinu-mailaren frekuentziak aztertu ondoren. • langileak trebatu eta informatzea. • osasuna zaintzea, jasandako eragin-mailaren arabera.	- Jarduteko protokoloa.	1			
5	Soinu-mailak eta hartu beharreko neurriak berehala jakinarazi behar zaizkie langileei eta haien ordezkariei.	286/2006 ED (4, 5, 7 eta 9) LAPL (18)		- Dagokion informazio eta kontsultarako dokumentazioa.	3			
6	Zarataren eraginpean egongo diren langileei hasierako osasun-azterketa bat egin behar zaie, eragin hori sortu aurretik edo sortu eta berehala.	286/2006 ED (11)	- Eragin-mailaren arabera finkatutako osasun-protokoloari jarraiki.		3			
7	Entzumenaren osasun-azterketak egin behar dira aldiro-aldiro, eragin-mailaren arabera.	286/2006 ED (11)	- Eragin-mailaren arabera finkatutako osasun-protokoloari jarraiki.		3			
8	NBE egokiak erosteko aukera ematen duen erosketa-politika dago enpresan, soinu-mailaren maiztasuna analizatzeko azterketak eginez, esate baterako.	LAPL	- Erosketak egiteko prozedura finkatzea.		3			

C.6 ARRISKU ZEHATZARI BURUZKO GALDETEGIA SUBSTANTZIA ARRISKUTSUAK

GALDETEGI HONEN ERABILERA

Xedea

1254/1999 Errege Dekretuan finkatutako lan-baldintzak betetzen direla egiaztatzea, substantzia arriskutsuak tartean daudela gertatutako istripu larriei lotutako arriskuak kontrolatzeko neurriei dagokienez.

Esparrua

Substantzia arriskutsuak I. eranskineko 1. eta 2. zatietako 2. zutabean zehaztutako kopuruan edo kopuru handiagoan dauzkaten establezimenduetan bete behar dira xedapen horiek. Salbuespena: 9. eta 11. artikuluak (kanpoko larrialdi-planei buruzko atalak) eta 13. artikulua. Xedapen horiek substantzia arriskutsuak I. eranskineko 1. eta 2. zatietako 3. zutabean zehaztutako kopuruan edo kopuru handiagoan dauzkaten lanlekuetan dira betetzekoak.

1254/1999 EDri dagokionez, kasu hauetan esango dugu substantzia arriskutsuak daudela: lanlekuan halakoak benetan daudenean edo egotekoak direnean, edo, industria-prozesu kimiko batean kontrola galtzearen ondorioz sortu litezkeenean, I. eranskineko 1, eta 2. zatietan finkatutako kopuruan edo kopuru handiagoan.

Salbuespenak

Kasu hauek salbuetsita daude:

a) Militarren establezimendu, instalazio eta biltegiratze-eremuak.
b) Erradiazio ionizatzaileek sortutako arrisku eta istripuak.
c) Substantzia arriskutsuak errepidez, trenez, ibaiez, itsasoz edo airez garraiatzea, ED hau bete beharreko establezimenduetatik kanpo egindako tarteko aldi baterako biltegiratzea, zama-lanak eta kaietatik, ontziralekuetatik edo sailkapenerako tren-geltokietatik edo haietara garraiatzea barne.
d) Substantzia arriskutsuak kanalizazioetatik garraiatzea, ED hau bete beharreko establezimenduetatik kanpo dauden ponpaketa-estazioak barne.
e) Meategi eta harrobietan mineralak ateratzeko eta ustiatzeko edo zulaketak egiteko industria-jarduerak.
f) Zabortegiak.
g) Lehergaien Erregelamendua onartu zuen 230/1998 Errege Dekretuaren bidez (otsailaren 16koa) araututako establezimenduak.

Definizioak

«*Establezimendua»:* industrial baten kontrolpean dauden zona guztiak, bertako instalazio batean edo gehiagotan substantzia arriskutsuak dauzkana, jarduera eta azpiegitura komun edo lotuak ere barne hartuta.

«*Instalazioa»:* establezimendu baten barruan dagoen unitate teknikoa, substantzia arriskutsuak ekoitzi, erabili, manipulatu, eraldatu edo biltegiratzen dituena. Instalazioak jarduteko

behar dituen ekipo, egitura, kanalizazio, makina, tresna, trenbideko adar partikular, kai-barren, zama-lanetarako kai, kai-mutur, andel eta antzeko egitura guztiak sartzen dira hor, ur gainean izan ala ez.

«Industriala»: establezimendu edo instalazioaren jabe den edo hura ustiatzen duen pertsona fisiko nahiz juridikoa, edo, aurrekoak ordezkatuz funtzionamendu teknikoaz arduratzeko, botere ekonomiko jakin bat bere esku daukan pertsona.

«Substantzia arriskutsuak»: I. eranskineko 1. zatian aipatutako edo I. eranskineko 2. zatian zehaztutako irizpideak betetzen dituzten substantzia, nahasketa edo prestakinak. Lehengaietan, produktuetan, azpiprodukTuetan eta bitarteko produktuetan agertzen dira halakoak, istripua gertatuz gero sortu litezkeenak ere barne.

«Istripu larria»: Errege Dekretu hau bete behar duen edozein establezimenduren jardunean gertatutako kontrolatu gabeko prozesu baten ondorioz izandako edozein gertakari —hala nola jario edo isurpenak, suteak edo leherketa handiak—, pertsonentzat, ondasunentzat nahiz ingurumenerako arrisku larria eragiten duena, berehala nahiz geroago, bai establezimenduaren barruan bai handik kanpo, substantzia arriskutsuak tartean egonik.

«Arrisku larria»: substantzia arriskutsu batek pertsonei, ondasunei edo ingurumenari kalteak eragiteko duen ahalmena eta egoera fisiko batek horretarako izan lezakeena.

«Arriskua»: denbora-tarte jakin batean eta egoera zehatz batean efektu jakin bat gertatzeko dagoen probabilitatea.

«Biltegiratzea»: substantzia arriskutsuen kopuru jakin bat egotea, biltegian, gordailuan nahiz zaintzan gordetzeko.

«Domino-efektua»: ondorioak areagotzen dituzten efektuak kateatzea. Fenomeno arriskutsuek kanpoko elementu urrakorrak kaltetzeaz gain, establezimenduko nahiz inguruko establezimenduetako beste ontzi, hodi edo ekipo batzuk ere kaltetzen dituelako, beste jario, sute, leherketa edo eztanda bat eraginez han, horiek ere fenomeno arriskutsu gehiago sortuaz.

Eskatu beharreko dokumentazioa

Galdetegi hau osatzeko ikuskaritza egitean, ikuskatzaileak irakurri behar dituen edo irakurtzea komeni zaion zenbait liburu jaso ditugu zerrenda honetan.

a) Dauden substantzia arriskutsuen zerrenda, kantitateak zehaztuz.
b) Autonomia-erkidegoetako eskumeneko erakundeei bidalitako jakinarazpenak.
c) Segurtasun-txostena.
d) Segurtasuna Kudeatzeko Sistemaren (SKS) esku-liburua.
e) Langileei emandako prestakuntza eta informazioa.
f) Barruko Larrialdi Plana (BLP).

C.6. SUBSTANTZIA ARRISKUTSUAK

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Istripu larriak prebenitzeko duen politika idatziz zehaztu eta dokumentatu du enpresaburu, finkatutako epeetan.	1254/1999 ED (7)	- Istripu larrien inguruko xehetasuna jasotzen dituen prebentzio-politikari buruzko dokumentua, ondorengo alderdiekin: a) Antolaketa eta langileak. b) Istripu larria gertatzeko arriskuak identifikatu eta ebaluatzea. c) Ustiapenaren kontrola. d) Aldaketetara egokitzea. e) Larrialdietarako plangintza. f) Finkatutako helburuen jarraipena. g) Ikuskaritza eta berrikusketa.	- Istripu larrien inguruko xehetasuna jasotzen dituen prebentzio-politikari buruzko dokumentua. - Arauzko ikuskapenaren txostena.	3			
2	SKS bat finkatu behar du enpresaburuak, ondorengo alderdiak zehaztuz: istripu larriak prebenitzeko politika zehaztu eta betetzeko dauden baliabideak, enpresaren antolaketa orokorra, erantzukizunak, prozedurak eta jardunak.	1254/1999 ED (7)	- Ikusi 1254/1999 EDko III. Eranskineko edukia - SKS esku-liburu bat prestatu da.	- SKS esku-liburua. - Arauzko ikuskapenaren txostena.	3			
3	SKS-an istripu larrien prebentzio eta kudeaketaz arduratzen diren langileen eginkizun eta erantzukizun guztiak zehaztuta daude, enpresako maila guztietan.	1254/1999 ED (III. eranskina)	- SKS-ren protokoloa finkatu da.	- SKS-ren protokoloa.	3			
4	SKS-an langileek behar duten trebakuntza zehazten da.	1254/1999 ED (III. eranskina)	- SKS-ren protokoloa finkatu da.	- SKS-ren protokoloa.	3			
5	SKS-ak istripu larrien arriskuak identifikatu eta ebaluatzea bermatzen du.	1254/1999 ED (III. eranskina)	- Istripu larrien arriskuak identifikatu eta ebaluatzeko prozedura finkatu da.	Istripu larrien arriskuak identifikatu eta ebaluatzeko prozedura.	3			
6	Instalazioetan edo biltegiratze-zonetan edo instalazio, prozesu edo biltegiratze-zona berriak diseinatzeko egin beharreko aldaketak egiteko prozedurak finkatzen ditu SKS-ak.	1254/1999 ED (III. eranskina)	- SKS-ren protokoloa finkatu da. - Diseinua eta aldaketak kontrolatzeko prozedurak eta jarraibideak finkatu dira.	- SKS-ren protokoloa. - Diseinua eta aldaketak kontrolatzeko prozedurak eta jarraibideak.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
7	Instalazioa, establezimendua edo biltegiratze-zona aldatuz gero, ondorengoak berrikusi eta, behar izanez gero, aldatu beharko ditu enpresaburuak: istripu larriak prebenitzeko politika, segurtasuna kudeatzeko sistema, barruko larrialdi-plana eta segurtasun-txostena.	1254/1999 ED (10)	- SKS-ren protokoloa finkatu da. - Prozedura zehatzak finkatu dira ondorengoetarako: • Zuzendaritzaren berrikusketa. • Barruko Larrialdi Plana (PLP) egitea, egiaztatzea, berrikustea eta zabaltzea.	- SKS-ren protokoloa. - Berariazko prozedurak.	3			
8	Etengabe eta aldiro-aldiro ebaluatu behar da SKS-a eta, betetzen ez bada, ikerketa- eta zuzenketa-neurriak hartu beharko dira.	1254/1999 ED (III. eranskina)	- SKS-ren protokoloa finkatu da.	- SKS-ren protokoloa.	3			
9	Arrisku larriak prebenitzeko politika eta SKS-ren beraren eraginkortasun eta moldagarritasuna aldiro-aldiro eta modu sistematikoan ebaluatzen dela bermatzen du SKS-ak.	1254/1999 ED (Anexo III)	- SKS-ren protokoloa finkatu da.	- SKS-ren protokoloa.	3			
10	Establezimenduan dauden edo egon litezkeen edo industria-prozesua kontrolik gabe geldituz gero sortu litezkeen substantzia arriskutsuak identifikatu, sailkatu eta zenbatu ditu enpresak.	1254/1999 ED (2)	- Substantzia arriskutsuak 1254/1999 EDan daude zehaztuta, eta bakoitzetik aintzat hartu beharreko kopurua ere ematen bertan. - Bertan dauden substantziak nahiz egon litezkeenak hartu behar dira kontuan. - Industria-prozesu kimiko bat kontrolik gabe gelditzean sortutakoak ere multzo honetan sartzen dira. Azken kasu horretan, aurreko paragrafoan zehaztutako kopuruak dira aintzat hartu beharrekoak.	- Eskumeneko organoari bidalitako jakinarazpena. - Arauzko ikuskapenaren txostena. - Dauden substantzia arriskutsuen zerrenda, kantitateak zehaztuz.	3			
11	SKS-ak egon litezkeen larrialdiak identifikatzen ditu, azterketa sistematiko bati jarraiki. Horrekin batera, Barruko Larrialdi Plana (BLP) prestatu, egiaztatu eta berrikusten du.	1254/1999 ED (11, III. eranskina)	- BLP-ak bat etorri behar du Kimikaren Sektorean Plan Bereziak Egiteko eta Homologatzeko Oinarrizko Arteztarauko zehaztapenekin bat etorri behar du. - Ikusi BLP aurkezteko epeak 11.2. artikuluan. - 886/1998 eta 952/1990 errege-dekretu indargabetuei jarraiki egindako BLP-ak eguneratu egin behar dira, artikulu honetan bertan zehaztutako ezarpen-planen arabera.	- SKS-ren protokoloa. - BLP. BLP egiteko, egiaztatzeko eta berrikusteko prozedura.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
12	Enpresaburuak industria-establezimenduko BLP prestatu behar du, langileei eta haien ordezkariei kontsultatuta. Gero, autonomia-erkidegoko eskumeneko organoari bidali behar dio Plan hori.	1254/1999 ED (11)	- SKS-ren protokoloa finkatu da.	- SKS-ren protokoloa.	3			
13	SKS-aren bidez istripu larriak jakinarazten direla eta istripuok ikertu eta jarraipena egin zaiela ziurtatzen da, guztia ere ikasitakoa oinarritzat hartuta.	1254/1999 ED (III. eranskina)	- SKS-ren protokoloa finkatu da. - Desadostasunetarako prozedurak finkatu dira.	- SKS-ren protokoloa.	3			
14	Istripu larria eragin lezakeen gorabehera edo arriskuren bat gertatu eta berehala, enpresaburuak, bide egokienak erabiliz, ondorengoak jakinarazi behar dizkie bere autonomia-erkidegoko eskumeneko organoei: a) Istripua edo gorabehera, gertatu eta berehala. b) Haren ezaugarriak, albait lehen. c) Istripuaren kausak eta eragindako ondorioak, xehetasun guztiekin. d) Hartutako prebentzio- eta zuzentze-neurriak. e) Hala badagokio, emandako informazio eguneratua, ondorengo ikerketetan oinarrituta.	1254/1999 ED (14)	- SKS-ren protokoloa finkatu da.	- SKS-ren protokoloa.	5			
15	Enpresaburuak eskumeneko agintariekin batera egiten du lan, bere establezimenduan hasitako istripu larriren bat jasan lezaketenek hartu beharreko segurtasun-neurriei eta, istripua gertatuz gero, izan beharreko jokamoldeari buruzko informazioa jaso dezaten.	1254/1999 ED (13)	SKS-ren protokoloa finkatu da.	- SKS-ren protokoloa.	3			
16	Erregelamenduari jarraiki beharrezkoak diren informazio eta datuen jakinarazpena bidali behar die enpresaburuak, bere industria-establezimendua dagoen autonomia-erkidegoko eskumeneko agintariei.	1254/1999 ED (6)	- Jakinarazpen horretan 1254/1999 EDko II. Eranskinean azaldutako datuak jaso behar dira gutxienez. - SKS-ren protokoloa finkatu da.	- SKS-ren protokoloa.	1			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
17	Segurtasun-txostena idatzi eta agindutako epean bidali die enpresaburuak, bere industria-establezimendua dagoen autonomia-erkidegoko eskumeneko agintariei.	1254/1999 ED (9)	- Segurtasun-txostena nahitaezkoa da substantzia arriskutsuak 1254/1999 EDko I. Eranskineko 1. eta 2. zatietako 3. zutabean zehaztutako kopuruan edo kopuru handiagoan dauzkaten industria-establezimenduen kasuan.	- Segurtasun-txostena.	3			
18	Segurtasun-txostena aldiro-aldiro berrikusi eta, behar izanez gero, eguneratu egin behar du enpresaburuak, bere autonomia-erkidegoko eskumeneko organoari xehetasun guztiak jakinaraziz.	1254/1999 ED (9 eta 10)	- Establezimendua, instalazioa, biltegiratze-zona, jarduteko prozedura edo modua edo substantzia arriskutsuen ezaugarriak eta kantitatea aldatuz gero. - Bost urtean behin gutxienez, edozein unetan eskumeneko agintariek enpresaburuari eskatuz gero, eta datu berriak daudelako edo segurtasunari buruzko ezaguera teknikoak aintzat hartzeko behar den guztietan. - SKS jakinarazteko prozeduran alderdi horiek guztiak jasotzen dira.	- Segurtasun-txostena. - SKS-ren protokoloa.	3			
19	Instalazioetan aldaketarik gertatuz gero edo bolada baterako nahiz betiko itxiz gero, enpresaburuak berehala jakinarazi beharko dio hori industria-instalazioa dagoen autonomia-erkidegoko eskumeneko organoari.	1254/1999 ED (6)	- SKS-ren protokoloa finkatu da.	- SKS-ren protokoloa.	1			
20	Kanpoko Larrialdi Plana (KLP) prestatzeko behar duten informazio eta laguntza guztia eman die enpresaburuak autonomia-erkidegoko eskumeneko organoei.	1254/1999 ED (11)	- Segurtasun-txostena nahitaezkoa da substantzia arriskutsuak 1254/1999 EDko I. Eranskineko 1. eta 2. zatietako 3. zutabean zehaztutako kopuruan edo kopuru handiagoan dauzkaten industria-establezimenduen kasuan bakarrik bete behar da. - SKS-ren protokoloa (III. eranskina) finkatu da.	- SKS-ren protokoloa.	3			

C.7 ARRISKU ZEHATZARI BURUZKO GALDETEGIA BIBRAZIO MEKANIKOAK

GALDETEGI HONEN ERABILERA

Xedea

01311/2005 Errege Dekretuetan finkatutako lan-baldintzak betetzen direla egiaztatzea, lanean bibrazio mekanikoen eraginpean egoteak langileen osasun eta segurtasunerako sortu ditzakeen arriskuetatik babesteari dagokionez.

Esparrua

Errege Dekretu honetako xedapenak langileak beren lanaren ondorioz bibrazio mekanikoek eragindako arriskuen eraginpean egotea dakarten edo ekar lezaketen jardueretan bete beharko dira.

Definizioak

«Esku-beso sistemari igorritako bibrazioa»: bibrazio mekaniko hori gizakion esku-beso sistemara igortzean, langileen osasun eta segurtasunerako arriskuak sortzen ditu, hezur eta giltzaduretan eta nerbio eta giharretan bereziki.

«Gorputz osora igorritako bibrazioa»: bibrazio mekaniko hori gorputz osora igortzean, langileen osasun eta segurtasunerako arriskuak sortzen ditu, lunbagoa eta bizkarrezurreko lesioak bereziki.

Eskatu beharreko dokumentazioa

Galdetegi hau osatzeko ikuskaritza egitean, ikuskatzaileak irakurri behar dituen edo irakurtzea komeni zaion zenbait liburu jaso ditugu zerrenda honetan.

a) Egindako arrisku-ebaluazio eta -neurketak.
b) Emandako informazio eta prestakuntza.

Behin-behineko xedapena

Langileen esku 2007ko uztailaren 6a baino lehen jarri diren lan-ekipoak erabiliz gero, eta teknikan egondako aurrerapenei edo martxan jarritako antolaketa-neurriei jarraiki finkatutako eragin-mugak gainditzen badira halakoekin, 1311/2005 EDko 5.3. artikuluan zehaztutako betebeharrak ez dira bete beharko 2008ko uztailaren 6ra arte. Epe hori 2011ko uztailaren 6ra arte luzatzen da nekazaritzan eta basogintzan erabilitako ekipoen kasuan.

C.7. BIBRAZIO MEKANIKOAK

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Enpresaburuak langileek jasandako bibrazio mekanikoen maila ebaluatu eta, behar izanez gero, neurtu egin beharko du.	1311/2005 ED (4)	- Neurketa 1311/2005 EDko A.2 edo B.2 atalekin bat etorriz egin behar da. - Ebaluazioak eta neurketak finkatutako aldietan egin behar dira, eta LAPeko goi-mailako titulazioa higiene industrialeko espezialitatean duten teknikariek egin behar dituzte.	- Egindako arrisku-ebaluazio eta -neurketak.	3			
2	Enpresaburuak arriskuen ebaluazioa eguneratu eta berrikusi behar du.	1311/2005 ED (4)		- Enpresaburuak arriskuen ebaluazioa eguneratu eta berrikusi behar du.	3			
3	Bibrazioen eragina ezabatzeko edo murrizteko hartu beharreko neurriak eta langileei eman beharreko informazioa eta prestakuntza zehaztu eta halakoen plangintza prestatu behar du enpresaburuak.	1311/2005 ED (4)		- Bibrazio mekanikoen eragina ezabatu edo murrizteko neurriak. - Langileentzako informazio eta prestakuntza. - Plangintza.	3			
4	Bibrazio mekanikoak eta haiek eragindako arriskuak albait gehien murrizteko neurri teknikoak nahiz antolakuntza-mailako neurriak finkatu eta programatu ditu enpresaburuak.	1311/2005 ED (5)	- Horretarako, enpresaburuak alderdi hauek hartu ditu kontuan, bereziki: lan-ekipo egokia aukeratzea, bibrazioek eragindako lesioak jasateko arriskua murrizteko ekipo osagarriak banatzea, langileei zuzendutako mantentze, informazio eta prestakuntza alorreko programa egokiak, eraginaren iraupena eta bizitasuna murriztea, lan-denbora ondo antolatzea, etab.	- Neurri teknikoak eta antolakuntza-mailakoak jasotzen dituen programa.	3			
5	Lanlekuan bibrazio mekanikoek eragindako arriskuen eraginpean dauden langileek eta haien ordezkariek arrisku-ebaluazioaren emaitzen inguruko prestakuntza eta informazioa jasotzen dutela ziurtatu behar du enpresaburuak.	1311/2005 ED (6)	- Informazioa eta prestakuntza gai hauen inguruan: 1311/2005 EDri jarraiki, bibrazio mekanikoak eragindako arriskuak ezabatzeko edo albait gehien murrizteko hartutako neurriak; eraginaren gehienezko balioak ea neurriak hartzea dakarten balioak; egindako ebaluazio eta neurketen emaitzak eta erabilitako lan-ekipoak osasunean eragin litzakeen kalteak; osasunerako kalteak adierazten dituzten seinaleak hautemateko eta haien berri emateko modua eta halakoen egokitasuna; langileek osasun-zainketa jasotzeko eskubidea noiz daukaten; bibrazio mekanikoen eragina albait gehien murrizteko lan-ohitura seguruak.	- Emandako prestakuntza eta informazioa.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
6	Enpresaburuak langileei kontsultatu behar die 1311/2005 EDan jasotako alderdien inguruan.	1311/2005 ED (7)		- Egindako kontsulta eta parte-hartzeak.	3			
7	Langileen osasuna ondo eta arretaz zaindu behar du enpresaburuak.	1311/2005 ED (8)			3			
8	Kasu berezietan, osasun-zainketa indartua jasotzeko eskubidea dute langileek.	1311/2005 ED (8)	- 1311/2005 EDko 3.3. eta 5.4. artikuluetan zehaztutako kasuetan.		5			
9	Osasun-zainketan agerian gelditzen bada langileren batek gaixotasun edo gaitzen bat duela lanlekuan bibrazio mekanikoen eraginpean egotearen ondorioz, medikuak dagozkion jakinarazpenak egin beharko ditu.	1311/2005 ED (8)	- Langileari dagokion emaitza jakinarazi behar dio medikuak, eta jakinaren gainean jarri behar du enpresaburua.	- Egindako jakinarazpenak.	5			
10	Osasun-zainketan agerian gelditzen bada langileren batek gaixotasun edo gaitzen bat duela lanlekuan bibrazio mekanikoen eraginpean egotearen ondorioz, enpresaburuak dagozkion zuzenketak egin beharko ditu.	1311/2005 ED (8)	- Hau da enpresaburuak egin beharrekoa: arriskuen ebaluazioa berrikustea, arriskuak murriztu edo ezabatzeko finkatutako neurriak berrikustea, osasun-zainketaz arduratzen den medikuak egindako gomendioak aintzat hartzea, kaltetutako langilearen osasuna zaintzeko etengabeko kontrola finkatzea, antzeko eraginpean egon diren gainerako langileen osasun-egoera ikusteko azterketa agintzea.	- Enpresaburuak hartutako neurriak.	5			

C8 ARRISKU ZEHATZARI BURUZKO GALDETEGIA AMIANTOA

GALDETEGI HONEN ERABILERA

Xedea

396/2006 Errege Dekretuetan finkatutako lan-baldintzak betetzen direla egiaztatzea, langileen osasuna eta segurtasuna babesteari dagokionez

Esparrua

396/2006 EDko 3.1. artikuluari jarraiki, Errege Dekretu horretako xedapenak langileak amianto-zuntzen edo amiantoa duten materialen eraginpean egotea dakarten edo ekar lezaketen eragiketa eta jardueretan bete beharko dira. Kasu hauetan bereziki:

— Eraikinak botatzeko lanetan, halakoetan amiantoa edo amiantoa duten materialak egonez gero.
— Elementu, makinak edo tresnak desmuntatzeko lanetan, halakoetan amiantoa edo amiantoa duten materialak egonez gero.
— Ekipoetatik, unitateetatik (itsasontzi, ibilgailu, tren eta abarretatik, instalazioetatik, egituretatik eta eraikinetatik amiantoa edo amiantoa duten materialak kentzeko lan eta eragiketetan.
— Ekipoetan, unitateetan (itsasontzi, ibilgailu, tren eta abarretan, instalazioetan, egituretan edo eraikinetan amiantoa duten materialen konponketa- eta mantentze-lanetan.
— Gertu amiantozko materialak egonik amianto-zuntza askatzeko arriskua duten mantentze- eta konponketa-lanetan.
— Amiantoa duten hondakinak garraiatu, tratatu eta suntsitzeko lanetan.
— Amianto-hondakinak botatzeko zabortegi baimenduetan.
— Amiantoa duten materialak manipulatzen diren jarduera eta eragiketa guztietan, lanlekuan amianto-zuntza askatzeko arriskua baldin badago.

Aurrekoaz gain, hauxe dio 396/2006 EDko 3.2. artikulua: eragina langileek tarteka-marteka bakarrik jasaten badute, eragin hori txikia izanik, eta laneko giroaren ebaluazioaren emaitzen arabera lanlekuan egon daitekeen amianto-eraginaren muga-balioa gainditzen ez bada, 396/2006ko 11. (laneko planak), 16. (langileen osasunaren zainketa), 17. (amiantoari lotutako arriskuak dituzten enpresak Erregistroan inskribatzeko betebeharra) eta 18. artikuluak (datuak erregistratzea eta dokumentazioa gordetzea) ez dira bete beharko, jarduera hauetan arituz gero:

— Mantentze-lan labur eta etenetan, material ez-hauskorrekin bakarrik lan eginez gero.
— Material ez-hauskorrak hautsi gabe kentzeko lanetan.
— Amiantoa izanik ondo dauden materialak kapsulatu eta zigilatzeko lanetan, eragiketa horietan zuntzak askatzeko arriskurik ez badago.
— Airea zaindu eta kontrolatzeko lanetan eta material jakin batean amiantorik dagoen ikusteko laginak hartzean.

Definizioak

396/2006 EDri dagokionez, «amianto» hitzak ondorengo zuntz-silikatoak adierazten ditu, nazioartean onartutako Chemical Abstract Service (CAS) erakundeak zabaldutako substantzia kimikoen erregistroko identifikazioarekin bat etorriz:

— Aktinolita amiantoa, CASeko zk.: 77536-66-4.
— Grunerita amiantoa (amosita), CASeko zk.: 12172-73-5.
— Antofilita amiantoa, CASeko zk.: 77536-67-5.
— Krisotiloa, CASeko zk.: 12001-29-5.
— Krozidolita, CASeko zk.: 12001-28-4.
— Tremolita amiantoa, CASeko zk.: 77536-68-6.

Errege Dekretu honi dagokionez, hauek dira «*amianto- edo asbesto-zuntzak*»: materia horretako partikulak, edozein aldaeretan, neurri hauen barruan: luzera → 5 mikrometro edo gehiago, diametroa → 3 mikrometro edo gehiago eta luzeraren eta diametroaren arteko erlazioa → 3 baino handiagoa.

Eskatu beharreko dokumentazioa

Galdetegi hau osatzeko ikuskaritza egitean, ikuskatzaileak irakurri behar dituen edo irakurtzea komeni zaion zenbait liburu jaso ditugu zerrenda honetan.

a) Arriskuen ebaluazioa.
b) Prebentziorako neurri teknikoak.
c) Antolakuntza-neurriak.
d) Norbera babesteko ekipoak.
e) Higiene pertsonaleko neurriak.
f) Laneko planak.
g) Langileen trebakuntza.
h) Langileei buruzko informazioa.
i) Langileen osasunaren zainketa.
j) RERAn (amianto arriskua duten Espainiako enpresen erregistroa) erregistratzea.

Oharra

Laneko planak

1. Plan zehatza:

Errege Dekretu honen ezarpen-esparruan zehaztutako amiantoaren eraginpean arriskua duen edozein lan egiten hasi aurretik, enpresaburuak laneko plan bat osatu beharko du.

Plan horretan, alderdi hauek zehaztu behar dira:

a. amiantoa edo substantzia hori duten materialak ezabatzea eraispen-teknikak aplikatzen hasi aurretik, non eta ezabatzeko lan horrek ez dien langileei arrisku handiagoa sortzen amiantoa edo substantzia hori duten materialak bere horretan utziaz baino.
b. amiantoa kentzeko lanak eta eraispen-lanak amaitutakoan, lanlekuan amiantoaren eraginpean egoteak sortutako arriskurik ez dagoela ziurtatu beharra dago.

Laneko planean lanok egingo dituzten langileen osasuna eta segurtasuna bermatzeko behar diren neurriak finkatu beharko dira, Errege Dekretu honetan agindutakoari jarraiki.

Alderdi hauek zehaztu behar dira planean:

a. Egin beharreko lanaren deskribapena, egingo den jarduera zehatza aipatuz: eraisketa, materiala kentzea, mantentze-lanak edo konponketa-lanak, hondakinekin lan egitea, etab.
b. Zein materialekin lan egingo den, hauskorra den (amianto jaurtikia, kalorifugatuak, panel isolatzaileak, etab.) ala ez-hauskorra den (fibrozementua, binil-amiantoa, etab.) zehaztuz, eta, obran nola agertzen diren aipatuz. Zenbat amianto edo amiantoa duen zenbat material manipulatuko den zehaztu behar da, halaber.

c. Lanak zein lekutan egingo diren.
d. Lanak egiten hasteko eguna eta noiz arte luzatzeko asmoa dagoen.
e. Lanean zuzenean jardungo duten edo amiantoa ukitzen egongo diren langileen zerrenda, haien lanbide-maila, lanbidea, prestakuntza eta zehaztutako lanetan duten esperientzia zehaztuz.
f. Erabiliko diren prozedurak eta prozedura horiek egin beharreko lan zehatzera egokitzeko behar diren xehetasunak.
g. Amianto-zuntzak sortzea eta giroan askatzea galarazteko hartuko diren prebentzio-neurriak eta langileak amiantoaren eraginpean ahalik eta gutxien egoteko hartutako neurriak.
h. Langileak babesteko erabilitako neurriak, deskontaminatzeko unitateen ezaugarriak eta kopurua eta erabilitako NBE motak eta erabilera zehaztuz.
i. Lanak egiten diren lekuan eta han inguruan dauden gainerako pertsonak amiantoaren eraginpean ez egoteko hartutako neurriak.
j. Langileek jasaten dituzten arriskuen eta hartu beharreko prebentzio-neurrien berri emateko dauden bitartekoak.
k. Indarrean dauden legeekin bat etorriz hondakinak ezabatzeko neurriak, hondakinak kudeatuko dituen enpresa eta zein zabortegitara eramango diren zehaztuz.
l. Enpresak dituen prebentzio-baliabideak, kanpoan kontratatuta izanez gero, kontratatutako jarduerak zehaztuz.
m. Errege Dekretu honetan agindutakoari jarraiki, laneko giroa ebaluatu eta kontrolatzeko finkatutako prozedura.

2. Plan orokorra:

Plan orokorra ezusteko egoeretan edo larrialdietan aplikatu beharreko laneko palan da, halakoetan plan zehatz bat ez delako bideragarria edo egokia ez delako.

Plan orokorrarekin langileentzat eta beste pertsona batzuentzat arriskuak sortzen dituzten egoerak aurreikusi daitezke.

Plan orokor batean sartzen diren lanak baldintza hauek betetzen dituztenak izango dira bakarrik: iraupen laburra, agerpen irregularra eta aldez aurretik programatzerik ez egotea.

Iraupen laburra kontzeptua irizpide kuantitatiboekin baloratzea zaila da, kasu asko egon daitezkeelako. Horregatik, laburtasun hori erabakitzeko, alderdi hauek hartu behar dira kontuan: jarduera-mota zehatzean oinarritutako iritzi eta irizpide teknikoak, kasu bakoitzean dauden gorabehera bereziak eta eragina sortu duen amianto kantitatea. Berehalako erantzuna eskatzen duten kasuetan (larrialdietan eta istripuetan, adibidez) ez du zentzurik izango iraupen laburraren balorazio horrek.

Agerpen irregularra, berriz, kasu hauetan erabiltzen da: egindako lanaren xedea ez denean amiantoa duten materialetan esku hartzea, eta esku-hartze hori egin beharreko lanean material horiek ezustean agertzen direnean.

Plan orokor batean jaso daitezkeen lanen adibideak:

— Noiz egin behar diren aldez aurretik iragartzerik ez dauden mantentze- eta konponketa-lanak. Ondoko hauetan egindakoak, adibidez:

  • ur-hornidurako sareetan,
  • industria-instalazioetan,
  • ontzioletan, etab.

— Larrialdietan, azkar batean jardun behar dela eta, eraikinak amiantoa eta antzeko materialak kendu gabe bota behar direnean (11.1a artikuluan agindutakoari jarraiki).
— Beste lan batzuetan:

  • Iturginek, argiketariek nahiz igeltseroek egindako lanetan amianto kantitate txikiak kendu behar direnean.

- Eraikuntza-lanetan material ez-urrakorren (hodi-zatiak, xafla askeak, fibrozementuzko beste elementu batzuk…) kantitate txikiak kendu behar direnean.
- Fibrozementuzko zorrotenak kentzea, lan bertikaletan.
- Aire girotuko instalazio, segurtasun-soka eta antzekoetarako fibrozementuzko estalki eta parametroetan egin beharreko lanak.

Plan orokorrak laneko prozedura orokorretan oinarrituko dira, oro har, eta halakoetan zein materialetan aplikatuko den edo nola zehaztu beharko da, langileek jasandako eraginak askorik aldatuko ez direla ziurtatuz.

Hori dela eta, plan orokorra ondoren zehazten diren jardueretarako laneko plan egokiena ere bada:

— Erabiltzen ez den amiantoa duten material eta hondakinak bildu eta garraiatzea
— Zabortegietako lanak
— Amiantoa duten materialak identifikatzeko analisi eta saiakuntza
— Amiantoa duten materialak identifikatzeko azterketak eta laginak hartzea, amiantorik dagoen ikusteko
— 3.2. artikuluan aipatutako jarduerak eta airea zaindu eta kontrolatzekoak, halakoak laneko planetik kanpo gelditzeko baldintzak bete ez eta enpresa kontratistak egiten badituzte

10. artikuluan zehaztutako material hauskorrak mantendu eta konpontzeko lanetarako plan orokorretan, alderdi hauek zehaztu beharko dira:

— plana bete behar duten enpresen izena eta helbidea.
— jarduera-mota: eraisketa, materiala kentzea, mantentze-lanak edo konponketa-lanak, hondakinekin lan egitea, etab.
— Zein materialekin lan egingo den, hauskorra den (amianto jaurtikia, kalorifugatuak, panel isolatzaileak, etab.) ala ez-hauskorra den (fibrozementua, binil-amiantoa, etab.) zehaztuz, eta, obran nola agertzen diren aipatuz. Zenbat amianto edo amiantoa duen zenbat material manipulatuko den zehaztu behar da, halaber.
— Lanak egiten hasteko eguna eta noiz arte luzatzeko asmoa dagoen.

Plan horietan proposatutako prozeduren saiakuntzak egitea komeni da. Horretarako, simulazio kontrolatuak egin behar dira, ezarpen-tarteko muturrek baldintzak edo, bestela, baldintzarik txarrenak simulatuz. Beste neurri hauetarako ere erabili daitezke simulazio horiek: laneko prozedura eta tresnen saiakuntzak egiteko, airean dauden zuntz-kontzentrazioak neurtzeko, arriskuen ebaluazioa egiteko eta langileak prestatu eta trebatzeko.

Plan orokorrak 11.2. artikuluan agindutakoa bete beharko du. Aldez aurretik zehaztu ezineko baldintza errealei buruzko datuak ezin dira hasierako dokumentuan jaso. Hala, egiten den eskuhartze bakoitzari buruz biltzen ditugun datu horiek ezagutzen direnean jakinaraziko dira.

Horretarako, jakinarazpen bat bidaliko zaio lan-arloko eskumeneko agintaritzari, hark erabakitako epe eta moduan.

12. eta 18. artikuluetan zehaztutako moduan bideratuko da plana eta bidali behar dira datuak.

Plan orokorraren edukia

Plan orokorrean 11.2. artikuluan agindutakoa bete beharko da, plan hori aurkezteko, geroagoko jakinarazpen batean zehaztuko diren aplikazio zehatzari buruzko datuen kasuan izan ezik.

Plana, prestatu duen enpresaren instalazio nagusiak dauden autonomia-erkidegoko lan-arloko eskumeneko agintariei aurkeztu behar zaizkie, haien onespena eskuratzeko.

Lanak egitekoak diren lekuko lan-arloko eskumeneko agintariei lanak noiz hastekoak diren jakinarazi behar die enpresak, lana egiten hasi baino bi lanegun lehenago, gutxienez. Larrialdiko egoeretan, jakinarazpen hori lehenbailehen egin beharko da.

Amiantoarekin egindako lanak oso maiz egiten badira (ur-hornidurako sarean egin beharreko konponketak, zabortegietan egin beharreko lanak, garraioa, laginak hartzea…), hasierako jakinarazpenen ordez, egindako eragiketen erregistro bat osatu beharko da, eta erregistro hori lan-arloko agintarien esku utziko da.

Jakinarazpenean datu hauek jaso beharko dira:

— Lana egiten duten langileen zerrenda, 11.2.e artikuluan zehaztutako datu berriekin edo aldaketekin. Trebakuntzaren ziurtagiria eta osasun-gaitasuna ere erantsi behar dira, plan orokorrean jaso ez badira.
— Lanean erabiliko diren amiantodun materialen deskribapen zehatza. Amiantoa duen edo izan lezakeen manipulatu beharreko elementu bakoitzaren kokapenaren krokisa. Informazioa zehazten laguntzen duten argazkiak, eskemak edo bestelako laguntza grafikoak.
— Obra edo lanlekuaren kokapenaren plano zehatza.
— Plan orokorra onartzeko ebazpenaren kopia.
— Egitekoa den eragiketa bakoitzean erabiliko den laneko prozedura zehatz eta indibidualizatua, planean zehaztutakoarekin bat etorriz.

Laneko plan orokorra onartzeko ebazpenean zehaztuko da lanak egiten hasteko asmoa faxez jakinarazi beharra dagoela, egin beharreko lanak zehaztuz bertan.

CAE oharra

Agerpen irregularra duten iraupen laburreko eragiketak

Jarraibide modura, ondorengo baldintzak (gehienezkoak) aldi berean betetzen dituzten lanak iraupen laburreko lantzat hartu ditzakegu:

— Lanaldi 1.
— 4 ordu langile bakoitzeko.
— Egin beharreko lanaren iraupen osoa: 16 ordu (langile guztien lanordu guztiak batuta)

Kausa berari buruz hurrenez hurren zenbait jakinarazpen jasoz gero edo lanleku eta helbide bereko zenbait jakinarazpen jasoz gero, kontu handiz ibili behar dugu adierazle hori aplikatzeko garaian, egoera irregularrak hautematearren.

Aldez aurretik programatu ezin diren eragiketak

Matxura, larrialdi edo aldez aurretik programatu ezineko beste gorabehera batzuen ondorioz egin beharreko eragiketak dira halakoak.

Konponketa-lanak eta larrialdiak izaten dira gehienak, fabrika handi batek su hartu ondoren kiskalitako hondakinak kentzeko lanak, adibidez, edozein iraupen dutela ere.

Plan orokorretan beste lan hauek sartu daitezke, halaber: hondakinak garraiatzea, hondakinetako eta bitarteko biltegiratze-zentroetako lana, teknikari gaituek laginak hartzea amiantoa duten materialak identifikatzeko.

C.8. AMIANTOA

Zk.	Baldintzak	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Enpresaburuak ziurtatu behar du langileek ez dutela ondorengo amianto-kontzentrazioak muga-balio honen azpitik egon behar du: 0,1 zuntz cm^3-ko, zortzi orduko aldi bateko batez besteko haztatu moduan neurtua.	396/2007 (4) ED		- Egindako neurketak.	5			
2	Lan-giroa ebaluatu eta kontrolatu behar du enpresaburuak.	396/2006 (5) ED	- Lanlekuko airean dauden amianto-zuntzen kontzentrazioa neurtu eta giroko muga-balioarekin (muga-balio honen azpitik egon behar du: 0,1 zuntz cm^3-ko, zortzi orduko aldi bateko batez besteko haztatu moduan neurtua) alderatzen da, langileek jasaten duten eraginaren ezaugarriak eta maila zein den jakiteko. - Ebaluazioa egin eta gero jarduera egiteko prozedura aldatu beharra dagoela ikusten bada, beste neurketa bat egingo da prozedura berria martxan jarri eta gero. - Ebaluazioaren emaitzen ondorioz behar den guztietan, lan-baldintzen kontrola egin beharko du enpresaburuak, goian zehaztutako muga-balioa gainditzen ez dela ziurtatzearren. - Ebaluazioak aldiro-aldiro errepikatu behar dira. - Goi-mailako titulazioa higiene industrialeko espezialitatean duten teknikariek egin behar dituzte ebaluazioak, eta laginak hartu eta aztertzeko 396/2006 EDko I. Eranskinean finkatutako baldintzak bete behar dira. - Amiantoa laborategi espezializatuetan aztertu behar da.	-Arriskuen ebaluazioa. - Egindako neurketak. - Neurketak egin dituzten langileen kualifikazioak. - Laginak hartzeko prozedura. - Azterketa egin duen laborategia.	3			

Zk.	Baldintzak	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
3	3.1. artikuluarekin zerikusia duten jarduera guztietan, amiantotik datozen zuntzen edo amiantoa duten materialen eraginpean dauden langileek jasandako eraginak muga-balio honen azpitik egon behar du: 0,1 zuntz cm^3-ko, zortzi orduko aldi bateko batez besteko haztatu moduan neurtua.	396/2006 (6) ED	- Hori lortzeko, neurri hauek hartu behar ditu enpresaburuak: a) amianto-zuntzik sortzen ez duten edo airean halako zuntzik askatzen ez duten lan-prozedurak erabili (ez erabili amiantoa duten materialak haustea edo zatikatzea edo eta materialak hezetzea eragiten duen prozedurarik; hori saihesteko hobe da esku-tresnak erabiltzea edo tresnak abiadura motelean jartzea). b) Sortutako amianto-zuntzak iturritik gertu ezabatu (eraginkortasun handiko partikula-iragazkiak erabili, sortutako hondakinak etengabe garbitu eta bildu, ez egin airean esekita dauden zuntzak mugiarazten edo nahasten dituen putz-egite, jaurtiketa edo mugimendu bortitzik). c) erabilitako lokal eta ekipo guztiak maiz eta ondo garbitu eta mantentzeko moduan daude (lan-eremua ondo prestatu behar da aurretik, elementu mugikorrak kenduz eta kentzerik ez daudenak isolatuz, lurra material plastikoarekin estaliz, hondakinak biltzeko; debekatuta dago errazketa edo xurgaketa normalak egitea, garbiketa hezea edo lehorra egin behar da eraginkortasun handiko partikula-iragazkiak dituzten xurgagailuak erabiliz). d) amiantoa edo amianto-zuntzak askatzen edo dauzkaten materialak ontzi itxietan bildu eta garraiatu behar dira, barruan amiantoa dagoela dioten arauzko etiketak jarriaz. e) hondakinak pilatu eta lehenbailehen atera behar dira lanlekutik, ontzi itxi egokietan, barruan amiantoa dagoela dioen etiketekin.	- Aplikatutako neurri teknikoak.	3			

Zk.	Baldintzak	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
4	Enpresaburuak beharrezko antolakuntza-neurriak hartu behar ditu 3.1. artikuluan zehaztutako jarduera guztietan.	396/2006 (7) ED	- Helburu hauek lortzeko antolakuntza-neurriak: a) amianto-zuntzen edo amiantoa duten materialen eraginpean dauden edo egon litezkeen langileen kopurua ahalik eta txikiena izatea. b) amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten langileek aparteko ordurik ez sartzea, ahalegin bereziak edo, jarrera behartuak eskatzen duten lanpostuetan ez egotea, ohi baino aire gehiago arnastea eragiten duten giro beroetan ez jardutea. c) eguneko muga-balioa gainditzen denean (,1 zuntz cm^3-ko, zortzi orduko aldi bateko batez besteko haztatu moduan neurtua) hori eragin duten kausak ikertu eta egoera konpontzeko neurri egokiak hartu behar dira. d) jarduera horiek egiten diren lokalak ondo mugatuta eta seinaleztatuta daude; beren lan edo eginkizunengatik, bertan jardun behar dutenek bakarrik daukate sartzea bertan; debekatuta dago bertan jatea, edatea eta erretzea.	- Hartutako antolakuntza-neurriak.	3			
5	Arnasbideak babesteko NBEak daude eskuragarri.	396/2006 (8) ED	- Arnasbideak babesteko NBE egokiak daude eskuragarri, eguneko muga-balioa gainditzen ez denean ere (,1 zuntz cm^3-ko, zortzi orduko aldi bateko batez besteko haztatu moduan neurtua). - Halakoak ez dira egunean lau ordu baino gehiago erabiltzen.	- Arnasbideak babesteko NBEak.	3			
6	3.1. artikuluarekin zerikusia duten jarduera guztietan, higiene pertsonaleko eta norbera babesteko neurriak betetzen ditu enpresaburuak.	396/2006 (9) ED	- Osasun-instalazio egokiak daude, babes-jantziak, arropa gordetzeko instalazioak, babes-ekipoak gordetzeko leku berezi bat, etab. - Laneko arropak garbitzeaz eta deskontaminatzeaz arduratzen da enpresaburua.		3			

Zk.	Baldintzak	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
7	Airean dagoen amiantoa mugatzeko prebentzio-teknikak erabili arren, muga-balioa (0,1 zuntz cm^3-ko, zortzi orduko aldi bateko batez besteko haztatu moduan neurtua) gainditu lezaketen jarduerak (eraisketa, amiantoa kentzea, mantentze-lanak edo konponketa-lanak) egitean, jarduera horietan langileak babesteko neurriak jarri behar ditu enpresaburuak.	396/2006 (10) ED	- Enpresaburuak hartu beharreko neurri batzuk: a) NBE egokiak jasotzea. b) ohar-panelak jartzea. c) amiantotik edo amiantoa duten materialetatik datorren hautsa lanlekuetatik edo jarduera-lekuetatik kanpo zabaltzea eragoztea. d) lan-prozedurak eta aurreikusitako prebentzio-neurriak ondo aplikatzen direla ziurtatzea, LAPen prestakuntza (gutxienez oinarrizko mailan) eta halako jardueretan beharrezko ezaguera, kualifikazioa eta esperientzia duten teknikariek gidatuta.	- NBEen zerrenda. - Ohar-panelak. - Lan-prozedurak - Aurreikusitako prebentzio-neurriak. - Lanak ikuskatzeko ardura duen pertsonaren kualifikazioa.	3			
8	Eraispen- edo mantentze-lanak egiten hasi aurretik, amiantoa izan lezaketen materialak identifikatzeko neurri guztiak hartu behar ditu enpresaburuak.	396/2006 (10) ED	- Identifikazio hori 1627/1997 EDan aipatzen den osasun eta segurtasuneko oinarrizko azterketan edo osasun eta segurtasuneko azterketan jaso behar da.	- Osasun eta segurtasuneko oinarrizko azterketa edo osasun eta segurtasuneko azterketa.	3			
9	Amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanak egiten hasi aurretik, laneko plan bat prestatu behar du enpresaburuak.	396/2006 (11, 12) ED	- Laneko planean alderdi hauek zehaztu behar dira: egin beharreko lanaren deskribapena, erabiliko den material-mota, lanlekuaren kokapena, lana noiz den hastekoa eta zenbat iraungo duen, lan egingo duten langileen izen-abizenak, erabiliko diren prozedurak, prebentzio-neurriak, langileak babesteko erabiliko diren ekipoak, beste pertsona batzuk eraginpean egotea galarazteko hartutako neurriak, langileei informazioa emateko neurriak, hondakinak ezabatzeko neurriak, enpresaren prebentzio-baliabideak, lan-giroa ebaluatu eta kontrolatzeko prozedura. - Iraupen laburra eta agerpen irregularra duten eta aldez aurretik programatu ezin diren jardueretan, lan bakoitzeko plan bana aurkeztu beharrean, plan orokor bakarra aurkeztea dago, egin behar diren jarduera guztien xehetasunak jasoaz bertan, lanak egitean aintzat hartu beharreko zehaztapenekin batera (ikus oharrak). - Laneko planak lantokia dagoen lan-arloko agintaritzaren onespena jaso behar du. - 3.2. artikuluan zehaztutako kasuetan ez da bete behar.	- Laneko plana. - Lan-arloko agintaritzak planari emandako onespena.	5			

Zk.	Baldintzak	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
10	Amiantoa duten hautsen eraginpean dauden edo egon litezkeen langile guztientzako trebakuntza egokia ziurtatzen du enpresaburuak.	396/2006 (13) ED	- Trebakuntza hori amiantoa duten jarduerak edo eragiketak egiten hasi aurretik eman behar da, bai eta langileek egindako jardueretan aldaketarik egon edo lan-ekipoak aldatu nahiz teknologia berriak erabiltzen hasiz gero ere, eta aldiro-aldiro errepikatu beharko da.	- Langileei emandako trebakuntza.	3			
11	Langileek eta haien ordezkariek informazio zabala eta xehea jasotzen dutela ziurtatzeko behar diren neurriak hartu behar ditu enpresaburuak, 3.1. artikuluan zehaztutako jarduera guztietan.	396/2006 (14) ED	- Informazio horretan datu hauek zehaztu behar dira: osasunerako egon litezkeen arriskuak, 396/2006 EDan jasotako xedapenak, langileek hartu beharreko higiene-neurriak eta enpresaburuak horretarako jartzen dituen bitartekoak, erretzeko ohiturak dakartzan arriskuak, NBEak nola erabili eta zaindu behar diren, amiantoaren eragina ahalik eta gehien murrizteko bestelako neurri bereziei buruzko informazio osagarria. - Lan-giroaren ebaluazio eta kontrolen emaitzen berri eman behar da, eta berariazko osasun-zainketaren emaitzen berri ere bai, baina izenik eman gabe. - 396/2006 EDko 4. artikuluan finkatutako muga-balioa gainditzen denean jakinarazi egin behar da. - Laneko planen kopia bana ematen dio DP bakoitzari.	- Langileei eta haien ordezkariei emandako informazioa.	3			
12	Enpresaburuak langileei kontsultatu behar die 1311/2005 EDan jasotako alderdien inguruan.	396/2006 (15) ED		- Egindako kontsultak.	3			
13	Langileen osasuna eta arretaz zaindu behar du enpresaburuak.	396/2006 (16) ED	- Osasun-zainketa lanak egin aurretik egin behar da eta gero aldiro-aldiro (zehaztutako jardun eta protokolo bereziei jarraiki). - 3.2. artikuluan zehaztutako kasuetan ez da bete behar.	- Langileen osasunaren zainketa.	5			
14	Enpresa RERAn inskribatuta egon behar du.	396/2006 (17) ED	- Amianto-arriskua duten enpresen erregistroko fitxa betea du enpresak (396/2007 EDko III. Eranskina). - 3.2. artikuluan zehaztutako kasuetan ez da bete behar	- Enpresa RERAn erregistratuta egotea.	3			

Zk.	Baldintzak	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
15	Enpresak artxibo batzuk dauzka dagokion dokumentazioarekin eta aldiro-aldiro eguneratzen ditu.	396/2006 (18) ED	- Dokumentazioan agiri hauek daude: RERAn izena emateko aurkeztutako orria, onartutako laneko planak, amiantoarekin egiten diren lanetan egondako eraginen ebaluazioko datuak erregistratzeko fitxak (396/2006 EDko IV. eranskina), langileen berariazko osasun-zainketari buruzko datuak erregistratzeko fitxak (396/2006 EDko V. eranskina). - 3.2. artikuluan zehaztutako kasuetan ez da bete behar	- Dokumentazioa.	3			
16	Amiantoarekin egiten diren lanetan egondako eraginen ebaluazioko datuak erregistratzeko fitxak lan-arloko agintaritzari bidaltzen ditu enpresak, planak araututako lanak amaitutakoan.	396/2006 (18) ED	- 3.2. artikuluan zehaztutako kasuetan ez da bete behar	- Lan-arloko agintaritzari egindako bidalketak.	1			
17	Langileen berariazko osasun-zainketari buruzko datuak erregistratzeko fitxak osasun-arloko agintaritzari bidali behar zaizkio.	396/2006 (18) ED	- 3.2. artikuluan zehaztutako kasuetan ez da bete behar	- Osasun-arloko agintaritzari egindako bidalketak.	3			
18	Ingurumen-ebaluazio eta -kontroleko datuak, langileen eraginari buruzko datuak eta langileei egindako berariazko zainketari buruzko datuak eragina bukatu eta 40 urtean gorde behar dira gutxienez.	396/2006 (18) ED			1			

C.9 ARRISKU ZEHATZARI BURUZKO GALDETEGIA ATMOSFERA LEHERKORRAK

GALDETEGI HONEN ERABILERA

Xedea

681/2003 Errege Dekretuan finkatutako lan-baldintzak betetzen direla egiaztatzea, langileak lanean atmosfera leherkorren eraginpean egoteak dakartzan arriskuetatik babesteari dagokionez

Esparrua

Errege Dekretu honetako xedapenak langileak beren lanaren ondorioz atmosfera leherkorrek arriskuen eraginpean egotea dakarten edo ekar lezaketen jardueretan bete beharko dira.

Salbuespenak

Errege Dekretu honetako xedapenak ez dira bete behar ondorengo kasu hauetan:

a) gaixoei osasun-tratamendua emateko erabiltzen diren eremuak, tratamendu horrek irauten duen bitartean.
b) gas-aparatuak erregelamenduan agindutako moduan erabiltzen direnean, haiei buruzko berariazko araudiarekin bat etorriz.
c) lehergaiak eta kimikoki ezegonkorrak diren substantziak fabrikatu, manipulatu, erabili, biltegiratu eta garraiatzean.
d) Zundaketa bidezko erauzte-industrietan eta zeru zabaleko nahiz lurpeko erauzte-industrietan, haiei buruzko berariazko araudiarekin bat etorriz.
e) Lurreko, itsasoko nahiz aireko garraiobideak erabiltzean, halakoetan nazioarteko hitzarmenak bete behar baitira, hitzarmenotan jasotako araudi zehatzekin batera. Atmosfera potentzialki leherkor batean erabiltzeko diseinatutako garraiobideak ez dira ED honetatik kanpo gelditzen.

Definizioak

Atmosfera leherkorrak: gas, lurrun, laino edo hauts forman dauden substantzia sukoiak airearekin nahasten direnean sortzen den nahasketa, guztia ere baldintza atmosferikoetan, eta sua piztu ondoren, errekuntza erre gabeko nahasketa osora zabaltzen denean.

Eskatu beharreko dokumentazioa

Galdetegi hau osatzeko ikuskaritza egitean, ikuskatzaileak irakurri behar dituen edo irakurtzea komeni zaion zenbait liburu jaso ditugu zerrenda honetan.

a) Arriskuen ebaluazioa.
b) Leherketen aurka babesteko dokumentua.
c) Arrisku-eremuen sailkapena.

Xedapen osagarria

Atmosfera leherkorrak sortu daitezkeen lekuetan erabiltzekoak diren lan-ekipoak, dagoeneko erabiliak badira edo enpresa baten lehen aldiz erabiltzeko 2003ko ekainaren 30a baino lehenago jarri baldin badira, data horretatik aurrera bete beharko dute II. Eranskineko A) atalak dioena, 681/2003 Errege Dekretuko 1.2 artikuluak agintzen duena bete behar izanik, halaber.

681/2003 Errege Dekretuko II. eranskineko B) atala ez da bete behar xedapen osagarri honetako 1. atalean aipatutako lan-ekipoetan.

Behin-behineko xedapena

Atmosfera leherkorrak sortu litezkeen eremuak dituzten lanlekuetan eremu horiek 2003ko ekainaren 30a baino lehenago erabili badira, hiru urteko epea izango dute 681/2003 Errege Dekretu honetan jasotako gutxieneko baldintzak betetzeko.

Aurreko atalean aipatutako hiru urteko epe hori ez da aplikatzekoa atmosfera leherkorrak sortu litezkeen eremuak dituzten lanlekuetan 2003ko ekainaren 30a eta gero egindako aldaketa, zabalkuntza edo eraldakuntzetan, halakoek 681/2003 Errege Dekretu honetako xedapenak bete behar baitituzte indarrean sartzen denetik bertatik.

C.9. ATMOSFERA LEHERKORRAK

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
1	Egindako jarduera-motaren arabera behar diren antolakuntza-neurriak eta neurri teknikoak hartu behar ditu enpresaburuak.	681/2003 ED (3)	- Atmosfera leherkorrak sortzea galarazten du enpresaburuak edo, jardueraren ezaugarrien ondorioz hori galarazterik ez bada, atmosfera leherkorrek su hartzea galarazi eta leherketen ondorio kaltegarriak murrizten ditu, langileen osasuna eta segurtasuna bermatzeko moduan.	- Arriskuen ebaluazioa eta hartutako neurriak.	3			
2	Aurreko neurriez gain leherketak zabaltzea galarazteko neurriak hartu behar ditu enpresaburuak.	RD 681/2003 (3)			3			
3	Hartutako neurriak aldiro-aldiro berrikusi behar ditu enpresaburuak.	681/2003 ED (3)	- Aldiro-aldiro berrikusten ditu, eta aldaketa esanguratsuak dauden aldioro.	- Egindako berrikusketak.	3			
4	Atmosfera leherkorrek eragindako arrisku zehatzak ebaluatu behar ditu enpresaburuak.	681/2003 ED (4)	- Ebaluazioan hau hartu behar da kontuan: atmosfera leherkorrak sortzeko probabilitatea eta izango luketen iraupena; su-fokuak egoteko eta pizteko probabilitatea, deskarga elektrostatikoak barne hartuta; instalazioak, erabilitako substantziak, industria-prozesuak eta izan litzaketen elkarreraginak; aurreikustekoak diren ondorioen hedadura. - Ebaluazioan kontuan hartu behar dira, irekiguneen bidez, atmosfera leherkorrak sortu daitezkeen lekuekin erlazioan dauden edo egon litezkeen lekuak.	- Arriskuen ebaluazioa.	3			
5	Langileen osasun eta segurtasuna babesteko beharrezko neurriak hartu behar ditu enpresaburuak.	681/2003 ED (5)	- Enpresaburuak neurriak hartu behar ditu langileen eta beste pertsona batzuen osasun eta segurtasuna arriskuan jartzerainoko atmosfera leherkorrak sortu daitezkeen lanlekuetan, helburu hauek lortzeko: a) lan-giroa lana seguru egiteko modukoa dela. b) neurri tekniko egokiak erabiliz, eta arriskuen ebaluazioari jarraiki giro horien ikuskapen egokia egiten dela ziurtatzea, langileak bertan diren bitartean.	- Hartutako laneko osasun eta segurtasun neurriak.	3			

Zk.	Baldintza	Erref.	Interpretatzeko irizpidea	Ebidentzia objetiboak	B	Betearazpena		
						B	E	EA
6	Enpresako jarduerak koordinatzeko bitarteko egokiak finkatu behar ditu enpresaburuak.	681/2003 ED (6)	- Leherketen aurka babesteko dokumentuan enpresako jarduerak koordinatzeko hartutako neurriak, koordinazio horren xedea eta koordinazioa nola gauzatuko den azaldu behar du enpresaburuak.	- Leherketen aurka babesteko dokumentua.	3			
7	Atmosfera leherkorrak sortu daitezkeen zonak eta eremuak sailkatuta eduki behar ditu enpresaburuak.	681/2003 ED (7, I. eranskina)	- Zona eremuka sailkatu behar ditu enpresaburuak, atmosfera leherkorrak zenbateko maiztasunarekin gertatzen diren eta izaten duten iraupena kontuan izanik.	- Arrisku-eremuen sailkapena.	3			
8	Atmosfera leherkorrak sortu daitezkeen eremuetan, atmosfera horien eraginpean egon litezkeen langileen segurtasuna hobetu eta osasuna babesteko gutxieneko xedapenak bete behar ditu enpresaburuak.	681/2003 ED (7, II. eranskina)	- Hauek dira gutxieneko xedapenak: antolakuntza-neurriak (langileei zuzendutako prestakuntza eta informazioa, idatziz emandako jarraibideak eta laneko baimenak); leherketen aurka babesteko neurriak.		3			
9	Atmosfera leherkorrak sortu daitezkeen eremuetan, babesaparatu eta -sistemak aukeratzeko irizpide batzuk finkatu behar ditu enpresaburuak.	681/2003 ED (7, II. eranskina)			3			
10	Langileen osasun eta segurtasunerako arriskutsuak izaterainoko atmosfera leherkorrak sortu daitezkeen eremuetarako sarbideak ondo seinaleztatu behar dira.	681/2003 ED (7, III. eranskina)		- Atmosfera leherkorrak sortzeko arriskua duten zonak seinaleztatzea.	3			
11	Leherketen aurka babesteko dokumentu bat prestatu behar du enpresaburuak.	681/2003 ED (8)	- Leherketen aurka babesteko dokumentu horretan hau zehaztu behar da: lehertzeko arriskuaren zehaztapen eta ebaluazioa, 681/2003 EDko helburuak lortzeko neurri egokiak, zonak zein eremutan sailkatu diren, 681/2003 EDko II. eranskineko gutxieneko xedapenak zein eremutan beteko diren, lanlekua eta lan-ekipoak behar bezala diseinatuta egotea eta erabiltzea, 1215/1997 EDan agindutako neurriak hartu direla lan-ekipoak baldintza seguruetan erabiltzeko.	- Leherketen aurka babesteko dokumentua.	1			
12	Leherketen aurka babesteko dokumentua eguneratuta eduki behar du enpresaburuak.	681/2003 ED (8)	- Lanlekuan, lan-ekipoetan edo lanaren antolakuntzan aldaketa, zabalkuntza edo eraldakuntza sakonak egiten diren guztietan berrikusi egin behar da dokumentu hori.	- Leherketen aurka babesteko dokumentua.	1			

Galdetegi laburtuak

Oinarrizko galdetegia

1. Enpresaren identifikazioa

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Ondo identifikatuta egon behar du enpresak.	1			
2	Dauzkan lanlekuen kopurua eta ezaugarriak adierazi behar ditu enpresak.	3			
3	Bere jarduera zein den adierazi eta ekoizpen-prozesuaren fluxu-diagrama aurkeztu behar du enpresak.	3			
4	Ekoizpenaren prozesu teknikoak identifikatu behar ditu enpresak.	3			
5	Langileen kopurua eta ezaugarriak adierazi behar ditu enpresak.	3			
6	Bereziki sentsibleak diren langileak identifikatuta izan behar ditu enpresak.	5			

2. Antolamenduaren egitura.
(Kontsulta eta parte-hartzea. Informazioa)

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Antolakuntza-egitura bat zehaztuta izan behar du enpresak. Egitura horretako hierarkia-maila bakoitzak dituen zeregin eta erantzukizunak identifikatuta eta haien arteko komunikazio-bideak zehaztuta egon behar dute bertan.	3			
2	Enpresan lana planifikatu eta antolatzeko eta teknologia berriak sartzeko erabakirik hartu aurretik, langileei kontsultatu behar die enpresaburuak.	3			
3	Osasuna babesteko eta prebentzio-alorreko jarduerak antolatu eta egiteko erabakirik hartu aurretik (langileak izendatzea edo kanpoko prebentzio-zerbitzu bat kontratatzea, adibidez), langileei kontsulatu behar die enpresaburuak.	3			
4	Larrialdi-neurriez arduratzeko inor izendatu aurretik, langileei kontsulatu behar die enpresaburuak.	3			
5	Informazioa eta dokumentazioa zabaltzeko prozedurei buruzko erabakirik hartu aurretik, langileei kontsulatu behar die enpresaburuak	3			
6	Trebakuntza prestatu eta antolatzeko erabakirik hartu aurretik, langileei kontsulatu behar die enpresaburuak.	3			
7	LAPLko alderdi zehatzei jarraiki, langileen osasun eta segurtasunean eragin sakona izan dezakeen edozein ekintzari buruzko erabakirik hartu aurretik, langileei kontsulatu behar die enpresaburuak.	3			
8	Prebentzio-ordezkarien kopuruak bat etorri behar du LAPLn finkatutako eskalarekin. Ordezkari horien langileen ordezkarien artean aukeratu behar dituzte ordezkariek beraiek.	3			
9	Ordezkariei beren eskumenak betetzen utzi behar die enpresak.	3			
10	Prebentzio-ordezkariak proposatutako prebentzio-neurriren bat hartzeari ezetz esanez gero, erabaki hori justifikatu egin beharko du enpresaburuak.	3			
	50 LANGILETIK GORAKO ENPRESAK				
11	Osasun eta Segurtasun Batzordea izan behar du enpresak.	3			
12	Batzordeak bilerak egin eta bere eskumenak bete behar ditu.	3			
	ENPRESA GUZTIAK				
13	Aldi baterako kontratatutako edo ABLE baten bidez kontratatutako langileak lanean hastekoak direla jakinarazi behar die enpresaburuak prebentzio-ordezkariei eta izendatutako langileei edo Prebentzio Zerbitzuari.	3			
14	Laneko gaixotasunei edo laneko istripuei buruzko adierazpen elektronikoa betea izan behar du enpresak.	1			
15	Istripu-parteak garaiz eta behar bezala bete behar dira.	1			
16	Langileek osasun eta segurtasunerako arriskuei eta hartu beharreko babes- eta prebentzio-neurriei buruzko informazioa jasotzeko behar diren neurriak hartu behar ditu enpresaburuak, ondoko atalei dagokienez: a) enpresa. b) langilearen lanpostu edo zeregin berezia. c) larrialdi-neurriak.	3			
17	Langileek osasun eta segurtasunerako arriskuei eta hartu beharreko babes- eta prebentzio-neurriei buruzko informazioa jasotzeko behar diren neurriak hartu behar ditu enpresaburuak, laneko arriskuen prebentzioko gaiei dagokienez, prebentzio hori garatzen duten errege-dekretuetan oinarrituz.	3			
18	Erregelamenduzko ikuskaritzako txostena langileen ordezkarien esku jarri behar du enpresaburuak.	1			

Zk.	Baldintza		B	Betearazpena		
				B	E	EA
19	Estatuko Administrazio Orokorrak ikuskaritzaren kopia bana eman behar die langileen ordezkariei.		1			
20	Estatuko Administrazio Orokorrean, Segurtasun eta Osasunerako Batzordeak LAPen egoeraren berri eman behar dio aldiro-aldiro Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari.		3			
21	Ondoren zehaztutako agiriak osatu eta gorde behar ditu enpresaburuak, lan- eta osasun-arloko agintariei emateko prest:	LAP plana.	3			
		Arriskuen ebaluazioa.				
		Prebentzio-neurrien plangintza.				
		Hartutako prebentzio- eta babes-neurriak, babesteko materiala barne.				
		Lan-baldintzei eta langileen jarduerari buruzko aldiroko kontrolen emaitzak.				
		Langileen osasun-egoerari buruzko kontrolak.				
		Gutxienez egun bateko baja eragin duten laneko istripu eta gaixotasunen zerrenda.				
22	Bajarik eragin ez duten istripu eta gaixotasunen zerrenda osatu eta gorde behar du enpresaburuak, lan- eta osasun-arloko agintariei emateko prest.		3			
23	Erregelamenduzko ikuskaritzako txostena osatu eta gorde behar du enpresaburuak, lan- eta osasun-arloko agintariei emateko prest.		3			
24	Erregelamenduzko inprimakiak bete eta OSALANera bidali behar ditu enpresak.		1			
25	Izendatutako prebentzio-ordezkarien izena jakinarazi behar zaie lan-arloko agintariei.		1			
26	Prebentzio Zerbitzuko osasun-zerbitzuak xehetasun hauek bidali behar dizkie kaltetutako langileen osasuna zaintzeaz arduratzen diren zerbitzuei: diagnostikoari buruzko txostena, xehetasun guztiekin; laneko harremana amaitu ondoren ere langilearen osasun zaintzen jarraitzea beharrezko egiten duen kausa, laneko historial klinikoaren barruan.		3			
27	Kontratu-harremana amaitzean, laneko historia klinikoaren kopia bana eman behar zaie langileei, orrien eta folioen zenbakiak jarrita.		1			
28	Laneko arriskuen prebentzioari buruzko ikuskaritza egin izana jakinarazi behar die enpresak lan-arloko agintariei.		1			
29	Bere jarduera etetean, LAPLko 23. artikuluan zehaztutako dokumentazioa lan-arloko agintariei bidaltzeko prozedura bat izan behar du enpresak.		1			
30	La empresa no cede temporalmente trabajadores a otras empresas ni admite trabajadores cedidos temporalmente por otras empresas.		1			

3. Ekoizpenaren antolamendua

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Prozesu tekniko guztiak identifikatuta dauzka enpresak, eta hor sartu behar du LAP.	5			
2	Antolakuntza-prozedura batzuk izan behar ditu enpresak, eta hor sartu behar du LAP.	5			
3	Asteko lanaldi arruntak 40 lanordu efektibo arruntekoa izan behar du gehienez ere, urte osoko batez bestekoa kalkulatuz, eta lanaldi bat amaitzen denetik hurrengoa hasten den arte 12 ordu igaro behar dira gutxienez.	3			
4	Lanordu efektibo arrunten kopurua ezin da eguneko 9 ordu baino gehiago izan.	3			
5	Eguneko lanaldi jarraituak 6 orduak gaindituz gero, 15 minututik gorako atsedenaldi bat utzi beharko da.	3			
6	18 urtetik beherako langileek ezin dute egunean 8 lanordu efektibo baino gehiago sartu.	5			
7	18 urtetik beherako langileen eguneko lanaldi jarraitua 4h30min baino luzeagoa izanez gero, 30 minututik gorako atsedenaldi bat utzi beharko da.	5			
8	Gaueko langileen lanaldia ezin da batez beste 8 ordukoa baino luzeagoa izan, 15 eguneko erreferentzia-tartea hartuta. Langile horiek ezin dute aparteko ordurik sartu.	5			
9	Gaueko langileei eta txandaka lan egiten dutenei osasuna eta segurtasuna zaintzeko ematen zaien babesa langile horien lanaren ezaugarriei erantzun behar die. Prebentzio- eta babes-zerbitzu egokiak izan behar dituzte, enpresako gainerako langileek dutenaren parekoak.	5			

4. Prebentzioaren antolamendua

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Legeak agindutako betekizunei erantzuten dien modalitatea aukeratu behar da: a) Enpresaburua bera. b) Langileak izendatzea. c) Barruko prebentzio-zerbitzua. d) Kanpoko prebentzio-zerbitzua. e) Prebentzio-zerbitzu mankomunatua.	3			
A atala (6 langile baino gutxiago duten enpresak, enpresaburua izanik prebentzio-jardueraren arduraduna zuzenean)					
2	Enpresaren jarduera Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduko (PZE) I. Eranskinean agindutakotik kanpo gelditzen da.	3			
3	Enpresaburuak lanlekuan bertan egin behar du bere laneko jarduna, normalean, eta bete beharreko prebentzio-ardurari dagokion trebakuntza izan behar du.	3			
4	Enpresaburuak bere gain hartzen ez dituen prebentzio-jarduerak, izendatutako langileek, prebentzio-zerbitzu mankomunatuek nahiz kanpoko prebentzio-zerbitzuek bete behar dituzte.	3			
B atala (Langileak izendatzea)					
5	Langile bat edo gehiago izendatu behar ditu enpresaburuak.	3			
6	Izendatutako langileek prebentzio-zereginak betetzeko gaitasun tekniko egokia izan behar dute. Zeregin horiek ondo betetzeko, baldintza hauek bete behar dituzte: a. Behar beste dira. b. Beharrezko baliabideak dauzkate. Behar beste denbora dute.	3			
7	Inork bere gain hartu ez dituen prebentzio-jarduerak itundu egin behar dira barruko prebentzio-zerbitzuekin (mankomunatuak) nahiz kanpokoekin.	3			
C atala (Barruko Prebentzio Zerbitzua —BPZ—)					
8	Antolakuntza-unitate berezia osatu behar du BPZak, eta bere lana ondo egiteko, behar adinako baliabideak (langileak nahiz materiala) eta instalazio egokiak izan behar ditu.	3			
9	Barruko Prebentzio Zerbitzuko kideek beren lana egiteko gaitasun teknikoa izan behar dute, erabateko dedikazioan jardun behar dute zeregin horretan eta langile-taldeko kideak izan behar dute.	3			
10	BPZak aholku eta babesa eman behar die enpresari, gai hauei buruz: a) LAP plan bat nola diseinatu, ezarri eta bete. b) Arrisku-faktoreen prebentzioa. c) Prebentzio-neurriak hartzeko eta neurrion eraginkortasuna aztertzeko lehentasunak finkatzea. d) Langileen trebakuntza eta haiei eman beharreko informazioa. e) Lehen sorospenak eta larrialdi-planak. f) Osasuna zaintzea arriskuetatik babesteko.	3			
11	Enpresak bere gain hartu ez dituen prebentzio-jarduerak itundu egin behar dira kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin edo zerbitzu mankomunatu batekin.	3			
12	Egin beharreko jarduerak programa batean eta urteko memoria batean jaso behar dira idatziz.	3			
C atala (Barruko Prebentzio Zerbitzuko —BPZ— osasun-arloa) (EAEn bakarrik)					
13	Giza baliabideek ezaugarri hauek bete behar dituzte: a) Erabateko dedikazioa. b) Beharrezko prestakuntza. Bateraezintasunak: - Ordutegi berean beste zerbitzu publiko edo pribaturen batean aritzea. - LAP alorreko beste erakunde edo zerbitzu publikoren batean aritzea. - Laneko istripu baten, laneko gaixotasun baten, gaixotasun arrunt baten edo horietako zenbaiten ondorioz laneko ezintasunagatik jaso beharreko prestazio ekonomikoa kontrolatzeko ardura duen mediku gisa jardutea enpresa berean, Gizarte Segurantza kudeatzeko erakunde laguntzaile gisa jarduten badu enpresa horrek.	3			

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
14	Profesionalen kopurua eta ordutegia egokiak dira zaindu beharreko langileen kopurua, dauden arriskuak eta bete behar dituzten zereginak kontuan izanik.	3			
15	Osasun-arloak egin behar dituen zereginak egiteko behar dituen baliabide materialak izan behar ditu.	3			
	D atala (Prebentzio Zerbitzu Mankomunatua —PZM—)				
16	Atxikitako enpresak PZM bati atxikitzeko erregelamenduz bete beharreko baldintzetako bat betetzen du.	3			
17	Eratzeko hitzarmenean zerbitzua emateko baldintzak zehaztu behar dira.	3			
18	Antolakuntza-unitate berezia osatu behar du PZMak, eta bere lana ondo egiteko, behar adinako baliabideak (langileak nahiz materiala) eta instalazio egokiak izan behar ditu.	3			
19	Prebentzio Zerbitzu Mankomunatuko kideek beren lana egiteko gaitasun teknikoa izan behar dute, erabateko dedikazioan jardun behar dute zeregin horretan eta langile-taldeko kideak izan behar dute.	3			
20	PZMak aholku eta babesa eman behar die enpresari, gai hauei buruz: a) LAP plan bat nola diseinatu, ezarri eta bete. b) Arrisku-faktoreen prebentzioa. c) Prebentzio-neurriak hartzeko eta neurrion eraginkortasuna aztertzeko lehentasunak finkatzea. d) Langileen trebakuntza eta haiei eman beharreko informazioa. e) Lehen sorospenak eta larrialdi-planak. f) Osasuna zaintzea arriskuetatik babesteko.	3			
21	Inork bere gain hartu ez dituen prebentzio-jarduerak itundu egin behar dira kanpoko prebentzio-zerbitzuekin. Enpresara doazen KPZko langileak, beharrezko prestakuntza izateaz gain, KPZko egiaztapenean agertu behar dute. Egiaztagiri horretan langileren bat sartu edo langileren baten baldintzak aldatzean, eskumen horiek dituen lan-arloko agintariei jakinarazi beharko zaio.	3			
22	Egin beharreko jarduerak programa batean eta urteko memoria batean jaso behar dira idatziz.	3			
	E atala (Kanpoko Prebentzio Zerbitzua —KPZ—)				
23	KPZrekin itun bat sinatu behar da idatziz.	3			
24	Itundutako KPZak beharrezko ziurtagiria izan behar du.	3			
25	KPZ horren lanak programatu eta idatziz jaso behar dira.	3			
26	KPZak programa horren jarraipena eta kontrola egin behar du aldiro-aldiro.	3			
	Prebentzio-zerbitzu guztientzat.				
27	Prebentzio Zerbitzuko buruak zeregin hauek bete behar ditu: a) Bere jarduera-esparruko zainketa epidemiologikoa. b) Sare epidemiologikoko jardueretan eta osasun-kanpainetan laguntzea. c) Lehen mailako arretako eta osasun-arreta espezializatuko zerbitzuei laguntzea lanarekin zerikusia duten gaixotasunen diagnostiko, tratamendu eta errehabilitazioa egiten. d) Eskumeneko osasun-administrazioei laguntzea laneko osasuna sustatzeko prestatzen diren jardueretan.	3			
28	EAEn: Prebentzio Zerbitzuak prestazio mediko-farmazeutikoa eman behar du, eta horretarako baimena izan behar du.	3			
29	EAEn: Osasun-neurriez arduratzen den Prebentzio Zerbitzuak lan egiteari uztean (guztiz nahiz osasun alorrekoa bakarrik) OSALANeko Laneko Osasun Unitateari jakinarazi behar dio.	3			

5. Politika, helburuak eta jomugak LAPean

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	LAPerako politika bat izan behar du enpresak.	3			
2	LAPerako plan bat finkatu behar du enpresak, eta alderdi hauek zehaztu behar ditu plan horretan: LAP egiteko beharrezko diren antolakuntza-egitura, erantzukizunak, zereginak, jardunak, prozedurak, prozesuak eta baliabideak.	5			
3	Enpresako hierarkia-maila guztietan hartu behar da kontuan LAPen kudeaketa.	5			
4	LAP enpresa kudeatzeko sistema orokorrean kontuan hartzea bultzatu eta kontuan hartzen den egiaztatu behar du enpresak, eta lagundu egin behar zaio enpresaburuari LAPi buruz aholku eta laguntza emanez.	3			
5	Enpresako zuzendaritzan LAP kontuan hartu behar du enpresak.	5			
6	Aldaketak kudeatzean LAP kontuan hartu behar du enpresak:	5			
6.1	Ekipo eta produktuak erostean LAP kontuan hartu du enpresak.	5			
6.2	Obra eta zerbitzuak kontratatzean LAP kontuan hartu behar du enpresak.	5			
6.3	Langileak kontratatzean LAP kontuan hartu behar du enpresak.	5			
6.4	Arriskutsuak izan litezkeen instalazio eta ekipoak egiaztatu eta mantentze-lanak egitean LAP kontuan hartu behar du enpresak.	5			
7	Jarduera arriskutsu jakin batzuk ikuskatzean LAP kontuan hartu behar du enpresak.	5			
8	Prebentzio-alorrean helburu eta xede batzuk finkatu behar ditu enpresak.	5			
9	Prebentzio-alorrean lortu nahi dituen helburu eta xedeak lortzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide tekniko, ekonomiko eta materialak finkatu behar ditu enpresak.	5			
10	Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Araudi eguneratuko datuak bildu eta aztertzeko mekanismoak finkatu behar ditu enpresak.	1			
11	Jardueran bete beharreko legezko baldintzak identifikatu eta erregistratzeko prozedura finkatu du enpresak, eta hura betetzeko ardura duten guztiek ezagutzen dituzte arauko baldintza horiek.	3			
12	Arriskuak saihesteko, arriskuok sortzen dituzten kausak ezabatu behar ditu enpresak. Era berean, saihestu ezineko arriskuak ebaluatu eta jatorrian bertan murrizten saiatu behar du.	3			
13	Lana pertsonetara egokitu behar du enpresak, lanpostuen ezaugarriak pentsatu eta lanerako nahiz ekoizpenerako ekipo eta metodoak aukeratzeko garaian, lan aspergarri eta errepikakorra arindu eta halako lan batek osasunean izan litzakeen ondorioak murriztearren.	3			
14	Teknikaren aurrerabidea aintzat hartu eta arriskutsua dena arriskurik batere edo gutxi duenarekin ordezkatu behar du enpresak.	3			
15	Prebentzioa planifikatu behar du enpresak, alderdi hauek guztiak biltzen dituen multzo koherentea osatuz: teknika, lanaren antolakuntza, lan-baldintzak, gizarte-harremanak eta ingurumen-faktoreek lanean duten eragina.	3			
16	Banakako babesaren aurretik taldekakoa lehenesten duten neurriak hartu behar ditu enpresak.	3			
17	Langileei jarraibide egokiak eman behar dizkie enpresak.	3			

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
18	Prebentzioa planifikatzean eduki hauek zehaztu behar dira: a) Gertakarien ikerketa (istripuak, gorabeherak, laneko gaixotasuna) b) Instalazio, lan-eremu eta abarren ikuskapen programatu eta sistematizatuak c) Higiene-arriskuen kontrola d) Lan-baldintzen kontrol eta ikuskapena aldiro-aldiro.	3			
19	Egin beharrekoen plangintza enpresaren jarduera orokorretan txertatu behar da, hierarkia-maila guztietan.	3			
20	Aldiro-aldiro egin beharreko kontroletan prebentzioaren plangintza gaizki dabilela ikusiz gero, prebentzio-jarduerak aldatzeko adinako malgutasuna izan beharko luke plangintza horrek.	3			
21	Ikuskaritzan hautemandako hutsuneak konpontzeko behar diren neurriak hartu behar ditu enpresak.	5			

6. Arriskuen ebaluazioa

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Enpresak bere jarduerak dituen arriskuen hasierako ebaluazioa egin eta alderdi hauek zehaztu behar ditu: a) Elementu arriskutsuak. b) Eraginpean dauden langileak identifikatu. c) Dagoen arriskua baloratu. d) Arriskua saihestu/kontrolatu eta murriztu behar den erabaki.	3			
2	Ebaluazioa horretarako prestakuntza duten langileek egin behar dute.	3			
3	Ebaluazioa egiteko prozedurak egokia izan behar du lortu nahi den emaitza lortzeko. Zalantzarik izanez gero, prebentzio-neurririk zorrotzenak hartu behar dira.	3			
4	Ebaluazioan beharrezko neurketa, analisi eta saiakuntza guztiak egin behar dira, egiaztagiri profesional egokiak aurkeztu ezean.	3			
5	Arriskuen ebaluazioan aintzat hartu behar da langile-talde osoan bereziki sentsibleak diren langileak ote dauden.	5			
6	Arriskuen ebaluazioa egin eta gero, prebentzio-neurriak hartu behar direla ikusiz gero, argi eta garbi zehaztu beharko da: a) Arriskua ezabatu edo murriztu behar den. b) Aldiro-aldiro kontrola egin behar den.	1			
7	Lanpostuak berriro ebaluatu behar dira ondorengo kasuetan: a) Laneko ekipoak eta substantzia edo prestakin kimikoak aukeratzean. b) Teknologia berriak erabiltzen hastean. c) Lanlekuetako baldintzak aldatzean. d) Lan-baldintzak aldatzean. e) Lan-baldintza horietan bereziki sentsiblea den langile bat hastean.	5			
8	Arriskuen ebaluazioa berrikusi egin behar da kasu hauetan: a) Arriskuen ebaluazioari buruzko xedapen bereziek hala agintzen dutenean. b) Langileen osasuna kaltetu dela ikusten denean. c) Prebentzio-jarduerak desegokiak edo urriegiak direla ikusten bada aldiroko kontroletan, osasun-zainketari dagozkionak barne. d) Enpresak eta langileen ordezkariek adostutako maiztasunarekin.	5			

7. Prebentzio-jardueren plangintza

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Prebentzioa planifikatu behar du enpresak, alderdi hauek guztiak biltzen dituen multzo koherentea osatuz: teknika, lanaren antolakuntza, lan-baldintzak, gizarte-harremanak eta ingurumen-faktoreek lanean duten eragina.	3			
2	Arriskuen ebaluazioa egitean arrisku-egoerak daudela ikusiz gero, enpresak edo antolakundeak prebentzio-jarduerak planifikatu beharko ditu.	3			
3	Prebentzio-neurriak aldi baterako planifikatzen dira, eta lehentasun batzuk finkatu behar dira arriskuaren handitasunaren eta kaltetutako langile kopuruaren arabera.	3			
4	Plangintza prestatzean, arrisku bereziei buruzko legezko xedapenik dagoen hartu behar da kontuan.	3			
5	Plangintzak alderdi hauek zehaztu behar dira beti: beharrezko giza baliabideak, baliabide materialak eta baliabide ekonomikoak.	3			
6	Prebentzioa planifikatzean eduki hauek zehaztu behar dira: a) Gertakarien ikerketa (istripuak, gorabeherak, laneko gaixotasuna) b) Instalazio, lan-eremu eta abarren ikuskapen programatu eta sistematizatuak c) Higiene-arriskuen kontrola d) Lan-baldintzen kontrol eta ikuskapena aldiro-aldiro.	3			
7	Prebentzio-jardueren plangintzan beste alderdi hauek zehaztu behar dira: a) Larrialdietarako neurriak. b) Osasunaren zainketa. c) Langileei prebentzioari buruz eman beharreko informazio eta trebakuntza.	3			
8	Egin beharrekoen plangintza enpresaren jarduera orokorretan txertatu behar da, hierarkia-maila guztietan.	5			
9	Prebentzio-neurriak ezartzeko finkatutako epeak bete behar dira.	3			
10	Arriskuen ebaluazioan hala agintzen bada, plangintzaren barruan langileen jardueraren eta lan-baldintzen kontrolak egin beharko dira aldiro-aldiro.	3			
11	Aldiro-aldiro egin beharreko kontroletan prebentzioaren plangintza gaizki dabilela ikusiz gero, prebentzio-jarduerak aldatzeko adinako malgutasuna izan beharko luke plangintza horrek.	3			
12	Prebentzioko zereginak banatzeko garaian, langileek laneko segurtasun eta osasunari buruz duten prestakuntza aintzakotzat hartu behar du enpresaburuak.	3			

8. Larrialdietarako neurriak

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Egon litezkeen larrialdiak aztertu eta beharrezko neurriak hartu behar ditu enpresaburuak, alor hauetan bereziki: a) lehen sorospenak b) suen aurkako borroka c) eraikina husteko modua	3			
2	Larrialdietarako neurriak betearazteko ardura izango duten langileak izendatu behar ditu enpresaburuak.	3			
3	Larrialdietarako neurriak egokiak direla egiaztatu behar du enpresaburuak aldiro-aldiro, simulakroak eginez.	3			
4	Enpresaburuak enpresa kanpoko zerbitzuekiko (lehen sorospenak, larrialdiko osasun-arreta, salbamendua, suhiltzaileak, etab.) erlazioa antolatu behar du, haien laguntza berehala eta modu egokiak jasotzeko.	3			
5	Larrialdietarako plana enpresako langile guzti-guztiek ezagutu behar dute, kontratetako langileak barne.	3			

9. Arrisku larri edo berehalakoa

Zk.	Baldintza		B	Betearazpena		
				B	E	EA
1	Arrisku larri edo berehalako bat hautemanez gero, ondorengoa ziurtatzeko mekanismo egokiak finkatu behar ditu enpresaburuak:	Arriskuan egon litezkeen langileei lehenbailehen jakinaraztea arrisku larri edo berehalako hori eta hartu beharreko neurriak.	5			
		Arduradun hierarkikorik ez badago, arriskuan dauden langileek beren osasunen eta segurtasuna babesteko neurri egokiak hartzeko gai izatea.				
		Jarduera arrisku handiagorik sortu gabe berehala eteteko eta, behar izanez gero, arrisku-zonatik berehala irteteko, neurri eta jarraibideak egotea.				

10. Arrisku jakin batzuk jasateko bereziki sentsibleak diren langileak, amatasuna babestea eta adin txikikoen lana

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
Arrisku jakin batzuk jasateko bereziki sentsibleak diren langileak.					
1	Lanak eragindako arriskuak jasateko bereziki sentsibleak diren langileei babes berezia ematen zaiela ziurtatu behar du enpresaburuak.	5			
2	Arriskuen ebaluazioan aintzat hartu behar da langile-talde osoan bereziki sentsibleak diren langileak ote dauden.	5			
3	Langile sentsibleek ezin dute lan egin sentsibilitate horren ondorioz beren osasuna nahiz hurkoena arriskuan jartzea eragin dezaketen lanpostuetan.	5			
4	Langile sentsibleek ezin dute lan egin beren lanpostuaren baldintza psikofisikoei erantzutea galarazten dien egoera iragankorretan daudenean.	5			
Amatasuna babestea.					
5	Arriskuen ebaluazioa egitean aintzat hartu behar dira egoera hauetan dauden langileak: haurdun, erditu berritan edo edoskitzen.	5			
6	Arriskuen ebaluazioaren arabera, behar diren neurriak hartu behar ditu enpresaburuak.	5			
7	Haurdunaldian, erditu berritan edo edoskitzean arriskurik ez duten lanpostuen zerrenda osatu behar du enpresaburuak, eta langileen ordezkariei kontsultatu behar die zerrenda hori osatzeko.	5			
8	Haurdun, erditu berritan edo edoskitzen dauden langileak lanpostuz aldatu behar ditu enpresaburuak.	5			
9	Haurdun dauden langileek lanera huts egitea daukate jaio aurreko azterketak eta erditzeko prestatzeko ikastaroak egiteko, eta soldata osoa jasoko dute halere.	5			
Adin txikikoen lana.					
10	16 urtetik beherakoek ezin dute lan egin.	5			
11	18 urtetik beherakoek ezin dute gauean lan egin.	5			
12	18 urtetik beherakoek ezin dute Gobernuaren arabera haien lanerako prestakuntza nahiz prestakuntza humanorako osasungaitz, neketsu, kaltegarri edo arriskutsu diren jarduera edo lanik egin.	5			
13	18 urtetik beherako langileek ezin dute egunean 8 lanordu efektibo baino gehiago sartu.	5			
14	18 urtetik beherako langileen eguneko lanaldi jarraitua 4h30min baino luzeagoa izanez gero, 30 minututik gorako atsedenaldi bat utzi beharko da.	5			

11. Langileak trebatu eta informatzea

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Langileek osasun eta segurtasunerako arriskuei eta hartu beharreko babes- eta prebentzio-neurriei buruzko informazioa jasotzeko behar diren neurriak hartu behar ditu enpresaburuak, ondoko atalei dagokienez: a) enpresa. b) langilearen lanpostu edo eginkizun berezia. larrialdietarako neurriak.	3			
2	Langileek osasun eta segurtasunerako arriskuei eta hartu beharreko babes- eta prebentzio-neurriei buruzko informazioa jasotzeko behar diren neurriak hartu behar ditu enpresaburuak, laneko arriskuen prebentzioko gaiei dagokienez, prebentzio hori garatzen duten errege-dekretuetan oinarrituz.	3			
3	Enpresak beharrezko jarraibideak eman behar dizkie langileei.	3			
4	Langile guzti-guztiek prebentzioari buruz prestakuntza teoriko eta praktiko egokia jasotzen dutela ziurtatu behar du enpresaburuak.	3			
5	Prebentzio-planeko antolakuntza-egituran izendatutako arduradunek legeak agindutako trebakuntza eta titulazio egokiak izan behar dituzte.	3			
6	Prebentzio-ordezkariek trebakuntza egokia izan behar dute.	3			
7	Lantegi berean enpresa-jarduera desberdinak egoteak dakartzan arriskuen berri eman behar die enpresaburuak langileei.	3			
8	Larrialdietarako plana enpresako langile guzti-guztiek ezagutu behar dute, kontratetako langileak barne.	3			
9	Arrisku larri edo berehalako bat hautemanez gero, jarduera arrisku handiagorik sortu gabe berehala eteteko eta, behar izanez gero, arrisku-zonatik berehala irteteko jarraibideak betetzen direla ziurtatzeko mekanismo egokiak finkatu behar ditu enpresaburuak	5			

12. Kontrol-jarduerak

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
	Empresario				
1	Enpresaburuak prebentzio-jardueraren jarraipena egin behar du etengabe, saihestu ezin izan diren arriskuak identifikatu, ebaluatu eta kontrolatzeko jarduerak eta dauden babes-mailak etengabe hobetzeko.	3			
2	Enpresaburuak prebentzio-jardueraren jarraipena egin behar du etengabe, lana egitean eragina duten gorabeheretan egon litezkeen aldaketetara egokitzeko prebentzio-neurriak.	3			
3	Enpresako LAP kudeatu eta betearazi behar du enpresaburuak.	3			
4	Enpresaburuak langileen lan-baldintzen eta jardueraren kontrola egin behar du aldiro-aldiro, arriskutsuak izan litezkeen egoerak hautemateko.	3			
5	Arrisku-egoerak ezabatu, murriztu eta kontrolatzeko behar diren prebentzio-jarduerak egin behar ditu enpresaburuak.	3			
6	Prebentzio-jarduerak, plangintza barne, ondo betetzen direla ziurtatu behar du enpresaburuak.	3			
7	Babestu nahi denerako desegokiak direla ikusiz gero, prebentzio-jarduerak aldatu behar ditu enpresaburuak.	3			
8	Langileen osasuna kaltetuz gero, hori zer eragin duen argitzeko ikerketa egin behar du enpresaburuak.	3			
9	Osasun-zainketan ikusten bada prebentzio-neurriak aski ez direla, ikerketa egin behar du enpresaburuak.	3			
10	Alderdi hauek egiaztatu behar ditu enpresaburuak: lan-ekipoak egokiak direla beren zeregina betetzeko, ekipo horiek erabiltzeko ardura dutenek erabiltzen dituztela, konponketak, mantentze-lanak eta eraldaketak horretarako prestakuntza berezia duten langileek egiten dituztela.	3			
11	Enpresaburuak informazioa eskatu behar die fabrikatzaile, inportatzaile eta hornitzaileei, langileek beren osasun eta segurtasuna kaltetu gabe erabili eta manipulatu ditzaten enpresako makinak, ekipoak, produktuak, lehengaiak eta lanabesak, eta langileei eman beharreko informazioa ematen zaiela ziurtatzeko.	3			
12	Langileei emandako NBEak egokiak direla eta bakoitzak berari dagokion NBEa erabiltzen duela egiaztatu behar du enpresaburuak.	3			
13	Langileek beharrezko jarraibideak jasotzen dituztela egiaztatu behar du enpresaburuak.	3			
14	Langileei beharrezko prestakuntza ematen zaiela egiaztatu behar du enpresaburuak.	3			
15	Langileei emandako prestakuntza eta informazioa egokiak eta behar adinakoak direla egiaztatu behar du enpresaburuak.	3			
16	Finkatutako larrialdietarako neurriak prestatutako planari jarraiki betetzen direla egiaztatu behar du enpresaburuak.	3			
17	Langileen osasun-zainketa ondo egiten dela egiaztatu behar du enpresaburuak.	3			
18	Beretzat diharduten langileek, lanean jasandako kalteak lan-arloko agintariei jakinarazten zaiela egiaztatu behar du enpresaburuak.	3			
19	Lanak eragindako arriskuak jasateko bereziki sentsibleak diren langileei babes berezia ematen zaiela egiaztatu behar du enpresaburuak.	3			
20	Amatasuna babesteko neurri egokiak hartzen direla egiaztatu behar du enpresaburuak.	3			
21	Adin txikikoak babesteko neurri egokiak hartzen direla egiaztatu behar du enpresaburuak.	3			

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
22	Aldi baterako kontratuak, iraupen mugatukoak eta ABLEekin sinatutakoak lan-harremanaren aldetik baldintza egokietan betetzen direla egiaztatu behar du enpresaburuak.	3			
23	Prebentzio-baliabideak behar diren lekuetan badaudela egiaztatu behar du enpresaburuak.	3			
24	Lan-arloko agintariek, Lan Ikuskaritzak, Gizarte Segurantzak eta Osalanek egindako oharrak aintzat hartzen ditu enpresaburuak.	5			
25	LAPeko antolakuntzak egindako oharrak aintzat hartzen ditu enpresaburuak.	3			
26	LAPeko ikuskaritza-enpresak egindako oharrak aintzat hartzen ditu enpresaburuak.	3			
Lantegi berean enpresa desberdinetako langileak egotea, enpresaburu nagusi baten aginduetara.					
27	Bere lantegian, bere jardueraren barruan, diharduten obra eta zerbitzuen enpresa kontratista eta azpi-kontratistek LAPeko arauak betetzen dituztela egiaztatu behar du enpresaburu nagusiak.	3			
28	Kontratatutako obra eta zerbitzuetarako, ondorengo baldintzak beteak dituztela frogatzen dute ziurtagiriak eskatu behar die enpresaburu nagusiak enpresa kontratista eta azpi-kontratistei: arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueraren plangintza, lantokian lan egingo duten langileei eman beharreko informazio eta prestakuntza.	3			
29	Bere lantegian lan egiten duten enpresa kontratista eta azpi-kontratistek beren artean koordinatzeko bide egokiak finkatu dituztela egiaztatu behar du enpresaburu nagusiak.	3			
Enpresaren LAPeko antolakuntza					
30	Aholku eta laguntza eman behar diete enpresaburuari, langileei, haien ordezkariei eta ordezkapen-organo bereziei.	3			
31	Laneko arriskuak prebenitzeko plana diseinatu, ezarri eta betearazi behar dute, prebentzioa enpresa osoan kontuan hartzeko moduan.	3			
32	Langileen osasun eta segurtasuna kaltetu lezaketen arrisku-faktoreak ebaluatu behar dituzte.	3			
33	Prebentzio-jarduera planifikatu eta prebentzio-neurriak hartzeko eta neurrion eraginkortasuna aztertzeko lehentasunak finkatu behar dituzte.	3			
34	Trebakuntza eta informazioa eman behar diete langileei.	3			
35	Lehen sorospenak eman eta larrialdietarako planak prestatzen dituzte.	3			
36	Lanak eragindako arriskuetatik babesteko langileek jaso beharreko osasun-zaintzaz arduratu behar dute.	3			
37	Lan-arloko agintariek, Lan Ikuskaritzak, Gizarte Segurantzak eta Osalanek egindako oharrak aintzat hartzen ditu enpresako LAPeko antolakuntzak.	5			
Osasun eta Segurtasun Batzordea.					
38	Enpresako arriskuak prebenitzeko planak eta programak prestatzen, betetzen eta ebaluatzen lagundu behar du.	3			
39	Arriskuak ondo prebenitzeko metodo eta prozedurak bultzatu behar ditu, eta enpresako baldintzak eta hutsuneak konpontzeko neurriak proposatu behar ditu.	3			
40	Zuzenean ezagutu behar ditu bai LAP aldetik lantokian dagoen egoera zehatza, bai lan-baldintzei buruzko txosten eta agiri guztiak, bai prebentzio-zerbitzuaren jardueraren ondorioz idatzi diren txosten guztiak.	3			
41	Langileen osasun edo osotasun fisikoan egondako kalteak ezagutu eta aztertu behar ditu.	3			

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
42	Prebentzio-zerbitzuen urteko programazioa eta memoria ezagutu eta informazioa eman behar dute hura osatzeko.	3			
43	Lan-arloko agintariek, Lan Ikuskaritzak, Gizarte Segurantzak eta Osalanek egindako oharrak aintzat hartu behar ditu Segurtasun eta Osasun Batzordeak.	5			
	Langileen ordezkariak - Prebentzio-ordezkariak.				
44	Enpresako zuzendaritzarekin batera jardun behar dute, prebentzio-neurriak hobetzeko.	3			
45	LAPeko araudia betetzen laguntzeko adoretu eta bultzatu behar dituzte langileak.	3			
46	Enpresaburuak haiei galdetu behar die LAPeko gaiei buruz.	3			
47	LAPeko arauak betetzen diren zaindu eta kontrolatu behar dute.	3			
48	Teknikariek lan-giroa ebaluatzeko egiten dituzten prebentzio-azterketetan lagundu behar diete bai eta Lan Ikuskaritzako eta Gizarte Segurantzako ikuskariek LAPeko arauak betetzen direla egiaztatzeko lantegira egindako bisitetan ere.	3			
49	Beren zereginak egiteko, lan-baldintzei buruz behar duten informazio eta dokumentazio guztia eskuratu behar dute.	3			
50	Langileen osasunak jasandako kalteei buruzko informazioa eman behar die enpresaburuak.	3			
51	Enpresan, babes- eta prebentzio-jarduerez arduratzen diren pertsona eta organoek eta langileen osasun eta segurtasunaz arduratzen diren bestelako erakundeek enpresaburuari emandako informazioa eman behar die enpresaburuak.	3			
52	Lanlekuak ikusteko bisitak egin behar dituzte, lan-baldintzak zaindu eta kontrolatzeko.	3			
53	Langileen osasun eta segurtasuna hobeto babesteko neurriak eta prebentzio-neurriak hartzeko eskatu behar diote enpresaburuari.	3			
54	Arrisku larria edo berehalakoa dagoenean, jarduerak eteteko erabakia hartzeko proposamena egin behar diote langileen ordezkapen-organoari.	5			
55	Enpresa-jarduera desberdinak batera egitearen ondorioz dauden lan-baldintzak aztertu eta LAP zaindu eta kontrolatu behar dute prebentzio-ordezkariek.	3			
56	Lan Ikuskaritzara eta Gizarte Segurantzara jo behar dute enpresaburuak hartutako neurriak eta erabilitako bitartekoak laneko osasun eta segurtasuna babesteko adinakoa ez direla iritziz gero.	3			
57	LAPeko arauak betetzen diren egiaztatzeko Lan Ikuskaritza eta Gizarte Segurantza lantokira joaten direnean, beharrezko oharrak egin behar dituzte.	3			
58	Lan-arloko agintariek, Lan Ikuskaritzak, Gizarte Segurantzak eta Osalanek egindako oharrak aintzat hartu behar dituzte langileen ordezkariek eta prebentzio-ordezkariek.	5			
	Langileak.				
59	Lan Ikuskaritzara eta Gizarte Segurantzara jo behar dute enpresaburuak hartutako neurriak eta erabilitako bitartekoak laneko osasun eta segurtasuna babesteko adinakoa ez direla iritziz gero.	3			
60	LAPeko arauak betetzen diren egiaztatzeko Lan Ikuskaritza eta Gizarte Segurantza lantokira joaten direnean, beharrezko oharrak egin behar dituzte.	3			
61	Lan-arloko agintariek, Lan Ikuskaritzak, Gizarte Segurantzak eta Osalanek egindako oharrak aintzat hartu behar dituzte langileek.	5			
	Osasunaren zainketa.				
62	Langileei osasun-azterketak egin behar zaizkie lanean hasi aurretik.	3			

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
63	Langileen osasun-azterketak egin behar dira: hasieran eta aldiro-aldiro..	3			
64	Beretzat lan egiten duten langileei aldiro-aldiro osasun-zainketa egiten zaiela ziurtatu behar die enpresaburuak langileei, lanean dituzten arriskuen arabera.	3			
65	Osasun-zainketa egiteko langileak baimena eman behar du, non eta ezinbestekoa ez den. Kasu horretan, langileari kalterik txikiena egingo dioten azterketa eta probak egingo zaizkio, arriskuaren neurrian.	3			
66	Langileen osasuna zaindu eta kontrolatzeko neurriak hartzean langileen intimitatea babestu behar da, eta haien osasun-egoerari buruzko informazioa isilpean gorde behar da.	3			
67	Aurreko atalean aipatutako osasun-zainketaren emaitzak langileei jakinarazi behar zaizkie.	3			
68	Langileen osasun-zainketan bildutako datuak ezin dira langilea kaltetzeko edo baztertzeko erabili.	3			
69	Langileen osasunari buruzko informazio pertsonala medikuak eta langileen osasuna zaintzeaz arduratzen diren osasun-arloko agintariek eskuratu dezakete bakarrik, eta ez enpresaburuak ez beste inork ezin ditu datu horiek eskuratu, langilearen berariazko baimenik gabe.	3			
70	Langileari bere lanpostuan jarduteko egokia den ikusteko egin zaizkion osasun-azterketetatik eta babes- eta prebentzio-neurri berriak jartzeko edo lehendik daudenak hobetzeko egindako azterketetatik ateratako ondorioak enpresaburuari eta prebentzio-ardurak dituzten organoei jakinarazi behar zaizkie.	3			
71	Lan-harremana amaitu eta gero ere osasun-azterketak egingo zaizkie langileei, haien lanak berez dituen arriskuen ondorioz horren beharra dagoela erabakiz gero.	3			
72	Langileen osasuna zaindu eta kontrolatzeko neurriak beharrezko prestakuntza teknikoa eta trebakuntza eta gaitasun frogatua duten osasun-langileek hartu behar dituzte.	3			
73	Gauean lan egiten duten langileei gaueko lan horrek osasunean arazorik eraginez gero, enpresa berean gai diren lanpostu batean goizeko txandan aritzeko eskubidea dute.	5			
74	Osasun-azterketak laneko arriskuen arabera egin behar dira, eta protokolo bereziak erabili behar dira horretarako.	3			
75	Laneko historia klinikoan xehetasun guzti-guztiak bete behar dira.	3			
76	Lehen sorospenak eta larrialdiko arreta lantokian bertan egin behar dira.	1			

Galdetegi osagarriak

GALDETEGI OSAGARRIEN AURKIBIDEA

A. OSAGARRIAK.

A.1. Lanlekuak
A.2. Seinaleak
A.3. Lan-ekipoak
A.4. Industria-segurtasuneko instalazioak eta ekipoakl
A.5. Norbera babesteko ekipoak (NBEak)
A.6. Zamak eskuz manipulatzea
A.7. Bistaratzeko pantailak
A.8. Instalazio elektrikoak
A.9. Aldi baterako laneko enpresak (ABLEak)
A.10. Enpresa-jardueren koordinazioa.

B. JARDUERA BREZIAK.

B.1. Eraikuntza-lanak
B.2. Arrantza-ontziak
B.3. Meatzaritza-jarduerak

C. BERARIAZKOAK.

C.1. Agente biologikoak
C.2. Agente kantzerigenoak
C.3. Agente kimikoak
C.4. Erradiazio ionizatzaileak
C.5. Zarata
C.6. Substantzia arriskutsuak
C.7. Bibrazioak.
C.8. Amiantoa.
C.9. Atmosfera leherkorrak

Galdetegi osagarriak

A.1 galdetegi osagarria. Lanlekuak

Zk.	Baldintza	B	Betarazpena		
			B	E	EA
1	Lanlekuaren diseinuak eta eraikuntza-ezaugarriek egokiak izan behar dute, materialak erori edo eraikina bertan behera etorriz gero langileak babesteko.	5			
2	Lanlekuaren diseinuak eta eraikuntza-ezaugarriek egokiak izan behar dute, kolpe eta elkar-jotzeen aurka babesteko.	3			
3	Lanlekuaren diseinuak eta eraikuntza-ezaugarriek egokiak izan behar dute, erorketa eta irristaduren aurka babesteko.	5			
4	Lanlekuaren diseinuak eta eraikuntza-ezaugarriek egokiak izan behar dute, larrialdietan (suteetan bereziki) egoera kontrolatzeko.	3			
5	Lanlekuaren diseinuak eta eraikuntza-ezaugarriek egokiak izan behar dute, larrialdietan langileak eraikinetik ateratzeko.	3			
6	Lanlekuak txukun eta garbi zaintzen dira.	3			
7	Lanleku eta instalazioetan mantentze-lanak egiten dira aldiro-aldiro.	1			
8	Lanlekuetako baldintza termohigrometrikoek egokiak izan behar dute, seguru, modu osasungarrian eta, ahal dela, eroso lan egiteko.	3			
9	Babes bereziak jarri behar dira arriskutsuak izan litezkeen elementuei aurre egiteko.	5			
10	Lanlekuetan argi egokia jarri behar da, han zehar ibiltzeko eta lan egiteko modukoa, osasun eta segurtasunerako arriskurik sortu gabe.	3			
11	Beharrezkoa da lanlekuetan komunak egotea eta, hala badagokio, aldagelak ere bai.	1			
12	Beharrezkoa da lanlekuetan atseden hartzeko gelak egotea.	1			
13	Beharrezkoa da lanlekuetan osasun-materiala egotea eta, hala badagokio, osasun-lokalak ere bai.	1			
14	Langile ezindurik badago, lanlekuak haien beharretara egokitu behar dira.	1			

A.2 galdetegi osagarria. Seinaleak.

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Enpresaburuak neurriak hartu behar ditu lanlekuetan behar diren osasun- eta segurtasun-seinaleak daudela ziurtatzeko:	3			
2	a) Langileak arrisku, debeku eta betebeharrez ohartarazteko.	3			
3	b) Langileak larrialdiez ohartarazteko.	3			
4	c) Babesteko, eraikina husteko eta larrialdietarako nahiz lehen sorospenak emateko bitartekoak eta instalazioak non dauden adierazteko langileei.	3			
5	d) Maniobra arriskutsuak egiten dituzten langileei nola egin adierazteko.	3			

A.3 galdetegi osagarria. Lan-ekipoak

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Ekipo eta produktuak erostean LAP kontuan hartu behar du enpresak.	5			
2	LAP arriskuak izan litezkeen instalazio eta ekipoak egiaztatu eta mantentze-lana egitean kontuan hartu behar du enpresak.	5			
3	1215/1997 EDan jasotako gaiei buruz kontsultatu behar zaie langileei eta haien ordezkariei.	3			
4	Langileen esku jartzen diren lan-ekipoak egin beharreko lanera egokituta daudela eta lan horretarako egokiak direla ziurtatzeko behar diren neurriak hartu behar ditu enpresaburuak, langileen segurtasun eta osasuna babestuta egoteko ekipo horiek erabiltzen dituztenean.	3			
5	Lan-ekipo batzuk erabiltzeko ezaguera bereziak behar badira, ekipo horiek horretarako izendatutako langileek bakarrik erabiltzen dituzten ziurtatzeko neurriak hartu behar ditu enpresaburuak.	5			
6	Lan-ekipoak denbora guztian legeak agindutako xedapenekin bat etorriz erabiltzen eta gordetzen direla ziurtatzeko behar diren neurriak hartu behar ditu enpresaburuak.	3			
7	Lan-ekiporen baten segurtasuna instalazio-baldintza batzuei lotuta baldin badago, egiaztapen batzuk egiteko neurriak hartu behar ditu enpresaburuak: hasiera batean, instalatu eta gero eta lehenbiziko aldiz martxan jarri aurretik; eta leku berri batean muntatzen den guztietan.	5			
8	Ekipoa hondatu eta arriskua sortzea eragin dezaketen eraginak jasaten dituzten lan-ekipoak aldiro-aldiro egiaztatzen direla eta probak egiten zaizkiela egiaztatu behar du enpresaburuak, segurtasun eta osasun alorreko baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu eta ekipoa hondatu baino lehen konpontzeko.	3			
9	Enpresatik kanpo erabiltzen diren lan-ekipoetan azken egiaztapenaren proba material bat itsatsi behar zaie.	1			
10	Lan-ekipoak erabiltzeak dakartzan arriskuei buruzko prestakuntza eta informazio egokia eman behar die enpresaburuak langileei eta haien ordezkariei, babes- eta prebentzio-neurri egokiak zehaztuz.	3			
11	Lan-ekipoak konpondu eta eraldatzeaz eta haien mantentze-lanaz arduratzen diren langileei trebakuntza berezia eman behar zaie, lan horrek arriskurik sortzen badie.	5			
12	Baldintza edo modu zehatz batean erabili beharreko lan-ekipoak erabiltzen dituzten langileek, ekipo horiek erabiltzeko behar den ezaguera eskuratzeko trebakuntza jaso behar dute.	5			
13	Informazioa eman behar da, ahal dela idatziz.	3			
14	Fabrikatzaileak emandako dokumentazioa langileen esku jarri behar da.	1			
15	Inguruan dauzkaten lan-ekipoek dituzten arriskuekin kontuz ibili beharra dagoela jakinarazi behar zaie langileei. Era berean, beraiek erabili ez arren, inguruan dauzkaten lan-ekipoetan egindako aldaketen berri eman behar zaie.	1			
16	Enpresa nagusiak enpresa kontratatu eta azpi-kontratatuei makinak, lan-ekipoak, produktuak, lehengaiak eta lanabesak emanez gero, enpresa nagusiak hornitzailea den aldetik dagozkion betebeharrak bete beharko ditu.	3			

A.4 galdetegi osagarria. Industria-segurtasuneko instalazioak eta ekipoak

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Industriako segurtasun-araudiak araututako instalazio eta ekipoen inbentarioa izan behar du enpresak.	1			
2	Instalazio/ekipoak martxan jartzeko baldintzak bete behar ditu.	3			
3	Prestatutako langileek erabili behar dute instalazioa.	3			
4	Instalazio/ekipoa ondo zaindu behar da.	3			
5	Instalazio/ekipoari dagozkion ikuskapenak egin behar zaizkio.	3			
6	Instalazio/ekipoak geldiarazteko baldintzak bete behar ditu.	3			

A.5 galdetegi osagarria. Norbera babesteko ekipoak

Zk.	Baldintza	B	Betarazpena		
			B	E	EA
1	Ekipo eta produktuak erostean LAP kontuan hartu behar du enpresak.	5			
2	Langileek NBEak erabiltzeko aintzat hartu behar dituzten osasun eta segurtasuneko gutxieneko arauak zehazteko, langileei eta haien ordezkariei kontsultatu eta parte hartzen utzi behar zaie.	3			
3	Lanpostu bakoitzean zein NBE behar diren erabaki, beharrezko NBEak aukeratu eta, aukeratzeko oinarritzat hartutako baldintzaren bat aldatzean, aukeratutakoa berrikusi behar du enpresaburuak.	3			
4	Erabili behar dituzten NBEak dohainik eman behar dizkie enpresaburuak, eta behar denean berritu behar ditu.	1			
5	NBEak ondo erabiltzen direla zaindu eta NBEak ondo gordetzen eta zaintzen direla ziurtatu behar du enpresaburuak.	3			
6	NBEak erabiltzen hasi aurretik, ekipo horiek zein arriskutatik babesten duten eta zein egoera edo jardueratan erabili behar diren jakinarazi behar die enpresaburuak langileei.	3			
7	NBEak ondo erabili eta zaintzeko jarraibideak eman behar dizkie enpresaburuak langileei, eta aukeratutako NBEen fabrikatzaileak emandako jarraibideak eta informazio-dokumentazioa langileen esku utzi behar du.	3			
8	Langileek behar duten trebakuntza jasotzen dutela ziurtatu behar du enpresaburuak, eta, behar izanez gero, NBEak erabiltzen trebatzeko saioak antolatu behar ditu, zenbait NBE aldi batera erabili behar izanik, egoera zaila denean bereziki.	3			
9	Enpresa nagusiak enpresa kontratatu eta azpi-kontratatuei NBEak emanez gero, enpresa nagusiak hornitzailea den aldetik dagozkion betebeharrak bete beharko ditu.	3			

A.6 galdetegi osagarria. Zamak eskuz manipulatzea

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Zamak eskuz manipulatu behar ez izateko behar diren neurri tekniko eta antolakuntza-neurriak hartu behar ditu enpresaburuak, eta hori saihesterik ez badago, antolakuntza-neurri egokiak hartu eta langileei bitarteko egokiak eman behar dizkiete, zamak eskuz manipulatzeak dakartzan arriskuak murrizteko.	3			
2	Zamak eskuz manipulatzeak dakartzan arriskuei buruz prestakuntza eta informazio egokia eman behar die enpresaburuak langileei eta haien ordezkariei, babes- eta prebentzio-neurri egokiak zehaztuz.	3			
3	Langileek lanean zamak eskuz manipulatu behar badituzte, osasun-zainketa ona izateko duten eskubidea bermatu beharko du enpresaburuak, ezaugarri hauek kontuan izanik: zamaren ezaugarriak, egin beharreko ahalegin fisikoa, lan-ingurunearen ezaugarriak, jardueraren eskakizunak eta norbanakoen faktoreak.	3			

A.7 galdetegi osagarria. Bistaratzeko pantailak

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Ekipo eta produktuak erostean LAP kontuan hartu behar du enpresak.	5			
2	488/1997 EDan jasotako alderdiei buruz kontsultatu behar die enpresaburuak langileei eta haien ordezkariei, eta parte hartzeko aukera eman behar die.	3			
3	Bistaratzeko pantailak erabiltzean langileen osasuna eta segurtasuna arriskuan ez jartzeko eta, hori saihesterik ez badago, arrisku horiek albait gehien murrizteko behar diren neurriak hartu behar ditu enpresaburuak.	3			
4	Ebaluazioan ikusten bada bistaratzeko pantailak erabiltzeak arriskuren bat sortzen duela edo sortu lezakeela, neurri tekniko eta antolakuntza-neurri egokiak hartu beharko dira arrisku hori ezabatu edo albait gehien murrizteko.	3			
5	Bistaratzeko pantailak erabiltzeak dakartzan arriskuei buruzko prestakuntza eta informazio egokia eman behar die enpresaburuak langileei eta haien ordezkariei, babes- eta prebentzio-neurri egokiak zehaztuz.	3			
6	Langileek eskubidea daukate osasun-azterketak egiteko, eta eskubide hori bermatu behar du enpresaburuak.	3			
7	Osasun-zainketaren emaitzak horren beharra dagoela erakutsiz gero, ondokoetarako eskubidea izango dute langileek: a) azterketa oftalmologikoa. b) zuzentzeko gailu bereziak dohainik.	3			

A.8 galdetegi osagarria. Instalazio elektrikoak

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Lanlekuetan energia elektrikoa egoteak edo erabiltzeak dakartzan arriskuak ebaluatu behar ditu enpresaburuak.	3			
2	Instalazio elektrikoaren ezaugarriak eta aukeratutako instalazio mota ondorengo baldintzetara egokitu behar dira: a) Lekuaren egoera berezia. b) Bertan egiten diren jarduerak. c) Erabiltzekoak diren ekipo elektrikoak.	3			
3	Lanlekuetan erabiltzen diren ekipo elektrikoek bateragarriak izan behar dute bertan dagoen instalazio elektrikoarekin eta lekuaren egoera bereziarekin, fabrikatzaileak prestatu duen babes-sistema edo -moduari dagokionez.	3			
4	Lanlekuetako instalazio elektrikoak ondo erabili eta zaindu behar dira.	3			
5	Lanlekuetako instalazio elektrikoek arau hauek bete behar dituzte: erregelamendu elektroteknikoa, laneko segurtasun eta osasuna zaintzeko araudia eta betetzekoak diren gainerako araudi zehatz guztiak.	3			
6	Instalazio elektrikoetan eta haietatik gertu lan egiteko erabili beharreko teknika eta prozedurak finkatzean, alderdi hauek hartu behar dira kontuan: a) Arriskuen ebaluazioa. b) Instalazio mota bakoitzak segurtasun eta osasun aldetik bete behar dituen baldintzak.	3			
7	Instalazio elektrikoetan eta haietatik gertu lan egitean arriskurik baldin badago, tentsioa kendu behar da, erregelamenduan berariaz aipatutako kasuetan izan ezik.	3			
8	Instalazio elektrikoetan tentsiorik gabe lan egitean, finkatutako baldintzak bete behar dira.	3			
9	Instalazio elektrikoetan tentsioarekin lan egitean, finkatutako baldintzak bete behar dira.	3			
10	Maniobra, neurketa, saiakuntza eta egiaztapen elektriko guztiak finkatutako aginduei jarraiki egin behar dira.	3			
11	Tentsioan dauden elementuetatik gertu lan egitean, finkatutako baldintza bete behar dira edo, bestela, tentsioan egin beharreko lantzat hartu eta era horretako lanei dagozkien aginduak bete beharko dira.	3			
12	Sua pizteko, leherketa egoteko edo energia estatiko asko pilatzeko arriskua dagoen lekuetan egiten diren lanak egiteko, finkatutako baldintzak bete behar dira.	3			
13	Arrisku elektrikoari buruz prestakuntza eta informazio egokia eman behar die enpresaburuak langileei eta haien ordezkariei, babes- eta prebentzio-neurri egokiak zehaztuz.	3			
14	Arrisku elektrikoarekin zerikusia duten alderdiei buruz kontsultatu behar die enpresaburuak langileei eta haien ordezkariei, eta parte hartzeko aukera eman behar die.	3			

A.9 galdetegi osagarria. Aldi baterako laneko enpresak (ABLEak)

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	ABLEetako langileek bete behar duten lanpostuaren ezaugarriei erantzuteko prestakuntza egokia eta behar adinakoa jasotzen dutela ziurtatu behar du enpresaburuak.	3			
2	Aldi baterako kontratua duten langileek eta ABLEen bidez kontratatuko guztiek, hau eskuratu behar dute: a) Gainerako langileek adinako babes-maila. b) Jasango dituzten arriskuei eta hartu beharreko babes- eta prebentzio-neurriei buruzko informazioa. c) Lanpostuaren ezaugarriei erantzuteko prestakuntza egokia eta behar adinakoa. d) Osasun-azterketak aldiro-aldiro.	3			
3	Enpresa erabiltzaileak xehetasun hauek jakinarazi behar dizkio ABLEari: a) Lanpostuaren eta egin beharreko jardueren ezaugarriak. b) Lanpostuak dituen laneko arriskuak. c) Lanerako behar diren gaitasunak, trebetasunak eta prestakuntza.	3			
4	Enpresa erabiltzaileak informazioa bildu behar du ABLEari buruz, haiek bidalitako langileak eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela ziurtatzeko.	3			
5	Enpresa erabiltzaileak ez dio langileari lanean hasten utziko, ABLEak galdetegi honetako aurreko atalean zehaztutako baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu arte.	3			
6	Enpresa erabiltzaileak ABLE bidez kontratatutako langileari arrisku orokor eta berezien berri eman behar dio, larrialdi-neurriak eta babes- eta prebentzio-neurriak jakinaraztearekin batera.	3			
7	Enpresa erabiltzaileak ABLEko langileek jasaten dituzten arriskuei buruz egiten diren ebaluazioen emaitzak jakinarazi behar dizkio ABLEari aldiro-aldiro.	3			
8	Enpresa erabiltzaileko Prebentzio Zerbitzuek eta ABLEko Prebentzio Zerbitzuek beren jarduna koordinatu behar dute, enpresaren esku jarritako langileen osasuna eta segurtasuna babesten direla ziurtatzeko.	3			
9	ABLE bidez kontratatutako langileek ezin dute arrisku handiko jarduerarik egin.	5			
10	ABLEa erabiltzen duen enpresak bere esku jarritako langileek jasandako osasun-kalte guztiak jakinarazi behar dizkio ABLEari, idatziz.	3			
11	Enpresa erabiltzaileak xehetasun hauek jakinarazi behar dizkio ABLEari: a) Arriskuei buruzko informazioa, prebentzio-neurriak, behar den trebakuntza eta osasuna zaintzeko neurriak. b) Arriskuen ebaluazio berriak edo eguneratuak, eta dagozkion neurriak. c) ABLE bidez kontratatutako langileak jasandako osasun-kalteak.	3			
12	Enpresa erabiltzaileak xehetasun hauek jakinarazi behar dizkio ABLE bidez kontratatutako langileari: - Arriskuak eta prebentzio- eta babes-neurriak, larrialdietarako neurriak barne.	3			
13	Enpresa erabiltzaileak xehetasun hauek jakinarazi behar dizkie prebentzio-ordezkariei: - ABLE bidez kontratatutako langileak lanean hasten direla.	3			
14	Enpresa erabiltzaileak xehetasun hauek jakinarazi behar dizkie Prebentzio Zerbitzuari eta izendatutako langileei: - ABLE bidez kontratatutako langileak lanean hasten direla.	3			
15	ABLEak xehetasun hauek jakinarazi behar dizkio enpresa erabiltzaileari: - ABLEko langileak beharrezko gaitasunak eta prestakuntza dituela eta enpresa erabiltzaileak arriskuei eta babes- eta prebentzio-neurriei buruzko informazioa eman diola ziurtatzeko informazioa.	3			

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
16	Langilea enpresaren esku uzteko kontratua betetzeko, kontratuan arriskuen prebentzioari buruz zehaztutako baldintza guztiak betetzen dituen langilea kontratatu beharko du ABLEak.	3			
17	Prebentzio-neurriak betetzeko ABLEaren baliabideak antolatzeko garaian, 39/1997 EDko Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduan zehaztutako modalitateekin bat antolatu dira baliabide horiek.	1			
18	ABLEko LAPerako antolakuntzak eta enpresakoak beren jarduerak koordinatu behar dituzte, enpresaren esku jarritako langileen osasuna eta segurtasuna babesten direla ziurtatzeko.	3			

A.10 galdetegi osagarria. Enpresa-jardueren koordinazioa

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Lantegiko titularra den enpresaburuak beharrezko neurriak hartu behar ditu beste enpresaburuek eta langile autonomoek arriskuen prebentzioari buruzko informazio eta jarraibide egokiak jasotzeko.	3			
2	Lantoki berean lan egiten duten enpresa eta autonomo guztiek batera jardun behar dute arriskuak prebenitzeko araudia betetzeko garaian.	3			
3	Lantegian egindako lanak, enpresa kontratatzaileari dagozkion ohiko lanak baldin badira, kontratistek eta azpi-kontratistek LAPeko Araudia betetzen dutela ziurtatu beharko du enpresa kontratatzaileak.	3			
4	Enpresa nagusiak enpresa kontratatu eta azpi-kontratatuei makinak, lan-ekipoak, produktuak, lehengaiak eta lanabesak emanez gero, enpresa nagusiak hornitzailea den aldetik dagozkion betebeharrak bete beharko ditu.	3			
5	LAPerako enpresako jarduerak koordinatzean, helburuak betetzen direla bermatu behar da.	5			
Lantegi berean enpresa desberdinetako langileak egotea.					
6	Enpresek batera jardun behar dute LAPeko Araudia betetzeko garaian.	3			
7	Enpresek lantegian egiten dituzten jarduerek dituzten arrisku zehatzen berri eman behar diete elkarri, lantegian ari diren beste enpresa batzuetako langileengan eraginik izanez gero.	3			
8	Arrisku zehatzei buruzko informazioa kontuan hartu behar da arriskuen ebaluazioan eta prebentzio-neurriak prestatzeko garaian.	3			
9	Lantegian dauden langileen osasun edo segurtasuna kaltetu lezakeen larrialdirik gertatuz gero, enpresaburuek elkarri jakinarazi behar diote berehala.	5			
10	Lantegi berean enpresa-jarduera desberdinak egoteak dakartzan arriskuen berri eman behar die enpresaburuak langileei.	3			
11	Koordinatzeko finkatu diren bitartekoen berri eman behar die enpresaburuak langileei.	3			
12	Lantegian batera diharduten enpresaburuek LAP koordinatzeko bitarteko egokiak finkatu behar dituzte.	3			
13	Lantegiko titularra den enpresaburuak edo, bestela, enpresari nagusiak izan behar du LAP koordinatzeko bitartekoak finkatzen hasten dena.	3			
14	Enpresa-jarduerak koordinatzeko izendatutako arduradunak enpresa desberdinetako langileek lan egiten duten lantokiko enpresaburu titularrak izendatu behar ditu.	3			
15	Enpresa-jarduerak koordinatzeko izendatutako arduradunek lankidetzan jardun behar dute elkarlanean diharduten enpresaburuen enpresetako prebentzio-baliabideekin.	3			
16	Lantegian egoteko izendatutako pertsonek prebentzio-jarduerak koordinatzeko ardura izango dute, halaber.	3			
17	Enpresa-jarduerak koordinatzeko izendatutako arduradunek beren zereginak bete behar dituzte.	3			
18	Enpresa-jarduerak koordinatzeko izendatutako arduradunek beren zereginak betetzeko beharrezko prestakuntza izan behar dute.	3			

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
19	Prebentzio-jarduerak koordinatzeko izendatutako arduradunek lantegian egon behar dute.	3			
20	Prebentzio-jarduerak koordinatzeko izendatutako arduradunek prestakuntza egokia izan behar dute prebentzioari buruz.	3			
21	Obrak edo zerbitzuak emateko kontratu bat sinatzen denean, prebentzio-arduradunei jakinarazi behar zaie, edo, bestela, langileen legezko ordezkariei.	3			
22	Lantegian enpresa desberdinak dihardutenean, lana antolatzeko moduari buruz kontsultatu behar zaie prebentzio-ordezkariei edo, bestela, langileak diharduten lantegiko enpresa titularreko langileen legezko ordezkariei, LAPLeko 33. artikuluan agintzen den moduan, eta lankidetza horrek ordezkari horiek ordezkatzen dituzten langileen osasun eta segurtasunean eragina duen heinean.	3			
23	Lantegian enpresa desberdinak dihardutenean, prebentzio-ordezkariek edo, bestela, langileak diharduten lantegiko enpresa titularreko langileen legezko ordezkariek beren gaitasunak eta eskumenak garatu ahal izan beharko dituzte, LAPLeko 36. artikuluan agintzen den moduan, eta lankidetza horrek ordezkari horiek ordezkatzen dituzten langileen osasun eta segurtasunean eragina duen heinean.	3			
24	Lankidetzan diharduten enpresetako segurtasun eta osasun batzordeek edo, bestela, halako batzorderik ez duten enpresaburuek eta prebentzio-ordezkariek, bilerak egin behar dituzte denek batera, eta batera jarduteko beste bitarteko batzuk adostu behar dituzte.	3			
Lantegi berean enpresa desberdinetako langileak egotea, enpresaburu titular baten aginduetara.					
25	Enpresaburu titularrak lantegian egiten dituzten jarduerek dituzten arrisku zehatzen berri eman behar die gainerako enpresaburuei, lantegian ari diren jardueretan eraginik izanez gero.	3			
26	Enpresaburu titularrak lantegian egiten dituzten jarduerek dituzten arriskuak prebenitzeko neurrien berri eman behar die gainerako enpresaburuei, lantegian ari diren jardueretan eraginik izanez gero.	3			
27	Enpresaburu titularrak enpresan bete beharreko larrialdi-neurrien berri eman behar die gainerako enpresaburuei.	3			
28	Enpresaburu titularrak jarraibide egokiak eman behar dizkie elkarlanean diharduten gainerako enpresaburuei.	3			
29	Enpresaburua titularra den lantegian lan-jarduerak egiten dituzten gainerako enpresaburuek enpresaburu titularrak emandako jarraibideak bete behar dituzte.	3			
Lantegi berean enpresa desberdinetako langileak egotea, enpresaburu nagusi baten aginduetara.					
30	Enpresaburuak bere jarduerarako obrak edo zerbitzuak kontratatzen edo azpi-kontratatzen baditu, kontratista horiek Gizarte Segurantzako kuota guztiak ordainduta dituztela egiaztatu behar du.	1			
31	Kontratistak eta azpi-kontratistak enpresa nagusiaren nortasuna jakinarazi behar diote Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiari, erregelamenduak agintzen duen moduan.	1			
32	Kontratistaren edo azpi-kontratistaren langileen ordezkariei uneoro zein enpresa nagusirentzat ari diren jakinarazi behar die beren enpresaburuak, idatziz.	3			
33	Kontratistaren edo azpi-kontratistaren langileei uneoro zein enpresa nagusirentzat ari diren jakinarazi behar die beren enpresaburuak, idatziz.	3			
34	Obrak edo zerbitzuak emateko kontratu bat sinatzen denean enpresa kontratista edo azpi-kontratista batekin, enpresak bere langileen legezko ordezkariei jakinarazi behar die hori.	3			

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
35	Enpresa kontratista edo azpi-kontratistak bere langileen legezko ordezkariei jakinarazi beharko die hori.	3			
36	Enpresaburu nagusiak lantegian egiten dituzten jarduerek dituzten arrisku zehatzen berri eman behar die gainerako enpresaburuei, lantegian ari diren jardueretan eraginik izanez gero	3			
37	Enpresaburu nagusiak lantegian egiten dituzten jarduerek dituzten arriskuak prebenitzeko neurrien berri eman behar die gainerako enpresaburuei, lantegian ari diren jardueretan eraginik izanez gero.	3			
38	Enpresaburu nagusiak enpresan bete beharreko larrialdi-neurrien berri eman behar die gainerako enpresaburuei.	3			
39	Enpresaburu nagusiak jarraibide egokiak eman behar dizkie elkarlanean diharduten gainerako enpresaburuei.	3			
40	Bere lantegian, bere jardueraren barruan, diharduten obra eta zerbitzuen enpresa kontratista eta azpi-kontratistek LAPeko arauak betetzen dituztela egiaztatu behar du enpresaburu nagusiak.	3			
41	Kontratatutako obrak eta zerbitzuak betetzeko, arriskuen ebaluazioa egina eta prebentzio-jarduera prestatua dutela idatziz egiaztatzeko eskatu behar die enpresaburu nagusiak enpresa kontratista eta azpi-kontratistei.	3			
42	Lantegian eman beharreko zerbitzuak emango dituzten langileek beharrezko informazio eta prestakuntza jaso dutela idatziz egiaztatzeko eskatu behar die enpresaburu nagusiak enpresa kontratista eta azpi-kontratistei.	3			
43	Bere lantegian lan egiten duten enpresa kontratista eta azpi-kontratistek beren artean koordinatzeko bide egokiak finkatu dituztela egiaztatu behar du enpresaburu nagusiak.	3			
	Prebentzio-jarduerak koordinatzeko bitartekoak				
44	Lantegian elkarlanean diharduten enpresek prebentzio-jarduerak koordinatzeko bitartekoak finkatu behar dituzte.	3			
45	Lanean hasi aurretik, lantegian elkarlanean jardungo duten enpresaburuek koordinatzeko bitarteko egokiak finkatu behar dituzte.	3			
46	Lantegiko titularra den enpresaburuak edo, bestela, enpresari nagusiak izan behar du LAP koordinatzeko bitartekoak finkatzen hasten dena.	3			
47	Koordinazio-bitartekoak eguneratu egin behar dira beren helburuak betetzeko egokiak ez badira.	3			
48	Koordinatzeko finkatu diren bitartekoen berri eman behar die enpresaburu bakoitzak bere langileei.	3			
49	Lantegian prebentzio-baliabideak jartzea edo enpresa-jarduerak koordinatzeko arduradun bat edo gehiago izendatzea badira koordinatzeko aukeratutako bitartekoak, langileei halakoak identifikatzeko behar dituzten datu guztiak eman beharko zaizkie.	3			
50	Enpresaburuak pertsona bat edo gehiago izendatu behar ditu prebentzio-jarduerak koordinatzeko.	3			
51	Arrazoi tekniko edo antolakuntza-arrazoi justifikatuak egonez gero, pertsona bat edo gehiago izendatu beharrean, helburuak beteko direla ziurtatzen duten beste koordinazio-bitarteko batzuk erabili ahal izango dira.	3			
52	Prebentzio-jarduerak koordinatzeko izendatutako arduradunak enpresa desberdinetako langileek lan egiten duten lantokiko enpresaburu titularrak izendatu behar ditu.	3			

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
53	Prebentzio-jarduerak koordinatzeko izendatutako arduradunek lankidetzan jardun behar dute elkarlanean diharduten enpresaburuen enpresetako prebentzio-baliabideekin.	3			
54	Prebentzio-jarduerak koordinatzeko izendatutako arduradunek beren zereginak bete behar dituzte.	3			
55	Prebentzio-jarduerak koordinatzeko izendatutako arduradunek beren eskumenak gauzatu ditzakete.	3			
56	Prebentzio-jarduerak koordinatzeko izendatutako arduradunek lantegian egon behar dute beren zereginak betetzeko hori beharrezkoa den bitartean.	3			
57	Prebentzio-jarduerak koordinatzeko izendatutako arduradunek prestakuntza egokia izan behar dute prebentzioari buruz.	3			
Prebentzio-baliabideak egotea lantegian.					
58	Beharrezkoa da lantegian prebentzio-baliabideak egotea.	5			
59	Jarduera edo prozesua garatzen den bitartean, elkarren segidan edo aldi berean zenbait eragiketa eginez arriskuak areagotu edo aldatuz gero, eta, horren ondorioz, lan-metodoak ondo aplikatzen ari direla egiaztatu behar izanez gero, laneko arriskuen ebaluazioan arrisku horiek identifikatu beharko dira.	5			
60	Erregelamenduaren arabera arriskutsuak edo arrisku berezikoak diren jarduerak edo prozesuak eginez gero, laneko arriskuen ebaluazioan arriskutsuak edo arrisku berezikoak diren jarduera edo prozesuekin zerikusia duten lanpostuetan egiten diren zereginak identifikatu beharko dira.	5			
61	Bai jarduera edo prozesua garatzen den bitartean, elkarren segidan edo aldi berean zenbait eragiketa eginez arriskuak areagotu edo aldatuz gero, eta, horren ondorioz, lan-metodoak ondo aplikatzen ari direla egiaztatu behar izanez gero, bai erregelamenduaren arabera arriskutsuak edo arrisku berezikoak diren jarduerak edo prozesuak eginez gero, prebentzio-jardueraren plangintzan zehaztu beharko da prebentzio-baliabideak non eta nola jartzen diren enpresan.	5			
62	Lan Ikuskaritzak eta Gizarte Segurantzak enpresan prebentzio-baliabideak jartzeko eskatuz gero, enpresaburuak berehala berrikusi beharko du arriskuen ebaluazioa, eta prebentzio-jardueraren plangintza aldatu beharko du, jarri beharreko prebentzio-baliabide horiek plangintza horretan jasota ez badaude.	5			
63	Lan Ikuskaritzak eta Gizarte Segurantzak enpresan prebentzio-baliabideak jartzeko eskatuz gero, enpresaburuak berehala aldatu beharko du prebentzio-jardueraren plangintza.	5			
64	Pertsona egokiek ziurtatu behar dute beharrezko prebentzio-baliabideak egoteaz.	5			
65	Enpresaburuak beharrezko datuak eman behar dizkie langileei, prebentzio-baliabideak identifikatzen laguntzeko.	5			
66	Prebentzio-baliabide gisa egoteko izendatutako pertsonak leku seguruan egon behar dute enpresan.	5			
67	Prebentzio-baliabide gisa izendatutako pertsonak lantegian egon behar dute haien beharra dagoen denbora guztian, dagozkien kontrol eta zaintza lanak eginez.	3			
68	Kontrol eta zaintza lanak egindakoan, hautemandako hutsunean zuzentzeko neurriak hartu behar dira.	3			
69	Lantegian egon beharreko prebentzio-baliabideak beste kasu batzuetarako erabili ditzake enpresaburuak, haien zereginak betetzearekin bateragarria izanez gero.	3			

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
70	Enpresa desberdinak batera ari baldin badira lantegian, eta jarduera edo prozesua garatzen den bitartean, aldi berean edo elkarren segidan zenbait eragiketa eginez arriskuak areagotu edo aldatuz gero, eta, horren ondorioz, lan-metodoak ondo aplikatzen ari direla egiaztatu behar izanez gero, laneko arriskuen ebaluazioan arrisku horiek identifikatu behar izanik, edo, V. eranskinaren, arabera arriskutsuak edo arrisku berezikoak diren jarduerak edo prozesuak eginez gero, laneko arriskuen ebaluazioan arriskutsuak edo arrisku berezikoak diren jarduera edo prozesuekin zerikusia duten lanpostuetan egiten diren zereginak identifikatu behar izanik, eragiketa edo jarduera horiek egiten dituzten enpresak izango dira lantokian egon beharreko prebentzio-jarduerak izendatu behar dituztenak.	5			

Jarduera bereziei buruzko galdetegiak

B.1 jarduera bereziei buruzko galdetegia. Eraikuntza-lanak

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Enpresaburuak osasun eta segurtasuneko koordinatzaile bat izendatu behar du, obra-proiektua prestatzen den bitartean aritzeko.	3			
2	Enpresaburuak osasun eta segurtasuneko koordinatzaile bat izendatu behar du, obra gauzatzen den bitartean aritzeko.	3			
3	Osasun eta segurtasunari buruzko azterketa bat edo oinarrizko azterketa bat egin behar du sustatzaileak, obra-proiektua idazteko fasean.	3			
4	Osasun eta segurtasunari buruzko azterketa edo oinarrizko azterketa sustatzaileak izendatutako teknikari prestatu batek egin behar du.	3			
5	Txosten hauek jaso behar dira osasun eta segurtasunari buruzko azterketan: a) Deskribapen-memoria. b) Baldintza berezien orria. c) Planoak. d) Laneko osasun eta segurtasuneko unitate edo elementu guztien neurketak. e) Azterketa betetzeko eta egiteko aurrekontua.	3			
6	Oinarrizko azterketan obran bete beharreko osasun- eta segurtasun-arauak zehaztu behar dira, eta alderdi hauek aipatu behar dira: - Saihestu daitezkeen arriskuen identifikazioa eta horretarako behar diren neurri teknikoak. - Saihestu ezineko arriskuen zerrenda, arrisku horiei dagozkien prebentzio- eta babes-neurriak eta neurrion eraginkortasunaren balorazioa.	3			
7	Osasun eta segurtasunari buruzko azterketa obra egiteko proiektuan jaso behar da edo obra-proiektuan, bestela.	1			
8	Azterketan eta oinarrizko azterketan obran egingo diren jarduera guztiak hartu behar dira kontuan.	3			
9	Osasun eta segurtasunari buruzko azterketan egin beharreko lanak osasun eta segurtasun baldintza onenekin egiteko behar diren aurreikuspen eta informazio erabilgarriak jaso beharko dira.	1			
10	Obran parte hartzen duten kontratista guztiek osasun eta segurtasun plan bana prestatu beharko dute. Plan horretan osasun eta segurtasunari buruzko azterketan edo oinarrizko azterketan jasotako aurreikuspen guztiak ikertu, aztertu, garatu eta kontuan hartu behar dira.	3			
11	Osasun eta segurtasun planean prebentzio-baliabideak bertan egoteko modua zehaztu behar da.	3			
12	Plana aldatzea egongo da, lanak egiteko prozesua, lanen eboluzioa edo izandako gorabeherak direla eta horren beharra ikusiz gero.	1			
13	Plana edo planak, eta ondorengo aldaketak, lanak egiten hasi aurretik onartu behar ditu obra egiten den bitartean osasun eta segurtasun koordinatzaile arituko denak.	3			
14	Planak langileen ordezkarien eta obren zuzendaritza fakultatiboaren esku egon behar du beti.	3			
15	LAPLan prebentzioari buruz finkatutako printzipioak aintzakotzat hartu behar ditu proiektistak obra-proiektua pentsatu, aztertu eta egiteko garaian.	3			
16	Obra-proiektua prestatzen den bitartean, osasun eta segurtasuneko koordinatzaile diharduenak proiektuan zehaztutakoa betetzen dela koordinatu beharko du.	1			
17	Obra gauzatzen den bitartean, osasun eta segurtasuneko koordinatzaile diharduenak bere zereginak bete beharko ditu.	3			
18	Obra gauzatzen den bitartean, prebentzio-jarduerari buruzko printzipio orokorrak bete behar dituzte kontratistak eta azpi-kontratistak.	3			
19	Osasun eta segurtasun planean agindutakoa bete eta betearazi behar dute kontratistak eta azpi-kontratistak.	3			

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
20	Enpresa-jarduerak koordinatzeari dagokionez dituzten betebeharrak bete behar dituzte kontratistak eta azpi-kontratistak.	3			
21	Obra gauzatzen den bitartean, 1627/1997 EDko IV. Eranskinean jasotako gutxieneko xedapenak bete behar dituzte kontratistak eta azpi-kontratistak.	3			
22	Obran osasuna eta segurtasuna babesteko hartu beharreko neurri guztiak jakinarazi behar dizkiete kontratistak eta azpi-kontratistak langile autonomoei, eta jarraibide egokiak eman behar dizkiete.	3			
23	Obra gauzatzen den bitartean, osasun eta segurtasuneko koordinatzaileak edo, bestela, zuzendaritza fakultatiboak emandako jarraibide eta aginduak bete behar dituzte kontratistak eta azpi-kontratistak.	3			
24	Osasun eta segurtasun planaren eta planari egindako aldaketen kopia bana eman behar diete kontratistak eta azpi-kontratistak langileen ordezkariei.	3			
25	Obra gauzatzen den artean, prebentzio-jarduerari buruzko printzipio orokorrak bete behar dituzte langile autonomoek.	3			
26	Osasun eta segurtasun planean agindutakoa bete eta betearazi behar dute langile autonomoek.	3			
27	Enpresa-jarduerak koordinatzeari dagokionez dituzten betebeharrak bete behar dituzte langile autonomoek.	3			
28	Obra gauzatzen den bitartean 1627/1997 EDko IV. Eranskinean jasotako gutxieneko xedapenak bete behar dituzte langile autonomoek.	3			
29	Obra gauzatzen den bitartean, osasun eta segurtasuneko koordinatzaileak edo, bestela, zuzendaritza fakultatiboak emandako jarraibide eta aginduak bete behar dituzte langile autonomoek.	3			
30	Prebentzio-jarduerako printzipioak bete behar dituzte langile autonomoek, obra gauzatzen den bitartean betetzekoak diren printzipio orokorretan zehaztutako zeregin edo jarduerak egitean, bereziki.	3			
31	Lan-ekipo egokiak erabili behar dituzte langile autonomoek.	3			
32	NBE egokiak erabili behar dituzte langile autonomoek.	3			
33	Lantegian Gertaeren Liburu bat dagoela ziurtatu beharra dago, finkatutako osasun eta segurtasun planaren jarraipena eta kontrola egiteko.	1			
34	Gertaeren Liburua ondo erabili behar da.	3			
35	Osasun eta segurtasunerako arrisku larria edo berehalakoa eragin dezakeen gorabeherarik hautemanez gero, lanak edo obra osoa geldiarazteko agindu behar du obra egiten den bitartean osasun eta segurtasun koordinatzaile diharduenak edo zuzendaritza fakultatiboak, bestela.	5			
36	Osasuna eta segurtasuna babesteko hartutako neurri guztien berri izan behar dute langileek.	3			
37	Langileei edo haien ordezkariei kontsultatu egin behar zaie, eta parte hartzeko bide egokiak eman behar zaizkie.	3			
38	Obra egiteko proiektuak dagokion elkargoaren ikus-onetsia izan behar du, eta osasun eta segurtasun azterketa edo, bestela, oinarrizko azterketa izan behar du erantsita.	1			
39	Lanak egiten hasi aurretik, lan-arloko agintariei lanean hasteko asmoa jakinarazi die sustatzaileak.	1			
40	Eskumeneko lan-agintariei lantegia irekitzekoa dela jakinarazten zaionean, osasun eta segurtasun plana aurkeztu beharra dago.	3			
41	Enpresa nagusiak LAP eraikuntza-lan osoan hartu behar du aintzakotzat.	5			
42	Eraikuntza-lanarekin zerikusia duten LAPeko alderdiei buruz kontsultatu behar die enpresaburuak langileei eta haien ordezkariei, eta parte hartzeko aukera eman behar die.	3			

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
43	Prebentzio-baliabideak daudela ziurtatzeko izendatutako pertsonak prebentzio-jarduerak ondo eta berehala betetzeko jarraibideak eman behar ditu, eta enpresaburuari jakinarazi behar dizkio jarraibide horiek.	3			
44	Hauteman diren hutsuneak zuzentzeko behar diren neurriak hartu behar ditu enpresaburuak. Hutsune horiek eraikuntza-lanean prebentzio-baliabideak daudela ziurtatzeko izendatutako pertsonek jakinarazi behar dizkiote enpresaburuari.	3			
45	Obran prebentzio-baliabideak daudela ziurtatzeko izendatutako pertsonak, bere zeregina betetzen ari denean prebentzio-neurriak falta direla, egokiak ez direla edo behar adinakoak ez direla ikusiz gero, enpresaburuari jakinarazi beharko dio.	5			
46	Obran prebentzio-baliabideak daudela ziurtatzeko izendatutako pertsonak, bere zeregina betetzen ari denean prebentzio-neurriak falta direla, egokiak ez direla edo behar adinakoak ez direla ikusi eta enpresaburuari hori jakinaraziz gero, enpresaburuak hutsune horiek zuzendu eta osasun eta segurtasun plana aldatu beharko du, berehala.	5			

B.2 jarduera bereziei buruzko galdetegia. Arrantza-ontziak

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Arrantza-ontzian LAP kontuan hartu behar du armadoreak.	5			
2	LAPLan prebentzioari buruz finkatutako printzipioak aintzakotzat hartu behar ditu arrantza-ontzia egiten duenak, arrantza-ontzia egiteko proiektua pentsatu, aztertu eta egiteko garaian.	5			
3	Arrantza-jarduerekin zerikusia duten LAPeko alderdiei buruz kontsultatu behar die enpresaburuak langileei eta haien ordezkariei, eta parte hartzeko aukera eman behar die.	3			
4	Arrantza-ontzietan egindako lanetan, prebentzio-jardueraren printzipio orokorrak bete behar dituzte langileek.	3			
5	1216/1997 EDko betebeharrak betetzeko behar dituen bitartekoak eman behar dizkio armadoreak kapitainari.	3			
6	Langileen osasuna eta segurtasuna arriskuan jarri gabe erabili behar ditu ontziak armadoreak.	5			
7	Itsasoan izandako gertakarien txosten bat osatu behar du armadorea, xehetasun guztiak jasota, ontzian doazen langileen osasunean ondoriorik badute edo izan badezakete.	3			
8	Arrantza-ontziak osasun eta segurtasun alorreko gutxieneko xedapenak bete behar ditu.	3			
9	Arrantza-ontzian egindako konponketa, erreforma edo aldaketa handiek osasun eta segurtasun alorreko gutxieneko xedapenak bete behar dituzte.	3			
10	Beharrezko ekipoak izan behar ditu armadoreak, edo ondo-ondo zaindu behar ditu.	3			
11	Langileek eta haien ordezkariek arrantza-ontzietako osasun eta segurtasunari eta 1216/1997 EDri jarraiki hartu beharreko prebentzio- eta babes-neurriei buruz prestakuntza eta informazio egokia jasotzen dutela ziurtatu behar du armadoreak.	3			
12	Arrisku larri edo berehalakoa egonez gero, beharrezko neurriak hartu beharko dira.	5			
13	Arrantza-ontziak bete beharreko arauetan agindutako aldiroko kontrolak egin beharko ditu.	3			

B.3 jarduera bereziei buruzko galdetegia. Meatzaritza-jarduerak

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	«Osasun eta segurtasunari buruzko dokumentua» (OSD) idazten dela ziurtatu behar du enpresaburuak.	5			
2	OSD eguneratuta eduki behar da.	5			
3	Langileek jasandako arriskuak identifikatu eta ebaluatu egin direla erakusten du OSDk.	3			
4	Neurri egokiak hartu direla erakusten du OSDk.	3			
5	Lanlekuen egitura, erabilpena eta mantentze-lana seguruak direla erakusten du OSDk.	3			
6	Lan-ekipoen egitura, erabilpena eta mantentze-lana seguruak direla erakusten du OSDk.	3			
7	Enpresen artean koordinatzeko neurriak zehaztu egin behar dira.	3			
8	Langileak dauden lanlekuen funtzionamendua ikuskatzeko arduradun bat izendatu behar da.	3			
9	Arrisku bereziak dituzten lanak prestatutako langileei agindu behar zaizkie bakarrik, eta emandako jarraibideen arabera egin behar dira.	5			
10	Segurtasunari buruzko jarraibideak ulergarriak izan behar dira jaso behar dituzten langileentzat.	3			
11	Nahitaezkoa da lehen sorospenetarako materiala eta instalazioak egotea.	1			
12	Segurtasuneko eta eraikina husteko ariketak egiten dira aldiro-aldiro.	3			
13	Suteen eta leherketen aurka babesteko neurri egokiak hartu behar ditu enpresaburuak.	3			
14	Osasunerako kaltegarriak diren atmosferak ez sortzeko neurri egokiak hartu behar ditu enpresaburuak.	3			
15	Nahitaezkoa da alarma-sistemak eta komunikatzeko beste bitarteko batzuk egotea, larrialdiko, eraikina husteko eta salbamenduko neurriak berehala martxan jarri ahal izateko.	3			
16	Nahitaezkoa da eraikina husteko eta salbamenduko bitartekoak egotea, eta ondo mantentzea.	3			
17	Nahitaezkoa da aldagelak, dutxak, komunak eta atseden hartzeko gelak egotea.	1			
18	Aurreko puntuei buruz informazio ulergarria eman behar zaie langileei eta haien ordezkariei.	3			
19	Hildakoak utzitako istripuak, istripu larriak eta arrisku larriko gertaerak egotean, 24 orduren buruan jakinarazi behar zaizkie lan-arloko agintariei eta meatzaritza-arlokoei.	3			
20	Behar beste langile trebatu behar dira lehen sorospenak emateko.	1			
21	OSD eta segurtasun-neurrien kontrolak urtero aurkeztu behar zaizkie meatzaritza-arloko agintariei. OSD lan-arloko agintarien, Lan Ikuskaritzaren, Gizarte Segurantzaren eta langileen ordezkarien esku jarri behar da.	3			
22	Kontsultak eta parte-hartzea LAPLak agindutako moduan egin behar dira.	3			
23	Dauden arriskuen araberako osasun-zaintza egokia egin behar du enpresaburuak.	3			

Arrisku zehatzei buruzko galdetegiak

C.1 arrisku zehatzari buruzko galdetegia. Agente biologikoak

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Enpresaburuak langileei kontsultatu behar die eta parte hartzen utzi behar die, agente biologikoak erabiliz gero.	3			
2	Enpresak bere agente biologikoak identifikatu eta sailkatu behar ditu lau infekzio-mailen arabera.	3			
3	Saihesterik egon ez den agente biologikoak ebaluatu behar ditu enpresak.	3			
4	Arriskuen ebaluazioa egiteko eskuragarri dagoen informazio guztia erabili behar dugu.	3			
5	Arriskuen ebaluazioa aldiro-aldiro errepikatu behar da.	3			
-Arriskuen ebaluazioa egin eta gero, langileak beren osasun eta segurtasunari arrisku ezagunik eragiten ez dien 1. taldeko agente baten eragipean egon direla ikusten bada, bete beharreko baldintzak hauek izango dira: arriskuen ebaluazioa egitea eta laneko segurtasun eta osasun onerako printzipioak (644/1997 EDko 4.4. art.). betetzea. **GAINERAKO GALDERAK UTZI.**					
6	Enpresak, ahal duen neurrian behintzat, ez du agente biologikorik erabiltzen.	3			
7	Langileen osasun eta segurtasunerako arriskurik egonez gero, arrisku hori saihestu edo albait gehien murriztu behar da.	3			
8	Beharrezko banakako higiene- eta babes-neurriak hartzen ditu enpresaburuak, bere kontura.	3			
9	Armairu desberdinak jartzea laneko eta kaleko arropa gordetzeko. 664/1997 (7) ED	3			
10	Dagokion agentearen eraginpean egoteari utzi ondoren egin beharreko osasun-azterketen inguruan aholku eta informazioa ematea langileei.	3			
11	Agente biologikoen eraginpean egoteari buruzko prestakuntza eta informazioa eman behar du enpresaburuak.	3			
12	Enpresaburuak agente biologikoak manipulatzeko moduari buruzko jarraibideak eta oharrak eman behar ditu.	3			
13	Gorabeheraren bat gertatu eta berehala enpresak izendatutako arduradunari jakinarazi behar zaio.	3			
14	Agente biologiko batek eragindako gorabehera edo istripuren bat gertatuz gero, berehala jakinarazi behar zaie langileei, hartu beharrezko neurriak zehaztuz.	3			
15	Ikerketa, garapen, irakaskuntza edo diagnostikoetarako 2., 3. edo 4. multzoko agenteak manipulatzen dituzten laborategiek euspen-neurri egokiak izatea.	5			
16	Elementu biologikorik ez manipulatu arren, halakoak hazten, kontzentratzen... direla eta halakoak ote dauden garbi ez duten laborategiak.	5			
17	2., 3. edo 4. multzoetako agente biologikoak erabiltzen dituzten industria-prozeduretan neurri egokiak hartu behar dira, infekzio-arriskua murrizteko.	5			
18	Agente biologikoen eraginpean egoteak eragindako arriskuak jasandako langileen osasuna ondo zaintzen dela bermatzen du enpresaburuak.	3			
19	Osasun-zaintzaren emaitzak berrikusteko eskatzea daukate langileek.	3			
20	Txerto eraginkorra duten agente biologikoen eraginpean egoteko arriskurik egonez gero, txerto horiek langileen esku jarri behar dira.	3			
21	Medikuak osasun-zaintza egiten zaien langile bakoitzaren historiala izango du.	3			

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
22	Enpresaburuak dokumentazio egokia dauka, laneko edo osasun-arloko agintarien esku uzteko prest uneoro.	3			
23	Dokumentazioa gordetzeko neurri egokiak hartzen ditu enpresaburuak.	1			
24	Arriskuen ebaluazioa egitean arriskurik hautemanez gero, enpresaburuak arauzko dokumentazioa prestatu beharko du dokumentazio hori eskatzen dion osasun edo lan-arloko agintaritzaren esku uzteko.	3			
25	2., 3. edo 4. multzoko agente biologikoak lehenbiziko aldiz erabiliz gero, enpresak garaiz jakinaraziko dio lan-arloko agintaritzari.	1			
26	3. eta 4. multzoetako agente biologikoen eraginpean egondako langileen zerrenda eta haien osasun-azterketak lan-arloko agintaritzari bidali behar zaizkio, enpresa itxiz gero.	1			
27	Langileek 3. eta 4. multzoko agente biologikoen eraginpean egoteagatik haiei buruz dagokion informazioa eskuratzea daukate.	3			
28	Arrisku-ebaluazioaren eta hartutako babes-neurrien inguruko informazio kolektibo anonimoa eskuratzea daukate langileen ordezkariek.	3			

C.2 arrisku zehatzari buruzko galdetegia. Agente kantzerigenoak

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Enpresaburuak langileei kontsultatu behar die eta parte hartzen utzi behar die, agente kantzerigenoak erabiltzen diren lanlekuetako osasun eta segurtasun gaien inguruan.	3			
2	Enpresak bere agente kantzerigeno eta mutagenoak identifikatu eta sailkatu behar ditu.	3			
3	Saihesterik egon ez den arrisku kantzerigeno eta mutagenoak ebaluatu behar ditu enpresak.	3			
4	Arriskuen ebaluazioa aldiro-aldiro errepikatu behar da.	3			
5	Enpresak azken berrikuntzak hartu behar ditu kontuan, agente kantzerigeno eta mutagenorik ez erabiltzearren.	3			
6	Ebaluazioa egin eta gero langileak agente kantzerigeno edo mutagenoen eraginpean egoteko arriskuan daudela ikusten bada: a) Eragin hori saihestu eta ordezkatzea programatuko da. b) Aurrekoa teknikoki egiterik ez badago, agentearen ekoizpen eta erabilera sistema itxi batean egiten dela ziurtatu beharko da. c) Aurrekoa ere teknikoki egiterik ez badago, eraginaren maila ahal bezainbeste murriztuko da. d) Eraginak ezin du 665/1997 EDko II. eranskinean finkatutako muga-balioa gainditu.	3			
7	Agente kantzerigeno edo mutagenoekin lan egitearen ondorioz, langileen osasuna eta segurtasun arriskutan jartzen duten jarduera guztietan higiene pertsonaleko eta banakako babes-neurriak hartu beharko ditu enpresaburuak.	3			
8	Langileei ohiz kanpoko eragina sortzen dien istripurik edo ezustekorik gertatuz gero, enpresaburuak lehenbailehen jakinarazi beharko die hori langileei eta beharrezko neurriak hartu beharko ditu.	5			
9	Eragina (ezustekoa eta ez-erregularra) murrizteko prebentzio-neurri guztiak agortutakoan, langileei eta haien ordezkariei kontsultatu eta gero, langileen eragin iraunkorra saihesteko beharrezko neurriak hartu beharko ditu enpresaburuak. Horrekin, batera, neurri osagarriak hartuko ditu, baimenik ez dutenei jarduera arriskutsuak egiten diren eremuetan sartzen utzi gabe.	5			
10	Agente kantzerigeno edo mugatenoen eraginpean egoteak eragindako arriskuak jasandako langileen osasuna ondo zaintzen dela bermatzen du enpresaburuak.	3			
11	Enpresaburuak dokumentazio egokia dauka, laneko edo osasun-arloko agintarien esku uzteko prest uneoro.	3			
12	Enpresaburuak informazio egokia eman behar die eskumeneko agintariei.	3			
13	Enpresak lanean agente kantzerigeno edo mutageno baten eraginpean egotearen ondorioz sortutako minbizi-kasu guztien berri eman behar die lan-arloko agintariei.	5			
14	Agente kantzerigeno eta mutagenoen eraginpean egotean hartu beharreko neurrien inguruko prestakuntza eta informazioa eman behar die enpresaburuak langileei eta haien ordezkariei.	3			

C.3 arrisku zehatzari buruzko galdetegia. Agente kimikoak

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Enpresaburuak ziurtatu behar du langileek edo haien ordezkariek ED honetan zehaztutako gaien inguruan parte hartzen dutela eta kontsultatzen zaiela.	3			
2	Saihesterik egon ez den arriskuak ebaluatu behar ditu enpresak.	3			
3	Arriskuen ebaluazioa egiteko (arriskuak arinak izan ala ez) eskuragarri dagoen informazio guztia erabili behar da, eta aldiro-aldiro errepikatu behar da.	3			
4	Ebaluazioa egindakoan arriskuren bat antzematen bada, ahalik eta maila txikienera murriztu beharko da arrisku hori, 374/2001 EDn finkatutako irizpideak betez.	3			
5	Ebaluazioa egindakoan arriskuren bat antzematen bada, ahalik eta maila txikienera murriztu beharko da arrisku hori, agente kantzerigenoen muga-balioa gainditu gabe.	3			
6	Agente kantzerigeno batek eragindako gorabehera edo istripuren bat gertatuz gero, berehala jakinarazi behar zaie langileei eta haien ordezkariei, hartu beharrezko neurriak zehaztuz.	3			
7	Substantzia hauek debekatuta daude: 2-naftilamina eta bere gatzak. 4-aminodifenilo eta bere gatzak. Benzidina eta bere gatzak. 4-nitrodifeniloa. ED honetan zehaztutako salbuespenetan izan ezik.	5			
8	Lanlekuan agente kimiko arriskutsuak egoteak dakartzan arriskuen inguruan prestakuntza eta informazio egokia eman behar die enpresaburuak langileei eta haien ordezkariei, babes- eta prebentzio-neurri egokiak zehaztuz.	3			
9	Agente kimikoen eraginpean egoteak eragindako arriskuak jasandako langileen osasuna ondo zaintzen dela bermatu behar du enpresaburuak.	3			
10	Langileei jakinarazi egin behar zaie agente kimiko batekin lan egiten hasi aurretik ezinbesteko baldintza dutela osasuna zaintzea.	3			
11	Langileei beraiei zuzenean dagokien osasun-zaintzari eta arriskuen ebaluazioari buruzko dokumentazioa eskuratzeko eskubidea daukate, eskatuz gero.	3			
12	Egoera bereziak daudenean, horren berri eman behar zaie langileei.	3			
13	Egoera berezietan arazoa konpontzeko neurri egokiak hartu behar dira.	3			

C.4 arrisku zehatzari buruzko galdetegia. Erradiazio ionizatzaileak

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Instalazio erradioaktiboa justifikatuta dago eskumeneko agintarien aurrean.	3			
2	Babes Erradiologikoko Zerbitzuak eta Babes Erradiologikoko Unitate Teknikoak beharrezko baimenak dauzkate eta behar bezala eratuta eta antolatuta daude.	3			
3	Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak baimen berezia eman du, ez ohiko egoeretarako eta kasu zehatzetarako.	5			
4	Instalazio erradioaktiboak baimena behar du pertsonei nahita substantzia erradioaktiboak administratzeko, bai eta gizakiei nahiz mediku edo albaitarien diagnostiko, tratamendu edo ikerketetarako animaliei emandako erradiaziotik babesteari dagokionez ere.	3			
5	Ekonomia Ministerioak efluenteak eta hondakin solidoak husteko emandako baimena.	3			
6	Eraginpean dauden langileak jardunean babestu behar dira.	3			
7	Jardunaren titularrak lanlekuak zonaka sailkatu behar ditu.	3			
8	Langileei, trebatzen ari diren pertsonei eta, ikasketak egiten dituzten bitartean, iturriak erabili behar dituzten ikasleei prestakuntza eta informazioa eman behar zaie.	3			
9	Kontrolpeko eta zainpeko zonetan lan egiteko baimena duten pertsonei jarraibide egokiak eman behar zaizkie zona horien barruan dauden arriskuen inguruan.	3			
10	Ezbeharrezko eta larrialdiko eraginen dosiak kalkulatu behar dira.	5			
11	Baimen berezia duen eragin bat, ezbeharrezko eragin bat edo larrialdiko eragin bat jasatean dosien muga gaindituz gero, azterketa bat egin behar da gorputz osoan edo kaltetutako organo edo eremuetan jasotako dosia ebaluatzeko.	5			
12	18 urtetik beherakoei ezin zaie eraginpean egotea ekar lezakeen zereginik agindu.	5			
13	Haurdun edo edoskitzen ari diren langileei babes berezia eman behar zaie.	5			
14	Laneko giroaren zainketa erradiologikoa egin behar da, kontrolpean eta zaintzapean dauden zonetan.	3			
15	Dokumentazio egokia gorde behar da, laneko edo osasun-arloko agintarien esku uzteko prest uneoro.	1			
16	Eraginpean egondako langileek jasotako dosien banakako zainketa egokia egin behar da.	3			
17	Banakako neurketarik egitea ezinezkoa bada edo ez bada komeni, dosien kalkulu bereziak egin beharko dira.	1			
18	Eragina jarduera edo instalazio batean baino gehiagotan jasaten duten langileek, xehetasun hori jakinarazi beharko dute.	1			
19	Erradiazio ionizatzaileen aurkako osasun-babesari buruzko dokumentazioa eskumeneko erakundeetan aurkeztu behar da.	1			
20	Zainpeko eta kontrolpeko zonak ondo zedarrituta egon behar dute, bertan eraginpean egoteko arriskua dagoela argi ikusteko moduan.	3			
21	Kutsatzeko arriskua dagoen kontrolpeko zonetan dagoen arriskuaren araberako NBEak erabili behar dira.	3			
22	Kutsatzeko arriskua dagoen kontrolpeko zonen irteeretan, detektagailuak jarri behar dira pertsonak edo ekipoak kutsatu ote diren ikusteko.	3			
23	Eraginpean egondako langileak ondo sailkatu behar dira.	3			

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
24	Kontuan hartu beharreko jardun guztietan jasotako dosien baturak ezin ditu dosietarako finkatutako mugak gainditu.	3			
25	Jardunaren titularrak dosiak mugatu behar ditu eta Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak dosi horiek ebaluatu eta onartu behar ditu. Eragin handia ekarriko duten egoerak aldez aurretik justifikatu behar dira.	3			
26	Erradiazio ionizatzaileen eraginpean egoteak eragindako arriskuak jasandako langileen osasuna ondo zaintzen dela bermatu behar du enpresaburuak.	3			
27	Medikuak osasun-zaintza egiten zaien langile bakoitzaren historiala izango du.	3			
28	Hondakin erradioaktiboak ondo biltegiratu behar dira.	3			

C.5 arrisku zehatzari buruzko galdetegia. Zarata

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Zarataren eraginpean egoteak dakartzan arriskuak iturrian bertan ezabatzen edo murrizten ditu enpresaburuak.	3			
2	Ezabatu edo murriztu ezin izan diren zaratak ebaluatu behar ditu enpresaburuak.	3			
3	Ebaluazioa egiteko emaitza fidagarriak ziurtatzen dituzten metodologia eta tresnak erabili behar dira.	3			
4	Eguneko maila baliokideak finkatutako mailak gainditzen dituen lanpostuetan, neurriak hartu beharko dira.	1			
5	Soinu-mailak eta hartu beharreko neurriak berehala jakinarazi behar zaizkie langileei eta haien ordezkariei.	3			
6	Zarataren eraginpean egongo diren langileei hasierako osasun-azterketa bat egin behar zaie, eragin hori sortu aurretik edo sortu eta berehala.	3			
7	Entzumenaren osasun-azterketak egin behar dira aldiro-aldiro, eragin-mailaren arabera.	3			
8	NBE egokiak erosteko aukera ematen duen erosketa-politika dago enpresan, soinu-mailaren maiztasuna analizatzeko azterketak eginez, esate baterako.	3			

C.6 arrisku zehatzari buruzko galdetegia. Substantzia arriskutsuak

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Istripu larriak prebenitzeko duen politika idatziz zehaztu eta dokumentatu du enpresaburu, finkatutako epeetan.	3			
2	SKS bat finkatu behar du enpresaburuak, ondorengo alderdiak zehaztuz: istripu larriak prebenitzeko politika zehaztu eta betetzeko dauden baliabideak, enpresaren antolaketa orokorra, erantzukizunak, prozedurak eta jardunak.	3			
3	SKS-an istripu larrien prebentzio eta kudeaketaz arduratzen diren langileen eginkizun eta erantzukizun guztiak zehaztuta daude, enpresako maila guztietan.	3			
4	SKS-an langileek behar duten trebakuntza zehazten da.	3			
5	SKS-ak istripu larrien arriskuak identifikatu eta ebaluatzea bermatzen du.	3			
6	Instalazioetan edo biltegiratze-zonetan edo instalazio, prozesu edo biltegiratze-zona berriak diseinatzeko egin beharreko aldaketak egiteko prozedurak finkatzen ditu SKS-ak.	3			
7	Instalazioa, establezimendua edo biltegiratze-zona aldatuz gero, ondorengoak berrikusi eta, behar izanez gero, aldatu beharko ditu enpresaburuak: istripu larriak prebenitzeko politika, segurtasuna kudeatzeko sistema, barruko larrialdi-plana eta segurtasun-txostena.	3			
8	Etengabe eta aldiro-aldiro ebaluatu behar da SKS-a eta, betetzen ez bada, ikerketa- eta zuzenketa-neurriak hartu beharko dira.	3			
9	Arrisku larriak prebenitzeko politika eta SKS-aren beraren eraginkortasun eta moldagarritasuna aldiro-aldiro eta modu sistematikoan ebaluatzen dela bermatzen du SKS-ak.	3			
10	Establezimenduan dauden edo egon litezkeen edo industria-prozesua kontrolik gabe geldituz gero sortu litezkeen substantzia arriskutsuak identifikatu, sailkatu eta zenbatu ditu enpresak.	3			
11	SKS-ak egon litezkeen larrialdiak identifikatzen ditu, azterketa sistematiko bati jarraiki. Horrekin batera, Barruko Larrialdi Plana (BLP) prestatu, egiaztatu eta berrikusten du.	3			
12	Enpresaburuak industria-establezimenduko BLP prestatu behar du, langileei eta haien ordezkariei kontsultatuta. Gero, autonomia-erkidegoko eskumeneko organoari bidali behar dio Plan hori.	3			
13	SKS-aren bidez istripu larriak jakinarazten direla eta istripuok ikertu eta jarraipena egin zaiela ziurtatzen da, guztia ere ikasitakoa oinarritzat hartuta.	3			
14	Istripu larria eragin lezakeen gorabehera edo arriskuren bat gertatu eta berehala, enpresaburuak, bide egokienak erabiliz, ondorengoak jakinarazi behar dizkie bere autonomia-erkidegoko eskumeneko organoei: a) Istripua edo gorabehera, gertatu eta berehala. b) Haren ezaugarriak, albait lehen. c) Istripuaren kausak eta eragindako ondorioak, xehetasun guztiekin. d) Hartutako prebentzio- eta zuzentze-neurriak. e) Hala badagokio, emandako informazio eguneratua, ondorengo ikerketetan oinarrituta.	5			
15	Enpresaburuak eskumeneko agintariekin batera egiten du lan, bere establezimenduan hasitako istripu larriren bat jasan lezaketenek hartu beharreko segurtasun-neurriei eta, istripua gertatuz gero, izan beharreko jokamoldeari buruzko informazioa jaso dezaten.	3			
16	Erregelamenduari jarraiki beharrezkoak diren informazio eta datuen jakinarazpena bidali behar die enpresaburuak, bere industria-establezimendua dagoen autonomia-erkidegoko eskumeneko agintariei.	1			
17	Segurtasun-txostena idatzi eta agindutako epean bidali die enpresaburuak, bere industria-establezimendua dagoen autonomia-erkidegoko eskumeneko agintariei.	3			
18	Segurtasun-txostena aldiro-aldiro berrikusi eta, behar izanez gero, eguneratu egin behar du enpresaburuak, bere autonomia-erkidegoko eskumeneko organoari xehetasun guztiak jakinaraziz.	3			

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
19	Instalazioetan aldaketarik gertatuz gero edo bolada baterako nahiz betiko itxiz gero, enpresaburuak berehala jakinarazi beharko dio hori industria-instalazioa dagoen autonomia-erkidegoko eskumeneko organoari.	1			
20	Kanpoko Larrialdi Plana (KLP) prestatzeko behar duten informazio eta laguntza guztia eman die enpresaburuak autonomia-erkidegoko eskumeneko organoei.	3			

C.7 arrisku zehatzari buruzko galdetegia. Bibrazio mekanikoak

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Enpresaburuak langileek jasandako bibrazio mekanikoen maila ebaluatu eta, behar izanez gero, neurtu egin beharko du.	3			
2	Enpresaburuak arriskuen ebaluazioa eguneratu eta berrikusi behar du.	3			
3	Bibrazioen eragina ezabatzeko edo murrizteko hartu beharreko neurriak eta langileei eman beharreko informazioa eta prestakuntza zehaztu eta halakoen plangintza prestatu behar du enpresaburuak.	3			
4	Bibrazio mekanikoak eta haiek eragindako arriskuak albait gehien murrizteko neurri teknikoak nahiz antolakuntza-mailako neurriak finkatu eta programatu ditu enpresaburuak.	3			
5	Lanlekuan bibrazio mekanikoek eragindako arriskuen eraginpean dauden langileek eta haien ordezkariek arrisku-ebaluazioaren emaitzen inguruko prestakuntza eta informazioa jasotzen dutela ziurtatu behar du enpresaburuak.	3			
6	Enpresaburuak langileei kontsultatu behar die 1311/2005 EDn jasotako alderdien inguruan.	3			
7	Langileen osasuna ondo eta arretaz zaindu behar du enpresaburuak.	3			
8	Kasu berezietan, osasun-zainketa indartua jasotzeko eskubidea dute langileek.	5			
9	Osasun-zainketan agerian gelditzen bada langileren batek gaixotasun edo gaitzen bat duela lanlekuan bibrazio mekanikoen eraginpean egotearen ondorioz, medikuak dagozkion jakinarazpenak egin beharko ditu.	5			
10	Osasun-zainketan agerian gelditzen bada langileren batek gaixotasun edo gaitzen bat duela lanlekuan bibrazio mekanikoen eraginpean egotearen ondorioz, enpresaburuak dagozkion zuzenketak egin beharko ditu.	5			

C.8 arrisku zehatzari buruzko galdetegia. Amiantoa

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Enpresaburuak ziurtatu behar du langileek ez dutela ondorengo amianto-kontzentrazioak muga-balio honen azpitik egon behar du: 0,1 zuntz cm^3-ko, zortzi orduko aldi bateko batez besteko haztatu moduan neurtua.	5			
2	Lan-giroa ebaluatu eta kontrolatu behar du enpresaburuak.	3			
3	^{3}.1. artikuluarekin zerikusia duten jarduera guztietan, amiantotik datozen zuntzen edo amiantoa duten materialen eraginpean dauden langileek jasandako eraginak muga-balio honen azpitik egon behar du: 0,1 zuntz cm^3-ko, zortzi orduko aldi bateko batez besteko haztatu moduan neurtua.	3			
4	Enpresaburuak beharrezko antolakuntza-neurriak hartu behar ditu 3.1. artikuluan zehaztutako jarduera guztietan.	3			
5	Arnasbideak babesteko NBEak daude eskuragarri.	3			
6	3.1. artikuluarekin zerikusia duten jarduera guztietan, higiene pertsonaleko eta norbera babesteko neurriak betetzen ditu enpresaburuak.	3			
7	Airean dagoen amiantoa mugatzeko prebentzio-teknikak erabili arren, muga-balioa (0,1 zuntz cm^3-ko, zortzi orduko aldi bateko batez besteko haztatu moduan neurtua) gainditu lezaketen jarduerak (eraisketa, amiantoa kentzea, mantentze-lanak edo konponketa-lanak) egitean, jarduera horietan langileak babesteko neurriak jarri behar ditu enpresaburuak.	3			
8	Eraispen- edo mantentze-lanak egiten hasi aurretik, amiantoa izan lezaketen materialak identifikatzeko neurri guztiak hartu behar ditu enpresaburuak.	3			
9	Amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanak egiten hasi aurretik, laneko plan bat prestatu behar du enpresaburuak.	5			
10	Amiantoa duten hautsen eraginpean dauden edo egon litezkeen langile guztientzako trebakuntza egokia ziurtatzen du enpresaburuak.	3			
11	Langileek eta haien ordezkariek informazio zabala eta xehea jasotzen dutela ziurtatzeko behar diren neurriak hartu behar ditu enpresaburuak, 3.1. artikuluan zehaztutako jarduera guztietan.	3			
12	Enpresaburuak langileei kontsultatu behar die 1311/2005 EDn jasotako alderdien inguruan.	3			
13	Langileen osasuna eta arretaz zaindu behar du enpresaburuak.	5			
14	Enpresa RERAn inskribatuta egon behar du.	3			
15	Enpresak artxibo batzuk dauzka dagokion dokumentazioarekin eta aldiro-aldiro eguneratzen ditu.	3			
16	Amiantoarekin egiten diren lanetan egondako eraginen ebaluazioko datuak erregistratzeko fitxak lanarloko agintaritzari bidaltzen ditu enpresak, planak araututako lanak amaitutakoan.	1			
17	Langileen berariazko osasun-zainketari buruzko datuak erregistratzeko fitxak osasun-arloko agintaritzari bidali behar zaizkio.	3			
18	Ingurumen-ebaluazio eta -kontroleko datuak, langileen eraginari buruzko datuak eta langileei egindako berariazko zainketari buruzko datuak eragina bukatu eta 40 urtean gorde behar dira gutxienez.	1			

C.9 arrisku zehatzari buruzko galdetegia. Atmosfera leherkorrak

Zk.	Baldintza	B	Betearazpena		
			B	E	EA
1	Egindako jarduera-motaren arabera behar diren antolakuntza-neurriak eta neurri teknikoak hartu behar ditu enpresaburuak.	3			
2	Aurreko neurriez gain leherketak zabaltzea galarazteko neurriak hartu behar ditu enpresaburuak.	3			
3	Hartutako neurriak aldiro-aldiro berrikusi behar ditu enpresaburuak.	3			
4	Atmosfera leherkorrek eragindako arrisku zehatzak ebaluatu behar ditu enpresaburuak.	3			
5	Langileen osasun eta segurtasuna babesteko beharrezko neurriak hartu behar ditu enpresaburuak.	3			
6	Enpresako jarduerak koordinatzeko bitarteko egokiak finkatu behar ditu enpresaburuak.	3			
7	Atmosfera leherkorrak sortu daitezkeen zonak eta eremuak sailkatuta eduki behar ditu enpresaburuak.	3			
8	Atmosfera leherkorrak sortu daitezkeen eremuetan, atmosfera horien eraginpean egon litezkeen langileen segurtasuna hobetu eta osasuna babesteko gutxieneko xedapenak bete behar ditu enpresaburuak.	3			
9	Atmosfera leherkorrak sortu daitezkeen eremuetan, babes-aparatu eta -sistemak aukeratzeko irizpide batzuk finkatu behar ditu enpresaburuak.	3			
10	Langileen osasun eta segurtasunerako arriskutsuak izaterainoko atmosfera leherkorrak sortu daitezkeen eremuetarako sarbideak ondo seinaleztatu behar dira.	3			
11	Leherketen aurka babesteko dokumentu bat prestatu behar du enpresaburuak.	1			
12	Leherketen aurka babesteko dokumentua eguneratuta eduki behar du enpresaburuak.	1			